

Jose Migel Izurieta

«LAZKAO - TXIKI»

IRRIZ

ETA  
MAIKOZ



# IRRIZ

ETA

# MALKOZ

# I



SEDOA

Sendoa Argitaldaria

Auspoa Liburutegia



AUSPOA



EUSKALTZAINDIA

AZKUE BIBLIOTEKA

---

**SENDOA ARGITALDARIA**

Ugaldetxo auzoa

Tel. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Jose Migel Iztueta

---

«LAZKAO - TXIKI»

# IRRIZ ETA MALKOZ

## I

ANTONIO ZAVALA'ren zuzendaritzapean



SENOA

SENOA ARGITALDARIA  
AUSPOA LIBURUTEGIA




AUSPOA

(1994)

© SENDOA ARGITALDARIA

© Bertsuen gainean Lazkao Txikiren oinordekoak 1994.  
Fotokonposizioa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz  
ISBN: 84-89080-09-7  
ISBN: Lan osoa: 84-89080-11-9  
Legezko Gordailu: S.S. 1.105/94



Jose Migel Iztueta Kortajarena  
«Lazkao-Txiki»

## ITZAURREA

Nere ezjakintasunak eta idazteko oitura-faltak baiño indar geiago izan du Lazkao-Txikirenganako maitasunak, eta berari zor diodan oore eta esker onak. Pentsamentu ori izan det buruan letra auek idazterakoan, eta bai liburu auek prestatzerakoan ere. Orrela egin ezik, izan ere, ez nintzan gustora geldituko.

Badakit Lazkao-Txikiren izakeraren eta lanaren aurkezpena egitea oso zailla dala. Orregatik, itz labur auetan asmo bakarra izan det: ez Joxe Migelen azterketa edo ikerketa sakon eta mamitsu bat eskeintzea, ori urteen buruan geroak egingo diona baita; baizik-eta gertakizun eta ikuspegi batzuk azaltzea, al dedan erarik errezenean.

Asieratik, nere iritzi bat agertu nai nuke: artista eta jenioak jaiotzetik izaten dirala artista eta jenio, eta Lazkao-Txikirekin ere orixe gertatu zala. Argi ta garbi dago Lazkaoko Abalingo semea oso goiz asi zala munduaren eta bizitzaren izkutuak miatzen eta aztertzen.

Geroago ikusiko degunez, oso gaztetik ikasi zuan gure Joxe Migelek lur ontako gozo-mikatzen berri; emengo pozak eta penak zer diran alegia. Baiña orrek ez du esan nai beraren aurtzaroa oroitzapen gozo ugariz beteta egon etzanik.

Mundu majiko bat izan zan arentzat eskola. Zer zorame-na letrak alkarganatzen asitakoan! Irakurtzen eta idazten oso illabete gutxitan ikasi zuala esan oi zuan.

Bereala asi zan bertsoen letra-jokoak ikasten, itz rimatuak zer ziran kontuan artzen eta bere buruan aurreneko bertsoak asmatzen. Bertsolariei entzutean bai esan ere:

— Neronek ere egingo nikek, ba, ori!

Aurtzaroko oroipenak bultzatzen zuten, neurri aundi batean, aurrak txoramenez maitatzera. Lazkao-Txikik eta

aurtxoak bat egiten zutela esan diteke irrian, begiratuan, iduripenean, mimikan... Bere bizitzako parre gozoenak eta pozgarrienak aiekin egin zituan. Zenbat aldiz ikusi genduan aurtxo-mordoska baten erdian, zapo-aoa zidurien diru-poltsa aietako bat ireki ta aiei txanpon banatzen! Zer galderak! Zer erantzunak! Zer poza Joxe Migelena! Bere parean pasatako aurrik etzuan bein ere utziko kaso egin gabe.

Aurtzaroko oroipen asko kontatzen zituan. Ona oietako bat. Beraren amaren aizpa Olaberriko Otxoetegi baserrian bizi zan. Erri ontan San Juanetan izaten dira festak; eta egun orretan urtero etortzen zan Joxe Migel bazkaltzera, bere gurasoekin batera. Baiña azkar asko konturatu zan mutikoa, urtea joan eta urtea etorri eta beti gauza berak aitatzen zituztela:

— Egun on! Baita zuei ere! Etorri zerate? Belarrak ondo? Eta gariak? Eta artoak?

Urrengo urtean ere berdin, eta Joxe Migelek onela esaten zion bere buruari:

— Obligazioa izango dek. Beti berdin esan bearko dik.

Beste maitasun aundi bat izadia zuan: zelaiak, mendiak, zugaitzak, loreak, txoriak, piztiak... Zaldibiko Gurutzeta baserria ere, aurrean daukan zelai aundi ederrarengatik erosi zuan. An ikusi nuan bein sasiondo batetik birigarroen abesti politak grabatzen.

Baiña txoramen eta gozamen aparta bere txakurrekin zuan. Edozein pertsonarekin bezela itzegiten zuan aiekin. Zenbat kontu esan ere! Bein, zelai eder orren erdian bi txakurrekin geundela, onela esan zidan:

— Orain ikusiko dek zer teatro polita egingo dedan bi txakur auekin.

Ala, berak, Joxe Migelek, bere burua lurrera bota zuan bat-batean, ondoez bat izan balu bezela. Eta bi txakurrak joan eta an jartzen zaizkio, belarri banatan muturra sartuta, buztana ta ankak dardar batean zituztela, beren nagusi mai-teari zer desgrazi gertatu zitzaion jakin nairik bezela.



Askotan, txapela baztar batean izkutatzen zuan, ta bere txakurrei onela esaten zien:

— Orain ere galdu diat, ba, txapela! Nun ote dek?

An asten ziran billa, ara ta onera, batera ta bestera. Baita azkar asko arkitu eta beren nagusiari pozik ekarri ere.

Une zoriontsuak zituan aiek, mundu ontako arazo, burruka eta itxura gezurtiak, une batez beintzat, aztu arazten zizkiotenak.

Joxe Migel betiko markatuta utzi zuana jakintza-gosea izan zan. Bein baiño geiagotan entzun izan nion:

— Naiago nian praile biali baniñuten! Sikira, ikasi egingo nian!

Autodidakta osoa zan. Danak bere kasa ikasten zuana alegia, gauza guziei gora-beera asko emanaz eta liburu asko irakurriz.

Ez da egia, askok ala uste izan arren, Lazkaoko beneditarrak eskolatu eta bertsoarako prestatu edo gertutu zutela. Oso tratu gutxi izan zuan praileekin, eta bertso-kontuetan batere ez.

Laster ikasi zuan lastoa ta alea bereizten. Amasei urte-ekin ere, goitik beera irakurri eta ausnartzen omen zituan Orixeren eta Lizardiren lanak. Xalbadorren *Odolaren mintzoa* eman nionean, artu liburua, zakurra ezurra arrapatzen duanean bezela txoko batera joan, bi edo iru orrialde irakurri ondoren etorri eta onela esan zuan:

— Au irakurri ta gero, guk zer idatzi bear diagu?

Garai berdintsuan argitaratu ziran Uztapideren *Lengo egunak gogoan* eta *Sasoia joan da gero*. Lazkao-Txiki zearo arritu zan Uztapidek nolatan ainbeste eta ain ondo idatzi zezakean. Onela entzun nion:

— Manueli esaiok len karta bat idazteko etzala kapaz, eta orain ez dala geldituko idazten!

Ortaz enteratu zanean, Uztapideren parrak! Ikusten denez, bertso-saioren baterako erantzunen bat eman bear zanean-edo, Manuelek onela esaten zion beti Joxe Migeli:

— Bi letra idatzi bearko dituk, ba!

Bai onek zintzo asko agindu ori bete ere. Orregatik arri-tzen zan gero Uztapide zarrak orrenbeste idaztearekin.

Beste bein, Gurutzeta baserriko zelai aundian geundela, onela esan zuan Lazkao-Txikik:

— Esaiok Manueli egun batean onera etorri bear duala eizera. Nik zelaian jareingo diet galeper batzuei, gero berak botatzeko.

Lagun zaarraren gaixoaldiaren egun luzeak nolabait ere alaitu egin nai alegia.

Lazkao-Txikiri askotan esaten genion:

— Libururen bat noiz idatzi bear dek?

— Bai... Bai... —esaten zuan.

Baiña batean, guk ondo ulertzeko moduan, onela erantzun zigun:

— Liburua zertarako? Gero zuek ezin saldurik ibiltzeko?

Joxe Migelek oso lan ezberdiñak probatu zituan. Jaiote-txean, oso gazterik asita, sortaka eraman bear izaten zuan ganadu-jana ikullura. Igeltserotzan gero. Urrena, Lazkaoko *Fundiciones Arriarán* izenekoan. Pentsu saltzen ere bai...

Saltzaille bezela etzuan balio, ordea. Ortan ere fiñegia izan eta geiegi pentsatzen zuan. Onela zion:

— Nik lagun orri pentsua saldu? Lagun geralako erosiko zidak. Baiña orain oilloak puri-purian arraultzak jartzen; eta, pentsua aldatuta, jartzeari utzi egingo ziotek, edo gutxi-tu beintzat...

Gero, leen esan bezela, Zaldibiko Gurutzeta baserria erosi zuan. Au bai izan zala arentzat amets aundi bat egi biurtzea. Antxe zeukan bere poza eta txoramena, batik-bat

ederki kostata bada ere ordaintzen bukatu zuanean. Onra aunditzat zeukan baserri baten jabe izatea.

Andik aurrera etapa berri bat asi zuan, ordurarte eziñezkoa izan zitzaiona: baserria berritu, teillatutik asita. Gero, barruak, sukaldea ta logelak, oe guztiak dotore jantzita. Zer ilusioekin eramaten zituan bere lagunak ikustera! Baiña oso egun gutxi izan zituan bere artaz gozatzeko. Destino tristeak bereala eraman zuan betiko.

Gurutzeta baserriarekin izan zituan zorion eta poz oietaz aparte, bere bizitzan egun asko izan zituan ibillaldiak egiteko artuak. Aren zoramena eizeko egunetan! Aralar mendiko San Migela sarritan joaten zan. Ume bat zapata berriekin bezin pozik etorri zan gurekin batera Madrilla, Andaluzira, Galizira eta abarrera.

Ibillaldi auetako batean, Joxe Migelek tresna txiki bat eraman zuan berekin: *altímetro* edo altura neurtzekoa. Asi gera goraka egazkiñean eta, berreun metrora-edo markatu zuanean, an gelditu zaio aparatua. Deitu dio azafatari:

— *Oiga, señorita. El altímetro no me marca más que doscientos metros de altura. Se me ha parado. ¿A qué altura vamos ahora?*

— *Pues iremos a nueve mil metros.*

Olaxe gozatzen zuan gure Joxe Migelek. Andaluzira irixitakoan, berriz, kastañuelak bere beatzetan jarri zituan; eta, belarri ona eta arreta baitzeuzkan, bai azkar asko jotzen ikasi ere.

Bada, ordea, beste alderdi illun eta tristea Joxe Migelen bizitzan, aitatu gabe ezin utzi ditekena.

Beraz, suerte txarrekoa zala esan oi zuan. Asko sufritzen zuan, izan ere. Sarritan, erreta ez, kiskalita ikusi oi genduan. Bertso-zati auek asko argituko dute esaten ari gerana:

Erdi galdurik ibiltzen nintzan  
umezurtz baten moduan,

Jaungoikoari galdetzen nion  
zergatik egin ninduan.

Beste au:

Neke azpian ibilia naiz  
gazte denbora guzian.

Baita onako au ere:

Beste aur batek izan ote du  
olako bizi tristerik?  
Iru bat urte pasa nituen  
pasatu gabe goserik.

Aspertuta edo nazkatuta egoten zan sarritan bere bertso-lanarekin. Bein baiño geiagotan entzun izan genion:

— Ez ote zaidak loteria edo kinielarik tokatuko, emendik urrutira, iñork ezagutuko ez nauen tokira, alde egiteko? Naiago nian emen jaio izan banintz!

Bertsolariaren bizitza gogorra eta astuna dala ederki adierazten digu bertso onen bidez:

Bertsolaritza gauza alai bat  
dalakoan asko daude,  
gauzak bestela sinistatzea  
da guztiontzako obe.  
Naiz umore txar, naiz miñez izan,  
naiz kantatzeko ez trebe,  
amaika aldiz abitzen gera  
umore askorik gabe.

Beste zati bat:

Nere amatxo maitea il da  
andikan bost egunera,  
negarra egin eta kantari  
juan nintzan erri batera.

Bertsolaritzaren gaillurrean betirako eta urrezko letretan idatzita geldituko dan izena da Lazkao-Txikirena.

Aren bertsogintza esan nai aberatsekoa izan da; umilla, serbitzala eta bai didaktikoa ere, bere miñik gabeko piparra-rekin.

Ez da iñola ere egia, norbaitek esan duan bezela, aldaketarik etzuala maite. Aize berriak ere pozik artzen zituan arek, euskera geiago itzegin eta obetzeko baldin baziran. Baita ere euskaldunak batutzeko edo-ta indar geiago artzeko.

Batasuna zuan arek bere elburu nagusia, alkar artu eta erria altxatzeko. Burutapen sakonak arenak; ez axalekoak. Biotza zulatzen zioten kezka askotan agertu zizkigun:

— Euskera salbatuko ote da? Gero eta geiago eta obeago itzegingo al degu? Batuko al gera euskaldunak?

Ara bertso-zati ontan zer dion:

Ainbat partidu, ainbeste zati,  
egin zagun esamiña:  
bat bear eta danak banaka,  
orrek ematen du miña.

Orretzaz gaiñera, zer geiago esan dezakegu Lazkao-Txikiri buruz? Gauza asko esan dira ura zer zan adierazi nairik: maisuen maisu; antzekorik berriz sortuko ez dana; bertsolari, txiolari; bertsolarien munduan aundietan aundia; izar misteriooa; aundia zala ez jakitea aren aunditasuna; miñik gabeko pipar bizia; ogeigarren gizaldiko Fernando Amezketarra; fintasuna eta gordinkeria berezi oi zituan marra; gizon aundien burua eta aurtxoan biotza; negar egiten zuan komikoa; gizaldi bat betetzeko moduko bertsolari aparta; eta geroak esango dituanak.

Oiek danak alderdiren bat argitzen digutenak; baiña bat ere ez aren osotasuna eskeintzen diguna.

Nere esker ona agertu nai diet liburu onen gaiak biltzen alegindu diran guztiei. Naiz eta leendik gauza asko eskuratu eta ongi gordeak genituan, danon laguntza gabe etziran liburu auek ain mardul, dotore eta aberats agertuko. Adiskide on oien izenak liburuen barruan ikusiko ditu irakurleak.

Itzaurre ontan aitatzea luzeegia litzake, eta utsegite asko egiteko arriskua ere berekin izango luke.

Ulert erreza danez, Lazkao-Txikiren bertso, gertaera, ateraldi eta txiste guziak, aren berrogei urteko euskeraren aldeko lanak alegia, ez daude bi liburu auetan. Olako beste asko beariko lirake, aren guziak sartzeko. Oraindik ere nun eta zer eskuratu eukiko du, noski, artan saiatu nai duanak.

Azkenean, lerro auei bukaera emateko, agur bero eta luze bat bialdu nai genioke zeruraiño bertsolari fin, sentikor eta erromantiko orri; izarren artean oltzadurarik gabe gaur ere bertso-jaialdiren batean kantuan ariko dan orri.

Eta zuk bialdu iguzu txorien txorrotxioetan zure oraingo doiñu eta bertsoen oiartzuna, mundu triste ontan apur bat bederen alaitu gaitezen.

Joakin Berasategi

# **BIZITZAREN ARGIBIDEAK**

## BIZITZAREN EGUN BEREZIAK

### Aur eta gazte-denbora

1926-IX-15: Lazkao errian, Lazkaomendi auzoan, eta Abaliñe baserrian, mundu ontara dator Jose Migel Iztueta Kortajarena, *Lazkao-Txiki* bertsolaria izango zana.

Gurasoen izenak: Felipe eta Maria Inazia; eta zazpi senide izan ziran, gure Joxe Migel azken aurrekoa izanik.

1934: zortzi urterekin asten da eskolan, Lazkaomendin bertan, ikasketa guziak euskeraz egiñez, gerra aurre artan.

1936: Anai arteko guda. Gogoan izaten zuan Joxe Migelek nola ikusi zituan reketek-eta Naparrotik Lazkao aldera sartzen.

Urrena, Lazkaoako eskolara joaten asi zan. Baiña an erdera nagusi.

Bitartean, etxeko lanetan lagundu. Onela esan esaten zuan berak bein baiño geiagotan:

— Gure etxeko saillak aldapatsuak dira, eta makiña bat ler gaizto egin bear izan nituan, ganau-janak sortaka igoz, nik sorta aundirik ez nuan eramango baiña.

1947-an bete zituan soldaduskara joateko urteak. Afrikara joan bearra izan zuan, bi urterako gaiñera. Morrontza ori asi eta bukatu zituan urte eta egunak ez dakizkigu, zeatz esateko. Baiña aren garai artako bi argazki badira, tokia eta eguna esaten dutenak gaiñera: Tetuan, 1948-III-20; eta Tetuan, 1948-XI.

### Lana

1943 urtean-edo, amazazpi urterekin alegia, kalean asten da lanean, igeltserotzan, Lazkaon bertan.



*Seguridad Social* dalakoaren agirietan irakurtzen danez, 1946-VII-1-tik 1947-VIII-28-ra Oiarbide Urteaga nagusiarekin lan egiten du, igeltserotzan jarraituz.

1957-XI-4-etik 1958-VI-28-ra, Jose Antonio Intxausti Tolosarekin lan egiten du, igeltserotzan nagusi onekin ere.

1958-VI-29-an, Lazkaoko *Fundiciones Arriarán* lantokian asten da lanean; eta 1967-VI-30-an andikan irten.

1964-an, Iruñako *Cometa* etxeko pentsuak saltzen asten da.

1967-VI-30-ean, *Fundiciones Arriarán* dalako ortan *baja* ematen du.

1967-VII-1-ean, leengo lantokitik atera zan biaramonean alegia, *Cometa* etxearen izenean ageri da *Seguridad Social* dalakoan. Andik aurrera pentsuak saltzera erabat saiaturiko zan.

1973-I-15-ean, pentsu saltzeari uzten dio.

1973-V-3-an, Zaldibiko Gurutzeta baserria erdibana erosten dute Lazkao-Txikik eta Beasaingo Sebastian Sarasolak, eta txerri eta ganadu azitzen asi.

1986-VI-6-an, bere sozio orri beraren partea erosten dio, Gurutzeta baserriaren jabe bakarra bihurturik.

## **Bertsolaria**

1936-V: bederatzi urterekin entzuten ditu leendabiziko aldiz bertsolariak, Uztapide eta Zepai ain zuzen, Lazkaomendira bertsotara etorriak.

Jende aurrean Legorretan kantatu zuan leenengoz, bal-koi batetik, Korpus egun batean.

Amazazpi urterekin, Saiburu eta Basarrirekin kantatu zuan, Lazkaoko San Prudentzio ermita ondoan.

Soldaduskatik etorri ondoren, 1950 urtean, Tolosan bertsolari gazteentzat antolatutako txapelketa batean, leenengo saria irabazten du.

1962 urtean, Euskal-Erriko bertsolari-txapelketa nagusia jokatzeko da. Beasaingo saioan, 1962-IX-30-ean, Lazkao-Txikik txapela. Baita Eibarko azken aurrekoan ere, 1962-XI-11-n. Gipuzkoako azken saioan, Ernanin, 1962-XII-9-an, bigarren gelditu zan, Mitxelenaren ondotik. Euskal-Erri osoko finalean, 1962-XII-30-ean, Uztapide, Basarri eta Xalbadorren ondotik gelditzen da.

Urrengo bertsolari-txapelketan, Tolosan, 1964-XII-13-an, Gipuzkoako txapela berak irabazten du; eta Donostiko finalean, 1965-I-1-ean, Euskal-Erri osoko bigarren gertatzen da, Uztapideren ondotik.

1967-VI-11-an, Donostian, Euskal-Erri guziko azken saioan, laugarren gelditzen da, Uztapide, Xalbador eta Lopategiren ondotik.

1976-I-25-ean, omenaldia egiten zaio Donostian, jendetza aundia bildurik, lau millatik gora, naiz eta egun artan elurak bide asko itxi.

Beste zenbait omenaldi ere eskeintzen zaizkio an eta emen: Lazkaomendin, Zegaman (1979-XI-11), Oñatin (1985-IV-27), Zestoan...

1991-IX-15, irurogei ta bost urte betetzen zituan egunean, zaar-saria artzen ere asi zan egunean ain zuzen, omenaldia egiten diote Beasañen.

1993-I-24-an, Aita Santiago Onaindia eta Alfontso Irigoienen omenaldian, jende aurreko bere azken bertsoa kantatzen du.

## **Eriotza**

Biamamonean, 1993-I-25-an, Donostiko Poliklinikara dijoa, biotz-operazio bat egitera. Lo artu arazi bai, baiña ez da geiago esnatzen, koman sartuta.

1993-IV-3-an, azken arnasa ematen du.

Biamamonean, beraren illetak Lazkaoko parrokian, Euskal-Erri guziko bertso-zale jendea azken agurra ematera etorria zalarik.

## NERE ARGIBIDE BATZUK

*Bere bizitzari buruz argibide jakingarri auek Lazkao-Txikik emanak dira noizbait eta nunbait; eta ez dakigun lagunen batek magnetofonoz grabatuak.*

### ABALIÑE

Asieran Iztueta esaten zidaten geienak; abizena. Baiña gero Ataungo batek jarri zuala-edo. Baiña olaxe: kolpean azaldu zan da *bueno*: Lazkao-Txiki. Neri berdin dit. Orregatik, ez aunditu ta ez txikitu: izenagatik.


Lazkaomendi auzoa da au  
eta Lazkao erria,  
eta kantari asi naizena  
Abaliñe baserria.  
Zu izan ziñan nere sortetxe,  
babesa eta tokia,  
palazio bat etzera baiña  
neretzat berdingabia.

Ni 1926-garren urtean eta iraillaren 15-ean jaio nintzan, baserri ontan. Abaliñea du izena, eta Lazkaoko etxerik goienekoa da.

Zazpi senide giñan. Bi anai bizi gera: gazteena eta ni. Ni, gazteenaren aurrekoa.

### ESKOLA

Zortzi urtetan asi nintzan eskolan. Or bean dago auzoko eskola, diputazioak edo aldundiak gerra aurreko urteetan egiña.



MARIA INAZIA KORTAJARENA MUJIKA.

Lazkao-Txikiren gurasoak.

"Bainan esatezkeru  
gauza garbi dana,  
maisurikan onenak  
aita eta ama".



FELIPE IZTUETA SASIAIN.

Dana euskeraz ikasi genduan. Bai. Asi irakurtzen da idazten-da, dana euskeraz. Au zan, euskerari indar pixka bat emateko ba, errepublika-garaian egindako ikastola. Ba, or ibili giñan gero.

Bi aldiz eraman giñuzen Donostira gerra aurretik. Autobusik ez genduan bein ere ikusi. Nola, ba, emen jaio ta orre-ra, auzo-eskola ortara bertara joanda? Maestra genduan neska-mutillentzat eta onela esan zigun:

— Mareatzen dana ez da joango, egun guzian gaizki ibiliko da ta!

Eguna zabaldu baiño leen jeikita ibili giñan. Gero, beste baserri ortara joan emen aldamenekoa eta biok. Baiña orkoa lo artean. Gu erritan. Gero joan giñan eskolara bildu bear genduan danok, auzo guzikoak.

Eta ez digu, ba, ango batek esaten, gizon batek edo mutil batek, gu baiño zaarragoa beintzat, autobusa joana zala? Gu negarrez danok, orri aitzeki ematen, beti lo egon zalako. Ala ere, azkenean, gezurra esan zigula eta azaldu zan autobusa.

Sartu giñan eta, abitu giñanean, aldamenean sagar batzuk zeuden. *Mikote-sagarrak* esaten genien, mokoxoak edo mokoteak ziran eta. Bein autobusean igo gabekoari efeko geiago egiten dio-ta, neri iruditu zitzaidan arbolak atzera zijoazela, gu aurrera joan ala.

Nere artean esan nuan: “Arbolak ezin leizkek atzera joan eta mareatu nauk. Baiña maestrak ez dik jakingo!”

Nik Donostira joan nai nuan. Arbolak atzera, etxeak ere atzera, danak ola ikusten nituan.

Ala, Itsasondotik aurrera abitu giñanean, ibaia ikusi nuan eta maestrari galdetu nion:

— Au al da itxasoa?

Guk emen ez baigenduan ibairik ere bein ere ikusi.

Ola joan giñan Donostira, eta arrituta, itxasoa ikusi genduan.



Abaliñe

Eraman giñuzten gero Igeldora funikularrean. Geroztik ez dakit nun dagoan ere; ez det geroztik ikusi. Eta nik emen aldameneko lagunari esaten nion:

— Au igotzen dek aldapan, e? Gure etxerako ere olakoxe tren a ona uke!

An gero zer zoramena erabili genduan!

Eta gero, nola iru urtean gerra ibili zan, kalean asi giñan eskolan. Onera etzan andereñorik etorri. Donostitik etorritakoa zan leen egon zana.

Orain euskera ikasten jende guztia ari da. Baiña guri *aldeano* eta *casero* esaten ziguten, itzegiten gendualako.

## SOLDADUSKA

Amazazpi urterekin, kalean asi nintzan lanean, pare bat kontratistarekin. Gero, berriz, pentsua saltzen ibili nintzan.

Bien bitartean, soldaduska egin nuan, bi urtez, Afrikan.

Soldaduskan ez dakit, ba, nik... Nola esango dizut? Tallara aillegatu nintzan, eta batek esan zidan:

— Talla orrekin joan bear al dek soldadu?

— Onekin joan bear ko diat, besterik etzeukeat eta —erantzun nion.

Oraindik gogoan daukat, soldaduskako buzoarekin nola etorri nintzan. Bigoteak ekarri nituan. Orretarako, tenienteak esan zigun, kabo egin giñanean:

— Bigoteak utzi bear ko dituk, ba, Iztueta? —apelliduez esaten zidaten, ba.

Bigoteak utzi bear ko nituala eta orduantxe, ba, juxtu-juxtu bigoteak ateratzen. Etziran bereala atera, eta lizenziatzeko baneuzkan ia.

Arreba zanak esan zidan bigoteekin etorri nintzanean:

— Bigote oiek moztu bear ko dituk, motell! Emen ez dek oso ondo ematen oiekin!

Ala, zortzi egunean erabili nituan, eta gero moztu egin nituan; kendu nituan.

Geienen antzera, nik ere badet soldaduskako pasadizorik kontatzeko.

Bein batean, beintzat, an artilleria kostan genduken. Cabo Negro izena zuan mendigain bat zan. Itxasora begira genduzken lau kañoi; eta errira —Ticon de Medik— Tetuandik amairu kilometro edo ola dago.

Aruntza jesten giñan. An zeuden taberna batzuk, eta lagunartea an egiten genduan. Bein, beintzat, lau erdaldun eta bi euskaldun batera jetxi giñan, erdaldunak ere gurekin zebiltzan eta.

Sartu gera denda batean. Orduko moda zan dana erlojua. An merkeagoak zeudela-ta, emendik ere danak esaten zuten:

— Ekarri erlojuak guri!

Asi gera begira. Moro baten denda zan eta, eskaparate eta mostradore bezela, dana bat egiten zuan. Gu, bi euskaldunak, asi gera euskeraz alkarri:

— Orroko erloju ori polita dek, e?

— Baiña i: garesti samarra ez al dek?

Ta mostradorearen barrundik moro aundi batek, oraindik gogoan daukat, bi txilaba zurirekin:

— Ez galesti izan. Pezeta bosteun balio.

Gu arrituta berari begira. Nik galdetu nion:

— Zuk nun ikasi zenduan euskeraz?

Eta arek:

— Ni gerran ibili, Francorekin, Bizkai eta Gipuzkoan, ta an ikasi euskeraz.

Erdaldunak, gurekin ziranak, guri begira arrituta. Eta berriz ere beste iruren bat itz-edo, eta ola aritu giñan. Pixka



bat gutxiago agindu genion; baiña orain ez naiz gogoratzen erlojuak zenbat pagatu genituan.

Gero, bai al dakizu, kuartelera joan giñanean, zer esan zuten erdaldun aiek? Ez dakit nungoak ziran: Salamanka, Leon edo orkoak. Esan zuten:

— *Estos vascos hablan perfectamente en árabe.*

*Bueno*, amar arte beintzat kontatzen ikasi nuan. Orain ere aritzen naiz, emen erloju saltzen eta ibiltzen dira moro batzuk, eta oiekin. Etzait aztu dana, baiña len geiago nekian. Ola da: *uaja, yust, leta, jarba, jamsa, seta, seba*; eta *zortzi* akordatzen naiz *tximini* esaten zigutela. Tximinirekin akordatzen naiz ortik.

## BERTSOTAN

Ni bertsotan amalau bat urterekin asi nintzan. Ola, eliza aurretan-eta, egiten genituan antzerki txikiak. Andereño-eta prestatzen zituzten. Eta artean zera batetik bestera.

Bertsotarako zaletasunaren galdera, berriz, len ere askotan egin didate. Or argazki batean dagoan gure anai zarrak-eta, gazteak orduan, auzo ontakoak, bertsolariak ekarri zituzten. Gerra asi baiño leen, urte artako maiatzan izan zan, emen festak garai ortan egiten dira eta. Maiatzaren 6-garrenean, *San Juan de Porta Latina* izan bear du, inprenta-koen Zaindaria.

Orduko bertsolariak Zepai eta Uztapide izan ziran, biak zanak orain. Aiei entzuten, zoratzen egon nintzan. Nola esaten zituzten gauzak! Nola bukaera berdiñetan egiten zuten!

Gero, ba, soldaduskara joan baiño leen, amazapí urte-tan, nik ez nuan nai, baiña Basarrirekin atera arazi niñuten, zeran: Lazkaon, festetan. Badakizu: ni bildurtu egiten nintzan. Ume bat oraindik, ba. Baiña, ala ere, naiko poliki uste det aritu nintzala. Garai ortan dana barkatzen da, gaztea zeralako.

Orduan inork etzuan gairik jartzen. Bertsolariak berak asmatzen zuan. Erri batera joaten zanean, norbaitek esaten zion:

— Emen au eta ori pasatzen dek. Ori olakoa dek, eta ura alakoa.

Eta norbait beti izaten zan errian, aitzekia bota eta aren kontura parre egiteko. Ortarako nik beti edukitzen nuan kezka:

— Ez al da asarretuko?

Lenago, bertsotan asi eta sarritan, badakizu, alkarri gaizki esan ere bai; al zan aundienak bota. Ori, ba, pixka bat ondo dago; baiña geiegi ez. Azkenerako, gaizki esaten duana, bera gelditzen da gaizki.

Gai-kontutan aldatu gerala orduan egiten zanetik onera? Batzuek baietz diote, eta besteak ezetz. Baiña gu kantatzen asi giñan garai artan, gaur esaten diran gauza asko etzegoan esaterik. Nola Franco bizi zan... Gaur bategatik eta bestegatik politikan itzegin diteke. Baiña orduan ezta...

Gaiñera, gaiak jartzen asi ziranean, jarri bear zituztenei galdetzen zieten ea zer izango zan gaia, gutxi gora-beera. Askotan gezurra esan bear: beti festagatik aritzen giñala eta...

Egonda nago kastigatuta zortzi illabetez, orain aztuta nengoan baiña. Francoren billoba bazan, ba, errege-familiko batekin ezkondu. Orain uste det berezi edo apartatu dirala berriz. Fameli-esperantzan ezkondu zala esaten zuten, eta guri gai bat jarri Azpeitin: ni ere ezkondu nintzala; baiña, ezkondu eta ez dakit zenbat denborara, famelia izan genduala. Orduantxe parean tokatu eta nik esan nuan, ba, ori emen eta Madrillen ere pasatzen zala.

Andik laster Zarautza joan nintzan bertsoak kantatzera. Zinean edo ez dakit nun giñan. Danok igo giñan goiko oltzadura ortara eta orduan esan zidaten ez neukala kantatzerik; kastigatuta nengoala: *“Por orden del señor gobernador, por insulto a la nieta de Su Excelencia el Jefe del Estado”*.

Ortaz ez nintzan gogoratzen, baiña zortzi illabetean egon nintzan kantatzea galerazita. Eta onera etortzen ziran guardia-zibillak. Multa bat gainera, iru milla pezetakoa, garai artan.

Gero ez dakit, ba, nik zer izango dan; baiña asieran afizioa da bertsolaritza. Derrigorrezko gauzatik ez da ezer ere ondo ateratzen. Aurrena afizioa da; zaletasun aundia bertso-tara. Gero, azkenerako obligazioa; lana.

Askok uste dute bertsotan oitu egiten dala, erri baten aurrean. Baiña ez da bein ere oitzen. Ni askotan egoten naiz pentsatzen; eta zenbat eta jaialdi geiagotan eta zenbat eta geiago ibiltzen zeran, uste det kezka geiago gelditzen dala.

Bein ola, zera, txiste eta zelebren asi, eta gero jendeak ala artzen zaitu, askotan beatza eman eta besoa artzen du eta.

Baiña neri drama gustatzen zait. Bai pelikuletan eta bai bertsotarako gaietan ere. Nik serioa naiago det kasi. Esate baterako, ba, gauza illun bat. Baiña nik orain olakorik botako banu, erriak esango luke:

— Ez; Lazkao-Txiki ez dek ori.

## OMENALDI ETA SARIKETAK

Izugarri jende izan zan. Lau milla edo geiago esaten aritu ziran. Baiña asko gelditu ziran etorri eziñik. Kosta aldean beintzat elur asko egin zuan. Bizkai aldetik-eta esan zuten, sarrerak zituzten asko etzirala etorri.

Nik, 1950 eta 1960 urteko bertsolari gazteen txapelketan leenengo saria irabazi nuan.

1962-ko Gipuzkoako bertsolari-txapelketan, bigarren saria.

1964-ko Gipuzkoako bertsolari-txapelketan, lenengo saria; eta txapelketa nagusian, bigarrena.

1980 urtetik atzera ez naiz joan. Esan nuan: “Ni emendik atzera zertara? Ainbeste gazte badago... Txapelketetan

une estuak pasatzen... Irabazi gutxi eta galtzeko besterik ez detala uste det nik ia lan ortan”.

## DANTZA

Dantza ere gustatu zait eta gaztetan egin nuan zerbait. Eta oraindik ere, iñoiz ola, afalondo, lagunarte edo eztaietako bazkalondoren batean egiten det. Elduta ere bai, baiña suelta oso polita da neretzako. An ikusten baita ondoen abildadea.

Eldutako dantza egiten, berriz, askotan euki nuan olako lotsa bat. Nola txiki samarra naizen eta ez naizen aurpegi parera batzuekin irixten, an eukitzen nuan begirune pixka bat jendeak zer esango ote zuan. Pentsatzen nuan: “Zeiñek naiko dik nerekin, orren gizon txikia?” Konplejo ori izan det beti. Ez naiz izan ausarta, orain esaten dan bezela.

Ori ere, alde batera, gauza polita: ezkondu eta seme-alabak izatea. Baiña gero, batzuetan ez dira damutzen, baiña beste batzuetan bai. Ezkondutako danak ez dakit egongo diran pozik. Ez det uste.

## EGUNEROKO BIZIMODUA

Nere eguneroko bizimodua ola izaten da: bertsoara joaten ez naizenean, baserrian.

Otorduak, geienak kanpoan egiten ditut. Bazkaldu ere Beasaiñen egiten det. Afaldu ere geienetan kanpoan, beti or nabil batera eta bestera eta...

Ezkondu banintz zer izango nintzan egoten naiz pentsatzen. Ainbeste gautan kanpoan, morroi bat ekarri bearko nukela andrearentzako. Bestela, aspertuko litzakela. Ori ere askotan pentsatzen det.

Bakarrik eta bi txakur. Batzuetan bost bei edo sei eukitzen ditut. Mula bat ere bai, lerarekin eta olako lanak egiteko.



Gurutzeta baserria aidetik artua.



Gurutzeta baserria.

Baserriko lana polita da; baiña bolara ontan etekin gutxi du. Esnea merke, aragia merke... Nik ekartzen ditut ganaduak Santandertik, geienetan Torrelavegatik; eta umea egingakoan saldu. Baiña erosi bear duanak, baldin baleuka poz pixka bat geixeago eta errezago salduko balitz...

Ni astero ez naiz joaten ferira Ordizira. Baiña eguerdiantan, beste ango lanak bukatzen ditudanean, beti egiten det buelta bat, batez ere zerbait saltzeko baldin badaukat, edo erosteko. Joan egin bear da, dana ikusi eta gauzak zer egingen duten jakitera. Lagunartean ere, badakizu, komentario batzuk egin eta baxo erdi batzuk edan. Ori izaten da periko jira. Olakoxe egun batzuekin, pena guziez azten zera.

Eizeko afizioa ere badet pixka bat. Bi txakur badauzkat eta ibiltzen naiz.

Bestela, eizetik kanpo, pelota-partidu batzuk ikusi. Aizkol-apustua ere gustatzen zait. Baiña fubola ez. Ori ez det ulertzen.

Loteri bat edo olako zerbait tokatuko balitzait, nik uste det bazterrak eta kanpo-aldeak ikusten pasatuko nukela emendik atzerako denbora guzia.

Ni alaia? Etzazula pentsa. Mattinengatik bein bertso batean esan nuan nik: arek penak gorde egingen zituala, eta umore oneko gauzak esan.

Ori ez da izaten kanpotik ageri dan bezela. Azaletik ez da ikusten pertsona baten izakera. Barruan izan litezke kekak. Erderaz esaten da, negar ez egiteagatik, parre asko egingen dala. Oiek askotan pasatzen dira bizimodu ontan.

Ni sortu nintzan tontor polit au  
nola ez nezake maite?

Beste paraje politagorik  
iñun danik ez det uste.

Orain zartuta arkitutzen naiz  
lenago izana gazte,  
tontor maite au ikusi nai det  
al dezakedan bitarte.

## ALKARRIZKETA

### I

*Onako alkarrizketa gogoangarri au egin zion Iñaki Murua bertsolariak Lazkao-Txikiri, 1992 urteko ekainean(1).*

*Iñaki Muruak.*– Zuk zeure burua nola ikusten dezu?

*Lazkao-Txikik.*– Ispilluan.

*I. M.*– Eta?

*Laz.*– Zer esango dek? Norberak ez dik jakiten bera nor dan sekula. Ik ez al dek aditu Pedro Mari Otañoren esaldi bat?

Naiz jaio izan erri txikian,  
naiz jaio mendiko bordan,  
munduko gizon azkarrena da  
dakiena bera nor dan.

Ori, ba, aldamenak esan bear dik.

*I. M.*– Bildurra zuk nola ikusten dezu? Zer irudi egingo zenduke? Zeri diozu bildurra?

*Laz.*– Bildur-klase asko izaten dituk: kastigu baten bildurra, norekin utsegingo dedan bildurra; bizimodua nola aterako ote deken edo nola eramango ote deken, bildurra...

*I. M.*– Oien danen bildurrez bizi izan al zera zu?

*Laz.*– Bai; bildur oiek danak izan dizkiat nik. Naiko etsikoia izan nauk, *pesimista*. Beti gerokoaren kezketan. Lantotza...

---

(1) Ondoren, *Goierritarra* aldizkarian agertu zan. Baiña batetik *fonetismoak* errespetatuz, eta bestetik euskera batura urbilduz. Guk liburu ontan darabilkigun euskeraz ezarri degu, liburu berean bi izkunza-motak ondo ematen ez dutelakoan.

kietan ere beti zintzilik ibili izan nauk ni geienetan eta... Bil-  
durra dek ori ere. Eta beste bildurra badakik: emendik  
aurrera izango deguna.

*I. M.*– Zuk bizitzan ainbeste gauza egin dituzu. Egindako  
eta egin gabeko zeren damu zera? Bai al dezu ezeren damu-  
rik?

*Laz.*– Gauza askorena. Egin gabe utzitako gauza onak,  
damua...

*I. M.*– Egindakoekin konforme al zera?

*Laz.*– Ez; danekin ez. Egindako astakeri aiek eta eginda-  
ko juergak... Pentsatzen jarri eta bein beste lagun aundi  
batek esan zuana: “Bizitzaren erdia pasatu diagu osasuna  
galtzen, eta orain ura billatu eziñik”. Ori pena izatekoa dek,  
baiña orain beituta; leen beituta ez.

*I. M.*– Ori izan ez balitz, ibiliko al ziñan oinbeste bertso-  
tan?

*Laz.*– Bai; ola ibiltzeko, ori ere izan egin bear. Ibiltzeak  
berak ekartzen duana. Askotan geure kulpa ere bada, ordea.

*I. M.*– Baiña, ola artu ezik, bertsolaritza ez al da astuna?

*Laz.*– Bai; eta leen astunagoa gaiñera. Egun osoa bertso-  
tan pasa, eta gero gau osoa igual. Ori gure aurrekoak orain-  
dik geiago. Askotan, urrenge eguneko bertsotaz aztu. Urren-  
go egunekoia izan inportanteagoa, eta bezperan ondatu; eta  
gero, urrengean, nolabait ibili. Oraingo bertsotea errezagoa  
da, osasunari kaso egite aldetik.

*I. M.*– Konformidade aldetik?

*Laz.*– Bein ere ez dek konforme gelditzen bat, bata dala,  
bestea dala. Batzuetan gaiei eman izan zaiek errua, bertsola-  
riek izanda. Leengo bertsolaritzaren gogortasun ori Uztapi-  
dek pasa zuan geien. Osasun onekoa izan, eta besteak oera  
joan eta ura oraindik bertsoetan, ura ere naiko gazterik onda-  
tu zan baiña. Gauean lagun asko izaten da, baiña momentu-  
ko laguna. Goizean jaikitakoan, ez da aurreko eguneko  
laguntasunik izaten.



*I. M.*– Zuk izan al dezu dudarik: “neri parrez ala neri entzundakoei ari dira parrez?”

*Laz.*– Orretan naiko seguru ibili naiz. Askotan, nik leen esandakoa gogoratu eta, ni ikustean, parrez asi ere bai, e? Bein bertsolari baten aitak, berak bertsoa kantatu eta berak parre egiten zuan, eta semeak-eta esan zioten: “Aita, etzaitte ola ibili. Danak zuri ari dira parre egiten”. Eta berak: “Bai: oiek danak neri parrez ari dituk, baiña nik bakarrik egiten ziet parre oiei danei”.

*I. M.*– Zu etzera izan zurikeri-zalea?

*Laz.*– Ez; ori ez. Nik, bein frenoak askatzen baditut, edozeini edozer gauza esango zioat, bestela igual egongo nauk bildurrez atrebitu arte baiña. Gaiñera, aserretu egiten neok. Aurrean zurikerian eta bera aldegingindakoan ikaragarriak esaten beragatik, ori etzaidak bein ere gustatu neri. Jendeak esango dik: “Ori zitala dek”. Edo: “Petrala dek”, Baiña nik gorde gabe esango zioat berari. Ala nagoanean, baita Aita Santua etorrita ere.

*I. M.*– Zuk bertsolari bati konseju ori emango zenioke?

*Laz.*– Ez. Ori bere esku uzten diat. Nik orrekin igual asko galdu egingo nian. Ori nik bere esku utziko nitek. Nik ori esanda ere, zurikeri egin zale dan arek berdin egingo likek. Askok beren denbora guztia norbaiti *rosca* egiten pasatzen die. Bestela ez badie ere, ari *rosca* egin eta aren aldamenean ibili. Nik ez. Ni neu askotan egon izan nauk gero “ori enioan esan bear” pentsatzen. Baiña esan da gero.

*I. M.*– Oso ondo iruditzen zait: bakoitzak erabaki bear duala ori. Asko pentsatzea da ori.

*Laz.*– Bai; kobardea ere asko pentsatzen dualako dek.

*I. M.*– Plazatan ainbeste ibiltzeak zer erakutsi dizu?

*Laz.*– Jendearen aurrean lasaiago itzegiten. Kezka kentzen ez, e? Baiña naturalago itzegiten bai.

*I. M.*– Zer ezaugarri bear ditu bertsolari batek?

*Laz.*– Aurreneko, gogo; neri gastatzen ari zaidana. Aurrena, afizio aundi bat; eta, gero, ez dedilla izan atrebituegia ere. Ori ere ez dek ona. Askok pentsatzen dik, lotsa galdu ezkerok dana eginda dagoala. Leen esan dedan bezela, asko pentsatzen duanak eukitzen dik lotsa. Eta, gero, nik izan ez dedan beste gauza bat: edozein tokitan edozeinekin aginduta ez dedilla bertsoan asi. Neri ere kosta egin izan zait astea; baiña bein asitakoan... Gaiñera, ola bertsoa eskatzen duan ura, beti izaten da bertsoa aditzen ez dakiana. Zeozer esateagaitik bertsoa eskatzen duana.

*I. M.*– Umorezko gaia ala sentibera?

*Laz.*– Nik sentibera naiago diat. Orain biak gustatzen zaizkidak. Pelikulak ere, sentiberak eta Cantinflas-enak gustatzen zaizkidak.

*I. M.*– Iru bertso kantatzekotan, iru bertso baleko ala bat gogoan artzeko modukoa, besteak nola-alakoak izanda ere?

*Laz.*– Bat ona naiago. Gaur jendea preparatuta joaten dek, baiña preparatutako orrek arrisku bat zeukak: leen *lucha libre* serio artzen giñuan, eta gaur umeak ere parre egiten ziotek.

*I. M.*– Zuk euki zenduan, orain dozen erdi bat urte, oso garai ona.

*Laz.*– Orain ogei urte ohea, txapelketan da. Neuk ere aditzen zetuat eta... Nik orain azkenerako gogoia galdu diat. Ori dek txarrena. Burua ere galtzen joaten dek, e?

*I. M.*– Gogoia galdu, baiña oraindik ere plaza-mordo bat egiñez.

*Laz.*– Leengo batean esan nian, ba, nik gu ere fulanak bezela gerala. Aurrena afizioagatik asi, eta gero diruagatik. Etixerakoan joaten nauk pentsatzen, leen ez: “Edade onekin nola esan litezke guk esaten ditugun txorakeri oiek?”

*I. M.*– Zu beti izan izango zera esandakoari buelta asko ematekoa?

*Laz.*– Bai; baiña orain geiago. Irurogei urtetik gora eta, pentsatzen jartzen baaiz, burura etorri egiten zaik. Pentsatzen ez badek, ezer ez...

*I. M.*– Zuri, txiki izateak zer eman dizu bertsoan?

*Laz.*– Korrienteari segitzeagatik segi, baiña pozik bein ere ez. Gero, bein bertsolari baten defektoa esan nualako, batek: “Baiña ori ez ion esan bear”. Eta nik: “ Ni ere ez nauk nai dedalako ttikia, e? Defektoak etxe danetan egoten dituk; eta iri ura botatzen badik, ik ere zeozer esan bearko diok”.

*I. M.*– Zuretzat zer da jakinduria?

*Laz.*– Zerbait jakitea. Jakinduria era askotakoa dek. Bat izan leikek karrerakoa; baiña gero konbertsazio bat itxuraz eramateko gauza ez dana. Bein, diputazioko perito bati esaten zioan batek: “Zuk dakizu, zuk!” Eta arek: “Nik dakit dakidana, eta zuk dakizu zuk dakizuna. Nik egiten dedanarekin zu arritu egingo zera; baiña baita ni ere zuk egiten dezunarekin. Nik ez dakit zuk egiten dezun ori egiten”. Jakinduriak ez duala lekuri okupatzen gezurra dek. Heinstein bein ba omen zijoan trenean, eta interbentoreak billetea eskatu omen zioan. Patrika danak beitu eta egun artako billeterik inondik azaltzen ez. Besteak orduan: “Ezagutzen zaitut eta ez det bear”. Bestea konforme ez eta segi berriz ere patrika denetan miatzen. “Baiña esan dizut ez dedala bear!” Eta besteak: “Ez, ordea. Orain neronek bear det, ez dakit nora abitu naizen eta”.

*I. M.*– Zu erri batean baiño geiagotan sentituko ziñan, ba, jakintsu, jendeak adoratzen zaitulako.

*Laz.*– Ez; jakintsu bein ere ez. Bertsolari ere ez diat nik, galdetuta, bertsolaria naizenik oraindik esan. “Aritzen naiz”. Lotsatu egiten nauk.

*I. M.*– Bertso-eskolak zer iruditzen zaizkizu?

*Laz.*– Ori ondo dago. Ori sare bat bezela da. Bestela arrapatuko etziran asko, orrela bertsolari aterako die. Leenago ere pasako ziran asko. Gero, gazteei afizioa sartzeko

ere bai: bertsoa zer dan jakin eta... Baiña iñoiz kezkatzen nauk, soiñujoleekin pasatzen ari dana ez ote dan pasako.

*I. M.*– Gaiak emanda ala librean?

*Laz.*– Librean zaillago da, esan bear dezuna ere zeuk pentsa bear dezulako. Gaiak emanda, badakizu nondik ibili bear dezun. Zaillago gairik gabe. Luze aritzeko zailla da. Gaur jendea gutxi oitu da. Gai aldetik, bestetik, edade bate-tik gorako jendeak ez ulertzeko moduko gaiak ere jartzen dituzte. A, e, i, o, u dakianari aljebra zer dan galdetzea beze-la da ori. Gaurko bertsoetan ere leengo eran egiten da. Doi-ñu berri batzuk eta puntu geiago eta abar, baiña aldaketa gutxi bestela.

*I. M.*– Noiz arte bertsoetan?

*Laz.*– Ez dakit, ba. Geiago ez joatea ere pentsatu izan diat bein baiño geiagotan.

*I. M.*– Baiña ederra da jendeak zurekin ondo pasatzen duala ikustea.

*Laz.*– Bai: baiña festa jarri bear dutenak gazteak izan bear die; gazteak erabaki bear die.

# ALKARRIZKETA

## II

*Bernardo Alberrok Lazkao-Txikiri egindako alkarrizketa:*

*Alb.*– Lazkao-Txiki emen daukat nere aurrean, eta galde-  
ra batzuk egin nai dizkiot. *Bueno*, Joxe Migel, esan idak noiz  
jaio intzan.

*Laz.*– Ba, esango diat. Ni jaio niñuken iraillaren 15-ean.  
Leku askotan 16-an jartzen dik, baiña 15-ean, Abaliñea dei-  
tzen zaion baserrian eta Lazkaomendi deitzen zaion auzoan,  
Lazkaoko errikoa.

*Alb.*– Ta zenbat anai-arreba izan dituk?

*Laz.*– Ba, zazpi anai-arreba izan gaituk, ta orain bi bizi  
gaituk bakarrik. Bi anai il ituan gerra-asieran: bat urtebete  
leen, gerra asi baiño leen; eta bestea gerra asteko egunetan  
il uan. Artean etzegoan orain bezelako erremediorik, eta pul-  
moniarekin il uan, *pulmonía doble* edo esaten zaion orrekin.  
Gogoratzen neok ni oraindik nola reketeak Ataunen sartu  
ziran; ta urrengo egunean il uan, San Inazio inguru ortan.  
Zazpi esan diat eta, bat umetan illa izan bear zian. Ni eneok  
arekin akordatzen. Joixpa Mari izena zuala bai, bakarrik. Ta  
gero gelditu giñuzean bi arreba ta bi anai: bat Tolosan  
ezkonduta ta bestea etxean. Etxekoa il uan orain amairu  
urte pasa. Tolosakoa, berriz, 1989-ko abuztuaren 21-ean.

*Alb.*– Gurasoak ere bizi al dituk?

*Laz.*– Ez. Il ituan biak. Aita il uan 1959-ko apirillaren  
10-ean, ostiralez gaiñera. Ori gogoan zeukeat; ori etzaidak  
aztuko bein ere. Ama, berriz, oraindik gutxi: 1981-ean.

*Alb.*– Ta i Lazkaomendin bizi al aiz?

*Laz.*– Baiña Zaldibin asko orain ere. Zaldibin baserri bat  
badakik badaukadala, ta an egiten diat bizimodu geiena.

Lotara-ta askotan joaten neok Lazkaomendira. Baiña Zaldibin bizimodu geiena, Gurutzeta deitzen zaion baserri artan.

*Alb.*– Baserri ortan andre koxkor bat artuko bauke, ez eukake orduan Lazkaomendira joan bearrikan. Bertan ere bizitza atera leikek.

*Laz.*– Bai; baiña ia zaarrak gaituk. Nik esan nioan beste zaartuta ezkondu zan bati: udazkeneko kabian eztek umerik azitzen, txorikumerik.

*Alb.*– Ni enteratuta neok orain sekula gizasemerik ez dala zaartzen familirik izateko, emakumeak bai baiña...

*Laz.*– Milagro aundiren bat izango dek ori: zaartzen ez dan gizasemea.

*Alb.*– *Bueno*, Joxe Migel, beste galdera bat: umetako gora-beerak noiztik gogoratzen aiz? Batzuek esaten ditek zazpi eta zortzi urte bitartean ez dala gogoratzen. Baiña ni beintzat oso txikitatik gogoratzen nauk. Eta i?

*Laz.*– Ni beti ttikitatik, aundia eneok izan da. Baiña oso gaztetatik gogoratzen naizena dek auzoko gizon bat, biotzekoa zeukala gero jakin diat, baiña nik enekian zer gaitz, ankak lurrean aundituta zeuzkala-ta, nola egoten zan, beeragoko baserrikoa, Atxotei etxea esaten ziena, Elizegi, orain bizi diran oien aitona. Ta gogoratzen nauk nola joaten nintzan aren etxera, ta arek pastelak ematen neri: ta geienetan bastoia ostuta etxera joaten niñun. Aren bastoia gustatzen neri, ta aren bastoia ostu ta etxera. Gero, amak-eta kendu eta atzera eramaten zutela uste diat. Bi urte inguru ori nik.

Ba, gero gogoratzen neok mutikotako gauza asko: aitak nola bialdu niñun bein, soroan lanean ari giñala, sei urte neuzkala, an auzoko Ixurrenea esaten diogun baserri batean taberna, orain bestean zegok, baiña leen an zan taberna, tabako billa aitak. Ori gogoratzen neok, sei urte neuzkala.

Ta etzekiat: ganadu-itzuluan ez niñun ibiliko ni, idiak ez nituan asko ikusiko edade ortan da. Bein beintzat aitarekin nenbillen soroan.

Eta gero gogoratzen zaizkit gauza asko: nola asi niñuan zortzi urterekin eskolan, mutil aundia ez niñuan izango ta besterekin batetsura joateko. Ta gogoratzen zaidak nola eskolan asi ta ikasten oso ona nintzan: bi illabetera idazten ta irakurtzen ikasi omen nian nik. Zenbat urte neuzkan gero esan zie bestek, ta auzoko maistrak premio eman ta deitu aparte; ta alkateak errira eraman arazi, eta beste sari berezi bat berak nola eman zidan gogoratzen neok, orduan alkate zanak. Gerra asi aurreko gauzak dituk.

Ba, gero diputazioak debalde eramaten giñuzen urtero sail bat, ta Donostia erakutsi. Guk, iñora atera gabeko umeak, ez genduan ikusi autobus bat ere.

Joan niñuan bakarrik dotriñara; dotriñara ez, aurreneko jaunartzera. Orduan bi egiten giñuzen: bat zortzi urterekin edo bederatzirekin, ta nik, itxoin, bederatzirekin egin nuala uste det aurrenekoa, ta bigarrena amaikarekin. Joan niñuan artarakoxe bakarrik. Maistrak erakutsi dotriña eskolan ta jaunartzera.

Gogoratzen neok: elizan sartu ta aterik ez nian ikusten, ta nik euki nituan estuasunak, nundik atera bear nuan pentsatzen denbora guzian.

Guk Jauna artu genduan urte artan, Gaintzan etxe batzuk erre ituan. Ori ere gogoratzen neok.

Gero, eskurtsiora eramaten giñuzten ortan, esan zian maistrak mareatzen zanik etzala joango, ta autobusean bein ere sartu gabe, ta sartu gaituk Lazkaomendiko eskolan, ta maistrak Lazkaon itxoiten zian, an egoten uan ba lo egiten eta apopilo bezela ta.

Nik, eskolatik beera autobusean abitu giñanean, aldameneko sagarrak ikusi nituan; atzera zijoaztela ematen zian; zera, autobusak egiten duan lenengo efektoa, aundiagoa egiten dik, eta esan nian nik:

— Mareatu nauk, ba, ni, sagarrak ola ezin dituk atzera-ka joan eta.

Baiña nik, maistrak nola esan zuan mareatzen zanik etzala joango, esan nian:

— Ez dik jakingo, mareatu naizen edo ez naizen mais-trak.

Igo dek Lazkaon maistra ta galdetu zian danai ondo goa-zen, da baietz.

Ni, Itsasondorako, asi niñuan galdezka, itxasoa aundia zala esan zien da, gure etxean nola ez dan errekarik pasa-tzen, ura al zan itxasoa galdezka. Eta ezetz, aundiagoa zala; ta ola oso pozik.

Gero besteak, gu bezela eskurtsiora etzijoazenak. Orta-rako, Lazkaomendiko eskola ori orain zera eginda zegok, batzorde bezela, baserritarrena. Baiña gerra aurretik diputa-zioak euskera indartzeko egindako ikastola. Nik len enekian erderaz, ta gero aurreneko liburuak eta danak euskeraz ika-si nituan, gerra etorri zan arte.

Eta ola, Donostira joan giñuzenean, guk ibili giñuzen pozak! Itxasoa ikusi genduanean, danak zoratuta. Igeldora ere igo giñuzten funikularrean, ta nik beste bizitzakoari, etxekonekoari, esaten nioan:

— Jesus! Au dek trena! Au dek aldapa ta nola joaten dan! Gure etxerako alakoxe tren bat ez uke, ba, gaizki egongo!

Gero, Igeldon orduan bazegoan tximua —tximiñoa esa-ten zaiok, baiña guk tximua—, *monoa* edo.

Ta etxekoneko mutillari galdezka ni, lagunei galdezka:

— Au nungo pertsonaje-klase edo zer arraza ote dek au, i? Pertsonen igoala dek, baiña eztek pertsona ere ta...

Zoratzen begira gu. Andik etorri giñuzean beera, eraman giñuzten plaiara ere. An lagun bat olatuak jo ta busti zian dana, gero aldatzeko ezer ez ta ola ibili uan egun guztian.

Ta besteak, gu salbajeak giñuzean oso, eraman giñuzten akuariora ere. Ta sukalde batean, euskal sukaldean edo an egoten dek katu bat; ta, etzualako aldegiten ura, beste lagun batek jo ostikoz, ta maistra bildurtuta, gurekin etzegoala iñora joaterik esanez. Jo ostikoz ta an bota zian osorik katu ura.



Gero aszensorean sartu giñuzten diputaziora eramateko, eta geldi egoteko esan zian maistrak. Baiña *bueno, bueno, bueno...* Kolpea egin zuanean gora aszensoreak, atzaparka asi giñuzen gu, tigreak selbatik ekarrita egoten diran bezela, zalapartaka danok.

Ba, gaztetako gauza oietxek bein ere aztuko etzaizkidanak dituk. Guk eraman genduan poza, da artean gogoan euki.

Etxean amak bi peztako zillarra eman zian. Zillarra ibiltzen uan artean; zillarra zebillen diru.

*Alb.*– Bai, bai, gu biok urte baten diferentzikoak gaituk.

*Laz.*– Bai.

*Alb.*– Ni jaio niñun Astigarragan, Ergobi deitzen zaion aldean, 1927 urtean, apirillaren 17-an, ta egun artan gertatu Aberri-eguna. Ta, ik esaten deken bezela, ni ere txikitatikan dana gogoratzen nauk.

*Laz.*– Neri beti txikitakoak akordatzen zaizkidak, aundia eneok sekula izan da.

*Alb.*– Ba, ni ere aundia enauk izan, baiña txikitako gauzak gogoratzen zaizkidak neri. Gogoratzen zaidak gure ama batean nola joan zan bere jaioterrira. Bera Altzakoa uan, Laxkiñenea baserrikoa, ta an denbora aietan amona ta etxea. Gero egun batzuk an pasa zizkian gure amak, eta nola joan zan beste aur batekin besoan. Nere arrebarekin nik dizkiat bi urte ta lau illabeteren aldea. Ta geroztikan dana, ik esaten deken bezela. Nik Astigarragatik Donostia bertan gendukan, eta gu Donostira ia txikitatikan joaten giñun ta ezagutzen genin. Gero, gaiñontzean, eskola ta...

*Laz.*– Gure etxetik Lazkaora iru kilometro, eta kalera ere oso gutxitan, eskola nola gendukan auzoan. Orregatikan geunden gu, ba, salbajeak bezela. Gure lagun batek, Donostian usoa eskuetara etorrita, an, jana eman ezkerro, larrean ibiltzen uso danak; eta emen udazkenean pasatzen diranak bezelakoak zirala, gero etziola iñork kenduko, arek arrapatu zuala ta... Salbajeak, oso salbajeak gu.

*Alb.*– Gero, ortikan aurrera, gero badakik: gerra eta etorri ziranak eta...

*Laz.*– Gogoratzen neok: bederatzi urte artean, amar betetzeko, eta anai zarra iltzen, leen esan dedan bezela. Ta tiroka Beasain aldean, Lazkaotik beera. Danak tiro batean ta botikara ezin joan. Botikara joateko bialdu ta botikak itxita, tiroka danak zebiltzala kalean ta. Oso oroipen txarrak zeuzkeat nik garai artakoak beintzat.

Bederatzi urte neuzkan, ta beiak zaintzen. Ama, aita ta danak, anai zarraren ondoan.

Ta naparrak etorri zirala Atauna, seireun rekete, ta Billafrankako festak Santio egunean; ta billafrankatarrak gure etxetik, gorako mendiak Iramendi dik izena, ta aruntza gora begira, katalejoak artuta, festak egin bearrean, danak bildurtuta. Gogoratzen neok gure etxekoneko aitona lukainkak nola izkututzen aritu zan, soldaduak etortzen baziran danak arrapatuko zituztela ta. Etzaidak aztuko ori ere burutik.

Gero esango diat beste gauza bat: gerra etorri zanean, beintzat, amairu igitari Ittungo soroan. Igitaria dek gari-ebaitzaillea. Arrebak emezortzi urte eukiko zituan, ta nik bederatzi artean. Amar bete bear, baiña andik bi illabetera edo ola. Ta anai zarra ia illean, besteak ura zaintzen ta arrebata ta biok, igitari edo gari-ebaitzailleei merienda eramatera nola joan giñan. Ta danak esan ziguten, jakin zuten aiek ere ango berri ta, meriendatutako garaian, etxera etorriko zirala. Soroa bastante beean gendukan gaiñera. Beeko soroa esan ere egiten genion soro ari.

*Alb.*– Gerra-denboran ez al zaik sekula gertatu iñor iltzen ikusterik edo?

*Laz.*– Bai, bai, bai. Antxe, gure eskolaren aurrean, gauean il zuten Gaintzan gordeta zegoana, mikeleteen kapitanaedo zana, Telletxea esaten ziotena. Jakin genduan eskolan gizon bat ilda zegoala; ta gu, mutikook, joan egin giñan. Ta nola zegoan ilda eta dana ikusi nian, ta nola ekarri zuten ere bai Lazkaora. Lazkaon egon uan enterratuta puska batean.

Baiña andik, semeak-edo eraman zien, etzekiat nora. Ori Gaintzan, goian, egoten uan, ta norbaitek txibatazoa-edo emango zian, ta gauzez ekarri ta eskolan il zuten, bai.

*Alb.*– Neri, gerra-denborako geiena gogoratzen zaitena, dotriñan ari gerala, Astigarragan, kanposantuko ondoan bi bonba-edo bota zizkien, ta danak korrika nola aldegin genduan. Gero, beste gauza bat sekula aztuko etzaitena: ni ere amona ta aitonaren etxean. An Bergara-jauregi edo palazio bat zegok, Loiolako kuarteletik gora, *El Pinar* deitzen dioten zeran. Ni amabi urte arte-edo an azia gaztetan aitonarekin da amonarekin-da. Ubako reformatorioa ere an zegok, ta an egun batean, biren artean nola eraman zuten fraile bat, Ametzagaiñako ez dakit nora. Ni, an ere piñudia bazegok eta buelta eman ta korrika beste aldetik joan neok, eta meta baten ondoan nola il zuten...

*Laz.*– Ikusi al uan nola bota zuten?

*Alb.*– Bai; nola bota zuten.

*Laz.*– Prailea?

*Alb.*– Prailea, bai.

*Laz.*– Ni nola nintzan baserrikoa, ba ez giñuzen andik iñora mugitu gu. Gaiñera, reketeak-eta etorrira, danak kamiñoaren edo bidearen erditik. Esaten aritu giñuzen, gaiñera, aiek gerran etzutela esperientzi aundirik. Bestela, bi aldeetatik arrapatuta, erdian artu zeizkela. Baiña asiera uan orduan ta... *General Mola* omen uan, gaiñera, aien buru zetorrena.

*Alb.*– I, Joxe Migel, beste gauza bat: gu, Astigarraga aldean, borrokan da ola ibiltzen giñun mutil koskorretan; da zuek?

*Laz.*– Gu ere bai; ibiltzen giñuzean. Banian, gaiñera, baloi bat oso polita, amak ekarritakoa. Orain aiña baloi ez ta nik bat euki nian, ba. Baiña ura batek beera bota ostikoz jota eskolan, rekreogan; ta ura ezin billaturik goiz guzian. Rekreoa pasatu ta oraindik ere aren billa. Maistra galdezka nun giñan. Ta besteekin burrukan, dana puskatuta, arropa da-

nak puskatuta azaldu giñuzean, ta gero an egon giñuzean kastigatuta belauniko. Gaztetan burruka gitea normala dek.

*Alb.*— Guk, Astigarragan-da, izengoitiak izaten genizkian. Goierri aldean ez al zan izengoitirik izaten?

*Laz.*— Izengoitiak? Ba, neri etzien izengoitirik jarri. *Txikia* esaten zien neri, beti esan didaten bezela.

*Alb.*— Orduan egia esaten zien?

*Laz.*— Orduan ere besteak baiño txikiagoa niñuan ni. Ni beti edadearen lotsan ibilitakoa; adiñaren lotsan. Orain, mutilzarra naizelako; ta orduan, txikia nintzalako. Besteak baiño txikiagoa beti.

Bi aldiz eraman giñuzten eskurtsioan gerra asi zanerako: lenago esan dedan ura, urte bete leen; ta urrena, gerra asteko, uztaillean asi zan da garagarrillean edo ola. Ekaina esaten zie orain. Gogoratzen neok: gauean ez diat uste lorik egin genduenik guk. Ni aldamenekoarengana joan, prestatuta; ta aiek prestatzen. Gero, urrena, bigarren etxe batera, ta ura oraindik lo. Ta joan gaituk eskolara. An biltzen giñuzean danak. Auzoaren erdi xamarrean zegok, eta ango mutil gazte batek, guri parre egiteagatik badakizu zer esan zigun? Joan zala autobusa, zai egon zala ta... Asten gaituk irurok negarez, besteari erritan:

— I, izan ere, beti lo egongo aiz!

Baiña gero an asi ituan beste banaka batzuk azaltzen, ta gu etzekiat zer garaitako joan giñan. Guk orduan gendukan ainbesteko pozik, ezta eun milloi tokatuta ere; ez, ez, etzaigu tokatuko, baiña ez diat uste izango genduenik.

*Alb.*— Ta gero bertsotan nola? Lenbiziko bertsoa nola bota zenduan?

*Laz.*— Uf! Zepai ta Uztapide ikusi giñuzean gerra asteko urte artan, asi baiño aurretik. Lazkaomendiko festak maiaztzean izaten dituk, ta gerra esan diat uztan asi zala; ta orduantxe ikusi giñuzean, Zepai zana ta Uztapide zana, biak bertsotan. Aiek ikusita, badakik: mutil koxkor batek, aizko-

lariak ikusten baditu, etxe aurreko egur guziekin danak aritzen dituk; ta gu bertsoan. Ta nik besteei esaten nioen:

— Ik ez dituk, ordea, azkenekoak igualak bukatzen.

Orain *rimak* esaten zaie oiei. Ta:

— Ez. Ik baiño obeto kantatzen diat nik.

Boza ohea zeukala ta ola aritzen giñuzean. Badakik: aiek ikusi genitualako, ba. Or, zortzi bat urte. Ez; bederatzi. Ta orduan aritzen giñuzean ola bertsoan, bolara ura aztu arte beintzat.


Gero, andik atzera, ba, amalau urte inguru ortara ailegatu giñanean, ba, Lazkaoko Dukea. Madritik gerraren igesi etorri, ta or zegoan, Lazkaon. Ta teatroak egiten genizkian, eliza aurreko antzerki txiki aiek. Batek, piku baten azpian da etzekiat zer; ta gu tarteetan. Ordurako bazekiten ni bertsoan aritzen nintzala zer edo zer; ta, gerra zebillela ori, auzoko batekin aritu niñuan bertsoan.

Ta Duke orren illobak, aiek ere zer edo zer egin bear zutela; ta nunbait andaluzak izango ituan ta *sevillana* dantzatu zien. Ta esaten aritu neok zera; tarteetan egiten genduan kontrastea: gu bertsoan ta aiek *sevillanak* dantzatu. Oraindik akordatzen neok: batek, mutillak, Iñigo zian izena; ta besteak etzekiat nola zuan. Aiek, zerak aldatu bitartean; *decorazioa* esaten zioen. Ta an, eliza aurrean, badakik: ez uan preparatibo aundirik egon ere egingo. Ta guk bertsoak kantatu; ta gero, beste tarte batean, aiek *sevillanak* dantzatu.

Gerran Duke orri semea il zitzaion. Ta orduan badakik: *rosca* egiteagatik-edo eskolako umeak beartu danak, ta Lazkaoko prailleetan egon dituk oiek enterratuta, ta ura rezibitzera nola joan giñan; ta Duke zarrak gure arreba zanari nola eskua eman zion.

Duke zaar oiek Espaiñiko aberatsenetakoak dituk. Orain problemak eukitzen omen dizkie Andaluzi alde ortan. Lazkaokoak lagun aundia zuana omen zuan *Del Alba*.

*Alb. — Duque de Alba.*



Lazkao-Txiki eta bere lagun bat, Beasaingo festetan, 1941-ean.

*Laz.*— Baita. Ba ori ere akordatzen neok: nola erritakoak asten ituan bat il zala ta bestea il zala. Baiña nik ez nituan ezagutzen oiek.

*Alb.*— *Bueno*, Joxe Migel: ta eskolan denbora askoan ibili intzan edo?...

*Laz.*— Ez, ba; ez, ba. Lazkaomendikoari *escuela mixta* esaten giñuan ta neska ta mutillak antxe ibiltzen giñuan. Baiña, gerra etorri zanean, maistrak aldegin zian. Iruñekoa zian gizona; familirik etzien.

Gero, an eskola ori egin baiño lenago zan maistra zar bat, moja izandakoa-edo, auzoan bagenduan, ta arekin ibili giñuzean puska batean. Arek etzekiat nik zenbat jakingo zuan. Errezatzen da ola erakusten ziguan. Erderazko errezoak, gaiñera. Pentsa zak: *guk Bendita sea tu pureza y eternamente lo sea*-ta asten giñanean, guk uste genian *losea* zala, arrizkoa, ta ez dakit zer. Ta *terrenamente* ta aiek, *bueno*, disparteak esaten giñuzean.

Ola, arekin ibili giñuzean tarte puska batean, baiña ni eneok ibili iru urte eskolan. Gaiñera, beti bagenduan, pixka bat azi giñanean —pixka bat e?—, ganadu, bei edo idi-itzul-an ibili bearra, ta ola eskola gutxirekin gelditu giñuzean, gu beintzat.

Nik gogoa banian eskolara joateko. Ta ikasi? Magnetofonoak bezela artu. Soldaduskara joan nintzanean, enekian, esateko, erderaz. Baiña teorika ondo ikasten nian ala ere. Ikasi bai; zer esaten nuan erdietan jakin ez baiña. Eskolan gutxi ibili giñuzean, gutxi, zoritxarrez.

*Alb.*— Ta gero, bertsoan plazan da ola, noiz asi ziñaten?

*Laz.*— Lagunekin da ola bertsoan aritzen niñun. Baiña, plazan, esango diat, neronek gogorik eneukala, ni beti bildurti izan neok eta. Amazazpi urterekin jarri niñuen Basarri ta Saibururekin. Saiburuk irurogei ta amaika edo irurogei ta amabi urte, ta nik amazapi. Lazkaoko San Prudentzio ermita ondoan, an meza nagusi ondorenean; ta gero, eguerdian, bazkaldu aurretik, aiuntamentuko leiotik edo balkoitik.

*Alb.*— Orduan, ik lenbiziko aldiz kantatu dekena, Saibururekin?

*Laz.*— Basarri ta Uztapide ibiltzen ituan orduan. Baiña Saiburu etorri uan, ta zarra ordurako.

*Alb.*— Badakik neri batean zer gertatu zaiten Uztapiderekin? Soiñu jotzera deitu zidaten Iraetara...

*Laz.*— Santa Ines. Lauretan izan giñuzean, bezperan, 20-an; 21-ean dek Santa Ines.

*Alb.*— Ik orduan ogei urte edo ola, Soiñu jotzera ara bezperan. An ere bertsotan da aritu neok batekin. Ni txarra; ta bestea, berriz, txarragoa oraindik. Esaten dan bezela, alamoduzkoa. Bazkalondoan, kafea artzen gaudela, sartu dek bat an da:

— Arratsalde on!

— Ola, Manuel! Zer moduz?

*Laz.*— Angoa gaiñera. Ingurukoa ura.

*Alb.*— Bai; bertakoa. Ta:

— Ara: emen badaukazu bertsolari bat —neregatik arek—, ta bota iozu oni bertso bat.

— Botako diat, ba.

*Laz.*— Ik Uztapideren aditzera ba al uan?

*Alb.*— Nik Uztapideren aditzera bai, baiña ez nian pentsatzen Uztapide zanik. Ezta gutxiagorikan ere. Orduan, eserita zegoanak ankarekin, *danba!* jo zidan.

— Uztapide da —baju-baju.

Ni berriz ere ixilik orduan. Uztapidek esan zian:

— *Bueno*, bota, bota!

Ta:

— Ez, ez, ez. Nik ez dakit bertsotan. Ezta pentsatu ere gaiñera.



— Bai, bai. Atzo emen arituta zaudete.

— Ez, ez, ez.

Uztapide asi uan, ta bertsoa berak bota zidan. Ta berriz ere bai: bi-iru bertso. Gero asi egin niñun, ta bertso batzuk bota nizkan, baiña berak ere laguntzen zidan. Geroztikan ezagutu diat Uztapide, ta nerekin amistade bat izan zian. Neronek jarritako pieza bat ere baneukan, ta ori jo nian, ta gustatu zitzaion. Gero, alkarrekin gertatzen giñan garaiian, edozein erritara joanda, aiek bertsoara ta ni soiñu jotzera, ta beti ori jo arazten zidan. Pena aundia artu nian, il zanean.

*Laz.*— Bai. Denbora asko eramán zian arek kantatu gabe. Irurogei urte inguruan gaixotu uan, perlesiak jota. Orain *trombosis* esaten zaiok. Ortik geratu uan ezin kantaturik. Baiña gero amaika urte edo etzekiat zenbat egin zizkian ixilik. Pixka bat ibiltzen uan, bai. Il aurreko urtean, bertso-tan antxe asi zala uste diat esaten duala gaiñera berak, Las-turren egon giñuzean; ta orduantxe, bazkalondoan, bertso bat kantatu zian. Ta bigarrena asi ta aztu egiten zaielik oiei. Badakik: buruan odolik ez dik ondo ibiltzen. Ola tarteka bat edo beste kantatzen zian, baiña bere buruarekin konfiantzarik etzeukean.

*Alb.*— Ta i, gaiñontzean, amasei urterekin esan dek, ez da?

*Laz.*— Amazazpi.

*Alb.*— Amazazpirekin.

*Laz.*— Baiña lenago ere balkoian arituta nengon ni, egia esan, Legorretan, mutikoa nintzala oso, amasei urterekin, aurreko urtean. Ta andik ola asi. Baiña ni bildurri izan niñuan; egitan, e? Ba, aurrena Legorretako Korpus egun batean, auzoko gizon batzuek eramanda. Karmenetan izaten dituk festak Alegin, ta an urrena. Gero inguru ontan ibiltzen niñuan, ta zer edo zer beste bigarren maillako txapelketetan ta oietan.

*Alb.*— Baiña gerra ondoan noiztik asi intzan edo zer eda-detatik?

*Laz.*— Gazterik asi, baiña etxean. Esan diat lenago nola bi anai il ziran. Ta aita, esateko, bakarrik, arreba ta ama. Beste anaia ni baiño gazteagoa, ta etxean aritzen niñuan lanean. Segan ere bai gazte asko: amabi edo amairu urte, ta gustatu egiten. Aita zanak sega bat ekarri zian oso polita; ta aitarekin, amairu urterako aritzen niñuan. Etxetik goragoko barruti batzuk bagiñuzean oso goien, Aralarra bidean. I ez aiz bein ere izan igoal...

*Alb.*— Bai; izanda neok.

*Laz.*— Ba, orain iñork ez dik ekartzen andik belarrik, baiña aruntzaiño joanda ibiltzen giñuzean. Orduan, amasei urterekin, ez uan iñor asko ibiltzen. Badakik: edade orrekin ere lanean-da bai; baiña erromerietan gutxi ibiltzen dek. Baiña noizean bein joaten giñuzean erromeri-toki toki oieta-  
ra ere: Bentaberri, Zaldibin; eta Atauna ere bai. Gure base-  
rritik bidea, oiñez joatekotan, berdintsua dek Atauna, Zaldi-  
bira, Beasaiña...

Ba, gogoratzen neok, Atauna joanda, emen bizi uan, Ordizin, baiña Aldabako semea izango uan, da beti *Aldaba* esaten genioan. Ataunen erromeri bat, ta arek soiñua jotzen zian, ta gero beste txistulari batek, Migel Mari izena zuana, Ataungoa. Ala ibili giñuzean gazte denboran.

Zaldibin ezagutu nituan gerra ondorenean Uztapide ta Basarri. Ura poza! Erromeri bat uan, Depositu aldea esaten zaion ortan. An Uztapide ta Basarri ziralá bertsoan, da guk ekarri giñuzen lasterkadak!

Bai, orduantxe gerra bukatuta. *Bueno*, izango ituan bi edo iru urte, bai. Baiña Basarri beintzat kastigatuta zegoan. Basarri libratu zutela ta aurreneko etorri-aldia izango uan Bentaberri ortan. Berari kontu egiten zegoan zentinelá edo soldadua zaldibitarra izan; eta aren bitartez edo ez dakit nola.

*Alb.*— Nik ere Bentaberrin soiñu jotzera joaten neoken, da batean Uztapide ta Basarri, ik esaten dekena; ta lenbiziko aldiz entzun zizkidaten garaian Arantzazuko bertso oiek, Uztapidek esan zian:

— Gu ilko gaituk, baiña ok ez dituk ilko.

Ta Basarrik erantzun zion:

— Arrazoi-faltarik ez dek.

Asko gustatu zitzaizkioten.

*Laz.*— Bai: sentimentukoa dek ori. Argumentu oso ona beintzat, gertakizun ori gertatuta. Dana ondo esplikatzen dek kaso bertso oietan. Basarri orduan, gero ere argalduta egon dek, oso argala etorri uan. An gosea pasata egongo uan, *batalión de trabajadores* batean, Oiartzundik Lesakara dijoan bide ortan. Gaiñean tunel bat ere badek, ta uste diat azken aldera an ibili zala. Berak esaten dik Afrikan ere izan zala beintzat. Azkena ortik libratu zala uste diat. Nolanai, Basarrik askotan kontatu izan dik Oiartzungo festetan nola guardiekin jeisten zan, soldadu batzuekin-da. Bertsoak kantatu bear ta ordurako pixka bat baimena emango zien sobra ere bertso tara etortzeko; baiña guardi ta guzi etortzen zala. Basarrik askotan esan dik ori. Olaxe joan zitzaigun guri gazte denbora.

*Alb.*— Ta dantzan gustatu izan al zaik?

*Laz.*— Asko, asko. Bi anai zarrak il ziran ezkeroz, orduan lutoa ere gogorra gordetzen uan: erropa beltzak eta gaiñera lutoan urte askotan, dantzarik egin gabe.

Baiña mutikotan ere beti dantzan da beti ola ibili bearrekoa ni. Elduta etzegoan libre. Ataunen etzien uzten, ta Lazkaon festetan uste diat baietz. Beasaiñen bai.

Gure auzoko neska gazteak-eta gogoratzen neok nola an bertan, norbaitek jotzen zian aoko soiñua, ezpaiñetako soiñua-edo, ta an ibiltzen ituan dantzan-da.

Gero, beste bola-leku bat ere bagenduan Ataungo partean, gure etxetik aurreraxeago. Amundarain deitzen deitzen zaion baserrian edo ola. Gu ez giñan izan.

*Porroa* erretzen ez genduan ikasi, obe gaiñera. Ta aditu ere ez dek oraindik urte asko egin dedala.

Gero, andik entzuten giñuzean fuboleko otsak, Beasain da Billafranka or ta: baiña nik enekian futbola zer zan. Orre-gatik, afiziorik sartu ere ez. Gure aita zanak etzian *fubola* esaten ikasi bein ere. *Fuala* esaten zian. Eta, gol sartzen zuten garaian, berealdiko otsak bai. Iru kilometro baiño geiago, baiña ala ere entzuten uan gola sartzen zutenean.

Gure aitari dantza lotua ere etzitzaion gustatzen. *Agarrau* etzian esaten gaiñera; *agarrero* beti. Eta onela zion:

— Errenak igoal-igoal egiten die dantza ori.

*Alb.*— Neri gertatu zaidak batean: joan nauk deitu zidaten boda batera, emen Idiazabalera. Ta esan zidan ezkondu bear zuanaren aitak:

— Mesede bat bakarrik eskatzen dizut. Nik ere lenago badizkit seme-alabak ezkondata. Baiña nere seme-alaben bodan oraindik eldutakorik iñork ez du jo. Badakizu, beraz, zer egin bear dezun: dana sueltoan.

*Laz.*— Ik esan bear ion: “Orduan oiek suelto ibili bearko dute beti. Gauean ere bai.” Ori pentsamentua, ori!

*Alb.*— Ta gero badakik zer gertatu zan? Joan da bazkal aurretik ezkondu ituan, eguerdiko amabietan. Ordubete edo ordu t-erdi bazkal aurretikan dantzan ibili ituan. Gero, bazkalondoan soiñu jotzen asi gaueko amarrak arte. Gaueko amarretan apaldu ta berriz ere soiñu jotzen. Goizeko bost t’erdi-tan, soiñua mai gaiñean utzi nian pixka bat deskantsatzeko; ta neska batek, beraren alaba zala uste diat, esan zian:

— Zu zertara etorri zera: soiñu jotzera ala denbora pasatzera?

*Laz.*— Bietara esan bear ioan. Denbora pasatu gabe etzegok soiñua jotzerik. Baiña edukazio ederreko neska uan. Aiek ez ituan, ba, ainbeste denboran aspertu, aiek nai zutenean eseri egingo ituan da.

*Alb.*— Noski.

*Laz.*— Ta besteak, ezkonberriak, ez al ituan oera joan? Ala biajera joan ituan aiek?

*Alb.*– Ez, ez, ez. An zebiltzan oraindik. Ta gero, goizeko seietao mezetara joaten jendea asi zan garaian, nik soiñua artu bizkarrean ta Gaintzaraiño oiñez. Baiña i, Joxe Migel: lenago erromeri-goraberan asi gaituk, eta neska laguntzerik eta ola egiten al uan?

*Laz.*– Bai, bai. Lengoan gai orixe jarri ziten, Jose Migel Barandiaranen eun urte betetzerakoan, jaialdi ortan. Gogon zeukeat bein nola joan nintzan, da guardasola galdu edo neskari utzi edo etzekiat zer egin nuan, da konturatu niñuan guardasolik gabe nentorrela. Lengoan bertsoetan esan nuan bezela: aruntzakoan ba bide luzea ez, baiña onerakoan doble. Etixerakoan doble iruditzen zitzaian.

Orain ez diat uste oitura ori dagoanik. Baiña garai artan bai. Ta ez genekian zer asmatu ere: eguraldi ona zegoala ta... Beste zenbait izan balitz, asmatuko zien; baiña gu beintzat artean motz samarrak. Ta eskutik ikuitzen bagiñun, pozik. Ta, gerritik eta ola eltzen asi ezkeru, “egon adi geldi!” ta ori. Orduan Mariaren Alabak-eta, konfesatu illean bein seguru egin bear derrigor. Ola ibiltzen giñuzean: dantza pixka bat egin da gero, neska laguntzera, illuntzean.

Orain baiño poz geiago eukitzen genduan festak etortzeko ere. Ogi zuria egiten genduan. Orduan ogi beltza zegoan dana, ta kaletik etortzen ziranak pozik etortzen ituan, ogi zuria jateagatik.

*Alb.*– I, Joxe Migel: zuek baserrietan gu kalean baiño obeto ibiliko ziñaten?

*Laz.*– Ola izan balitz, bai. Baiña errota danak itxita, guardizibillak prezintatuta.

Gogoratzen neok: bein aita zana ta biok iru gaitzeru... Zuek ez dakit nola esaten diozuten Astigarragan; guk gaitzeru esaten zioagu: amaika kilo, amar, neurri bat uan. Orain ez diat uste neurri oiek egongo diranik. Ba, iru gaitzeru, ogei ta amabi edo ogei ta amairu kilo artu aita zanak bizkarrean, ta ni parolarekin laguntzan. Gure etxetik errotara bide asko zegoan. Joan giñuzean ta errota itxita, ta bueltatu batere iri-

ñik gabe atzera. Artoa aita zanak bizkarrean. Ni artean muti-koa, bein ere eneok aundia izan da.

Beste bein, ama zana Ataungo San Gregoriora, astoan artoa artuta. Ta andik iriña ekarri zian, ta ura poza, ura! Ik zer uste dek? Baserrian garia bagendukan, eta artoa ere bai. Eskerrak babarruna etzala errotatik pasa bear. Babarruna jaten genduan naikoa.

Laberik ez gendukan gaiñera guk, ta ekonomika sukald-erik ez artean. Ta gogoan zeukeat: batzuetan ama zanak su bajuan dana garbitu su-lekua, ladrillu gaiñean jarri orea, ta barriñoi bat gaiñetik, ta sua bueltan egin, ta nola ogia erretzen zuan. Ogia erre, bai. Usai ederra zeukean, da guk orduan edozer jaten genian da... Pentsa zak zer gauzak ikusi giñuzean garai artan.

Kalekoak, berriz, badakik: Naparrotik iriña ekartzen. Edozein bizikletatan ekartzen zien irurogei kilo, irurogei ta amar, euneraiño ere bai askok, bein ikasten zutenean. Lizarrustitik beera, atzetik arbola baten adar bat jarri narran, freno-partez.

Emengoak asi ituan; baiña Naparroakoak ere, azkenera-ko, eurak etortzen ituan saltzera, iriña bizikletan zutela, mutil gazteak.

Ta badakik zer gauza ikasi zuten bueltakoan Lizarrusti-ko aldapea igotzeko? Neke asko egin bear dik, ta leen auto-busak eskillara eramaten zien atzetik, gora igotzeko, Garai artan gaiñean ibiltzen giñuzean, ba, autobusean, orain ez lieke utzi ere egingo baiña. Ba, egurrezko kako bat egin, ta Naparroako iriñarekin etortzen ziranak kako orrekin eldu *Estellesa*-ri atzetik, eta ola igotzen ituan Lizarrustin beetik gora.

Baita mutil bat ere il egin zien. Araña esaten zaiok or: Lizarrustitik aurrerako kamiño zelai bat bazegok or, Napa-rrako partean ia, eta antxe il zien. *Alto* eman da etzala gera-tu edo bazala, ta emezortzi bat urteko mutil gaztea il zien. Etzekiat ori nola egin leiken: jateko aiña irin bizikletan daka-rran pertsona bat iltzea.

*Alb.*— Ni ere gogoratzen nauk: ik esaten deken garai artan, nere izebak Astigarragan bi kilo babarrun erosi zizkian baserri batean, eta pasatzerik ez, autobusak eta tranbeak errejistratu egiten zizkien da. Nik eramaten nian: poltsiko batean pixka bat sartu; beste poltsikoan beste pixka bat; beste poltsa txiki bat galtzerdi puntan sartu ta ola. Baiña, era ortan eramateko, iru edo lau biaje Pasaira, Pasaian bizi ituan eta.

*Laz.*— Ori baiño obe uan baserrian; bertan erosi, jan da paseatzera...

*Alb.*— Gurasoekin da baserrian lanean aritzen intzala-ta, ola ofizioren bat ez al uan izan: ikasten asi edo...?

*Laz.*— Ez, ba. Gurasoak baserritarrak. Batzuek pentsatzen die; baiña gureak etzien pentsatu edo...

Igeltsero-peontzan asi niñuan. Amazazpi urte inguru ortan uste diat asi nintzala. Lazkaoko estankokoak igeltsero kontratistak ituan. Oiekin ibili niñuan. Lan zikiña oso, ta beti peontzan: igeltsoa eraman, ladrilloak igo ta beti lan ortan.

Gero, ba, beste kontratista batekin ere bai. Soldadu joan aurrean ori ere. Ori dana bota zien, baiña Beasaingo Bernedo esaten zien fabrikako pabelloi bat egiten ibili giñuzean.

Baiña eskuetatik gaizki ibiltzen niñuan ni, pitsatuta neguan da. Ormigoia txarra ta zikiña dek, ba.

Beintzat, ofiziorik enian ikasi ola esateko. Pena ori zeukeat nik.

*Alb.*— Ta gero, soldaduska nora tokatu zaiken?

*Laz.*— Soldaduska? Afrikara. Bai. Zeutara aillegatu giñanean, morak, orain etzekiat nola ibiltzen diran; baiña orduan, begiak ez beste danak tapatuta egoten ituan, goien kopeta eta beetik sudurra dana tapatuta. Ta nik esan nion aldameneko lagunari, barkutik begira geunden artean da:

— Gure alde artan ere badala moja ugari; baiña ementxe ere asko izango dirala uste diat.

Alde guzietan ola jantzitako emakumeak. Gero jakin nian morak zirala aiek.

Anka utsik geienak; baiña esku-muturretan alajak bai, e? Oiek danak oin utsik ibiltzen dituk asko, baiña aberats-  
-aberatsak. Mora aberatsak badie, ba, ta tunika dotoreekin  
ibiltzen dituk. An ere, emen bezela, aberatsak obeto jantzita.

Zeutan iru egun pasatu giñuzean. Andik eraman giñuz-  
ten ta mendi bat pasatu genduan, ta *Punta Cires* esaten zio-  
ten. Gogoratzen neok: ogei ta bost kilometro pasa giñuzean  
bide txar batean Zeutatik. Ta nola artilleria kostakoa giñan,  
an ere itxasoa zan parean, tokian. Tarifa beste aldean.

An emen zegok estura. Amalau kilometro ituan gu egon  
giñan lekutik Tarifara. Egunero begiratzen genduan. Baiña  
bederatzi illabetean permisori gabe egon giñuzean. Bein  
bakarrik etorri niñuan.

An ibili giñuzean kamioi aundi batzuetan, da apunta-  
zaille tokatu niñuan: *apuntador*. Ta botakin. Telemetroa zeu-  
ken urrutira apuntatzeko. Botakin, ba. Aretxekin ondo aille-  
gatzen. Baiña, alpargatakin baldin banintzan, anka-puntetan  
jarrita egon bear izaten nian, teleskopiora aillegatzeko.

*Alb.*— Ori dek sakrifizioa!

*Laz.*— Bai, motell. Buzo bat eman zien, joan da rekluta-  
tan. Nik uste diat, leengo soldaduei beteranoak esaten zaie,  
ta aiek propio egin zutela. Nik, iru edo lau buelta emanda.  
Buzoak ere gerriko bat eramaten zien, ta ura ipurgaiñaren  
parean neukean. Eta alpargata zuriak jantzita Zeutan. Esan  
ere egin nian:

— Eskerrak ez dagoan emen ezagunik!

Lepo ondoan batere ez; baiña buruko illea dana moztu  
zien: *al dos* edo *al cero* edo etzekiat.

Nere Itsasondoko lagun bati, berriz, belaunetaraiño  
etzaion aillegatzen buzoa. Ari, berriz, txikia. Arek luzea falta.  
Aren anaiak trukatu ta ondo, pentsa zak. Uste diat parre  
egiteagatik egiten zutela, leengo soldaduak egoten dituk an



almazenean da. Ni txikia ikusi niñutenean, neri zegoan aundiena.

Ola izan uan gure gazte denbora. Ez genduan zenbaitek aiña lujo.

*Alb.*— Ta peligerosoa ez al zan an egotea ola?

*Laz.*— Afrikan? Orain egoten neok pentsatzen: emendik aruntza zenbat alde zegok, ba? Nai badek, ura gutxi. Zeutan, beintzat, itxasoko zera orrekin, ura zegok an. Urarekin zegok an arazoa. Ur billa jaietan igoal joaten giñuzean gu bide askoan. Ta gero, iñork ez arrapatzeagatik, guk gordeta eukitzen genduan kantinplora. Pentsa zak zer freskoa egongo zan ura. Amaika aldiz akordatzen giñuzean gu emengo iturriekin. Askotan edo beti. An egongo uan ura; eta, etorritakoan, askok nai genduala, baiña gero gutxik edaten diagu. Bi urte pasatu nizkian soldaduskan. Zeutako zera gendukan rejimentua. Baiña Tetuanen ondoen egon niñuan.

*Alb.*— Ta instruzioa egiten ikasi al uan edo?

*Laz.*— Gu, ttikiak, badakik, atzetik ibiltzen dituk. Ta oraindik ere oitura ura bazeukeat, kalean noanean. Pauso luzea ematen omen diat. Soldaduskako oitura diat. Esaten ziet:

— Zer, ba? Danborra danontzat berdin jotzen zien, ta guk pausoa luzea eman bear, aurrekoari segitzekotan. Bestela, atzean geratzen giñuzean. Entenitzen dek? Pausoa danok batera nola eman bear genduan... Aurrekoak pausoa normala emanda ere, guk luzea eman bear. Ta oraindio ere oitura ori bazeukeat, menditarrak bezela edo...

Gero, eskolan ere ibili giñuzean an, kabo egin bear giñuztela ta. *Bueno*, eskolan iru illabete edo... Ta, permisoarekin etorri nintzanean, bederatzi illabetera, ordurako kabo niñuan; da ama zanak:

— Zer dituk zinta oiek?

Eta:

— Oiek? Zer uste dezu? Ni aurretik ibiltzen naizen oieta-koa naiz, e? Oiek graduak dira.



Soldaduskako argazkiak.  
Tetuan 20-3-1948.



Tetuan. 1948. Azaroa.

Ta gure amak ez dakik zer poza artu zuan:

— Zer edo zer izango dek —esaten zian. Ura parrez, gaixoa.

Beste batek ola esan zioan:

— Parranderoa izan mutikoa ta, aita, diru pixka bat bialdu bearko dezu.

— Zer, ba?

Ta:

— Aurki irabazten asiko naiz, baiña oraindio ere bear det eta... Kabo egin naute, aita; ta sarjento laister egingo omen naute. Eta nolana ere, permisoarekin joaterako, iza-rekin etorriko naiz.

Eta aitak:

— Amorratu ori oraindik ez dek asko kanbiatu. Len ere beti gauez etortzen uan, da orain ere etzeukak egunez etortzeko asmorik etxera —esaten omen zioan aitak.

*Alb.*— I, Joxe Migel: ik diokenez, kabo ere egin intzan.

*Laz.*— Bai; esango diat, ba. Egin giñuztean, baiña ez lenengo esanean. Lenengo esan zigutenean, ni ta etzekiat zein giñan: bi edo iru lagun. Kabo ez egiteagatik, iru egunean baratzen, lurrean, pikatxoiarekin aritu arazi egin giñuzten kastigatuta, kabo egitea nai ez gendualako. Esan ziguen erderaz:

— *Por despreciar honores militares.*

*Alb.*— Orduan ere pikatxoa lurrean, arririk ez dagoan lekuan, aixa sartuko uan?

*Laz.*— Bai; baiña jaso egin bear nian ura, ematen zuten janarekin. Gero, ortik aldatu giñuzten beste destakamentu batera, *artillería de costa* dana. Itxas-ertz danean egoten dituk, distantzi jakiñetik distantzira, bai. Ta Zumarragako lagunak esan zian:

— Bai, motell, Emen, kabo ez diranak bizkarrean egurra atera bear izaten die, ta kaboak ez die ateratzen. Leen ere

naiko lan egin diagu guk; eta, berriz esaten badigu, kabo apuntatuko gaituk.

Urrena joan zan tenienteak, galdetu ziguan, urrena aldatu giñan lekuan, kabo izan nai al genduan; da ala apuntatu giñuzen.

Gero, iru illabeteen eskolan ibili giñuzean, ta pixka bat ikasi genduan. Orduan emengo eskolan ibili giñanean baiño errezago entenditu ere gauzak egiten giñuzean da... Gero, Zeutara eraman giñuzten esamiñatzera. Bederatzi giñuzean apuntatuak, eta sei aprobatu giñuzten.

*Alb.*— Ta kabotzarako asko eskatzen al zien?

*Laz.*— Etzekiat, ba, nik. Danak bederatzi giñuzean, ta Zeutan teniente koronelak esamiñatu giñuztean.

*Alb.*— Baiña zer ikasi bear zian, kabo izatekotan?

*Laz.*— *Bueno*, gauza asko, batzuk balio zutenak eta beste batzuk aruntzako bakarrik balio zutenak. Akordatzen neok: andaluz batek *dividir* etzekian. Teniente gaztea genduan erakusten aritzen zitzaiguna eskolan, eta berealaxe erakutsi zioan. Papel-puska batzuk egin zituan; dana partitu zian; gero *dividir* nola zan arrastoa egin zian:

— Auek gu gera, ta besteak papel-puskak.

Bakoitzari zenbat tokatzen zitzaigun segituan erakutsi zioan.

Oraindik ere teniente arek emandako eskritoa badiat etxean gordeta nik, bein ere beratzaz beartzen banintzan.

Etzekiat nun ibiliko dan: biziko dan ala ilko zan. Orduan teniente uan. Baiña gu baiño urte bete zaarragoa. Akademitik ateratako teniente gazte bat uan.

*Alb.*— Eta kartak-eta asko egiten al ituan etxera, an egon intzan bitartean?

*Laz.*— Etxera kartak? Bai; orain baiño geiago. Orduan poz artzen genduan karta bat norbaitek egiten bazigun, da orain ez diagu pentsatzen gerok iñori egiterik.

Banian andaluz bat eskribitzen etzekiana. Alakoak asko zeuden an, gizarajoak. Emen bagaudela, baiña analfabeto asko, ta eskribituko al nion. Baietz; pozik gaiñera, ta ala eskribitzen nioan. Da nik letu ere egin bear izaten nioan.

Egun batean etzidak, ba, esan, andregaiaren karta etorri zitzaioan izenarekin, remitearekin. Bereala antzeman nioan nik letu nionean, da esan zian:

— Zuri etzaizu batere interesatuko neri andregaiak zer esaten didan?

Andaluzez itzegin zian. Eta nik:

— Zergatik interesatuko zaidak, ba?

*Bueno*, eserita jarri niñuan sillan, ta bera zutik. Ni ots aundian letzen, arek ere jakin zezan. Baiña etzidan, ba, belarriak tapatu neri, nik ez aditzeagatik? Ark uste zian, ba, aditu ezean etzala entenditzen; etzala jakiten. An aritu niñuan, arek belarriak tapatu neri ta nik papela entenitzen ez banu bezela. Ori gizonaren pentsamentua, e? Belarriak neri tapatuta, ni ari karta letzen.

*Alb.*— Ta, gaiñontzean, Afrikara geroztik ez al dek pentsatu sekula joaterik?

*Laz.*— Bai. Zumarragatar batzuek ainbeste enpeño egiten zien; baiña ni libre enegok bein ere egoten da... Bazeukeat asmoa beste zortzi bat egun edo amabost egun an pasatzea. Onezkero aldatuta egongo dek dana ura: Tetuan, Pico de Medit, Río Martín... Au plaiian zegok. Bein oiñez joan giñuzean, gu geunden beste kanpamentutik plaiara, zazpi kilometron. Ta ango elizan partitu zizkiguten paperak ere bazitua oraindio. Orain dala denbora-puska bat egon niñuan begira, an elizan emandakoak, bai.

*Alb.*— Morak-eta beti arpegia tapatuta ibiltzen al die?

*Laz.*— Bai; geienak bai. Ta ez badaramakite tapatuta ere, pertsona emengoekin beintzat, etzekiat moroekin, eskuekin zer edo zer jartzen die aoaren parean beti. Beti tapatzen die, gizonetzkoa baldin bada, tapatu gabe baldin badijoa ire pare-

an pasatzerakoan, daramakian erroparekin. Baiña onezkero an ere ez dituk ola egongo, e?

Gizonezkoak, piku azpian jarri ta flauta jo; ta emakumeak ibiltzen dituk gaixoak lanean.

Ikazkiñak ere ikusi nizkian ikazkintzan. Emengo gari-metak bezelakoak egiten zituen, ttiki-ttikiak, txondarrak. An aritzen ituan; da gero kilometrotan eramaten zituen bizkarran saltzera ikatza. Baiña bide askoan, e? Igoal amar kilometro ta geiagoan, anka utsik. Anka-azpiak dana azala lodilodi, pitzatuta.

Eta gizonezkoak, esan dedan bezela, pikuaeren itzalean jartzen ituan, da flauta jotzen. Bagenduan ondoan iru andre zeuzkan gizon xar bat. Baiña zer edade izango uan arek? Orduan zaarra uste genduan. Andre bat bere edade modutsukoa zeukean, ta beste bi gazteagoak. Gazteena zeukean ogei ta lau bat urtekoa edo ola; ta azkenean arek lejonarioetako teniente batekin aldegin zioan.

Ta *rabadan* emen garizuma bezela egiten die; ta orduan, goizeko bostetatik uste diat, gaueko amarrak arte ezer jan gabe egoten dituk. Debildadearekin makiña bat moro izurratzen dek orduan. Eta guk esaten:

— Baiña zertarako?

Ta esan ziguan guk ere alamoduzko gauzak egiten giñuzela, ta oiek relijioko goraberak zirala. Ta gizarajoa goseak aulduta an egoten uan. Gero, gauean, berealdiko festa egiten die, jaten dutenean. Ola ogei ta amar bat edo etzekiat berrogei egun pasatzen ituan.

*Alb.*— Gero, askok esaten dutenez, peligrosoa izan bear dik, emengo bat an soldaduskan dagoan garaian, moraren batekin joatea edo itzegitea edo...

*Laz.*— Bai; zelosoak dituk oso, ta ortan bista euki bearra zegok. Bestela, itzegitea ere bai, e?

Gaiñera, beste gauza bat zeuken aiek: bazekien guk kolonia bezela gendukala ura, eta guk entenitzen genduan.

Aiek nai zien gu bialtzea andik. Ta arrazoi zeukee gaiñera, aiena dek ura ta. Orain, gu egon giñan lekuan, Tetuanen, ia etzegon soldadurik, Espaiñikorik.

Ordurako ere sellua Marruekoskoa bear zian an. Ta kalifa ogei ta amaikagarren aldiz, gu an geundela, ezkondu uan. Eta ezkondu bear zualako, amar zentimo igo zien sellua. Eta pentsa zak: ogei ta amaika aldiz ezkondu uan...

## DONOSTIKO OMENALDIA

(1976-I-25)

*Beraren bertsoak, eskerrak emanez:*

Lengo saioan nere bertsoa  
ezin liteke edertu,  
baiñan taupaka daukaten onek  
zerbait nai luke agertu.  
Zoriona ta negarrik ez det  
ikusi gaur bezin gertu.  
orduan ere biotz illunak  
nai zinduzteke eskertu.

Nai nuke eta iñolaz ere  
dana ez nezake bete,  
enuen uste gaur arteraiño  
oinbat niñutenik maite.  
Oinbeste lagun, oinbeste biotz,  
onenbeste borondate,  
ta zuek, lagun bertsolariak,  
ongi portatu zerate.

Bizi naizela etzait aztuko  
ikusten detena emen,  
ez dakizute zuen aurrean  
zeiñen illun jartzen naizen.  
Naita're jardunagaitik emen  
zuei eskerrak ematen,  
biotzak nai dun gauza guztia  
ez baizait ondo ertetzen.

Eskerrak ongille guztiontzat,  
alabatu nai det emen,  
sentitzen dedan gauza guztia  
zailla baidago esaten.  
Nere biotza negarrez dago  
zuei eskerrak ematen,  
eta onekin bukatu nai det  
begiak lertu baiño len.



**ZEGAMAKO OMENALDIA****(1979-XI-11)***Lazkao-Txikik eskerrak ematearren kantatuak:*

Erri onetan ni ibiltzen naiz  
 nere erriko moduan,  
 iñoiz denbora-pasa etorri,  
 beste batean kantuan.  
 Baiñan gauza bat pentsatzen nago  
 nik au ikusi orduan,  
 erdi kezketan galdetutzen det:  
 oinbat merezi al nuan?

Millaka esker, zegamatarrak,  
 millaka esker, Zegama,  
 zu zera nere bigarren erri  
 edo bigarren ama.  
 Biotz erdian gordeko det gaur  
 zuk egiten dezun dana,  
 au da zentzua bizi dan arte  
 nigan aztuko ez dana.

Millaka esker, Mixel, zuk eman(1)  
 etxeratzean amari,  
 biotzak esan nai duen dana  
 ezin det esan kantari.  
 Zueri ere millaka esker,  
 ene lagun bertsolari,  
 zuen gogoia onela bazan  
 millaka esker danari.

Agur, bertako senar-emazte,  
 nola aiton ala gazte,  
 zuen txalo ta nere erregali,  
 jatorrak izan zerate.  
 Berriz eskerrak; orain joan eta  
 ondo bazkaldu zazute...  
 Alkar maitatzen ikasi eta  
 pakean bizi zaitezte.

Bertso onekin azken agurra  
egin nai nuke orduan,  
nere biotza saltoka baita  
erloju baten moduan.  
Gero geiago itzegingo da  
ateratzean kanpuan,  
bildurrik gabe dei nazazute  
nitaz beartutakuan.

---

(1) Mixel Xalbador ere saioan izan zan bertso kantari.

## OÑATIKO OMENALDIA

(1985-IV-27)

***Larregain** elkartean, omenaldia egin eta sariak jaso ondoren, Lazkao-Txikik eskerrak ematerakoan:*

Zuek merezi bezin egoki  
ezin nezake itzegin;  
orregaitikan barka zazute,  
saiatuko naiz alegin.  
Uste ez nuen omenaldi bat  
ein didazute Oñatin,  
lagun zirala jakiñagatik  
oinbeste zanik ez nekin.

Oinbeste sari artu ondoren  
ni gelditutzen naiz lotsez,  
alde batera lotsaren kezka  
baiñan bestetikan pozez.  
Asko pozten naiz bertsozaleak  
neregan ainbat oroitzez,  
orregaitikan millaka esker  
opa dizutet biotzez.

Leno ezkondu gabe ez nengon  
ni lasa edo trankilla,  
pila-fabrikak linternatxo bat  
eman dit ona ta abilla.  
Guardasol ori gero artuko det  
eta bestean makilla,  
gauetz emen naiz Oñati aldera  
emaztegai baten billa.

Emakumeai ere eskerrak  
eman nai diet azkenik,  
pena bat daukat andre polit bat  
len ez nuela artu nik.  
Baiñan zartuta ezin goxatu  
nere biotzaren miñik,  
gaur bitartean ez nun pentsatzen  
orren goxoak ziranik.

Erregaliak klase deneta-  
tatik izan dira emen,  
nere berri dakitenak asko  
azaldu dira nabarmen.  
Txantxiku-txokon ere nerekin  
nunbait akordauta zeuden,  
guardasol bat erregalau dute  
geiago ez bustitzearren.

Praile jaun batek liburuak ta  
artzaiak berriz gaztaiak,  
biotz aunditik oroitzen dira  
gure mendiko anaiak.  
Bertsoak ere aztutzen zaizkit,  
gaur zuek eskertu naiak,  
nere biotzan taupada auek  
ez daude oso lasaiak.

Bear ainbeste esker ematen  
ez dago errez kantari,  
urrengo eskerrak sukaldezain ta  
gero serbitzari oieri.  
Puxka bateko zorra Oñatin  
gaur gelditutzen zait neri,  
eta eskerrak jai eder au len  
pentsatu zenduteneri.

Zorion geio pertsona batek  
ezin espero munduan,  
bizi naizen bitartean beti  
au izango det goguan.  
Ainbeste lagun jator aurrean,  
praile batzuek onduan,  
une onetan dudan jartzen naiz  
zeruan ote nagan.

Eskerrik asko biotz-biotzez  
saio onen azkenean;  
bildur bat daukat: atzendu eta  
norbait ote dan atzean.  
Gaurko zor au ez det pagatuko  
bizi naizen bitartean,  
baiñan nerekin danok kontatu  
beartzen zeratenean.

## GETARIKO OMENALDIA

(1989-I-17)

*Iru omenduak, Basarri, Lasarte eta Lazkao-Txikik,  
bertso auekin eman zituzten eskerrak.*

*Bas.-*

San Antonetan erri ontan gu  
ez dakit nik zenbat urte,  
orduan egin gendun lan pixka  
askok ezagutzen dute.  
Gureganako ainbat maitasun  
eta ainbat borondate,  
o Getariko anai-arrebok,  
zoragarriak zerate.

*Las.-*

Erregaliak jaso ondoren  
nola ez asi kantari?  
Gaurko eguna izango degu  
betiko gogoangarri.  
Len lanak ondo ordaindu eta  
orain omen ona sari,  
biotz-biotzez eskertzen zaitut,  
zorioneko Getari.

*Laz.-*

Lendabiziko eskertutzen det  
egun au asmatu duna,  
agintari ta erri guztiai  
eskeintzen diot urruna.  
Zor bat berria gaur egin degu  
pagatu ezin deguna,  
bizi naizela etzait aztuko  
gaurko Getariko eguna.

*Bas.-*

Ogeitaka urtez jardunak giñan  
 udaletxetik kantari,  
 erri onetan pasa genduan  
 une goxoak ugari.  
 Euskal-Erriko lorategi ta  
 zeru bereko atari,  
 nik era ontan juzkatzen zaitut  
 biotzez, nere Getari.

*Las.-*

Erri onetan gureganako  
 biotz xamurra daukate,  
 eman diguten egun ederrez  
 erabat txoratu naute.  
 Gustora gera Lazkao-Txiki,  
 Basarri eta Lasarte,  
 agur, anaiak, agur, arrebak,  
 zeuek nai dezuten arte.

*Laz.-*

Omenajerik onena genun  
 gutaz oroitutze ori,  
 orrez gaiñera eman digute  
 zoragarrizko bi sari.  
 Eskertutzen det erri osoa,  
 eskertutzen det Getari,  
 al dedan arte jarraituko naiz  
 erri onen serbitzari.

## BEASAINGO OMENALDIA

(1991-IX-15)

*Joxe Migelek irurogei ta bost urte betetzen zituan egunean.*

*Lazkao-Txikik kantatuak, eskerrak emanaz:*

Negarra ez det ain urruti baiña  
asi nai nuke kantari,  
eskertuz orain etorri zaidan  
orrenbestetxo dantzari,  
txistulariak, soiñu-joleak,  
denok goratzarre neri.  
Dudan nago nik merezi ote  
nuen bada gauza ori,  
baiña biotzez eskertzen ditut,  
esker milla guztiori.

Eta urrena eskertutzen det  
nik Beasaingo Udala,  
Aldundi eta Arranotarren  
ain borondate zabala,  
eta urrena neregatikan  
bildu dan jende apala.  
Seguro dakit gaurko zor aundi  
ordainduko ez dedala,  
zuek serbitzen jarraituko det  
orain artean bezala.



Urrutietatik etorri zaizkit  
 orrenbeste bertsolari,  
 guztiak ondo kantatu dute  
 nola txiki ala larri.  
 Eskerrik asko zueri ere,  
 biotzez ongi etorri;  
 maisu aundi bat emen daukagu  
 bertsolarien oiñarri,  
 denen partez zu izentatzen zaitut,  
 o biotzeko Basarri!

Eskerrik asko, zuzendariak  
 ta bertsolari gazteak,  
 erdi zartuak poztutzen gaitu  
 zuek ola ikusteak.  
 Bertso ederrak bota dituzte  
 aik entzun eta nekeak,  
 baiñan aurrera gelditutzen zait  
 konta alako urteak,  
 eskerrik asko denori eta  
 lagun daizute suerteak.

Naita're ezin ezer asmatu,  
 begiak dauzkat tristeak,  
 ezpaiñak bertso kantari baiñan  
 negar-malkotan beteak.  
 Pena ematen dit alde batera  
 zuek utzi ta joateak,  
 ezin aundigo izan baidira  
 gaur zuen borondateak,  
 zuek eskertzen pasako ditut  
 gelditzen zaidan urteak.

## ILLETAKO BERTSOAK

(1993-IV-4)

*Egunkaria*-n, 1993-IV-4-  
ean, Joxe Lizasoren bertso au  
azaldu zan:

Notizia triste bat  
eldu da gugana:  
Lazkao-Txiki dula  
Jaunak eramana.  
Berak ere bazekin  
maite genduana,  
taldean ori gendun  
izar argiena,  
Euskal-Errian iñoiz  
aztuko ez dana.

Goierriko udalak eskela  
bat ager arazi zuten egunka-  
rietan, bertso onekin:

Kabi batean sortu ote da  
bein ere olako piztirik?  
Bertso batean nola goraldu  
merezi duen guztirik?  
Iñoiz algaraz jarriko gaitu,  
bestetan malkoz bustirik,  
baiñan sekula ez zaigu arrotz  
txori orren abestirik.

Goierriko Bertsolari Es-  
kolak eskeiñitako eskelan,  
beste bertso au:

Adio, Joxemiel,  
artista noblea,  
Goierriko landare,  
edonun lorea.  
Zure bizitza degu  
altxor dotorea,  
edukiko deguna  
mendetan gordea,  
zuk gu utzi gaituzu,  
guk zu ez ordea.

Zegamako udalak eskei-  
ñitakoan, berriz, beste au:

Udaberrian sartuak gera,  
bartzarrak dira loratu,  
eta gaurkoan berri txar batek  
goibelduta utzi gaitu.  
Gure errian ainbat urtetan  
bertso ugari kantatu,  
agur ta erdi, on Joxe Miel,  
zeru goiak alaitu.

## Meza denborako bertsoak:

*Jon Lopategik:*

Lurra lurrari ordaindu eta  
zeure espirituz aidean,  
egazka zoaz izarrik izar  
erromes Jainko-bidean.  
Zure sarrera bertso-afari  
batez ospatu naiean,  
zeure zain dago zeruetako  
bertsozaleen maiean.

*Patxi Iraolak:*

Abaliñeko izar argia,  
izar misterioso,  
itzaldu zera ta illun dago  
Lazkaomendiko auzoa.  
Zu izan zera gure lagun on,  
maisua eta gurasoa,  
gure oroitzan jasoko degu  
zure izate osoa,  
Zeruko Aitak izan zaitzala  
bere altzoan jasoa.

*Txomin Garmendiak:*

Atzo goizean, txori guztiak  
esnatutzeko orduan,  
bat betiko lo or gelditu zan  
uste ez gendun moduan.  
Lazkao-Txikik agurtu gaitu  
eta norabait da juan,  
sinismendunak poz bat badegu  
burutik ezin kenduan:  
egun aundia datorrenean  
alkartutzeko zeruan.

*Anjel Mari Peñagarikanok:*

Lazkaomendiko seme argia,  
bertsolari, txiolari,  
maitagarritan maitagarria,  
umorearen iduri.  
Zeiñen xamurki kanta zenion  
zuk bein egunsentiari!  
Goizean goizik alaitasuna  
baldin badegu nabari,  
pentsatuko det Lazkao-Txiki  
ari zaigula kantari.

*A. Sarriegik:*

Lazkaomendin sortua eta  
bertan azia gaiñera,  
maixuen maixu, gure eredu  
garbia izan zen bera.  
Goierrri aldeko kimu gazteak  
artaz oroituko gera,  
egunsentia datorrenero  
Lazkaomenditik bera.

*Imanol Lazkanok:*

“Lazkaon jaiο, azi iñun ez”  
noizbait esana zenduan,  
gezurra ere polita baita  
parra egiteko orduan.  
Nik galdetzen det besterikan nor  
azi dan zure moduan?  
Aundienetan aundi ziñaden  
bertsolarien munduan,  
euskera zutik dabillan arte  
izango zera goguan.

Illobiratzeko orduan kantatuak.

*Xabier Zeberio:*

Aman magalen kantatu zendun  
arten ziñela mutiko,  
o, Joxe Miel, geio ez dezu  
zure bertsorik jaulkiko.  
Egunsentiai abestutzeko  
berriz ez zera jeikiko,  
sortzen ikusi zintuan lurrak  
estal zaitzala betiko.

*Amurizak:*

Agur ainbeste poz eman duzun,  
Lazkao-Txiki maitea,  
kostako zaigu gure plazetan  
ez zaudela sinistea.  
Agurra eman ta mingarria da  
zu illobian uztea.  
Beste mundua ez da izango au  
izan den bezain tristea,  
zerbait badago desio nuke  
zure ondoan piztea.

Manuel Lasarte kanpoan  
gelditu zan, elizan ezin sar-  
tuta. Bertsorik ezin kantatua  
asko sentitu zuan. Baiña ona  
emen aren bertsoa, Lazkao-  
Txikiren eskela batean ager-  
tua:

Jaungoikoa da gure jabe ta  
alguztiduen bakarra,  
aren deiari, datorrenean,  
dago erantzun bearra.  
Itzali zera, Euskal-Erria  
argitzen zendun izarra,

bizitzan parre eragin dezu  
il zeranean negarra,  
agurtzen zaitut zerura arte,  
Joxe Migel lagun zarra

Eriotzaren urteurrena Paz-  
koa egunarekin egokitu zan.  
Manuel Lasarteren beste bertso  
au agertu zan eskela batean:

Lazkao-Txiki, gure  
lagun zar kutuna,  
gaur urte bete ziñan  
mundutikan juna.  
Ura zan naigabea  
eman zeniguna!  
Zeruan ospa zazu  
Pazkoa eguna,  
orixe da guk zuri  
opa dizuguna.

\* \* \*

Lazkao-Txiki il baiño zazpi  
egun aurretik, kinto-bazkari  
batean, Juan Krutz Lasa, *Zela*,  
Lazkao-Txikiren soldadu  
lagunak kantatua:

Gaurko onetan ixil-ixilik  
egon bearrean nago ni,  
Lazkao-Txikikin eduki degu  
makiñatxo bat armoni.  
Orain gaixorik nola dagoen  
iltzen edo-ta agoni,  
ura orrela ikusi eta  
neu're ez nago ondo ni.

**GERTAERAK**

## ABALIÑE

Egun batean onela galdetu zioten Lazkao-Txikiri:

— Zu, Joxe Migel, nun jaio ziñan?

— Lazkaon.

— Eta azi?

— Azi iñun ere ez!

\* \* \*

Beste batean onela galdetu zioten:

— Zuek zenbat senide izan zerate?

— Gu zazpi —Joxe Migelek—. Iru arreba eta lau anai.

— Eta bizi?

— Bizi, ni bakarrik.

— Eta besteak?

— Ez; aiek lana egiten dute.

*(Joxe Mari Arrieta bertsolaria, Ernani)*

\* \* \*

Amak arraultz-mordoska bat omen zeukan etxean, eta Joxe Migeli agindu omen zion Ordizira eramateko saltzera. Beste oillanda elbarri bat ere alper xamarrik bazegoala eta eramateko aiekin batera ura ere; eta saldu edo erregalatu edo zerbait egiteko.

Joan da Ordizira bere otarratxoan arraultzak eta oillanda zituala, eta jendea etorri eta galdetzen zion

— *¿Tienes huevos para vender?*

Ori esan eta otarra kolpetzen asten omen zitzaizkion, eta berak:

— *Oye: por favor no me toques los huevos, que, si no, se me levanta la polla.*

— *¡Qué sinvergüenza!* —esanez aldegiten omen zioten. Eta Joxe Migelek:

— *Es verdad. ¡Mira, mira!*

Eta an erakusten zien oillanda, arraultzen gaiñean.

*(Juan Krutz Lasa, Zela, Joxe Migelen soldadu laguna)*

\* \* \*

Lazkao-Txikiren nere leenengo ezagutzak gure aitak eman zizkidan. Gure aita argiña zan, eta or ibiltzen zan batean eta bestean. Joxe Migelen etxean ere bai, au mutil gaztea zala.

Batean gure aitak:

— Ea, Joxe Migel, mortero!

Joxe Migelek:

Ola ibili bearko degu urtero!

Orduan gure aitak:

— I aterako aiz bertsolaria!

Andik laster, Mondragoira bizikletan joan omen zan txapelketa batera, eta bigarren atera.

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)*

\* \* \*

Lazkao-Txikiren aita ere iztun egokia omen zan. Semeak berak kontatzen zuan.

Beren etxe azpian-edo ba omen zan belardiren bat. Belarra andik sortaka ekartzen zuten. Izan ere, gazte-gaztetatik ganadu-jana sortaka etxeratzen oitu bear izan zuan.

Batean, Joxe Migel artean mutil gaztea eta karraioan ari ziran. Azken sorta ekarri zutenean, esan omen zion aitari:

— Aita, auxe da azkenekoa!

— Bai! Auxe dek, bai, azkenekoa! —erantzuna, itz-jokoa egiñez.

(Mikel Mendizabal bertsolaria, Itsasondo)

\* \* \*

Joan da Joxe Migel ganadu-jatenetara. Kargatu du astoa, eta eskuarea eta sega bizkarrean artu eta bera atzetik. “Arre!”, eta astoak martxa.

Ongi gobernatuta egongo zan nunbait, eta alako batean astoak atzetik *puzzz!* egin eta alto egin zuan bere gisa.

Etxera parrez leertzen iritxi omen zan Txikia, eta arre-bak esaten dio:

— Zer ari aiz, motell, ere gisa parrez? Txoratu al aiz-edo?

— Txoratu esaten den? Txoratu? Ik ere egingo uke parre, gure astoak nolako frenoak dauzkan jakingo bau!

— Zer, ba?

— Zera: astoak berak bota din puzkarra: *puzzz!* Eta nik so esan diodalakoan, bera gelditu ez den, ba?

(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)

\* \* \*

Pentsu saltzen aritzen zan garaian, illobei laguntzen zien: auek esnea banatzen eta bera kotxearekin aiei laguntzen.



Batean an omen zegoan, kotxearen atea zabalik eta marmitak barruan zituala, eta illobak etxeetara joanak.

Etorri zaio lagun bat ingurura eta esaten dio:

— Joxe Migel, orain letxero?

Eta berak:

— Bai; esnea partitzen etxero!

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Beste au, Joxe Migel soldadu joan baiño leenagokoa da, gu oraindik oso gazteak giñala.

Lazkao-Txikik motorrik etzuan artean, eta bizikletan ibiltzen zan. An motorren bat bazegoan eta onela esan zion batek:

— Ik olako motor bat bear uke.

— Bai. Ez diok txarrari esaten —erantzuna.

Eta gero onela jarraitu zuan:

— Bidea txarra ta etxea tontorren,

aruntz etzegok joaterik motorren.

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Astoa zuan oso animalia estimatua, eta sarritan aipatzen zuana. Alako batean asiko zitzaizun:

— Leengo batean, gure etxe ondoko astoari begira egon ninduan, arrituta. Oraintxe belarri bat gora eta bestea beera. Aldapa latz bat igotzerakoan ere, kolorerik batere aldatu gabe *tarrat-tarrat*. Ondo pentsatzen jarrita gaiñera, astoa oso animalia milagrosoa dek.

— Zergatik? —galdetu zion an inguruko emakume batek. Eta berak:

— Zergatik? Zuk ikusi al dezu inoiz alako ipurzulo boro-billetik pakete kuadratuak egiten?

*(Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano)*

\* \* \*

Lazkaomendin jendeak parre asko egin du Lazkao-Txiki-rekin. Baiña, tamalez, ez da bertan kanpoan bezin estimatua izan.

Gu, udaran, Lazkaomenditik lagun asko joaten giñan mendira, belarretara. Amondarain baserrian biltzen giñan, menditik etortzen giñan guztiak.

Leku ortan zortzi-amar bat aritz arbola daude, eta eserleku batzuk bertan. An biltzen giñan baserritar-mordo bat, eta Lazkao-Txiki ere tartean an izango zan. Ango zato eta kontu, festa aundia sortzen zan.

Batean, ogei ta emezortzi lagun juntatu giñan belarretatik bueltan, eta trago eta mokadu. Egun ortan, an geunden guztioi bertso bana kantatu zigun. Ondoren, txisteak, amai gabe.

*(Jose Anjel Garmendia)*

\* \* \*

Goiz batez, ni soldaduskatik etorri berritan, aitak onela esan zidan:

— Osaba or joan da korrika, pakete txiki bat eskuan artuta.

Guk artean ez genekian zertan zebillen. Baiña geroago jakin genduan, magnetofonia txori-kantua grabatzeko jarria zuala.

*(Felipe Barandiaran, Lazkao-Txikiren iloba, Lazkao)*

\* \* \*

## LAZKAO

Joxe Migel, artean gaztea zala, joan da lagun-talde batekin bizikletan buelta bat ematera, Naparro aldera.

Lizarrustiko gaiña igo eta an goian zerbait jan bear zutela. Taldean bazuten lagun bat, aundi samarra, litxarero famakoa. Ango tabernan sartu ziranean, Lazkao-Txikik esan omen zion:

— Ik e, olain lodi egoteko, ondo igo dek aldapa.

— Bai. Naiko ondo igo diat. Bizikletea ere, oraindik arrapatu dedan onena au dek.

— Zer? Leen ere arrapatutakoak izan al dituk, ala?

Gero lagunak esan omen zioten mutil arek lapur-fama zuala. Eta Txikia ikaratuta, ezer jakin gabe ori esan zualako.

(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)

\* \* \*

Lazkaon misioak omen ziran. Eliz-atarian biltzen omen zan jendea; eta kanpai aundiak *dan! dan!* jotzen asten ziranean, kantari asi eta barrura sartzan ziran.

Aurreko egun batean, *Hortelano*-ren baratztatik egundoko aza-pilla galdu omen zan. Aza oiek arrapatu zituanaren juzkua ere seguru samar egiña omen zuten, eta beren artean omen zegoan ura ere. Ala, ba, kantari danak:

— *Atoz, pekataria...*

Joxe Migelek an ondoan ikusten omen zuan dalako ustezko aza-zale ura, eta au ere besteekin batean kantari. Gure Txikiak bere artean pentsatzen omen zuan: “Onek zeinengatik esaten ote du: *Atoz, pekataria?*”

Urrengo urteko funtzioan, onela esaten zuan gure Joxe Migelek:

— Aurten zein ote da? Leengo urtekoa bagenekian. Aurten ere emen izango dek bakarren bat tartean.

(*Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia*)

\* \* \*

Lazkaoko Aurrezki-Kutxara joan omen zan bein batean taloiren batekin, dirua sartzeko asmoz; eta angoak esaten dio:

— Zuk nun daukazu kontua, Joxe Migel?

— Nun eukiko diat! Zuk bezela, mingaiñean!

(*Mikel Mendizabal bertsolaria, Itsasondo*)

\* \* \*

Joxe Migelen auzoan bada gizon bat egundoko desgastea daukana. Oso poliki ibiltzen da. Ez du ia arra beteko pausorik ematen. Bi makillaren laguntzaz oso nekez mugitzen da batetik bestera.

Egun batez, Lazkao-Txikik etxetik irten eta lagun batekin topo egiten du. Larri-larri pausoa egiten zuana izendatuz, onela esaten dio lagun orri:

— Orrako orri *eskiadorea* jarri zio, ba, norbaitek izena!

Besteak erantzun zion:

— *Eskiadorea* jarri al diote? I ez intzan urruti ibiliko orduan!

Seguruenik, orduantxe bururatuko zitzaion Joxe Migeli; eta, zuzen esan ordez, beste norbaiten izenean botako zion *eskiadore* izengoitia.

(*Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia*)

\* \* \*



Karnabal festetan.

Egun batean, Lazkaomendin biok giñan alkarrekin, eta eguraldi txarra egiten zuan. Lanbroa edo orrela zan. Bat urbildu eta onela esan zigun:

— Au dek eguraldia, au! Au dek eguraldi kabroia! Bein bear eta gaur egin bear lanbroa ta zikiña! Or gora abiatu nauk, ez guardasol eta ez ezer, eta buru guztia busti zaidak!

Eta Joxe Migelek:

— Puska bateko lanak badituk orduan ori dana sekatzentzen!

(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)

\* \* \*

Lazkaoko taberna batean erriko gallego bat omen zegoan, Lazkao-Txikiren laguna edo ezaguna beintzat. Egun artan berriketarako gogo aundi samarra edukiko zuan nunbait, eta Joxe Migeli adarra jotzen asi zitzaion:

— *Lazkao-Txiki, tanta fama! ¿Tú qué eres, pues? ¡Muchas plazas, muchos versos, pero tú no sabes nada!*

Joxe Migelek onela erantzun omen zion:

— *Es verdad. Pero entre tú y yo lo sabemos todo. Porque tú lo sabes todo, menos que eres tonto. Y eso ya lo sé yo.*

(Jon Lopategi bertsolaria, Muxika)

\* \* \*

Lazkaotar bat bazan, Beasaingo fabrikan lan egiten zuana. Askotan bajan egoten zana izan bear zuan; eta batean Joxe Migelek eta biak Lazkaon egin dute topo.

— Zer? Orain ere bajan? —Lazkao-Txikik.

— Bai, motell! Bajan natxiok, ba!

— Zer daukak, ba?

— Zer daukadan? Egundoko gerriko miñarekin ibiltzen nauk. Medikuarengana joan eta *lumbago* daukadala esan zidak.

— Joño! *Lumbago*, e? *Lum* sendatuko zaik, baiña *bago* ez die kenduko iri.

(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)

\* \* \*

Lazkaoko festetan, San Prudentziotan, asto-karrera antolatu zuten eta bazijoazen kalean gora.

Korrikalariei begira an zegoan Lazkao-Txiki, eta don Jose erriko medikua ondora etorri eta esaten dio:

— Ara, Joxe Migel! Or zijoaztek ire lagunak!

Eta Txikiak:

— Oiek nere lagunak? Ez, jauna, ez! Oker zabilta. Oiek karrerakoak dira!

(Joakin Berasategi, Olaberri)

## IGELTSERO

Lazkaoko Estankoko nagusiarekin igeltsero ere ibili zan Lazkao-Txiki. Egun batean metrorik gabe gelditu omen ziran, eta nagusiak esan omen zion:

— Joxe Migel, joan adi ferreterira eta ekar zak metro bat.

Joan da, ba, eta ferreterian:

— Zer nai zenduke?

— Nagusiak metroa eramateko esan dit eta...

— Emen dauzkazu bi. Onek amaika pezeta balio ditu, eta beste onek bederatzi.

— Luzean biak igualak izango dira, ba?

— Bai.

— Orduan bederatzi pezetakoa eramango det —Joxe Migelek.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Lazkao-Txiki asko sufritutako pertsona bat da. Lazkao-mendiko beste baserri asko bezela, pobrea zan Abaliñe ere. Arreba etxera ezkondata, anaia, gure Joxe Migel, etxean bizi zan.

Eskola utzi eta bereala, Estankoko Lukasekin asi zan peontzan lanean. Nagusi orrekin urte batzuk egin zituan.

Garai orretan, Idiazabalgo festetan, gaupasa egin omen zuten, eta urrengo egunean lortu omen zuan Lazkao-Txikik



bere nagusia leen aldiz parrez ikustea. Oso serio ibiltzen baitzan beti Lukas.

Gaupasa ondorengo goizean, Lazkao-Txiki eta bere laguna ez omen ziran lanera etorri; baiña eguerdi edo arratsalde aldera an azaldu ziran. Nagusia errietarako prest zegoan.

Asi dira lanean. Masa egin bearra zegoala-ta, Joxe Migel galbaiarekin area pasatzen asi omen zan. Une ortan etorri da nagusia, eta onela asten zaio, serio samar:

— Pasau al da? Pasau al da?

Lazkao-Txikik:

— Pasau? Oraintxe ari gera pasatzen!

Lukasek gerora ere gogoan izaten zuan Lazkao-Txikiren erantzun ori. Errieta egiteko asmoz asi izketan eta parrez bukatu.

(Jose Anjel Garmendia)

\* \* \*

Lazkao-Txiki obratan denboralditxo batean lanean jarduna zan. Batean, pasadizo aundia zegoan zera batean ari omen ziran, da enbarazo pixkaren bat egiten sobra ere, ta batek dio:

— I, *paso!*

Eta Joxe Migelek:

— Lenago egin bear uan *kasu!*

(Patxi Telleria, Gaintza)

\* \* \*

Beste gertaera au, Lazkao-Txikik berak Usurbillen kontatua da, 1981-VII-4-ean.

Gaztea nintzan artean. Obran ari nintzala, etxe artako neska gazte bat urreratu eta nik galdetu nion:

— Izena nola dezu?

Eta berak:

— Nik Pilar.

Baiña begietan antzeman nion gezurra esan zuala; izena etzuala Pilar.

Ura aizparik zaarrena zan; eta, andik pixka batera, or azaltzen da aren laugarren edo bostgarren edo zortzigarren aizpa, neska txiki bat. Bere aizparen alde atera nai zuan, eta onela esan zidan:

— Bai, bai! Zuk ez dezu sinisten, baiña egia esan dizu: gure Milagrosek Pilar du izena.

\* \* \*

Au ere, Lazkao-Txiki igeltsero aritzen zan garaikoa da. Lazkaoko monjen komentuan konponketaren batzuk egiten ari ziran bera eta beste lagunen bat.

Monja oiek klausurakoak dira. Joxe Migelek superiora-rekin beste ñorekin etzeukan itzegiteko aukerarik. Monja ori zaldibitarra, eta irurogei ta amar bat urtekoa orduan. Gaiñerako monja guztiak, langille aiek an ikuste utsez, zintzarria jo eta aide izkututzen omen ziran.

Egunero orrela. Joxe Migelek zerbait esan nai, eta ez omen zan ausartzen. Baiña eguna joan eta eguna etorri, konfiantza pixka bat artzen asi zan superiora orrekin, eta alkarrizketa serio samarrak ere izaten omen zituzten.

Oietako batean, onela galdetu zion superiorak:

— Zu, Lazkaomendin, zein etxetakoa zera?

— Ni? Abaliñekoa.

— Andik onera etortzen zera, beraz, egunero...

— Bai; ala etortzen naiz ba.

— Zuk egiten dituzu sakrifizioak! Egunero andik onera! Eta gero, emen egiten dituzun lanak! Zure nekeak eta izerdi oiek Jaungoikoari eskeiñiko bazenizkio, induljentzi aundiak irabaziko zenituzke.

— Jaungoikoari nekeak eta lanak eskeiñi?

— Bai. Jaungoikoari eskeiñi bear zaio ori dana.

— Ba, neri etzait ori ondo iruditzen. Jaungoikoari eskeintzeko, nekea eta izerdia baiño zer edo zer ohea nai litzake. Iñork ez ditu oiek nai, eta iñork nai ez duana Jaungoikoari eskeiñi?

Orrelako eztabaidak izaten omen zituzten.

Beste batean geiago galdetu bear ziola, eta asi omen zitzaien Joxe Migel, ura azaldu orduko zintzarria jo eta danak izkutatu zirala ikusi zuanean:

— Bai al dakizu zer pentsatzen ari naizen? Zuen erlijio oni, erlijioarena ez baiña beste superstizio edo sorginkeri oien tankera ematen diot nik. Danak aurpegia tapatuta; eta, gaiñera, izkutatu egiten dira oraindik ere. Guk, norbaitekin asarretzen bagera, alkarri desafioa egiten diogu: “Geiago ez diat aurpegira begiratuko!” Zuekin iñork ez degu ezer izan, eta aurpegirik ikusi gabe egon bear! Au ez al da gauza tristea?

— Bai, Joxe Migel. Orrela begiratuta ala ematen du. Baiña guk ere badauzkagu, ba, gure reglak.

— Zuk ere bai oraindik, ala?

Superiora, parre egin eta ez omen zan asarretu.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

## SOLDADUSKA

Onako au bere lagun bati gertatutakoa da soldaduskan.

Egun batean, *teórica* ematen ari zirala, alferez batek galdera au egin zion Lazkao-Txikiren lagun orri:

— *Oye, vasco: ¿tú sabrías decirme quiénes fueron los Reyes Católicos?*

Gure mutilla ebakita geratu zan. Baiña aldamenetik Joxe Migelek ixil-ixilik esan dio belarrira, eta onela erantzuten du:

— *Mi alférez, los Reyes Católicos fueron Melchor, Gaspar y Baltasar.*

Eta alferezak, denbora-pixka batean pentsaketan egon ondoren, onela esaten dio mutillari:

— *Creo que tienes razón. A mí también me parece que éstos fueron más católicos que Isabel y Fernando.*

(Peli Eskisabel, Ordizia)

\* \* \*

Beste egun batean, *teórica* dalako ortan ari zirala, tenienteak galdetzen dio Lazkao-Txikiri:

— *Oye tú, minúsculo: ¿sabrías decirme de cuántas partes se compone el cañón?*

Lazkao-Txikik:

— *Sí, mi teniente. El cañón se compone de cuatro partes.*

— *Bien, majo, bien. Pero ¿sabrías decirme los nombres de esas cuatro partes?*

— *En este momento no me acuerdo, mi teniente. Pero si usted me ayuda un poco, seguro que se los digo de carretilla.*

Tenienteak, irripartsu Joxe Migelen graziarekin:

— *Mira, mozo: esta parte del cañón —bere makillarekin egurrezko armazoa seiñalatuz— se llama la cureña. A ver si me dices las demás.*

Eta Lazkao-Txikik serio-serio:

— *¿No se lo decía, mi teniente? ¿Esta parte es la cureña? Pues las otras; Lugo, Orense y Pontevedra.*

*(Peli Eskisabel, Ordizia)*

\* \* \*

Goizean joan dira mendira kapitana, tenientea eta koa-drilla bat zaldietan. Andik buelta eginda etorri ziranean, zer moduzko eguraldia egiten zuan, ba, an goien. An, Afrikan, euri gutxi egiten du, baiña orduan lanbro-eguna zan.

— *Hoy hace mal tiempo —esan genion guk.*

— *¡Qué va! Hoy no hace mal tiempo. Aquí sí, pero arriba está limpio —kapitanak.*

Eta Joxe Migelek:

— *Mi capitán, no he oído nunca que arriba esté sucio. Arriba siempre estará limpio.*

*(Juan Krutz Lasa, Zela, Joxe Migelen soldadu laguna)*

\* \* \*

Joxe Migel Afrikan soldadu zegoala, etxera etortzerako erlojuak erosi bear, ba, an oso merke zeudela eta.

Ala, joan dira moroengana, beste soldadu batzuekin batera: bi euskaldun eta beste sei Salamanka, Toledo eta alderdi oietakoak.

Bi euskaldunak an ari omen ziran erlojuak ikusi eta komentarioak egiñez:

— Onek polita ematen dik. Zenbat balio ote dik?

Ala ari dirala, moroak esaten die:

— Zuek euskaldunak? Ni Euskal-Errian egona...

Moro ori gerra garaian emen ibilia izan bear zuan. Berekin euskeraz aritu ziran, eta beste lagunak arrituta. Koartelera itzuli ziranean, onela esan omen zieten beste lagunei:

— *¡Jodé con estos vascos! ¡Hasta con los moros se entienen!*

(Miguel Mari, Lazkao-Txikiren iloba)

\* \* \*

Bein asi zan kontatzen, Afrikan soldadu zegoala, medalla eman ziotela *por méritos*, eta nik esan nion:

— Iri *por méritos* medalla? Ni joan izan banintz...

— Ik? Batalloi guztia botako uan ik anka aundi oiekin! Ixilik egon adi, Armuño, eta jan zak or!

Ixilik egon bear! Zer erremedio?

(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)

\* \* \*

Euskaldunak, izaten diran lekuan, dirua uzten dute beti; eta soldadu euskaldunak ere bai, iritxi diran tokian.

Lazkao-Txiki Afrikara, Zeutara, soldaduskara joan zan urte artan, euskaldun soldadu asko izan omen zan. Aiek an zeudela, iritxi zan urrengo txanda, baiña ez omen zan nunbait euskaldun askorik etorri. Eta ango tabernari batek onela esan omen zion besteari:

— *Paisa, este año pocos turroneas.*

Lazkao-Txikik berak azaltzen zuan esaldi orren esanaia:

— Gu, euskaldunok, an aritzen gintxoan “i, etorr’ai onea” alkarri esanez; eta aiek *turronea* artu gure izentzat.

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Onako gertaera au, Lazkao-Txikik berak kontatua da, eta magnetofonoz grabatua.

Nik ez det eskola aundirik. Ala ere, Afrikan soldaduska egiten ari nintzala, banuan soldadu lagun bat, Córdoba probintzikoa, ez iriburukoa, idazten eta irakurtzen etzekiana. Batean esan zidan:

— *Oye, Iztueta: ¿ya me escribirías, por favor, las cartas?*

— *Con mucho gusto. No tengo mucha escuela, pero ya te haré ese favor.*

Egun batean etorri zaio andregaiaren eskutitza. Etzuan nai izaten iñor enteratzerik, baiña nik irakurri bear.

Badakizute zer egin zuan? Ni maian eseri arazi niñun, baxoerdi bat ardo emanda; eta bera nere atzean zutik jarri, neri belarriak tapatuz, ni ez enteratzeagatik. Irakurtzen bukatu nuanean, bera pozik lagatzeagatik esan nion:

— *¿Qué te dice la novia?*

— *¡Jo! ¡Me quiere más!...*

Arek, ni ez nintzala enteratu uste zuan.

\* \* \*

Egun batean etorri zaio Naparrotik soldaduskako lagun bat, eta beraren ilusio guztia itxasoa ikustea zan. Artu du

Joxe Migelek bere kotxean eta zuzen-zuzenean eraman du Donostira, *Paseo Nuevo* deritzaion tokira. Irten dira kotxetik, eta or topatu da gure naparra itxasoarekin. Onela dio:

— *Pero ¿todo esto es agua?*

Eta Joxe Migelek:

— *No, hombre, no. Sólo lo de encima. Debajo no hay más que piedras.*

(Peli Eskisabel, Ordizia)

\* \* \*

Ba omen zan koartelean mutil euskaldun bat, mendimendian jaioa eta erderaz tutik ere etzekiana. Lazkao-Txikik nungoa zan ere esaten zuan.

Bein batean, goardia egitea tokatu zaio mutil orri; eta, suertez, jenerala etorri bear zuan egunean.

Goizeko zortzietarako antxe zeuden zai-zai jarrita. Baiña bederatziak jo, amarrak jo, amaikak eta amabiak jo eta jeneralaren arrastorik ere ez, eta danak kokotzeraiño asper-asper eginda.

Orduan tenienteak onela esaten dio gure mutillari:

— *Mira, vasco: tú te quedas aquí de guardia y cuando veas venir un coche grande con banderín, gritas lo más fuerte posible: “¡Guardia, a formar!”. Y entonces saldremos nosotros.*

Ala, beste guztiak barrura edo norabait joan dira, eta gure mutilla an gelditu da bakar-bakarrik ateondoan. Bera ere aspertuta eta onela esaten zuan:

— Au dek abelera, au! Ordu auek eta oraindik iñoren arrastorik ez! Nora joan bear diagu gizon auekin?

Alako batean, ordubata inguruan, or dator jenerala; eta mutil orrek, “*¡Guardia, a formar!*” oiu egin bearrean, berari eraso zion:



— *¿Estas horas de venir tienes? ¡Toda la mañana esperando con botas lustreados y todo! ¡Pasa, pasa! ¡De buena leche está el teniente!*

Besteak konturatu ziranean, an etorri ziran danak korrika. Ura zalaparta-otsa!

Tenientea, alfereza eta danak zigortuak izan omen ziran, guardia garaiz formatu etzutelako.

*(Joakin Berasategi, Olaberrí)*

## ORDIZIAN

Lazkao-Txikik, ia asteazkenero, Ordizira joaten zan, ango azokara. Bein an zebillen, eta emakume bat gereziak saltzen zegoan. Ala, jarri zan Joxe Migel begira, eta:

— Ño! Gerezi ederrak!

Saltzailleak:

— Bai. Alaxe dira ba.

Lazkao-Txikik artu zuan bat eta probatzen asi. Baiña gero, berarekin zijoazenak ere artu eta jan. Eta alako batean etxekoandre arek esan zion:

— Aizu: ok, jatezkeotan, eosita, e? Eosita!

Eta Joxe Migelek:

— Eosita? Gordiñik ere on askoak daude!

*(Jose Antonio Mujika, Ordizia)*

\* \* \*

Auxe Ordiziko *Siglo XX* tabernan gertatu zan. Kasualidadez, eskela bat irakurtzen nengoala, azaldu zait albotik gure Lazkao-Txiki; eta, neronek egun onak eman ez, komentatu nion:

— Ara, Joxe Migel: begiraiok eskela oni. Lastima dek! Ogei ta iru urteko mutil gaztea joan dek beste mundura!

Lazkao-Txiki ixilik. Berriro ala diot:

— Noizik bein gazteren bat ere iltzen dala...

Eta arek:

— Bai, Peli, arrazoi dek: gazteren bat noizik bein, baiña zaarrak beti.

(Peli Eskisabel, Ordizia)

\* \* \*

Beste batean, Ordiziko Zinean, bera eta beste bosten bat bertsolari ziran bertsotan. Oien artean, Mattin zana.

Gaia omen zuten Ordiziko *rascacielos* dalako ura, erakitzean egindako akatsen baten ondorioz erortzeko zorian egon zana.

Kontua da Mattin bertsotan ari zala arkitektoaren erru egiten. Baiña frantzes aozkeraz esaten zuan, eta *artitefto* edo antzeko zerbait ulertzen omen zion Joxe Mielek, eta onela esan omen zien ingurukoei:

— Onek *artefaktoa* esan dik eta oraintxe bota bear ziguk etxea!

Asi dira danak parrez eta iñork ezin bertsotan segi.

\* \* \*

Ordiziko bertso-saio batean, potoren bat edo beste egin omen zituan Joxe Migelek; eta, bere damua azalduz, azken agurrean barkamena eskatu zuan.

Bukaeran Lopategik:

— Zergatik esan dek ori?

— Zer esango nian, ba, bi poto egin da gero? —Lazkao-Txikik.

— Ba, leen bi edo iruk zekitena, orain danak zekitek —Lopategik.

(Mikel Mendizabal bertsolaria, Itxasondo)

\* \* \*

Ordiziko asteazkenetako peri-egun oietako batean, bere betiko puestotxo batean txarlatan bat an ari zan:

— ¡Barato! ¡Barato!

Gu Lazkao-Txikirekin an inguratu giñan lagun-talde bat momentu orretan, da ola dio Joxe Migelek:

— ¿Bartato, barato? I aiz aparato!

Ta:

— ¡Excusen! ¡Excusen!

Eta Lazkao-Txikik:

— I aiña bagaituk esku utsen!

Egun berean, taberna batera sartu giñanean, erreitzalle bat an ari zan sekulako keak boteaz.

Lazkao-Txikik:

— Zer tabako-mota erretzen dek?

Erretzailleak kajetilla erakutsiz:

— *Ganador.*

Joxe Migelek:

— Ala jartzen dik or.

(Patxi Telleria, Gaintza)

\* \* \*

Ordiziko gazta-txapelketa urte artan Erkizik irabazi eta an zebillen bera, naiko argituta. Bazkaldu bear zuten inguruan urrak zeuden ugari.

Lazkao-Txikik ikusi zituan eta onela esan zuan:

— A zer urre-pilla!

Erkizik ikusi eta onela esaten dio, arbola dantzatzuz:

— Urrea bear al dek! Orra, ba, urrea!

Joxe Migelen erantzuna:

— Urrea? Etzak, ba, bota lurrea!

*(Xabier Zeberio bertsolaria, Itsasondo)*

\* \* \*

Ordizian bein ba omen dabil Lazkao-Txiki azokan, eta emakume bat asten zaio bere puestotik:

— Begira, Joxe Migel, berdura ederrak! Azenarioak eder askoak! Auek onak dira bistarako!

Erantzuna:

— Bistarako? Ezkukurako ere ez dira oiek txarrak!

*(Mikel Mendizabal bertsolaria, Itsasondo)*

\* \* \*

Gaztaiña-garaian, emakume ezagun bat bi-iru zakukada gaztaiña saltzen Ordiziko azokan. An ingurutik pasa Lazkao-Txiki, eta emakumeak dei egin zion:

— Zatoz ona, Joxe Migel! Gaztaiña salduko dizut!

— Zer moduzkoa daukazu?

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Ateraldi au bera beste modu batera:

Altzagako neska bat zaku erdi gaztaiñarekin Ordiziko plazan. Lazkao-Txiki ikusi eta onela esaten dio:

— Joxe Migel, ez al dezu erosi bear? Ara gaztaiña!

— Ona al daukazu? Ona baldin badaukazu, salduko dezu.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Batean, Ordizian, bazkaltzeko asmoz joan giñan Etxanizenera, baiña guri ezezko borobilla eman ziguten: etzegoala lekurik.

Geroxeago joan ziran Lazkao-Txiki eta beste lau. Oien artean, Idiazabalgo igar bat. Joxe Migel ikusitakoan, sobra ere neskak esan zion:

— Pixka batean egoten bazerate, oraintxe dijoazte altxatzera lau lagun.

Idiazabalgo igar orrek:

— Bale, bale! Lau lagunentzat lekurik baldin badago, ni maiaren azpian ere berdin-berdin jarriko nauk.

Eta Lazkao-Txikik:

— Leen ere an egondako itxura ohea daukak ik!

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Ordiziko bi neska zirala uste det, aizkoran dexente nabarmendu ziranak. Etzuten asko iraun. Festa edo plaza batzuk egin zituzten, baiña berealaxe erretiratu ziran. Neska dotore eta apaiñak ziran.

Egun batean, bi neska oiek aizkoran ari zirala, gu ere aiei begira geunden, eta Lazkao-Txikik:

— Aizkorarako petxu ona bear omen dik! Oiek oso petxu ederrak zeuzkatek, ba!

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Ordiziko perian, babarruna saltzen zeukan emakume bati, Lazkao-Txikik:

— Zenbatean daukazu babarruna?

— Lakaria ainbestean.

— Ez dira garesti, etxeakoandre, musika ta guzti izango dira ta!

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Asteazken batean Ordiziko ferian zebillela, etxeakoandre batek sisa-mordoska bat izan bear zuan salgai. Oso gutxi gelditzen zitzaizkion eta, zituanak eskuan artuta, onela eskeiñi zizkion Lazkao-Txikiri:

— Auetxek, arraultz bat gozatzeko ainbe, Joxe Migel!

Eta onek:

— Eta besteari zer egin bear diot, ba?

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Batean, Lazkao-Txiki eta biok, beste urte batzuetan bezela, Eguberri-egunean, alkarrekin izan giñan Ordiziko zaarren Egoitzan.

Ango gure jira txiste eta bertso egin ondoren, Zaldibira etorri giñan. Emen kafea artu, berak Arriarango Julianengana joan bear zuala eta illuntzerarte agurtu giñan.

Ni, illuntze aldera, tabernara joan nintzan eta Joxe Migelen galdera egin nuan:

— Izan al dira emen Joxe Migel-eta?

— Bai. Izan dira eta Larraitzera joan dira. Baiña esan dit, ba, polita!

— Zer esan dizu, ba?

— Berarekin batera luze bat etorri da. Ez dakit zein izango dan. Arek onela galdetu dit: “Aizu, etxekoandre: gaz-taiñak erre al dira-edo?” Eta Joxe Migelek atzetik: “Lastima dek, motell, oraindik orren gaztaiña erretzea!”

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Lazkao-Txikik, Ordiziko ferira etortzen zan biajante oietako batena kontatu oi zuan.

An jarduten omen zan, arkakusoak akabatzeko botika oso ona bazeukala propaganda egiñez. Bazeukala, baiña urrengoan ekarriko zuala. Beti urrengoan, baiña etzan bein ere irixten urrengo ori.

Alako batean, emakume-talde batek inguratu eta estu samar artu omen zuan: aiei adarra jotzen ari zitzaicela, astero kontu berdiñarekin.

Ala, ba, atera omen zuan patrikatik botilla txiki bat, barruan autsa zuana, eta esan omen zien:

— Auxe da, ba, auts ori!

Emakumeak:

— Eta zer egin bear da orrekin? Oean zabaldu, urarekin nastu edo zer?

Eta berak:

— Ez. Aurrenik arkakusoa arrapatu bear dezu; gero aoa zabaldu eta orduan autsa aora bota. Danak akabatzen ditu.

\* \* \*



Ordiziko pelotalekuan jaialdiren bat antolatu zuten. Jai-eratzaillea gizon txiki bat zan.

Aizkolarien eginkizuna oso ondo prestatuta zegoan: etzandako enborrak, zutikakoak eta era guzietakoak. Aiek beren lana bukatu zutenean, urrena bertsolarien txanda: Mitxelena eta Lazkao-Txiki.

Kantatu bear zuten tokiraiño eraman zituzten, eta an ez oltzadurarik eta ez mikrofonorik ere.

Ori ikusita, onela dio Lazkao-Txikik inguruko jendeari:

— Au dek bere lanari begiratu eta besteenari garrantzi-rik ez ematea!

Or dijoa, bero-bero eginda, antolatzaille zan gizon txiki orrengana eta onela esaten dio:

— I, aizak: txikia izatea ez dek ire errua; baiña eskasa izatea bai, e?

*(Joakin Berasategi, Olaberri)*

## BEASAIÑEN

Beste bein, Beasaingo garaje batek milloi erdiko errenta zuala zabaldu zan, eta ala galdetu zidan:

— Egia al dek ori?

— Otsak ala dira —nere erantzuna.

— Illabetea azkar pasatzeko sistima ona izango dek ori!

Nai ez dana azkar etortzen dala, alegia.

(Anjel Mari Peñagarikano bertsolaria)

\* \* \*

Beasaingo kalean or zetorren *Banco Santander*-ko zuzendaria. Altsatsuarra izan bear zuan eta alkarri ulertzeko erderaz egin bear. Kontua da zakur aundi batekin zetorrela, ia astoa aiñakoa.

— *Luis, ¡vaya amigo que te has echado!*

— *¿Te gusta?*

— *Sí; pero ya puedes andar con cuidado.*

— *¿Por qué? El perro es el mejor amigo del hombre.*

— *Pero también son los mayores enemigos de los banqueros.*

— *¡No me digas!*

— *Sí, sí. ¿Qué es: perro o perra?*

— *Perro, perro.*

— *Pues éstos joden todas las perras.*

(X. X.)

Joxe Migel pentsu saltzen ibiltzen zan garaikoa da au.

Goiz partetik, enkarguak jasotzen-eta, Sebastian sozioaren karnizerian egoten zan. An zan egun artan ere, periodikoa irakurriz; eta andre bat sartu omen zan eta Sebastiani onela esaten dio:

— Egun on Jainkoak dizuela!

— Bai zuri ere. Zer degu, etxeakoandre?

— Aurreko batean eraman nuan, ba, nik emendik txorizoa. Txorizo polita zan. Bai al daukazu alakorik?

— Bai. Igual-iguala degu.

— Naiko txorizo polita da —andreak—. Baiña baserriko txorizoa bezelakorik ez dago.

Joxe Migelek aldamenetik:

— Gu emen gaude, ba, baserriko txorizoarekin, estimazio aundirik gabe!

(*Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia*)

\* \* \*

Beasaingo *Bodegón Goierri*-n gertatua da beste au. Lazkao-Txikik oso joera aundia zuan orrerako. Arratsalde batean lagun batzuk an ari giñan:

— Gizon batek, lasai bizitzeko, zenbat milloi bearko ote lizkek?

Batzuek sei; besteak bost eta abar.

Sartzen da Lazkao-Txiki ta, entzuten digunean zer esaten ari giñan, onela dio:

— Ezta pentsatu ere! Entierro batetik netorrek. Zortzi milloi zeuzkana uan, baiña il egin dek.

Ala bukatu zuan gure alkarrizketa ura.

(*Patxi Telleria, Gaintza*)

\* \* \*

Beasaiñen-edo ba omen zan fabrika bateko delineantea, erdalduna, bi seme dituana, biak gizonezko aundiak; baiña oietako bat, ikaragarritzko buru alea duana, eta lepoa txiki-txikia, eta ala ere burlosoa. Lazkao-Txiki ikusten zuan bakoitzean, onela asten omen zitzaion:

— Lazkao-Txiki, *enanajo!* Lazkao-Txiki, *enanajo!*

Egun batean, *Bar Loinaz*-en zegoala, beti bezela asi omen zitzaion:

— Lazkao-Txiki, *enanajo!* *¿También hoy por aquí?*

— Sí, claro. *Hay que acudir a las fiestas del pueblo.*

— *¿Fiestas? ¿Dónde ves tú fiestas?*

— *¿Tú no o qué? ¿No ves a los chavales corriendo a tu alrededor?* —Lazkao-Txikik, cabezudo esan nairik.

Baiña beste ura ez jabetzen, eta ondoko batek:

— Joxe Migel, alperrik ari aiz, orrek ez dik ezer ulertzen eta.

Lazkao-Txikik:

— Ba, neri berriz ere *enanajo* esaten badit, ulertzeko moduan esango zioat, orratio!

Ala, andik egun batzuetara, burloso buru-aundi ori beti bezela asten zaio:

— Lazkao-Txiki, *enanajo!* *¿También hoy por aquí?*

Orduan Joxe Migelek:

— *¡Sí, hombre, sí! Yo soy enanajo y ¿qué le vas a hacer? Pero lo mío tiene explicación, porque mi padre era un casero analfabeto. Lo que no tiene justificación es lo tuyo; porque siendo tu padre delineante, ¿cómo ha podido hacer un croquis tan desequilibrado y tan impresentable, cabezudo de los cojones?*

(Jose Luis Gorrotxategi bertsolaria, Osintxu)

\* \* \*

Beasaingo *Castillo* jatetxean afaltzen giñan, eta Lazkao-Txiki an ari zan txiste eta berriketan, sarritan oi bezela.

Serbitzaria neska erdalduna zan, eta ari ere kontatzen zizkion txistetak. Ura, ordea, lanean ari zan, eta beti “no puedo” esaten zion. Joxe Migelek, berriz: “*espera, espera*”.

Alako batean neskak esaten dio:

— *Ya pasaría un rato a gusto contigo.*

Txistetak entzunez noski.

— *Yo también* —Joxe Migelek.

— *Pero sin verde.*

Txiste berderik gabe esan nai zion. Eta Joxe Migelek:

— *Tanto mejor.*

Berdearena debalde ulertu balio bezela; milla pezetako billete berderik gabe alegia.

(*Kasiano Ibarguren, bertsolaria eta soñu-jolea, Lizartza*)

\* \* \*

Beste bein, Beasaiñen, sakramentino baten meza berri batean giñan. Badakit Lasa zuala apellidua. Meza eman zuanak egin zituan sermoiak, Jauna emateak eta danak. Oso elizkizun luzea izan zan.

Alako batean, elizkizuna bukatu zalakoan, nere ondoan zegoan txistulari beasaindar bati onela esan nion:

— Bukatua izango da.

— Ez —erantzun zidan—. Oraindik falta da *Te Deum*.

Eta Lazkao-Txikik aldamenetik:

— Etzekiat orduan bukatuko ote deun!

(*Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi*)

\* \* \*

Beasaiñen ba omen zituan iru lagun, tabernaria eta beste bi, berarekin beti musean botilla ardo bat jokatu bear izaten zutenak.

Bein, tabernaria kontrario zuan, eta nunbait ere amarrereko bat jaso omen zuan tranpaz. Joxe Migel oartu zan eta kargu artu omen zion. Besteak ukatu.

Orduan Lazkao-Txiki, orrelakoetan oi zuan bezela, oso bero jarri omen zan. Bere mus-lagunak, gauza ura baretzeagatik-edo, onela esan omen zion:

— Baiña, Joxe Migel! Ez adi orrela jarri, ardo botilla bat besterik ez da ta!

Eta Lazkao-Txikik orduan:

— Joño! I ere nere kontra! Nik orduan ardo botilla batengatik etzeukeat ola jartzerik; eta orrek lapurtzea bai?

Bota kartak mai gaiñera ta alde egin omen zuan andik, sututa. Orrelakoxe jenio bizikoa zan.

(Jose Anjel Garmendia)

\* \* \*

Lazkao-Txiki, Ordizian eta Beasaiñen, erdaldunen artean ere oso ezaguna zan.

Bein batez, guardiazibil erretiratu batekin topo egin omen zuan. Leendik ere ezagunak izango ziran eta asi omen zitzaion:

— ¡Hola, Jose Migel? ¿Aquí andas?

— Aquí ando.

— Cuéntame un chiste.

— ¿Qué te voy a contar, si sabes todos los que yo sé?

— Ya sabrás alguno nuevo.

— Pues mire: no sé ningún chiste nuevo, pero sí una comparación bonita. ¿A que no sabes en qué se parece un guardia jubilado a la mierda?

— ¡Vaya comparaciones que pones! —naiko asarre, guardiak.

— Ya sabía que te enfadarías, pero no sé otra.

— ¡Anda! ¡Dila ya!

— En que los dos están fuera del cuerpo.

(Mikel Mendizabal bertsolaria, Itsasondo)

\* \* \*

Orain ogei ta amar urte paseak izango dira. Lazkao-Txikik *Fundiciones Arriaran* fabrikan lan egiten zuan, kamioiak pisatzen eta. Ni kamioiarekin nenbillen orduan ere; eta, pisatzera joan nintzanean, ikusi eta esan zidan:

— Orain joango neok!

Geroxeago etorri zan eta onela esan zidan:

— Joño, *Asteasu!* Ez aut aspaldi ikusi! Ezkondu al intzan?

— Ez. Datorren astean ezkontzen nauk.

Andik astebetera ezkontzen bainintzan. Eta Joxe Migelen erantzuna:

— Datorrenean ni ere bai!

(Jose Gorostiza, *Asteasu*, *Illati tabernakoa*, Zaldibi)

## ZALDIBIA

Zaldibiko Guraso-Elkartean biltzen giñan gu garai batean, gure entrenamentuak egiteko; eta batzuetan joaten zan Txikia ere.

Egun batean inguratu zitzaion Elkarteko lendakaria. Baiña Guraso-Elkarte ortan mutilzar bat zegoan leendakari orduan. Onela esan zion:

— I, Joxe Migel: aurten ere negu beltza zetorrek eta nere moduan ik ere badaukak, bada, andra baten premia.

— Ba, euk esan dek dana.

— Emen bazeudek, ba, neska bikaiñak. Beitu zak au berau, gaztea eta dotorea!

Ondoan zegoan neska batengatik.

— Bai, baiña onek ere nobioa eukiko dik.

— Asko inporta zaiok, ba, orixe!

— Nobioa eukiko dezu, ez da? —Joxe Migelek neskari.

Onek:

— Bai.

— Ta emen al dago?

— Ez; soldadu dago.

— Nun?

— Leridan.

— Orduan eukiko dezu azkurea eridan!

(X. X.)

\* \* \*



Igande batez, Zaldibin, parabola bati buruz egin zuan apaizak sermoia: goizean nagusi bat plazara joan eta lanerako zeudenei denario bana; eguerdian zeudenek ere denario bana; eta arratsaldean joan eta an zeudenei ere denario bana.

Meza ondoan, Lazkao-Txiki apaizaren zai zegoan. Ala, irten du onek eta esaten dio:

— Zer degu, Joxe Migel?

— Ba, ementxe nago. Gaur zuk egin dezun sermoia etzait asko gustatu.

— Kontuz gero! Nagusiak agindutakoa eman zien danei: goizean zeudenei denarioa; eguerdian zeudenei ere denarioa; eta arratsaldean zeudenei ere berdin.

— Bai. Ori orrela izango da, baiña nagusi arek gaur egunean ez luke goizeko langille asko billatuko.

— Bai; baiña ori parabola bat da!

Asmatutako ipui bat zala alegia, guk aren erakuspenna jasotzeko.

Eta Lazkao-Txikik:

— Ez dakit, ba, *para* kendu ta ez ote dan ori obeto geldituko!

Olakorik gertatua izatea zail samarra ikusten zuan.


(*Xabier Zeberio, bertsolaria*)

\* \* \*

Bein, Zaldibiko taberna batera joan omen zan Joxe Migel, mokadutxoren bat egiteko asmoz, eta bokadilloa eskatu zuan. Etxekoandreak:

— Zer nai dezu: xerra, tortilla edo zer?

— Jarri zazu tortilla bat.



Zaarren omenaldia Zaldibin,  
6 - 9 - 1981.

— Frantzesara ala espainiarra?

— Berdin zait, itzegiteko ez det eta.

*(Kasiano Ibarguren bertsolaria eta soñu-jolea, Lizartza)*

\* \* \*

Bein, Zaldibira bertsoetara joan eta jende asko zan nolainari ere. Soziedadea ere dana beteta. Ango atean topo egin du aurdun naiko aurreratua zegoan emakume batekin.

— Zuek ere emendik? —emakumeak.

— Bai —Joxe Migelek—. Gizona libratu al zizuten?

Kartzelan eduki baitzuten.

— Bai; libratu zidaten, bai.

— Ezagun dezu! —Joxe Migelek, gerri aldera begiraturaz.

*(Mikel Mendizabal bertsolaria, Itsasondo)*

\* \* \*

Zaldibiko Gurutzeta baserria artu zuanean, leendabizitxerri azten ere jardun izan zan.

Egun batean, Mitxelena bertsolaria etorri omen zitzaion bisitara. An omen zebiltzan ikuilluak ikusten. Baita sukalde, kuarto eta gaiñerako gelak ere. Joxe Migelek:

— Ikusten al dek, i, Mitxelena, nolako kuartoak dau den? Noiz edo noiz señoiritaren batekin etortzea pentsatuta ere, leku ederrak zeudek emen.

— Bai. Tokiak bazeudek, baiña txerri-usaia aundia zegoen emen.

— Arritu egiten al aiz, i ere emen abil eta?

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Sebastian bere sozio lagunak eta biak edan dituzte baxoerdi batzuk alkarrekin, eta arek onela esan omen zuan:

— Nik oraintxe joan egin bear diat, karnizeria jaso ta...

Eta Joxe Migelek:

— Bai! Leen bean egonda jende gutxi joaten dala, ta jasota jarri zak eta zera joango zaik aruntza!

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Orain bi urte bigai bat erosi nion. Joxe Migelek esan zidan:

— Bazeukeat, ba, iri gustatuko zaiian bigai bat: beltxa ta errape txuriarekin.

Joan nintzan, ba, ikustera. Bata beltxa eta bestea pintoa zeuzkan. *Gurelesa*-ri esnea ateratzerako muestra eraman bearra neukala eta biena eramateko esan zidan. Eraman nuen, ba, eta beltzak esne meea zeukala; pintoak, berriz, ona. Ni beltxa erostekotan, baiña pintoa erosi bear. Ala esan nion:

— Beltxa naiago nian, baiña pintoak esnea beretzako lain izango dik beintzat eta...

Bigai bati tokatzen zitzaion ainbeste esne, alegia. Eta:

— Esnea ez dik beretzako bear. Esnea iretzako bear dik —erantzuna bereala.

— Begi-zuloak ere dezenteak zeuzkak —esan nion, eta berak:

— Ire etxeakoak ere begiak zuloan eukiko zitue...

Ala, ba, utzi edo artu, zerbait egin bearra zegoan; eta egin genduan, ba, tratua.

Etorri naiz ganadu billa kamioiarekin. Baiña aspaldian jaregin gabe zegoen, kiloz karga aundirik ez eta alako saltoak bigai orrek!

Berak artuko ote zuan sokatik, eta neuk artzeko esan zidan. Ala, artu det eta segi saltoka! Ainbeste traste zegoan ikuilluan, eta anka-ezurreko bat ere artu nuan, bigai ori mendera eziñez. Ikuillutik irterakoan, errenka ni, eta:

— Zer pasau zak?

— Kolpea artu dedala!

— Eta zeñek zeukak, ba, kulpea?

Ordiziko perian, elkar ikusitako guztian, galdetzen zidan:

— Zer moduz beia?

— Ondo! Etzeukak okerragorik!

— Eta esnea? Esnea ondo eukiko dik arek?

— Esnari eusten diona dek.

Kantidadeari eusten diona, gora-beerarik gabe. Eta Lazkao-Txikik:

— Eusten badio, ez dik emango!

(*Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal*)

\* \* \*

Ostegun Santu egun batez, etorri zan Lazkao-Txiki gure auzora, *Deposituta* deitzen dan tabernara. An alkarrekin meriendatu eta Zaldibira etorri giñan. Ain zuzen, Eustakio Mendizabal *Txikia* il zuten eguna zan. Beste leku askotako moduan, emen ere elizkizunak izan ziran errian. Baiña, gu etortzerako, funtzioak-eta bukatuak ziran.

Errian jaun batekin egin genduan topo. Au ordiziarra zan, baiña Zaldibira ezkonduakoa. Arekin izketan asi giñan. Joxe Migelekin adiskidetasun aundia zuan eta, erdi erdera eta erdi euskera, onela esan zion:

— ¡Hola, Jose Miguel! Hoy tampoco habrás estado en misa.

— Ez. Depositutan izan gera meriendatzen.

— Ni izan naiz, ba. Ara emen gurutzea.

Eskapulario moduko bat, Jesus gurutzean zuana.

— Bai al dakizu orren esan naia? —esan zion Lazkao-Txikik—. Au il zutenean, bi lapur jarri zizkioten zintzilika aldamenetan. Orain bera lapurrak zintzilikatzen dute.

Ori *Arresene* tabernan gertatu zan. Gero *Zubiondo* tabernara joan giñan, eta an bere tarteko beste bat etorri zitzaion kaso egitera. Onek erderaz egiten zion, eta Joxe Migelek:

— Euskeraz aztu al zaik, ala?

— Bai. *Yo en Bilbao trabajo*. An erderaz aritzen naiz eta euskera aztu zait ia.

— Ederra gertatu zaik orduan!

Egon zan pixka batean pentsatzen, eta ondoren onela asi zitzaion:

— Bein, bialdu omen zien bat erderaz ikastera Matxinbentara, eta amar urte pasatu eta ez omen zin itzik ere ikasi.

— ¡Ja, ja, ja! ¿En Matxinbenta cómo va a aprender el castellano? —besteak.

— Ik ez al uan ikasi ala Azpikoetxen —beraren base-rrian— euskeraz?

Atari aldetik bueltatxo bat eman zuan. Gero, etorri zanean, onela esan zuan:

— Gu joan giñuzen bein Bizkaiko erri batera bertsotara, An geundean tabernan, baxoerdi bana artuta, mostradore aurrean; eta batek esan ziguan: “Egun on, gizonok! Ez bazarie, barka!”

Beste ura etzala esan nairik-edo.

(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)

\* \* \*

Batean, Zaldibiko mutilzar batek botatzen dio Lazkao-Txikiri bertso bat, ez buru eta ez anka zuena, eta ondoren onela dio:

— Bertso ori esan nai aundikoa uan, e?

Eta Lazkao-Txikik:

— Ala bearko dik, esan ez dek ezer egin eta!

*(Patxi Telleria, Gaintza)*

## IDIAZABALGO SAN INAZIOTAN

Lazkao-Txikiren ondorengo bertso auek 1954 ingurukoak dira, urte bat gora-beera.

Idiazabalgo erriak badu San Inaziori eskeiñitako ermita bat; eta, jakiña, San Inazio egunez egiten dira an urteko jaiak.

Ermita onen gertuan, Katea izena duan etxean, taberna ezagutu det nik urte askoan. Gaur ez dago tabernarik, baiña gaur ere festa-egunetan jarraitzen du.

Beste taberna bat ere, Jeronimone izenekoa, gertuan dago, eta festa-egunetan jende asko inguratzen da.

San Inazio festa auetan, ni azken urte auetan Urbia mendian izaten naiz; baiña uste det leen jende geiago izaten zala.

Joxe Migel bera ere askotan etortzen zan gaztetan, 1962 urtetik gerora ez bazan askotan izango ere. Onen arrazoia da an eta emen kantatu bearra izaten zuala. Uztaillaren 31 udaren erdia eta festa asko izaten dan garaia da; eta noski, Lazkao-Txiki bertsolari ona eta txistosoia izanik, dei ugari izango zituan.

Ala ere esan bear da, egun orretan ainbat bertso etzuala askotan botako. Geiago ordainduta kantatuko zuan. Baita bear ere zerbaiten irabazia. Baiña, nik esan bear banu, utsean ere ez da gutxiena kantatua izango, nik ezagutu ditudanetan. Egun onetan ere berreun bertso baiño geiago kantatu zituala norbaitek esango balit, ez nuke ezetzik esango.

Izan ere, tipo bat etorri zitzaion tentatzera, eta an ziran angoak! Morroi zegoan bat zan au, eta aren bertso bota bearra! Puntu batekoak, bikoak eta puntu erdikoak ere bai. Baiña gaizki itzegiñez gaiñera.



Joxe Migelek esango zion bezela, morroi onek ondo zer zeukan, izan ere? Aurpegia gaizki garbitua eta beltz samarra, eta aizkorarekin egindako irudi batek ainbeste koska, asi kopetatik, sudur eta ezpain. Beste arek esan zuana esateko moduan zegoan:

amak pertsona bezela azi  
ninduan bada ni ere.

Baiña ala ere Lazkao-Txikiri billatzen zizkion akatsak, amaika aldiz entzun bear izaten zuan txikitik asita.

Joxe Migelek, berriz, aurrenetik, mutilzar zegoalako eta billatzeko zenbait bide zeuzkan eta abar, amaika parre egin arazi zigun: bateko txapel eta besteko txaleko, eta soka batekin kate orde z lotuta zeukan erlojua. Izan ere, dana iguala zeukan gizarajoak, berarengandik asita. Berrogei bat urte zeuzkan eta irurogei ematen zuan.

Dana dala, morroi au bertso ugari entzuna izango zan, asko ikasi ez bazuan ere. Au esaten det, puntuak jartzeko garaian naiko taju ona zualako; baita zail samarrak ere.

Txikiak, ordea, danei dotore erantzun zien. Pena da geienak galduak izatea. Guk iru naiko igual uste det artu zituena.

Ala, aurreko puntua jarritako bat gogoan artu genduan.

Morroiak:

— Mutilzarrak bazeukak  
bere mejorea...

Lazkao-Txikik:

Kopeta okerra ta  
beltza kolorea.  
Begien bistan zegok  
dekan balorea,  
nere moduan i're  
ez aiz dotorea.

Gero, andregaiak izan zituala esan zion, baiña ondo aprobetxatuta utzi zituala, eta oietako bat Bittori izenekoa zala.

Une ortan, nik ezagutzen ez nuan batek, Joxe Migeli belarrira zerbait esan zion; eta, entzutean, Txikiak onela erantzun zion:

— Ez nauk arritzen.

Eta, ondoren, zortziko aundiko bertso au kantatu zuan

Aldamenetik jakiñak ditut  
zureak ainbat istori,  
seguru asko oraindik iñork  
esan gabeak Kristori.  
Emakumetan kontatu arren  
zuk makiña bat bitori,  
ijito batek pujatu zizun  
ain maite zendun Bittori.

Beste puntu bat auxe jarri zion morroiak bereala:

— Beste bat polit askoa  
banin Mari Pili...

Eta Joxe Migelek:

— Beiratzen zionen bat  
edozein mutili,  
Esaten badidak e  
Petra ta Xixili,  
luzaro ezin leizkek  
irekin ibili.

*(Jose Intxausti bertsolaria, Segura)*

## PLAENTXIKO TXURRUKAN

Plaentxiko Txurrukara San Inazio bezperatik joan giñan Lazkao-Txiki eta biok. An badago elkarte txiki bat. Orduan danak an biltzen ziran; baita gu ere.

An bazuten apaiz zaar samar bat, oso gogor famakoa, jendeak bildur ziona. Afari ortan, gu bertsoan asteko puntuan, erretiratu egin zan Txurruka baserrira. Au an bertan baitago, izan ere. Bearbada, bertsorik ez entzutearren aldegingo zuan. Batzuek onela esan zuten:

— Pakea eman dik.

Egin genituan bi edo iru saio; eta goizaldera, laurak aldera-edo, eztabaida sortu zan baratxuri-zopa egin ala ez. Azkenean, etzan egin. Apaizaren bildurra ere bai agian. Baiña ogia ere falta zan.

Ortan ari giñala, Lazkao-Txikik bertso au kantatu zuan:

Zopa egitearren  
etzaitezte altxa,  
bestela jarriko degu  
sekulako saltsa.  
Ogirik eztagola ta  
falta berakatza,  
biarko jarriko degu  
sermoiren bat latza.

Orren ondoren, erretirako ordua; eta guk ere Txurrukako baserrian gure lo-lekua.

Txurrukako nagusiak kontuz ibiltzeko esan zigun; apai-za an zegoala eta, akordatzen bazan, etzala giro izango.

Baserriak egundoko pasillo luzea du, eta esan ziguten zein gelatan zegoan ere apaiza. Lazkao-Txiki gure aurretik zan, eta pasilloan kakalardo adar aundi oietako bat ikusi

zuan. Kanpora irten berriro eta, makilla txiki batekin lagunduz, esaten zion:

— Ik segiok orrera, ire laguna or dek eta. Gurekin ez dek ondo konpondu, eta ea irekin konpontzen dan.

Poliki-poliki apaizaren gelako atepetik barrura biali zuan kakalardo ori.

— Ori akordatzen bada, giro izan bear dik emen! —esan zuan Txurrukako nagusiak.

— Asarretu egingo ote dek, ba? —Lazkao-Txikik—. *Querida* ederra bialdu zioagu, ba, bere kolore-kolorekoa!

Ondoren, banatzerakoan, nagusiak onela esan zigun:

— Ni goizean txakurrak artu eta mendira joango nauk, erbiren bat edo beste dantza araztera. Zuek lo egin lasai!

Ori entzun orduko, Txikia ere berarekin batera zijoala. Nik esan nion:

— Eta lo, noiz egin bear dek?

Joxe Migelek:

— Gau bateko loagatik ez gaituk ilko!

Orduan ni ere prestatu nintzan. Goizeko zazpi ta erdiak alde orretan deitu eta or joan giñan. Nagusiak esandako tokian jarri giñan, eta or nun datorren erbia. Lazkao-Txikik:

— I, ikusten al dek? Ez dik ematen erreuma aundirik daukanik! Baziak mantxuagatik! Atzo ere guk ainbeste pattar etzin edango ta!...

Ala, an egon giñan denboraletxo batez, txakurren musika entzunez; eta Txikiak:

— Bazterretan egongo dituk musika-banda ederrak, baiña neretzat olakorik etzegok iñun!

Alako batean, amarretakoa gertu izango zala ordurako eta abiatu giñan Txurruka aldera. Gu joan ordurako, apaiza an zegoan, eulia botatzeko aiñako beroa bazan ere, beeko

sua egin eta aren ondoan. Guk gure agurra eman ondoren, zerbait esan bear eta nik esan nion:

— Zer? Gauean oztu egin al zera, ala?

Esan banion esan, etzan giro izan ondorengo amar minutu inguruan! Ederki asko pasa zituan gaueko kakalardo-kontuak. Gu lo zegoalakoan, baiña ura esna egon. Kartzelan sartzeko eta danak agindu zizkigun, baiña ordukoagatik salbatu egin giñan. Ixil askorik entzun genituan danak.

Andik bereala, nagusiak apaizari:

— Bertsolariak mezetan kantatu bearrik izango al dute?

Gogor asko erantzun zion:

— Berak ez erretiro eta ez errespeto ez duten bertsolariak, ez ditut nik mezetan ikusi nai!

Laster esan zidan neri Txikiak:

— Jardunaren buruan, geure faboreko kontu bat ere esan dik orratio!

Eguerdian, meza ondoren, bazkaltzeko garaian, San Inazioaren bizitza gora eta beera, egundoko eztabaidak izan zituzten apaizak eta Lazkao-Txikik. Baziran egun artan bazkaritara etorritako beste bi apaiz gazteagoak ere, eta aiek Joxe Migelen aide agertu ziran. Eguna beintzat oso lagun bukatu zuten, elkarri eskua emanez.

*(Jesus Alberdi, Egileor bertsolaria, Elosua)*

## LAGUN BERTSOLARIEKIN

Basarri eta Uztapiderekin bertsotan asi berritan, bazkaltzerakoan ardoa ateratzen asi omen zan eta basoak puntaraiño bete omen zituan. Basarrik esan omen zion:

— Baiña, Joxe Migel! Basoa ez dek orrela betetzen!

Gutxiago bete bear zala esan nairik, alegia.

Eta Lazkao-Txikik:

— Barkatu, Basarri, baiña or etzaude ondo. Basoa ola betetzen da.

*(Mikel Mendizabal bertsolaria, Itsasondo)*

\* \* \*

Batean, Usurbillen zeuden Mattin eta biak festa batzuetan, eta Mattinek esan zuan:

— Ikusten al dituk bi gizon hoiek? Hoiek dituk gizonak, ez gu, bi alu iñora aillegatzen ez geranak!

Eta Lazkao-Txikik esan omen zion:

— Ixilik egon adi, gu ere lurreraiño aillegatzen gaituk eta!

*(Mari Karmen Olaizola, Usurbil)*

\* \* \*

Batean, biak bertso-saio bat eginda omen ziran, eta Uztapidek esan omen zion:

— Gaur bertso-saio motza egin diagu, Joxe Migel.

Eta onek:

— Zu orratio antiguala zera. Ez al dakizu Arantzazuko fraileena: errezoa motza eta bazkari luzea?

*(Demetrio Arrieta, Legazpia)*

\* \* \*

Orain dala ogei ta amar edo ogei ta amabi urte, oraindik kamiorik etzeukan auzo batera joan giñan. Lazkao-Txikiren *Montesa* motorrean, al genduan tokiraiño iritxi, eta andik gora oiñez.

Illuntzeko saioa berandu samar egin genduan; eta, gu beera jetxi giñanean, bi kastillano kaskar, zearo txikiak alegia, kantuan ari ziran, eztarria eten bearrez. Bearbada, an inguruan zerbaitetan lanean ari ziranen batzuk izango ziran. Inguruko batek, andaluzak zirala esan zidan neri.

Lazkao-Txikik galdetzen dit:

— Zer linguajetan ari dituk auek?

— Andaluzak omen dituk, eta andaluzez.

— Auek etzeukatek nerekin alde aundirik anka-luzez!

*(Joxe Agirre bertsolaria, Azpeitia)*

\* \* \*

Udako illunabar batean, ondoren Lazkao-Txikik eta Mitxelenak Sorabillan bertso-saioa zutela-ta, Astigarragan ari giñan afaltzen.

Gu serbitzen ari zan neska, neska txiki bat zan, ipurdia juntu-juntu tapatzen zioten gona motx-motxekin.

Joxe Migelek onela esaten dio Mitxelenari:

— Begiraiok aurreko orri, Joxe Joakin! Ik aurpegia zabalagoa daukak, orrek ipurdia baiño!

*(Jose Gorostiza, Asteasu, Illati tabernakoa, Zaldibia)*

\* \* \*

Olaberrin, erriko tabernan, Lasarte, Agirre eta Lazkao-Txiki zeuden, bertsoara etorriak.

Izbidea ez dakit nundik etorri zan, baiña Lasartek onela esaten die besteei:

— Bein ere ikusi al dezute goardiazibillik guardasolarekin?

Eta Lazkao-Txikik:

— Ezta ik ere apaizik bibotearekin!

*(Joaquin Berasategi, Olaberri)*

\* \* \*

Uztapideren edo Mitxelenaren illetan izango zan. Lazkao-Txiki batzuetan alamoduz jantzita ibiltzen zan; eta egun orretan Lopategik, zerbait esateagatik, onela esan zion:

— Gaur elegante etorri aiz, Joxe Migel!

Eta onek:

— Orrekin ik, ni besteetan nola etortzen naizen esan naidak, ezta?

*(Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano)*

\* \* \*

Uztapide zanaren illetakoan, Mattin da biak omen zijozten; eta Mattinek esan omen zion:

— Elizkizun ederra, e?

Eta Lazkao-Txikik:

— Bai; baiña orretarako il egin bear.

*(Juan Madina, Oñati)*

\* \* \*



Lazkao-Txikik asko sufritzen zuan, naiz eta kanpora beti txiste eta alaitasuna agertu. Baiña arritu egiten zan Azpillaga bezelako gizon zoriontsu baten aurrean:

— Nola izan diteke batere sufritu gabe? Ik ez al dek sufritzen? Gizona ez dek bizi sufritu gabe! I ez aiz gizon normala!

Azpillagak erantzungo zion:

— Ondo bizi banaiz, zergatik sufritu bear diat, ba?

Orrek ere sutu egiten zuan Txikia. Gero, berarekin bakarrik izketan, orrela zergatik jartzen zan galdetu eta etzuen arrazoirik billatzen.

*(Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano)*

\* \* \*

Aurretik aren entzutea banuen, baiña oraintxe berrogei urte inguru ezagutu nuan, Tolosako iñauteri batzuetan.

Alako alaitasunean genbiltzala, Rondilla kalean bertso-tan ari nintzan, eta or nun erantzuten asten zaidan mutil txiki txastar bat. Ondo kantatu ere.

Ura bere taldearekin zan, eta ni ere bai. Elkarri ezaupidea eman eta bertso batzuk kantatu ondoren, *Zarauztarra* tabernara joan giñan. Afaldu eta bertso-saio galanta egin genuen. Geroztik zenbat saio egin ote ditugu?

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Urte-mordo bat bazijoan bertsolari-txapelketarik gabe. Orregatik, bertsolari guztiak biltzeko asmoa artu zuten, eta Donostiko *Bodegón Alejandro* jatetxean alkartu giñan illun-tze batean bertsolari geienak, nola Iparralde, ala Egoaldeko.

Eztabaida franko izan genduan, baiña andik ere etzan txapelketarik antolatu. Bapo apaldu eta etxerako bidea artu bear.

Nik ez nuan kotxerik; baiña Lazkao-Txikik bai; eta biok, gaiñera, ezkongai. Berak etxera ekarriko niñula, eta lasai.

Alaitasun-giro onean geundenez, Donosti aldetik jiratxo bat ematea pentsatu genduan. Ni entzunda nengoan, Donostiko *Gau-txori* deritzaion gau-etxe batean bi neska euskaldun bazeudela.

Amarara joan giñan, baiña iñola ere ezin aurkitu *Gau-txori* izeneko etxe ori. Goizeko ordubiak izango ziran. Iñor askorik etzebillen kalean. Alako batean, norbait urreratzen ari zala eta galdetu nion ea nun zegoan *Gau-txori* dalako ori, eta gizonak erantzuten dit:

— *Lo tienen en seguida, después de pasar Felipe cuarto.*

Gizonak buelta artu zuan orduko, Joxe Migelek bota zidan:

— *Nik Felipen kuartora joateko asmorik etzeukeat, ba!*

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Txomin Garmendia bertsolaria klinikan min artuta zegoala, Joxe Migel joan zitzaion bisitara. Aren burua, bapo soildua duanez, zuri-zuri ageri zan; baiña ebakietako joskurak urdiñak.

Eta Lazkao-Txikik:

— *Motell, motell! Buru ori josteko beste aririk ez al zegoan?*

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Erresidentzian egonaldi luzeak egin bearra tokatu zitzaidan, nere istripuaren ondorioz.

Oietako batean, bisitara etorri zitzaidan Lazkao-Txiki. Ordurako, ezkerreko anka luzatzeko tresna bat neukan jarrita, iztarraren kanpoko aldetik. Egunean milimetro bat tornillo bati buelta emanaz luzatzen zidaten, istripua izandako anka motzago gelditu zitzaidalako.

Joxe Migelek, tresna oiek ikusiz, onela galdetu zidan:

— Zer dek ori?

— Anka luzatzeko tresna.

— Nik ere orduan onera etorri bearra diat —berak.

— Obe dek, motell, emendik aparte leengo motxekin —erantzun nion nik.

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Orain bederatzi edo amar bat urte, Lazkao-Txiki eta biok, lagun-talde batekin, Gasteizen artu genduan aireplanoa. Zai genduela, alako batean altabozetik entzun genduan:

— Leendabizi, umeak.

Eta nik Lazkao-Txikiri esan nion:

— Segi aurrera, Joxe Migel!

Etzuan batere gaizki artu.

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Urria zan; uso-pasaren garaia. Gai ori dala, usoen gorabeheran alegia, idazlantxo bat agertu nuan periodikoan. Ori zala-ta, lagun batek onela esan zion Lazkao-Txikiri:

— I! Txomiñek usoen gaiñean eskribitu dik!

Eta Joxe Migelek:

— Arraioa! Goitik aritu dek eskribitzen oraingoan Txomin!

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Lazkao-Txiki bertsotan ari zan eliza baiño aundiagoko beste bi bertsolariren erdian. Bat, beintzat, Sebastian Lizaso zala uste det. Beste biak adarra jotzen zioten, txikia zala esanez.

Alako batean, bi bertsolari oietako batek baso bat ematen zuala esan zion Lazkao-Txikiri.

Eta onek onelatsu erantzun zien, bi erraldoiei beetik gora maliziaz begiratur:

— Naiago diat, bi botilla uts baiño, baso bat betea.

*(Joxean Ormazabal)*

\* \* \*

Azpeitiko Landetakoa bada gizon bat, Jose Antonio izena duana, baiña *Karpo* eta *Beatz-motza* esaten diotena, bertako Zabaleta baserrikoa.

Kontua da gizon onen aipamena egin nai ziola Lazkao-Txikik Sebastian Lizasori, eta izenik etzitzaiola gogoratzen. Azkenean, onela esan zion:

— Nola dek, ba, zuen lagun ori? Bai; illea baiño gorago burua daukan ori?

Izan ere, oso burusoilla baita.

*(Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano)*

\* \* \*

Seguruenik, Mañukorta bertsolariari “motxilla bizkarrean” irudia berak asmatuko zion. Berak leen aldiz esana, alegia. Gerora beste geiagok ere kantatu izan diote, edo diogu, baiña arek leenbizi, oker ez banago.

*(Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano)*

\* \* \*

Beste bein, Goierriko bertsolariak bi zinta eta disko bat grabatu genituan; eta azalerako danoi argazki bat atera bear zigutela eta an zebillen argazkilaria gu ondo jarri eziñik, eta jarritakoan ere atera eziñik.

Joxe Migelek onela esaten du:

— Au dek argazkilaria, au! Ederra zegok au txirrindulariak espriñean ateratzeko!

*(Mikel Mendizabal bertsolaria, Itsasondo)*

## GIPUZKOA

Astigarragako edo Ergobiko lagun batekin topo egin zuan Lazkao-Txikik Ernaniko Justonean. Lagun ori, ia bi metro inguruko gizon-zatia. Lazkao-Txiki, gizon aundi orren ondoan, gora eta beera begiratuaz asi zan; eta lagun orrek esan omen zion:

— Zer dek? Orain ere ba al dek zerbait esan bearra?

Eta Lazkao-Txikik:

— Bai. Begira nitxoan aldea nundik daukagun, eta goitik bakarrik zeukagu. Beetik parean gatxeudek.

*(Joxe Mari Arrieta bertsolaria, Ernani)*

\* \* \*

Altzon giñan bertsotan. San Inazio inguruan izaten da saio ori. Ondoren, udaletxera joaten gera kobratzera. Aldi artan an ari zan Joxe Migel soldaduskako kontuak esaten.

Ondotik Sebastian Lizasok:

— Soldaduskako kontuekin oraindik akordatzen al aiz?

Zaarra esan naiko zion.

Eta Lazkao-Txikik erantzun:

— I ez aiz soldaduskako kontuekin akordatuko, an ere beti lo egongo intzan da!

*(Anjel Mari Peñagarikanao bertsolaria)*

\* \* \*

Gaintzako plazan Lazkao-Txiki an egokitu zan batean gertatua.

Matias Telleria izeneko batek, motoa pintxatu ta eskuan zeramakiela, au dio:

— Au dek martxea!

Eta Lazkao-Txikik:

— Jarri iok partxea!

(Patxi Telleria, Gaintza)

\* \* \*

Au izan zala urte asko dira. Ogei ta amar edo geiago, bearbada.

Berastegin bazan *Pakito Txikia* esanda ezagutzen zan bat. Ura benetan txikia, enanoa zan.

Batean, Tolosako *Zarauztarra* tabernan sartu giñan Lazkao-Txiki eta biok, nunbaitetik bueltan. *Pakito Txikia* ere an zan. Agurtu ninduan ni ere; eta, norbaitek esanda-edo, an etorri zitzaion Joxe Migeli:

— Zu al zera Txikia?

— Bai. Ala izango naiz, zuk ere ori esaten didazu eta.

Gero, arek aldegin zuanean, onela esan zidan:

— Oraintxe derrigor sinistu bearra zeukeat txikia naizela, orrek ere txikia al naizen galdetu zidak eta.

(Kasiano Iburguren bertsolaria eta soiñu-jolea, Lizartza)

\* \* \*

Beste gertaera au Lazkao-Txikik berak kontatua da, eta magnetofonoz grabatua:

Orain dala sei-zazpi urte, *Laskibar* jatetxean boda batean giñan. Bazkalondoan, emakumezko bat urbildu zitzaidan, ez oso gaztea, ni baiño pixka bat aundiagoa, ez da zailla-ta, eta onela esan zidan:

— Dantza egingo al degu, Joxe Migel?

— Egingo ez degu, ba? —erantzun nion.

Ala, dantzan asi gera. Asko arrimatzen zan emakume ura. Artan ari giñala, onela esaten zidan:

— Oraindik ondo zaude zu!

— Zer, ba? —galdetzen nion nik.

Berak parre egin eta etzidan erantzuten. Baiña geroxeago berriz ere:

— Oraindik ondo zaude, Joxe Migel!

— Zergatik esaten didazu ori?

Berak parre berriz ere.

Dantza utzi nuanean, pentsatzen jarri nintzan zergatik ote zan; eta patrikan antiojuen kajatxoa, aluminiozkoa, euki nik; agidanean ura jotzen zuan dantzan zebillela.

Orduan konturatu nintzan orregatik esaten zidala: “Oraindik ondo zaude!”

\* \* \*

Billabonako jubilatuen ibillaldian iru urtetan segidan izan giñan. Aietako batean etzan Lazkao-Txiki azaltzen, ordu laurden bat itxogin genion, baiña azkenean martxa egin genduan.

Bazkaria Lekeition genduan. Bazkaltzen aстера ginjoazela, an agertu zitzaigun gure Joxe Migel. Onek garai artan kotxerik etzuan. Orregatik, Billabonara berandu iritxi zanean, udaletxean galdetua izango zuan nora ginjoazen, eta nun bazkaldu bear genduan.



Ala, Billabonatik Donostira, autobusez-edo, gero Debaraiño trenez eta gero ez dakit nola ibili bearko zuan, Lekeitioraiño joateko.

Azaldu zanean, jendeak txalo galantak joaz agurtu zuan. Baiña nik, olako despisteak bein baiño geiagotan izaten baitzituan, bronka latza eman nion, naiz eta bera etortzeaz asko poztu.

*(Kasiano Iburguren bertsolaria eta soiñu-jolea, Lizartza)*

\* \* \*

Liernira joan giñan bein bazkari batera. Jubilatuen eguna zala uste det. Goizean mezetan bertso bat edo beste kantatu genduan; eta gero bazkaria Patxirenean izango genduala.

Bitarte orretan, beeragoko beste taberna batera joan giñan, *bitter* bana artzera. An bi bikote adiñeko zeuden; jubilatuaiek aiek ere. Platertxo batean rabak zituzten. Gizonezkoak, ardoa; eta emakumeak, mosto bana.

Ikusi orduko, an asi ziran Joxe Migelekin izketan.

— Bertso ederrak bota dituzute elizan —esan zioten.

Ondoren raba bana eman ziguten, eta aitona batek bertso bana eskatu. Ezezka aritu giñan. Baiña azkenean amor eman eta kantatu genduan bana. Bukaeran, onela esaten dio Lazkao-Txikik aitonari:

— Bana eskatu eta guk bota degu. Baiña zuk ez dezu, emendik aurrera, eskatutako guztian botako.

*(Juan Mari Narbaiza bertsolaria, Eibar)*

\* \* \*

Beste au ere, Lazkao-Txikik berak kontatua eta magnetofonoz artua.

Getarin izan zan. Ikurriña libre utzi zuten urtea zan. Goizean joan giñanean an bazkaltzeko, onela esan ziguten:

— Zarauzko mutil gazte batzuk kartzelan sartu dituzte, ikurriñarekin billatu dituztela ta.

An batek galdetu zuan:

— Ez al dute, ba, ikurriña libre utzi?

— Bai; baiña Donostiko festa-egunean utzi nai omen dute ofizialki —erantzun zion beste batek.

Arratsaldean, erriko maistra bat jubilatuta zala eta omenaldia egin zioten. Joxe Lizaso nuan laguna. An geundela, orra nun azaltzen zaigun gizon bat, ni baiño askoz aundia-goa, paisanoz jantzita. Ez dakit nork bialduko zuan.

— *Buenaz tardez* —agurtu ginduan.

— *Muy buenas* —erantzun genion.

— *¿Zon uztede lo cantaore?*

Nere artean: “Onek bertsolariak esan naiko dik, ba!”  
Eta:

— *Sí* —erantzun nion.

— *Bueno, y ¿qué van a cantá?*

— *No lo sabemos.*

— *¡Pue vaya cantaore de lo cojone!* —erantzun zidan.

Ari nola adierazi bertsolariak nola kantatzen zuten? Ala geratu zan.

\* \* \*

Oso feri-zalea zan Lazkao-Txiki, eta bein Elgoibarren, feri-egunean, bera eta Oñatiko bat batera iritxi ziran aparkalekura. Kotxetik atera zanean, Joxe Migel orrek:

— Aizu, gaur emen jende gutxi dala ematen du.

Eta besteak:

— Orain, leen baiño bi geiago.

(Juan Madina, Oñati)

\* \* \*

Arantzazun, bera baiño askoz aundiagoa etzan *Xegama-*-rekin, prailleen baratzaren kontu daukanarekin alegia, izketan ari zan bein batean Lazkao-Txiki. Porru artean ikusi eta agurtu ondoren, esan nien:

— Porru artean ikusi ere etzerate egiten!

Porru aundiak baitziran. Eta Joxe Migelek erantzun zidan:

— Ez al da bistaren problema izango?

Ondo baitzekian nik begi bat galdua eta bestea erdi ipurdikoa dedala.

(Nikolas Segurola, Arantzazu)

\* \* \*

Azpeitian bada *Pikua* izeneko taberna. Bertako garai bateko tabernari eta nagusiak Luziano zuan izena. Lazkao-Txiki, pentsu saltzen ibiltzen zan garaian, taberna ortara sarri etorri oi zan.

Batean, Luziano orren seme bat, Fernando, orduan mutil gaztea, an zebillen mostradore inguruan, eta aren galdera egin zuan Joxe Migelek:

— Semea al dek ori?

— Bai. Bizikletan asi dek orain, eta etzekiat ezer egingo digun.

Eta Joxe Migelek:

— I lasai, erortzen bada ere ez dik beintzat ortzik botako eta!

Mutikoak sudur luzea zualako esan zuan ori.

*(Jose Anjel Garmendia)*

\* \* \*

Aralar-mendiko San Migelen, asolbizio egunean, joan da Lazkao-Txiki kaputxino bizar luze batekin konfesatzera. Aginduz-agindu ari dirala, iritxi dira seigarrenera. Orduan prailleak:

— Pentsamentu txarrik-edo?

Eta Joxe Migelek:

— Txarrak, jauna? Nik izaten ditudan onenak oietzek dira, ba!

— Zein dira, ba, zuretzat txarrak?

— Fama kentzea, lapurreta, inbiria, alkar ikusi eziña, gorrotoa eta abar eta abar. Pentsamentu txarrak oietzek dira neretzat, jauna.

*(Joakin Berasategi, Olaberri)*

\* \* \*

Arantzazuko Milikua jatetxean, afalondoko bertso-saio baten ondorena zan.

Kanpora irten giñanean, illargi ederra zegoan, eta disputa sortu zan, illargi betea zala eta etzala. Lazkao-Txiki, beti bezela, azken xamar azaldu zan atean, eta ari galdetu zioten:

— Zuri zer iduritzen zaizu, Joxe Migel: illargi betea da ala ez?

Eta arek:

— Betea ez da izango, oraindik toki asko ikusten da libre eta.

(*Nikolas Segurola, Arantzazu*)

\* \* \*

Zegaman bada *Antonio Bolas* edo *Antonio Gezurti* deitzen dioten gizon bat. Izugarritzko abilidadea dauka gezurrak esateko. Egiak balira bezela botatzen ditu, serio-serio. Parrez lertzen egon oi da jendea beraren inguruan.

Lazkao-Txiki eta Antonio au askotan alkartu oi ziran Beasaiñen eta Goierriko beste zenbait txokotan. Geienetan, Antonio ateratzen zan garaile, bere zelebrekeriekin. Baiña bein Lazkao-Txikik ederki jo zion adarra.

— Zer, Antonio: gaur zer lanetan ibili zera, ba? —galdetu omen zion.

Arek:

— Gaur? Emakume-kargan ibili naiz Pasaiko portuan. Barkuan ekarri dituzte emakumeak, eta guk palaz kamioietara kargatu bear izan ditugu. Nekatu ederra artu degu, bai!

— Eta zer edade-modu zuten emakume oiek?

— Larogei bat urte inguru edo...

— Larogei urte? Orduan etzenituzten asko kargatuko — erantzun omen zion Lazkao-Txikik.

(*Joxean Ormazabal, Zegama*)

\* \* \*

Emakumeak jarlekutan egoten diran tokiren bat izan bear du Antzuolan. Ara bertsoetara joandakoren batean, Joxe Migel emakume oiengana joan da izketara, eta azkenean esan omen zien:

— Gure errian ere badago orrelaxe emakume jendea eserita izketan jarduten diran leku bat. Ari esan oi zaio “Saltsatoki”, eta au ere ala izango da seguru asko.

(*Florentino Goiburua bertsolaria, Idiazabal*)

\* \* \*

1969 urte inguruan zan. Eibarko talde batek presoen aldeko jaialdi bat antolatu zuan *Astelena* pelota-lekuan. Gai jartzen, Joxe Mari Iriondo. Bertsolarien artean, Lazkao-Txiki ere bai. Bazkaltzera talde osoa joan zan.

Egun orretan Lazkao-Txiki oso dotore etorri zan: txaketa bat jantzita eta goiko poltsikoan zapi txuri bat jarrita. Jende guztiak galdetzen zion:

— Eztairen batetik al ator, motell? Oso dotore ago.

— Gustatu egiten al zaik? —esan eta aurrera.

Bazkaltzeko denboran ere txaketarik etzuen erantzi. Bazkaltokiko neskak ere ezagutzen zuten eta an asi zitzaizkion:

— Bai dotore etorri zerala, Joxe Migel!

— Gustatzen al zaizu? —esanez pasa zuan bazkari guztia.

Alako batean, nesketako batek esaten dio:

— Aizu, Joxe Migel: neri pañuelo ori erregalatu bear didazu.

— Bai? Benetan nai al dezu?

Jende guztia berari begira jarri zuanean, atera zuan *pañuelo* ori. Baiña, ain zuzen, emakumearen barruko arropa bat zan: ez pañueloa.

(*Joxe Mari Iriondo, Urrestilla*)

\* \* \*

1983-ko abuztua zan. Zarautzen Santa Klarako festak ziran. Basarriren taberna izan zan artatik, *Azken-Portu*-tik, balkoitik egiten zan oraindik bertsoan. Balkoitik egin izan dan azkenetako tokia izan ziteken.

Bertsolariak Lazkao-Txiki ta biok giñan. Ni bertsolari asi berria, soldaduskara joan aurretik. Goizeko saioa gai librean egin genduan, balkoitik.

Gu beera jetxi giñanean, anbulantzi-otsak entzun genituan, eta bereala zabaldu zan edadeko emakume batek bere burua trenari bota ziola, *Azken-Portu* tabernatik eun bat metrora. Laster zabaldu zan emakumea nor zan ere, eta batek esan zuan:

— Ba ementxe egon dek bertso-saioa entzuten.

Eta Lazkao-Txikik:

— I, Egaña: ain gaizki jardun al gaituk?

*(Andoni Egaña bertsolaria, Zarautz)*

\* \* \*

Aian, San Donatotan, bertso-saioa egin zuten. Jaietako irugarrenean jubilatuen eguna izan zan; eta, erri txikietan oi bezela, plazan dantza asi.

Jende ezkondua zan dantzara atera zana. Emakume alta bat, oso dantzaria, bazan aien artean, eta bat edo batek esan zuan:

— Orixe dek Joxe Migelentzako moduko andrea?

Onek erantzun zuan:

— Ik zer uste dek: nik ez dakidala arbolan gora igotzen ala?

Orduan beste batek lagun-taldetik esan zuan:

— Kontuz itzegin zazute gero, ori alkatearen andrea dek eta!

Eta Lazkao-Txikik:

— A bai? Alkatearen andrea al da? Esan bear zioat, ba, alkateari, urrena ikusten detanean, andrea *alta* daukala,

(*Nikolas Zendoia bertsolaria, Aia*)

\* \* \*

Usurbillen, ango urteroko bertso-saioan, Lazkao-Txiki, Xalbador eta beste bertsolari batzuk ziran.

Antton Aranburu zan gai jartzen, eta Joxe Migeli aproba latza jarri zion: amabost bat puntu-edo jarraian.

Bere eserlekura itzultzerakoan, ingurukoei onela esan zien:

— Gai-jartzaille au *Aranburu* ez, baiña *Arinburu* izango dek.

(*Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano*)

\* \* \*

Ormaiztegiko saio batean izan nintzan, eta an Lazkao-Txiki eskuko beatza autsita azaldu zan. Onela galdetu nion:

— Zer degu, Joxe Migel: min artuta?

Eta berak:

— Bai; txakurra jota. Marka dek. Lazkano ere beiren bat jota min artuta zegok. Biok beti aritu izan gaituk animalizaleak gerala eta animalirik ez dala jo bear esaten; eta biok animaliak jotzeagatik min artuta gatxeudek orain, erituta.

(*Nikolas Zendoia bertsolaria, Aia*)

\* \* \*



Bein batean, Lazkao-Txiki Urrestillan zan, Uztafiderekin bertsotara joana. Tabernara sartu dira amaiketakoa egitera, eta zer bear zuten galdetu eta salda eskatu zuten leenengo.

Serbitzariak galdetzen die:

— Saldaren gaiñean zer bear dezute?

Eta Joxe Migelek:

— Koipea!

*(Nikolas Zendoia bertsolaria, Aia)*

\* \* \*

Orain lau bat urte-edo, Sorabillako plazan giñan. An saioa beti frontoian izaten da, eta badaude taberna pare bat ere.

Ala, andik frontoira ginjoazela, garai artan maiz ikusten zan pankarta bat ikusi genduan elizako kanpantorrean, *Jarrai*-koak jarritakoa edo aien izenez beintzat.

Pankarta ortan gazte baten irudia ageri zan, burni edo *reja* artean, eta onako idazki au been: “Gaztea naiz eta?”

Lazkao-Txiki jarri zan, gaiñerakoak bezela, ari begira; eta, beatzarekin seiñalatuz, pankartako galderari erantzunez-edo, onela esan zuan:

— Zaartuko aiz i ere!

*(Jokin Sorozabal bertssolaria, Andoain)*

\* \* \*

Legazpin onako auek giñan bertsotan: iru azpeitiarrak, Lazkao-Txiki, Sorozabal eta ni.

Egun batzuk leenago, Joxe Lizaso eta biak Zizurkilla joatekoak ziran; baiña Txikiari aztu. Lizasok bakarrik egin bear izango zuan ango saioa.

Joxe Migel an zebillen ura konpondu nairik, bere onetatik irtenda. Auskalo zenbat aldiz esan izango zion Joxe Lizasori:

— Ederra egin diat! Iñora joan bearrik ez nian gaiñera! Etxean egon niñuan egun osoan! Deitu egin bearko ziet, gaizki pentsatuko die bestela eta!

Orrela eten gabe, bein eta berriro gauza bera esaten.

Bitarte ortan Joxe Lizasok etzion itzik ere esan; baiña alako batean lertu zitzaion:

— Lagaiok orri pakean, motell, ori ildakoei loreak ematea bezela dek eta!

Iraillean izan zan ori, 1992-an. Egun ortan, bazter guztiak erre bearrean aritu zan, eszenariora igo aurretik; eta gero, goian, nik entzun diodan saiorik politenetako bat egin zuan.

*(Millan Telleria bertsolaria, Albistur)*

\* \* \*

Besteei entzunda dakit nik au. Azpeitian, Bertsolari-egun bat prestatzeko, bildu izango ziran sail bat, afalduz.

Andik abiatzeko, lenengo samar Joxe Migel prestatua izango zan. Danak agurtu eta ateondora joandakoan, orduantxe oartu omen zan txaketa aztu zitzaiola. Itzuli omen zan atzera; eta jendea eserita zegoan lekuaren atzean omen zeuden arropak. Norbait asi omen zan txaketa orren billa, Baiña nunbait ere etzegoan billatzen erreza, eta Lazkao-Txikik esan omen zion:

— Utziok! Biar emango didazute!

— Euk nai dekana —besteak.

Eta Joxe Migelek:

— Ez; ekarri idak, emen utzita ere, iñorentzat ez dik balioko ta.

*(Jokin Sorozabal bertsolaria, Andoain)*

Albisturren, gure etxean, taberna izan genduan guk; eta erriko jaietan bertsolariak, txistulariak eta abar gure etxean bazkaltzen zuten beti.

Bazkaltzera etorritakoan, Joxe Migelen betiko galdera:

— Zer dago bazkaltzeko?

— Ba, daukazute: oillaskoa, xerrak, txuleta, mingaiña saltsan...

Lazkao-Txikiren erantzuna bat-batean:

— Ori beti ala egoten da.

*(Anjel Mari Peñagarikano bertsolaria, Albistur)*

\* \* \*

Gipuzkoako txapelketaren ondorena zan. Jendeak nere doiñu berrian kantatzeko eskatu zidan, eta Joxe Migelek ondotik:

— Zer nai die oiek?

— Zera: nere doiñu berri ortan kantatzeko esaten ari die.

— Etzak kantatu, *heladoa* saltzen ari aizela ematen dek eta!

Bertso ortan nik egiten nituen oiuentatik, alegia.

*(Anjel Mari Peñagarikano bertsolaria, Albistur)*

\* \* \*

Andoingo zine zaarrean zan. Mitxelena, Lazkao-Txiki eta beste lau gazte giñan. Ni, asi berria artean.

Onako gai au jarri ziguten: Mitxelena, oilla-loka; Lazkao-Txiki, azeria; eta gu, txitak.

Joxe Migelek onela kantatu zion Mitxelenari:

.....  
 lau txito ederren jabe;  
 beste bi arrautz zuk badituzu  
 txitorik atera gabe.

Mitxelena etzan oso gustora gelditu. Ala, eseri ziran. Ni aien ondoan nintzan, eta gogoratzen naiz Mitxelenak zerbait esan ziola.

Orduan Lazkao-Txikik:

— Baiña, Joxe Joakin, konprendi zak! Burura etorri eta nola utziko nin, ba, ori kantatu gabe?

*(Jokin Sorozabal bertsolaria, Andoain)*

\* \* \*

Segurako Etxezarreta, bera ere aurpegi bete eta bikaiñekoa da. Baiña ama ere orrela izan bear zuan: aurpegi zabalekoa.

Ala, egun batean onela esan zion Lazkao-Txikik Etxezarreta orri:

— Ama ikusten dekenean, emazkiok bi musu nere partetik, musuan tokirik geratzen bazaio.

*(Xabier Euskitze bertsolaria, Azpeitia)*

\* \* \*

Oiartzungo saio baten ondoren zan. Lazkano eta Joxe Migel an ziran. Ni ere bai. *Atamitx* ostatura joan giñan. Ango nagusia, Mitxelena bertsolaria alegia, an etorri zitzaigun; eta danoi eskua eman ez agurtu ondoren, onela esan zigun:

— Ez al didazute deus esan bear?

Lazkao-Txikik:

— Zer esan bear diagu, ba? Egun on esan diagu beintzat eta...

— Motellak, motellak! Amazazpi kilo galdu dizkiat eta...

— Amazazpi kilo galdu ditukela? Ik ori komuneko jarrialdi batean ere galduko dek!

(*Xabier Euskitze bertsolaria, Azpeitia*)

\* \* \*

Gabirin bertsotara etorria zan San Isidro egun batez, eta gure aita ere an, ari zer entzungo. Ni ere bai, berarekin batera. Aitak esan zion:

— Ara: auxe dek gure semea.

— Bazeukek tankerea.

— Nere igual-iguala dala esaten die.

— Orduan karneta ere bat naikoa dezute zuek.

(*X. X.*)

\* \* \*

Beste bein, *Iparragirre* sagardotegian talde bat bildu giñan, eta tartean Lazkao-Txiki eta Patxi Etxeberria bertsolariak ere bai.

Afaldu eta sagardoa edan ondoren, koadrilla aundia alkartu giñan. Berrogei bat lagun inguru bai.

Mai-buru batean Etxeberria zegoan. Maiaren bueltan puru-kaja pasa zuten; eta Etxeberriak, begiratu eta esan zuan:

— Ez. Ez diat artuko.

— Ez al dek erretzen ala? —Lazkao-Txikik.

— Erre egingo nikek nik mai onen luzarokoa ere!

— Piztu ez uke orratik euk egingo! —Lazkao-Txikik albotik.

(*Joxe Mari Arrieta bertsolaria, Ernani*)

\* \* \*

Ernaniko Okendoenea baserria erre ondoren, famili orrentzako laguntza bezela jaialdi bat antolatu genduan, euskal kirol eta bertsolariekin. Galarreta pelotalekuan egin zan ori.

An Ereñozuko bat izugarrizko umorean zegoan. Tabernako tenplea izango zuan noski. Basoa lurrean utzi eta dantzak eta filigranak egiten zituan. Txiribueltak, saltoak eta zer etzuen egin? Jende guztia gozutzen, berari begira.

Gero, jaialdia bukatu zanean, tabernara igo giñan zerbait artzera. An geundela, artista ori etorri zan ondora, eta Lazkao-Txikik ezagutu zuan. Joan zitzaion ondora eta esan zion:

— I aiz or dantzan da filigranak egiten ibili aizena, e? Anak sano dauzkak! Burua...

Bukatu gabe utzi zuan esaldia.

*(Joxe Mari Arrieta bertsolaria, Ernani)*

\* \* \*

Itsasondoko bertso-saio bat zan. Bertako emakume bat, aurdun zegoana, Lazkao-Txiki agurtzera urbildu zan.

— Kaixo, Joxe Migel!

— Kaixo! Zu emengoa al zera, ba?

— Bai. Ni Itsasondokoa naiz.

— Itsasondokoa ez dakit, baiña *itsas-ondoko* ederra eman dizu norbaitek!

*(Mikel Mendizabal bertsolaria, Itsasondo)*

\* \* \*

Getarian, Basarri, Lasarte eta irurei omenaldia egin ziotenean, Basarrik bazkaltzerakoan iru bisigu-buru artu omen zituan; eta Joxe Migelek:

— Len ere etzeunden, ba, zu burutik gaizki!

— Bakoitza bere lekuan egotea naikoa, eta ortan ere ezin asmatu —erantzun omen zion Basarrik, serio samar.

Ari ere bota, ordea, takatekoa.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Eibarko *Teatro Amaya* izenekoan ezagutu nuan nik Lazkao-Txiki.

Onako bertsolari auek ziran: Imanol Lazkano, Kasiano Iburguren, Txomin Garmendia, Joxe Joakin Mitxelena eta Lazkao-Txiki. Azkenerako, Garmendia, Lazkano, Mitxelena eta Lazkao-Txiki gelditu ziran. Azken lanetako batean Mitxelena eta Joxe Migelek izan zuten gaia: “seme bat izan eta ark bere burua il”.

Gallastegi pelotariak, emaztearen aldetik-edo, teatro ortan zerbaiten parte ere izan bear zuan, eta bertsolariak agurtzera etorri zan. Lazkao-Txiki ikusterakoan, onela esan omen zion:

— Zu al zera Lazkao-Txiki? Entzutea banuan, baiña ez zindudan ezagutzen. Zu gaztea zera! Zuk praka motxetan ibili bear zenduke oraindik!

— Aizu: len ere alaxe ibiltzen naiz! —erantzun omen zion Joxe Migelek.

*(Jose Luis Gorrotxategi bertsolaria, Osintxu)*

\* \* \*

San Pedro egun batez, Leaburun giñan biok bertsotan. Nik berarekin egindako lenengoetako saio bat zan ura. 1969 urte ingurua izan ziteken.

Saio-bukaeran, andre batek kargu artu zion:

— Lazkao-Txiki, alakoren izena ez dezu ondo esan. Ori beste era batera da.

— Bai; badakit. Aldatu egin det, baiña rimatzearren esan det orrela.

— Rimatzearren gauza oiek danak egin bear izaten al dira?

— Bai. Rimatzearren eta arrimatzearren, oiek danak eta geiago egin bear izaten dira. Ez al dakizu ori?

*(Jose Luis Gorrotxategi bertsolaria, Osintxu)*

\* \* \*

Oiartzunen, 1992 urtean, goizeko saioa *Madalensoro* pelotalekuan izan genduan. Gero, jubilatuekin bazkaldu. Arratsaldean, idi-apustuak ikusten ari giñala, amairu-amalau urteko mutiko batzuk urbildu zitzaizkigun. Lazkao-Txiki oso zan gazte-zalea, eta bereala asi zitzaien:

— Zer moduz doaz festak?

— Ondo. Atzo erri-maillako korrika-apustua izan genduan.

— Eta zer moduz ibili ziñaten?

— Au oso ondo, azken itzulira arte —mutiko bizi bat seiñalatuz—, gero etzuan irabazi baiña.

— Zer pasa zitzaian, ba?

— Ondo nenbillen, baiña bareak eldu.

— Joño! Orduan ez ijoan oso azkar ere!

*(Imanol Lazkano bertsolaria, Azpeitia)*

\* \* \*



Iritxi da feri-egun batean Elgoibarra. Oñatiko bat eta bera batera iritxi ziran aparkalekura; eta, kotxetik atera zanean, Lazkao-Txikik:

— Aizu: gaur emen jende gutxi dala ematen du.

Eta besteak:

— Orain len baiño bi geiago.

*(Elisabet Zubizarreta, Azkoitia)*

\* \* \*

Beste bein, Gomiztegi gure baserrian zan Lazkao-Txiki, eta etxera joan bearra zeukala esaten asi zan, bigantxa bazuk bazituala ume egiteko eta. Ori jarri zuan aitzakitzat.

Norbaitek galdetu zion:

— Apuntatu gabe al dauzkazu, ba?

Eta berak:

— Ez, ez. Ondo apuntatuta daude. Etzan bestela problemarik izango.

*(Nikolas Segurola, Arantzazu)*

\* \* \*

Guadalupen, San Isidro egunean, santuaren irudia bizkarrean artu eta mendi-kasko batean prozesioa egiten dute. Arrizko gurutze aundi bat dago an. Ara iritxitakoan, apaiza, isopoa eta ur bedeinkatuarekin, lau alderdiak bedeinkatzen asten da. Aurrean sasia eta otea dago ugari, eta apaizari esaten dio Lazkao-Txikik:

— Zer ari zera or, gizona?

— Ba, badakizu: bazterrak bedeinkatzen.

— Oiek ere bai? Oiek, bedeinkatu gabe ere, naiko indar badute! Len ere arro asko daude!

*(Joxe Lizaso bertsolaria, Azpeitia)*

\* \* \*

Lazkao-Txiki joan da bertsotara Aretxabaletara; eta, ango taberna batean amaiketakoak egiten ari dala, or urbiltzen zaio gizon bat, aurpegi kolore gorri samarrekoa eta sudurrean ere mapak zituana, eta asten zaio:

— Kaixo, Lazkao-Txiki! Zer zabiltza, ba, emendik?

— Ementxe! Bertso-saio baterako deitu digute, eta indarra artzen.

— Aizu: atrebentzia ez bada, zuk izena nola dezu? Beti Lazkao-Txiki entzuten det, baiña zure izenik ez det inoiz entzun.

— Nere izena Joxe Migel Iztueta da; eta zurea?

— Nerea, Leonardo.

— Leon izango da.

— Ez! Leonardo dala!

— Bai zera! Zure izena Leon izango da; eta Ardo, apellidua.

Oso beraren gustokoa izan zan ateraldi ori Leonardo orrentzat. Joaten zan leku guztietan kontatzen zuan.

*(Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano)*

\* \* \*

San Juanetan, Belauntzara joan nintzan nere lagunekin soinu jotzera; goizetik egun artan. Nik mikrofonoak jartzeko kargua nuan.

Bertsotara Lazkao-Txiki eta Mattin zirala etortzekoak; Lazkao-Txikik artua zuala Mattini deitzeko enkargua, antolatzaileak ziotenez.

Andik puska batera azaldu zan Lazkao-Txiki, eta onela esan zidan:

- Biok al gaituk kantatzeko?
- Mattin ez al dek, ba?
- Mattin al da? —berak.
- I ez al intzan, ba, abisatzeko?
- Nik? Nik etzekiat ezer ere.

Alkateari deitu genion. Arek adierazi zion Joxe Migeli non eta noiz esan zion; baita ajendan apuntatua zuala ere. Atera zuan bere agenda, eta an zeukan jarria; baiña begiratzeara aztu.

Ala, biok egin bear izan genduan goizeko saioa. Arratsalderako deitu Mattini eta konpondu zan kontua.

Bazkaltzen koadrilla bat zegoan, eta lanera joan bear zutela eta an asi zitzaizkigun jo eta ke bertso eske.

- Zein dituk oiek? —galdetu zidan Lazkao-Txikik.
- Kamineroak —erantzun nion.

Andik aurrera entzun bear izan zituzten epelak. Nik egin nituan alegiñak ura baretzen, baiña etzan giro izan.

*(Kasiano Ibarguren bertsolaria eta soñujolea, Lizartza)*

\* \* \*

Aztirin, bertako festetan —uztaillaren 18-an izaten dira—, iñoiz lanbroa ere izaten da; baiña aldi artan, orain dala ogei ta bost urte inguru, goizetik gauera euria fuerte egin zuan. Garmendia eta biak ziran bertsotan, eta gu soñu jotzera joanak.

Ango kioskoa pagopea izaten da. Baiña urte artan etze-  
goen pentsatu ere egiterik. Ala, barrura sartu eta guk pieza  
batzuk jo eta aiek bertso batzuk kantatu, orrela pasatu gen-  
duan eguna.

Arratsaldean, abiatzerakoan, Joxe Migelek:

— Au dek marka, au! Egun dana barruan pasau diagu,  
kanpora atera ta bustitzeko bildurrez; ta barruan gerala,  
batere akordau gabe, zearo busti!

Etzan dana gezurra.

*(Kasiano Iburguren bertsolaria eta soiñujolea, Lizartza)*

\* \* \*

Urkizun, Iguaranek gonbidatuta afari batean izan giñan  
emaztea eta biok; eta Lazkao-Txiki ere an zan. Afaltzen ari  
giñala, andreak esaten zidan:

— Lazkao-Txiki jertsearen koderak ukalondora eraman  
nairik ai da; baiña alperrik saiatzen da gizarajoa. Konturatu  
gabe dago jertsea atzekoz aurrera daukala.

Geroago ere an jarraitzen zuan tira eta tira. Alako bate-  
an esan nion emazteari:

— Esango diot nik disimuloan.

— Nola esan bear diozu? —emazteak.

— Zaude lasai, moldatuko naiz eta.

Orduan onela esan nion berari:

— I, Joxe Migel: komunera lagundu bear didak.

Etorri zan nerekin batera, ni ari bizkarretik elduta; eta,  
neu konturatu banintz bezela, onela esan nion:

— Jertsea ondo jantzita al daukak? Joskura etzegok  
ondo. Ik jertsea ez dek, ba, atzekoz aurrera eukiko!

— Bai; zera eukiko diat!

— Beitu: koderak ere ez dauzkak bear bezela. Au etzegok ondo.

Orduan konturatu zan eta onela esaten zuan:

— Iñork ikusi ote nau?

— Nik ez aut ikusi —esan nion—. Gero igerriko diok iñork ikusi auen edo ez.

Buelta eman zion jertse orri eta onela zion:

— Au dek marka, au! Itxuak igerri bear neri jertsea aldrebes neukala! Iñork ikusi ez banau beintzat, ixilik pasa zagun.

Ala, apalondoan, trago batzuk egin eta asi giñan bertso-tan: eta nola ixilik pasako genduen, berak aitatu. Jende geiago ere akordatuta zegoen.

*(Kasiano Iburguren bertsolaria eta soiñujolea, Lizartza)*

## NAPARROAN

Lazkao-Txiki, pentsu saltzaillea zala, or ibiltzen zan bere motoarekin baserriz baserri pentsu eskeinka.

Bein, Sakana alde ortan zala, onela esan zion emakume batek:

— Zu, Joxe Migel: Etxarri aldera joan bear duzu?

— Bai, etxerakoan andik pasatu bear det eta.

— Gure neskatoak ez du, ba, nola joanik; eta eramango bazendu...

— Bai; eramango det.

Ala, prestatu da neskato ori, eta amak esaten zion:

— Kontuz joan adi, e? Au solteroa dun eta argi ibili adie-la!

Neska motz ori jarri da motoaren atzeko aldean, luze-luze eginda, eta abiatu dira. Baiña motorra balantzaka, ia erorian, eta Lazkao-Txikik esan omen zion:

— Aizu, neskatoa: amak esango zizun ni solteroa naizela. Baiña nik atzetik ez det peligrorik eta arrima zaitetz. Bestela, aurki eroriko gera lurrera motoa, zu ta ni!

*(Jose Antonio Mujika, Ordizia)*

\* \* \*

Batean, Naparroako jatetxe batean bazkaltzen gelditu zan. Bazkaltzeko zer zeukaten galdetu, eta egaztia zutela saltsan. Eskatu du egazti ori, eta ekarri dute berealdiko ontzikada, baiña arraro samarra: iru ego, bi lepo, ipurdi pare bat eta anka bat.

Etorri omen zan berriz ere serbitzaria, eta Lazkao-Txikik galdetu omen zion:

— Au zer egazti-klase da?

Serbitzariak:

— Au zer izango da? Oillaskoa!

Orduan Joxe Migelek:

— Au, aukeran, jatea baiño naiago nuke bizirik ikustea.

*(Mikel Mendizabal bertsolaria, Itsasondo)*

\* \* \*

Pentsu saltzen zebillela, batean Naparrora joan eta amona batekin asi da izketan.

— Zu al zera Lazkao-Txiki?

— Bai; neri esaten didate.

— Etzera txiki-txikia ere. Anakak dituzu motzak.

Eta Lazkao-Txikik:

— Zertarako bear ditut luzeagoak? Lurreraiño iristen dira beintzat!

*(Joxe Agirre bertsolaria, Azpeitia)*

\* \* \*

Bein, Naparroako erri koxkor batean, neskazar bat, edo urte batzuk zeuzkana beintzat, urbildu zitzaigun, eta asi zaio Lazkao-Txikiri esaten:

— Kaixo, Joxe Migel! Iñoiz baiño mutil politagoa etorri zera!

Baiña Txikiak etzeukan, ordea, zenbaitetan oi zuan bezin egun berritsurik. Baiña ez neskazarrak bear ere. Segi egiten zion izketan:

— Adiñean ere ez degu guk alde aundirik edukiko. Zenbat urte botatzen dizkidazu?

Eta Joxe Migelek:

— Nik bat ere ez! Leen ere badauzkazu zuk naikoak, nik bota gabe!

(Joxe Lizaso bertsolaria, Azpeitia)

\* \* \*

Iruñeko *Cometa* etxearekin pentsu-saltzaille zebillela gertatua da onako au.

Fabrikako almagazenean ba omen zan erdaldun bat, adarra jotzea gustatzen zitzaiona. Sartzen zan bakoitzari galdezen zion:

— *Oye: ¿has visto a Carlos?*

— *¿Qué Carlos?*

— *¡El de los c..... largos!* —berak orduan erantzun, eta danak parrez.

Lazkao-Txiki amorratu egin zan beti ori entzuten, eta urrengorako zerbait pentsatu bear zuala, eta bai pentsatu ere. Arratsaldean-edo etorri zanean, aurrea artu eta onela galdetu zion berak erdaldun orri:

— *¿Dónde has dejado el albarán de la mañana?*

— *¿Qué albarán?*

— *El que te han dado a la mañana. Acaba de bajar Elías, ¡Bueno se ha puesto!*

— *¿Qué Elías?*

— *¡El que te da por c... todos los días!*

(Jon Lopategi bertsolaria, Muxika)

\* \* \*





Lazkao Txiki, Julian Albizu, Alejandro Azpiroz,  
iru lagun miñak, Aralarko San Migelen.

Alkarrekin Iruñen izan giñan erri-afari batean. Gure kotxea *Tres Reyes* otelaren inguruan utzi genduan. Goizeko irurak alde orretan, kilometro bat pasa genduan kotxerañño joaten. Euria bota-ala ari zuan. Eskerrak bi neska gaztek aterkiñaren azpian artu eta lagundu zigutela. Gero, bina musu emanda banatu giñan.

Joxe Migelek orduan esan zidan:

— Oraintxe konturatzen nauk bertsolaritzak badituala dirua baiño gauza obeak. Ikusten al dek nola artu gaituzten?

(Mañukorta bertsolaria, Markina)

\* \* \*

Joxe Migelek, pentsu saltzen ibili zan garaian, ezbearren bat izan zuan Iruñe alde ortan. *Stop*-en batean irten eta kolpe aundi samarra artu ere gaiñera.

Iruñeko *hospital* batean egon zan suspertu bitartean. An zala, bere lantokiko neskak-eta etortzen omen zitzaizkion bisitara.

Egun batean, denborarekin sendatu samarturik zegoala eta bisitariak zituala, monja bat etorri omen zitzaion, eta onela galdetu:

— *¿Qué tal estás, José Miguel?*

— *Bien; pero esta herida que tengo en la cabeza me pica bastante* —buruko bere zauria seiñalatu.

— *Ésa es buena señal. Si te pica, es que se está curando.*

— *No estoy de acuerdo.*

— *¿Cómo que no? ¡Eso es así!*

— *Pues no. Yo he oído que hay heridas que pican, pero que no se curan nunca.*

(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)

\* \* \*

Egun batean, Donezteben, topo egin du Lazkao-Txikik Mindegia aizkolariarekin. Onek galdetu zion:

— Zenbat urte dituzu, Joxe Migel?

— Berrogei ta amalau.

— Orrenbeste e? Ez nuen uste. Urteak joan egiten dira, bai!

— Iri joango zaizkik! Neri etorri!

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Atauri)*

\* \* \*

Beste au, Lazkao-Txikik berak Azpeitian, 1992-XII-5-ean kontatua eta magnetofonoz jasoa.

Baraibarren askotan izan nintzan, pentsu saltzen ibili nintzanean. Ango andre batek onela esan zidan bein:

— Orain, primaderan, arrautz-mordo bat badut, arrautz asko. Oillo denak erroten ditut, eta gero udazkenin ez dut izain. Nai nuke ordurako gorde. Kaltzinetan (karean) itsusik gelditzen die eta kamararik ez dut. Beste sistimaik badakizu, Joxe Migel, arrautzak ongı kontserbatzeko?

Nik danai bai esaten nien, eta ari ere bai esan nion.

— Nola? —galdetu zidan.

— Txintxilika —nik erantzun.

— Eta baduzu esperientzi?

— Bai. Jaio nintzan ezkeroztik nereak ala darabilzkit eta oraindik oso ondo dauzkat.

— Au zerrii! —erantzun zidan, laster oartu baitzan zer esaten nion.

\* \* \*

Amabost-amasei urte nituen eta Lasarten kantatu nuen larunbat gauetz, Lasarte eta Etxeberriarekin. Sarasua ere nerekin batera zan.

Saio ondoren, etxera nola etorririk ez eta Sarasuak eman zidan Orion gelditzeko gonbitea. Araiño Lasarterekin joan eta orrela konpondu genuen gure illuntze ortakoa.

San Pedroak ziren, eta an festak. Askoren bearrik ez eta goizeko lauak inguru lotaratzeko.

Nik Orion trena goizeko zazpiak inguruan artu bearra neukan, gero Beasaiñen besteekin elkartu amar ta erdietan eta Iruñara joateko. Tartean Lazkao-Txiki, Mendizabal eta Anatx ziran. Iruñan ordubatean kantatu bear genuen. Baiña despertadoreak ez zuen jo edo ez genuen entzun. Itxaferoe-kin esnatu nintzen, amarrak eta amar inguruan.

Mendizabali otsegín nion, zer gertatu zitzaidan esateko. Nere billa etortzeko berandu zela eta iruren artean egingo zutela Iruñakoa erabaki zuten.

Artan geratu giñen. Baiña ni ez lasai eta pentsatu nuen *auto-stop* egiñez joan nintekeala. Edo gutxienez aproba egingo nuela.

Asi nintzen eta naiko suerte izan nuen. Argiekin zeto-rren bati keiñu egin eta gelditu eta Iruñara eraman ninduen. Saioa, esan bezela, ordubatean zan; eta ni amar minutu berandu iritxi nintzan. Kasualidadea orduan puntuan asita.

Gai jartzaille Aburuza zan; eta besteen agurrak bukatu eta ni agertu, bat izan zan. Onela esan zuen:

— Emen dugu, ba, ardi galdua ere. Berak esan bearko digu nondik nora ibili dan.

Bertsotan asi nintzan; eta, egia esateko, gogorik ez eta iñolako maliziarik gabe, baiña zerbait esan bear eta au kantatu nuan:

Lazkao-Txikiri joan natzaio  
esandako ordurako,  
baiña iñondik ez det ikusi  
txiki-txikia dalako.

Esan banuen esan nuen, ikaragarri gaizki artu zuen Joxe Migelek. Inoiz aundiagoak esan izan zaizkio; baiña neu berandu iritxi eta, barkamena eskatu ordez, besteak saltsan sartzea oso gaizki artu zidan. Egun osoan zear, amar minutuero esaten zidan:

— Gaur arro etorri aiz!

Beasaiña etorri eta kotxetik irteterakoan ere gogora erazi zidan:

— Gaur arro samar etorri aiz, baiña ea urrengoan umilxeago etortzen aizen.

Baiña ez zan egun artan bukatu. Gero ere asko kostatzaion nerekin konfiantza artzea. Leenengo irudi ura ez zitzaiion berealakoan aztu.

*(Xabier Euskitze bertsolaria, Azpeitia)*

\* \* \*

Aranoko malda batean soziedade berri bat egin zuten. Geienak Ernaniko Galarreta ingurukoak ziran. Lazkao-Txiki eta biok ara eraman ginduzten bertso tara. Aurrena afaria zan, eta gero gaupasa. Lotarako lekua eta dena bertan presatua zegoen, eta guk ere bertan egin genuen lo.

Egun artan Lazkao-Txikik eduki zuen etorria, bertso tan bezela izketan ere! Orrelakorik ez det nik besterik ezagutu. Alako eguna zuenean, arek etzuen parekorik.

Biaramonean meza bertan eman zan, soziedadean. Auzoko jendea ere ara bildu zan.

Aien artean bazen amona urtetsu bat. Larogei ta bost urte zituela esan zuten. Emakume ori ezkondu zala, ez dakit zenbat urte zirala esan zuen; eta berak oraindik sekula ez zuela bere bizian alako egunik pasa. Ezta ezkondu zan eguna bera ere. Berak ez zuela alako gizon arrigarririk ezagutu.

Orrelakoak Lazkao-Txikik ugari zituen. Zaldibiko Saturdin ere bai. Pazko astelen batean ere egundokoa izan zuen.

Gu an izan giñan lenbiziko urtea zan. Alako arratsalderik ez da erreza beste batekin igarotzen.

Beste batean, Ataungo Aian gau osoan jendea lertzen eduki zuen. Ainbeste ateraldi ziran, bata bestea baiño obeak; eta eziñezkoa da gogoan artzea ere.

Alako usterik izan bagenu, zerbait arreta geiago izango genuen. Baiña orrelako bearrik izango zanik uste ere ez. Bere bizitza, txiste eta abarrekin liburu bat idazteko ere esan genion bein baiño geiagotan. Baiña berak ez zuela presarik erantzuten zigun beti.

Bein, gaiñera, oso serio Arregik eraso zion: ori egin bearrekoa zala eta abar. Baiña etzitzaion geiegirik gustatu. Berak etzeukan gazte iltzeko usterik.

\* \* \*

Orain zortzi edo bederatzi urte, Lazkao-Txikiren kotxean Aranora bertsoara ginjoazela, ni ez nintzan gogoratzen an bidean *Cervezas El León* bazanik ere, eta nik esan nuan:

— Emen al zan, ba, *Cervezas El León*?

Eta Joxe Migelek:

— Oraindik ikusi gabe al eon?

(Anjel Mari Peñagarikano bertsolaria, Albistur)

## BIZKAIA

Au Bilbon gertatu zan. Lazkao-Txiki bertsotara etorria zan, eta entzuleen artean Ameriketara joandako baten alaba zegoan. Arritzeko ez da eta bereala egin zuan Lazkao-Txiki-ren adiskidetasuna.

Koadrillan kontu kontari ari zirala, euria asi zuan, eta Lazkao-Txiki aterkirik gabe. Orduan amerikar neska orrek esaten dio:

— Atoz, Joxe Migel! Neuk estaliko zaitut!

Eta onek:

— Jesus, Maria! Ontan ere batekoz bestera egiten al dira gauzak Amerikan?

*(Nikolas Segurola, Arantzazu)*

\* \* \*

Bizkaira bertsotara ginjoazela, Zornotzan afaritan gelditu giñan, eta zer famili neukan galdetu zidan.

Esan nion, ba, seme bat eta bi alaba bixkiak nituala, eta berak onela esan zidan orduan:

— Bixkik? Orduan bi batera egin dizkik!

*(Millan Telleria bertsolaria, Albistur)*

\* \* \*

Lazkao-Txiki, Murua eta irurok Bermeora bidean giñan: Murua txofer, ni ondoan eta Lazkao-Txiki atzean, periodikoa irakurtzen.

Gu baratza-kontuetan ari giñan. Muruak, xomorroak iltzeko *agua de amoniaco* botatzen ziela esan zuan.

Eta Lazkao-Txikik atzetik:

— Ardoa obe dek armoniako.

*Armonirako alegia.*

(*Anjel Maria Peñagarikano bertsolaria, Albistur*)

\* \* \*

Ondarroako Aztarrikan izan zan urrengo gertakizun au, 1966-ko abuztuaren 10-ean, San Lorentzotan.

Nik Aztarrikatik Gernikako *Lurgorri*-ra joan bear nuan illuntzeko zortzietarako bertsotara. Ala, kondizioa jarri nuen zazpietarako irten bearra neukala. Saioa seietan zan izatekotan. Orrela itzeginda geunden.

Eguerdian, Mugartegi, Lazkao-Txiki eta irurok egin genduen saioa. Gero, Mugartegi eta Lazkao-Txiki Egurain-era joan ziran bazkaltzera; eta bertan, bertso eta txiste, berandu egin zitzairen. Nik, berriz, orduan lana ere asko nerabilkian, eta etxera joan nintzan, arratsaldean lan pixka bat egiteko.

Gu eguerdian bertsotan aritu giñan tokian, ikurrin bat azaldu zan; eta garai artan ikurriña ikusteak egundoko aztarka sortzen zuen.

Bost eta erdiak inguruan joan nintzan Aztarrikara, eta an konturatu nintzan ez dokumentu, ez kartera eta ez diru joana nintzala, laneko erropetan aztuta.

Inguru dana goardizibillez bete zan. Jende guztia bialtzen asi ziran, eta arrapatzen zutenari egurra ematen. Ni sei ta erdiak arte egon nintzan. Gero, gure ama ere an zan, eta ama artu eta bueltatu egin nintzan.

Bidean beera ninjoala, Lazkao-Txiki eta Mugartegi gora zetozen. Aiek bazekiten gertatuaren berri. An bertan, bidean gurutzatzerakoan, Joxe Migelek onela esan zidan:



— Bai! Zuek martxoko katua bezela zerate! Eguzkiak nun berotu, leio artan siesta!

Nik erantzun nion:

— Ni ez natxiak goardiazibillengatik, joan bearra dauka-dalako baizik.

Ala, berandu zala eta joan egin nintzan Gernikara. Ain zuzen, ni *Lurgorri*-ra iritxi nintzanean, orduan ari ziran bertsolariei deika.

Geroago, Donostiko *Bodegón Alejandro* jatetxean eta abarretan, iru bat aldiz-edo esango zidan neri ori. Sarritan erabiltzen zuan esaldia zan martxoko katuarena.

Berak bazuan Lopategi eta neretzako alako errezelotxo-ren bat, gu politikaz asko mintzatzen giñalako. Ni ez nintzan berarekin sartzen, bizi samarra zala ezagutzen nualako.

*Alejandro*-enean sortu zuan ixkanbilla orren ondoren, nik zera esan nuan: ala ibiltzekotan ez nintzala geiago Lazkao-Txikirekin bertсотara joango. Norbaitek serio samar itze-gin bear izan zion, eta geroztik ez det nik berarekin ixtilu txikienik ere izan. Oso lagun miñak izan gera beti.

(Jon Azpillaga bertsolaria, Muxika)

\* \* \*

Onako au Bizkaiko Saturdin gertatu zan. Neska eta mutil batzuk bertan bazkaltzen ari ziran, ganbara batean. Naiko otza zan eguraldia. Itxitura lataz egiña zan, eta zirriz-tuetatik otza sartzen zan. Ala, neska batek:

— Zirriztu danak itxi bear ditugu!

Lazkao-Txikik aldamenetik:

— Danak, e? Asi, ba, orduan gonak altxatzen zu ere!

(Jon Lopategi bertsolaria, Muxika)

\* \* \*

Geure etxean bein batez gertatu zitzaion komeria sarritan kontatzen zuan, eta bera ere lertu egiten zan parrez.

Ogiduna, *panaderoa*, etxera etortzen zaigu; eta garai artan aste-egunetan ogi txiki bat artzen genduan, eta larunbatetan bi aundi, igandean ogirik izaten etzalako. Orretarako, atean kartoi bat genduan, alde batetik *txiki bat* eta bestetik *aundi bi* jartzen zuana.

Egun batean, gure inguru artan zebiltzan Joxe Agirre, Joxe Lizaso eta Lazkao-Txiki; eta onela esan zuten:

— Amurizari bisita bat egin bear zioagu!

Or datoz gure etxera. Gu etxean ez, ordea. Ala, asi dira ikusmiran, eta Joxe Migelek or ikusten du *aundi bi*.

— Onek bapo asmatu dik, i! *Aundi bi* jartzen dik! Igerri egin dizue bazentoztena!

Ortan ari dala, ematen dio kartoiari buelta, eta an *txiki bat* ikusten du. Arritu egin zan!

— Au nola dek, ba? Onek apropos egin ziguk!

Gertakari ori milla aldiz kontatzen zuan. “Bai asmatu ere!” esan oi zuan parrez.

(*Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano*)

\* \* \*

Mallabiko festetan, beste askotan bezela, erriko gazteak nikiak edo kamisetak atera zituzten; eta an zebillen gaztealdea, neska eta mutil, niki oiekin. Aien artean, neska bat aurre ederrekoa, eta Lazkao-Txiki asi omen zitzaion:

— Aizu, neska: bai al dakizu kontu au? Aspalditxokoa da. Neska bat joan zan trajea egitera. Neurriak artu ondoren, sastreak esan zion andik sei egunera probatzera etortzeko. Joan zan, ba, neska ori. Txaketa probatzen asi zaio eta: “Emen ireki bat ez al da ongi etorriko?” Eta marra bat egiten omen zuan. “Beste onetan ere, emen zertxobait gorago”. Eta beste arrastoa. Alako batean, neska ori aspertu eta esaten dio: “Len ere egin izan ditut trajeak; baiña ainbeste

arrasto inork ez dit egin, e?" Orduan sastreak: "Ez al zaizu gustatu? Orduan dana borratu egingo degu" esan eta eskua-rekin igurtziaz borratu omen zizkion arrastoak.

(Juan Mari Narbaiza bertsolaria, Eibar)

\* \* \*

Aurrezki Kutxa Laboralarekin ibillaldi asko egin genituan guk alkarrekin. Baita *Itsas-Lur*-erako bidaiak ere. Jatetxe aundi bat zegoan Artxandan, eta iru-lau autobus joaten giñan bertara bazkaltzera.

*Cámara Agraria* izenekoak ere antolatzen zituan bidai oiek, eta Artxandako gain ortan seireun bat lagun inguru biltzen giñan.

Askotan bazkalduko genduan berdintsu, baiña egun artan beintzat menestra eman ziguten. Bazkal ondoan, bertako nagusia guretara etortzen zan beti. Ala, urte ortan, etorri eta onela galdetu zigun:

— *¿Qué tal, Jose Migel?*

— *Muy bien, muy bien. ¡Menuda menestra! Pero para tanta gente a la vez, ¿dónde preparas tanta cantidad? ¿En alguna hormigonera?*

(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)

\* \* \*

Bizkaira joan da bein Mañukortarekin. Onek onela dio *ambulatorio* baten ingurutik pasatzerakoan:

— Au dok emengo osasun-etxea.

Lazkao-Txikik:

— Zuzen itzegiten asi bearko dek, Mañu!

— Zer, ba?

— Nola izango dek, ba, osasun-etxea? Gaixorik etorriko dituk ba! Gaixo-etxea izango dek, izatekotan ere!

(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Atauri)

## IPARRALDEAN

1960 urtean, Teodoro Hernandorenak Luhosoan jarri nai zuan bertsolari-jaialdi bat; eta neri eskatu zidan Ordizian 1959 urtean lendabizi gelditutako lau bertsolariak Luhosoako jaialdi artara eramateko.

Ala, Joxe Agirre ere joatekoa zan, baiña etzan azaldu; eta Lazkao-Txiki, Txomin Garmendia eta Bixente Mujika *Etxaburu* eta ni joan giñan.

Bidean ginjoazela, Donibane-Lohizunen meza entzutea pentsatu genduan, eta neska bati galdetu genion:

— Meza noiz da emen?

— Oraitxe hamarretan duzue —erantzun zigun.

Sartu giñan elizara eta jarri giñan meza entzuteko pronto. Baiña gaztediaren eguna izan eta an datozte gazte oiek, aurretik ikurriña zutela, beren dantzari, soiñu eta abarrekin. Eta Lazkao-Txikik esan zidan

— I, Jesus: emengo luistarrak zeukatek estandarte polita!

Nik esan nion:

— Baiña ori ez dek estandartea! Ori Euskadiko ikurriña dek!

Alakoxe planta egin zuan berak: etzekiala alegia; eta nik sinistu egin nion. Gero, ordea, onela esan nuan nere artean: “Onek ikurriña zer dan ez ote zekik?”

Baiña gerora, broman esan zuala aitortu zidan.

*(Jesus Lete, Ibaiertz, Itsasondo)*

\* \* \*

Urte-pilla bat bada Iparraldeko Luhosora joan giñala. Gaurko konturik etzan eta furgoneta txiki batean giñan. Mattin eta Xalbador ziranak Ameriketarako len joanaldiko despedida edo orrelako zerbeit zan.

Beste lagun batzuk ere bagenituan, eta Irunen muga igarotzen naiko lan izan genduan. Frantzes polizi bat an ari zan *mesie (monsieur)* gora eta *mesie* beera.

Eta Lazkao-Txikik ondotik:

— *Mezi* uke ederra!

(*Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi*)

\* \* \*

Lazkao-Txikik Xalbador asko aipatzen zuan. Baita Mattin ere. Sarritan kontatzen zuan onen etxean bein berari gertatua.

Iparraldeko bertso-saio batera joan bera, eta amaikak inguruan or azaldu da Mattinen etxera. Onen andrea, oilloekin ernegatuta, aiei oiuka eta errats-kertena astinduz.

Bat-batean agertu da Joxe Migel. Etxekoandrea era artan ikusita, pixka bat moztuta gelditu zan. Baiña bere agurra egin zuan:

— Kaixo! Egun on!

Barruan Mattin bizarra kentzen ari omen zan. Oartu da Lazkao-Txiki etorri dala eta onela esaten dio:

— Hi etorri ez bahintz, aurreko oiek denak neretzako ituen!

(*Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano*)

\* \* \*

Landesetan, Baionatik Burdeosa bitartean alegia, zabaldegi eta piñudi aundiak daude egon ere; eta an, bastante

aurrera joanda, *marismak* dirala esaten dute. Lekuan-lekuan ur-baltsa aundiak ikusten dira, eta norbaitek galdera egin zuan:

— Ur-putzu aundi oiek zer dira?

Eta Lazkao-Txikik:

— Oiek? Elefanteak baiñatzeko lekuak izango dira, piñu-tarte auetan elefante asko ibiltzen dala esaten dute eta.

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Bein, askotan bezela, beste aldera joan omen zan, eta Mattin atera zitzaion bidera. Kanean zijoaztela, esan omen zion:

— I, ankamotz bat!

Eta:

— Ori gu baiño geiago da.

— Nolaz gu baiño geiago?

— Bai; guk biak dauzkagu motzak.

*(Maria Sol Tejeria, Lasarte)*

\* \* \*

Bein batean, Eibarko koadrilla batekin, Lurdesa edo ez dakit nora joan zan. Danak autobusean sartu, txoferrak autobusa arrankatu eta Lazkao-Txiki falta. Alako batean, an aurkitu dute, emakume batzuen artean, berriketan. Orduan buru egiten zuanak zerbait esan bear eta esan izango zion:

— Baiña, Joxe Migel! Danok zure zai gaude!

Eta berak:

— Ni olakoxea naiz, ba! Bestela, ez nintzake Lazkao-Txiki izan ere egingo!

(Juan Mari Narbaiza bertsolaria, Eibar)

\* \* \*

Aurrezki Kutxa Laboralarekin Burdeosa egiten genituan adiñeko jendearekin, zaar-sarituak geienak, ibillaldiak.

Irungo mugan, egundoko karne-emate eta abar izaten ziran. Pasaporteak ere bazituzten batzuren batzuek.

Batean, autobusean danak geldirik geunden, geure paper oiek bistan genituala, eta jendarme bat sartu zan. An zebillen bat ikusi eta bestea ikusi. Guretatik ere pasa eta atzerago joan zan, eta bati onela galdetu zion español gaitzez:

— *Y ¿uztedez de dónde zon?*

Ango batek erantzun zion:

— *Vascos, vascos.*

Berak burloso antzean esan zuan:

— *¿Vazcoz?*

Eta Joxe Migelek bereala:

— Bai; eta i baiño obeak askoz!

(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)

## ERRIZ ERRI

Gaztetxea nintzala, ni aitarekin da ola joaten nintzan, ta bera Lazkao-Txikiren oso laguna zan.

Bein, taberna batera azaldu giñan, au ere an zan eta ango etxeoandreak onelakoxe komentario bat egin zuan Joxe Migelengatik:

— Au da, au, parranderoa!

Orduan arek esan zion:

— Zer esan dezu? Ni panderoa naizela?

Orduan emakume ura asarre samar jarri zan, eta orduan Lazkao-Txikik esan zion:

— Gauza bat esango dizut: gaur ni onera etorri naizelako ortxe egin dezu zuk dirua, e?

Olako gauza bat, zelebrea, bota zion, eta orduan emakume ura ia parrezka jarri zan. Eta berarengana joan eta besarkada bat eman zion. Oso polita izan zan.

*(Migel Beloki, Gasteiz)*

\* \* \*

Ikusten ninduan bakoitzean, onela esaten zidan:

— Zer, Zela: aurten ere igaz bezela?

— Ez; urte bat geiago eta geroz eta okerrago —esaten nion nik.

*(Juan Krutz Lasa, Zela, Joxe Migelen soldadu laguna)*

\* \* \*



Nere andreari besotik eldu edo musuak ematen bazizkion, norbait izango zan esaten:

— Kontuz, Joxe Migel! Onek zeloak artuko dizkik!

Eta berak:

— Ez, ez! Orrekin etzeukeat kuidadorik! Ori bera da Zelakoa!

*(Juan Krutz Lasa, Zela, Joxe Migelen soldadu laguna)*

\* \* \*

Gure aita bizi zala, oraindik ez aspaldi beraz, gertatutakoa da beste au.

Ama eta biak zijoazela, aurrenik ama ikusi Lazkao-Txikik, eta ez ezagutu. Gero, aita ikusi zuanean:

— Zuek al ziñaten? Ez naiz konturatu.

— Zer: bista bajatzen? —nere aitak.

— Zure aldean beti bajua euki det nik bista —Joxe Migelek erantzun, alturaren kontuarekin jokatu, gure aita altua eta bera txikia ziranez.

*(Anjel Mari Peñagarikano bertsolaria, Albistur)*

\* \* \*

Lagun batekin topo egiten du gure Joxe Migelek, eta galdetzen dio:

— Zer abil?

— Antiojuak eroatera etorri nauk.

— Ara: nik ere bear dizkiat. Ea, utzi izkidak.

Probatu eta esaten dio:

— Auekin ondo ikusten al dek?

— Nik bai.

— Ba, auekin ondo ikusten badek, len ere bista ona eukan.

*(Mikel Mendizabal bertsolaria, Itsasondo)*

\* \* \*

Astigarragan, sagardotegitik irtenda, lagunartean pixa zeñek gorago egin ari ziran. Lazkao-Txiki ari zala, onela dio batek:

— Gora egiten dek pixa!

Eta Joxe Migelek:

— Sagardotegitikan ateratakoan aixa!

*(Patxi Telleria, Gaintza)*

\* \* \*

San Pedro jai egun batean, Larraitzen garai aietan festa aundiak izaten ziranez, puesto oietako bat zegoan, apaltxo batzuetan pelota ta abar karabinarekin tiratu eta botatzeko jarriak.

Lazkao-Txikik tiratu du bat eta nun jotzen duan pelotaren azpiko balda. Onela dio berak:

— Jo al dik bola?

Gaintzako Santos Telleriak:

— Lazkao, ez diagu ezer egiten ola!

Tira zak puntea gorago dola!

Apuntatu nai badek, esan diat nola!

*(Patxi Telleria, Gaintza)*

\* \* \*

Egileor bertsolariaren omenaldikoan, 1984 urtean, elurte aundia zegoan, eta bideetan ibiltzeko arazoak ziran. Lazkao-Txikik erabaki zuan etxetik Ordizira kotxean jetxi, an trena artu eta Donostira joatea.

Guztiak an ari ziran, alako giroarekin naiko jende bildu zala eta abar esanez. Joxe Migelek, ordea, mundu guztia elurraren komeriak kontatzen ari zanez, billatu zion bere bidai orri kakoa. Txapel aundi bat Olentzaroren itxuran jantzi eta an zebillen etorritakoei eskua emanaz.

— Zer moduz, ba, Joxe Migel?

— Gaur ere marka egin diat!

— Zer egin dek, ba?

— Badakik nolako elurra egin duen. Ba, ni Ordizitik Donostira atzeraka etorri nauk.

— Atzeraka?

— Bai. Trenean atzeraka eseri nauk Ordizin, eta atzeraka etorri nauk Donostiraño.

*(Mikel Mendizabal bertsolaria, Itsasondo)*

\* \* \*

Apaiz bat asten zaio bertsolari bati kritikak egiten:

— Zuek, izan ere, edan gabe ez dakizute ezer egiten. Edandakoan, gaiñera, edan txarrekoak zerate. Beti gaizki esaka alkarri.

Alako sermoi luze bat bota omen dio; eta, ixildu zanean, bertsolariak:

— Aizu: orretan etzabiltza zuzen. Bertsolariak gerala edan txarrekoak; eta apaizak zer? Trago bat egin orduko, h... partitzen asten zerate.

Txiste onekin gertatua izan bear zuan, Basarriri agidanean gustatu egin zitzaizola; eta Lazkao-Txiki bera ere oso arrituta alako gizon serioa txiste ori gustatzeaz. Basarrik

nunbait ere egunkarian bere kronikan aipatu zuan, eta apaizen batekin izan omen zituan gora-beerak, idatziren bat asarre samar egin omen zion eta.

(Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano)

\* \* \*

Gizon arro bati onela esan zion bein batean Lazkao-Txikik:

— I automobilla baintzake, *corta*-ko (argi laburra) argirik ez uke izango!

(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)

\* \* \*

Apaiz batekin asarretu da Lazkao-Txiki.

— Gizona izateko, kaka-tokia beeragi dek ik! —apaizak.

— Ala ere, makurtuta egiten det, ba, jauna! —besteak erantzuna.

(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)

\* \* \*

Bein, asi zaio bat txiste eske. Etzan ixiltzen eta naiko amorrazita zebillen Lazkao-Txiki. Azkenean esaten dio:

— Txistea? Erorri aiz i naiko txiste!

(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)

\* \* \*

Beste batean, mutil ankaluze igar bat zan eta arekin izan du nunbait zerbait. Onela esan zion Lazkao-Txikik:

— I ere ola, ankaz gora jarri ezkerro, tiragomaren manilla ematen dek eta?

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Egun aietan bertsotan batera eta bestera ibilia nunbait gure Joxe Migel, eta erretiro aundirik egin gabea. Ala, tabernan, maian erdi lotan bezela omen zegoan. Ingurukoak eguraldi-kontuan ari omen ziran:

— Eguraldia, gaurkoaren modukoa egin bear omen dik, bai ondorengo egun auetan eta bai aste-bukaeran ere. Ala esan dik Pellok.

Eta Lazkao-Txikik:

— E? Zeiñek esan dik?

— Pellok!

— Arek ere egiten zituk pallok!

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Bein boda batera joan eta txirlak ekarri omen zizkioten. Geienak utsak omen zeuden, ordea, eta an utzi omen zituan danak, ekarri bezela. Neskamea etorri zan jasotzera, eta Joxe Migelek esan omen zion:

— Auek ez bota, e? Eraman sukaldera eta gorde, urren-go bodarako ere balio dute-eta, gaur bezela serbitzekotan!

*(Jose Luis Gorrotxategi bertsolaria, Osintxu)*

\* \* \*

Bazan Goierri aldean apaiz-estudiante izana eta gero abogadu ikasten ere ibilitako bat. Etzuan karrerarik bukatu, baiña lanik ere egin gabe bizi zan.

Oso mutil argia zan, eta Lazkao-Txikik tratu aundia zuan berarekin. Aspaldian alkar ikusi gabe nunbait; eta batean, topo egindakoa, onela esaten dio estudiante txar orrek, eskua emanez:

— *Yo no me canso, José Miguel.*

Eta onek:

— Nola nekatuko aiz, ba, i, oraindik ez aiz lanean asi ere egin eta!

(*Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia*)

\* \* \*

Goierritarren diska grabatu zutenean, argazkia ateratze-  
ra etorritakoan gertatua da urrengo au.

Udaberria zan. Argazki dotore ori atera bear genduan egunean, beste danak etorrira zeuden, baiña danak nere zai. Ni izan bainintzan azkena eldu nintzana.

Joxe Migel ere antxe zan, tripak jaten ordea, norbaitekin sagardotegiren batera joateko itz emana omen zegoan eta.

Ni patxaran nentorren, eskuak patrikan sartuta. Ikusi niñunean, besoak altxa eta onela esan zidan:

— Zer abil, motell? Nun ibili aiz?

— Ara, Joxe Migel: patata egiten aritu nauk eta berandutu egin zaidak.

Eta orduan berak:

— Ik daukaken bezelakoak azten badituk, ez dek oso soro txarra!

(*Inazio Begiristain bertsolaria, Ataun*)

\* \* \*

Beste au Jon Jakari entzun nion. *Elkar* edo *Zabaltzen* edo liburu-etxe ortan anai-mordoska bat badira sozio; eta, kotxean asko ibiltzen diranez, an ari omen ziran kotxearen kilometroak komentatzen.

Batek onela galdetzen dio besteari:

— Zenbat kilometro egin dizkiok kotxeari?

— Eun da...

— Oiek ez dituk egiten eonda! —Joxe Migelek.

*(Anjel Mari Peñagarikano bertsolaria, Albistur)*

\* \* \*

Bein topo egin dute nunbait ere alkarrekin Segundo Azpiazu, bi metro eta amar zentimetro inguru neurtzen dituan saski-baloiko jokalaria eta Lazkao-Txikik, eta norbaitek onela esaten dio oni:

— Au dek aga, au! Kereziak biltzeko ederra au!

Eta Joxe Migelek:

— Bai; baiña marrubiak biltzeko ni obea!

*(Kasiano Ibarguren bertsolaria eta soñujolea, Lizartza)*

## TXOFER

Bein batean, Olaberriko gasolineran sartu da gure Joxe Miel, eta bertan guardiazibillak kontrolak egiten. Joan zaio guardiazibilla eta, eskuak kotxearen kapotaren gainean jarrita, irriparez onela dio Lazkao-Txikiri.

— *¿De dónde viene usted?*

Joxe Migelek:

— *¿Yo? Vengo de Irún.*

Eta guardiak, listo-arpegia jarriz:

— *Este motor está muy frío para que usted venga desde Irún.*

Eta Lazkao-Txikik:

— *Sí. Tiene usted razón. Eso está muy frío, porque este coche tiene el motor atrás.*

(Peli Eskisabel, Ordizia)

\* \* \*

Bein batez, kotxea *doble fila*-n utzi zuan, eta aguazillak:

— *Etzegok doble fila*-n uzterik! *Fuera* emendik!

Eta Lazkao-Txikik:

— *Marka dek! Soldaduskan, lau filatan ibilita ere, etzizgun inork kasorik egiten; eta emen doble fila*-n ibili ezin!

(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)

\* \* \*



Gasolindegi batean omen zegoan bein Lazkao-Txiki gasolina artzen, eta gazte bizardun ille-luze bat urbildu eta onela galdetu omen zion:

— *¿Me falta mucho para León?*

Eta Joxe Migelek:

— *Sólo el rabo.*

*(Joxean Ormazabal, Zegama)*

\* \* \*

Bein batean, Azpeititik Urraki aldera zijoala, Elosiaga aldean-edo, pintxazoa izan du bere *Dyane 6* kotxean.

Katuarekin asi da kotxea altxatzen; baiña ezin. Katua ondatuta nunbait. Ortan ari dala, urreratu zaizkio iru gazte, eta esaten diote:

— Zer zabilta, Lazkao-Txiki?

— Ementxe, motell! Katua izurratu zaidak, ezin kotxea altxatu eta pintxazorik ezin inola ere konpondu!

— Zu lasai, au bereala konponduko degu ta!

Eldu diote iru gazte oiek *Dyane 6* kotxe orri, eta laster zuten altxatuta, katu bearrik gabe. Bai Joxe Migelek ere kurpilla aldatzeko aukera ederra.

Aldatu dutenean, bota dute kotxea lurrera, eta Joxe Migelek esan omen zien:

— Pentsatu bear nian, bai, katu batek baiño indar geiago edukiko zutela iru astok.

*(Jokin Sorozabal bertsolaria, Andoain)*

\* \* \*

Bidean *stop* omen zeukaten, eta lagunak esan omen zion:

— Joxe Migel, *stop!*

Eta onek:

— Gelditu gabe joaterik eztok!

*(Juan Krutz Lasa, Zela, Joxe Migelen soldadu laguna)*

\* \* \*

Lazkao-Txiki, kotxean zijoala, *stop* batean pasa da gelditu gabe. Guardiak ikusi eta *alto* ematen diote.

— *Buenos días. ¿Usted no ha visto el stop?*

Joxe Migelek:

— *Al stop sí, pero a ustedes no.*

*(Imanol Lazkano bertsolaria, Azpeitia)*

\* \* \*

Beste batean ba omen zijoan lagun batekin kotxean. *Stop* bat omen zegoan eta lagunak esan omen zion:

— Joxe Migel, *stop, stop!*

Eta onek:

— Ori egin dezala gure astok!

\* \* \*

Beste bein, bere kotxearekin gasolindegi batera joan da Lazkao-Txiki, eta angoak esaten dio:

— I, Joxe Migel: kurpillak oso baju dauzkak.

Makurtu da Lazkao-Txiki, begiratzen ditu kotxearen kurpillak eta erantzuten dio:

— Nun nai dek, ba, edukitzea kurpillak? Lurrean!

*(Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano)*

\* \* \*

Goardizibillak bein, etxe aldera motorrean zijoala, onela esaten diote Lazkao-Txikiri:

— ¡Alto! ¿Quién vive?

Eta Joxe Migelek:

— ¡Ustedes!

(Mañukorta bertsolaria, Markina)

\* \* \*

Motoristak ikusi dute Lazkao-Txiki kurba batean *raya continua* zapaldu duala, eta *alto* ematen diote:

— *Ha pisado usted la raya continua.*

— *Y ¿no hay que pisar o qué?*

— *¿Cómo? ¿Tiene usted permiso de conducir?*

— *Sí. Aquí lo tengo.*

— *Y ¿no sabe que no hay que pisar la raya continua?*

— *Si no hay que pisarla, ¿en vaya sitio la han puesto! ¡En medio de la carretera! ¡Haberla puesto en una esquina!*

(Mañukorta bertsolaria, Markina)

\* \* \*

Ertzaiñak sortu ziran artan, ostiral-illuntze batean, eta estazioko aldapan beera-edo an zetorren bere kotxean gure Joxe Migel. Baiña kotxeko argiren bat falta zuala-edo ikusi eta kargu artu zioten. Baiña Lazkao-Txikik onela eraso zien:

— Orrelakoak bai zuek ikusi! Baiña atzo nere kotxetik bateria arrapatu zutenean, nun zeundeten? Ura etzenduten, ba, ikusi!

(Mikel Mendizabal bertsolaria, Itsasondo)

\* \* \*

Euskal-Errian *txibatoak* modan izan ziran garai artakoa da au.

Kotxean dijoala, oliorik gabe gelditu eta motor guztia kixkali omen zaio. Joan da garajera eta galdetzen diote:

— Zer du kotxe onek?

— Ez dakit, baiña erre-usaia botatzen du.

— Ai, Joxe Migel! Olio-tantarik gabe darabilkik eta aterako ez da, ba, usaia? Txibatorik ez al zaik piztu:

— Besterik ez diagu falta oraintxe! Leen oiek akabatu eziñik gabiltza eta orain pizten astea!

*(Xabier Zeberio bertsolaria, Itsasondo)*

## PIPAR BIZIA

Bein batean, etxekoandre bat, ikusgarrizko *danborrarekin*, topatu da Joxe Migelekin. Emakume orrek usteko zuan Lazkao-Txiki bertsolaria eta gaiñera sendagillea ote zan. Onela dio beintzat:

— *Estoy desesperada, Lazkao-Txiki, porque ya tengo cuatro hijos y encima estoy esperando el quinto. En cuanto nazca éste último, tengo que ir a un médico, para no volver a tener ninguno más.*

Lazkao-Txikik serio-serio:

— *No hace falta que vayas al médico. Ya te daré yo el remedio.*

— *Dime en seguida qué es lo que tengo que hacer.*

— *Pues lo que tienes que hacer es tomar mucho bicarbonato.*

— *¿Cómo que bicarbonato?*

— *Sí, mujer, sí.*

— *Bueno, pero ¿cuándo hay que tomarlo? ¿Antes de o después de?*

Eta Lazkao-Txikik:

— *No, no. En vez de.*

(Peli Eskisabel, Ordizia)

\* \* \*

Erri batean apaiz batekin an omen zegoan kalean, kontu esan da kontu esan. Alako batean, or eldu dira bi monja, oso plakak. Eta Lazkao-Txikik onela esan zion bere lagunari:

— Aizu, don Juan: auek beintzat ez dute aragizko pekatu-  
turik egingo, e?

*(Mari Karmen Olaizola, Usurbil)*

\* \* \*

Bein, Joxe Migel pixa egiten ari zala, ikusi omen zuan  
lagun batek eta onela esan omen zion:

— Kontuz! Txoriak aldegingo dik!

Eta Lazkao-Txikik erantzun:

— Utziok pakean, motell! Etorriko dek bueltan, arraul-  
tzak emen zeuzkak eta.

*(Antton Etxaniz Gabilondo, Urretxu)*

\* \* \*

Egun batean, kalean zijoala, or topo egiten du aspaldian  
ikusi gabeko emakume bat, urteetan aurrera zijoana; eta  
onek esaten dio:

— Berri onak ditut, Joxe Migel, azkena alkar ikusi gen-  
duanetik. Ezkondu naiz eta auxe da nere gizona, Ziriako.

Eta Lazkao-Txikik:

— Bai! Gizon ederra artu dezu ziriako!

*(Joakin Berasategi, Olaberrri)*

\* \* \*

Beste askotan bezela, erri batera joan omen zan. Egural-  
di ederra egiten zuan. Eguzkiak ederki berotzen zuan.

Kotxetik irten omen zan aizea artzeko, eta an, etxe ondo  
batean, emakume bat, gonak pixka bat altxatuta, eguzkia  
artzen. Urbildu zaio Joxe Migel, eta:

— Arratsaldeon Jainkoak dizula!

— Bai zuri ere! —emakumearen erantzuna.

— *Bueno!... Bueno!...*

— Zer esaten dezu?

— Ni ixilik nago, baiña beste au asi da zer edo zer esaten.

— Zer esaten du, ba?

— Ni ez naiz nor zure etxean sartzeko, baiña zuk nai bazendu sartuko nintzake!

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Miren eta Bingen trikitilariak bikote bezela ibili ziran garaian esan zuana da onako au:

— Miren da Bingen, beti jotzen da beti birjen.

*(Jokin Sorozabal bertsolaria, Andoain)*

\* \* \*

Emakume batek ikusi du Joxe Migel, bere eiz-txakurrei ibillaldi bat ematera irtena. Inguruko aariak izutu izan bear zituari nunbait, eta ala esan omen zion:

— Joxe Migel, emen alperrik zabilta. Emen ez dago eizik; emen ez dago ezer.

— Gure zakurrak baiño geiago ote dakizu zuk, ba?

— Ez, ez. Emen ez dezu ezer. Alperrik zabilta. Gaiñera, aariak izutzen dizkidazu.

— Lasai, emakumea, txikixeagoa bada ere, aaria izango dezu eta!

*(Florentino Goiburua bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Erriren batera joan bertsoara, eta emakumeren batekin jarri da mostradorean izketan. Ondotik gizonezko batek Lazkao-Txikiri:

— Zelebreen plantan etorri aiz!

Joxe Migelek kasorik ere ez aren esanari. Segi emakumearekin izketan, mostradorean. Andik pixka batera, berriz ere gizonezkoak:

— Ori dek tipoa ekarri dekena! Marikoia ematen dek!

— Joño! Eta ik ezagutzen dituk, ba, oiek! —azkar asko erantzun Txikiak.

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Neska gazte batzuk soiñuarekin ikusten zituanean, beti esango zuan:

— Naiago nuke neu ere soiñua banintz, leku orretan ibiltzeko!

*(Mañukorta bertsolaria, Markina)*

\* \* \*

Zizurkillen giñan beste batean. Neska gazte elegante batek, erdalduna bera, txingak eramaten amalau plaza egin zituan, eta Lazkao-Txikik:

— *¿Has andado llevando chingas?*

— Sí.

— *Pues habrás quedado chingada.*

*(Mañukorta bertsolaria, Markina)*

\* \* \*



Kalentura berezi batzuekin ingresatuta egon zan Lazkao-Txiki ere. Neu ere izan nintzan bisitan. Ura zaintzen zebillen monjarekin ere izan zituan nunbait izketaldiak, eta ala esan omen zion:

— *Creo que usted ha pasado muchas Navidades, pero ninguna Noche Buena.*

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Garai batean, zorigaitzez, eskusartzeak tabernetako neskei ere sarri samar egiten zitzaizkien. Taberna batean taldean geundela, norbaitek eskua dantzatu egingo zuan, eta neskak oi u egin:

— *¡Oye!*

Eta Lazkao-Txikik:

— Ipurdia ikuitzen ari zaizu oi e!

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Lazkao-Txiki eta nere anaia biak solteroak ziran, eta batean eskupeta banarekin eizean zebiltzan.

Joxe Migelek bota dio tiroa birigarro bati, eta egoa autsita edo asko ikutu gabe erori da. Nere anaiak esaten dio:

— Etzekiat, ba, Joxe Migel! Asko jo gabe erori dek ori!

Eta Lazkao-Txikik:

— Batere etzekiat, Joan. Baiña, arra baldin bada, ik aibat jota eroriko uan.

*(Jose Anjel Garmendia)*

\* \* \*

1993-ko Urte Berri egunean itzegin nuan nik berarekin azkenengo aldiz. Gure ama gaixo zegoan eta bisitara etorri zitzaion. Gure amak onela esan zion:

— Konta bear didazu txiste bat, Joxe Migel, orain ere eukiko dituzu zuk olakoren batzuk eta.

Eta auxe kontatu zion:

— Ba omen zan bat, enkarguetara joan eta beti dendariari esaten ziona: “Apunta ezazu. Biar pagatuko dizut”. Baiña biarko egun ori bein ere ez omen zan irixten, Ala, dendari ori naiko asarre; eta, urrengoan “apunta ezazu” entzun zionean, onela esaten dio: “Beti apunta ezazu! Ondo dago apuntatzea, baiña disparatu ere egin bearko degu, ba, noiz-bait ere!”

(Jose Anjel Garmendia)

\* \* \*

*Illati* tabernan Igeldoko sagardozeale bat eta biok merientatzen ari giñala, or sartu da Lazkao-Txiki. Izketan asi orduko, telebista ere martxan zegoan eta sagardozeale orrek esan zion:

— Ara neska bikaiñak, Joxe Migel!

— Bai. Belauneraiñoko iztarrekin gaiñera —erantzun zion.

Arrituta esaten zuan ondoren sagardozealeak:

— Orrek bai al zekian, ba, nik zer galdetu bear nion?

(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)

\* \* \*

Lazkao-Txiki eta lagun batzuk *Bar Eguzki*-n zeuden. sagardoa edanez. Etorri zan Luis Arostegi bertara eta esan zuan:

— Ortaintxe pintxazoa arreglatuta etorri neok, eta pintxazoa galestia zegok.

Eta Joxe Migelek:

— Pintxazoa galesti? Orixe zegok merkeena! Arreglatzea zegok galesti! Arreglatzea!

*(Jose Gorostiza, Asteasu, Illati tabernakoa)*

\* \* \*

Lagun-talde bat bildu eta izketan ari ziran:

— Azken urteotan kanpotar asko sartu dek emen, eta baserriko alabekin ezkondu ere bai. Alperrik dek: gu lotsatiagoak gaituk. Oiek obeto zekitek muturra aurrera sartzen.

Eta Lazkao-Txikik albotik:

— Muturra bakarrik sartuko balute...

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Nunbait ere bertsotan izan ondoren, Martinez-enean gelditu ziran bazkaltzen. Bazkalondoan beste saio bat egin zuten bertsotan. Bukaeran, emakume ezagun bat sartu eta onela esan zuan:

— Pena da, zuek entzuteagatik etorri naiz ta.

— Guk oraintxe bukatu degu, ba —Joxe Migelek.

— Bai; baiña zuek laster asiko zerate berriz ere.

— Zure gizona ala asten al da?

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Tolosako *Beotibar* pelotalekura joan da Joxe Migel lagun batzuekin, pelota-partiduak ikustera.

An, jakiña, eserleku batzuk gorago eta beste batzuk beerrago daude. Aurre xamarrean, beekoetan, jarri ziran Lazkao-Txiki eta oiek. Aien atzean, berriz, emakume batzuk gona motxekin. Txikia, frontoira begiratu bearrean, atzera begira jartzen zan; eta emakume oietako batek esan zion:

— Aurrera begiratu, Joxe Migel! Aurrera begiratu!

— Onela ez al nago, ba, aurrera begira? —Joxe Migelek.

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Erri txiki batean nintzan. Sarri bear izaten det nik laguna, eta orduan nere lagunak an ari ziran mikrofonoak-eta jartzen.

Ala, antolatzailleetako bat urbildu zitzaidan, neska gazte bat, kiosko aldera laguntzeko. Ari bizkarretik elduta nijoala, an agertu zan Lazkao-Txiki ere, eta onela esan zidan:

— Joño, Kasiano! Ola ibiltzeagatik, ni ere itxua izango niñukek!

Etzan nunbait nai ainbat ibiltzen neskekin.

*(Kasiano Iburguren bertsolaria eta soiñujolea, Lizartza)*

## IZKUNTZAREN KEZKA

Gure izkuntzaren egoerak kezka aundia ematen zion Lazkao-Txikiri. Fiñegia izan eta ortik ere zer supritua gizara-joak. Sarritan onela esaten zuan:

— Aterako al degu aurrera?

Euskerak bizirik iraungo ote zuan alegia.

Iraupenak ez-ezik, izkuntzaren jatortasunak ere asko kezkatzen zuan. Erderaren eragiña zenbateraiñokoa zan ondo jabetzen zan, eta onela zion:

— Martxa ontan, aurki erderaz itzegingo degu, euskeraz ari geralakoan.

*(Joakin Berasategi, Olaberria)*

\* \* \*

Nik entzunda daukat bein Lazkao-Txiki, ibillaldiren bat egin da gero, etxera bueltatu zala, eta galdetu ziotela:

— Zer falta bota dezu?


Eta Lazkao-Txikik erantzun zuala:

— Nik faltak ez ditut botatzen. Nik sobrak botatzen ditut.

*(Maria Anjeles Agirretxe, Azkoitia)*

\* \* \*

Gau batean, apal ondoan, Lazkao-Txikik onela esaten dio lagun bati:



*Lazkao-Txiki.*

— Zu zer lan egiten ari zera?

— Zer lan ari naizen? Ba aleman oiei erdaldun orrek zer esaten duan itzuli.

Aleman batzuk onera etorriak baitziran.

— Zer lan da ori?

— Ori da *intérprete*.

— Zer?

— *Intérprete*.

— *Bueno, bueno!* Gure errian orri, baten kontuak besteei esateari, *alcahuete* esaten zaio.

(Karmele Rodríguez, Astigarraga)

\* \* \*

Au neri Lazkao-Txikirekin gertatutakoa da, emen bertso-saio bat euki zuan batean.

Gauean berandu samar zan. Bera ere poliki edo geiegi gobernatua erten, da batek esaten dio:

— Zerbait artu nai badezu, ni soziedadera noa.

Eta Joxe Migelek:

— Eskerrik asko. Baiña len artutakoak ere, bota egingo nituzke gustora.

\* \* \*

Bein, Urkiola menditik beera jetxi eta Durangon bazkaldu ondoren, Alfontso Irigoienek onela agindu omen zion:

— Orain Lazkao-Txikik kantatuko digu bertso bat neskatxa baten gainean.

Eta Joxe Migelek erantzun:

— Adi ezazu: neri neskatxa baten gaiñean ez zait bertso-rik bururatzen. Zer uste duzu: ni zurezkoa naizela ala?

(Juan Dorronsoro, *Bertsotan*, II)

\* \* \*

Bein Gabirin, ni gaiak jartzen ari nintzala, gai bati buruz esan nuan bearbada etzala guri gertatuko zitzaiguna, gu *karroza* xamarrak giñala eta...

Onela esan zidan gero Lazkao-Txikik:

— Nola esan leikek ori, emen dagoan jendearekin? Orko zaar oriek danak *arroza* esan dekelakoan zeudek.

(X. X.)

\* \* \*

Euskera-kontuan bazituan bere eztabaida eta komeriak. Bein, bere inguruan Lopategi zuala, an ari omen zan:

— Orain *anaia* esan bear omen dek, i! Guk beti *anai* esan diagu. Ik nola esaten dek: *anai-arrebak* ala *anaia-arrebak*?

Eta Lopategik:

— Guk *neba-arrebak*.

(Anjel Mari Peñagarikano *bertsolaria*, *Albistur*)

\* \* \*

Udara batean, ibillaldi bat egin ondoren, etorri gera Oiartzungo *Atamitx* jatetxera. Atano X eta bere familikoak an zeuden afaltzen, kanpoko maietan eserita. Joxe Migeli an jartzeko esan zioten, eta ni ere bai aren ondoan.

Ala, Atanillok esan zion:



— Buztana jaten ari gaituk.

Lazkao-Txikik:

— Buztana ez dek izango. Isatsa izango dek.

— Guk buztana esaten zioagu.

— Ba, buztana eta isatsa diferenteak dira. Isatsak puntan izaten dik illea; eta buztanak ondoan.

*(Jose Goroztiza, Asteasu, Illati tabernakoa)*

\* \* \*

Ostaturen batean, mutil bat mostradorera urbildu da eta ostalariak:

— Zer nai zenduke?

Mutillak:

— Kafe bakarra.

Lazkao-Txiki an bertan zan, eta onela esan zion:

— Bestetan dozena artzen al dek? Nik kafe utsa artzen diat!

\* \* \*

Perretxiku biltzetik zetorren batek:

— Perretxiku biltzen egon nau, Joxe Migel!

Eta onek:

— Ez aiz makala orduan! Guk, asko ibilita ere, ez dizkiagu biltzen; eta ik egonda bildu al dituk?

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Loinazetan, Beasaiñen kantatu eta joan gera afaltzera *Rubiorena* jatetxera. Pello Urretabizkaia, Iñigo Eguren, Lazkao-Txiki eta ni giñala uste det.

An geundela, sartu zan emakume pare bat bikaiña. Joxe Migelek, oi zuan bezela, diximulo galantarekin pasa zien errebista, eta Pellok esan zuan:

— Ederrak emakumeak!

— Bai, motell.

— *Viuda* daude.

— Negu bat baiño obe *bi uda*. Ik ez al dakik *alarguna* esaten?

\* \* \*

Bein Ordizian lagun batekin topo egin eta onela galdeztzen dio Lazkao-Txikik:

— Zer egiten dek?

— Ementxe, denbora egiten.

Eta Joxe Migelek:

— Ño! Denbora egiten, e? Badaukak nik aiñako abilda-dea!

\* \* \*

Beste batean, bidean kotxean zijoala, emakume batek *auto-stop* egin zion. Gelditu eta artu du. Asi dira izketan eta bestea andereño izatea egokitu.

Onek onela esaten dio:

— Lengoan Zumaian ikusi nizun, Joxe Migel.

Lazkao-Txikik erantzun:

— Zer ikusi zenidan?

Zearo asarretu eta kotxetik jetxi arazi zuan, itz auek esaten zizkiola:

— Zuk ez didazu penarik ematen, zurekin dabiltzan aurrak baizik!

(X.X.)

\* \* \*

Bazkal aurre batean basoerdi batzuk edaten ari giñala, basoa erori zitzaion bati eta taldeko batek esan zuan:

— Ori autsi dek!

— Ori puskatu egin dek! —Lazkao-Txikik.

— Ori autsi egin dek! —leenak berriz ere.

— Ori puskatu egin dala! —leen baiño altuago Joxe Migelek.

Artu zuan palillo bat, autsi zuan baiña libratu gabe, eta esan zuan:

— Ori autsi dek!

Ondoren, bi puskak alkarrengandik bereziz:

— Ori puskatu dek! Ea izketan ikasten dekan!

Etzuan ark gurekin bazkaldu.

(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)

## IKUSPEGIAK

Bein Lazkao-Txikik. Txillida eskultoreagatik au esan zuan:

— Txillida omen dek artista, i! Arek egiten duana entenditzen duana bai, badek artista!

*(Anjel Maria Peñagarikano bertsolaria)*

\* \* \*

Sarritan aipatzen zuan esaldi bat, nun eta noiz ez dakidala, norbaitek amorrazioaren batean esana:

— Munduari su eman eta Frantziara aldegin!

Egundoko grazia egiten zion ateraldi orrek Lazkao-Txikiri.

*(Xabier Amuriza bertsolaria, Ernani)*

\* \* \*

Berari buruz jendeak pentsatzen zuanarekin, egundoko amorrazio-aldiak izaten zituan:

— Nazkatuta natxiok parregarrikeriak egiten, eta etxera joan eta ez nauk geiago aterako!

Ala ere, deitzen zutenean, ezin ezetzik esan.

Sarritan erabili genduan kontua da ori. Berak, bazuan jendearenganako urbiltasun ori, eta beti jendearen esanera jartzen zan. Baiña, orregatik ere, latz sufritzen zuan zenbait aldiz.

*(Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano)*

\* \* \*

Azkenetan zegoan emakume baten gertakizuna askotan kontatzen zuan. Etorri da apaiza azken igurtzia ematera, eta onela galdetzen dio:

— Zer moduz, ba, emakumea?

Eta onek:

— Zer esango degu, osasuna ere badegu ta?

Lazkao-Txikik onela esaten zuan:

— Esan egin bear dik ori gero, azkenetan dagoala!

*(Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano)*

\* \* \*

Aita Santuaren ibillerak etzitzaizkion Lazkao-Txikiri geiegi gustatzen.

Indiara joan zaneko batean, telebistaz an agertu zan egazkiñetik jetxi eta lurrari muiñ ematen. Eta Joxe Migelek:

— Zertan zebillek ori lurrari muiñ ematen? Oiñez ibiliko balitz, ez likek lurrari muiñ eman bearrik!

*(Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano)*

\* \* \*

Onela esan oi zuan Lazkao-Txikik:

— Garai bateko amonak artistak ziran iru lan batera egiten!

— Iru lan batera? Nola?

— Bai. Errosarioa errezatu, taloak egin eta arkakosoak arrapatu eta il, irurak batera!

*(Juan Mari Narbaiza bertsolaria, Eibar)*

\* \* \*

Beste au Lazkao-Txikiri berari sarritan entzuna diot.

Baserri bateko amona oso errezazalea izan eta, bere illuntzeroko errosarioa bere letaniekien esan ondoren, an asten omen zan santu guziekin bueltaka, bakoitzari aitagure bana errezatuz:

— Aitagure bat Aita San Antoniorentzat! Aitagure bat Aita San Rokerentzat! Aitagure bat Aita San Pedorentzat!...

Santu guziak pasa eta gero, purgatorioko animak ere seguruak izaten zituan. Baiña azkenean nolabait ere bukatu bear eta onela esaten omen zuan:

— Aitagure bat gure Jaungoikoaren osasunerako!

*(Jokin Berasategi, Olaberri)*

\* \* \*

Ganaduzale bezela, etzan Lazkao-Txiki kooperatiba eta *explotazio* aundien aldekoa. Onela esaten zuan:

— Baserri ona, iru bei ille luzeekin eta zikiñ-zikiñak; eta aiton-amonak lepondo bikaiñarekin sukaldean! Ez bei ugari eta bikaiñak, eta gizon kaskarrak!

Ori zuan bere teoria.

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Lazkao-Txikiri entzuna:

— Konbentuetan, atea ankarekin jotzea nai izaten dute. Seiñalea eskuak beteta datozela.

*(Jokin Berasategi, Olaberri)*

\* \* \*

Irizbide auek Lazkao-Txikik berak Usurbillen esan zitu-  
an, 1981-VII-4-ean, eta norbaitek magnetofonoz artu:

— Emakumezkoak gizonezkoak baiño azkarragoak dira.  
Zergatik? Emakumeak buruarekin pentsatzen dutelako, eta  
gizasemeak ipurdiarekin.

Neska batek, mutil bati begiratzen dionean, onela gal-  
detzen du:

— Zer lantoki ote dauka? Zenbat irabazten ote du? Moz-  
kortzen ote da? Mutil ona ote da?

Ori da buruarekin pentsatzea.

Mutil batek, berriz, neska bat ikusten badu, onela esa-  
ten du:

— Oiek bularrak! Oiek ipurdi ederrak orrek dauzkanak!

Ori da ipurdiarekin pentsatzea.

\* \* \*

Lazkao-Txikik esaten zuan sekula ez dala galdetu bear  
“¿qué tiene para comer?”, baizik eta “¿qué hay para comer?”  
Eta txiste au kontatu oi zuan orduan.

Joan omen zan biajante bat taberna batera, eta galdetu  
zuan:

— ¿Qué tiene para comer?

Onela esaten asi omen zitzaion serbitzen ari zan neska:

— Tiene usted cabeza de cordero, patas de cerdo, orejas  
de jabalí, lomo de merluza...

Gizonak, oso asarre, erantzuten dio:

— ¡Y usted tiene cara de puta!

Eta maitik altxa eta alde egin omen zuan.

(Joxean Ormazabal, Zegama)

## POLITIKA

Beste bein, nunbait ere lagunak politika-kontuaz ariko ziran, eta berak esan zuan:

— Ai, jaunak! Politikan ez dago gauza politikan!

*(Jokin Sorozabal bertsolaria, Andoain)*

\* \* \*

Joxe Migeli, erriz erri zebilela, gauza asko galdetzen zioten; eta berak, “bai al dakizu?” galdetutako bakoitzean, baietz erantzuten zuan.

Ala, amona batek onela galdetu omen zion egun batean:

— Aizu, Joxe Migel: zuk bai al dakizu zer diran komunistak?

— Bai; badakit, bai.

— Zer dira, ba?

— Oiek jende alperra izaten dira. Denborarik geiena komunean sartuta pasatzen dute, eta orregatik esaten zaie oiei komunistak.

— Orregatik al da? Orregatik al da? —amonak, erabat sinistuta.

*(Joxe Agirre bertsolaria, Azpeitia)*

\* \* \*

Bein multa bota zioten, eta zortzi illabetez kantatzea debekatu “*por insultos a la nieta de Su Excelencia*”.



Garai artan, Azpeitian, alamoduzko gaia jarri zioten, familia denbora baiño leen izandako gurasotzat jarri baitzuten Lazkao-Txiki. Orduantxe pasatu berria baizitzaion ori Francoren illobari, eta bertsoan gertaera ura aipatzeagatik eman zioten zigorra.

Baiña kuartelera joan zanean bai esan ere:

— *A mí por decir me echan multa; y ¿los que lo han hecho están en la cárcel o qué? ¿No es peor hacer que decir?*

*(Juan Dorronsoro: Bertsotan, II)*

\* \* \*

ETA-ko leen militante ildako Xabi Etxebarrieta Tolosako Bentaundin il ondoren, erri geienetan atera zuten meza beraren alde, eta Lazkaon ere ala egin zuten fraileen elizan.

Elizkizunetik ateratzerakoan ziren komeriak, eta Lazkao-Txiki ere an zan, arrapatu zuten eta kuartelera eraman.

Andik etxeratzerakoan, eta jendeak galdetu:

— Zer moduz, Joxe Miel?

Onela kantatu zien, elizako kanta ezaguna aldatuz:

Kristorenak,  
Kristorenak gera;  
Kristorenak artuta  
etorri gera.

*(Juan Dorronsoro, Bertsotan II)*

\* \* \*

San Sebastian egun batean, Donostiko Antiguan erri-mezan kantatu bear izan genduan. Apaizak, Jauna banatu ondoren, oi bezela, altarean gorde zuan, eta atea itxi.

Garai artan oso modako zebillen *amnistia* gaia, eta Lazkao-Txikik aldamenetik onela esaten dit:

— Oiek besterentzako *amnistia* eskatzen ditek; baiña beraiek Jaungoikoa kartzelan sartu!

(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)

\* \* \*

Francoren garaian, lagun batzuk propaganda jartzen ari ziran Beasaingo kalean. Joxe Migelek ikusten ditu eta esaten die:

— Zer ari zerate?

— Propaganda jartzen.

— Zer partidutakoak zerate, ba, zuek?

— Gu komunistak gera.

— Eta itaia eta mailluarekin al zabiltzate, orain dauden adelantuekin?

(Mikel Mendizabal bertsolaria, Itsasondo)

\* \* \*

*Eusko Alderdi jeltzalea* eta *Eusko Alkartasuna* berezi ziranean, alderdi oietako burukide bati esana:

— Oraintxe egin dezute *partido!*

(Joakin Berasategi, Olaberri)

## ARRIARANGO JULIAN

Arriarango Julian, Joxe Migel eta irurok askotan ibiltzen giñan alkarrekin; eta bein, afalondo batean, Julianek eta biok txapelketa jokatu bear genduala bertsoan. Joxe Migel juez. Gairik eta orrelakorik batere gabe, orrenbeste bertso zortziko aundian eta gero beste orrenbeste txikian.

Ala ari giñala, lo artu zuan Joxe Migelek. Guk ez genion kasorik egin, bestela oso jenio biziko esnatzen baitzan. Esnatu zan alako batean eta esan zigun:

— Bukatu al dezute?

— Bai.

— Enpate orduan.

Andik urrengo astean-edo, afaldu eta joan gera Pellone-ra kafea artzera. Julianek esan zidan:

— Asi egin bearko diagu, Armuño.

— Txapelketan zutik jokatzen dek —erantzun nion nik.

Joxe Migelek agindua eman eta asi giñan bertsoan. Zenbait bertso kantatu eta gero, Julian onela asi zan bertso batean:

— Aizu, Ariztimuño...

Joxe Migelek orduan:

— Bapo! Alto! Ik irabazi dek, Armuño!

Eta Juliani:

— Au Armuño dek; ez Ariztimuño!

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataur)*

\* \* \*

Bein, joan dira alkarrekin afaltzera gure Joxe Migel, Julian Arriarangoa eta Armuño ataundarra.

Afalondoan asi dira bertsoan, eta Julianek eta Armuñok apustu egin omen zuten, biak bertsoan irurentzako kafeak jokatuko zituztela. Juradu Joxe Migel zan izatekoa.

Asi dira biak bertsoan, eta kanta eta kanta. Txikia nekatauta ibiltzen zan askotan lo gutxirekin, eta saio luze arekin lo artu zuan maian. Alako batean esnatu omen zan eta:

— A! Bukatu al dezute?

— Bai. Bukatu diagu.

— Zein ixildu da aurrena?

— Ni —Armuñok.

— Orduan ik irabazi dek. Bertsolari txarrena ixiltzen dek azkena —Lazkao-Txikiren erantzuna.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Gau batean, Arriarango Julian eta biak kotxean doazela, errubera zulatu eta Julianek galdetzen dio:

— Zein errubera zulatu zaik?

— Zera: gainean dijoana!

Asi dira errubera ori konpontzen farol baten argitan: baiña farolari argia joan. Giro izan bear zuan ondoren!

Ortan dirala, inguruko baserritar bat inguratu zaie. Baiña, itz egiterakoan, “este... este...” ugari esaten omen zuan, eta Joxe Migelek:

— Ik zenbat este dauzkak?

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)*

\* \* \*

Ordiziko festetan egunpasa egiten genduan guk. Gertakizun au orain zazpi urte inguru gertatua izan diteke. *Eguzki* tabernan giñan meriendatzen, eta dana bete-beteta zegoan. An ere, sarri bezela, ni asi nintzan bertsoan. An ari giñan alkarri aundi samarrak botatzen. Bertso bat onela kantatu zidan Joxe Migelek:

Aizak, Julian, ikin jendea  
asko zegok kejatuta,  
baserri oneko semea eta  
orrenbeste flakatuta.  
Bai al dakik ni une onetan  
zer nagoan pentsatuta?  
I gizendutzen erreza zegok  
eskuak atzen lotuta.

Nik:

Ik bota deken astakeria  
barru ontan ez dek kabitzen,  
ni bezelaxe entzule asko  
ementxe zeudek aditzen.  
Gazte denboran ez un ikasi  
ber dan bezela bizitzen,  
eskua geldi eduki bau  
geixago aziko intzen.

Saio orretan geroago nik kantatutako bat gogora erazi didate oraintsu:

Enuan uste gu bion arten  
era onetan asterik,  
baiña alare guk ez daukagu  
broma pixka bat besterik.  
Nabarmendu aiz biziotsua  
izan intzala gazterik,  
ni gizendutzen erreza zegok  
baiña i etzegok azterik.

*(Julian Albisu, Arriaran)*

## BAZKALDARRAK

Beti alkarrekin bazkaltzen genduan, baiña kontuz itz egin bear izaten zan aren aurrean. Bazituan ondotik bialdu-takoak, berriro bazkaltzen aren ondoan eseri etziranak.

Bein, erdaldun batek *caseros* esan eta entzun zituan entzutekoak: ea, baserritarrik ez balitz, burnia janda bizi bear al zuan. Berriz etzan gure maira arrimatu.

Gu, geienetan, bera etortzerako bazkalduta izaten giñan, gero aren istoriak entzuteko. Baiña "arratsalde on" esan gabe sartzen bazan, kontuz ezer galdetu!

(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)

\* \* \*

Segurako Arruek Lazkao-Txikirekin bazkaltzen zuan beti, ni baiño zortzi bat urte leenagotik asita. Gertakizun au, berriz, orain dala iru edo lau urte izan zan.

Legorte aundia zan eta Seguran zenbait ordutan ura kentzen zuten. Etorri zan Arrue ori bazkaltzera eta onela esan zuan:

— Atzo ere egundoko lanak egin nituan, Joxe Migel! Ura kendu ziguten, eta ni baldeekin ura eramaten aritu nintzan.

— Kenduta ere eraman egiten al dek ik? —Joxe Migelen erantzuna.

(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)

\* \* \*

Bein batez, Ataunen musean ari zala, Lazkao-Txiki amorrzita zegoan eta berak jo du:

— Ordago!

— Bota! —besteak.

Baita Joxe Migelek kartak arrika bota ere.

— Euk esan dek botatzeko!

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataur)*

\* \* \*

Jose Migel Garmendia kontratistak R-12 kotxe bat zuan. Batean, alkarrekin soziedadean afaldu genduan. Kanpora atera giñan eta or ikusten degu R-12 orri batenbatek kolpea eman diola aurreko aldean.

An zebillen kontratista ori, suak artuta, zein kalamidade izan ote zan esanez; eta Lazkao-Txikik onela dio:

— Atzean ere jota daukak.

Sututa joaten da kontratista atzeko kolpea ikustera, eta ezer ere ez.

— Nun zegok, ba, jota?

— Ez al dek ikusten matrikulan?

SS .... J izan kotxearen matrikula.

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataur)*

\* \* \*

Beste bein onela esan zion batek:

— I aiz ume ttikia!

— I aundia aizelako, tonto arraioa! —Joxe Migelen erantzuna.

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataur)*

\* \* \*



Lazkao-Txiki, taberna edo alkarteren batean.



Ataungo Aian, Begiristain bertsolariak esan zion bein:

— Etzekiat zer daukatan! Begietatik malkoa ateratzen zaidak.

Eta Lazkao-Txikik:

— Beetik etzaik aterako eta begietatik atera bear!

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)*

\* \* \*

Askotan, biok batera joaten giñan bazkaltzera. Geienetan bagenduan istoriren bat: bateko denuntzia, besteko ez dakit zer, beti zer edo zer.

Egun batean bazijoan Joxe Migel aurretik bere kotxean, eta ni atzetik. Aren aurrean zijoanak frenatu egin zuan, eta Lazkao-Txikik atzetik jo. Etzion ezer askorik egin: pilotoren bat autsi-edo.

Atera zaio aurrekoa eta esaten dio:

— Nola jo leike atzetio?

Eta Joxe Migelek:

— Nunbaitetik asi bearko diagu, aurretik etzigutek uzten da!

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)*

\* \* \*

Beste bein etorri zan Lazkao-Txiki, eta lagun batek esan zion:

— Etorri aiz, Joxe Migel!

— Bai; etorri nauk. Belarretan aritu nauk.

— Ori ona dek —besteak.

— Ona dala? Bakarrik aritu nauk, ba!

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)*

\* \* \*

Urteetan aurrera zijoan gizon bat ikusi du Lazkao-Txikik denda batean sartzen, eta onela esaten dio:

— Zer zabilta?

— Bizikleta bat erosi bear diat.

— Zure urteetan?

— Bai; baiña eragin eta korritzen ez duana.

— Eragin eta korritzen ez duana etxean ere eukiko dezu.

(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)

\* \* \*

Batean. Joxe Migel eta biok kiniela egitera joan giñan. Arek kiniela eta lotoa egin zituan; eta nik kiniela egin eta itxuen numeroa artu. Irteerakoan esan zidan:

— I tontoa aiz, Armuño. Itxuen numeroa zertarako artu dek? Alkar ezin die ikusi eta iri zera emango die oiek!

(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)

\* \* \*

Kotxea Joxe Migelek *carga-descarga* leku batean utzita izan, eta aguazillak, Ataungo *Otxo-otxo* baserriko Josetxok denuntzia jarri zion.

Joan zaio Joxe Migel, eta aguazillak ez dio ba txotxoloa esan? Oraindik gogoan daukat nola jarri zan:

— I aiz amonaren seme txarra! Euskeraz ez dek entendi-tuko ta, i aiz puta-semea! Nun engon gordeta? —Lazkao-Txikik, su artuta.

Andik *Nagasaki*-ra joan giñan. An Ataungo batek Uzta-pideren bertso-tako txapelei buruz apustu bat eginda zuen nunbait ere. Arkumea jokatu zuala eta nik Jose Migeli gal-

detzeko esan zidan aurreko egun batean. Baiña egun ortan ez da, ba, ataundarra bertan azaldu? Onela esan zidan:

— Oraintxe galdetu bear zioat!

— Garai ederrean! —esan nion—. Kontuz ibili adi!

Joan eta galdetzen dio:

— I, Joxe Migel: zenbat aldiz jantzi zian Uztapidek txapela?

— Egunero —Lazkao-Txikiren erantzuna.

Gero neri esan zidan:

— Iru aldiz jantzi zian. Esaiok ik!

Ortan genbiltzala, segurar batek onela esan zion denuntziagatik:

— Ez orri kasorik egin! Auzi ta fuera!

Segurarrak ez baitute *ausi* esaten. Eta Joxe Migelek:

— Bai! Orain *auzitara* joango gaituk! *Ausi* esan zak, ba, kalamidadea! Abarkak jantzi al dituk kaltzetarik gabe? Euria egiten duanean, anakak ibiltzen dituk, ba, *plisti-plasta!* Olaxe itz egiten dek ik, motell!

Asarre zegoanean, bildurgarria zan.

(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)

\* \* \*

Beste batean ere kiniela egitera joan giñan Joxe Migel eta biok. Bidean Mendizabal bertsolariarekin egin genduan topo. Au orduan txapelketara joateko zegoan.

Nerekin izketan gelditu zan, eta lazkaotar bat bi illabete gaizki egon ondoren il zala eta abar esaten ari giñan.

Joxe Migel sartu zan tartean eta onela esan zuan:

— Nik bazekiat bat, berrogei ta amar urteotan ia illean dagoana Lazkaon. Ik ezagutzen dek, Armuño.

— Zein? Zein? —galdetu zuan Mendizabalek.

— Kasilda, motell, Kasilda! (*Kasi il da*) Ik txapela ekarriko dek, etxetik eramaten badek!

(*Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun*)

\* \* \*

Sastreriko Luisekin gertatua da onako au. Zegamarra da bera.

Ikusi du Luis ori Lazkao-Txikik eta onela esaten dio:

— Zer moduz abil, Luis?

— Goizean bi biaje ekarri zetuak.

— Gure etxean ere bi biaje ekartzen dituk.

— Bai; baiña nik bi biaje latzak gero!

— Orduan otea ekarriko uan.

(*Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun*)

\* \* \*

Batean, lana falta zala eta lana falta zala ari zan jende guztia, eta Joxe Migelek esan zuan:

— Lana zer egiteko egin bear dek? Lana? Leenago ere bazegok naiko lana!

(*Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun*)

\* \* \*

Letrak pagatu bearra zeukan Lazkao-Txikik. Joan da Beasaingo sukurtsalera eta an etzegoala pagatzerik. Joan da Ordizira eta an ere ez. Lazkaora joan bearko zuala. Sartu da

emengo sukurtsalera eta an Ataungo bat. Billa eta billa asi da, baiña ezin arrastorik atera. Azkenean esan omen zion:

— Kontua, Joxe Migel? Nun daukazu kontua?

Eta onek:

— Kontua? Mingaiñean, ik bezelaxe!

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)*

\* \* \*

Zaar batek onela esan zion bein batean Lazkao-Txikiri:

— Lana? Lana, motell, osasuna dek!

Eta Joxe Migelek:

— Gaixotasuna emaidazu orduan!

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)*

\* \* \*

Baserri batera joan omen zan bein batean, bei bat eros-teko asmoz. Atarian txakur igar-igarra ikusi zuan. Nagusia ate ondora agertu orduko, onela galdetu omen zion:

— Txakur onek zer dik izena?

— Luki.

— Olakoa eukitzekotan batere ez euki! Beiak ere igualtsuak eukiko dituk i(k).

Eta batere erosi gabe itzuli omen zan etxera.

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)*

\* \* \*

Beste bein, lagun batek tripetako ondo-eza edo ez dakit zer zuan, eta onela esaten dio:

- I, Joxe Migel: ezin egona etorri zaidak!  
 — Ibili adi, ba, orduan! —bestearen erantzuna.

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataur)*

\* \* \*

Lazkao-Txiki rejimenean asi zanean, onela esan zion batek:

- Tomatea jan zak, Joxe Migel! Tomateak dik indarra!  
 Eta onek:

— Kaka zarra! Zutik ezin dituk egon postei lotu gabe eta indarra nola eukiko dik, ba?

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataur)*

\* \* \*

Luis Mari bere illobak *jeep* bat zeukan, baiña batean direzioa aberiatu egin zaio.

Joan giñan Luis Mari eta biok konpontzeko asmotan. Zerbait egin genion, baiña itxuraz ez. Errubera arrastean etorriko zala eta etxeraiño ekarri genduan nola edo ala.

Joxe Migel atarira etorri zan, eta illobak ezer etzekiala eta an asi zaio:

- Bota onera!  
 — Alperrik ari zera! Ez dauka direziorik.

Eta Joxe Migelek:

— Ez daukala? Berak nai duan lekura joateko bazeukak!

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataur)*

\* \* \*

Bein, illeta batean alkarrekin giñan, eta apaizak sermoian esan zuan:

— Zuzen-zuzen zerura dijoa au!

Elurra zegoan eta Joxe Migelek neri:

— Gure etxera bezelako bidea badago, ez dek bereala aillegatuko, Armuño.

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataur)*

\* \* \*

Azken aldera dezente erre zan. Ura edaten asi zanean, onela esan nion:

— Joxe Migel, ez dek gauza onik egingo. Urak indarra badik, baiña beera!

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataur)*

\* \* \*

Eguraldiari buruz ari giñan beste batean, eta onela esan zidan:

— Armuño, gauza bat esan bear diat: eguraldiarekin eta emakumeekin ez adi aritu kontutan, biak nai dutena egiten die ta.

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataur)*

\* \* \*

*Astotxo-egun* batean, Lazkaoko apaiz batek esan zion Joxe Migeli:

— Orrenbeste *hostia* ainbeste pagatu ditut.

Eta Lazkao-Txikik:

— Debaldekoak ere izaten dira or!

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataur)*

\* \* \*

Bein onela esan zidan Lazkao-Txikik:

— I, Armuño! Ik kaso egin Ataungo beterinario orri, beia susa zeukeat eta.

Itzegin nion beterinarioari eta onen esana pasatu nion, ba:

— Biar amarrak aldera etorriko omen dek.

Eguerdian etorri zan bazkaltzera eta galdetu nion:

— Zer abelera, Joxe Migel, bei oiekin?

— Or ibili nauk sasi azpitik bueltan, beiak sartu eziñik!

— Ni baiño errezago pasako intzan i sasi azpitik!

— Zuen etxean ere bazegok sasia! Asko zapaldu al dituk?

A zer nolako erretolika etorri zan ondoren! Andik aurre-ra ezta itzik ere iñork.

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataur)*

\* \* \*

Beste bein, andrea artu edo ez artu ari giñala, onela esan zidan:

— Ik, Armuño, andrea bear badek, mutua eta koja. Beste bat igurtzitzen asiko aiz; eta, anka bizkorrak baditu, alde egingo dik.

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataur)*

\* \* \*



Joxe Migel il zan eta, Lazkaomendin bere jaiotetxean zegoala, ni ez nintzan atrebitzen ikustera joaten, eta Luis Mari beraren illoba etorri zitzaidan billa. Ala, joan nintzan.

An zegoan Joxe Agirre eta kantatzeko esan zidan. Bertso auetzek bota nizkion:

Joxe Migel au ola ikusi ta  
zeiñek artuko digu poz?  
Zu lenagotik ikusi zaitut,  
begiak busti zait malkoz.  
Orain zu illa ortxe zaude ta  
bizik bazeunde obe askoz,  
zu bazoaza mundu ontatik,  
gu ere laister bagatoz.

Guk alkarrekin pasa ditugu  
munduan amaika urte,  
ez dakit zenbat diran seguru  
baiña ia oraintxe arte.  
Mundu onetan zuk, Joxe Migel,  
iñoi ez diozu ein kalte,  
Joxe Migel, zuri eskerrik asko,  
agur eta gero arte!

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)*

## OSASUNAREN KEZKA

Zaldibiko Gurutzeta baserria erosi zuala jendeak jakin zuanean, batek onela esan zion:

— I, baserria erosi omen dek?

Eta Lazkao-Txikik:

— Bai; baiña denbora gutxirako. Pixka baterako baka-  
rrik.

Broman esan zuan, baiña ala gertatu ere.

*(Patxi Telleria, Gaintza)*

\* \* \*

Lazkao-Txikiri, Donostira joan bear zuala operazio txiki bat egitera esan zioten Zumarragako ospitalean.

Arek orduan medikuari:

— Eta jende asko iltzen al da operazio ortatik?

Medikuak:

— Millatik bat.

Joxe Migelek orduan:

— Eta bat ori ilda al dago? Bat ori ilda badago, ni lasaia-  
go joango naiz operaziora.

*(Joxean Ormazabal, Zegama)*

\* \* \*

Donostiko Residentzitik etxerakoan kantatua, 1979 urtean-edo:

Sukar aunditan bein artu nuan  
orain uzten deten gela,  
ez nuen uste nik olain ongi  
sendatu bear nuela.  
Alde danetan aitortuko det  
ongi artu nazutela,  
alegin dana ein didazute  
senide bati bezela:  
zueri esker bizirik noa,  
il bear nuen bestela.

\* \* \*

Zer moduz, Joxe Migel? —galdetzen dio lagun batek.

Eta berak:

— Zer esango diagu?

— Itxura txarra ez daukak!

— Orixe falta zaidak, ba!

*(Joakin Berasategi, Olaberri)*

\* \* \*

Orain dala amabost urte-edo, sudurretik arazoak izan zituan. Joan da medikuarengana eta operatu egin bear zuala.

— Zer daukat, ba?

— Aragi faltsoak —medikuak.

— Leen aski daukagu, ba, eta aiek faltsoak!

Ala, San Kosmen operatu zuten, eta an ankatik operatu-tako bat jarri zioten ondoan. Ankatik pisuak jarrita zegoan, anka luzatzeko.

Lazkao-Txikik orduan:

— Eta orrela, pisuarekin jarrita, anka luzatu egiten al da?

— Bai; luzatu egiten da, bai.

— Ba, emen nagoan ezkerro, neri jarri idazute bietan!

(Kasiano Ibarguren, bertsolaria eta soñujolea, Lizartza)

\* \* \*

Kolesterola altu samar billatu ziotela eta errejimen-kontuak aipatzen ari zan batean, onela esan zuan:

— Medikuarengana joan nauk; analisisetan esan zidak kolesterola altu daukadala, eta esan zioat: “Oker ariko zera. Ori ez da orrela izango”.

Bere gorputzaren neurriarekin jokatzuz alegia, sarritan egiten zuan bezela.

(Anjel Mari Peñagarikano bertsolaria, Albistur)

\* \* \*

Batean, operatu aurretik, neri ere *cataterismo* egin zidatela eta galdezka aritu zitzaidan ori zer zan, berari ere egin bear ziotela eta.

Ala, *cataterismo* dalako ori egin zioten egunean, telefonoz deitu nion, zer moduz zegoan jakiteko. Astearte-illuntzea zan, ilbeltzaren 27-a.

Biotzean iru *puente* egin bear zizkiotela esan zidan. Ni, berriz, ori ezer etzala eta abar esanez aritu nintzaion; eta urrengo astean bisitatzera joango nintzaiola. Baiña orduan or esaten dit berak:

— Aizak, i: neuri, operazioak berak baiño, beste gauza batek bildur geiago ematen zidak.

— Zeren bildur aiz, ba?

— Ik jakingo dek, ba, ardi zaarra akabatzen danean belak inguruan bueltan nola ibiltzen diran? Ba, emen, akabatu baiño leen asi dituk. Oiartzungo erretorea emen izan dek; Residentziko apaiza ere bai; Olaberrikoa ere bai; Beasaingoa ere bai; Obispoaren sekretarioa ere bai... Danak emen izan dituk, au ez dala ezer esanez. Baiña, belak bueltaka dabiltzanean, ardia akabatuta izaten dek.

*(Jose Luis Gorrotxategi bertsolaria, Osintxu)*

\* \* \*

Joxe Migel, klinikan zegoala, batean an omen zebillen pasilloan pasieran. Bazkaltzeko ordua izango zan nunbait, eta ura falta. Gaixoen geletan janaria banatuta egongo zan; eta, ain juxtu, egun ortan arraultzak izango zituan.

Pasilloan medikuak ikusi du eta esaten dio:

— Joan zaite azkar bazkaltzera, bestela arraultzak oztuko zaizkizu eta!

Eta Lazkao-Txikik:

— Arraultzak oztu guri, tapatuta daramazkigu eta?

*(Jose Gorostiza, Asteasu, Illati tabernakoa)*

\* \* \*

Klinika ortan bertan egun-mordoska bat pasa bear izan zuan jaiki gabe, eta txixa egiteko tresnatxoa ekartzen zioten beti ere. Egun batzuetan orrela zebilela, enfermerari esan omen zion:

— Oraintxe aspertu naiz, ba, au beti toki batean sartzan! Aldatzeko ere ia gogoa egiten asita nago!

*(Jose Gorostiza, Asteasu, Illati tabernakoa)*

\* \* \*

Bein, *Asteasu* eta biok joan gera ura bisitatzera klinika-  
ra, Donostiko Aieteko ortan, eta onela esan zigun:

— Ikusten al dezute nun dauden Astigarragako sagardo-  
tegiak? Oiek emendik ikusi eta nik euki ditudan egarriekin,  
auek inbiriak pasa ditudanak! Sekula ez diat sagardotegira  
joateko oinbeste inbiri euki!

(*Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia*)

\* \* \*

Il aurreko operazioan, anestesia jartzera zijoan sendagi-  
lleari esana:

— Zuk lo jarriko nazu; baiña nork jarriko du desperta-  
dorea?

(*Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano*)

\* \* \*

Operatu aurretik, beraren kargu zebillen medikuak *Doc-  
tor Gallo* izena zuan; eta, an ingurura enfermerak etorri zira-  
nean, onela esan omen zion:

— Olako oillandekin, ni ere oillar izango niñukek.

(*Kasiano Ibarguren bertsolaria eta soiñujolea, Lizartza*)

\* \* \*

Operatu aurretik medikuak:

— Tú, *José Miguel*, tranquilo. Ahora, a dormir un rato; y  
después, coser y cantar.

Eta berak:

— Sí; pero que no sea el cura el que cante.

(*Kasiano Ibarguren bertsolaria eta soiñu-jolea, Lizartza*)

\* \* \*


Julian Albisuk, operazioaren bezperan, kotxean etxera zeramala, Lazkao-Txikiri kantatua:

Operazioko gauzak  
beti ere serio;  
iri toka egin zaik,  
zer erremedio?  
I sendatuta azkar  
etortzeatio,  
errezauko dizkiat  
iru errosario.

Lazkao-Txikiren erantzuna:

Julian laguntzeko  
det aldamenetik,  
olaxe izaten aiz i  
len, orain da betik.  
Eskerrak emate'iat  
borondategatik,  
eta beste ainbeste  
errezatzeatik.

*(Julian Albisu, Arriaran)*



Jende aurrean bere azkeneko bertsoa bota zuan unea.  
Donostian 24-1-1993.



**TXISTEAK**

## BASERRITARRAK

Gure inguruko baserritar mutil gazte bat soldadu Bilbo-ra joan zan. An iru illabete pasa, banderari muiñ eman edo juramentu ori egin eta etorri da berriz ere etxera. Amak galdetu zion:

— Motell, zer pasatzen zaik? Oiek dituk kolore txarrak! Amar kilo gutxiago baaiz!

— Ama, ni ondo nago!

— I ondo? Joan intzanean bai ondo! Zer pasatu zaik?

Arratsaldean amak artu eta medikutara eraman du.

— Beitu iozu mutil oni ondo. Nere semea da. Orain dala iru illabete joan zan soldadu, eta nola etorri dan!

Beitu zion ondo eta:

— Zer dauka? —galdetu zion amak.

— Onek dauzka ogei ta bi urte, naiko diru eta Bilbon soldadu.

— Eta orain zer egin bear diogu, ba?

— Zer? Jaten ondo eman, petxutik erortzeko arriskuan ikusten det eta. Gaizki dago eta betiko galdu diteke. Eta emendik norabait eraman, umedade gutxiago dagoan toki batera. Ez al daukazute parienterik Naparroako Erriberan?

— Naparroan ez, baiña Logroñon bai.

— Berdin da. Zortzi bat illabete pasa ditzala an, zortzian bein medikuarengana azalduz. Ango medikuak alta eman arte, ez dedilla onera etorri.

Ala, denbora-puska bat pasa zuan, eta mutilla oso fuer-te jarri zan. Gaztea izan eta ondo gobernatu baitzuten.

Bazetorren etxe aldera *Estellesa* autobusean. Zunbeltzeko bentatik pasatzean, leiotik begiratu eta or ikusten du auntz baten gaiñean akerra, beren festa ortan.

Mutil ori bere gorabeerarekin gogoratu zan, eta leiotik oska asi zan:

— Aritu adi! Aritu ortan! Segi zak! Alimentua dala uste al dek? Orrek konpondu au! Ederki ago, Logroñon pariente-rik ez badek!

*(Lazkao-Txikik berak kontatua eta magnetofoz  
Oñatin jasoa, 1985-IV-27-an)*

\* \* \*

Erri bateko bi baserritar gaztek soldadu joan bear zuten. Bat atera zan gaur bezela, eta besteak urrengo egunean joan bear zuan.

— Ala, denboraren buruan, etorri da permisoarekin leenengo joan zana eta or ikusten du bere laguna kalean.

— I ere permisoarekin al ago?

— Ez.

— Nun ago soldadu, ba?

— Ez niñuan joan. Ni etxetik joateko egunean, aita il zitzaidaken.

— Aita il, e? Ori dek suertea, ori!

*(Lazkao-Txikik Markinan kontatua, 1989-XII-8-an)*

\* \* \*

Lazkao-Txikik bazuan beste txiste bat, sarri kontatzen zuana: baserriko amonak, errosarioa esaterakoan, letaniak nola errezatzen zituzten. Latiñezko letaniak noski, baiña nolako aldaketak egin da gero:

- *Ya no hay cielo. (Janua coeli)*  
 — *Estrella en Martutene (Stella matutina)*  
 — *Vamos aurea (Domus aurea)*  
 — *Felixen abarka (Foederis arca)*  
 Eta abar.

(Jose Gorostiza, *Asteasu, Illati taberna Zaldibia*)

\* \* \*

Beste bein, badakizute guk, euskaldunak, erderaz nola egin izan degun. Nik, beintzat, soldaduskara joan arte ez nekian ezer ere, eta garai artako beste asko ere alamoduz izango ziran.

Ala, egun batean, bi baserritar alkarrekin izketan ari ziran:

- Oillo puñetero oiek!... Bazeuzkeat oillo batzuk...  
 — Zer pasatzen zaik?  
 — Apiondokoa, muestrakoa, jan egiten die.

— Apiondokoa jan? Ori konpontzen erreza dek, motell!  
 Orain bazeudek ferreterietan plomozko arraultzak, pintatuta. Oiek jartzen badituk, berealaxe utziko ziotek.

- Nun zeudek oiek?  
 — Alako ferreteritan.

— Baiña angoa kastillanoa dek eta nik etzekiat erderaz.

— Ori esaten erreza dek, motell. “¿Tienes usted huevos de plomo?” galdetu eta naikoa dek.

Ala, joan da gizon ori astearte-illuntze batean. Baiña ferreteriko nagusi zaar ori erreumarekin ondatuta zegoan; desgastea ere bai, eta gaizki zebillen.

Joan da, ba, beste ori eta agurra onela egin du:

— Eup!

Azaldu zaio nagusi zaarra, oker-oker eginda, eta orduan:

— *¿Tienes usted huevos de plomo?*

Eta nagusiak:

— *¡No, hombre, no! ¡Es la jodida reúma!*

*(Lazkao-Txikik Azpeitian kontatua, 1992-XII-5-ean)*

\* \* \*

Bilbotar arro-putz edo *amalau* oietako bat sartu omen da baserri-taberna batean, eta esaten dio tabernariari:

— Atera idazu whisky doble bat.

Atera dio eta tragoan edan du.

— Atera beste bat, doblekoa ori ere, jaleoa armatu baiño leenago.

Atera dio, ba, berriz ere, eta ostera tragoan barrura,

— Orain atera idazu botilla osoa, jaleoa armatu baiño leenago.

— Zer esaten ari zera? Zer jaleo armatu bear du, ba?

— Dirurik ez daukadala esaten dizudanean armatuko dana.

*(Juan Krutz Lasa, Zela, Joxe Migelen soldadu laguna)*

\* \* \*

Au gertatu zala aspaldi da. Nere pariente baserritar bazuen illobak bixkiak ziran. Oiek eta beren izeba Urrestilla-koak askotan alkar ikusten zuten Ordizin.

Bixki oietako bat il ondorenean, asteazken batean, or ikusten du bestea Urrestillako izebak, eta onela dio:

— Ene, illoba! Emen al zera? Baneukan zurekin itzegiteko gogo! Izan dezute desgrazia etxean, e?

— Bai, izeba, bai.

— Ain anai jatorrak ziñaten biok, bixkiak biok! Baiña barka zazute: oso konbinazio txarra dago Urrestillatik Lazkaora etortzeko eta ez genduan elizkizunetara eta bisitara etortzerik izan.

Izenik ezin zan akordatu eta esan zion:

— Zuek, bi anaiak, ain igualak ziñaten eta ezin naiz gogoratu zein zein zeraten, eta fabore bat eskatzen dizut, illoba.

— Zer nai dezu, ba, izeba?

— Biok ain igualak ziñaten ezkerro, esan bear didazu ildakoa zein dan: zu ala beste anaia.

(Lazkao-Txikik Antzuolan kontatua)

\* \* \*

Ba omen zegoan erdaldun koadrilla aundi samar bat, eta tartean bi euskaldun, baserritarrak, erderaz gutxi samar zekitenak.

Erdaldun batek esan omen zuan:

— *El que mucha abarca poco aprieta.*

Ori entzun eta euskaldun batek besteari:

— Zer esan dik orrek?

Eta lagunak:

— Orrek? Abarka asko eta apreta gutxi daukala.

(Jose Maria Ugartemendia, Donostia)

\* \* \*

Abogadu baten etxera neska baserritarren bat joan omen zan neskame; eta, gure antzera, ezjakin samarra ura ere noski.

Etorri zaio bezeroren bat abogaduari, galdetu du don Fernando ote dan, eta neskame orrek erantzun:

— Etxean da, baiña komunera joan da kaka egitera.

Abogaduak entzun du zer esan duan; eta ondoren, bakarka artu eta erakutsi asmoz, onela esan omen zion:

— Ori nola esango diozu, ba, bezero bati? Urrengoari zera esan bear diozu: okupatuta nagoala.

Andik egun batzuetara berriz ere egoera berean gertatu da, ba, abogadu ori, bezero bat etorri zaionean; eta esaten dio:

— Okupatuta dago, ba.

— Eta laster libratzeko moduan izango ote da?

— Baietz uste det, pasilloan aurrera puzkarka joan da eta!

*(Juan Krutz Lasa, Zela, Joxe Migelen soldadu laguna)*

\* \* \*

Mutilzar bat baserri batean bizi omen zan, kamiotik amabost minutura, eta gero errira beste orduerdi inguru zuan.

Larunbat batean mezetara joateko berandutu zaio ganadu-janetan eta atera da presaka etxetik. Kamiora jetxi aurretik zera bururatu zaio: kamio-bazterrean bizi zan bere lagun Patxiri bizikleta eskatu eta bereala joango zala. Berak bizikletan ibiltzen bazekian, baiña ez baitzeukan bizikletarik.

Ate ondora iritxi danean, zalantzan asi da: “Bai; baiña ikuilluan ariko dek eta molestatu besterik etzioat egingo. Oiñez joango nauk”.

Egin du bide-sail bat erri aldera eta pentsamentua etorri zaio: “Patxik jakiten badik ari bizikleta ez eskatzeagatik oiñez noala, etzaiok gustatuko. Eskatu egingo zioat, oraindik ere oiñez baiño azkarrago joango nauk eta”.

Ateondora etorri da berriro, baiña ostera ere zalantzak asten zaizkio: “Kapaz dek etxean ez egoteko. Ama egongo dek bakarrik, eta atso petral orrek beti fabore-eske naizela edo antzeko zerbait esango dik. Auzoko pakeak geiago balio dik. Oiñez joango nauk”.

Berriro ere egin du bide-sail bat, eta leengoa burura: “Ni banitxiak, ba, oiñez, bizikletan joan nintekena! Patxiri etzaiok gaiñera ondo irudituko, ori jakiten badu. Joan eta atea joko zioat.”

Itzuli da ateondora eta berriz ere zalantzak: “Eta bizikleta pintxazoarekin baldin badauka? Or ibili bearko diat partxe billa estu eta larri. Oiñez joaten baiño denbora geiago bearko diat nik, eta ari denbora galdu erazi. Oiñez joango nauk.”

Ia erriraiño joan ondoren, bere buruarekin asarretzen da: “Ni inutilla nauk. Nik zer zekiat, ba, Patxi nun dagoan, ama dagoan, bizikleta pintxazoarekin daukan ala ez, iñori ezer galdetu gabe?”

Joaten da berriro ateondoraiño. Duda-mordo baten ondoren jotzen du atea. Or azaltzen zaio Patxi:

— Kaixo, Joxe! Zer diagu?

Eta onek:

— I, Patxi! Bai al dakik zer pentsatu dedan! Ire bizikleta txerri ori sartu zak ipurdiko zuloan, ni oiñez joango nauk eta!

*(Imanol Lazkano bertsolaria, Azpeitia)*

\* \* \*

Saski-baloi edo balonzestoko partidu bat ikustera joan dira baserritar batzuk, eta kiroldegia leporaiño beteta. Iñun sartzeko tokirik ez, eta al duten tokian jarri dira alamoduz.



Partidua asi eta bereala arbitroak otsegiten du:

— *Falta personal.*

Eta onela esaten dio batek besteari:

— Auek zer nai die, bada: komunak eta danak betetzea?  
Iñun esertzeko lekurik etzegok, eta ala ere “*falta personal*”  
otsegiten!

*(Juan Krutz Lasa, Zela, Joxe Migelen soldadu laguna)*

\* \* \*

Baserritar bat sartu da ferreteri batean eta onela dio:

— Emaidazu azkar zepo bat, zortzietako trena arrapatu  
bear det eta!

Eta dendariak:

— Ara! Orren aundirik ez daukagu, ba!

*(Joakin Berasategi, Olaberri)*

## APAIZAK

Matximentako bat Ameriketara joan eta aberastuta etorri da. Berrogei urtez elizan sartu gabea, eta sonbrero aundia jantzi eta joan da igandean elizara, besteak bezela. Baiña sonbrero ori kendu ere ez elizan.

Eliz-mutilla edo akolitoa bialdu du apaizak:

— Esaiok gizon orri sonbrero ori kentzeko faborez. Eliza Jaungoikoaren etxea dala, Jaungoikoak agintzen duala elizan, eta faborez kentzeko.

Joan zaio eliz-mutilla amerikano orri, eta:

— Apaiz jaunak esan dit eliza Jaunaren etxea dala, emen Jaungoikoak agintzen duala eta sonbrero ori kentzeko faborez.

Amerikanoak:

— Esaiok apaiz orri eliza Jaungoikoaren etxea danik nik ez dakidala, eta Jaungoikoan ez dedala sinisten.

Joan da eliz-mutilla eta apaizari esan dio:

— Au eta au esan dit amerikanoak.

Orduan apaizak aldaretik:

— Jaungoikoan ez duala sinisten? Nik ere ez, baiña esaiok beste danak bezela pormal ibiltzeko emen!

*(Lazkao-Txikik Oñatin kontatua, 1986-V-31-n)*

\* \* \*

Kapellau batek monja danak engaiñatzen omen zituan eta onela esaten zien:

— Gaur edo biar, monja maiteok, gaztetxoak ere bazaudete emen, Jaunarekin ezkonduak. Baiña mundu txar onek edozein engaiñatzen du, eta zuek ere engaiñatzea gerta liteke. Gaur edo biar izaten badezute gizona zkoen zera oiek ikusteko aukera, beste aldera begiratu. Bestela, beste gabe itxutu egingo zerate.

Ala, monja oiek dana sinistuta.

Udara artan, komentuan obran asi ziran. Zintzilikako aldarnio oietan patxaraz ari ziran igeltseroak. Oietako bat, bonbatxo utsetan, danak aidean zituala; eta monja gazte bat barrutik begira, onela esanez:

— Gure Jaungoiko maitea! Gauza guztien egillea eta jabea, barka zaidazu! Begibakar geratuko naiz, baiña au ikusi gabe ez dago egoterik!

Eta begi bat tapatuta begiratzen zuan beetik gora.

*(Lazkao-Txikik Oñatin kontatua, 1986-V-31-n)*

\* \* \*

Apaz bat sermoia egiten ari omen zan:

— Nere kristau maiteok! Gure Jesusek zenbat maite gaituen ez dago esaterik. Begira: Jaungoikoa izanik, gizon egin zan, gizona salbatzearren gizon bear zualako. Etorri zan mundu ontara, edozein ume etortzen dan bezela, ama batek egiña. Baiña ez gizon danak bezela, Espiritu Santuaren bitartez baizik, amari mantxarrik utzi gabe. San Jose eta Maria joan ziran beren izenak ematera, Erromako enperadorearen aginduz, Belena, eta an ume pobre bat balitz bezela jaio zan, etxe pobre batean, estalpe batean, zeru eta lurren Jabea izanik. Ogei ta amar urtean an jardun zan bere aita Joseri arotzerian laguntzen. Baiña azkenengo urteetan, bere goiko Aitaren borondatea betetzearren, an ibili zan zeruko dotriña zabaltzen: erri batean mirariak, bestean itzaldiak, beste batean illak piztu, urrengoan mutuak izketan jarri... Asko ibili bear baitzuan, Kafarnaum-tik Tabor mendira areo-

plano batean joan zan, areoplano *Douglas* batean ain zuzen. Geroago, berriz, *areotaxi* batean Jordango ibaiaren ertzera. Emen itzaldia eman eta mirariak egin, eta andik beste leku batera joateko areoplano *Ranguer* bat artu zuan...

Orrela ari zala, bi apaiz sartu ziran elizan. Zer esaten zuan entzun eta alkarri onela diote:

— Gure don Antonio au zer esaten ari dek? Ori parregarrikeria egiten ari dek, garai artan aeroplanoan ibiltzen zira-la esanez!

Sankristauarengana joan eta onela esan zioten:

— Zoaz eta esaiozu don Antoniori parregarrikeria egiten ari dala eta ixiltzeko! Don Jose Mariak esan duala.

Sankristaua joan da makurtuta pulpitora, eta ankatik tira egiñez esaten dio:

— Don Antonio! Don Jose Mariak esan du parregarrikeria egiten ari zerala eta ixiltzeko! Orduan etzala aeroplanorik!

Baiña orduan eta indar aundiagoz don Antoniok:

— Nere eliztar biotzekoak! Oraindik ere askok diote, eta askok uste dute, garai artan etzala areoplanorik eta elikopterorik. Orduan neri nork esan dit Pontzio *pilotoa* zala?

(Lazkao-Txikik Azpeitian kontatua, 1992-XII-5-ean)

\* \* \*

Bein joan omen zan Aita Santua —aspaldi ontan jira asko egiten ditu, bada, munduan zear— Jesukristo ibili izan zan lur santuetara. Eguneko zer egiñak bukatu ondoan, afaltzera sartu omen zan *restaurante* batera, bere laguntzailleak aldamenean zituala; eta, oso ondo afaldu ta gero, kontua eskatu omen zuan arduradunak.

Ekarri diote kontu ori diru-arduradunari; eta, izan ere diru-mordoa baitzan ordaindu bear zana, pagatzeko geiegiz-

koa, neurritz kanpokoa iruditzen zaio. Orduan arduradun ori zuzendu zaio serbitzariari eta onela dio:

— Nola da posible orrenbeste diru eskatzea gaurko afari onengatik? Seguru asko okerren bat gertatu zaizu kontua egiterakoan.

Eta serbitzariak serio-serio erantzuten dio:

— Ez, ez; ez dago batere okerrik. Jesukristok apostoluekin batera ementxe bertan orain bi milla urte egiñiko azken afaria ere, ura orduan ordaindu gabe gelditu zan; eta orain arte iñor kitatzera etorri ez baita, gaurkoarekin batera kontuan sartu dizut.

*(Alfonso Irigoien, Bilbao)*

\* \* \*

Urteko konfesioa egitera joan omen zan bein Arantzazura Oñatiko kankaillu bat. Alamoduzko ibillerak erabiliko zituan nunbait, eta errian atrebitzen ez eta praileengana deskarga egitera.

Frai Ziriakorengana joan omen zan, eta egundoko errieta-soiñua: penitentzian bederatzi jaitan segidan meza nagusira joan bear, eta beste bederatzi egunetan errosarioa errezatu bear.

Aundia iruditu penitentzia eta joan da beste praile batengana: Frai Frantziskorengana. Konfesatu ditu berdinberdin leengo pekatu danak, eta iñolako errietarik ez! Penitentzian, iru aitagure, iru agur mari eta iru gloria. Arritu da gure oñatiarra eta esaten dio:

— Au da marka, au! Leentxeago Frai Ziriakorekin konfesatu naiz, pekatu berdiñak esan eta alde ederreko penitentzia jarri dit.

Eta Frai Frantziskok:

— Etzaiozu kasorik egin. Orrek bai al dakizu zer egiten duan? Berak egin ez eta besteei galerazi.

*(Jon Azpillaga bertsolaria, Mutriku)*

\* \* \*

Apaiz-billera batean Lazkao-Txikik kontatua da beste txiste au.

Ostegun Santu egunean, Jetsemaniko baratzen, Jesukristoren billa soldaduak eta beste ainbat lagun joan ziranean, San Pedrok ezpata atera eta burrukan egin nai izan zuan. Baiña bere Jesusek etzuan nai izan, eta Pedrok onela esan zuan:

— Gure Maisu onek daukan pazientzia! Naiko balu, danak aixa menderatu besterik ez eta or doa eskuak lotuta!

— Aizu! Ixilik gero! Pazientzia nik daukat emen! —baratzaren jabeak—. Danok emen zabilzate bazter guztiak zapaltzen, eta oraindik ez det txintik ere esan!

*(Jose Maria Arregi bertsolaria, Berriatua)*

\* \* \*

Joan da baserritar bat konfesatzera. Aginduz-agindu ari dira eta apaizak galdetzen dio:

— Seigarrenean zer moduz?

Eta besteak:

— Leenengoan baiño obeto, jauna.

*(Joakin Berasategi, Olaberri)*

\* \* \*

Erri batera joan omen da bein apaiz berri bat, eta jendeak “larrutan egin det” eta orren antzeko gordinkeriak ao

betean botatzen zituzten. Konforme ez eta deitu omen ditu gazte guztiak. Itzaldi serio bat egin omen zien:

— Erri ontan dagoan libertadea ez da bidezkoa. Okerrena, egindako okerrak esateko erabiltzen dezuten izkuntza da. “Larrutan egin det” eta orrelakoak ez dira konfesonario batean esatekoak. Ez egiteko ere! Baiña, egiten badezute ere, “kanposantuko bidean txirrist egin eta erori naiz” esan bestearen orde, eta zenbat bider, bein baiño geiago bada, eta kito.

Ala, kontraseiña orrekin ederki konpondu ziran, apaiz ori bertan egon zan artean.

Baiña obispoak aldatu du erriz, eta aren orde bestea bialia ere bai. Bururatu zitzaizkion guztiak esan zizkion leengo apaizak apaiz berriari; baiña kontraseiña sekretu ori aztu nunbait.

Asi da apaiz berria lanean, eta konfesatzera zetozen geienak “kanposantuko bidean txirrist egin eta erori naiz” esaten zioten.

Kanposantuko bide ori ikustera ere joan zan gure apaiz ori. Etzitzaion ain arriskutsua iruditu, baiña zerbait egin bearra zegoan.

Erri ortan apaizak, edozein ziñegotzik bezela, aulki bat omen zuan udalan; eta urrengo *pleno* edo batzarrean gauza argitzekotan gelditu zan.

Iritxi da batzar ori. Joan da bera ere. Bide eta iturri ugari konpontzeko planak bai, baiña “kanposantuko biderik” etzuan iñork aitutzen. Leen billera ortan etzan ezer esatera ausartu.

Itzuli da konfesonariora eta berdin-berdin berriz ere jendea, “kanposantuko bidean erori naiz” esanez. Ura ala ezin zala utzi eta urrengo batzarrean nola edo ala esan bear zuala erabaki zuan.

Berriz ere, bide, espaloi eta konponketa asko bai; baiña “kanposantuko biderik” aitatu ere ez. Alkatea bukatzera zijola, or eskatzen du itza apaizak:

— Alkate jauna, zure baimenarekin neuk artuko det itza.

— Bai. Esan nai dezuna.

— Ba, “kanposantuko bidea” egon bear du oso arrisku-tsua. Or jende asko erortzen da.

Asi dira danak parrez, alkatea lenengoa dala. Eta apai-zak serio:

— Parre egiten dezute gaiñera! Ba, jakin zazu zeure andrea ere aste ontan bertan bi aldiz erori dala! Zeuk jakingo dezu zer egin!

*(Jon Azpillaga bertsolaria, Mutriku)*



## MEDIKUAK

Neska bat mediku batekin ezkondu zan. Onek lan asko zeukan eta iruretan edo lauetan bukatzen zuan kontsulta. Bitartean, andrea zai egoten zan, aspertuta. Egun batean onela esan zion:

— Zurekin ongi edo obeto biziko nintzala uste nuan, karrerako gizona izanik. Baiña edozein fabrika-langillerekin baiña gaizkiago bizi naizela uste det. Beste danak ordubatean bazkaltzen dute, eta gu lauretan asi gabe oraindik.

Gizonak erantzun zion:

— Zer nai dezu, ba, nik egitea? Gero eta gaixo geiago datorkit, eta gero eta lan geiago!

— *Bueno!* —esan zion andreak—. Zuri etortzen zaizkizun gaixo guzti oietatik, mordo bat izango da arinkeri ugariarekin etorriko dana. Nik erosiko det mantal bat zuria. Zure kontsulta ori tabike batekin erditik itxiko degu. Andik aurrera zuk lan zailenak eta garrantzi aundikoak egin: baiña bendak jarri eta errezenak nik egingo ditut. Ea era ortan ordubietarako bazkaltzen degun.

— Ondo da.

Medikua ere konforme eta asi dira, ba, andre-gizonak esandako moduan.

Urrengo egun batez, or etorri da andre musugorri bat, andre eder eta bikain bat. Aspaldian bildurrez zegoan medikuarengana joateko, gauza lotsagarri bat zeukalako bere ustez.

Medikuak ikusi du alako musu gorriekin eta esaten dio:

— Zuk ez daukazu itxura txarrik. Joan zaite beste ate ontara. Nere andrea or dago eta gauza errezak berak egiten ditu.

— Baiña, jauna! Zure andreak ez dit sendatuko nik daukadan gaitz au. Zuk uste dezun baiño grabeagoa da.

— Bai, bai! Andreak sendatuko zaitu zu!

Ala, bialdu du andrearengana; eta onek galdetzen dio:

— Zer dakartzu, ba?

— Nik zer dakarten? Zuk uste baiño gaitz txarragoa.

— Zer daukazu, ba?

— Ara: bular bat bestea baiño luzeagoa.

Ori esatearekin bat, bularrak erakusten dizkio; eta bat oso beera eroria.

— Baiña ori nola egin dezu?

— Nola? Lotsatu egin bear det! Baiña nere senarrak, lo artu arte, eskua or eduki nai izaten du beti.

— Ori ez da orregatik izango, emakumea —erantzun zion medikuaren andreak—. Mani ori gizon geienak izaten dute. Bai nereak ere. Baiña ara: nik nereak ondo daukat.

Atera zizkion eta biak berdiñak. Orduan bestea:

— Zuk ondo daukazu, bai. Baiña zuek oe batean lo egingo dezute, eta gu oe banatan!

*(Lazkao-Txikik Usurbillen kontatua, 1981-VII-4-ean)*

\* \* \*

Apaiz tripa aundi bat gaixo samar omen zebillen; beti ondoezik. Illobak beti erreguka ari zitzaizkion, medikuarengana buelta bat egiteko esanez.

— Zertara medikuarengana? —esaten zuan apaizak.

— Tripa ori gero eta aundiagoa dezu, eta or zerbait ere badaukazu zuk: ura edo beste edozer. Ori ez da gizonaren itxura: lepoa meetu eta tripa azi!

Ez bereala, baiña noizbait ere lortu dute medikuetara eramatea. Egin dizkio bear diran miaketak, eta onela esaten dio:

— Garai batetik gizon galdua zaude. Analisiak egin bear dituzu.

Odola atera zion. Baita ere botikan pote txiki bat erosi eta urrengo egunean an txixa ekartzeko esan. Erosi du kristalezko pote txiki ori, presaren presaz txixa egin eta utzi du sankristiko armario gainean.

Meza ondoren etorri da serora garbiketak egitera, eta uste gabean bota du potea eta puskatu. Usaia artu dio eta konturatu da don Justoren txixa dala eta analisiak egiteko bearko duala. Nola edo ala okerra konpondu bear eta beste potetxo batean jarri du bere txixa; eta pote ori leengoaren tokian utzi, berdin izango dalakoan.

Urrengo goizean don Justo gogoratu da sankristian utzi zuala bere potetxoa, eta artu eta or dijoa botikara, txixa analizatzeko uztera.

Urrengo goizean, emaitzak artu eta joan da medikuarengana. Onek esaten dio:

— Zer pasatzen da emen? Oso gauza raroak agertu dira! Estaduan zaudela adierazten du onek!

Eta don Justok:

— Ai, ai, ai! Alperrik da, izan ere! Esaten nion, ba, nik sankristau txotxolo orri kontuz ibiltzeko!...

*(Jose Luis Gorrotxategi bertsolaria, Osintxu)*

\* \* \*

Santa Agedako ero-etxean sartu omen zan bein mediku bat, eta onela galdetu zuan:

— Presaka nabil eta emen dagoan erloju au ondo al dago?

Ango batek erantzun zion:

— Ondo nola egongo da, ba, onera ekarrita dago eta?

*(Julian Albisu, Iturritza baserria, Arriaran)*

\* \* \*

Beste txiste ontan medikurik ez da agiri, baiña urruti ere etziran izango, Santa Agedan gertatua da ta.

Bi ero zeuden ara etorri berriak, eta esan zion batak besteari atez kanpotik:

— Pedro, etorri adi ateraiño.

Besteak barrundik:

— Ez negok etxean!

Eta kanpoan zegoanak:

— Eskerrak ez naizela etorri!

*(Lazkao-Txikik Antzuolan kontatua)*

\* \* \*

Gizon bati onela esan zion bere andreak:

— Zu etzaude ondo. Itxura onik ez dezu eta autobusean Eibarra eraman bear zaitut, an oso mediku ona dago ta.

Gizonak:

— Ez, Joxepa, ez! Ni ez nago orrela ibiltzeko moduan! Ni oiera joan bear det!

Eta andreak:

— Ez. Medikuagana joan bear dezu!

Ala, eraman zuan gizona al zuan bezela, eta Eibarko mediku espezialista orrek:

— Nola etorri zera? Zu oso gaizki zaude!

— Ba nik ez nuan etorri nai! Baiña andre puñetera onek...

— Zuk oian egon bear zenduan. Berrogei ta bat daukazu kalentura, ta nola etorri zera? Ea: atera mingaiña.

Atera du eta medikuak:

— Gizona! Mingaiña oso zikiña daukazu!

Eta orduan andreak, ezin ixilik egon eta:

— Mingaiña esan al dezu, mingaiña? Oni esan da pare-tari esan igual da! Ankak ikusiko baziñu...

*(Lazkao-Txikik Berrobin kontatua 1982-IX-21-ean)*

\* \* \*

Urrengo txiste au Arizkunen entzun nion, San Juan egun batean, bazkaltzen ari giñala. Erdaldunak ere baziran tartean, eta txiste-mordoa kontatu zuan erderaz. Baiña txis-teak berak ainbat grazi edo geiago zuten, berak egiten zituan keiñuak:

*Fueron dos mujeres al médico. La una llevaba el brazo a toque, y la otra tenía panza de embarazada.*

*Les dice el médico:*

— *¿Qué les ha pasado?*

— *A mí me ha picado una avispa* —besoa tokean zeukanak.

— *Y ¿a usted?*

— *A mí un obispo* —aurdun zegoanak.

*(X.X.)*

## ATAUNDARRAK

Ataungo festetan, ango baillarako apaizak, San Martin, San Gregorio eta Aiakoak alegia, alkarrekin biltzen omen ziran meza emateko, auzo bakoitzeko santuaren egunean.

Egun oietan, ain zuzen, kargurik aundiena kanpo-erriko apaizak izaten omen zuan, festak ziran errian.

Batean, jai oietan sermoia egitera etortzeko zan apaiza gaixotu egin omen zan, eta aren ordezeko sankristaua jarri zuten, ari etziola iñork antzemango eta.

Garai artako apaizen oitura omen zan, joaten ziran erria sermoian al dan geiena aitatzea.

Sankristauak irakurtzen ere ez omen zekian; baiña eraman dute kulpitora bear bezela jantzita, eta onela egin zuan sermoia:

— *Un erriko seme se fue al cielo y preguntó a ver si había alguno de Ataúuun... Y San Pedro le contestó que no había llegado ninguno aúuun...*

*Entonces se fue al limbo de los justos y preguntó a ver si había llegado alguno de Ataúuun... Y le contestaron que no había llegado ninguno aúuun...*

Eliztarrak oso gustora: apaiz on asko etorri zala errira, baiña alakorik bein ere ez. Erria sarritan aitatzen zuala! Erria asko famatzen zuala!

Apaizak segi sermoian:

— *Entonces se fue al purgatorio y preguntó a ver si había llegado alguno de Ataúuun... Salió el portero y le contestó que no había llegado ninguno aúuun...*

Gero eta gustorago jendea:

— Au nungo apaiza ote da?

Apaizak segi:

— *Por fin se fue al infierno y preguntó a ver si había llegado alguno de Atáiuun... Y Satanás le contestó: "Tres millones y medio y los que vendrán áiuun..."*

*(Jose Luis Gorrotxategi bertsolaria, Osintxu)*

\* \* \*

Ataundar bat, San Gregoriokoa bera, San Martiñera jeixten omen zan urtero Azentzio-egunean pazkoazkoa egitera.

Urte batean, egun ori iritxi danean, etorri da beti bezela. Baserritarrak garai artan oi zuten bezela, abarkekin jetxi da au ere: eta aiek erantzi eta eliz-atarian zapatak jantzi.

Elizaren sarreran Santo Kristo aundi bat omen zegoan; eta gure baserritarrak ankako iltzean zintzilik utzi ditu abarkek, eta bera konfesatzera.

— *¡Ave María Puísssima!*

— *Sin pecado concebida* —apaizak erantzuna— Etorri zera, Joxe, aurten ere txintxo-txintxo!

— Bai. Etorri gera, ba, au ere egin bear dala ta. Andreak ere ețzuan pakerik ematen eta...

— Gaur egun aundia da.

— Zer, ba? Gaurkoa ere ogei ta lau ordukoa izango da, ba?

— Bai; baiña gaur Jesukristo zerura igotzen dan eguna da.

Bildurtu da gure aitona ori bere abarka eta guzti Jesukristo zerura joango ote zaion, eta onela dio:

— Egon zaitte pixka bat, laster etorriko naiz eta!

Eliz-sarreraiño joan da, artu ditu abarkak eta esaten dio:

— Orain joan adi, nai badek!

(Jon Azpillaga bertsolaria, Mutriku)

\* \* \*

Ataundar batek, mikelete sartu nairik, pentsatu du bada ez bada ere idatziz eskari edo instantzi bat bialtzea. Bai ala egin ere.

Baiña illabete bat pasa, bi pasa eta etzetorren erantzunik. Orduan pentsatu du bertara, Donostiko mikeleteen etxe nagusira joatea. Bai joan ere.

Baiña ofiziala erdalduna eta onela esaten dio gure ataundarrak:

— *Buenos días.*

— *Buenos días.*

— *Mire usted, señor: yo he metido una sustancia en su cuerpo y no me viene. Pero si tú me la meneas, ya te daré por detrás.*

(Joakin Berasategi, Olaberri)

\* \* \*

Ataungo *San Anton* istori aundiko gizon bat izan zan: erderaz oso gaizki egiten zuana, baiña beti erderaz aritu bear.

Batean, semea morroi eramán bear zuan Olaztira, ango Goikoetxea izeneko batengana, Ataungo semea gaiñera bera.

Ataunek Altsasuarekin muga egiten du goitik, Altzania-ko mendietan, eta abiatu dira andik oiñez, zaldi batean partelak artuta. Baiña gaizki jantzita eta naiko pinta txarrean aita-semeak.



Ala, ia Etxegarateraiño etorri dira. Eta, basotik ateratzekoan, bi guardiazibilek or ikusi dituzte. Baiña alako itxura zelebrean zijoazen eta lapurrak izango ote diran ez dute, ba, pentsatu? Eta:

— *¡Alto! ¿A dónde van ustedes?*

Aitak:

— *Mira: con este seme Bernardo a Olazagutía estanco Goicoechea morrón.*

Guardiazibillak:

— *¿Qué dice usted?*

San Anton orrek berriz ere:

— *Mire usted, hombre, mire: con este seme Bernardo a Olazagutía estanco Goicoechea morrón.*

Eta guardiazibillak:

— *Pues no le entiendo nada.*

Orduan aitak semeari:

— *Goazemak, Bernardo! Oek erderaz batere etzekie ta!*

\* \* \*

San Anton ori ikazkiña zan, ta sei milla zaku ikatz egin bear omen zituzten. Beterinarioak, berriz, beti erderaz zirikatzen zuan, aren ateraldiak entzuteagatik. Ala, batean one-la esan zion:

— *¿Dónde andas, Antón?*

Eta onek:

— *Ahí, hombre, en monte, haciendo seis mil sacos de cabrones.*

\* \* \*

Ama Birjiña Agorrekotan garo ebakitzera libre erriko sailletan; baiña itaiez, ez segaz.

San Anton ori ere joan da idiekin; baiña Idiazabalko terrenoan sartu eta an ari omen zan garo ebakitzen.

Idiazabaldar batek ikusi du eta onela esaten dio:

— San Anton, Ataun alde ortan lapur asko xamar izango zerate, e?

Eta besteak:

— Bai. Idiazabalen gizon pormalak aiña bai!

\* \* \*

Beste batean, San Anton ori Ordiziko peritik etxera etorri da, eta andreak onela dio negarrez:

— Anton, Anton! Ikaragarria gertatu zait! Txekorra jo eta begi bat galdu dit!

Eta senarrak:

— Ba ori dendan ez da saltzen, Mari Anttoni, eta kinkea piztu ta billau egin bearko dezu!

\* \* \*

Beste bein, Lazkaotik aruntz beorrak iges egin, eta kabestroak arrastaka zituala etxe aldera jo. Baiña iritxi baiño lentxeago, paga-zain batean trabatu ta antxe gelditu.

Etorri da noizbait ere atzetik San Anton ori, beorra an katiatua ikusi eta onela esan dio:

— Beorra! Oneraiño etorri ta orain ez den etxera joan nai?

Perira joan aurretik, andreak aza-landarak ekartzeko enkargatu zion. Baiña aztu, eta bueltakoan zer egin du? Baratza batera sartu eta aza-buruak ostu.

Etxera iritxitakoan, andreak:

— Baiña, Anton! Aza-landarak ekartzeko ez nizun esan nik zuri? Nola zatoz, ba, aza-buruekin?

Eta senarrak:

— Bai; baiña denbora an ere bastante pasau degu, ta burutu egingo ziran!

\* \* \*

Entzun al dezute Bastida korredore zarra? Azpeitiarra zan ori. Eta bein, ura faman zegoala, beste bat aurretik “Bastida! Bastida!” oju egiñez.

Eta San Anton orrek:

— Gaur irabazi duna besti da!

\* \* \*

Azkenean, 1940-an edo orrela aitu zan San Anton ori. Pikuak jan da enpatxatuta il omen zan.

Aren semea, berriz, *seme Bernardo* esaten zuana, ez da oraindik urte asko il zala. Beasaiñen ezagutuko zenduten.

*(Lazkao-Txikik Berrobin kontatua 1982-IX-21-ean)*

## AURRAK

Osabaren baserria bisitatzera illoba txikiak joan dira, eta:

— Ene! Auek txerri aundiak!

— Ene! Onek errape txikiagoak dauzka! Bi bakarrik gainera! Eta atzean!

Osabak:

— Ori beste arraza bat da: amerikanoa.

Gero, bazkaltzen ari dirala, maian:

— Ikusi ditugu txerriak. Ene! Badauzka txiki-txikiak asko. Baiña bat, amerikanoa, ikaragarri aundia! Beste danak baiño aundiagoa! Arek, ordea, umerik etzeukan!

Eta osabak:

— Bazenekite zenbat ume dauzkan orrek!

*(Lazkao-Txixkik Ordizin kontatua, 1976-an)*

\* \* \*

Eskola-maisu batek galdetzen die bere aurrei:

— Zuek danok etzerate baserrikoak, baiña au jakin bear dezute: zein egaztik edo zein bitxok jartzen ditu arraultzarik aundienak?

Bat asi zan:

— Oilloa!

Besteak:

— Aatea!

Urrengoak:

— Antzarra!

— Ez —esaten zien maisuak.

Besteak:

— Arranoa!

Maisuak:

— Ez dakizute ezer ere!

Beste batek:

— Putrea!

— Ezta ere!

— Zeiñek, ba, orduan?

— Abestruza da arraultzarik aundienak jartzen dituana.

Eta atzean zegoan mutil ttiki batek:

— Maisu jauna, berorrek ez daki. Erleak jartzen dituzte arraultzarik aundienak.

— Erleak? Nolaz?

— Bai. Ikusi izan bazendu leengoan gure aitari, ezti kentzen ari zala, nolakoak jarri zizkioten!...

*(Lazkao-Txikik Oñatin kontatua, 1989-X-6-an)*

\* \* \*

Udazkena da, baiña ainbeste berdurarekin udaberria ematen du, ez da? Nik esango dedana ere alamoduzkoa da, baiña entendituko dezute...

Amari deitzen dio mutil koskor batek:

— Ama! Ama! Zatoz azkar! Zatoz!

— Zer dezu, Manueltxo?

- Aita ilda dago!
- Nun?
- Eskillara azpian or, neskamearen gainean jausita!
- Neskamearen gainean jausita? Eta ilda?
- Ez, ama! Oraindik ez, baiña azkenetan dago! Oraindik ipurdia pixka bat mugitzen du!

*(Lazkao-Txikik Oñatin, 1989-X-6-an)*

\* \* \*

Iparraldeko apaiz batek mutiko gazte bat arrapatzen du, eta onela asten zaio izketan:

- Zonbat haurride zazte?
- Anitz gira, jauna.
- Zonbat: zortzi?
- Gehiago! Gehiago!
- Hamar?
- Gehiago, jauna, gehiago!
- Hamabortz?
- Gehiago!
- Hogoi?
- Gehiago!
- Zonbat zazte, ba?
- Hogoi ta bortz.
- Orduan ama maiteko duzie! Ama Birjiña altarean bezela jasorik izain duzie ama?
- Ez, jauna, ez.
- Nola ez, ba?

— Ez, jauna, ez. Armarioan gordeta daukagu.

— Zergatik armarioan?

— Aitak ez billatzeko, jauna.

*(Lazkao-Txikik Azpeitian kontatua, 1992-XII-5-ean)*

\* \* \*

Gaur apaizak paisanoz jazten dira eta ez dago ezagutze-rik. Baiña gertaera au paisanoz egoten etziran garaikoa da; sotanaz ibiltzen ziran denborakoa.

Mutil koskorrak badakizute zer nai izaten duten beti: aundi izan. Nik ere ala nai izan nuan, baiña ez nintzan aillegatu. Aundi izan nai zuan, ba, mutiko batek, eta amari esan zion:

— Ama, aspertu naiz oraintxe umeen praka auekin. Egin bear dizkidazu gizon aundiei bezelako prakak.

— Baiña, Josetxo: ez al zaude konforme?

— Ez; ez nago.

— Zer ba?

— Aitak lau botoi dauzka bragetan, eta nik bi.

— Baiña gauzak ere entenditu bear dira! Aita zu baiño aundiagoa da, eta beste zera oiek ere aundiagoak dauzka.

— Orregatik al da, ama?

— Bai, ba! Orregatik da.

Mutil koskorra orduan parrez asten da. Amak:

— Zergatik egiten dezu parre, Josetxo?

— Bai al dakizu zer bururatu zaidan, ama?

— Zuk esango dezu.

— Ba, don Jose Maria erretore jaunak ainbeste botoi dauzka eta... jolin orduan!

*(Lazkao-Txikik Antzuolan kontatua)*

\* \* \*

Usarraga bai al dakizute nun dan? Ba, Usarragatik bialdu zuten mutil koskor bat enkarguak egitera Antzuolara. Amak esan zion:

— Josetxo, kalera joan bear dek enkargutara. Txikoria ekar zak. Salto batean egingo dezu zuk ori.

Eta aitak:

— Neri *ducados*-pakete bat.

— Ba, orduan bizikletan joan bear ko det, aita.

— Ez. Etzera bizikletan joango. Oraindik txikia zera eta min artuko zenduke.

— Ba, bizilkleta bear det nik, igoal Bergarara joan bear ko det andik eta!

— Ez. Oiñez joango zera, nik baiño anka obeak dauzkazu zuk eta!

Bazetorren mutil koskor ori, ernegatuta, armoni bizian, bere kasa esanez: “Gure aita buru aundi ori! Bizikleta etxean alperrik eta nik oiñez etorri bear!”

Beera iritxi danean, ia Antzuolara etorri danean, azkenengo baserrian, oillar bat zebillen oillo-koadrilla batekin. Eta etzaio, ba, bera parean dala, oillar ori oillo baten gaiñera igotzen? Baiña mutil koskorrak jo ostikoz eta esaten dio:

— I ere ibili adi oiñez, ni bezela!

*(Lazkao-Txikik Antzuolan kontatua)*

\* \* \*

Bi mutiko ari dira izketan: bata Joakin eta bestea Jose. Jose etxe aberatsekoa zan, eta ala esan omen zion Joakiñi:

— I, Joakin! Biar ez nauk eskolara etorriko!

— Zer dek, ba?

— Gure etxean umea ekarri die Paristik.



— Zuek edozer gauza, millonarioak zerate ta! Gure etxean aitak eta amak egiten zetue!

*(Juan Krutz Lasa, Zela, Joxe Migelen soldadu laguna)*

\* \* \*

Maistra bat omen zan, eta eskolan ba omen zuan mutil koskor bat, atzeratua ez baiña ixil edo motz samarra zana.

Egun batez badijoa maistra ori pasiatzera, eta mutiko ura an ari omen zan, beiak zaintzen. Maistrak ari galdera batzuk egitea pentsatu du:

— Zer egiten dek, mutiko?

— Ementxe bei zai.

— Bei politak, e?

— Bai.

— Galdera bat egingo diat. Beia ain animala polita izanik, zergatik dek ain tristea? Begiratu illuna, belarri eroriak...

Eta mutikoak:

— A, gaixoa! Zu ere tristetuko ziñake, oni bezela egunean bi aldiz errapea eta titiak igurtzi eta zezena urtean bein bakarrik botako balizute!

*(Imanol Lazkano bertsolaria, Azpeitia)*

## MOJAK

Gerra-denborarekin gogoratzen naiz. Lazkaon naparrak nola ikusi nituen ere bai, txapel gorriak jantzita.

Erri batean sartu omen ziran, eta an monjen konbentua ikusi zuten.

— *¿Qué casa es ésta?*

— *Un convento de monjas.*

Berotuta omen zeuden geienak, soldaduei gerran ibiltze-ko pattarra ematen zieten eta. Orduan batek:

— *¡Vamos a subir y vamos a joder a todas!*

Komandanteak erantzun:

— *Ante todo un poco de consideración. Si hay que hacerlo se hace, pero respetemos por lo menos a la Madre Superiora.*

Baiña onek entzun du eta onela dio:

— *¡La guerra es la guerra! ¡Aquí a todas o a nadie!*

(Nuarbe, 1992-VI-14)

\* \* \*

Bein batez, arotz bat izan zan monja batzuek konbentuan, tako batzuk sartzen, santu-koadroak paretatik zintzilik jartzeko. Baiña fakturak beti erderaz egin bear eta onela idatzi zuan:

— *Por meter tres o cuatro tacos a la Madre Superiora en su cuarto: 8.950 pesetas.*

Konbentuko kakerak artu eta irakurri du faktura ori, eta onela dio:

— Gure Madre au zer dabil? Guri alako disziplina eskatu, eta arotza berari tako botatzen, kobratuz gaiñera!

(Lazkao-Txikik Antzuolan kontatua)

\* \* \*

Monja gazte bat zotiñak jo eta naiko gaizki omen zebillen. Ezin iñola kendu. Beste monja zaarrago batek esan zion:

— Aizu: ori naiko arriskutsua izaten da gero. Orain dala zenbait denbora, beste monja bat orrelaxe egon zan iru egunean, eta laugarrenean kito: *al banquete eterno con Cristo*. Obe dezu medikuarengana joatea.

Esandakoa egiten oitutakoak izan monjak eta joaten da erriko medikuaren kontsultara, Medikua kaskaillu bat omen zan au. An dago zai, besteak bezela.

Bere txanda iritxitakoan, sartzen da barrura, eta monja “ip!” eta “ip!” ixildu gabe. Medikua jartzen zaio begietara begira eta esaten dio:

— Zu aurdun zaude. Baiña gaur ez daukat ondo begiratzeko astirik eta etorri zaite iru egun barru.

Monjatxoa oso triste itzultzen da konbentura, zotiñak bapo aztuta. Iru egun oiek negar batean pasa eta, eguna irixtean, etorri da berriz medikuarengana. Jarri da txandan eta sartu da bere garaian medikuaren gelara.

— Zuk zer zenduan?

— Zera: orain iru egun aurdun nagoala esan zenidan, eta iru egunera etortzeko, ondo begiratuko ninduzula eta. Ni zotiñarekin etorri nintzan eta ori agindu zenduan.

— Ori ez da ezer! Begira: zotiña kentzeko, susto edo ezusteko bat ematea izaten da erremediorik onena, eta orregatik esan nizun. Zu etzaude aurdun! Zu lasai!

Eta monjak:

— Orrela al dira gauzak? Ederra egin degu! Gaur goizean suizidatu da gure kapellaua!

(Imanol Lazkao bertsolaria, Azpeitia)

\* \* \*

Bein, kamionero bat ba omen dijoa Altsatsu alde ortan gora, eta monja bat *auto-stop* egiten, poltsa bat eskuan zuala.

Artu du kamioneroak, eta Agurain edo Salvatierra inguru ortan arek bere intentzioa kunplitu nai eta egin dute, ba, funtzioa. Ondoren, monja ori asi da negarrez:

— Orain zer esan bear diot nik kapellauari, asteroko konfesioan? Nola esango diot, ba, bi aldiz egin degula?

Kamioneroak, ori entzutean arrituta, onela esaten dio:

— Aizu; bein bakarrik egin degu, e?

Eta monjak:

— Bai; baiña oraindik Gasteizera irixterako...

(Imanol Lazkao bertsolaria, Azpeitia)

\* \* \*

Beste kamionero batek ere artu omen zuan monja bat, *auto-stop* egiten zegoana, eta:

— Nora?

— Ni Madrilla.

— Ni Aranjueza. Eramango zaitut, ba.

Kamioneroak bidean bere naia agertu dio, baiña monja ori gogor ezetzean:

— Ni, badakizu, ez naiz oietakoa. Ni konbentu batean nago eta nola egingo det ori?

Baiña noizbait ere amor eman du:

— Ortara joatezkerotan, bost bat milla pezeta edo elizarako laguntza eman bearko didazu. Obran ari gera eta diru ori ongi etorriko da.

Kamioneroa konforme: bestela milla edo bi milla pezetan egin zezakeena, okasioagatik ematen dizkio bost milla pezeta.

Egin bearrekoa egin eta dirua kobratu ondoren, badijoaz berriro kamioian. Baiña monja ori oraindik ere bere kezkarakin eta izketan asi da: bearrak zertara jarri zezakeen pertsona; bestela egingo etzukeena, konbentuko obrarengatik artaratu zala, eta abar.

Kamioilariak orduan:

— Bai. Bizitzak orrelakoxeak eragiten ditu. Ni ere ez naiz nerez kamioneroa. Nik abogadu-karrera daukat. Baiña or ez nuan zer egiñik eta kamioiarekin asi nintzan.

Ori esan eta abogadu-karneta erakutsi omen zion. Orduan monjak esaten dio:

— Arrazoi dezu: bizimodua oso gaizki jarrita dago. Ni ere ez naiz nerez monja. Ni ofiziokoa naiz. Baiña bestela milla edo geenez bi milla pezeta kobra nezakeena, monjaz jantzita bost kobratzen ditut.

*(Imanol Lazkano bertsolaria, Azpeitia)*

## NAPARRAK

Napar bat eta andaluz bat pixka bat berotuta omen zeuden, eta egin dute apustu zeinek obeto kantatu, galtzen duanak botilla ardoa ordaintzera.

Jarri zituzten bi edo iru lagun erabakia emateko, asi da naparra kantari, eta bai dotore kantatu ere.

Ondoren asi da andaluz ori *aiiii!* eta *aiiii!* kantuan, eta naparrak esaten dio:!

— Ez adi orrela jarri, motell! Botilla ardo bategaitik ez dik merezi negar egiterik, eta neuk pagatuko diat!

*(Juan Krutz Lasa, Zela, Joxe Migelen soldadu laguna)*

\* \* \*

Naparroako erriren batean izan bear zuan. Gizona etorri da Gipuzkoako feriren batera, eta artean ikusi gabe egon eta plastikozko balde batekin txoratu egin da. Alako ariña, erdoitzen ez dana eta auskalo zenbat doairen jabe!

Eraman du etxera eta erakutsi dio andreari, esanez:

— Au ojalata biguña da. Begira probintzianoak nolako aurrerapenak dituzten.

Emazteak urez bete du eta larazetik zintzilik or utzi du baldea, beeko suaren gainean. Joan dira biak arbi-osto biltzera; eta, itzuli diranean, kirtena zintzilik, baldearen arrastorik ere ez eta sua itzalita.

Joan da andrea auzoko etxera eta galdetzen du:

— Gure etxera sartzen iñor ikusi al dezute?

— Ez; iñor ez.

— Ba, gure etxean lapurren bat izan da, eta lapur lotsa-gabea gaiñera. Pentsa zer egin duan: atzo gure gizonak probintzitik ekarritako ojalata biguñezko baldea arrapatu du, kiderra larazetik zintzilik utzi eta sua itzalita joan da lotsa-gabe zikiña!

*(Jose Luis Gorrotxategi bertsolaria, Osintxu)*

\* \* \*

Sarri kontatu oi zuan Lazkao-Txikik beste txiste au. Lakuntzako amona xaar batena omen da.

Larogeitaka urteak omen zituan. Auzoko neska gazteren bat biaramonean ezkontzera zijoala eta amonak esaten dio:

— Zorionak, neska!

Onek:

— Eskerrik asko. Neuk ere baneukan zurekin itz bat edo beste egiteko gogoia.

— Zer zalantza ditun, ba, neska?

— Ez dakit, ba! Dalako dibertsio ori, batzuek esatera, oso atsegiña omen da. Baiña beste batzuek, aseran egundoko oiñazeak pasa bear izaten dirala diote, eta kezketan nago.

Eta amonak:

— Ik ez akion iñori kasorik egin! Ori gauza ederra dun, baiña laburra. Orrek bear liken, bareak Lakuntzatik Erromara bidea egin arteko denbora!

*(Imanol Lazkano bertsolaria, Azpeitia)*

\* \* \*

Beste au Naparroako Barrankakoa da. Barrankan, badakizute, Etxarri, Arbizu, Lakuntza, Uarte eta erri oiek dira.

Neretzat, Euskalerrian dagoan jenderik garbiena Barrankakoa da. Berai ez traiziorik egin, Baiña fiñak? Zuzen ibiltzen bazera, zuzen. Baiña ez aiengana atzetik eta tranpian joan. Neri asko gustatzen zait jendillaje ori. Faltso oiek ez, ordea.

Baiña orain kontatu detan gertaera, erdi esanarekin ententituko dezutena, Unanuakoak Torraon pasa zala esaten dute; eta Torraokoak, Unanuan.

Etxe batean etxeko semea ezkondu zaie, eta azaroa izan eta eguna motxa garai ortan. Aita jeiki da, sukaldera jetxi eta goien, ezkonberrien gelan, muelle-otsak sentitzen: *trin-trin, trin-trin...*

Eta aita, erabat amorrzita, gora begira jarri eta onela esaten asi zan oska:

— Jo iok! Jo iok! Orain garia ereitera fan biar, eta i andrearekin oatzean or? Len ere eguna luzea zio! Orrekin pagatuko dizkiagu zorrak!

*(Lazkao-Txikik Berrobin kantatua 1982-IX-21-an)*

\* \* \*

Beste au ere Barrankako erri batekoa da. Sermoi egiten asi da apeza, ta konparazio au ipiñi du:

— Nere kristauak: orain eginen dut sermontua, ta izain da bi puntetan lotua eta erdian korapillatua.

Ta jende artetik batek:

— Beraz, tripota izain duk!

Odolkiari tripota esaten diote, ba; eta bi puntetan lotua ta erdian korapillatua, tripota.

*(Lazkao-Txikik Berrobin kontatua, 1982-IX-21-an)*

\* \* \*



Urrengoa ere Barrankako andre batena da, ikaragarriko andre-puska bera. Bera emakume galanta, eta bizi zan etxea ere garai bateko aundi oietakoa. Etorri da Gipuzkoara familiko bat bisitatzera, eta ura gaurko piso txiki oietako batean bizi. Berrito bere errira bueltatu zanean, onela esaten zuan:

— Lengo baten izan naiz Errenterin, lengusii ikusten. Ta ura etxea alperrik galtzee! Ura etxe! Sukaldiin bi lagun eta ezin kabitu! Eta komunii! Sartu naiz komuniin eta ezin bueltatu! Badakizue zer egin bear izan neen? Atera nintzan kanpora eta berrito atzeraka sartu!...

Kamionak bezela sartu, beraz, andrea komunean...

*(Lazkao-Txikik Berrobin kontatua, 1982-IX-21-ean kontatua)*

## POLITIKA

Beste txiste au Zizurkilko txofer bati entzuna da.

Gizon oiek nola asko ibiltzen diran, Extremadura edo bee alde ortan or somatu du gizon-sail bat euskaldunengatik gaizki esaka:

— Ara or euskaldunak. Terroristak, kriminalak eta izan litezken pertsonarik txarrenak dira; baiña Jaungoikoa ere beraiekin dagoala uste det. Emen oinbeste denboran ez dik euririk egin. Euskal-Errian, berriz, naikoa egiten omen dik.

Orduan txofer orrek esaten die:

— Zer nai dezute, ba? Dana? Berrogei urtean or aritu zera-te *Cara al sol* kantari. Eguzkia or daukazute, ba, nai badezute!

(Azpeitia, 1981-XII-19)

\* \* \*

Francok, badakizute emen izan zan denboran zenbat pantano egin zituan: emen bat eta an bestea. Il ondoren, inpernura joan omen zan. Baiña an ere berdin ari omen zan: pantanoak egin eta pantanoak egin. Ala, inpernuko nagusia joan zan San Pedrorengana eta esaten dio:

— I, San Pedro! Eraman zak gizon au emendik!

— Zer, ba?

— Emen ia inpernu guztia pantano egin dik, eta ia su dana itzali! An etzegok orrekin gauza onik!

(Lazkao-Txikik Azpeitian kontatua, 1992-XII-5-ean)

\* \* \*

Orain, Franco il da gero, ez dago ondo. Baiña garai batean etzan broma; etzegoan aorik zabaltzerik ere.

Gizon batek onela esan zuan bein:

— Franco gizarajoa!

— Zer gizarajo gero! —esan zion aldameneko batek.

— Bai, gizona, bai. Gizarajoa! Begira: bere denbora guztian gorriak ezin bialdurik ibili uan; eta, azkenean, gorriak ikusten il!

*(Lazkao-Txikik Azpeitian kontatua, 1992-XII-5-ean)*

\* \* \*

Badakizute Franco izan zala aurreneko astronauta? Emaztea Carmen Polo zuan, eta bera igo omen zan lenengo Apolon.

*(Azpeitia, 1992-XII-5)*

\* \* \*

Franco il ondoren, mozkor bat aren kuadro bati begira zegoan taberna batean. Kuadro ori paretean zegoan, eta berak, mostradorearen barrari elduz eta balantza egiñez, onela zion:

— *Señora, saque usted una copa.*

Balantza egin, kuadroari begiratu eta:

— *¡Cabrón! ¿Ahí estás? ¡Por tu culpa murieron miles y miles de hombres! ¡Ca, ca, cabrón! ¡Otra copa, señora!*

Ostera ere kuadroari begira, balantza egin eta:

— *¡Por tu culpa quedaron tantos niños huérfanos! ¡Por tu culpa tuvimos que comer pan negro! ¡Ca, ca, cabrón!*

Berriz ere eskatu dio etxeakoandreaki koiñaka, balantza egin du, kuadroari begiratu dio eta:

— *¡Por tu culpa quedaron tantos sin casa! ¡Ca, ca, cara al sol con la camisa nueva...!*

Etxekoandreak orduan:

— *¿Ahora mismo no le estabas insultando?*

Eta mozkorrak:

— *¡Es verdad, pero me ha parecido que se ha movido un poco!*

*(Lazkao-Txikik Oñatin kontatua, 1985-IV-27-an)*

## SENAR-EMAZTEAK

Bi ikazkin basoan ari omen ziran: bat ezkongaiia eta bestea ezkondua. Onek ala esan zion besteari:

— Ik ezkondu egin bear uke! Andre-gizonak diferentzi ederrean bizi dituk!

— Bai! I bezela —mutilzarrak erantzun—. Ire andreak batzuetan maite au, urtearen erdian ez aiz joaten eta! Ortarako andrea?

— Baiña, ni joaten naizenean, bai al dakik nola artzen nauen?

— Itxura ederra egin bai! I batere ez au maite andreak!

— Ezetz?

— Prueba egingo diagu.

— Nola egingo diagu prueba?

— I zakuan sartu ta eramango aut etxera, arbolak arrapatu auala esanda. Sukaldean botako aut. Esango zioat il egin aizela, eta ikusiko diagu.

Alaxe egin ere. Ezkongaiak, apustu aundi bat eginda, an eraman zuan bestea zakuan sartuta eta zakuaeren muturra lotuta. *Ra!* bota omen zuan sukaldean.

— Zer dakartzu?

— Ba, zure gizona arbolak arrapatu du. Oker erori zaigu eta bere gaiñera.

— Nere gizon maitea! Lana besterik egin ez dezuna zure denbora guztian! Azken ederra izan dezu gizagaixo orrek! Eta itzik egin al du?

— Bai. Azkenengo momentuan esan dit, zu bakarrik uztea pena dala. Eta nerekin ezkontzea nai baldin badezu, baimena eman dit.

— Alare, zerbait bada! Azkenengo momentuan akordatu da nerekin!

Andreak, negar-papera egin ondoren, onela esaten du:

— *Bueno*, ni ezkonduko nintzake, ba...

Besteak:

— Baiña akats bat daukat, e?

— Zer daukazu, ba?

— Oean pixa egiten dedala.

— Pixa? Ori zer da, ba? Narratx onek kaka ere egiten zuan!

Eta, *da!*, ostikoz jo omen zuan zaku barruan zegoan senar gaixoa.

(Lazkao-Txikik Ordizin kontatua, 1976-an)

\* \* \*

Bein batean, familirik etzuten senar-emazte batzuek, berealdiko iskanbilla zerabilkiten beren artean.

Andreak gizonari:

— Zuk, motel orrek, ez dezu batere balio! Bestela, familia izan bear genduan!

Gizonak andreari:

— Zuk bai ez dezula balio! Ezkongaietan ainbeste bildur, eta orain utsa!

— *Bueno, bueno!* Medikutara joango gera!

Olaxe, ba, medikutara joan dira; eta, azkenean, balio etzuana gizona zala. Operazio bat egin bearra zuala.

Joan dira operatzera. Besterik etzeukaten alamoduz eta tximino baten pilak jarri zizkioten. Tximino bati kendu presaka eta gizon orri jarri.

Andik urte batera-edo, mediku batek besteari:

— Nola ote dago guk transplantea egin genion gizon ura?

Billatu dute fitxerotik eta joan dira.

— Egun on!

— Bai zuri ere!

— Zu etzera gurekin gogoratuko, baiña gu bai zurekin. Gu, zu operatutako medikuak gera, zer moduz zauden jakitera etorriak.

— Ondo! Ondo!

— Ondo, e? Ez dezu retxazorik izan?

— Ez, ez!

— Eta familirik izan al dezute?

— Familia izan degu, bai.

— Zer izan dezute: semea edo alaba?

— Orixe ez dakigu, ba! Jaio zan gure ume ori. Gure amagiarreba an zan, eta sukaldean utzi eta zapi billa kuartora joan zan, gaixo ura jazteko. Bueltatu zanean, juxtu-juxtu ikusi zuan nola salto egin zuan sukaldeko leiotik atariko intxaurrera, andik pago batera, andik maldako urkira eta geiago etzuan ikusi!

*(Lazkao-Txikik Oñatin kontatua, 1987-IV-27-an)*

\* \* \*

Au Xalbador zanari entzuna da. Aren errian, Urepelen, obran ari ziran, telefonoak lurpetik pasatzen, posterik-eta ez izateko.

Ango baserri bateko etxekoandreak galdetzen dio langille oietako bati:

— Zu, jauna: hemen zer ari zarie?

Langille orrek:

— Hemen bertze mundurat telefona pasatzen ari gire.

Andre orrek, alarguna zan eta:

— Bertze mundurat?

— Bai.

— Orduan, aizu, Piarres ene senar zenarekin mintzatu ninteke?

— Bai, bai, bai.

Jetxi zan beera, zanja eginda baitzegoan, eta beste langille bati esaten dio:

— I, joan hadi harako aldera eta mintza hadi bertze mundukoa bahintz bezala.

Andre ori asi da;

— *Alo! Alo! Alo!*

Eta beste aldetik:

— *Alo! Alooo!*

— Nor haiz: Piarres?

— Baaai!

— Ene Piarres maitea! Zeruan egonen haiz?

— Eeez!

— Ez hago zeruan, Piarres maitea? Hain ona izaki eta ez hago zeruan?

— Eeez!

— Orduan, purgatorioan hago, Piarres?

— Ez eta ereee!

— Non hago, bada, Piarres maitea: ifernuan?

— Baaai!

— Eta asko sufritzen duk, Piarres? Askok?

— Ez! Hirekin bizi nintzenean bertze eeezzz!

*(Lazkao-Txikik Markinan kontatua, 1989-XII-8-an)*

\* \* \*

Famili bateko buru zan gizon batek fabrika batean lan egiten zuan. Bazituan amalau bat seme-alaba. Ofizinako lagunak esaten zioten:

— Erri dana erorrek beteko dek ainbeste umerekin! Urtero bat! Orrela etzegok segitzerik!

Alako batean, lagun batek esan zion:

— Emango diat nik iri goma bat. Jarri zak ura txukun, andrea molestaturko ez duan bezela, eta orrela ez dek anka-gorri berririk izango. Bestela, etzegok irekin gauza onik. Nola mantentzen dituan ere etzekiat ainbeste ume!

Eman dio goma ori, baiña urrengo urtean ere berdin: andrea tripa aundiarekin. Ikusi du bere lagun orrek eta esaten dio:

— Eman nian, ba, nik goma! Jarri al uan?

— Bai. Ik esan bezela, txukun jantzi nian. Baiña luzegi neukan eta goraizeekin moztu nion punta.

— Irekin alperrik dek! —otsegin eta aldegin zion lagunak.

Ala, etxera joan da gizon ori, eta andreari esaten dio:

— Umea berriz ere ni fabrikari naizela izaten badezu, etzazula geiago inor bialdu ofizinara “*has tenido otro hijo*” esanez, danak illea artzen didate eta.

— Nola adierazi bear dizugu, ba? —emazteak.



— *Ya ha llegado la bicicleta.* Orrekin konprendituko det nik.

Esan bezela, bera fabrikan zala jaio zan umea. Neska, gaiñera. Berri ori aitari nola eman? Amagiarreba joan da eta onela utzi dio enkargua ofizinan:

— *Díganle a fulano de tal que ya ha llegado la bicicleta, pero con pinchazo adelante y pinchazo atrás, y sin bomba.*

Eta ofizinakoak esan zuten:

— *¡Vaya bici que le han traído entonces!*

*(Lazkao-Txikik Azpeitian kontatua, 1992-XII-5-ean)*

\* \* \*

Afrikan, bi gizon eta bi andre zijoazen eizean, *safari* batean. Ni ez naiz ezkondua: baiña, senarrak beste ori nai duanean, ezetz esaten ere ba omen dakite andreak: gaur “buruko miñez nago” eta urrengoan “ixilik egon zaite, umea esnatuko degu ta” eta abar esanez. Orrela izan bear du ezkonduen arteko gora-beera sarritan.

Badijoaz, ba, gure eiztari oiek, gizonak aurretik eta atzeraxeago bi emakumeak izketan.

Alako batean, andre oietako bati or atera zaio *orangutan* edo tximu aundi oietako bat. Eldu dio eta andrea karraxika:

— *¡Agustín! ¡Agustín! ¡Auxilio! ¡Este bicho me está violando!*

Gizonak begiratu omen zuan atzera eta esan omen zuan:

— *¡Dile que te duele la cabeza!*

*(Lazkao-Txikik Azpeitian kontatua, 1992-XII-5-ean)*

\* \* \*

Xalbador zanak kontatzen zuan ipui bat da au.

Gizon bat, kartzelan zazpi urte egon ondoren, etorri da etxera. Andreak, artean ere sasoikoak, zer edo zer espero zuan; baiña senarrak etzion kasorik ere egiten. Emazteak, arrituta, onela esaten zuan:

— Gure gizon au erabat galduta etorri dek. Ez eldu bat eta ez ezer ere. Muxua juxtu-juxtu. Gixaixoa!

Gizonari kasorik egin gabe, joanda mediku jaunarengana:

— Egun on, don Rikardo. Desengaiñatuta etorri naiz.

— Zer, ba?

— Gure gizona etorri da kartzelatik. Beste gauza bat espero nuan nik, eta ezta kasorik ere.

— Kartzelatik etorrita normala da ori. Toki oietan, soldaduskan bezela, auts batzuk botatzen dizkiete, bizio txarrik ez artzeko. Orrena izango da.

— Eta orain orrela bear al degu betiko?

— Ez, emakumea, ez. Badaude beste botika batzuk.

Bearrean egongo zan eta andreak bere kasa: “Jarri bear diot, ba, ea aspaldiko partez zer edo zer egiten degun!”

Medikuak egin dio, ba, errezeta, eta onela esaten dio:

— Zer gustatzen zaio geien zure gizonari?

— Potajea.

— Egiuzu orduan potaje on bat, odolki, txorizo eta abar, eta an bota botika ori.

Andreak botika orrek bere lana lenbailen egitea nai, eta medikuak esan baiño geiago bota zion. Asi dira bazkaltzen eta, bazkaria bukatzerako, gizona asten da:

— Ixabel! Zazpi urte ontan akordatu etzaidana akordatu zait, eta ez dakit bazkaria bukatzerik izango degun!

Andrearen poza!

— Ixabel, goazen koartora!

Joan da egin dute beren festa ori. Bueltan etorri omen dira eta botikak pentsa nolako indarra izango zuan: eltzeko txorizo eta odolkiak tente omen zeuden.

Au onelaxe kontatu nuan boda batean. Andre bat neukan ondoan, edadetua, eta onela galdetu zidan:

— Joxe Migel, bai al dakizu botika orren izenik?

*(Lazkao-Txikik Azpeitian kontatua, 1992-XII-5-ean)*

\* \* \*

Bi emakumek alkarrekin topo egiten dute; eta, kontu-mordo bat esan ondoren batek:

— Zer moduz ire senar Lontxo? Operaziotik ondo gelditu al den?

Eta besteak:

— Egia esateko, ezertarako balio ez duala zegon: anka batean reuma, bestean gota eta erdian *ni gota*.

*(Jokin Berasategi, Olaberri)*

\* \* \*

Lagun batek besteari:

— Zer andre ederra deken ik!

Besteak erantzun:

— Neretzat ere bai, irea balitz!

*(Jokin Berasategi, Olaberri)*

\* \* \*

Emazte batek esaten dio bere senarrari:

— Zer dezu, gizona? Oso aurpegi txarra dakartzu.

— Gaizki ibili naiz gaur. Aldamioan ari naizela, egundo-ko tripako miñak jo nau, eta komunera joan bear izan det.

— Ori ez da ezer, gizona! Izan ere, bai al dakizu atzo ere zenbat jan zenduan afaltzen?

— Bai; baiña, ni komunetik bueltan joan orduko, nerekin ari ziran bi lagunak aldamiotik erori eta il egin dira.

— Ori ikaragarria da!

— Bai; baiña ez dira gaizki gelditu aien alargunak. Nagusia ondo portatu da. Bakoitzari amarna milloi utzi die.

Eta andreak:

— Ondo iruditzen al zaizu? Amar milloi artu besterik ez eta zu kakagiñean!

*(Juan Krutz Lasa, Zela, Joxe Migelen soldadu laguna)*

\* \* \*

Emakume aberats bat gizon pobre batekin ezkondu omen zan. Gaizki ez omen ziran bizi, baiña andreak onela esaten zion beti:

— Zuen etxean etzegoan ezer ere ni etorri arte. Komedererik ez, komunik ere ez...

— Geuk jarri ditugu beintzat.

— Bai; baiña gure aitak saldutako piñudiko diruarekin.

Lo egingo bazuan, belarriko zuloak goataz itxita joaten omen zan lotara ere gizona. Ezin aguantatu andrearekin.

Asko pentsatzen zuan bere suertez, eta bein entzundakoa gogoratu zitzaion: “Obe zuala gizon pobre batek, andre aberatsa artu baiño, kantzerra arrapatzea”.

Urrengo goiza etorri da eta eguneroko kontua andreak. Geiago ezin eta gizonak esan omen zion:

— Oraintxe nazkatu naiz kontu ori egunero entzuten! Etxe ontan etzegoala ezer zu etorri arte? Etxe ontan gauza bat zegoan ederra zu etorri baiño leen: pakea, geiago gure etxean zurekin izango ez dana!

*(Juan Krutz Lasa, Zela, Joxe Migelen soldadu laguna)*

\* \* \*

Aiton-amona batzuen ere kontatzen zuan, entzuna, asmatua edo auskalo.

Aiton-amona oiek lo egin dute. Esnatu dira, argirik ikusten ez eta amonak esaten dio aitonari:

— Begiratu bearko dezu, ba, leioa irikita, ea argitu duan.

Jaiki da aitona eta zabaldu du leioa. Baiña argirik ez eta esaten dio amonari:

— Oraindik illun dago.

Eta berriro oera.

Berriz ere, luze iritzita, amonak:

— Onezkero argi bear du, ba!

Jeikitzen da aitona, zabaldu du leioa eta illun berriz ere. Amonari esaten dio:

— Oraindik illun dago, ba.

Eta berriro oera.

Berriz ere, luze iritzita eta ordurako argi bear zualakoan, jaikitzen da aitona, zabaltzen du leioa eta illun berriz ere. Onela esaten du:

— Emen ez dago argitasunik, baiña bai gazta-usai galanta!

Eta orduan amonak:

— Zer ari zera zu, armarioko atea irekitzen dezu eta!

(Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano)

\* \* \*

Arotz bat argia kobratzen ibiltzen zan. Etxe batera joan zan eta ango andrea erdalduna zan. Berak, berriz, erderaz oso gaizki egiten zuan.

Andre ori bost illabetekoa pagatzeko zegoan; eta, kasualidadez, bera ere aurdun zegoan, bost illabetekoa. Biak batera tokatu.

Atea jo eta andrea azaldu zanean, onela esan zion:

— *Buenas tardes, señora. Usted está de cinco meses.*

— *¿Cómo sabe usted eso?*

Kontadoreko numerazioari *matriz* esaten omen zaio, eta arotzak:

— *Porque marca matriz.*

— *¡No me diga usted esas guarrerías! ¡Si sigue así, le llamo a mi marido!* —andreak, asarre.

Eta besteak:

— *Si tú le dices al marido, yo le corto y luego tendrás que andar con la vela.*

(Lazkao-Txikik Antzuolan kontatua)

**JENDEAK BURUZ  
IKASITAKO BERTSOAK**

## ZALDIBIA

Aspalditxotik ezaguna nuan, baiña aurreragotik nituan beraren entzuteak. Nik zortzi edo bederatzi urte neuzkala, gure aita zana bein gure auzoko taberna ortara joan zan; eta, ango buelta egin eta etxera etorri zanean, afaritakoan onela esan zuan:

— Bentaberrin bertsolariak daude. Basarri eta Uztapide, eta gaurko onenak dirala esan didate. Baiña bazegoan an mutiko bat, Abaliñeko Feliperen semea esan dutenez, eta bera ere jardun da. Bozak-eta ere beraiek bezelaxe artuta dauzka. Arrituta gelditu naiz. Amabost edo amasei urte berterik ez ditu. Baiña egin bertsoan! Ura izango da bertsolaria egunen batean! Asteasuko Amerikano Txikiaren tankera eman diot. Ain gozo eta zorrotz kantatzen zuan.

Andik puska batera, taberna ortan erromeria egiten zan eta ara etorri giñan bi edo iru anai. Eguerdi aldera an zeuden Lazkao-Txiki eta *Moxo* esaten ziotena, Irurakoa eta Zaldibiko baserri batean morroi egon zana. Biak bertsoan ari ziran.

Lazkao-Txiki orduan ezagutu nuan kantari leen aldiz. Nik bederatzi edo amar bat urte nituan. Baiña ain goxo eta arrazoiz kantatzen zuan, arriturik utzi ninduan. Joxe Migelek amasei bat urte izango zituan.

Alkarren ezaupidea izan baiño leen, onekin edo arekin bertsoan sarritan sumatu izan nuan nik Lazkao-Txiki.

Gure auzoko taberna ortan, urtean bi edo iru aldiz izaten ziran bertsolariak. Egun batean, andik urte batzuetara, artean alkarrekin bertsoan aritu gabe beintzat, Lazkao-Txiki ere erromeri ortara etorri zan.

Bertsoan Basarri eta Uztapide ziran; eta, balkoitik jardun ondoren, gero sala batean juntatzen zan jendea: orduko



senargai eta emaztegaiak eta abar. An egiten zuten askotan bertso-saioa.

Ni ere an nintzan, eta bai Lazkao-Txiki ere. Soldaduskatik etorri berria izango zan. Bertsolariak ordurako ongi eza gutzen zuten gure Joxe Migel, eta berari eraso zioten bertso-tan. An zeuden, esan bezela, nobio-nobiak.

Bera ere bertsolariekin bertso kantari ari zan, eta ezkontzeko edade polita zeukala eta abar esaten zioten besteak. Orduan Txikiak kantatutako bertso bat gogoan det:

Askok esaten dute  
"ezkondu, ezkondu";  
bai guk orretarako  
modurik bagendu.  
Ondorengoak zeïnek  
jantzi ta mantendu?  
Norbereak ere gaur  
lana ematen du.

Auxe izango da nik Lazkao-Txikiri jasotako leen bertsoa.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Beste bein, luistarren festa egiten zan batean, Txomin Garmendia eta biak ziran bertso-tan emen, Zaldibin. Ordurako mikrofonoak-eta jartzen zituzten, eta 1958 urte inguruan izan ziteken.

Puntutan ari zirala, Garmendiak aundi samarrak botatzen zizkion. Batean, onela jarri zion puntua:

Orain urrengo aldiz  
noiz mozkortu ziñan?

Lazkao-Txikiren erantzuna:

Ni mozkortu nintzanen  
zu ere an ziñan.

Illuntzeko bertso-saiorako, mikroarekin arazoak izan zituzten. Zerbait autsita zuala-edo, ondo jartzen saiatzen ziran; baiña berriro ere uts egiten zuan.

Orduan Joxe Migelek:

Ainbeste gauza obserbatu det  
erreparoan nagola,  
alde batera arritutzen naiz  
ikusirikan au ola.  
Altaboz gabe gure bozikan  
ezin aieraz iñola,  
mikrofonotzat jarri digute  
bizikletaren farola.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Zaldibiko Azkenportu deritzan tabernan kantatua, artean bertsoan asi berri xamarra zala. Lasartek onela bukatu omen zuen berea:

gaur Lazkao-Txiki etorri zaigu  
propio entrenatuta.  
Aizu, Manuel, emen generala  
nunbait enteratuta.

Ta Lazkao-Txikik:

Aizak, Lasarte: erantzungo dit  
gutziz umil eta jator;  
ik esaten dek entrenau gabe  
ni ez ote naizen iñor.  
Ala uste dek, baiña ez daukak  
arrazoi-izpirikan or:  
entrenatzeak ez dik balio  
seaskatik ez badator.

\* \* \*

Basarri eta biak Zaldibiko soziedadean bertsotan ari ziran. Ura sarri samar joaten zan pixa egitera. Andik buelta egin eta bertsotan asi ziran batean, Txikiak onela kantatu zion:

Basarri ikusirik  
sarritan jaikia,  
atentzio pixka bat  
badet edukia.  
Pixa egitea du  
bere aitzakia,  
gizon aundia baiña  
ontzia txikia.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Frankismoaren amaieran-edo, piñudi garbiketean aritu zan jende-mordo bat, ikastolarentzat dirua ateratzeko. Ondorengo batean, erriaren kontura bazkaltzen ari ziran.

Oien artean bazan Arrese izeneko bat, erreminta-lantegian lan egindakoa, jubilatua, matxete eta erreminta zorrozten aritzen zana.

Gizon orri bertso au kantatu zion Lazkao-Txikik:

Egia al da, aizu, Arrese,  
len onek esandakua?  
Erdi ipurdi esan du baiña  
aitortu digu naikua:  
badaukazula zuk matxete bat  
amusturikan burua,  
zoritxarreko labe beroak  
tenplia kendutakua.

Urrena Patxi Iraolak:

Gauza guztiak bukatzen dira  
plazuan edo epian,

erremintak e gastatzen dira  
lanian edo nekian.  
Matxete orri zuk ere obe  
dezu uztia pakian,  
kostako zaizu bein zorroztia  
leno kendurik tenplian.

Joxe Migelek berriz ere:

Emen guztiok ere ez giñan,  
ez, betirako sortuta,  
neu ere nago gauza oietan  
naiko bildurra artuta.  
Onek esan du matxete ori  
dagola punta moztuta,  
ez al daukazu tenplatzerikan  
labe berrian sartuta?

*(Rufino Iraola, Zaldibia)*

\* \* \*

Zaldibiko bat, ordurako edade pixka bat bazuan, baiña emakume-kontuan oraindik ona zegoala esanez ari zan; eta Lazkao-Txikik:

Onek andre-kontuan  
orrenbeste lio,  
esaten duenakin  
ez naiz oso fio.  
Ura gogoakin da  
onek ez balio,  
artuko luke iñork  
emango balio.

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

## ERRIRIK-ERRI

Lazkao-Txiki Ordiziko bertsolari-txapelketa batean eza-gutu nuan lenbiziko, 1961 urtean-edo. Goiz-partetik ogei ta bat edo ogei ta bi bertsolari izango giñan, eta arratsalderako lau aukeratu ginduzten. Goizean Joxe Migel izango zan dudarik gabe onena. Berak an kantatutako bertso bat gogo-an det oraindik ere. Ardoa zuan gaia.

Edari ori ezin nezake  
gaur nik bajatu iñola,  
ikusten baitet mundu onetan  
denen gaiñetik dagola.  
Eduki arren sarri askotan  
kaltegarri dan alkola,  
ori berakin moldatzen dute  
Jesukristoren odola.

*(Imanol Lazkano bertsolaria, Azpeitia)*

\* \* \*

Bertso ori bera beste modu batera:

Edari ori baztertutzerik  
ez da egongo iñola,  
ikusia da danon artean  
ontzat emanda dagola.  
Naiz berekin dun askorentzako  
kaltegarri dan alkola,  
orren bitartez moldatu zuten  
Jesukristoren odola.

\* \* \*

Etxarri-Aranatzen giñan biok bertsoan. Musika asi zuanean, jendeak dantzatzeari ekin zion.

An bazan irurogei ta zazpi urte zituala esan zigun aitona bat. Gizon aundia zan eta ondo betea ere bazegoan. Gizon orrek pipatik erretzen zuan. Bera ere dantzara joan zan, eta emaztea gurekin batera gelditu maian.

Musikak pieza bat bukatu zuanean, kalejira jotzen asi zan. Gu ere asi giñan ateratzen, baiña orduan or etorri da gizon ori:

— Andrea, non duzu nere pipa?

— Torizu —emazteak, pipa emanez.

Eta Lazkao-Txikik orduan bertsoa;

Orain ere ikusi det  
eundoko txiripa,  
aundiagorik ezin  
ikusi apika.  
Gauz onerako aundia  
dadukazu tripa,  
zere partez andreak  
eman dizu pipa.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Zegamako Kontzeju jatetxean eskailleretan gora omen zijoan Lazkao-Txiki goiko jangelara. Eta bertako nagusiak, Antoniok, onela jarri omen zion puntua, adarra jotzearren:

— Amaika lotsagabe  
badago munduan...

Eta Joxe Migelek onela erantzun omen zion:

— Zu bakarrik ziñala  
uste al zenduan?

*(Joxean Ormazabal, Zegama)*

\* \* \*

Lazkaomendin orain urte gutxi kantatua:

Birigarroa zugaitzean da  
xoxoa sasi onduan,  
gaur goizean e egiñalean  
or ari ziran kantuan.  
Kukua berriz zugaitzik zugaitz  
*kuku* emen da *kuku* an,  
kalendario gabe badaki  
noiz etorri ta noiz juan.

*(Rufino Iraola, Zaldibia)*

\* \* \*

Baserri txikiak zer egiñik etzeukatela eta, lau edo bost  
juntatu ezker, obeto izan zitezkeala esaten zuten garaia  
izan zan. Zortzi ordu lan eginga manejatu zitezkeela.

Gai ortan onela kantatu zuan nunbait ere Joxe Migelek:

Soziedadea gauza ona da  
sozio jarri berritan,  
baiña gerora gauzak aldatu  
egiten dira sarritan.  
Soziedadean jartzen badira  
lau edo bost baserritan,  
zortzi ordu lana egingo dute  
ta beste zortzi erritan.

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Lazkaoko Pilarrek larogei bat urte edukiko ditu orain.  
Bertso bat eskatu zion Lazkao-Txikiri, eta onek bertso au  
kantatu zion gutxi gora-beera, ura pañuelo gorri bat jantzita  
zegoanez:

Pilar maitea, bertso bat neri  
orain eskatu didazu.  
Kantatu gabe zertan utzi gaur?  
Ezagun gera ni ta zu.  
Naiz edatea aurrera joan  
sasoi ederra daukazu,  
iraungo dezu gorritasunak  
aguantatzen badizu.

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)*

\* \* \*

Aldi artan ere egun guzia alkarren inguruan pasatuak  
giñan. Lagun bat asarretu egin zan guk bertsoan esanaga-  
tik, eta orduan Lazkao-Txikik:

Ola gabiltzanean  
arratsalde ta goiz,  
faltatu izan degu  
ez dakigula noiz.  
Geronek ere kulpak  
baditugu iñoiz;  
barka zazu, laguna,  
etzabiltz arrazoiz.

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

San Martin egun batean, or ibili omen dira lagun-talde  
bat. Tragoak ugari samar eginda, naiko beteta danak ere.  
Taldeko batek esan zuan:

— Ni afaltzera nijok eta urrena arte.

Joxe Migelen orduko bertsoa:

Beti galera izandu oi dik  
joan bear duan gizonak,



arratsaldean ez gaituk emen  
gaur oso geldi egonak.  
Nik bezelaxe ik ere ein dituk  
naiko tragoskada onak,  
apariaren bearrik ez dik  
ardoiz beteta dagonak.

(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)

\* \* \*

Bein, bertso-jaialdi baten ondoren, Ernaniko *Justonea* tabernara joan giñan zerbait artzera.

Tartean bazegoan ijito bat, erriko jendearekin integratuta dagoana eta, pixka bat berotzen danean, bertsoan edo antzeko zerbaitetan asten dana.

Lazkao-Txikik ura ikusi zuanean, bera asi zan bertsoan, ari lepotik elduta. An inguruko bat, ijitoaren bertsoa entzun ondoren, onela asi zan:

— Ori ez dek, motell, bertsoa! I ez aiz bertsolaria!

Lazkao-Txiki jiratu zitzaion eta onela esan zion:

— Ik ez dek entenditzen da! Igualik etziok kantatzerik beintzat!

Ijito orri bertso bat kantatu zion:

Zumarran eiten dute  
urteroko junta,  
dotore zabilzate  
raian orraztuta.  
Ijitoak zaudete  
gaur aberastuta,  
baserri zarretatik  
astuak ostuta.

Ori kantatzea bukatuta, koadrillan zearo kalbotuta zegoan batengana jiratu eta esan zion:

— I ez aiz raian orrazten, e?

Gero, onela jarraitu zuan izketan:

— Onek, ondo begiratuta, aktore baten antza zeukak. Orbauan, ba, Gina Lollobrigida-rekin pelikula egin zuan bat...

Alboko bat, txofer ibiltzen dana, arrituta asi zitzaion:

— Ik dana badakik! I zer aiz: intelektuala-edo?

Eta Lazkao-Txikik:

— Zer uste dek, ba? Bestela, i bezelakoa izango nindukek!

(Joxe Mari Arrieta bertsolaria, Ernani)

\* \* \*

Ordizian edo Beasaiñen gertatu omen zan. Lazkao-Txiki lagun batzuekin baxoerdiak artzen zebillen. Tartean erdaldun gallego bat omen zuten; eta bera, pagatzeko orduan beti atzera gelditzen zan oietakoa. Egun artan ere, baxoerdiak pagatzerakoan komunera joan omen zan.

Andik gerora, erdaldun orrek, Lazkao-Txiki tentatu asmoz, puntu au jarri omen zion erderaz:

— *Lazkao-Txiki, tú eres  
un zakilipotros...*

Eta onek:

— *Y tú estás bebiendo  
a cuenta de otros.*

(X. X.)

\* \* \*

Norbaitek eztula eta puzkarra biak batera egin zituala-eta, Lazkao-Txikiren bertsoa:

Ez al gerade jarri  
tipo narratseko?  
Edo obeto esan  
zelebre antzeko?  
Bi soiñuak batera  
aurre ta atzeko,  
eztula egin dezu  
disimulatzeko.

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Busturiko jaialdi batean, oso bertso polita kantatu zuan;  
baiña bukaerako arrazoa besterik ez daukat gogoan:

Merezi ez dun askok  
jaten du ogia.

*(Jon Lopategi bertsolaria, Muxika)*

\* \* \*

Aramaioko Untzilla auzoan, ixildu gabe bertso eske ari  
zitzaion bati, asarre samar kantatua da ondorengo bukaera  
au:

Alperra beti gertu  
lana agintzeko.

Gizon orrek, gaiñera, praile izandakoa izan bear zuan;  
eta, bertsoan zear, Arantzazu eta guzti aitatu omen zizkion,  
gero amaiera ori emateko.

*(Jose Maria Arregi bertsolaria, Berriatua)*

\* \* \*

Ataungo sagardotegian, 1993-ko ilbeltzaren aseran,  
erretako baserri baten aldako jaialdiaren truke, baserri orre-

takoak afari bat antolatu zuten etxekoekin eta bertsolariekin.

An ziran Sebastian Lizaso, Egaña eta Lazkao-Txiki. Baita gu ere. Sebastian komunera joan zan, eta Egaña eta Lazkao-Txiki ari ziran bertsotan, ura etorri zanean.

Egañak, komunekoaren aipamena egiñez, “an zirala txanpain-otsak” edo antzeko zerbait bota zuan.

Sebastianek ondoren:

Sukaldea ta komuna  
oi dira aparte.

Edo zerbait orrelako. Eta Joxe Migelek atzetik:

Sukaldea ta komuna  
alkarren onduan,  
guk beintzat era ortan  
ezautu genduan.  
An arreglatzen giñan  
al gendun moduan,  
komuna zertan sukaldeik  
ez bada orduan?

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)*

\* \* \*

Apaldondo batean, Luis Mari illobak puntu au jarri zion leenengo:

— Caceresa joan gera  
arturik Pexota... *(Peugeot-a)*

Lazkao-Txikik:

— Kotxea eraman bear,  
ez dago eroso ta.  
Aruntz joan zerate eper,  
erbi edo usota,

etorri zerate bota-  
takoak jasota.

Urrengo puntua:

— Nik botatzen ditut uso,  
eper eta *perdiz*...

Lazkao-Txikik:

— Oriek botatzeko  
jo bear dik erdiz.  
Ni ere joana nauk  
makiña bat aldiz,  
i batere bota gabe  
etortze'aiz berriz.

(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)

\* \* \*

Kaminero bati botatako bertsoa:

Zu kaminero zera  
*por a* edo *por hache*,  
kamiñuan dauzkazu  
makiña bat batxe.  
Biar e pasako'ira  
makiña bat kotxe,  
zu baztarren batian  
lo eongo zera antxe.

(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)

\* \* \*

1963 edo 1964 inguruan izan zitekean au ere. Kanpotar asko etorritako erriren batean omen zegoan, taberna bateko mostradorean; eta onela kantatu zuan:

Emen datozen jentuza auek  
ez didate ematen poz,  
esan diteke gu ondatzera  
datoztiala apropos.  
Asi Kastila eta Orense,  
Caceres eta Badajoz,  
noiz joango diran ez dakit baiña  
pilla galantak badatoz.

*(Nikolas Zendoia bertsolaria, Aia)*

\* \* \*

Lazkao-Txiki, Goiburu eta irurok ari giñan kantari, bata besteari puntua jarriz-edo. Arriarango Julian ere an izango zan.

Ala ari giñala, or etorri da Erkeziko Martin Joxe, gizon-puska ikaragarria, beste erropa danen gaiñetik anorak oietakoa lepoan lotuta; eta Joxe Migeli eraso dio:

— Alua! Emen al abil? Jaio omen zala-eta, jaio orduko bertsotan asi zala eta...

Olako zerbait esaten zion beiñik-bein. Alako batean, jarri zitzaion Lazkao-Txiki beetik gora begira eta onela kantatu zion:

Nere aurrean daukat  
Alarko artzaia,  
mutil aundia da ta  
gaiñera lasaia.  
Lepoan loturikan  
dauka kapusaia,  
disimulatzearren  
bere kakusaia.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Beste egun batez, gai oni buruz kantatu bearra zegoan:

— Biak langilleak zerate, eta Alemanira joateko kontrato on bat atera zaizue. Emen baiño bost aldiz soldata ohea. Xalbador joateko gertu dago. Lazkao-Txikik, gutxiago kobratuta ere, emen gelditzea naiago.

Xalbadorrek onela kantatu zuan bertso bat:

Oi, Joxe Migel, entzun ezazu:  
estura haunditan nago;  
holakorikan gerta ez dadin  
askotaz nuen nahiago.  
Alemanira lan egitera  
orai baitut joan gogo,  
irabaziak han omen daude  
bortz alditan haundiago.

Lazkao-Txikik erantzuna:

Nere laguna, ibili zaitez  
anaikiro eta legez,  
irabazien ots berri oiek  
zabaldtu ziraden aurrez.  
Ez al zerade eskarmentatu  
zu urrutiko intxaurrez?  
Juan bitarte amalau dira  
ta juandakoan baterez.

*(Rufino Iraola, Zaldibia)*

\* \* \*

Beste bertso-bukaera bat, Legorretan, senarra itxasoan il eta alargun gelditu zan bati kantatzeko eskatu ziotenean:

Gau eta egun tristerik nago  
nor ta noiz etorriko zai,  
ao batetik goserik nago  
eta bestetik ere bai.

*(Rufino Iraola, Zaldibia)*

\* \* \*

Ormaiztegiko bertso-saio batean, *Zubipe* pelotalekuan, Agirre, Lasarte eta Lazkao-Txiki ziran, beste batzuekin. Izen-datutako iru auentzat gaia onela izan zan:

— Egazkin-istripu baten ondorioz, mendi-zulo batean zaudete, andik irten eziñik, zer janik ez eta alkar jaten aste-ko zorian.

Agirre asi zan:

Ementxe badakit nik  
gertauko zaidana:  
iru auetatik neuk  
baitaukat zer jana.

Urrena Lasarte, eta bera prestatu zan besteen janaria izateko.

Orduan Lazkao-Txikik:

Aizu, Lasarte, iltzeko ere  
zeu preparatu zeranez,  
aste pare bat pasako degu  
saldo pixka bat edanez.

*(Nikolas Zeberio bertsolaria, Itsasondo)*

\* \* \*

Azkenerako, bertsoan pixka bat nekatu egin zala dirudi.

Bermeon orain dala lau bat urte, azken agurra ematera-koan, onela kantatu zuan:

Agur, entzule biotzekoak,  
eta agur, zu, Ondarru,  
ea berriro elkartzen geran  
beste urte bete barru.

Orduan bertsolari batek Bermeo zala esan zion, eta beste bertso bat kantatu omen zuan, barkamena eskatuz.



Azken aldera, aren gorputza bezela, animoak ere asko ari zitzaizkion erortzen. Baiña itza emana eta konpromisoa asko baloratzen zuan.

Ala, operatzera joan zanean, apuntatua zuan andik amabost egunera bertsoara joateko toki bat. Medikiak, andik bi aste barru ongi egongo zala esan baitzioten. Gogora arazteko enkargatu zigun, berari azten bazitzaion.

*(Felipe Barandiaran, Lazkao-Txikiren iloba, Lazkao)*

## EZTENA

Ondoren idaztera noan bertso au ikasi nuala, berrogei urte ez dira aparte izango: eta neri esan zidanak, onela kon-tatzen zuan pasadizoa.

Euskal-Errian, edo obeto esanda emen Gipuzkoan beintzat, beti edo geienetan mutilla izaten zan etxeko maio-razko edo aitaren oiñordetza artzen zuana, baldin-eta muti-llik bazan beintzat noski, eta mutil au zaarrena izaten zan. Ala ere, etxean gelditzen zana ala kanpora zijoazenak, zein obeto izango ziran, Jainkoak jakin.

Lazkao-Txikik ondo ezagutzen zuan famili batean ere, baziran naiko lanak aita, ama, semea eta erraiñaren artean.

Emakumeak barka nazatela, baiña esaera zaar bat bada diona emakume bat gutxiegi eta bi geiegi dirala sukalde baterako. Ikusten danez, emakumeak pizten zuten aurreneko su txinpartatsua, eta geienetan edo askotan senar-emazte gazteak izaten ziran etxetik irteten ziranak beren aurrekin, baldin bazuten beintzat. Auek naiko lanarekin gelditzen ziran aurrera jarraitzeko.

Onelako amaika egoera ezagutu ditugu, eta Lazkao-Txi-kiri adarra jo naiean zebillena ere, aipatutako egoera ontan zegoan.

Nik entzundakoa jartzen det. Liburuan jartzea komeniko dan garbi ez dakit. Baiña, dana dala, onela dio:

Lazkao-Txikik arreba omen zuan etxera edo baserrira ezkondua, naiz eta orduan zegoan mutil maiorazkoa bera izan Abaliñen.

Egoera au ikusirik, onela esan omen zion aipatutako aita orrek Joxe Migeli:

— Ondo egin die, bai, zuen etxean orrela jokatzea. I etxera utzita, zer fundamentu aterako uan, ba? Beti tabernan bertso eta txiste, eta ikuilluko beiak orroika!

Onelako amaika bota omen zion. Baiña Lazkao-Txikik, gaztea izan arren, arek baiño akuillu-ezten zorrotzagoa bazeukala laister jakin erazi omen zion, batere arrokeri eta gezur gabe, urrengo bertso onekin. Geiago ere izango ziran seguru asko, baiña zortziko aundiko bertso batean ederki adierazi zion odolkiak ordaiñetan izaten dirala, naiz batzuk mikatzak izan.

Nik ere eman bearko diet  
zure kontuai ordaiña,  
zu gurekoak esan artean  
larri izan zera baiña.  
Etxean lana izango dezu  
ondo nekatzeko aiña,  
oso kontentu apenas dauden  
semea eta erraiña.

*(Jose Intxausti bertsolaria, Segura)*

\* \* \*

Joxe Migelek amasei urte-edo zituela, Lazkaomendin, Ixurreneko tabernan, auzoko aitona dotore antxeko bat berriketan ari zitzaion lotsagabe xamar mutil gazteari: maiorazkoa gauza etzalako, arreba ezkondu zitzaiola etxera, eta abar. Baiña aitona orrek ere ba omen zebiltzan gora-beerak bere semearekin, eta... Lazkao-Txiki ez izan ona ixilik egoteko:

Joxe Bernardo, eman beaizut  
zure lengoen ordaiña,  
dakizun dana esan bitarte  
larri izan zera baiña.  
Aserre xamar omen dabiltzu  
semea eta erraiña,

gure etxera etorri gabe  
zerean dezu bear aiña.

(X.X.)

\* \* \*

Bertso au Lazkao-Txikik amasei-amazazpi urterekin kantatua da.

An auzoan, tabernan, gizon zar samar bat zegoan, langi-  
llea bai, baiña beti berea ona zuan oietakoa. Lazkao-Txiki  
tentatzen asi zan; baiña onek bertso au kantatzearekin era-  
bat ixildu zuan:

Jose Bernardo, esan bear dizut  
aurreko orren ordaiña,  
dakizkizunak esan artian  
larri izan zera baiña.  
Asarre xamar omen dauzkazu  
semia eta erraiña,  
gure etxian sartu gabe're  
etxian dezu bear aiña.

*(Zaldibiko bertsozale baten aotik jasoa)*

## URBIA

Nik Lazkao-Txikiren ezagutza, lantokian asi eta Ormaiztegiko Bixente Mujika *Etxaburu* zanarekin egin nuan. Onekin lanean amasei urterekin asi eta bereala antzeman zidan ni ere zaletasun ortakoa nintzala. Batean onela esan zidan:

— Lazkao-Txiki istorira pasako dan gizona dek.

Orduan nik ez nion iritzi ori aintzakotzat artu; baiña geroztik ikusi nuan ongi asko arrazoiz ari zala.

Andik laster, gure etxean Ataungo artzai bat zebillen, *Besomotxa*, au ere bertsoan egiten zuana. Ni ere aritzen nintzan zerbait berarekin. Nik esan nizkion, *Etxaburu*-k esan bezela, Lazkao-Txikiren kontuak, eta neri galdetu eta Urbira joatea pentsatu zuten. Zegamako apeaderotik bidea bazegoa-la eta andik joango zirala.

Egun orretan, ba, *Etxaburu* ori izan genduan gidari, Urbira joateko. Taldean Lazkao-Txiki ere an zan. Bidean galduta ibili izan bear zuten sobra ere.

Goiburu bertsolaria Urbian zegoan orduan artzai, eta bertso au jaso zion Txikiari:

*Etxaburu*-kin asko  
ezin leike fia,  
orregatikan egin  
degun ibilia.  
Bidea erakutsiko  
digula Urbia,  
Aizkorritik aruntza  
joan giñan ia.

Egun artan kantatua da onako au ere:

Nik garaiz asko gaurko goizean  
 etxetik ein det mugira;  
 bide luzeak, pozik badator,  
 laburrak gerta oi dira.  
 Lenengo aldiz gaur etorri naiz  
 Urbi mendi egokira,  
 Gipuzkoako gaztik onenak  
 egiten diran tokira.

Geroagoko batean, Lasarte eta biak joan ziran Urbira.  
 Aita Agirretxe zan meza ematen, eta omenaldiren bat zala  
 uste det.

Bazkalondoan, kafeko garaian, bertsoan asiko ote  
 ziran-edo esan zieten; eta Lasartek kantatu zuan, bertsoak  
 baiño, kasik naiago zuala Aita Agirretxeren sermoia entzun.

Lazkao-Txikik onela erantzun zion:

Aita Agirretxe, barkatu baiña  
 ein beaiot azioa,  
 badakit dala sermogilletan  
 gradu aundira ioa.  
 Berak bakarrik eramaten du  
 bikain konbertsazioa,  
 ixilduko zan eduki balu  
 nere kontestazioa.

Lazkao-Txikirengatik, asma litezken kontestazio-era  
 guztiak kantatu zituala esan diteke. Onelako sorginkeri asko  
 zituan. Gaiñera, akordatutakoak etzizkion askotan jendeari  
 esaten, aldamenekoari baizik.

*(Eusebio Ibartzabal bertsolaria, Gabiria)*

## EZKONGAI

Mutilzar eta ezkondu-kontuan ari zirala, Lazkao-Txikik:

Gaztetan ondo bizi liteke  
mutil soltero raso,  
berak nai duan aldera libre  
ematen baitu pausoa.  
Baiña zartzean ez al da obe  
ezkondu ta gurasoa,  
norbera gauza ez dan garaian  
izan dezan nork jaso?

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Aldi artan, Joxe Lizaso eta Lazkao-Txiki ziran Aian bertsotan. Gaia, Joxe Migelek soldaduska Afrikan egin zuala eta ortik zerabilkiten. Lizasok, Afrikan ondorenak izango zituala esan zion; eta Lazkao-Txikik:

“Beltzen tartean ibilia da”  
errez egin dezu itza;  
ezin ukatu, an egin bainun  
soldaduskako bizitza.  
Ainbeste azi ez nun izango  
eskasa izan banintza,  
aitaren billa etorri eta  
radio saltzen dabilta.

*(Nikolas Zendoia bertsolaria, Aia)*

\* \* \*

Puntu au jarri zioten bein Joxe Migeli:

— Ere laguna maite  
bearko dek beintzat...

Eta Lazkao-Txikik:

— Ez detala maitatzen  
iruditzen al zak?  
Netzat igualak dituk  
zuriak ta beltzak,  
ori agindu bear dik  
norbere biotzak.

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)*

\* \* \*

Abaltzisketan orain urte gutxi jarritako gaia:

— Gizonak, gizon izateko, iru baldintza bete bear ditu:  
arbola bat aldatu, liburu bat idatzi eta seme bat izan.

Gai ori iru bertsolarentzat jarria izan zan. Joxe Migelek, bere txanda eldu zan batean, onela kantatu zuan:

Liburu kontu ori  
egiña det aurrez,  
arbolarena berriz  
kunplitu det errez.  
Baiña irugarrenak  
jarri nau bildurrez:  
ez dakit semerikan  
badetan ala ez.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*



Bertso au bera beste modu batera:

Arbolak aldatutzen  
ikasi nun aurrez,  
idatz-lanetan ere  
nabil naiko errez.  
Irugarren orrekin  
jarri naiz bildurrez:  
ez dakit semerikan  
daukaten ala ez.

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Gaintzan askotan izan zan bertсотara joanda, da aietako batean biok kantatu genduan. Goizeko saioan neska morena polit bat izan zuan ondoan, da arratsaldeko saioan puntua onela jarri nion:

— Zurekin ezkontzeko  
zein ote da gura?

Lazkao-Txikik:

— Goizen ikusi deten  
morenatxo ura.

Nik:

— Maiz bildutzen ziñaden  
bere ingurura...

Eta berak:

— Beste pentsamenturik  
ez dator burura.

*(Patxi Telleria, Gaintza)*

\* \* \*

Egun ortan bertan Korpus eguna zan ain zuzen ere, Karidade eguna; ta elizan, boltsa pasatzean, bota genduan guk ere. Gero puntu au jarri nion:

— Limosnan zer bota dek:  
burnia edo papera?

Lazkao-Txikik:

— Bietatikan ere  
banian aukera.

Nik:

— Ik botatakon ez dik  
ots aundik atera.

Eta Joxe Migelek:

— Or joan dek ura ere  
bestien tartera.

*(Patxi Telleria, Gaintza)*

\* \* \*

Aldi artan, Joxe Lizaso, Lazkano eta Lazkao-Txiki ziran puntutan. Onako gaia zuten: soro txikia baztar uts, gizon txikia...

Joxe Migeli egundokoak bota zizkioten. Alako batean, onela asi zuan berak puntua:

— Auek sortzen didate  
onelako saltsak.

Lazkanok:

— Ongi zekizkiagu  
ik dituken antzak.

Lizasok:

— Danak ikus dezaten  
kendu itzak galtzak.

Eta Lazkao-Txikik:

— Gero iri emango diat  
gustatutzen bazak.

*(Eusebio Igartzabal bertsolaria, Gabibia)*

\* \* \*

Lopategik bein bertsoan kantatu bear izan zion, oraindik bere koiñata sasoiko zegoala. Joxe Migelek erantzunez kantatutako bertsoaren bukaera onela izan zan:

Esaten dezu zure koiñata  
oraindik ona dagola,  
ez dakit itsatsiko dan baiña  
aldatuko det arbola.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Bein batean, andre bat etorri zitzaion, bizkarretik elduz eta onela esanez:

— Ara: Joxe Migel ere emen dabil, ba! Ni noiz alarguntzen naizen zai dago au, nerekin ezkontzeko!

Gero, bazkaltzerakoan, Lazkao-Txikiren inguruan tokatu zan andre ori, bere senarrarekin; eta Txikiak oni onela kantatu zion, bertsoan asi ziranean:

Amaika aldiz damutu zaizu  
egin zenduen tratua:  
gaztaiñatxo bat biltzeagatik  
matxarda ori artua.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Beste batean, Agirre eta biak ziran bertsotan soziedadean. Apaltzeko, arrai-zopa, arkumea eta artzai batek ekarritako gazta, ar txikiak zituana, izan genituan.

Agirrek onelatsu kantatu zuan: danak etzirala arrak izango, eta Lazkao-Txikiri ez ote zitzaion eme bat komeni.

Joxe Migelen erantzuna:

Aspaldi ontan ez det nik egin  
iñon apari oberik:  
alako arrai-zopa ta gero  
onelako arkumerik.  
Ar-kontu ori Agirrek dio  
asko pentsatu gaberik,  
baiña neretzat nik ez nuke nai  
arrak jotako emerik.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Ordurako, Zaldibiko bere baserri ortan beiak bazituan Lazkao-Txikik. Ordizian zan, kantatzera joana, beste bost bat bertsolarirekin. Auek, ganadu-premiotarako eguna zan eta ortik atakatzen zioten: beiak bazituala, baiña etzuala jendearen aurrean erakusteko modukorik edukiko.

Onela erantzun zien Lazkao-Txikik:

Beiak onera ekarritzeko  
ez neukan ainbeste gogo,  
pentsua janda dauden tokian  
daude askoz obetogo.  
Baiñan ekarri ditutenakin  
oso kontentu ez nago:  
sei akerrekin etorri naiz ta  
erostunikan ez dago.

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Lazkao-Txikiren beste bertso bat:

Orain zartzen ari naiz,  
leno nintzan modan,  
alare izan nai nuke  
nik neronen bodan.  
Gizonarentzat nola  
andrezko bat zor dan,  
pozik jakingo nuke  
neretzako nor dan.

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Idiazabalen ziran bertsoan Uztapide, Lasarte, Lazkao-Txiki eta Agirre, bertako Guraso-Elkartean. Saio naiko justua izan zan gaiñera.

Ondoren, afaltzera joan ziran. Afalondoan, Agirre asi zan kantari, eta an ari ziran bata besteari zirika: danak sasoiari zeudela; baita Uztapide ere eztulka ia itoan: Lazkao-Txiki sano zegoala...

Lasartek, Txikia sano nola egongo etzan ba kantatu zuan, bertsoa onela bukatuz:

Onen sailletan nola ez dagon  
mugarri bat nun sarturik.

Joxe Migelen erantzunaren azken bi puntuak:

Aizak, Lasarte, oraingo ontan  
bota dek izugarria:  
nun sarturikan etzeukat baiña  
bazedukat mugarria.

*(Eusebio Igartzabal bertsolaria, Gabiria)*

\* \* \*

Agirre, Joxe Migel eta irurok giñan bertsoan Legorretan. Kaso samingarria gertatu berria zan orduan emen: bi andre

alargun gelditu, bati gizona ezbear batean il zitzaiolako; eta besteari gaixotasunez.

Ezbearrean gizon il zitzaiona soldata on samarrarekin gelditua izan bear zuan. Bestea, berriz, soldata gutxirekin.

Lazkao-Txiki zan, ain zuzen, soldata eskasarekin gelditu zan emakumea. Ni, soldata onarekin alargun nintzana. Agirre, berriz, fabrikako nagusia.

Txikiak irugarren kantatzen zuan, eta irugarrena olamoduz kantatu zuan:

Alargunduta andre gaztea,  
ni ez nago oso lasai;  
bakardadean egon izan naiz,  
bakarrik aste eta jai.  
Gau eta egun or egoten naiz  
nor noiz etorriko dan zai,  
ao batetik goserik nago  
eta bestetik ere bai.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Udazken batean, Arantzazuko Goiko Bentan giñan Lazkao-Txiki eta biok. Basarri ere an zegoan, egun batzuk pasatzera joanda, beste lagun batzuekin. Garai artan urtero joan oi zan.

Afalondoan bertsotan asi giñan. Baita Basarri ere. Gu biok ezkongai geundela eta andre baten premian giñala kantatu zigun; eta Joxe Migelen erantzuna arrazoi auetan izan zan: Lazkao-Txikik falta zuala, baiña Basarrik sobre.

Falta eta sobre oiek berdiñak zirala.

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

\* \* \*

Bein batean, Atauna deitu ziguten Lazkao-Txiki ta bioi luistar jai batera joateko. Ala, antzoki-tarte batean jardun giñan biok; eta gero, angoa bukatu zanean, agintariak esan ziguten joateko beko ostatura, ta an pronto egongo zala guretzako meriendea.

Esan bezela joan giñan, eta ango etxekoandreak goiko jangelara bialdu ginduzten.

Sartu giñan eta mai batean exerita an arkitzen zan Ataungo beterinarioa, izatez Astigarraga alde ortakoa, bere andra eta iru aurtxorekin meriendatzen. Beste mai batean Ataungo jueza zegoan, bere andregaiarekin.

Ni ez niñun iñork ezagutzen; baiña Lazkao-Txiki danak. Gu irugarren mai batean jarri giñan, beste oietatik aparte; eta, an jarri orduko, beterinarioak onela esan zion Lazkao-Txikiri, tentatzearren:

— Lazkao, bota bertsoa! Baiña oiei bota bear diek, e? Oiei bota bear diek!

Alegia, juezari eta bere andregaiari botatzeko.

Ala, berealaxe bota zion Lazkao-Txikik andregaiari bertso polita, nobioari oso egoki esanez nola ederra billatu zuan.

Berriz ere botatzeko esan zion beterinarioak, eta bigarre-na ere bota zion. Andik pixka batera:

— Bota, Joxe Migel, beste bat!

Baiña juezaren andregaiia ere pixka bat aspertu edo molestatu zan, eta beterinarioari esan zion:

— Egon zaitez ixilik!

Eta Lazkao-Txikiri:

— Botaiozu berari!

Eta onek berealaxe bat-batean bota zion:

Orrentzat bertsorik geio  
etzaidazu eska,  
zeuri botatzeko bera  
ari da galdezka.  
Gustatzen zaizulako  
orrenbeste neska,  
zure andreak pasatzen du  
makiña bat kezka.

*(Bizente Mujika zana, Ormaiztegi)*



## ARTXANBERRI

Artxanberri bertsolaria sarritan aitatzen zuan Lazkao-Txikik. Bertsolari berriren bat sortzen zanean, beti galdetzen zidan:

— Zer moduzkoa da?

Nik nere iritzia ematen nion, eta ondoren onela esan oi zuan berak:

— Garai batean Artxanberrik probatu izan balu!

Biak alkarrekin askotan jardunak baitziran.

Joxe Migelek berak kontatu oi zuan, Artxanberri eta biak bein Larraitzen kantari ari zirala, naiko alukeria bota ziola berak; Artxanberri azeri arrapatzen-eta ibiltzen zanez, bukaera onela zuan bertsoa kantatu ziola:

Zu beti izan zera  
gizon kriminala,  
animaliak iltzen,  
jaunak, egiñala.

Artxanberriren erantzunaren azken bi puntuak:

Jainkoak ere badu  
nik ainbat delitu:  
nik bizirik utziak  
berak iltzen ditu.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Beste au 1964 edo 1965 urte inguruan izango zan. Egun artako jaialdirako bertsolariak, Uztapide, Lasarte eta Laz-

kao-Txiki ziran. Artxanberri ere aiengana urbildu zan.

Uztapide eta Lasarte bere garaian alde egin zuten. Artxanberri eta Joxe Migel bertan gelditu ziran.

Artxanberri beti zorrotz erantzun bearrekoa zan; eta beraren garaian etzala bertsolaria Lazkao-Txikiren garaian bezela pagatzen esaten asi zitzaion.

Joxe Migelen erantzuna:

Nik badakit zu izan zerala  
oso kantore iaiua,  
baiñan ez daukat nik kulparik zu  
garai txarrean jaiua.

Artxanberrik ondoren:

Gureak ia egin du eta  
zer eingo da onezkero?

Lazkao-Txikik:

Ni baiño leno iltzen bazera  
nik emango det koroia.

Artxanberrik, berriz, bertso borobil bat boteaz:

Koroia baiño askozaz ere  
naio ditut errezoak.

Eta Lazkao-Txikik:

Bai; otoitzean ni zure alde  
aleginduko naiz sarri,  
ta illobian utziko dizut  
zerbaiten seiñalagarri.  
An jarriko det nik gurutze bat  
ta letrero au ezarri:  
Emen sartu zan Goierrikoa  
bertsolari Artxanberri.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

## APAIZEI

Beasaiñen, bertso-saio batean, Patxi Iraolak eta Joxe Agirrek gizon elizkoiien eginkizuna bete bear zuten; Joxe Migelek, berriz, sinismen gabekoarena.

Lazkao-Txikik:

Elizak esaten du  
makiña bat egi,  
fin sinisten dunantzat  
kasikan geiegi.  
Artzeko beti prestu,  
emateko nagi,  
pobreak famatu ta  
aberatsei segi.

\* \* \*

Lazkao-Txikik topo egin du Baliarraingo apaizarekin. Izketan asi eta apaizak goiko baserri batean oso gaizki zegoan aitona bisitatzen izana zala eta abar adierazi zion. Baiña ondoren esan zion:

— Orain tristurak aztu egin bear ditugu, eta nik jarriko dizut zuri puntua.

Onela jarri zion:

— Apaizak beti ere  
ondo egiten du...

Eta Lazkao-Txikik:

— Bera ala danean  
ori esaten du.

Iñori ezer eman ez ta  
al duena kendu,  
bizitzen galerazi  
ta iltzen lagundu.

*(Patxi Iraola bertsolari, Zaldibia)*

\* \* \*

Arantzazuko fraile batek lau oiñak emanda, Oñatin kantatua:

Arantzazu mendian  
badabiltza auntzak,  
alkartu izan dira  
aker ta urruzak.  
Gaia ematen digun  
prailean arrautzak,  
ez det uste egongo  
diradenik utsak.

\* \* \*

Bein Ernanin puntu au jarri nuan:

— Alperrarentzat ez da  
erreminta onik...

Tartean beste batzuek kantatu zuten, eta Lazkao-Txikik onela bukatu zuan:

— Apaizentzat ez det uste  
onikan dagonik.

Esan da gero barkazioa eskatzen zuan beti.

*(Joxe Mari Aranalde apaiza, Gaztelu)*

\* \* \*

Batean, Ataungo San Martiñen, bertsoan nerekin zan, jubilatuen egunean. Legorretako apaizari-edo kantatutako bertsoa zala-ta, auxe jaso nion:

Sermoi-garaian eskau dituzu  
izugarrizko laguntzak,  
ordaintzearren aspalditxoan  
egiñak dituzun utsak.  
Len garbia zan eliza orain  
ia estali du untzak,  
ori mozteko nunbaitetikan  
ekarri itzazu auntzak.

*(Juan Inazio Begiristain bertsolaria, Ataun)*

\* \* \*

Batean, gertakizun ori izan zanean, Lazkao-Txiki eta biok izan giñan bertsoan Legorretan.

Meza ondorenean, apaizak onela esanez bota ginduan bertsoara:

— Libre utziko ditugu.

Gu orduan gaiarekin oiturik geunden. Kioskoan elizari begira geundela, kanpantorrean larrak ikusten ziran. Orduan Joxe Migelek kantatutako bertso baten bukaera onela izan zan:

Auntz bat jaso zazute  
illabeterako,  
bapo gizenduko da  
dana jaterako.

*(Eusebio Igartzabal bertsolaria, Gabiria)*

\* \* \*

Aldi artan, Amuriza eta bera ziran bertsoan. Apaiz egin eta gero apaizgintza uzten zutenen kontua atera zuten, eta

onela kantatu zuan Lazkao-Txikik:

Gazte denboran Seminaiuan  
asko dirade sartuak,  
oiek sarritan izaten ziran  
aita ta amaren tratuak.  
Oaindik obeto gorde litezke  
kastidarezko botuak,  
Seminaiuan sartzerakoan  
moztu ezkeru .....

Aurrean zegoan ondarrutar emakume batek oiuegiñez osatu zuan falta zana. Ondo gogoan gelditu zan Berriatuan bertso ori, eta Lazkao-Txikik ere sarritan komentatu oi zuan emakume arek esandakoa.

*(Joxe Lizaso bertsolaria, Azpeitia)*

## POLITIKA

Francoren denborakoa da urrengo au, Zaldibin gertatua. Alkate eta kontzejalak botaziorik egin gabe aukeratzen ziran garai artan.

Bazegoan gure artean kontzejal bat, juergista eta kirten utsa. Gurekin apaltzen ari zan, baiña guk esandakoekin asarretu egin zan.

Lazkao-Txikik onela kantatu zion:

Gaztetan kirtena zan,  
zartuta're berdin,  
gauza formalik onek  
iñoiz ez du egin.  
Kontzejalen lekua  
ongi bete dedin,  
gizon formalagorik  
ez al zan Zaldibin?

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Lazkao-Txiki, festa batzuetan agintariren baten ondoan zan. Au errespetoa jartzea gustatzen zaien oietakoa, eta pixka bat edadetua. Baiña trago batzuk eginda eta errespetoa guk bezela ark ere.

Lazkao-Txikik onela kantatu zion:

— Zerbait aurreratuta  
egon arren urtez,  
zelebre antzekoa  
zaude nere ustez.

Zertan zabiltz orrela  
olako egun batez:  
errespetua galtzen  
jartzearen partez?

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Orain ogei bat urte inguru, Itsasondon, Eustakio Mendi-  
zabal *Txikia* zanaren omenezko saio batean, bukaera onela-  
tsu zuan bertsoa kantatu zuan:

Belengo Jesus izan genuen  
bizitza ematen lenengo,  
gaur, Itsasondo, zu jotzen zaitut  
Jerusalenen urrengo.

*(Rufino Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Beste au Ordizian izan zan, Tejeroren erasoaren ondoren.  
Lau oiñak onela jarri zizkioten: bero, ero, Tejero, egunero.

Eta Lazkao-Txikik:

Parlamentu aldean  
sartua zan bero,  
andikan kartzelara  
eramana gero.  
Langostinoak janez  
an dago Tejero,  
gu porru-patatakin  
orrenbeste ero.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*



## KANTU-LAGUNAK

Bein Idiazabala etorri ziran bertsoara Uztapide eta Lazkao-Txiki, eta au asi zan kantari:

Berriro ere zuen artean  
kantari emen nazutela,  
San Blas txikiak gaur ere txuri  
azaltzen digu txapela.  
Goizean otza zegoan baiña  
au da eguzki epela!  
Lendabiziko danoi egun on  
Jaungoikoak deizuela.

Uztapidek:

Ez da elurra emen bakarra,  
iñun e ez dago lurmen;  
ezin liteke esan ekaitza  
bakarrik dagonik emen.  
Negu beltzean bizi gerala  
ez al da ondo nabarmen?  
Garai txarreko festak egiten  
dira Idiazabalen.

Lazkao-Txikik:

Elurra dago goiko mendian,  
berdin beko sakonean,  
bota egiten baitu ordua  
iritxitzen zakonean.  
Idiazabalko festa auek ez  
dirala garai onean,  
festarako ez da garai txarrikan  
gogo ona dagonean.

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Bein batez, Lazkao-Txiki, Koxme Lizaso eta Joxe Agirre bertsolariak Tolosan ziran. Koxmek Lazkao-Txikiri bere seigarren semeak berak baiño geiago pisatzen zuala esan zion. Eta Lazkao-Txikik:

Koxme au ere preparatu zait  
albotik arro antxian,  
erabaki bat eman nai nuke  
eta denbora gutxian.  
Esango'izutet nolakoa dan  
eta au nola bizi'an,  
beiak antzu ta andrea ernari  
gizon alperren etxian.

*(Joxe Agirre bertsolaria, Azpeitia)*

\* \* \*

San Juan egun batean, 1960 urte inguruan, Urretxuko Santa Barbara ermitan, Txomin Garmendia eta Lazkao-Txiki bertsotan ari ziran.

Garmendia ordurako kalbotuta zegoan. Onen terrenoak illargiak garaiz jo zituala eta orrela asi zitzaion Joxe Migel. Baita ere: "illargia ikusteko ez dago urrutira joan bearrik".

Garmendiaren erantzuna:

— Gizona kalbotzen da; astorik ez.

Eta urrena Lazkao-Txikik:

Garmendiari erantzuteko  
zeozer badaukat prestu,  
orretarako bidea berak  
puska bat baitit erreztu.  
Aundi samarra esanagatik  
kopetik etzazu beztu,  
astorik ez da kalbotzen baiñan  
meloiak illerik eztu.

\* \* \*

Bein, bertsoan alkarren berriak ematen ari zirala, onela esan omen zion Lazkao-Txikik Mañukorta bertsolariari:

Aston gaiñetik eroritako  
pulpa-zakua dirudi.

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Ataun)*

\* \* \*

Ordizin, estazio aldeko taberna batean, Etxaluze eta biok Txikiarekin giñan batean, au bertsoarako amorratzen, eta guk animo aundirik ez. Onela bota zuan:

Betiko izan bagiña  
mundu ontan utse,  
baiña il bear eta  
zakurraren putze.  
Bizi geran artean  
jardun ber zeoze,  
asi zaitetzte Goiburu  
eta Etxaluze.

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Zubietan, beste bein, Amuriza eta biei gai au jarri nien:

— Usai txar bat zabaldu da, eta orren errua elkarri botatzen diozute.

Lazkao-Txikik onela bukatu zuan bere bertsoa:

Ez al dezute artzen  
intzentsu-usaia?

\* \* \*

Batean, bederatzi puntuko bertso bat kantatu zuan batek, potoak eta danak libre artuta; eta Lazkao-Txikik ari:

Oi da pulamentua  
lanari ekinda,  
zelebrea ziñala  
len e banekin da!  
Bederatzi puntuan  
laukoan ezinda,  
ez baitizu ajolik  
potoak eginda.

(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)

\* \* \*

Oiartzunen izan zan beste au, Uztapide, Manuel Lekuona edo olakoren baten illetaren ondoren. Jose Lizaso, Agirre eta Lazkao-Txiki bertsotan asi ziran. Lizasok, bertso batean, mezak ateratzeko milla duro eman zituala esan zuan. Txikiaren urrengo bertsoaren azken puntuak onela izan ziran:

Bost milla pezta danen aurrean  
ortxe bota dituzu *pun!*  
Bilbaotarra izan baziña  
dana barkatuko nizun.

(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)

\* \* \*

Urrengo au orain bi-iru urtekoa da. Irurak bertsotan ari zirala, Joxe Migel maisu eta Mendizabal eta Peñagarikano ikasle jarri zituzten. Lazkao-Txikiren eginkizuna, bi ikasleetan tontoena zein zan agertzea zan. Peñagarikanok onela esan zuan bertso batean:

Zer da katettoa ta  
zer da hipotenusa?

Joxe Migelek nola edo ala erantzun zion. Urrengoan berriro Peñak:

Zein ote da *mil tres-en*  
raiz kuadradoa?

Eta Txikiak onela erantzun zion:

Bere ustez eman du  
arrazoi sakona,  
apur batez aztertzen  
nazute egona.  
Ondo pentsatuz gero  
ez da orren ona,  
jakinda datorrena  
ez al da tontona?

\* \* \*

Amurizari esana, bizarra utzi zuala eta:

Apaizgintza utzi eta orain  
kaputxino sartu al aiz?

\* \* \*

Uztapideren entierorakoan, Mitxelenaren etxe aurrean gelditu zan gure Joxe Migel, andik illetara aren kotxean eta alkarrekin joateko.

Irteerakoan, Mitxelenak beatza atean zuala, Lazkao-Txikik atea itxi. Aberi aundi samarra egin bear izan zion.

Andik illabete baiño leen, Oiartzungo irakasleak egin zuten bazkari batera biak eramán zituzten, eta gai orrek irten bear izan zuan.

Lazkao-Txikik:

Gizajoari ara zer kaso  
sarri gertatzen zaizkion,  
Uztapideren entierruak  
on asko egin etzion.

Azkazal ori moztu gabea  
zun urtebete ta geion,  
pixka batean ez da aziko,  
ondotik moztu bainion.

Mitxelenak:

Gizon aundian bearrik ez da  
oker aundiak eiteko.

Lazkao-Txikik:

Zertako jarri zendun beatza  
atea itxi baiño len?

Mitxelenak:

Onek nai zuan Mitxelenaren  
atzapar pizar ok autsi,  
Uztapidentzat nork egin zuen  
nik ainbeste penitentzi?

Lazkao-Txikik:

Zuk badakizu: zure kotxeko  
atea itxi nai nuan;  
ori pasea pentsatu zazu  
neu naukazula damuan.  
Onek beatza tartean sartu  
nik bultzatu nun orduan,  
atea etzan ondo itxiko  
burua sartu bazuan.

Mitxelenak:

Nere kotxean eraman nuan  
lagunai eitetik ondo,  
jakin banun zer egingo zuan  
etzan nerekin joango.

Lazkao-Txikik:

Zure etxean kotxe aundia  
ta zurekin joan nai nuan,

baiñan ez nuen atea itxi  
ori egiteko asmuan.  
Parrez lertutzen egondu nintzan  
elizan sartutakuan  
*auto-stopa* egiten zuan  
frantzesaren ematen zuan.

\* \* \*

Bein, Urepelgo jaialdi batetik bueltan, Xalbador il eta urrengo urtean bearbada, Oiartzunen gelditu giñan, *Atamitx*-en, Mitxelena bertsolariaren jatetxean alegia.

An geundela, gu an giñala jakingo zuan eta Lexoti azaldu zan. Beti bezela, Mitxelenari erasoka asi zitzaion; baiña onek ez omen zuan nai izaten bere etxean Lexotirekin kantatzerik.

Alako batean, Lazkao-Txiki asi zitzaion erantzuten. Saio luze eta gogoangarria egin zuten. Baiña, tamalez, ez genduan jaso. Nik bertso aietatik bi bukaera auek besterik ez ditut gogoan:

Lexotik:

Nere milloiak kontatutzero  
Kajarrosera jun zaite.

Eta Joxe Migelek:

Irabazi ta berealaxe  
gastatzen ditu guziak,  
milloiak ere badauzka baiña  
pagatu gabe utziak.

(Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano)

\* \* \*

San Isidro egun batean, Errenteriko Zamarbiden kantatu eta gero, bazkaria Frantzilla-berrin izan genduan, Patxirenean.

Bazkalondoan an etorri zitzaigun Zamarbide bertsolaria. Onek egundoko karrasiz kantatzen du. Batean an ari zan zigarroa egiten, esku batean tabakoa eta bestean papera zuala; eta Txikiak onela kantatu zion:

Zamarbide, ez egin  
ainbeste zarata,  
nere belarrientzat  
mingarria da ta.  
Kolore gorria ta  
zilborra galanta,  
etzait asko gustatzen  
dadukazun planta.

*(Gregorio Larrañaga, Mañukorta bertsolaria, Markina)*



## TXIKI-KONTUA

Bein batean, biak alkarrekin bertsotan ari zirala, onela esan omen zion Lazkao-Txikik Lasarteri:

— Goazemak emendik igesi,  
ea i gizentzen aizen eta ni azi!

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Atauri)*

\* \* \*

Beste bein, Agirre eta biak txiki eta aundi-kontuan ari ziran bertsotan, Agirrek onelatsu bukatzen zuan bertsoa kantatu zion:

Benenoa re frasko  
txikitan saltzen da.

Lazkao-Txikiren erantzuna:

Urrea zakuka saltzen  
ik ikusi al dek?

*(Jose Antonio Goikoetxea, Armuño, Atauri)*

\* \* \*

Sei bertsolari omen ziran nunbait ere; eta Mattin eta Lazkao-Txiki, biak alkarren ondoan. Beti txiki-kontua ateratzen zioten besteak, eta Lazkao-Txikik onela kantatu zuan:

Mattin da ni juntatzean  
alkarren ondora,  
beti txiki-kontua  
dakarte gogora.

Baiña laguntza eske  
ez joan inora,  
oiek ainbeste gera  
bekokitik gora.

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Idiazabalen Mitxelena eta biak bertsotan ari zirala, ura erabat eztarria itxita ari zan, aldian bein karameloa janez. Saio luzea eginda zeuden biak ere ordurako. Alako batean au kantatu zion Txikiak:

Zelebrezkoa ez al da nere  
lagun onen deadarra?  
Aspalditxoan emen ari zait  
nondikan joko adarra.  
Baiña oraintxe etzaio jarri  
ia eztarri edarra,  
lepo lodia daduka baiño  
ueko txiki samarra.

Mitxelenaren azken puntuak onela izan ziran:

Alde ederreko gorputza det ta  
alde ederreko lepua,  
zuk dezun ori dana ainbeste  
bada nere uekua.

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

1963 edo 1964 urte inguruan izango zan. Uztapide, Basarri, Lasarte eta Lazkao-Txiki ziran. Egundoko saioa egin zuten, Atxukarro gidari zutela. Azkenik, lauak puntutan asi ziran, eta bertso bat onela osatu zuten:

*Bas.:* Orion gelditu naiz  
palierra autsita.

*Uzt.-* Neu ere tristetu naiz  
ori ikusita.

*Las.-* Berandu beñik ere  
zera iritxita.

*Laz.-* Ara zer gertatzen dan  
geiegi azita.

*(Nikolas Zendoia bertsolaria, Aia)*

\* \* \*

Badu Lazkao-Txikik bertso bat, neri berebiziko zirrara egiten didana. Poto da, baiña pota eta guzti ere bertso bikaiña. Nik entzun dedanez, Ormaiztegiko Bixente Mujika *Etخابuru*-rekin ari zan. Gorputzaren neurria bein baiño geiagotan aitatuکو zuten, eta oietako batean Joxe Migelek onela esaten dio:

Nik ez dadukat beste errurik;  
ez nintzan azi gazterik;  
eta geroztik ez det entzuten  
txiki-kontua besterik.  
Egiz aundia dan arek ez du  
bein ere aundi-usterik,  
zu're etzera gu baiño geio,  
lur-pusketa bat besterik.

*(Rufino Iraola, Zaldibia)*

\* \* \*

Beste batean, soziedadean afari bat izan zan, eta jendea bero-bero eginda zegoan. Lazkao-Txiki bertsoan ari zan, inguruan zituen ezagunei bakoitzari zegokiona kantatuz. Baiña aundi samar bat, txikia eta kaskarra zala esaten ari zitzaion Lazkao-Txikiri. Onek:

Sasoi ederra dadukazu ta  
iristen zera indarrez,  
alde ortatik zu gaillendutzen  
edozeiñek ez du errez.  
Eguzkiaren pareko zera  
bikaiñez eta ederrez;  
baiña guztia or bukatzen da,  
ortik aurrera ezer ez.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Ordizin, puntutan ari zirala, Sebastian Lizasok kantatu-  
tako bertso baten bukaera onela izan zan:

Bi botilla artean  
baso bat diruri.

Eta Lazkao-Txikik, onela bukatzen zuan bertso batekin  
erantzun zion:

Bi botil uts baiño obe  
baso bat betea.

*(Rufino Iraola, Zaldibia)*

\* \* \*

Lasartek onela kantatu zion bein batez Joxe Migeleri:

— Lazkao-Txikiak ez du  
gizonaren taillik...

Joxe Migelek aurreko bertsoan zorrotz samarra bota  
nunbait, eta aren erantzuna izan bear zuan orrek.

Txikiak onela erantzun zion:

Nere lengoagatik  
artu al dek zaputz,

arkitzen aizelako  
mamietatik uts?  
Jan ezin baldin badek  
janari egin bultz,  
naio nitek baneuka  
ik ainbeste gorputz.

*(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)*

\* \* \*

Gaia eman zieten: Lizaso zan zezen aundietakoa; Lazkao-Txiki, berriz, betizu edo larre-bei oietakoa. Bertso bat onela kantatu zuan Joxe Migelek:

Txikiak ere badu  
makiña bat ditxa,  
ta aundia izan leike  
simaorra ta sitsa.  
Atereagatikan  
izerdi ta pitsa,  
makurtzen ez bazera  
alperrik zabiltza.

*(Florentino Goiburu bertsolaria, Idiazabal)*

\* \* \*

Nunbait ere Lazkao-Txikik kantatua:

Txikia baldin banaiz ere nik  
sarri entzuten det ara,  
oraintxen ere sartu zerate  
zuek bide orretara.  
Zentimetroen aldea dago  
neregandik oetara,  
eta gizona ez al da neurtzen  
okotzetik kopetara?

*(Joxe Agirre bertsolaria, Azpetitia)*

\* \* \*

Tolosako txapelketa bat irabazi nuan batean, bertako *Zeru-Txiki* tabernan giñan bazkaltzen. Berrobiarrak geiago ere baziran.

Nik kantatu izango nion Berrobi txikia zala, baiña ez geneukala saltzeko.

Lazkao-Txikik emandako erantzunaren azken bi puntuak onela izan ziran:

Zuen erria izan bear du  
mapan azaltzen ez dana,  
Berrobiri're gertatzen zaio  
neri gertatzen zaidana.

*(Txomin Garmendia bertsolaria, Berrobi)*

**PAPEREAN JARRITAKO  
BERTSOAK**

## ARANTZAZUKO AMARI

Arantzazuko Ama maitea,  
 agur nai zaitut kantari,  
 agertu naiaz zureganako  
 detan maitetasun ori.  
 Zuri ainbeko arretarikan  
 ez diot beste iñori,  
 nola zeran zu gure Ama ta  
 Euskal-Erriko Zaindari,  
 poz-atsegiñez jaso nai zaitut,  
 maite zaitudan Ama ori.

Oldozten nuan gure Amatxo  
 samintasunez zeundena,  
 egin bitarte auen artean  
 zebilkizun asmo ona.  
 Lenagokoa txikia zan da  
 aundia bear txadona,  
 oraingotikan egingo degu  
 aundia eta sakona;  
 jakin badala beste seme bat  
 laguntza opa dizuna.

Orain bete da zuri benetan  
 lagundutzeko eguna,  
 sinistu zazu laguntza ori  
 ziñetan opa deguna;  
 eta ori da seme on batek  
 bear dun eginkizuna,  
 biotz-biotzez eskeñia da  
 orain agintzen zaizuna,  
 gure aldetik egingo degu  
 guk egin dezakeguna.



Gorde gaitzazu, Ama on-ona,  
gau eta egun onduan,  
gu utzi eta etzaitez beintzat  
oso urrutira juan;  
lagun zaiguzu zuzen ibiltzen  
gauden bitarte munduan,  
gero zuregan artu gaitzazu  
eriotzako orduan,  
egunen batez ikus gaitezen  
danok zurekin zeruan.

*Aranzazu, 1952.*

## ILLOBA MARTIÑARI DONOSTIRA

Lazkaumendi 10-4-1964

Gaur irekiñ natxion,  
illoba Martiña,  
ni bezela txikia  
bañan oso piña.  
Oraingoa ez diñat  
berri atsegiña:  
eskubiko anka ontan  
artu diñat miña.

Anka ieltsotuta  
natxion etxian,  
iñora eziñ jua  
ta ezin etsian.  
Festak baño lenago  
au kendu ezian,  
etzegon gauza onik  
aurtengo urtian.

Festak bazetozten da  
preparatu ari,  
azitzen emen zeuden  
bi arkume guri,  
ta aurten izango den  
naikua janari,  
nai baden konbiatu  
Azpioleari.

Joxe eta Juakin  
eta Luix Mari  
gorriñakiñ irurok  
egon ditun larri.  
Bañan berriro ere(1)  
ongi ditun jarri,  
danak pozetan zeuden  
festak noiz etorri.

Aita goldean eta  
Felipe lanian,  
ama ate pintatzen  
etxean danian.  
Amona su onduan  
ia geienian,  
kafe errotarekin  
erdi armonian.

Luis Mari eskolan,  
Jose ta Juakiñ,  
Migel Anton ere bai  
serio eta piñ.  
Enkargu bat ik eman  
Mari Trinirekiñ,  
oraiñdikan apenas  
omen duen egiñ.

Ta orain eskumuñak  
nagusi jaunari,  
etxekoandreari ta  
neska lagunari.  
Eta beste pa bana  
neska-mutillari,  
eta i, Martiñatxo,  
aizkenean iri.

Euskera garbian ez dizkiñat jarri ik obeto entenditzeko.

Beste gabe agurtzen aut; ire osaba:

*Jose Migelek*

---

(1) Esku-idazkian: bañan berriro re.

## ARALAR MENDIAN NABILLELA

Ala bear ta mendi ederrak  
badira Euskal-Errian,  
oietako bat Aralar degu  
beste askoren artian.  
Udaberriko egun batean  
egun argitzen astian,  
politagorik ez dakit ote  
dagoen mundu guztian.

Eguzkiaren sortze orduan  
zerua garbi dagola,  
mendi artetik an azaltzen da  
mundu guztiko farola,  
argitutzera ainbeste erri,  
bertako zenbait txabola;  
une aretan ez leike esan  
bat zeruan ez dagola.

Birigarro ta txoriak berriz  
an asten dira kantuan,  
artzai bat dator txistua joaz,  
txakur bat dakar onduan.  
Nagusiari begira dator  
ark zer aginduko duan,  
janaren ordain morroi oberik  
ez da egongo munduan.

Saroi ondotik ardiak goruntz  
zabaldu dira larrera,  
oientzat ere pozgarria da  
egunaren etorrera.  
Punta berrian pozik dabilta  
batera eta bestera,  
negu beltzean zuten ametsa  
oientzat orain bete da.

Ollarra ere kukurrukuka  
dago txabola-atean  
nagusi jauna artoarekin  
noiz azalduko ote'an,  
olloak eta ollandatxoak  
arturik bere menpean;  
estuagorik egon liteke  
beko granjaren batean.

Errekaz ango pago azpian  
bei gorri bat da larrean,  
idia zala uste nun bañan  
txaal bat badu urrean.  
Ez da esneak burura jo ta  
galdutzeko bildurrean,  
idian antza geiago dauka  
errape ta muturrean.

Moxal polit bat saltoka dabil,  
badu jostatzeko gaita;  
ama an dauka aruntzagoan,  
ez dakit nun duen aita.  
Amak irrintzi egiten dio  
ondora ekarri naita,  
nunbait abere artean ere  
ama beti ama baita.

Etixeratzeko orduan nago,  
etxera itzuli bear,  
luzaro gabe berriro ere  
topatu gindezke alkar.  
Bañan joan aurrez besarkada bat  
zuk nai bazenduke ar,  
torizu eta beste bat arte  
agurtzen zaitut, Aralar.

**ZEGAMA**

Gure zaindari zaitugu eta  
 zaudena zero goietan,  
 otoizka nator egun on batzuk  
 zuri eskatu naitetan.  
 Lañoak eta euriak gorde  
 itzazu egun oietan,  
 giro eder bat izan dezagun  
 San Bartolome jaietan.

Mendi eder bat aurrean tente  
 gudari baten antzera,  
 esan nai nuen gudari ori,  
 Aitzgorri maite, zu zera.  
 Alde ederra badago zure  
 alde batetik bestera,  
 zuk zaintzen dezu Zegama eta  
 zuk zaintzen dezu euskera.

Gizon argiak ere baditu  
 gure Zegama kutunak,  
 seme-alaba berdin gabeak  
 ta benetako lagunak,  
 bide zaintzalle jatorrak eta  
 mikelete euskaldunak,  
 lenago izan genitugunak  
 ta gaur bear ditugunak.

Sukalderitzan okela jartzen  
ere badaukagu fama,  
itzuli gabe ez da gelditzen  
beñ emen izaten dana.  
Ta aurten ere izango degu  
zer edana ta zer jana,  
ate guziak idiki eta  
zuen zai dago Zegama.

*(Guipúzcoa, 81, Gipuzkoako  
Aurrezki Kutxaren argitalpena)*

## KUKOXUARI

Nik esan bearrik ez du iñork *Bordari* nor dan jakiteko, batez ere euskerazko olerkiak irakurtzeko zaletasunik baldin badu; bera bait dugu euskal olerki lanetan goien mallako bat.

Gizon aundia dugu, baiña txikiekin ere ez da beiñ ere aantzi, eta uste dut ori dalako ere aundiago dala. Bestetik, umorez betetako gizon serio bat dugu; eta orain, negarrezko erbeste ontan beti negarrez egon ez gaitezen, egiñ du liburu polit bat kukoxoari buruz, irri pixka bat egiñ dezagun.

Kukoxoak ere aspaldi ontan ez omen dira konten; dalako orrenbeste garbi-tresna eta *detergente*, bizitza zaildu omen zaiote. Baña oraindik bada arro xamarren bat ta ara bertsoetan zer dion:

Besteren andreakin  
 bart egon naiz lotan,  
 edozeiñ tokitara  
 an nitzan saltotan;  
 eta gero asi naiz  
 jostatu asmotan,  
 trabak billatu ditut  
 alanbre askotan,  
 naiko pekatu badet  
 mandamentu ortan.



Aserre dut andrea  
ta, argiak piztuz,  
beatz-muturrak ere  
busti ditu txistuz.  
Nere billa asi da  
aiñ amorru itxuz,  
arkitu naizenean  
alako arriskuz,  
laister izkutatu naiz  
edozein txirristuz.

Odola baldin bada  
ona ta goxua,  
ura zurgatzea da  
nere arazua.  
Gizasemea baño  
naigo dut atsua,  
lorik gabe pasatu  
bear gau osua;  
ni onelakoxea  
nauzu kukoxua.

## LAZKAOKO JAIK

Udaberria etorri zaigu  
soiñeko berriz jantzirik,  
negu beltzaren luto illunak  
alde batera utzirik.  
Ez da ixilik dagon xoxorik,  
birigarro ta txoririk,  
gu ere ezin ixilik egon  
oiek orrela ikusirik.

Egunsentian esnatzen gaitu  
txorien kantu alaiak,  
gure sudurrak gozatzen ditu  
lore politen usaiak.  
Zuaitzak osoz berritzen doaz,  
belarrez mendi, zelaiak,  
edertasun au berekin dute  
gure Lazkaoko jaiak.

Kukua ere kukuka dabil,  
kirkir ari da kirkilla,  
pestetarako jantzi berriaz  
prestatutzen neskatilla.  
Zer ote degu udaberria,  
zer ote da apirilla?  
Izadi dana esnatu zaigu  
bizi berriaren billa.

Bizi berri bat eman deigula  
udaberriko garaiak,  
umore onez ibil gaitezen  
arreba eta anaiak.  
Illuntasuna alde bat utzi,  
igaro egun alaiak,  
olakoxeak nai nituzke nik  
gure Lazkaoko jaiak.

*(Deia, 1982-IV-28)*

## SAGARDOA

(1982)

Bere *La sidra* izeneko liburuan azaltzeko, *Sendoa* argi-taldariak eskatuta egiñak.

Al dan ongien eman nai ditut  
sagardoaren berriak,  
nik nere baitan uste dedana  
jakin dezala erriak.  
Beste edari oberik ez du  
gizonaren egarriak,  
bedeinkatuak gure sagasti  
eta sagardotegiak.

Garai batean sagardoa zan  
bertsolarien edari,  
lagunartean bildutakoan  
edan oi zuten ugari.  
Gero ixilik egon ezin da  
asitzen ziran kantari,  
edari onek berea baidu  
alkartasun jator ori.

Udaberrian joaten bagera  
sagardotegi batera,  
basoak artu eta lerroan  
kupeletik kupelera.  
“Au ona dago, ta beste ori  
au bezin ona ote da?”  
Probatutzeko asmoan joan ta  
bapo eran da etxera.

Goitik botata goxoago da  
ongi atereaz pitsa,  
ta giltxurdiñak garbitzen ditu,  
xamur egiten da pixa.  
Umore ona piztu arazi  
eta luzatu bizitza,  
obe genduke sagardo geio  
erango baldin balitza.

## ARANTZAZURA ERROMES

### I

(1985)

Ongi etorri lendabiziko  
betiko oitua onez,  
talde ederra alkartu gera  
emakume ta gizez.  
Besterik zer da gauza oberik,  
erabakia zegonez,  
otoitz egiñaz Arantzazura  
juatea baiño erromes?

Jaungoikoaren seme-alabak  
Kristogan gera ezagun,  
begira zagan urkoarengana  
gorrotorik badaukagun.  
Batak besteai barkatu eta  
berriro gaitezen lagun,  
ortarako da urte au eta  
aprobetxatu dezagun.

Ainbeste maite gaitualako  
Jainkoak Seme ber-bera  
gizon egiñik biali digu  
zeruetatik lurrera.  
Maitasun oni egin deiogun  
merezi duen arrera,  
bestela gure erruagaitik  
betiko galduko gera.

Jaunaren seme-alabak gera,  
beregana nai gaitu artu,  
naiz ta guk bera iñoiz samindu  
edo-ta egin pekatu.  
Gogor artuko gaituela ta  
ez gaitezela kezkatu,  
gaizki egiñak damutu eta  
barkazioa eskatu.

Danik semerik gaiztoena're  
semea zaio Aitari,  
mundu illun au ipiñi dio  
gerokoaren atari.  
Naiz ta etxetik aldegin iñoiz  
edo izan pekatari,  
bere besoak zabaltzen dizka  
gero damutzen danari.

Geroko zerbait nai degun denok  
saia gaitezen lanean,  
pentsatu denok lur illun ontan  
gabiltzala jornalean.  
Sari eder bat jasoko degu  
bizitz onen azkenean:  
zoriontsuak izango gera  
Jaunaren aldamenean.

## ARANTZAZURA ERROMES

### II

(1985)

Pekatarion Ama  
dago Arantzazun,  
orregatik erromes  
ara nai degu jun.  
Jesusek sari on bat  
irabazi zigun,  
arren eskatzen degu:  
Egiguzu lagun,  
ea sari on ori  
guregantzen degun!

Gure Ama maitea  
arantzako Ama,  
Jesusi jaio aurrez  
tokia emana  
Espiritu Santuan  
ontzia izana.  
Ezin esan det, Ama,  
senti dedan dana,  
zure maitasun ori  
bidal guregana.

Arantzazun azaldu  
ziñaden urtean,  
Euskalerra geiena  
zegen gerratean,  
gaiñera gaur bezela  
anaien artean.  
Artu gaitzazu, Ama,  
zure magalean,  
eta berriro jarri  
gaitzazu pakean.



Zeure oiñetan artu  
zenduen arantza,  
guri adieraziz  
bizi onen antza.  
Alde guztietatik  
ibilbide latza,  
ori da penitentzi  
guztien ardatza,  
leguna izan dedin  
betiko baratza.

Ama maitea, nola  
geran pekatari,  
aitortuta nai degu  
garbiturik jarri;  
al baldin bada, Ama,  
zu bezela txuri,  
lorez apaindutako  
etxeen iduri,  
tokia prestatzeko  
zure Semeari.

Zu zera gure Ama  
eta gurasoa,  
egun batez Jesusek  
beregana jaso.  
Iñoiz utzitakoan  
emengo auzoa,  
zerura izango da  
urrengo pausoa,  
an alkartuko gera  
fameli osoa.

## **ARTZAIA**

**(1986)**

Menditarra naiz eta gogoan  
beti izan det artzaia,  
eta badaukat bere bizitza  
pixka bat berritu naia.  
Ardiak ditu bere lagunak  
nola aste ala jaia,  
orixe degu guraso zarren  
bizibideen sustraia.

Gure aurreko guraso zarrak  
Euskal-Errian aurrena  
eiza zutela bizibidea,  
eta artzantza urrena.  
Ola da beintzat orain arteko  
istoriak dakarrena:  
artzantza zala euskaldun zarren  
bizibiderik zarrena.

Orain bi milla urteko gauzak  
berritzen asten bagera,  
orduan ere artzaiak bizi  
ziran oraingo antzera.  
Arkume batzuk lepoan artu,  
saltoka Belen aldera,  
lenen artzaiak iritxi ziran  
Jesus ona agurtzera.

Gizonarentzat bizitza latzik  
baldin balego munduan,  
iruditzen zait artzaiarena  
izango dala neguan.  
Ardi-larreak elurrarekin  
estaltzen diran orduan,  
esaten zail da artzai maiteak  
zenbat sufrituko duan.

Ardi batzuek ume-miñetan,  
trumoia ta kazkabarra,  
oia utzi ta ardiengana  
derrior jeiki bearra.  
Ura ardien marrua eta  
ura arkume-negarra!  
Dudan jartzen naiz kartzela ere  
ote leiken orren txarra.

Goiz ta gauetan ardiak jetzi,  
eta ondoren larrera,  
ille aundiko zakur zatar bat  
doa barruti-ertzera.  
Barrutiaren ertzean dabil  
batera eta bestera,  
erositako barrutitikan  
iñor ez dedin atera.

Txakur gaixoa pin dabil baiña  
mugan ezin errenditu,  
naiz ta tartean ardi batzuek  
anketatik erren ditu.  
Nagusi jaunak ikusi nai ez,  
txakurak ezin gelditu,  
danik artzairik onenak ere  
pikardi oiek baditu.

Negu guztia igaro dute  
 udaberrira begira,  
 dunbak erantsi ardieri ta  
 badijoazte mendira,  
 emen ainbeste alanbre eta  
 muga ez dagon tokira.  
 Artzaiarentzat zorion edo  
 egun onenak an dira.

Garagarrilla inguru edo  
 berotzen asten danean,  
 beren ardiak mozten dituzte  
 mendiko auzo-lanean,  
 euren artean zaputzik edo  
 aserre ez daudenean,  
 alkartasuna aundia baita  
 mendian eta kalean.

Dibertitzeko aukera asko  
 ez dadukate gaztetan,  
 dantza-tokia berdiña baida  
 igande edo astetan.  
 Iñoiz etxolan aste osoa,  
 illabetea bestetan,  
 azkenerako ia bakarrik  
 asi bearko izketan.

Amets egiñaz ikusi bear  
 Benidorm aldeko plaiak,  
 baiñan mendiak ere baditu  
 toki polit ta alaiak.  
 Ardiak antzu gelditutzean  
 gure mendiko anaiak,  
 ortxen dituzte urte guztiko  
 oporraldi edo jaiak.

Artzaien bidez ornitzen dira  
jatetxe askotan maiak,  
izanez ere onak baidira  
ematen dituzten gaiak:  
zikiro eta arkume goxo,  
gaztanbera ta gaztaiak...  
Geiago maite bear ginduzke  
ardiak eta artzaiak.

*(Argia, 1986-IX-14)*

## KANDELERO ETA ERRAMU-EGUNA

(1987-IV-27)

Otsaillaren bigarren  
izan oi da Kandelero,  
negu erdian nola datorren  
zalla da izaten bero.  
Bañan guraso zarren antzera  
ziñez sinistu ezkerro,  
fedean dago berotasuna  
lenago, orain ta gero.

Kandelario goiz batean bein  
aurtxo nintzala amari  
galdetu nion: "Zer dalako gaur  
ataria orren txuri?"  
Erantzun zidan: "Zeruko Aitak  
bart jarri du zapi ori,  
apaintasun bat ematearren  
Kandelero egunari".

Garai artako gauza geienak  
oraindik dauzkat goguan:  
kandela batzuk artuta ama  
eliz aldera zijuan;  
gero kandelak bedeinkatu ta  
andikan etxerakuan,  
aren fedea berotasunez  
elurra urtutzen zuan.

Garizumaren azken aldera  
degu Erramu-eguna,  
Jerusalenen Jesus sartzea  
adierazten diguna,  
Guk erramuak bedeinkatzera  
eramaten dituguna;  
fedea duen guztientzako  
badauka laguntasuna.

Suari bota oi geniogun  
ekaitza zetorrenean,  
gurutzak ere egin oi ziran  
Santa Kurutz egunean.  
Kandela bedeinkatu tantoak  
botatzen zaio gaiñean,  
kredoak esan ta jarri gero  
leioetan da atean.

Baso ta soro, belardietan,  
egiten genduen berdin,  
gurutze bana zutik jarriaz  
bakoitza kredo banakin.  
Arri kazkabar eta tximistak  
kalte asko oi du egin,  
fede aundian jarri oi ziran  
ori gertatu etzedin.

**LAZKAOKO MAIZPIDE  
EUSKALTEGI BERRIARI  
(1988-III-25)**

Nere sorleku zeran Lazkao,  
bertsotan nator zugana,  
zu baizaitut nik nere sortze ta  
lenen argia emana.  
Kanpotik ere ainbeste jende  
etorri da zuregana,  
euskaldun berri askorentzako  
zu zera bigarren ama.

Gure Lazkao guk maite degu  
besteak baiño geiago,  
Urba-aundi ta Iramendiren  
bien babesean dago.  
Uso txuri bat kabi gañean  
baña askoz apalago,  
nere maitasun aundieneta  
agurtzen zaitut, Lazkao.

Euskaltegi bat ere badegu  
oraintsu eraiki berri,  
ori dalako albiste bat gaur  
nai dizutegu igorri,  
amaren bular edo seaskan  
ikasi ez zendun orri:  
bere ateak zabalik daude  
ta ikastera etorri.



## AUSPOA LIBURUTEGIA

(1991)

Asi Xenpelar, Pello Errota,  
Lasarte eta Basarri,  
Pedro Maria Otañorenak  
jende askoren pozgarri.  
Eta Txirrita aundiarenak  
ere nolatan ez jarri?  
Bertsozalea danarentzako  
badago zer irakurri.

Bertso-paperak ateratzea  
zan lengo oitura zarra,  
ta mingarria aien bertsoak  
aizean galdu bearra.  
Zure *Auspoa*-ri eskerrak,  
itzal zori zan txingarra,  
aize ta aize jardun ondoren  
berriro badauka garra.

Orgullo aundiz aitutzen degu  
nunaitan Aita Zabala,  
euskal kulturaren gordetzaille ain  
leiala eta apala.  
Gure erriko bertsoak zaintzen  
egin dezu egiñala,  
esango nuke zu bertsolari  
guztion aita zerala.

Lengo karlisten bertsoak ere  
 bildu ditu an da emen,  
 orduan ere anai arteko  
 gerrak izaten zituzten;  
 eta orduko bertso batzuek  
 bilduta betoz lenbailen,  
 garai aietan gertatu zana  
 gaurkoak jakin dezaten.

Ettxerik etxe, erririk erri  
 egin dezu lan gogorra,  
 bai ongi asko azaldu ere  
 bertsolarien alorra.  
 Zure *Auspoa* lagun arturik,  
 ori da obra jatorra,  
 euskerak eta bertsolaritzak  
 badizu betiko zorra.

Arritzen gaitu Aita Zabalak  
 eginda uzten dun lanak,  
 galtzear zeuden ainbeste bertso  
 txukun jaso ditu danak,  
 paperetatik bilduak eta  
 lagunartean emanak,  
 gure izkuntza bizi dan arte  
 irakurriko diranak.

## BESTE ZENBAIT JARRI-ALDI

Liburuak oparitzeko eskatuz egindako bertsoak:

Ikasi edo jakite bidez  
dago baten nortasuna,  
ortan saiatu al degun dana  
da egin bear deguna.  
Gauz orren bidez argi liteke  
gure adimen illuna,  
orretarako liburu on bat  
genduke gure laguna.

Lagun jatorrik baldin badezu  
mesede egin dizunik,  
ez da egoki utzi bearra  
eman gabe erantzunik.  
Orretarako kontseju on bat  
emen ematen dizut nik:  
egiña dago Eguberritan  
liburu on bat emanik.

\* \* \*

Donostiko Amarako *Esparru* jatetxeko irikitze-egunean,  
1984-I-30-an, Lazkao-Txikik, jatetxe berri orren izenean itze-  
giñez moldatuak:

Lendabiziko artu ezazu  
nere ongi etorria,  
eta urrena kendu nai dizut  
gosea ta egarria.  
Ardoz badezu aukera dana:  
zuri, beltz eta gorria;  
zu serbitzeko dago *Esparru*,  
bezero maitagarria.

*Esparru* baten izenarekin  
egin naiz zure ostatu,  
iñor goseak edukitzerik  
etzait bein ere gustatu.  
Barruti ontan nai bazenduke  
jan, edan edo bazkatu,  
danetatikan badago eta  
bildurrik gabe eskatu.

\* \* \*

Donostiko *Juanito Kojua* jatetxearen firma-liburuan  
idatzia, an bazkaldu zuan batean:

Nere biotzak eskeintzen dizu  
daukan gauzik sakonena,  
liburu ontan gorde dezazun  
txiki baten oroimena.

\* \* \*

Donostiko Amaran dagoen *Bar Ñañarri*-rentzat egiña:

Gipuzkoarrik geientsuenak  
badaki non dan Goierri,  
ta an badegu mendi-tontor bat  
inguruko apaingarri.  
Zeruak ere muxu goxoak  
ematen dio gain arri,  
gudari zintzo baten antzera  
orra non dagon Ñañarri.(1)

\* \* \*

---

(1) Ñañarri edo Txindoki, mendi bera da.

*Goiherriko bertsolariak* izeneko diskoarentzat moldatutakoa:

Gipuzkoan alde bat  
badegu Goierri,  
andik alkatu gera  
amar bertsolari;  
itz au eman diogu  
guztiok alkarri,  
geroak jakin dezan  
gaurkoaren berri.

\* \* \*

Lazkaoko *Esparru* taldekoak, mendi gailurra igo duten seiñaleztat, Lazkao-Txikiren bertso au idatzita dagoen txar-tela uzten dute:

Goizean jeiki oetik arin  
ase ondorenean loz,  
atera gera geuren etxetik  
mendiratutzeko asmoz.  
Bide luzeko neke guztia  
emen biurtu zaigu poz,  
zerua ere gertuagoan  
dagola dirudi askoz,  
bakarrik zauden mendi maitea,  
zu alaitutzera gatoz.

\* \* \*

Aralarpean dagoen Intxustiko iturrian idatzitakoa:

Aralarpeko babes batean  
nago paketsu ta ezti,  
ur gardenaren betiko otsa  
arturik nere abesti;  
Euskal-Erriko egarrituen  
edan-leku edo titi,  
artu, maiteok, nere laztanak,  
ezpaiñak nai ditut busti,  
ni bainaiz zuen mendiko ama  
maite zaituzten Intxusti.

\* \* \*

Ni nintzalako ara ta onuntz  
ibilli oi ziñan kin-kun,  
aingerutxo bat banitz bezela  
txintxo gordetzen niñuzun.  
Alde batetik amak kantatu,  
zuk bestetikan erantzun,  
gaur mintzo dedan euskera ere  
zuk erakutsi zidazun.

\* \* \*

Kontzientzitik kontzientzira  
orretantxe dago koska,  
kustidio da zuk pertsona bat  
jarri dezula trabeska.  
Zer axola du gizona bada  
edo baldin bada neska?  
Edonor dela biziak berez  
bere balio bait dauka.

\* \* \*

Ezbear batean ildako nexka gazte batentzat:

Idurretxu, aztu ezin,  
zu zindugun poz atsegin,  
gu emen utzi negarrez eta  
zertara joan zera urrin?  
Ille ori, begi urdin  
zeru sapaiaren berdin,  
orain, Idurre, jostatu zaitez  
zeruan aingeruekin.

Larraumendi 10-4-1964

Loba Martine

Donostia

Quia in hinc matricem  
Loba Martine  
in legola tibia  
brunus in pueria  
Graingraza in  
hinc a tibia  
a multibit ankauntan  
arta ariet muna

Anka ~~Salvatoris~~  
~~et in matricem~~ a tian  
in ora ezin juan  
ta ezin et sum  
fostat bina lenage  
ukonra sejan  
teyon gauza onit  
atage urtian

Festet Esyozozten da  
prepartu are  
ari ten emon zoudem  
bi arkume guri  
ta susten igangoden  
naidua janahi  
nai baiden combabi  
Azpiolacoi

Joxe eta Guakin  
 eta Guix Mari  
 goinakin irurok  
 egon ditun lari  
 lantian beriroso  
 ongi ditun jara  
 danak jozetan zeuden  
 festak moztu itoi

Guix Mari ezker  
 joxe ta guakin,  
 Boizel Anton erobai  
 serio eta pin  
 enkargu bat id, jema  
 Mari Errorekin!  
 araindikoa apas  
 emenduen egin

Aita goldetan eta  
 Felipe lantian  
 jema de puntatzen  
 etxean danean  
 armonia sei onduan  
 via zeinian  
 oge erotarenkin  
 erdi armonian

Eta orain esku mutur  
 nagusi jaunari,  
 Etxe koandore eta  
 neska lagunare  
 eta beste pa bama  
 ondu onduari;  
 eta xi Martiane tx  
 airgenoa iri

Euskera garbiam ez ditzin  
 jori ik obeto entenditzeko  
 Beste gabe agutzan aut, ire osaba  
 Joxe Boizel



Fernando Antolá'ri 1  
Bordari

Nik esan bearik es du inork "Bordari" nor san jakiteko, bater ere suskerako olerkiak iradurtzeko zaletasunik baldin bada; bera bait dugu susxal olerki lanetan goien analko bat.

Gizon aundia dugu baina tristekien er ez da bain ere aantzi, eta uste dut ori dalako ere aundiago dala. Bestetik umorez betetako gizon arko bat dugu, eta orain, negarretan orbeste ontan bera negares egun es gaitzen egun du liburu polittt bat kukoari buruz liru fixka bat egun deragun.

Kukoak ere ospaldi ontan ez omen dira konten, dalako orienbeste garbi trema eta deterfente, bizitza zaildu omenpeziote, baina orain dif bada arro xamarren bat ta ~~oro~~ bersoetan zer dion.

2

Berteren andreakin  
 bert egon naiz lotan  
 edozein tokitara  
 an nitzan saltokara  
 eta gero asi naiz  
 jostatu asmutan  
 trabak billatu ditut  
 alambre askotan  
 naito jekatu badet  
 mandamentu ortan

Aserre dut andrea  
 ta argiak pistur  
 beate multumak ere  
 bosti ditu kristus  
 nere billa aida  
 ain gromone itxiz  
 arkitu naizemean  
 atako arizkur  
 laister iskutatu naiz  
 edozein triarriata

3

Odola baldin bada  
 ona ta goxua  
 ura xurgatzea da  
 nere arazua  
 giza semea baiz  
 maigo dut atena,  
 larik gabe pasatu  
 biar ban osua  
 ni on lakoza  
 nautu kukoza

1 Kandeleko eguna

Oharillaren bi garrogea  
izan oi da Kandeleko  
negu erdian nola datorren  
zalla da izaten bero.

Bainan guraso zaren ontzera  
zinez leonistu ezker  
fedean dego berotasuna  
lenago olain ta gero

2 Kandeleko goiz batean bein  
aurtxo nitzala amari:

galdetu nion zer delako gaur  
bateria orren txuri?  
manten zidan zenuko aitak  
bort jardi du zapi ori.

apaintasun bat emate arren  
Kandeleko egunari

3. Garai arteko gaua gienak  
 orandik daukat gogoa  
 kandela batzuk ~~batzuk~~ ama  
 elie aldera zifoan  
 gero kandelak bederikatu ta  
 andikan etkerakoa  
 aren fedeak, bere tesan  
 ellura urfuzen zuan

---

4. Garizumaren asken aldre  
 dequ erramu eguna  
 Jerusalemen gero sartzea  
 adierarten diguna.  
 Guk erramuak bederikatu  
 erramaten dituguna  
 fede duen gurentzako  
 badauka laguntarune

---

5 Suari bota oi zenioqun  
 a kaitza zetozenean  
 gurutzak ere egin oi dira ~~berta~~  
 Santa Kurutz egunean  
 kandela bedinkatu tantak  
 botatzen zaió gáncan  
 Kredoak esan ta farri gero  
 leyoetan de otean

(6) Baso ta soro. Belardi etan  
 egiten zenduen berdin  
 gurutzet bane zutik farriaz  
 bakoitza Kredo banekin  
 arri/xarkabar eta tximistak  
 Salte asko oi du egin  
 fede aundian farri oi ziran  
 oi gertatu bez zedin

Euskara hiru bertsu

i. Peru herri berrak ziran Euskara  
 berriaren naber zurena  
 zu bai zaitut onk i. Peru herri berri  
 berriaren argia emanen  
 konpoteak ere aintzesteko jontxo  
 etorri da zure gona.  
 Euskaldun berri askorentzako  
 zu zera begarun gona

Euzko Euzkoak gutxi maite duzu  
 berriak berri zurena  
 Urbaundi ta Euzko mendien  
 berri berriaren dego  
 uzo berri bat fari gona  
 berri berri apalago  
 berri maiteak aintzesteko  
 maiteak zaitu Euzko  
 berri

Euzko berri bat ere berri  
 berri berri berri  
 berri berri berri berri  
 berri berri berri berri  
 berri berri berri berri  
 berri berri berri berri  
 berri berri berri berri  
 berri berri berri berri

1977-3-25

Lazkao-Euzko

Gendabiziko artu ezazu  
 nere ongi etarra.

eta lurra kondu nai dicit  
 gosea ta ezarria  
 ardor badaqu ankera dana  
 zuri beltz eta garria  
 zu sobietako dago Esparru  
 bezero mailagarria

Esparru beten izenarekin  
 ezin naiz zure ostata  
 inor goseak eduki zerik  
 etxat benera gustatu  
 garuti onten nai bazendeki  
 san edan edo bazkate  
 demetarik bada go eta  
 bildurrikgabe eskatu

Gazko-27-7-84

Ahiskide goakim

Emen baltsen diat Intzuskike  
iturriko bertsoa:

Arrelozpeko babes batean  
nago bakotzen ta ezti  
in landemaren betiko otra  
aurtenik nere abesti.

Euskalerriko egarrituen  
idan lexu edo titt  
eritu maiteak nere lastandak  
repanak nai ditut busti  
Ni bai naiz zuen mendiko ama  
maite zaituten Intzuskike

Azur goakim eta beste lagunak

Gazko-27-7-84



Ni nitzolako areta onutz  
 ibilli oizinan kin xun  
 aingerutxo bat barutz berla  
 txintxo gordetzen niamuzun  
 alde batek emak kantatu  
 zuk beste hikan erantzun  
 gaur nintzo de dan eskera  
 zuk erakutzi zidazun

K... ..  
 ... ..  
 ... ..  
 ... ..  
 ... ..  
 ... ..  
 ... ..  
 ... ..  
 ... ..  
 ... ..

**BAKARKA KANTATUTAKO  
ZENBAIT BERTSO**

## AMERIKETARA

Donostia, 1962-I-6.

Gaia: iru bertsoan kantatu bear dezu Ameriketara lan billa dijoan seme batek gurasoai eta senideai egiten dien agurra edo despedida.

Nere lagun maiteak,  
senide ta anai,  
laister nago barkua  
ara artzeko zai.  
Emen ezin bizi ni  
naiz bertan egon nai,  
juan baño lenagotik  
agur on bat danai.

Juaterako agurtu  
nai zaituztet danak,  
izan ere latza da  
damazkigun planak,  
emen utzirik geure  
aitak eta amak,  
baita ere jaiotzeko  
adiskide danak.

Agurtu nai ta au da  
gauz zalla dedana,  
jakin ezik Ameri-  
ketara nuana.  
Agur, aiskide zar da  
sorterri laztana,  
juaterako besarkada  
aundi-aundi bana,  
agur, biotz barrengo  
aita eta ama.

## NESKATXAK ATZERRIRA

Tolosa, 1962-II-3.

Gaia: dirua egin asmoz neskame atzerrira doan neskatxari bertsoak jarri, atzerriko bizimoduaren arriskuak azalduz eta ara ez joateko deadar bat egiñez.

Ez da ain gauza zoragarria  
gaurko mutillen peskisa:  
neskatxak ere beren erria  
utzi naiean dabilta.  
O, landareak, oraindik emen  
sortu liteke bizitza,  
bertan mutillak gauden bitarte  
zertako joan Parisa?

Alde ontatik atzerriruntza  
badijoaz zenbait gazte,  
ta bertakoak gelditu bear  
ez neska ta ez emazte.  
Guk egin bear gendukena da  
lenbizi lur on au maite,  
ondo saiatzen baldin bagera  
badago gutzat ainbeste.

O, neskatxatxo biotzekoai  
nai diet adierazi:  
nai dezutena da emendik juan  
eta kanpoak ikusi.  
Arren, faborez eskatutzen det  
ez joateko igesi,  
kanpoai lagun bear zaio baiñan  
etxea degu lenbizi.

## LEGORTEA

**Beasain, 1962-IX-30,  
Bertsolari-txapelketaren kanporaketa.**

Gaia: kanta zaizkiozu iru bertso aurtengo legorteari.

Legorteakin aldrebes xamar  
zebillen nekazaria,  
orren akatsez ia galdu zun  
urte guziko saria.  
Baiña Jainkoa nola degun guk  
merezi baiña obia,  
berandu benik ekarri digu  
premian gendun euria.

Gure Jainkua ain degu ona  
bere egintza danian,  
txarra probatu arazi digu  
sinis dezagun onian.  
Berak bakarrik daki ongien  
nun, nor ta zer komeni'an,  
arnas pixka bat eman du beintzat  
premian geundenian.

Auxen da gauzik txarrena gugan:  
emen guk euria falta;  
eske egiñak gera aspaldi  
zenbait otoitz eta kanta.  
Kaletar oek gu bezelaxe  
berdin-berdiñeko baita,  
otoitz dezagun eurian eske  
lurretik bizi gera ta.

## **SEME BAKARRAK BERE BURUA IL**

**Eibar, 1962-XI-11.**

Gaia: guraso batzuek seme bakarra dute, eta seme orrek bere burua il du.

Auxen da gaia zelebrezkua,  
badauzka zenbait maratil,  
aur bat daukaten guraso oiek  
ez dira biziko trankil.  
Ura azitzen saiatu dira  
arreta onez ta umil,  
itxaropen bat zeukaten eta  
ark beraren burua il!

Zer atsekabe bere burua  
ondatutzeko dagonak,  
izanik bere guraso oiek  
oso txintxuak ta onak!  
Gaiñera ez du bera iltzeko  
eskubiderik gizonak,  
bere garaian kenduko dio  
lenago eman zionak.

Guraso danak izaten dute  
semearen egarria,  
eta seme bat Jaunaren doaiz  
mundu ontara etorria.  
Ama pozez ta aita ere bai  
aserik beren irria,  
gero bere burua iltzea  
ain da gauz negargarria.

Seme bakarra iltzea norek  
ez leiteke gaizki artu?  
Iñor alatan baldin badago  
nai diot buruan sartu:  
ez dakiola era ortako  
pentsamenturikan sortu,  
gurasoentzat betiko pena  
ta bera're kondenatu.



Eibarko Bertsolari-Txapelketa, 1962-XI-11.

## AUR ELBARRI TA ITXUA

**Donostia, 1962-XII-30,  
Bertsolari-txapelketa nagusia.**

Gaia: urtebete da ezkondu ziñala, ta orain illabete zure emazteak lenengo semea ekarri zizun mundura. Baiñan aurra elbarria da, eta gaiñera itxua.

Ezkonberriak bere barruan  
badu ondoren adurra,  
baiñan poz ori geientxueta  
izan oi degu laburra.  
Gure lenengo landaretxuak  
egin orduko agurra,  
guztia oso ez ote dagon  
badaukat naiko bildurra.

Zorionaren jabe ustez ta  
engaño baten modura,  
nere lenengo landaretxuak  
au ekarri du mundura;  
sano ta garbi etorri balitz  
ortan etzion ardura,  
o nere Jauna, lagun zaidazu  
jasotzen dedan tristura.

Sinis zazute guraso batek  
berekin duen pixua,  
oinbeste egunez amets egifnik  
espero zuen usua;  
mundu ontara betiko gauez  
sortu baitzaigu gaxua,  
arren pozetan egon gera ta  
ta azkenian itxua.



## MODA BERRIA

**Donostia, Bertsolari-Txapelketaren azkena, 1964-XII-30.**

Gaia: gaur egunean, Ameriketako toki batzuetan, bazkalondoan ez dituzte emakumeak garbitzen platerak, gizasemeak baizikan.

Amerikako modaren berri  
badijua beriala,  
an gizon batek egin lezake  
emakumien itzala;  
ez derizkiot ori danikan  
Españiko iguala,  
an esan leike gizezkuak  
emakumiak dirala.

Moda berriak somaturikan  
dira Amerika ortan,  
sinistu eziñik egon izan naiz  
komeri oiek prankotan;  
an emaztiak alperrak dira,  
amarrak artian lotan,  
alakuaren gizezkuak  
badu eiteko ainbat lan.

Ameriketan emakumiak  
suertia dute orduan,  
baldin bizitzen baldin badira  
esan diraten moduan;  
oitura danak berdin egiñik  
ez daduzkagu munduan,  
ori ola bada obeko degu  
alde artara ez juan.

## PELOTA-JOKUA

**Donostia, Bertsolari-txapelketaren azkena, 1965-I-1.**

Gaia: orain iru bertso pelota-jokuari.

Joko maitea, ematen dizut  
milla esker ta grazia,  
ez dakit nundik sortua zeran  
baiñan lur ontan azia;  
beste aldera utzitzen det nik  
kirolen alde guzia,  
zu baizerade joko polita,  
txukuna eta garbia.

Zenbat partidu jokatu ote  
da gu gauden toki ontan?  
Jende guztiak artutzen ditu  
zoriontsu ta txalotan;  
ta ikusleak egoten gera  
arritzen eta gogotan,  
gazteak ere, al badezute,  
segi zazute pelotan.

Ara azkenik joku on oni  
nere ongi etorria,  
pixka bat galtzen ari zerala  
ala nago igerria;  
baiñan berriro jendea bere  
zalez da pozez jarria,  
gu bizi geran artean segi,  
pelota maitagarria.



Donostia, Bertsolari-Txapelketa nagusia, 1965-I-1.

## TXISTE BAT

**Donostia, bertsolari-txapelketaren azkena, 1965-I-1.**

Gaia: kontatu iguzu iru bertsoan izkirimiri bat, txiste bat. Ez du ajolarik gordin samarra bada ere, baldin txukun kontatzen badezu. Minutu bat daukazu txistea aukeratzeko.

Euskalerrian bein gertatua  
aitortu nai dizutet nik;  
baldarrak gera, gutxi ikusi  
eta zabarrak izanik;  
baserritar bat bein korreuan  
feri alderuntz juanik,  
itxaron apur-apur batean  
ta kontatuko'izutet nik.

Polizia sekreta zan-da,  
eta trenean zijuan,  
bizkar gaiñean baserritarra  
ukuitu zuen orduan;  
ta ark eskua an sartu zuen  
txamarrako poltxekuan,  
iru errial eman zizkion  
eskalia zalakuan.

Ta poliziak ipiñi zion  
zerbait aserrezko seta,  
bere begira jarri zitzaion  
zitaltasunez beteta;  
gero zer gauza gerta zitzaion  
txapatxua azaldu eta,  
muiñ eman zion baserritarrak  
santua zala uste ta.



Donostia, Bertsolari-Txapelketa nagusia, 1965-I-1.

## IL-KANPAIAK

**Donostia, Bertsolari-txapelketaren azkena, 1965-I-1.**

Gaia: gaua da ta, oiean lotan zaudela, esnatzen zaituzte il-kanpaiak.

Lotan lasairik neguelarik  
au da gertatu zaidana,  
au da pentsatzen buruaustia!  
Au nere buruko lana!  
Banaka eta triste jotzen or  
dago elizako kanpana,  
nere buruai galdetzen diot:  
nor ote degu il dana?

Au entzutean baten biotza  
beti jartzen da minbera,  
arrisku ori denok daukagu  
emen urtetik urtera:  
baldin lo dala, Jauna, badezu  
mundu ontatik atera,  
kulpa guziak etzitun eta  
ar zazu aldamenera.

Kanpan-torreko kanpai zakarra,  
batere etzaitut maite,  
doiñu tristiak orrela jotzen  
kontuan ibilli zaite;  
neri're berdin gerta nezaikit,  
nik noski bate ez uste,  
arren, kanpanik etzazula jo  
ni lotan nagon bitarte.

## ORIXE ZANARI

Ondarroa, 1965-I-31.

Gaia: Nikolas Ormaetxea *Orix*e zanari iru bertso.

Gizon jakintsu zoragarri bat,  
izkuntza-kontuan abil,  
berak jarria zenbait bertso ta  
zenbait idazti borobil.  
Anima zeruruntz juan zan eta  
gorputza gelditu ixil,  
mundu ontatik joan zan bañan  
guretzako etzaigu il.

Zenbait lan eder egin zenduen  
zuk ekin eta eraso,  
gure izkuntza beraren lumaz  
zenbat ote zuan jaso?  
Ikasia zan, buruz argia,  
mintzatzen zekien gozo,  
onak geio're badira baiñan  
ura jotzen det guraso.

Bañan Jainkoak bein deitu eta  
lur ontatikan atera,  
nun daukaguen ziur baidakit  
alperrik da esatera.  
Landutzen dabil beste mundutik  
guk maite degun euskera,  
idazti onak an idatzitzen  
aingerruakin batera.

## BASERRI UTS BATI

**Bertsolari-tzapelketa nagusia, Donostia, 1967-VI-11.**

Gaia: Or aurrean baserri uts bat daukazu; famili guztia kalera jua da bizitzera.

O, baserritxo, artuko dezu  
biotz barrenetikan min,  
eskerrak mirik ez dezu eta  
ezin dezu gaur itzezin;  
zenbait fameli azi dezuen  
Jainkuak bakarrik jakin,  
orain bakarrik uzten zaituzte,  
ondotik danak aldegin.

Zeure semiak estaltzen artu  
dezu amaika endrero,  
zure babesez gordetzen ziran  
egunero ta gauero;  
ainbat fabore egin dezu ta  
ta esker txar ori gero,  
o, basarria, gaizki zaude gaur  
ondo pentsatu ezkerero.

Zuk eman dezu ainbat aurtxoren  
babesa eta epela,  
ikusten zaitut gaur egunean  
eskerrik gabe zaudela:  
bertsolaria minberatzen da  
zu ikustian onela,  
gaur basarri au ikusten det nik  
gure euskera bezela.





Donostia, Bertsolari-Txapelketa nagusia, 1967-VI-11.  
"O, baserritxo artuko dezu  
biotz barrenetikan min..."

## KONTZIENTZIA

**Bertsolari-txapelketa nagusia, Donostia, 1967-VI-11.**

Gaia: iru bertso kontzientziari.

Kontzientzia nolakua dan  
nai nuke esaten asi,  
ez dakienak ikasitzia  
komeni baida lenbizi;  
zerbait sentitzen dezuten oek  
bazterturikan ez utzi  
gaizki eginda sortutzen zaigun  
xomorrotxo gaizto ori.

Kontzientzia, ongi pentsatu,  
ain degu gauza bat miña,  
sentitutzen duenantzat ez da  
oso gauza atsegiña;  
berandu ero goiz oroitzen da  
norberez bada bat fiña,  
kezkaz beteta gelditzen baita  
iñori gaizki egiña.

Kontzientzia nolakua dan  
etzaitezela atzendu,  
gizonak nola bizi bear dun  
ederki erakusten du;  
premi danari lagundu eta  
iñori ezer ez kendu,  
lege bearrik ez genduke guk  
ori beteko bagendu.

## ASTRONAUTA

Donostia, 1968-II-4.

Gaia: astronauta bat zera eta illargira joango zeran lenengo gizona.

Astronautaren gaia  
jarri diate neri,  
pentsatzen jarri ezkerro  
gauz illuna ori.  
An zer berri dagonik  
etzaigu ageri,  
beste mundu bat dala  
emendik diruri,  
len bisita nai nuke  
mundu berriari.

Orain urrutitikan  
gu gaude begira,  
jakin nairik: "An berri  
nolakuak dira?"  
Bide luzia dago  
artuarren bira,  
ez dakigu nolatan  
eingo degun jira,  
an e gizonak ola  
bizi ote dira?

Baliteke aruntza  
joatia aurten,  
nola lendabiziko  
bialdutzen nauten.  
Jendia daonerako  
ari da esaten:  
"Euskaldun bat joatia  
txarra ez da izaten,  
an daudenak euskeraz  
ikasi dezaten".

## ROBERT KENNEDY-RI

Usurbil: 1968.

Gaia: anai bat presidente zalarik eta bestea bidean zijoa-  
la biak eraillak izan ziralarik, oraindik aurkezteko adorea  
duen irugarren anaiari zer kontseju emango zenizkioke.

Nik ondo dakit, aizu, Kennedy,  
zein tokietan zabiltzan,  
alde batera berriz asteko  
pozik ezin gaurko gisan,  
ikusirikan zure etsaiak  
zer bidetatik dabiltzan;  
baiñan alare aurrera segi,  
lengo bildurrik ez izan.

Zure anaiak zer martirio  
duten lenago egiña,  
billatzearren gizabidea  
edo gizon-atsegiña.  
Zu're zirika zaude oraindik,  
saia zaitez alegiña,  
gizon guztiak izan dezagun  
gaur eskubide berdiña.

Nik kontseju au ematen dizut:  
zuk lengo bidetik segi;  
zure anaiak aitortu zuten  
mundu ontan zenbait egi.  
Etzaitezela bate bildurtu  
leno il arren anai bi,  
nere partetik laguntzen dizut:  
gora ta gora Kennedy!

## **SEME ZAARRENARI**

**Elizondo, 1968-XII-15.**

Gaia: zure seme zaarrena orain bi urte ezkondu zan, eta ez dute aurrik. Kontsejuak eman, nola ekarri jakin dezaten.

Nere fameliak badu  
amaika naigabe,  
matrimonio orretan  
orrenbeste neke:  
bi urte ezkondu ta  
famelirik gabe,  
zenbaitek ez ezkontzia  
ez al luke obe?

Alde batera lotsa  
artzen det esaten,  
gauz ori egokia  
ez baida izaten.  
Erakusten asterik  
ez dadukat emen,  
ikasi baño len zertan  
ezkondu ziñaten?

Oraintxen jua zaizkigu  
buruko indarrak,  
bertsuak orregaitik  
datozte zabarrak.  
Onekin agurtzen ditut  
gaztiak ta zarrak,  
berriz ikusi arte  
agur, baztandarrak.

## IZAR BATI

Donostia, 1971-III-19.

Gaia: begiz jo dezun izar bati.

Aspaldi ontan nere biotza  
dadukat erdi gaisua,  
bañan alare gaur ikusten det  
alako gauz bat goxua.  
Gaur zuregana zabaldu nai det  
daukaten biotz osua,  
neri begira jarri zaitea,  
biotzeko izartxua!

Len badakizu nola nagon da  
ez naiz berritzen asiko,  
bakarrik ez nuke gelditu nai  
nere denbora guziko.  
Eliz batean egingo gera  
Jaungoikoaren graziko,  
premi danean alkar lagunduz  
ez gera gaizki biziko.

Zenbat aldiz etorri ote zait  
biotzera ta gogora?  
Orduak pasa ditut pentsatzen  
mugitu gabe ñora.  
Ia-ia zartzen asiak gaude,  
oraintxen joan zaigu lora,  
eta geroko zertako utzi?  
Oraintxe degu denbora.

## AMERIKANOA

**Ernani, 1971-VI-26.**

Gaia: osaba amerikanoa zera, eta San Juanetarako Ernani, etxera, etorri zera. Baiñan amerikano diruduna.

Zorioneko egun eder au  
degu San Juan eguna,  
aparte geunden zenbait senidek  
gaur alkar topau deguna.  
Urte askotan Ameriketan  
neukan bizitza illuna,  
baiñan azkenikan iritxi det  
nere goguetan nuna;  
ara berriro bildurikan gaur  
dago senditza kutuna.

Etxe onetan ederki nago  
illobaz, aitaz ta anaiz,  
Amerikatik etorri eta  
esperantzatan nolanaiz.  
Besteak gaizki dabilta baiñan  
bat gogoratutzen zait maiz,  
izanez ere au izan degu  
gure etxearen lan gaitz,  
ez apuratu zu, morroi zarra,  
zuretzaz oroituko naiz.

Anai ta illoba, mutil da morroi  
zurikerian asiak,  
usaia baidu Ameriketan  
eindako irabaziak.  
Baiñan guziaz ezin liteke  
gaur kunplitu kutiziak,  
morroi zar onek gure etxian  
baditu urte luziak,  
eta berari uzten dizkiot  
nere ondasun guziak.

**JAIO, BIZI, IL**  
**Oiartzun, 1971-VIII.**

Gaia: jaio, bizi, il.

Jarri digute gai bat polita  
esaten zaiona bizi,  
nik ere ori nolakoa dan  
nai nuke esaten asi.  
Sortu baiño len ezin liteke  
emen iñortxo ikusi,  
titi eman zidaten aitamak  
eskertzen ditut lenbizi.

Jaio giñaden guztiak degu  
nolabait bizi bearra,  
baiñan sarritan nagusitzen da  
zoritxarreko indarra.  
Amaika kaso ikusitzean  
etorritzen zait negarra:  
Jainkoak emandako bizia  
gizonak kendu bearra.

Zintzo ta leial izan gaitezen  
guztiok elkarregana,  
gure Jesusek il aurretikan  
orixe zigun esana.  
Nabaritzen da zer maitetasun  
izan duen guregana,  
ura da gu salbatzeagatik  
bizia eman zuana.



## NAGUSIAREN ALABA

**Mattinen omenaldia, Donostia, 1972-I-10.**

Gaia: zure nagusiaren alaba gustatzen zaizu. Eman zaiozu albiste ori zure nagusiari.

Maitetasun bat daukat barruan  
eta nabil oso triste,  
zer galdetzera natorren ere  
zuk ezin zindeke uste.  
Zure alaba maitagarria  
maitatutzen det ainbeste,  
baiñan eskatzen ezin ausartu,  
nork du nik ainbeste neke?

Urte askotan bakarrik nago  
ta aspertua naiz ezkongai,  
zure alaba maite orrekin  
amets egin izan det maiz.  
Dirutik oso urria nago  
baiñan ezkon-asmo alaiz,  
bestela pobre banago ere  
biotzez aberatsa naiz.

Giza-mail danak berdindutzera  
orain dijoa mundua,  
izanez ere mingarria da  
pobrien bizimodua.  
Batzuek orren bizi bajua  
eta bestiak altua,  
ia badegu pobre ta aberats  
elkartutzeko ordua.

## "GEZURRA ESAN NUEN GETARIN..."

Añorga, 1972-III-19.

Gaia: "gezurra esan nuen Getarin, ni baiño lenago zan atarin".

Gezurra azkar jakiten dala  
entzun det amaika bidar,  
baiñan askotan izan izan du  
egiak ainbeste indar.  
Gezurra dala jakiñagatik  
askotan ezin ein didar,  
egirik ezin esan danean  
ixilik pasatu biar.

Lur triste ontan guztiontzako  
badira neke ta lanak,  
era orretan ikusten ditut  
nere aurretiko danak.  
Zenbaitso gezur emaztiari  
engaiñatzeko esanak,  
beste moduan bizi gera gu  
mutilzar bizi geranak.

Ara noraiño aipatu deten  
or gona baten itzala,  
lendabizitik pentsatzen nuen  
gaiztoena ni nintzala.  
Or ari dira gazte ta mutil  
baldin balira bezala,  
ikusten degu ezkondu auek  
gezurretan dabiltzala.

## GAURKO IKUSKIZUNARI

**Azpeitia, 1972.**

Gaia: Iru bertso gaurko ikuskizunari.

Azpeitiako errian dagon  
indar sendo ta bizia,  
ikastolaren lanetan dago  
ain indartsu gaur asia;  
eta zuek ere ez aaztu  
nik emen adierazia:  
etxean ere bazterrera ez utz  
ikastolan ikasia.

Aurrari beti lagun bear zaio  
gazte dagon bitartean,  
eta gu ere pozaren pozez  
orain saiatu gaiten.  
Egunen batez ikus gindezke  
gu askoz indar obean,  
ikastolako gaurko aur oiek  
azitzen zaizkigunean.

Noiztik ez dakit, bañan beingoan  
sartu ginduzten oinpera,  
eta okerrago arkitzen gera  
ia urtetik urtera.  
Ez ote degu guk berpiztuko  
geren erriko euskera?  
Zeruko Jauna, entzun zaiguzu  
errukitsua baizera.

## ERROMERIAK

Donosti, 1973.

Puntua:


— Ankak ariñak eta  
burua ariñago...

— Orri erantzun ematen  
ain zailla ez dago.  
Nunbait orrelakoak  
baziran lenago,  
ta buru ariña gaur e  
nai ainbat badago.

Gaia: erromeria.

Gauz au ikusten deguenean  
zein ez da gelditzen triste?  
Ni bezelaxe lengo geienak,  
nik beintzat ala det uste.  
Mendi gaiñetan ez da ikusten  
lenago ainbeste gazte,  
zorioneko erromeriak  
ondatutzen dijoazte.

Dantzaren bidez aztutzen ziran  
asteko egun tristeak,  
baiñan utzitzen ari dirade  
bata bezela besteak.  
Galtzen dijoaz lengo oiturak,  
gurasoen ikasteak;  
berriro ere berri itzazute,  
Euskal-Erriko gazteak.



Lazkao-Txiki.

## **MAITASUNA**

### **Azpeitia, 1974-III-10.**

Gaia: maitasunik ba ote da?

Maitasun orrek ez dakit garbi  
ba ote daukan indarrik;  
nik bezelaxe badakizute,  
ez da nik esan bearrik.  
Aspaldi ontan etzaio ikusten  
lenago aiñako garrik,  
maitasun asko daukagu baiñan  
mingaiñarekin bakarrik.

Maitasun itza zenbatsu aldiz  
guk ote degu entzuna?  
Jakin nai nuke zein ote degun  
bera ezagutzen duna.  
Seme-alabak asarre dabiltz,  
berdin andre ta gizona,  
famelitikan asi bear du  
egizko maitetasuna.

Gure arteko maitasun auxe  
dago gaur azten asia,  
bide ortatik datorriguna  
ain da gauza itxusia.  
Maite gerala itzezin eta  
alkar ezin ikusia,  
era ortantxe akabatzen da  
gure maitasun guzia.

## USURBILKO ENTZULEEI

**Usurbil, Mattin, Gorrotzategi, Lazkano. Igartzabal,  
Lazkao-Txiki eta Agirre, 1974.**

Gaia: usurbildar entzuleei.

Bertsolari guziak kantatu arren, emen Lazkao-Txikirenak bakarrik jasotzen ditugu.

Zuen aurrera etorri gera  
umore onez beteak,  
beraz lenengo artu gau on bat,  
biotzeko entzuleak.  
Emen jaulki nai genituzke guk  
dakarzkiguen aleak,  
besarkada bat artu zazute,  
egizko bertsozaleak.

Gure aurrean bazaudete gaur  
zenbait neskatxa ta mutil,  
andre ta gizon, aiton ta amona,  
danak euskaldun ta umil.  
Aurrera ere gure entzule  
jarraitu zazu, Usurbil,  
gure oitura maitagarri au  
bein ere ez dezagun il.

Au ikustean arritzen negon:  
bete zaigu, eta nola!  
Naiz nai degunik zuek ez entzun  
dana ez dio ajola.  
Oaindik badago borondatea  
eta euskaldun odola,  
zuek jarraitu olaxe beti,  
pentsatu pozez nagola.

Mattini pasa zaiarena gaur  
ni errukitzen natzaio,  
pasaportearen ere kendua,  
zer egin bear zuten geio?  
Gu Gipuzkoan etorri balitz  
zeiñek ez genduen naio?  
Baiña etxean morroi dagonai  
orixe gertatzen zaio.

Entzule danak bazuten, Mattin,  
gaur zu emen ikusi naia,  
nai ordurako ez da etorri  
gaur egiten degun jaia.  
Galderatxo bat eiteizut, Mattin,  
zu zaitut bixki anaia:  
noiz kendu bear ote degu guk  
Bidasoako ibaia?



## **ATXURRA**

### **Usurbil, 1974.**

Gaia: atxurra.

Baserritarra triste utzirik  
atxurra nork degu maite?  
Alako erreminta nekati bat  
izango degu nunbait e.  
Baserritarren erreminta bat  
izan zera orain arte,  
aurrerapena etorritzean  
zu bazterrera zaituzte.

Makiña bat lan zukin egiña  
gu gaztego giñanean,  
nola baratza-txokoan eta  
soroaren bazterrean.  
Len indartsua ziñaden naiz ta  
gaur ez egon indarrean,  
baiñan oraindik arki gindezke  
atxurraren bearrean.

Atxurrak duen esankizuna  
ez da bizi laburra,  
danak esango ez ditudala  
badaukat naiko bildurra.  
Zu zeralako leno lantzen zan  
gure soroetan lurra,  
belar txar oiek kentzeko benik  
indartu zaitez, atxurra.

## **LEN ALA...**

**Añorga, 1974.**

Gaia: Len ala, orain ola, gero nola?

Lengoa joanik aspalditxoan  
arekin ez dago ajola,  
badakizute oain bertakoak  
gu bildurtutzen gaitula.  
Geuren gustora orain bitarte  
ez gera bizi sekula,  
eta txarrena ondorenean  
iñork ez dakigu nola.

Orain bitarte pasatu degu  
beti bizimodu latza,  
eta txarrena oroitu gabe  
gero zartutzen guaz ta.  
Baiñan eduki konfiantza ta  
burua al bada altxa,  
izanez ere luzia baita  
pobrearen esperantza.

Derriorean zartu bearra  
gazterik iltzen ez danak,  
orrela dira aurreragotik  
gugan datozen esanak.  
Bildurrez nago urte onenak  
ote dauzkagun joanak,  
tarteaz otzak il bearko degu  
mutil zar bizi geranak.

## MAGALETIK LURRERA

Añorga, 1974.

Gaia: amona zera eta, zure illobatxoa zaintzen ari zerala, or erortzen zaizu magaletik lurrera.

Nere illobatxo maitagarria,  
artu ote dezu miña?  
Eskerrik asko biguna zauden  
eta oraindik ariña.  
Txikia zera baiña daukazu  
pakean egon eziña,  
kaskarreko oi etzan artuko  
pakean egon baziña.

Illobatxuak oraindik ez du  
bear duen ainbat kemen,  
nere ondoan epel-epelik  
ez dezu egon nai emen.  
Ez al dakizu amonatzooan  
besoan zein ongi zauden?  
Eta lurrera etzaitez juan  
oiñez ikasi baiño len.

Nere kantu ta xamurtasuna  
dana al zaude aztuta?  
Zu erortzean zure amona  
ez dezu utzi poztuta.  
Negarrez ari zerade orain  
ain karraxika estuta,  
baiña oiñez ola ikasitzen da  
kopetakoak artuta.

## LURRARENTZAT ALA MEDIKUENTZAT?

Leitza, 1975-III-2.

Gaia: zer naiago dek: ire gorputza lurpean eortzi ala medikuari experimentuak egiteko utzi?

Ez dakit nola bear bezela  
dan askoren iritzia,  
baiña nere ustez azkenekoa  
degu lurpean sartzia.  
Gaizki bada're oraindik naiago  
degu emen bizitzia,  
bada ez bada're naiago det nik  
medikuakin astia.

Medikuaren eskuan jarri  
obeago da ain zuzen,  
nola oraindik premia dagon  
gaixoetan erantzuten.  
Onerako izan leike neurekin  
prueban ibili arren,  
oi egitea naiago det nik  
bestek senda ditezen.

Biak dirade tristeak eta  
kantuan ezin aritu,  
naiago nuke gauza onenak  
aukeratuko banitu.  
Gauz orren premiz bada oraindik  
makiñatxo bat mediku,  
aien eskuan jarri naiago det  
gero salbatzen baditu.

## ELURRETAKO LOREAK

Zarautz, 1975-IV-13.

Gaia: Badakizu aurtengo eguraldiak nola dabilizan: udaberria asi, dana loretan jarri eta gero elurra. Zure etxean edo baserri inguruan ere ikusiko zenuen makiña bat lore elurretan. Elurretan ikusi dituzun lore oiei iru bertso.

Udaberria bear zanean  
etorri zaigu negua,  
nik bezelaxe izango da au  
denok ikusitakua:  
elur azpian alperrik galtzen  
ain eder zan loratxua,  
kulpa aundirik etzuen baiñan  
antxe egon da gaixua.

Loreen gisan gauza geio're  
berdin dira mundu ontan,  
gauza geiori begiratuaz  
berdiña baida askotan.  
Lore politik azaldu dira  
luzitutzeko asmotan,  
Jainkoak zertan ein ote zitun  
gero kastigatzekotan?

Alde batera jarri gaitezen  
lore deneri begira,  
eta buruan eman dezagun  
pentsamentuetan jira.  
Zoritxarrean mutil zarrak e  
galdu oi dute dizdira,  
eta loretxo polit ugari  
alperrik galdutzen dira.

## ZERGAITIK

**Tolosa, Zepai zanaren omenaldian.**

Gaia: gudak jende asko erbesteratu izan du urteetan zear. Oraintxe bertan pakistandar asko erritik kanpora doa. Zergaitik?

Zergaitikan dan eman bearko  
neuk e nere iritzia:  
gerrateak du dana apurtu  
len kostatuta jarria;  
lanik egin ez eta ondatu  
lenago dagon guzia,  
orregaitikan gerrateak du  
mixeria ta gosia.

Zoritzarreko gerratea da  
konturatuko bagiña,  
gerrarik gabe ongi konpontzen  
egin bear alegiña.  
Orrek galtzen du erriak duen  
poza eta atsegiña,  
ori dalako zenbat amatxok  
duten biotzeko miña!

Zoritzarreko mundu onetan  
ez dago giro bizitzen,  
tiro batekin iltzen dituzte  
ainbat kostata azitzen.  
Emen bezela Judean ere  
begira nola dabilzen:  
kulpa dutenak atzean gorde  
ta kulpik gabeak iltzen.

## AMAREN MALKOAK

Azkoitia, 1976.

Gaia: zure amaren malkoei.

Lagun gabetan bost urte'ituzu,  
begiak ditu lillura,  
triste antzean bizi zerala  
igerri dizut brillura.  
Ama maitea, alaitu zaite  
ongille baten modura,  
aitaren bidez zu ziñalako  
sortu bainintzan mundura.

Arrezkeroztik erririk erri  
ementxe nabil munduan,  
ni bezelako beste batzuek  
badabiltzaden moduan.  
Iñoiz parra're egiten dezu  
ipintzen banaiz onduan,  
aundi-aundia azi ez banaiz e  
alegin egin zenduan.

Ama, zuregan badaukat zor bat  
ordainduko ez dedana:  
bederatzi illabetean naiz  
zure barruan izana.  
Andik atera, goxo kantatu  
eta bularra emana;  
zuk zere ori kunplitu dezu,  
negarrik ez egin, ama.

## AMNISTIA, PRESOAK KALERA

Urrietan, 1978 urtean.

Gaia: amnistia, presoak kalera.

Amnistiaren eske ez gera  
bi urte ontan gelditu,  
bañan guk emen eskatuari  
Madrillen ezin aditu.  
Orregaitikan amnisti orrek  
ez dauka ainbeste meritu,  
Juan Karlosek bialdu eta  
Fabiolak artu ditu.

Egun oetan berriro preso  
sartu digute bi gazte,  
eren kontrako azioren bat  
egingo zuten nunbait e.  
Beraz oraingo amnisti au ez  
amnistia danik uste,  
kartzela aurreko atetik erten  
ta atzetik sartzen dituzte.

Berrogei urtez egin ez dana  
egin bear dala aurtan,  
demokrazia bertan degula  
asko ai dira esaten.  
"Preso guziak kalera!" danok  
dezagun deadar baten,  
ori eskatu bear genduke  
botazioak baño len.



## **INFERNUA BETETA**

**Mallabia, 1977-X-23.**

Gaia: garai batean ola esan oi omen zan: mallabitarrez beteta zegoela infernua.

Ni au oin erri gaiztoa dala  
pentsatzen beintzat enago,  
onek dionez inpernu ortan  
bada bat baiño geiago.  
Emengotarrez inpernu dana  
betea bada lenago,  
orain pekatu egin gentzake,  
ola bildurrik ez dago.

Libertadea etorri dala  
nago pensatzen asita,  
inpernu dana betea omen da,  
purgatoioa itxita.  
Anai-arrebak, lasa gaitezen  
gauzak ola ikusita,  
ta Arantzazun ez dute izango  
leno ainbeste bisita.

Amona eta aitonak ere,  
nola senar ta emazte,  
seigarrenkoa pekatu danik  
orain eliteke uste.  
Eta bildurrez ibiliko da  
emen orrenbeste gazte,  
gure urtetara iritxitzeko  
aprobetxatu zaitzte.

## URRITZEN

**Azkoitia, 1978-V-5.**

Gaia: Gandiagaren poema batek dio: "Ez gara ohartzen nola pagoak baino areago ari garen urritzen".

Oroi gaitezen Gernika aldean  
aritz bat badeguala,  
gure asabak landatua ta  
umilla eta apala.

Bera jorratzen, anai-arrebak,  
saia gaitezen al dala,  
aritz, pagoak galtzen doazi  
piñua indartu ala.

Aritz-pagoak galtzen doazte  
eta piñuak geiegi,  
ta bitartean nai genduke guk  
indartutzea Euskadi.  
Bost milla puska egiñik gaude  
nola ezker ta eskubi,  
abertzaletza artu dezagun  
puska guztien lokarri.

Onartzen degun gure aritza  
Gernikakoa da berez,  
denok beregan bear genduke  
biotz barrenetik maitez.  
Baiña gu puskau nairikan dabiltz  
an Fraga eta Suarez;  
oso generala gutxi bagera,  
puskatu eta baterez.

## NESKATXA MATRAKA BATI

Soraluzeko San Andres auzoa, 1978-VII-7.

Gaia: galtzak puskatu dizkizun neskatxari.

Neskatxa maite, esaten dizut:  
oi jostatzeko antsia!  
Autsi naiean asi zerade  
nik dakarkiten jantzia.  
Egon zaiz lasa, izango dezu  
zuk bear dezun guzia,  
gerriko oso askatu arte  
ar zazu pazientzia.

Zuri laguntzera etorri naiz ta  
etxera bear det penez,  
matraka oek errenditutzen  
izan e ez dago errez.  
Len askatuta etorri bear nun  
esan bazidazu aurrez,  
biar goizean beitu bearko  
mantxarik badan edo ez.

Neskatxa, zuri lagundutzera  
eleike jua nolanaiz,  
zu indartsua zaude gorputzez  
eta ni eskax berriz gaiz.  
Zu bezelako matrakarekin  
inguratutzen banaiz maiz,  
mutil galanta egin bear det  
lenago ttikia banaiz!

## SEASKA

**Zestoa, Azpillagaren omenaldia, 1980.**

Gaia: seaska.

Nere seaska oraindik ere  
gordea daukat goguan,  
neronek ere zail da esaten  
zenbat maitatutzen nuan.  
Bere gaiñean ibiltzen niñun  
txoritxo baten moduan,  
karga aundirik ez nuen eta  
aitxa jasotzen ninduan.

Ta seaskari zail da esaten  
merezita daukan dana,  
bera da nere lendabiziko  
neskame orde izana.  
Aurra nintzala une goxo ta  
amets ederrak emana,  
biotz-biotzez maitatzen dedan  
nere bigarren go ama.

Ara ta onuntz astindutzen zan,  
otsa jotzen zuen *kun-kun*,  
aingerutxo bat banintz bezela  
gordetzen niñuen txukun.  
Amak ertzetik kantatzen zuen,  
gero seaskak erantzun,  
gaur nik dakidan euskera ere  
zuk erakutsi zidazun.

## EGUNSENTIARI

Goizian goiztar jeikitzen banaiz  
kanporatutzen naiz beti,  
ikusten zaitut zabaltzen goruntz  
eguzkiaren aldeti.  
Eguzkiaren argitasuna  
ortxen dator sortaldeti,  
eunan aurtzaro besteik etzera,  
biotzeko egunsenti.

Urre antzeko argi polit bat  
erdi zurizko urdiña,  
gure Jainkuak mirari antzo  
zeru goitikan egiña.  
Bear genduke sendotasun bat  
eta sinistapen fiña,  
zer mirari dan egunsentiaz  
konturatuko bagiña.

Loa uxatu det oetik eta  
eguzkiak or dio su,  
inpernuaren antz berbera zuk  
alde batera daukazu.  
Bañan, eguna, gazte zera ta  
zure eskuan naukazu,  
milla zorion egun guztian  
arnas ematen banazu.

## OGEI TA LAU ORDUKO BIZIA

**Itxaso, 1980.**

Gaia: ez da egia izango, bañan egizu kontu ogei ta lau orduko bizia daukazula. Zer egin naiko zenduke bitarte ortan?

Il aurretikan egin nai nuke  
lenbiziko aitormena,  
eriotzaren bidean dago  
mundura jaio dan dena.  
Ogei ta lau ordu bakarrik da  
neri gelditzen zaitena,  
aprobetxatu gabe joan bear  
nere sasoirik onena.

Mundu onetan bein asi eta  
gero bukatzen da dena,  
auxen bera da une onetan  
neri gertatzen zaitena.  
Emen uzten det aiskide-talde,  
emen bistan dagon dena,  
azirik utzi gabe il bear  
orrek ematen dit pena.

Jakinda ola iltze kontuak,  
lagunak, ez dira onak.  
Agur neska ta agur mutillak,  
agur andre ta gizonak!  
Erentzia're egin bear du  
bakar-bakarrik dagonak:  
ikastolari uzten dizkiot  
sobratutako txanponak.

## ORI MEREZI AL ZUAN?

Ordizia, 1980-IX-13.

Gaia: aurreko batean, egunkariak zekartenez, Donostia-ko zaborrategi batean aurtxo bat billatu dute, plastikozko zorro batean sartuta.

Donostiako zaborraetan  
aurtxo bat billatu dute,  
eragin zuen amatxok ere  
askorik etzuen maite.  
Zabarkerian gaur ikusten da  
nolabait amaika gazte,  
ein da jasotzen ez jakitekoz  
kontuz ibili zaitezte.

Gauzak obeki pentsatu eta  
ein bear dira al dala,  
gaixo ark ere artuko zuen  
bere amatxoren magala;  
zaborretara botia baizan  
jaio eta beriala,  
pentsatzen baida ume polit bat  
askotan zaborra dala.

Zenbat olako ajolakabe  
bizi ote da munduan?  
Jaio berri zan aurtxo politik  
ori merezi al zuan?  
Nere baitako azken bertsoan  
nik auxe pentsatzen nuan:  
zer mesedea bere amatxo  
len amak bota bazuan!

## ZU TXORIA BAZIÑA...

**Orio, 1981-V-24, Lasarteri omenaldia.**

Gaia: zu txoria baziña...

Erantzuteko ez da erreza  
onek jarri duen itza,  
ta esaten du: "Txorikumeak  
kabian pozez dabilta",  
Olaxe baida libre dabiltzan  
txori alaien bizitza,  
ta esango det zer egingo nuken  
baldin txoria banintza.

Gure txori o txorikumeak  
nolatan dabiltzan larri,  
nik bezelaxe badakizute  
txorikume askon berri.  
Emendik kanpo joan ziran da  
berriro ezin etorri,  
txoria banintz nik nai nukena  
aiek aidean ekarri.

Gure lurretik aparte bada  
makiña bat txori maite,  
udaberriko kabi goxoa  
utzita dabiltz nunbait e,  
beren kabia eta amatxo  
emen utzirikan triste;  
pazientzian egon zaitezte  
udaberri izan arte.



## IBIL GAITEN UMOREKOR

Urepel, 1981-XI-8.

Gaia: Xalbadorren bertso batetik artua: *Nigarra begian.*

Tristuratikan ezer ez dago,  
ortik aspertuta nago;  
umore onan maitale zintzo  
izandua naiz lenago.  
Egun batzutan negar egin det  
ama galdu zaidalako,  
baiñan irrika asi naiz orain  
zeruan dabilelako.

Umore onez bizi gaitezen  
lagun egiñaz alkarri,  
tristuratikan iñoiz ez leike  
gauza onikan etorri.  
Umore ona betidanik da  
gorputzaren osagarri;  
beraz, negarra baztertu eta  
guztiok dezagun irri.

Ni bezelaxe nere ama ere  
egun batean baitzan sor,  
sortu guztiak, ezta zalantzik,  
danak eriotza du zor.  
Guretzat ere gauz bera baiñan  
udaberria badator...  
Tristetasonak danak utzita  
ibil gaiten umorekor!

## ZER DA ERIOTZA?

Zegama, 1981-XII-15.

Gaia: zuk zeuk ikusi berri duzu etxean, eta au da galde-  
ra: zer da eriotza?

Aita ta ama ditut  
mundutikan junak,  
ain dira une latzak,  
ain dira astunak!  
Guretzako tristeak,  
danentzat illunak!  
Guraso bat lendikan  
ainbat maite dunak...  
Garbi esaten zailla  
probatu ez dunak.

Arreba ere illa  
gazterikan bera,  
zail da aurreko danak  
garbi esatera.  
Eriotza esplikatzen  
daukadan aukera,  
baiñan esan nai nuke  
apaizen antzera:  
biziaren mugatik  
urrengo aldera...

Iltzea zer gauza dan  
esaten zailla da,  
bañan azken bertsoan  
esan nai al bada.  
Gorputzarentzat txarra,  
bestela ona da.  
Denok degu joateko  
barrungo ikara,  
baiña an bilduko gera,  
au egia bada.

## ESKELA

Ernani, 1982-I-2.

Gaia: joan zan astelenez zan Aur Errugabe edo Inozente-  
en eguna; eta Joxe Mielek, egunkaria ireki eta bere eskela  
irakurri du. Zer pentsatu zenduen une artan?

Pensa zazute egun oietan  
gaizki ibiltzen gerala,  
gu gaizki eta periodikoak  
ere irten dira ala.  
Ikusi nuen izparringian  
nere eskela bat zala,  
pentsatu nuen irakurtzean  
ilda egongo nintzala.

Ori ikusi nuen orduan  
ez nun sinisten gezurrik,  
Inuxente-eguna zanik ere  
bate ez nun pentsatu nik.  
Neroni ilda irakurritzen  
ari nintzala jakiñik,  
arrezkeroztik ez daukat iñoiz  
berriz iltzeko bildurrik.

Askok diote: "Eriotz ori  
zer moduzkoa ote da?"  
Lenago ezer ez dakitenak  
ara nik garbi atera.  
Berriz iltzerik tokatzen bazait  
emendik urte betera,  
zerura ere juango naiz ni  
gorputzarekin batera.

## **GOROSPEK IRABAZI**

**Zumaia, 1982-IV-24.**

Gaia: zuek badakizute Lazkaomendin, Lazkao-Txikiren jaiotetxearen ondoan bukatzen zan Euskadiko txirrindulari-itzuli ori, Gorospek irabazi zuela. Orain notizia zabaldu da Joxe Mielek lagundu ziola igotzen.

Badakizute onen esana  
ta pentsatzen zuen dena:  
alde batera euskaldun bear  
an lenengo bear zuena.  
Ni bezelaxe txaloka zegon  
gure auzorik geiena,  
besteak ere ain onak baiñan  
ura izan zan onena.

Zer pozarekin denok genduen  
Lazkaomendin ikusi!  
Geurea baizan izate dana  
bere odol eta guzi.  
Bagenekigun lenengo bada  
batek bear irabazi;  
nik ala nai nun, besteak e bai:  
euskaldun bat lendabizi.

Pozaren pozez egondu giñan,  
ori mundu denak daki;  
bizkaitarra da gure Gorospe  
ta txirrinduan egoki.  
Gure naia're alaxe zan da  
bera juan zan lenbizi,  
bere erria maite ez duenak  
iñor maitatzen eztaki.

## TXAL JAIO BERRIA

Gaia: bertsoara joan zera eta, etxeratzean, zure etxeko ikuilluan txal jaioberri bikain bat ikusi dezu, lau anken gainean zutik.

Gure Jaunaren mirari ori  
oso aundia izan da,  
ara txekor bat oso polita  
ni parrandara joanda.  
Txekorra zutik pozikan dabil,  
bere amatxo etzanda,  
txekorra nola pozik ez egon  
naiko esnea edanda?

Gizon pobreaki gauzak aldrebes  
etzaio ertetzen denak,  
ez dakiela gertatzen zaio  
gertaerarik onenak.  
Txal onek neri aztuarazi dit  
lenago neduzkan penak,  
San Antonio, artu itzazu  
eskerrikan beroenak.

Txala polita eta bizkorra  
gustagarria da ziñez,  
ola billatu bear nuenik  
joan naizenean jakiñ ez.  
Naiko esnea edan du eta  
salto bizkorrak egiñez,  
jaio zaigula ordu bete ta  
laister ikasi du oiñez.

## JOXE MIEL BARANDIARAN GAIXO

Tolosa, 1982-X-10.

Gaia: gaur zortzi ospatu zan *Kilometroak 82*. Lenengoa Beasaiñen izan zan, eta zure tokaio batek eman zion asiera: Joxe Miel Barandiaranek; eta aurten ez. Nunbait arek ere gaitz txarren bat badu. Urte asko eta mottel zegoen. Merezi du zure tokaio orri zerbait kantatzea.

Nere tokaio, entzun dedanez,  
or dabil naiko lanean;  
segurantzirik ez du personak  
pixka bat zartzen danean.  
Aingeru eta Jainkoak berak  
nai dute beren artean,  
eskatzen dizut: gurekin utzi  
zaiozu pixka batean.

Gizon bat askoz bizkorragorik  
ez da nere iritzian;  
sortu zitzaigun Ataungo errin,  
barrio txiki batian.  
Ainbat liburu bere buruan  
dabilzki bere artian,  
ainbeste nola jakin lezake  
orren terreno txikian?

Nik Joxe Miel beti izan det  
nere tokaio ta lagun,  
ez dakizute Goierrri artan  
zer estimatua degun.  
Aurrera ere opa nizuke  
gaur dezun ainbat osasun,  
Euskalerriko etorkizuna  
pixka bat ikus dezazun.

## MATTIN ZANARI

Urepele, 1982-XI-7

Gaia: Mattin zanari iru bertso.

Mattin ni bezela ttipia zan,  
oroituko da jendia,  
txikia baiña zerbait bazuen:  
espirtua aundia.  
Ura're joana degu mundutik,  
bistan daukat aurpegia;  
pentsatzen nago: zeru goietan  
biak kantatutzen dia.

Irri egiten genuen denok,  
orain oroitutzen gera;  
amaika biotz ura iltzean  
gelditu ziran minbera.  
Nik sarri diot: "Gure Mattin oi  
betiko illa ote da?"  
Baiña zeruan kantari dabil  
lagun denekin batera.

Il zitzaiguen, baiña sinisten  
badaukagu naiko lana;  
bikote ori amaika une  
goxo ta eder emana.  
Gu ere laixter nai eo nai ezta  
bagoatza zuengana,  
zeuen ondoan gorde zazute  
guretzako toki bana.

## AURTXOEN MAITASUNA

Zarautz, 1983-IV-24.

Gaia: ez da ainbeste pertsona edadeko, urtetsu esan nai nuke, aurtxoekin jolasean ikusten. Lazkao-Txiki da bat aurrekin ondo etortzen dana. Ta aurrak berarekin. Galdera: zergatik maite dituzu aurrak?

Aurtxo txiki bat seaska batean  
ikusten dan bakoitzean,  
ez dakizute zer maitasuna  
sartzen zaitan biotzean.  
Neri begira irriparezka  
aingeru baten antzean,  
gizarajoak asko ez daki  
zer datorkion zartzean.

Tranpak ikasi bearra dago  
mundu txar ontan nai ta ez,  
begira nago beste unetan  
nolatan zauden negarrez.  
Txupete legor bat dadukazu,  
ortik konturatu zaitetz  
ze engañagarri eman dizuten  
bular esnetsuan partez.

Neuk e bear nitun aurtxoak eta  
oraindik ez daukat bat e,  
nik aurtxo oiek maitatutzea  
orretxengatik da parte.  
Eta bestela ere aurtxoak  
zeiñek ez lezazke maite?  
Aingerutxo berberak baidira  
zazpi bat urte bitarte.



## KANPOSANTU BERRIA

Lasarte, 1983-VI-29.

Gaia: errian komeriak omen dira, kanposantu berria dala ta.

Beraz Lasarten artu dezute  
illobi berrian ira,  
bizi generala zertako jarri  
kanposantura begira?  
Len dagonikan protestan ez du  
iñor txorok egin jira;  
lengo zarrean ixilik daude,  
kontentu egongo dira.

Sinismen geien daukanak ere  
iñork ez du juan nai ara,  
geientsuenak izango dute  
nik arrenbeste ikara.  
Kanposantu bat berri egitea  
orren prezisua al da?  
Il da loreak baño obe da  
bizirikan oillo-salda.

Ein nai dezuten obra berria  
neri etzait gustatzen bate,  
nere laguntzik ez eskatu or  
ez baidet artuko parte.  
Kanposantuai pakean utzi  
obe zenduke, Lasarte,  
obe degu guk ondo pasatu  
bizi geraden bitarte.

## ITZALA

**Lasarte, 1983-VI-29.**

Gaia: itzala.

Askok esaten dute:  
"Ona da itzala".  
Beste batzuek plaia  
obegoa dala.  
Biak daukatena da  
beren martingala,  
bakoitzak nai duena  
aukera dezala.

Eguzkia ona da  
esaten dutenez,  
gauez ez da izaten  
bañan bai egunez.  
Nik itzala naio det  
ta nago esanez:  
an pozik egoten naiz  
sagardoa edanez.

Itzalorekin iñor  
ez da damutuko,  
nola emengo eta  
berdin-berdin orko.  
Bañan nik eguzkiai  
egin nion uko,  
nere itzal aundirik ez  
du iñork artuko.

## ELURRA

**Elgoibar, 1983-XII-30.**

Gaia: goizean esnatu eta leiotik begiratu dek, eta Euskal-Erri osoa elurpean ikusten dek.

Goizean jeiki, leiotik beira  
gero jarri naizenean,  
pentsatzen nuen ametsa ote  
edo ez ote nago onean.  
Euskadi dena txuria zegon  
elurra baizan gaiñean,  
askotan ez det ikusi izan  
orren era apaiñean.

Bañan elurra beti otza da,  
badakizute garbi or:  
otza danean animosoak  
ez gera egoten iñor.  
Txoriak ere ixilik zeuden  
otzak baizun ainbat zigor,  
bañan poz zaitetz, txori maitea:  
udaberria badator.

Oztasun dana pasatuko da  
alako egunen batean,  
elur txuria ur biurtuta  
ikusiko da atean.  
Badator eta guztiok gaurtik  
pozikan jarri gaitean,  
Euskal-Erriko udaberria  
laister baidegu gaiñean.

## UZTAPIDE ZANA

Zestoa, 1984-II-11.

Gaia: *Lengo egunak gogoan* Uztapideren mezua.

Uztapideren bizitz geiena  
nik ere daukat goguan,  
euskaldun jator ta bertsolari  
zintzo izana munduan.  
Estudiorik etzuen eta  
lan egin zuen basuan,  
Euskal-Erria serbitu ondoren  
Jainkoak eraman zuan.

Zoragarria Uztapideren  
mundu ontako bizitza,  
Euskal-Errian alde lan egin,  
ori zan bere egintza.  
Azken aldian eldu zitzaion  
Jaunagandutzeko ditxa,  
ta Zepai, bere lagun, ta biak  
zeruan kantuz dabilta.

Euskaldun zintzo, bertsolari on  
izan ziñaden munduan,  
amaika plaza eta erritan  
kantatu izan zenduan.  
Gorputza emen utziagatik  
anima dezu zeruan,  
gutzat toki bat gorde zaiguzu  
bizi zeran inguruan.



“Ta esango det zer egingo nuken  
baldin txoria banintza”.

## MIKROFONOA

Errera, 1984-III-3.

Gaia: apalondoren bertsolariak onak omen dira, baiña mikrofono eta katxarro oiek gabe.

Bestela oso lasai geunden gu  
lagunarte ta afari,  
baiña ainbeste traste zertako  
ipiñi diguzu guri?  
Gaiñetik ere mikrofonoa,  
ia klinika diruri,  
bertsolaria oen azpian  
bildurtutzen da kantari.

Lenen bertsoetik estutu eta  
ni larri naiz or gelditu,  
leno txikia banaiz ere ni  
oekin ez naiz aunditu.  
Oinbat isopo bertsolaiantzat  
ez dauka ainbat meritu,  
naiago nuen or izkutuan  
ipiñi baldin balitu.

Olako gabe sagardotegiz  
eta or sagardotegi,  
bildurrik gabe gu bertsoetan  
ibili oi giñan beti.  
Alanbre zar ok gure artera  
ez datoz, ez, aspalditi;  
bertso onekin aspertu naiz ni,  
jarri iozu beste bati.

## **GURE AURRAK**

**Legazpi, 1984-III-9.**

Gaia: gure aurrak.

Zenbat famili egongo diran  
aurtxo polit baten eske?  
Ta dauzkanak e maite ez ditunik  
ez dezaguela uste.  
Aurrak dauzkaten etxean inor  
ere ez da bizi triste,  
malizirikan ez dezute ta  
maite zaituztet ainbeste.

Aurtxo berriak maitatu bear  
ta beren naia daukagu,  
oien bitartez geroarekin  
ainbat itxaroten degu.  
Ainbat etxetan ipintzen dute  
oiek orrenbeste zeru,  
oiek ditugu etorkizun da  
gure egizko aingeru.

Aurrik ez dagon etxe uts ura  
beti biziko da triste,  
ta ez daukana beti ari da  
aurrak izateko eske.  
Gero azi ta larritu bear  
orain izan arren gazte,  
gure erri au zuzen zaindutzen  
zuek saiatu zaitezte.

## ATARIKO ZAKURRARI

Lazkao, 1984-III-17.

Gaia: zure atarian zeu eta zeure etxea zaintzen dagoen zakur maiteari bi bertso.

Txakur maitea ni etortzean  
gelditu da oso triste,  
kiñu ta abar nik esan diot:  
"Berriz banator ni laiste".  
Ate ondoan gaixoa an da  
nola jai ta nola aste,  
eskolik ez du bañan badaki  
zenbait pertsonak ainbeste.

Iñor ondora urbiltzen bada  
ark badu amaika zentzun,  
otsikan txikiena're azkar  
arrek beti oi du entzun.  
Kate batekin lotuta zaude  
ate ondoan gau t'egun,  
alaz ta guzti ez dakit nola  
oinbeste maite gaituzun.

Ezur batzuek, ogi-zatiak,  
ori du jornal jakiña,  
alaz ta guzti gu agurtutzen  
ain zerade atsegiña.  
Iñor badator zeure zaunkakin  
egiten dezu alegiña,  
naiago nuke pertsona danak  
zu bezin fiñak bagiña.



## **EZKONBERRI BATZUEI**

**Lasarte, 1984-VI-29**

J.M. Aranalde apaiz jaunak gaia: Biar boda bat det eta boda orretan, badakizu, itzalditxo egin bear izaten da; eta naiago nuke zuk, nere tokian bazeunde bezela, ezkonberrieri sermoitxo egingo bazenie.

Orain artean neska-mutillak,  
orain senar eta emazte,  
uztarri eder polit batean  
oraintxe lotu zerate.  
Eta badakit bata bestea  
asko dezutela maite,  
maitasun ortan izan zaitezte  
Jaunak apartatu arte.

Oraindik oso gazte zerate  
ta zaudete indarrean,  
bañan zartzean izan zindezke  
zuek alkarren bearrean.  
Ikusirik zer esan dezuten  
aldarearen aurrean,  
bata besteai lagun zaiozue  
onean eta txarrean.

Azken kontseju auxe mesedez  
gero ez kendu buruti,  
biotz-biotzez esaten det ta  
gogoan eduki beti:  
apaiz jaun goxo asko dirade  
gazteen aldameneti,  
faborez oiengandikan beintzat  
ibil zaitezte urruti.

## **KLABELIN BATI**

**Altzo, 1984-VII-30.**

Gaia: mendira zoazela, ikusi dezu legorte onekin ia igar-  
tuta eta kiskalduta dagoen klabelin bat.

Euri geiegi txarra da baiñan  
baita legor geiegia,  
geitxo diranez bi ertz txar oiek  
geiegi izaten dia.  
Klabeiña bat arkitutzen det  
batere urik gabia,  
zeru ta lurren Aita zerana,  
egin eiozu euria.

Eskatzen dizut: klabelin orri  
eo loreai egin lagun,  
ikusirikan lore bearra  
guztiok nola daukagun.  
Eurian faltaz lorea zimel,  
iñora ez gaitezen jun,  
gaurko lorean biarko frutua  
denok ikusi dezagun.

Lorea, esan degun lorea,  
polita danik bai uste,  
beste loreak ere askotan  
kezkaz betetzen gaituzte.  
Era orretan ikusten ditut  
oraingo amaika gazte,  
biarko amak zuek zerate  
ta txintxo zaindu zaitetze.

## ROBOTA ALA NESKAMEA?

Markina, 1984-XII-8.

Gaia: etxeko lanetarako zein obeago: robota ala neska-meia?

Lazkao-Txiki mutilzar dago  
joan da ogeitaka urtez,  
izanez ere txiki xamarra  
da arraza ta izatez.  
Bañan zer esan dezu, Arregi?  
Kontuan ibili zaitetz:  
orain robota saldu nai dezu  
nere neskamean partez.

Ez det esango, ez, neskame zar,  
ain gutxiago gazterik;  
zarra naiz eta nik ez dadukat  
aukeratutzen asterik.  
Bañan esango dizut nik orain  
aoa bete-beterik:  
neskame orde ez det artu nai  
biotzik ez dun trasterik.

Gauza guztia garbi dago ta  
itzak gaur ez du merezi  
Lazkao-Txikik zer pentsatzen dun  
zuk bazekizun lenbizi.  
Burniarekin negu otzean  
ondo ez liteke bizi,  
nik aragizko robota on bat  
neretzat naigo det kasi.



"Denbora geldi lezakeanik / oraindik ez dago emen".

## URTE ZAARRARI

**Loiolako Erri-Irratian, 1984-XII-31.**

Milla beatzireun larogei eta  
 laugarren urtea aurten,  
 orra urte bat nola jua zaigun  
 batere uste baiño len.  
 Gizon bizkorak ta jakintsuak  
 mundu ontan izan arren,  
 denbora geldi lezakeanik  
 oraindik ez dago emen.

Irureun eta irurogei ta  
 bost egun dirala uste,  
 ta zazpinaka oiek jarrita  
 berrogei t'amabi aste.  
 Atzo goizean giñan eskolan,  
 eranegun mutil gazte,  
 asko oartu baiño lenago  
 urteak badijoazte.

Osasun ona dadukagunok,  
 eta ez badegu minik,  
 urte guztia onar dezagun  
 Jaunai eskerrak emanik.  
 Askoiñazez, besteak gosez  
 ta askok ez dute lanik,  
 bizimodua arin zaiegun  
 guztiok lagun eginik.

Asko or daude eritegian  
ta besteak espetxean,  
ta familian negar egiñaz  
egonak urte luzean.  
Gau Onak eta Urte Berriak  
ezin igaro etxean,  
zorion obez bildu zaitezte  
denok datorren urtean.

Bizirik dana iltzea oi da  
mundu ontako legea,  
baiñan oraindik gorde gaitzazu,  
erregeen Erregea.  
Bertso-otoitzez eskatzen dizut,  
gure Jaun eta Jabea:  
olako beste urte bat eman  
eta al bada ohea.

## SOLDADUSKAKO OFIZIALARI

Anoeta, 1985-VI-19.

Gaia: zu garai batean, soldaduskan, *firmes* jarri arazten  
ziñun ofizialari kanta ezaizkiozu bi edo iru bertso.

Txikia baiñan egin giñaden  
soldadu-tallaren jabe,  
ia bi urte an pasa nitun,  
joan ez banintza obe.  
Ango pertsona bigotedunak  
ez dira ibiltzen suabe,  
amaika burla egin ziguten  
kulpa aundirikan gabe.

Ni bezelaxe ttikiak asko  
ta geienak erdi ero,  
bizioakin asperturikan  
an dabiltza egunero.  
Atengandikan gizatasunik  
ezin liteke espero,  
geienak ez dira laroi kilo  
ondo garbitu ezkeru.

Berri geiago nai badezute  
Afrikan serbitu nuan,  
badakizute militar orrek  
zenbat arrokeri duan,  
Lendabiziko zaplasta jo ta  
*firmes* ipintzen niñuan,  
orain lurpean etzanda dago  
beste askoren moduan.

## KRABELIN TXURI BAT

Gaia: Manuel Ugartetxeberri bertsozaleak krabelin auxe eman dit zuretzat: krabelin txuri auxe. Berak krabelin gorri bat dauka ezpainenetan, eta auxe esan dit: "Joxe Migeli eman, esperantza ez galtzeko".

Manuel orri millaka esker,  
ezer ez dago txarrikan,  
krabelin ori eman didazu  
nei emateko baizikan.  
Borondatea eman dezu ta  
estimatu det pozikan,  
baiñan Manuela izan baziña  
naiago nuke kasikan.

Krabelin eder bat Manuelek  
Txikiarentzat zuzendu,  
borondateak emen ta nunai  
beti ongi ematen du.  
Borondatea daukan ezker  
ori ez diot nai kendu,  
baiñan, Manuel, naiago nuke  
arreatxo bat bazendu.

Manuel orrek bere biotza  
lorearekin du ager,  
eskertzen diot, nereganako  
agertu baidu zezer.  
Beste batzuek etzuten emen  
nigana izango ezer,  
borondatea onartzen dizut  
ta, Manuel, milla esker.



## ISPILLUKO LAGUNARI

Altzo, 1985-VIII-2.

Gaia: goizero eta beti bezela ispilluaren aurrean aurpegia garbitzen ari zerala, iru bertso kantatu dituzu.

Ispillu onek bertso polit bat  
ez ote luke merezi?  
Aurrean dedan beste laguna  
errez aski det berezi.  
Oraindik erdi lotan dago ta  
au zeñek esna arazi?  
Gauean, motell, nun ibili aiz?  
Aspaldi ez aut ikusi.

Egun on berriz, nere laguna,  
aspaldi ez aut ikusi,  
orregaitikan gaur e berriro  
nai diat izketan asi.  
Atzo bezela tamaiña berdin  
xamarrean ago kasi,  
lo ondo egingo uan bañan  
ez aiz batetxo're azi.

Bañan bazekit aspaldi ontan  
zeozer pasatzen dala,  
nik bazekiat aspalditxoan  
legunagoa intzala.  
Lenago tira edukan baiñan  
gaur zimeldu zaik azala,  
Lazkao-Txiki, zartzen ari aiz  
urteak pasatu ala.

## ALDAMIOAN

Zizurkil, 1985-VIII-17.

Gaia: ogei bat metro altuko aldamioan ustez lasai ari ziñan lanean, eta momentu batean konturatu zera aldamia eusten zuen soka bat ia-ia etenean dagoela. Zure ustez, iru bat minutuko aguantea du soka orrek.

“Alturarekin beti bildur naiz”  
gauz erreza da esaten,  
baiñan arriskuz gertatutzean  
ez da erreza izaten.  
Iru minutuz bakarrik egon  
bearra dadukat emen,  
ta iru bertso kantatu arte  
faborez etzaitez eten.

Soka geroz ta melarrago da,  
nago bildurtzen asia;  
ikusitzen det kordak banaka  
galdu zaizkiola ia.  
Bizi geranok konparazioz  
erne dezagun begia,  
eunero orren antzeko baita  
pertonak duen bizia.

Ogei bat metro bakarrik dauzkat,  
nik ez det gaizki artuko;  
erori arren orrengaitikan  
bizia ez da bukatuko.  
Beira zazute zein naizen eta  
ez dezute ukatuko:  
anka luzeak nola dauzkaten  
nik ez det miñik artuko.

## **EUSKAL-ERRIA MARGOTUTZEKO**

**Oñati, 1985-X-4.**

Gaia: zu, Lazkao-Txiki, pintore edo margolari bat zera.  
Nola margotuko zenuke zeure gustoko Euskal-Erria?

Euskal-Erria margotutzeko  
asmoan artu det parte,  
askok Espaiñarekin lotua  
ikusi naia daukate.  
Zoritxarrean ainbeste urtez  
ala gaude orain arte,  
zazpi probintzi berexi eta  
pintatuko det aparte.

Zazpi probintzi danak jatorrak,  
denak onak ta beteak,  
itxiko ditut ingurutako  
frontera edo ateak.  
Izanez ere nastutze onek  
egin dizkigun kalteak!  
Buelta guztian jarriko diot  
Naparroaren kateak.

Gero urrena pintatu bear  
fabrikak eta artzaiñak,  
ta Euskal-Errian sortutzen diran  
ain nekazari bikaiñak.  
Inguruetan guardi egiten  
jarriko ditut ertzaiñak,  
artu-emanik ez dezaten izan  
Frantziak eta Espaiñak.

## KONTSEJUTXO BAT

Legazpi, 1985-X-11.

Gaia: zuk urte batzuk badituzun ezkeru, gustatuko litzraiguke zer aolku edo zer kontseju emango zenizkieten gaurko euskaldun gazteei.

Kontsejutxo bat ortxe dijoa  
on usteko erregali,  
aspaldi ontan dijoan ratxa  
al baldin banu itzali.  
Kontseju auxe ematen diet  
ainbat neskatx ta mutili:  
dantza ta jolas ein zazue baiñan  
drogakin kontuz ibili.

Entzun dezute, gazte maiteok,  
nik eman dedan berria:  
gorde zazute zeuen asabak  
emandako jatorria.  
Zuengan dago biarko ura  
edo biarko erria,  
zuen eskuan dagoelako  
biarko Euskal-Erria.

Nik nai nukena, gazte maiteok,  
zuek sano izatea,  
ez nuke nai nik asko bezela  
drogatuta ikustea.  
Sanoa eta indartsu bedi  
Euskal-Erriko gaztea,  
gaur baiño obeki gero izan dedin  
gure Euskal-Erri maitea.

## ZUGAITZAK OSTOZ USTUTZEN

Tolosa, 1985-X-12.

Gaia: baserriaren inguruko zugaitzak billusten, Xalbadorrek esaten duen bezela ostoz ustutzen ikusita, zer pentsamentu datozkizu burura?

Pentsa dezagun, anai-arrebok,  
udazkenean gaudela,  
Lazkao-Txiki orain ia-ia  
arkitutzen dan bezela.  
Zugaitzetikan bera badator  
leno ostoz zan orbela,  
jaunak, gauz onek esan nai digu  
negua badatorrela.

Arbola danak eranzten doaz,  
zugaitza billusten asi,  
negu-partean ez luke gauza  
era orretan merezi.  
Nere burua konparazioz  
sartu nai nuke lenbizi:  
mutilzar eta neskazar denak,  
manta berriak erosi.

Baiñan zertako jarri beagu  
denok umore txarrean?  
Ez gaitzezela illundu emen  
gaur denok, ez, bat-batean.  
Negua noizbait joango da ta  
alaitsu egon gaiten,  
udaberria etortzen baita  
neguan ondorenean.

## **ATXUKARRO ZANARI**

**Zegama, 1985-XI-10.**

Gaia: gaurko omenaldia zergatik?

Atxukarrori egin diranak  
gutxitxo izan zaizkio,  
oraindik ere gure munduan  
gorago bear zan io.  
Amaika jende pozez jarri du  
egonagatik serio,  
zenbatsu biotz poztu diraden  
zu zeralako merio!

Beste aldetik zoragarria  
txiste eta ateraldiz,  
orren ipuiñak entzundakoan  
oraindikan parrez gabiltz.  
Ta berak duen txirritxia  
pozgarria degu egiz,  
birigarrotzat artuko nuen  
egaztia izan balitz.

Denok dakigu jaiotzetikan  
Errezilgoa zerana,  
ta arrezkero toki askotan  
egiñikan zaude lana.  
Merezi dezu eta zuretzat  
akordatu da Zegama,  
nere baitako au juzgatzen det  
zure bigarrengo ama.

Irriparrezka dauzka ezpaina  
ta begiratu bizia,  
bere denboran umore onez  
bizi-aldia pasia.  
Izketan berriz berak badauka  
iñork ez duen grazia,  
ta Atxukarro esan ezker  
esanda dago guzia.

Garbi ta argi ikusitzen da  
jendeak maite zaitula,  
emen daukagu erria eta  
ezin leike disimula.  
Nere partetik naiago nuke  
ezpaziña ilko sekula,  
ta opa dizut zartzaro on bat  
Jainkoak eman deizula.

## ASPALDIKO MAITEA

Azpeitia, 1985-XII-21.

Gaia: askok diote alperrik dala presa egitea, ura joan da gerora. Baiña begira zer gertatu zaiken: ik gaztetan asko maite uken neskatxa batek, orain maite auela aitortu dik. Zer diok?

Nestatxa, nitaz oroi ziñanik  
ez nuen asko espero,  
zutzaz oroitzen, zutzaz otoitzez  
egon nintzan egunero.  
Zure erantzuna artutzeko're  
ain nengoen bero-bero,  
orain al zatoz, ene maitea,  
garaia pasa ta gero?

Zuregatikan txoratu nintzan,  
zurekin nintzan gau ta egun;  
zu nai zinduten bizi guztiko  
nere maite edo lagun.  
Biak aparte giñadelarik  
zenbat urte zaizkigu jun?  
Gaixoa, zeuk e ez dakizu zuk  
zer gauz alper galdu degun.

Alperrik dira pertsona baten  
iritzi eta usteak,  
alperrik dira garai artako  
biok ongi ikusteak.  
Baiñan oraindik jarraitzen badu  
zure maitasun beteak,  
biok batera pasa ditzagun  
gelditzen diran urteak.



## **ORAINDIK ERE**

**Azpeitia, 1985-XII-21.**

Gaia: emezortzi urte zenituela maite izan zenuen neska ari.

Nik emezortzi urte nitula  
maite polit bat banuan,  
orain bizi naiz bera artuta  
ez geldituan damuan.  
Izanez ere bizimodua  
tristea zegon orduan,  
ogia ere eskax zegon da  
monja aldegin zenduan.

Ain muxu gorri ta ain liraiña  
eta ain ziñaden gazte,  
bi illabete pasatu nitun  
zure biotzaren eske.  
Apaiz zar batek engañatuta  
monja joan ziñan laiste,  
eta oraindik an omen zaude  
Jaungoikoaren emazte.

Denbora artan zu artutzeko  
nengoen pozik ta trebe,  
etzinduten, ez, artu, damatxo,  
artu bazinduten obe.  
Oraindik ere zutaz aztuta  
ez naiz bizi, Mari Tere,  
ez dezu uste bañan Txikiak  
maite zaitu oraindik ere.

## PERURENARI

Zestoa, 1986-II-15.

Gaia: *Euskadiko sei orduak* pasatu berriak dira, eta telebistaz ikusi genduenak izan genduen aukera. An Perurena aundia 295 kiloko arri ura jasotzen ari zan garaian, lenengo filan antxe ikusi genuen Lazkao-Txiki. Zer du kontatzeko?

Emen edonork ongi badaki  
zeintsu degun Perurena:  
mutil aundi bat eta astuna,  
ongi ornitua dena.  
Zeuek e ongi badakizute  
nik esan bear dutena;  
bera daukagu Euskal-Erriko  
indartsurik aundiena.

*Sei orduetan* arri ondoan  
an egon nintzan berakin,  
arria ere jaso nezaken  
nik eldu banio baldin.  
Espektakulo ura austeak  
neri ematen zidan min,  
ez nuen jaso Perurena ura  
itxusi geldi etzedin.

Perurenaren indar aundiak  
zail da edukitzen denak,  
arritu giñan bere aurean  
an begiratzen geundenak.  
Aixa jasotzen zitun guziak  
txiki eta aundienak,  
neska koskor bat jasoko luke  
ura jasotzen duenak.

## AUR BAT SALBATZEARREN

Orio, 1986-IV-26.

Gaia: Bergaran gertatua da au: ama batek aur bat utzi dio beste ama bati berea zaindu dezaion, eta istripu bat gertatu zan: eleizako orma bat erori zan eta, aur ori salbatzeagatik, beste ama orrek bizia galdu zuen.

Egun batean deitu nizuen  
nere aurtxo zaintzera,  
izanez ere aurren zale ta  
maitagarria ain zera.  
Eliz ondoko pareta zar bat  
erori zan goitik bera,  
nere semea saibatzearren  
orain, gaixoa, il zera.

Zure biotza nik ikusten det  
ain maitekor eta tinko,  
zuk egin dezun obra on ori  
nik gordeko det betiko.  
Nere aurra're illik ote zan  
ala nion nerekiko:  
"Oin umezale izan ez baziñan  
zedorri etziñan ilko".

Nere aurtxo zaintzeagatik  
zuri nizuen emana,  
lendik jakiñik ume maite ta  
pertsona fiña ziñana.  
Zu izan zera aur batengaitik  
zeure bizia emana,  
nik egin nuen aur ori baiñan  
zu zera egiazko ama.

## KARAKOL BATI

Usurbil, 1986-VII-5.

Gaia: mundu ontan danok ditugu ametsak eta naiak eta elmugak. Barrazkillo bat, karakol bat ikusi dezu, lurretik arra betera, Usurbilko kanpantorrera igo nairik.

Karakol bat det eleiz-torrean  
barrenean ikusia,  
bidean gora igo naiean  
zegoen bera asia.  
Badakizute motela dala  
gauza orren ibilia,  
nik esan diot: "Segi zuk gora  
ta artu pazientzia".

Azkarrena're azkar iristen  
ez det ikusi oindaño,  
karakol batek ere badauka  
bizkorrenak ain enpeño.  
Jaunak bizia eman ezker  
zeiñek dakigu noraño  
denborarekin juango zeran,  
nekez juaten zera baño.

Badakizute kotxerik gabe  
bizi giñala antziñan,  
baserritarrak goiz etorri ta  
geienak eleiz-eskiñan.  
Gaur kotxeak ta abioi asko  
asko korritzeko diñan,  
baiñan orduan bear zan lekura  
leno iritxitzen giñan.

## ZENBAT URTE?

**Billabona, 1988-VII-29.**

Aranaldek gaia: zenbat urte dituzun galdetzeko esan didate neska batzuek.

Entzun dezute nolakoa dan  
Aranalderen ordena,  
eta pentsatu au ez degula  
emen bostetan onena.  
Orko neskatxak gauz orrengatik  
ote dute ainbat pena?  
Onek besteri botatzen dio  
berak pentsatzen duena.

Urtez ez nago ni oso gaizki  
naizta ez nintzan aunditu,  
nere txikian sarritan badet  
aundiak ainbat meritu.  
Mundu ontako azkarrenak e  
urterik ezin gelditu,  
ai zer bizitza urteak ainbat  
milloi izango banitu!

Nere urteen berri jakin nai  
dute neskatxak orduan,  
esateko're konforme nago  
galdetzen duten moduan.  
Nik nai ainbeste baditut eta  
danak ez dauzkat goguan,  
or itxogin da esango'izuet  
emendik jetxitakuan.

## AURTZAROA

Deba, 1986-IX-26.

Gaia: Joxe Migel gerra aurreko gizona degu. Etzuen guk bezelako aurtzaroa pasa. Zeure aurtzaroari.

Arrazoi dezu: gerra ura're  
zerbait ezagutu nuan,  
ta esateko eskolara're  
apenas enintzan juan.  
Erdi galdurik ibiltzen nintzan  
umezurtz baten moduan,  
Jaungoikoari galdetzen nion  
zergaitik egin ninduan.

Eskolarikan ez genduen da  
bi anai ere il zian,  
baserrian ta lan egiteko  
iñor etzegon etxian.  
Neke azpian ibilia naiz  
gazte-denbora guzian,  
zenbait bezela enaiz egona  
Jaungoikoaren grazian.

Beste aur batek izan ote du  
olako bizitz tristerik?  
Iru bat urte pasa nituen  
pasatu gabe goserik.  
Razioan da jateko ez gendun  
ogi gorria besterik,  
orregaitikan enuen izan  
mutil aundia azterik.

## **AITONA GAROTAN**

**Agiñeta, 1986-XI-9.**

Gaia: gaur onera zatozela, irurogei ta amabost bat urte inguruko aitona bat garotan ikusi dezu.

Penagarria izan izan da  
zenbait gizonen bizitza,  
zurea ere etzan izango,  
ez, zorioneko ditxa.  
Jaia danik gaur ez dakizu zuk,  
au ez da zure egintza,  
zeure auzoko jaiak dira ta  
garotan zertan zabilta?

Baserritarrak berekin badu  
zenbait zoritxar, naigabe;  
kalean jaio baldin baziñan  
zeuretzako askoz obe.  
Irurogei ta amar urte ta  
edadea dezu sobre,  
eta oraindik arkitzen zera  
jubilaziorik gabe.

Irurogei ta amar urtetan  
lanak bukatu ezinda,  
gaiñera pobre bizi zerala  
ni nola nagon jakinda,  
eta garotan zabiltz oraindik  
zutik ibili ezinda,  
makiñatxo bat gazte badago  
zuk baiño gutxigo eginda.

## **KABI AUTSIA**

**Altzo, 1986-VII-31.**

Gaia: menditik ibillaldi bat egiten ari zerala, or ikusten dezu mutiko-talde bat txori-kabi bat artzen eta txikitzen.

Txoritxuekin ongi pentsatzen  
jarriko baldin bagiña,  
kontzientzian ar bearko guk  
joango ez litzaken miña.  
Kabia austen mutikotxoak  
ainbat kostata egiña,  
gizonak degu alde ortatik  
ezaguerarik txikiña.

Mokoan artu belar-izpi bat  
eta urrena buztiña,  
illabetean eraman eta  
egingo zun alegiña.  
Tristuraz daukat nere biotza  
eta eraman eziña,  
bere umeak babestutzeko  
ainbat kostata egiña.

Mutikotxoak, ori egiten  
pasarik il bat guztia,  
eta zuek or ori autsitzen  
ez al dek gauza tristia?  
Konparazio batekin orain  
nai nitek adieraztia:  
nai al dezute zuek gordetako  
seaska ura austia?



## ISPILLUARI

Aia, 1986-VIII-7.

Gaia: aspaldiko partez gaur begiratu omen dio ispilluari, eta egundoko parregurea eman omen dio.

Gazte nagola esan dit baiñan  
ez da izango egia,  
nik bezelaxe ispillukoak  
triste dauka bekokia.  
Traje zar baten antza badauka,  
zimurturik dago ia,  
ikusten diot badadukala  
plantxatu baten premia.

Beiratu diot beste aldera  
burutikan anka aldera,  
ta eman diot mutilzar edo  
zartutakuan tankera.  
Negua baiño lenago baldin  
mogitutzen ez bazera,  
negu gogorra egiten badu  
zuk aurten il bear zera.

Beste aldetik parrez zegoen  
mutiko gizarajua,  
ni ez-ezikan iruditu zait  
ori dek aparejua!  
Zergatik edo burlaz al daukak  
parre egiteko gogua?  
Ixildu adi, i ere ez aiz  
ni baiño aundiagua.

## SEASKAN DAGOEN SEMEARI

Bilbo, 1986-VIII-21.

Gaia: ain formalduta zagoz, etxeko atarian seaska bat ere eragiten zagoz. Badakigu bertso asko kantatuta zaudela. Baiñan ez dakit inoiz kantatu diozun zeure semeari.

Orain artean mutilzar negon  
baiñan ezkondu naiz aurten,  
ara ikusi len txarra baiñan  
ni zenbat formaldu naizen.  
Semetxo bat e sortua degu,  
zeiñen polita datorren,  
pozaren pozez emen ari naiz  
seaskari eragiten.

Nere biotza gaur aurkitzen da  
maitetasunez betia,  
orain artean naiz ta eraman  
ain bizitza arlotia.  
Azkenerako iritxia naiz  
gurasoa izatia,  
eta euskaldun ezi nai nuke  
nere semetxo maitia.

Seme maitea, oraindik dakit  
ulertzen ez dezuela,  
izketan ere ez dakizu ta  
ibiltzen zaude motela.  
Baiñan uste det kiñu utsetan  
ulertu zenezakela:  
gure aberri au maita ezazu  
zure aitatzok bezela.

## **ETORRI NERE ETXERA**

**Bidani, 1986-VIII-23.**

Gaia: aur bat inguratu eta esan dizu: "Joan al ninteko zure etxera? Aitak eta amak aldegin didate".

Ai zer galdera polita egin  
didan gaur aurtxo maiteak!  
Joan al liteken galdetu eta  
begiak malkoz beteak.  
Aita ta amak aldegin eta  
aurtxoak dauzkan kalteak!  
Etorri zaitetz gure etxera,  
zabalik daude ateak.

Oraindik mutil gaztea zera,  
geieneko zortzi urte,  
eta bakarrik bizi izateko  
oraindik naikoa gazte.  
Zu ikusita neuk artutzen det  
makiña bat buruauste,  
zure aitak ta amatxok nunbait  
bate biotzik ez dute.

Aurtxo bat ola emen uzteko  
eskubiderik ote da?  
Jendea txartzen ez ote doa  
emen urtetik urtera?  
Ni're bakarrik bizi naiz, aurr,  
zu geldi zeran antzera,  
biok an biziko gera eta  
etorri nere etxera.

## EMENDIK EUN URTERA

**Bidani, 1986-VIII-23.**

Gaia: nolakoa gustatuko litzaizuke izatea, emendik eun urtera, gu bizi geran mundu au?

Esaten dezu nolakoa nai  
daukagun bizi-tokia,  
eun urte luze dirade baiñan  
badu aldatze premia.  
Lanikan gabe guztiontzako  
eguneroko ogia,  
ta anai artea izan dedilla  
inbiririkan gabia.

Aurrerapenez dagonerako  
dago aldatzen asia,  
baiñan bestetik mundu au degu  
gorrototsu itxusia;  
eta sendatu orain arteko  
kantzer edo gaitz guzia,  
gutxieneko eskatutzen det  
eun bat urteko bizia.

Eta nolako mundua nai dan  
nai nuke adierazi,  
eun urtez ezin genezakegu  
zer gertatzen dan ikusi.  
Emengo danak guk ordurako  
juango gera igesi,  
nai nukena da alkarri barka  
ta danak pakean bizi.

## MAITEMIÑA

Ordizia, 1986-XII-27.

Gaia: iñoiz maitemindu al zera?

Nik ere banun maitetasun bat  
ta jar zaitezte jakiñik,  
egiazkoa danean ez da  
orren gauza atsegiñik.  
Berari ez nion ezertxo esan  
ta ez daukat beste miñik,  
seien bat urte pasatu nitun  
berakin aztu eziñik.

Neuk ez nion, ez, ezer galdetu  
maitatzen nuen orduan,  
zeiñen neskatxa polita bera  
oraindik daukat buruan.  
Eta andikan urte gutxira  
ni soldadu nintzan juañ,  
gerozti ez dakit bizi o il dan  
edo dabillen munduan.

Lazkao-Txikik ere izan zun,  
bai, gaztetan maitemiña;  
au pasatu da zoritxarrean,  
berak beregan du eziña.  
Nundik ote dan billa ta billa  
saiatu naiz alegiña,  
oraindik ere maitatzen zaitut,  
ai azalduko baziña!

## **MIÑA, OIÑAZEA**

**Zumaia, 1987-IV-25.**

Gaia: Miña, oñazea.

Miña zer degun oso zaila da  
bertsoetan esatea,  
triste bizi dan norbait badago  
oiñaze miñez betea.  
Beretzat ere naigabe asko,  
albokoentzat kaltea,  
ta miñez bizi diran aiekin,  
Jauna, erruki zaitea.

Miñez dagonak aztutzen ditu  
adiskide ta lagunak,  
miñarentzako txarrak baidira  
arratsak eta egunak.  
Iñoiz neuri're emanak ditu  
alako estuasunak,  
miñaren berri ez du esango  
iñoiz probatu ez dunak.

Miña badago Euskal-Errian  
gogoratuko bagiña,  
puskatu eta bizi gera gaur,  
batuak giñan antziña.  
Ainbat partidu, ainbeste zati,  
egin zagun esamiña:  
bat bear eta danak banaka,  
orrek ematen du miña.

## LOREZ BETETAKO SAGASTIA

Gaia: zure baserriko leiotik begiratu ta lorez beteta dagoen sagastiari.

Gure etxetik aurrera dago  
sagasti berri-berria,  
pozaren pozez artu ezazu  
nere ongi etorria.  
Zein alaigarri zu ikusita  
dagoen udaberria,  
gure erriko frutu emale  
sagasti maitagarria!

Lore txuritan jantzita zaude,  
gaur ain apain zaude dena,  
zure gaiñean txoriak ere  
dabilkiten zoramena!  
Iñoiz bat edo bi igartutzean  
nik artutzen dedan pena!  
Zure igaliz egiten baida  
edaririkan onena.

Sagasti on bat lore berritan  
ikusten danean txukun,  
pentsatutzen det zenbat poztu ta  
zenbat txoratutzen gaitun.  
Aspaldi ontan asko igartu  
eta surtara dira jun,  
nik eskatzen det lenen ordañak  
berriz aldatu ditzagun.

## UME BAT NEGARREZ

Andoain, 1987-IV-30.

Gaia: gaur gauean ume baten negarrez esnatu zera, eta gero dana ametsa zan.

Bart ametsetan zer gertatu zan  
ezin nioen antzeman,  
ume txiki bat negarrez zegon  
askotan oi duen eran.  
Amaren faltaz ote zegoen,  
ala zirudin tankeran,  
beste aldetik kezkatu nintzan  
nere semea ote zan.

Ume txikiak beti txoratzen  
ta errukitan naukate,  
eta lastima nere umeak  
biziko dira aparte.  
Orregaitikan kezka txar ori  
nereganatu zait bart e,  
ta esan nion: "Zaude ixilik  
amatxo etorri arte".

Eta ametsa izan bear zun,  
ni ustez nenbillen egiz;  
negar-malkoa irten zitzaidan  
nere maitasun geiegiz.  
Zartutako bat beti egoten da  
aingeru berrien premiz,  
gezurra zan da askoz naio nun  
gezurra izan ez balitz.



## FESTA AURREKO BANDOA

Legorreta, 1987-V-23.

Gaia: Legorretan gaiñean ditugu festak. Lazkao-Txiki, erriko alkatea zeran aldetik, bota ezazu festa aurreko bandoa.

Festa aurreko nere bandoa  
orain dijoa zuentzat,  
erriko alkate bezela naiz ta  
asko kostatutzen etzat.  
Ipiñi ditut musika onak  
ta festak dira danentzat,  
naiko jana ta dibertsioa  
ere badago zarrentzat.

Eta aurrean ikusten ditut  
emen makiña bat gazte,  
eta gaur nator zuen izketan  
mesede on baten eske.  
Festa-alditan gaur ikusten da  
zenbait istillu ta naste,  
au eskatzen det, gazte maiteak:  
pakean ibil zaitezte.

Azaldu ditut iru bertsotan  
nere gogoaren naiak,  
aitorturikan nola diraden  
Azentziotako jaiak.  
Bertso onekin agur ta erdi,  
arrebak eta anaiak,  
pasa itzazute erriko festak  
umoretsu ta alaiak.

## **NESKAMEA**

**Urnieta, 1987-VII-16.**

Gaia: nolako neskamea artu nai zenuke?

Neskame bat artu nai det  
gazte xamarra al dala,  
ez da ajola naiz gizona  
naiz izan ere argala.  
Eta urrena esango diot  
ondo ordainduko dala;  
langabezian iñor badago  
eskua jaso dezala.

Jornal ona emango det  
nai badezute aditu,  
labadora ere badet  
ara nik lanak neurritu.  
Umeak zaintzen ez dauka lanik  
baizik bazkaia serbitu,  
ortik aurrera oso lan gutxi:  
gure etxea garbitu.

Eman ditut aditzerak,  
badakizute guztiok,  
ta bear ez dan gauza txarrik  
ere egingo ez diot.  
Neguan ozten baldin bada ura  
lo egingo degu biok,  
ta masajerik bear baldin badu  
neuk emango dizkiot.

## EZKONTZA

**Billabona, 1987-VII-30.**

Gaia: ezkontza.

Ezkontzea re dana ona dala  
esan asmotan ez nago,  
gauza ori nola pentsatu nuen  
gaur baiño aspaldiago.  
Ezkondu eta mutilzar berdin:  
munduan ainbeste trago;  
ez dakienak zail da ematen  
emen ejenplo geiago,  
gurutza askok artutzen dute  
pentsatu baiño lenago.

Ezin konponduz andre-gizonak,  
ori da gauzik txarrena,  
pentsatu gero nolakoa dan  
gauza orren ondorena.  
Aita ta ama aserretuta  
aurtxoak daukaten pena!  
Zer egin eta zertan dabiltzan  
pentsa bezate aurrena,  
ondoren txarra da gurasoak  
askotan uzten dutena.

Badakizute zer esana zan  
ezkondu ziñatenean,  
abade batek galdetu eta  
aldarearen aurrean:  
alkar maiteko zendutela an  
zorion eta txarrean;  
orain ezin konpondurik emen  
ezkondu ondorenean,  
oraintxe zaute len agindua  
orain bete bearrean.

Ikusten ditut zenbait pareja  
asarre nola dabiltzan,  
lenago ainbat maite ziran da  
txakur ta katuen gisan.  
“Maitatzen zaitut”, “ona zerade”  
leno agindu elizan,  
baiñan gauz garratz eta gozoak  
badira gure bizitzan,  
nik gauz oik danak pentsatu eta  
mutilzar gelditu nitzan.

## ATZERRITARREN GIDARI

Altzo, 1987-VII-31.

Gaia: atzerritar batzuk etorri dira Euskal-Errira, eta zuk erakutsi bear diezu nolakoa dan gure erria.

Toki berri bat ikusi nairik  
elduak zerate aurten,  
zerua bezin toki polita  
billatuko degu emen.  
Pertson gaiztoak gerala ere  
asiko ziran esaten,  
baiña guztiak fama eman da  
egi ez dira izaten,  
terrorismoa badaukagula  
ere esango zizuten.

Tokia berriz ikusiko da  
pasatutako orduan,  
itxaso urdin eta berdea  
nunai badago kanpuan.  
Udaberria datorrenean  
txori guztiak kantuan,  
jendea berriz beti euskeraz  
erri-oitura santuan,  
au baño toki politagorik  
iñon ez dago munduan.

Ikusiko da iriburua  
deritzaiona Donosti,  
ikusi orduko zuen begitan  
gustatuko dana noski.  
Naizta ez daukan zenbaitek ainbat  
toki alai ta eguzki,  
plaia eder bat ere badauka  
bere isla eta guzti,  
politagorik ez da izango  
Ameriketaz onunzti.

## **AUR BAT NEGARREZ**

**Aduna: 1987-VIII-22.**

Gaia: aurrean negarrez ikusi dekan aur bati.

Mutil koxkor bat kalean zear  
dabil negarrari emana,  
ni inguratu natzaionean  
etorri da neregana;  
eta auxe da lendabiziko  
nik galdetu diodana:  
“Mutikotxoa, nundik dabilza  
zure aita eta ama?”

Mutikotxoak onela zion:  
“Neretzako bada kalte:  
aita ta ama len batean da  
atzotik dabilz aparte;  
eta oraindik nere baitako  
nik daduzkat zazpi urte,  
biak dibortziatu eta ni  
bakarrikan utzi naute”.

Pentsa zazute, o gurasoak,  
negargarria da gero:  
mutiko batek zazpi urte ta  
ez kariño ta ez bero.  
Gauean ere babesik eta  
oerik ez du espero,  
obe da mutilzar gelditzea  
gero oi egitezkeru.

## ALPERKERIAREN GORAIPAMENA

Bilbo, 1987-VIII-22.

Gaia: alperkeriaren goraiamena egin dezala.

Zenbaitzu pertson ondatu duen  
len zoritxarreko lanak,  
gu gera beti orain bitarte  
orrela jardun geranak.  
“Langillea naiz, langille ona”  
dira askoren esanak,  
obetoena bizi dira gaur  
gizon alperrak diranak.

Berandu samar baiñan oraintxen  
ni erori naiz kontura,  
aberatsak e lanik iñortxok  
ere ez duela gura.  
Beti lanean ibili gera  
lana arturik ardura,  
orregaitikan makiña baten  
korputza ola galdu da.

Alperra danak ai zer suertia,  
ni ere banintz obia;  
langille jaio nintzaden eta  
aspertuta nago ia.  
Naiago nuen izan banintza  
ni alper aundi-aundia,  
langillearen kontura alperrak  
beti jaten du ogia.

## ATXUKARRO

Sorabilla, 1987-VIII-27.

Gaia: Atxukarro.

Gaur aditu det gure Atxukarro  
illikan degun berria,  
ezagututzen genduenentzat  
ain gauza negargarria.  
Itzaldu zaigu euskal sukalde  
askok maite zun argia,  
txoko askotan atsegin eta  
umore pranko jarria.

Euskaldun garbi eta jatorra,  
umilla eta apala,  
denok dakigu guztion lagun  
jatorra izan ziñala.  
Entzun degu guk gure lagun bat  
umoretsua il dala,  
bizia eman zizuen Arek  
berekin artu zaitzala.

Umore pranko jarri ondoren  
il zerade azkenean,  
amaika aldiz alkarganatu  
giñan Zegama aldean.  
Umore duen lagun jator bat  
gaur falta degu taldean,  
guretzat toki bat gorde zazu  
emendik goazenean.





Inazio Mari Atxukarro eta Lazkao-Txiki.

## ATE ONDOKO TXAKURRA ZANARI

Mutriku, 1987-IX-11.

Gaia: badakigu oso txakur zalea zerana. Lengo egun batean, bertso-saio batetik etxera joan ziñanean, zure txakurrik maiteena ikusten dezu tiro bat emana eta illa.

Ene txakurra, ainbeste urte  
pasa dituzu atean,  
askatasuna nai zendun baiña  
beti lotuta katean.  
Agur goxo bat egiten zendun  
zure ondora joatean,  
merezi ez dezun errematea  
artu dezu azkenean.

Txakur gaixoa, ikusi zaitut  
illotzik edo tristerik,  
zere denboran ez dezu izan  
ogi koxkor bat besterik.  
Ez nuen uste azken txar ori  
gaur zuregan ikusterik,  
mantenu truke ez du gizonak  
zu baiño lagun oberik.

Mingarri izan dirade zure  
mundu ontako egunak,  
kate batean lotuta dira  
denbora geiegi junak.  
Orain negarra egiten dizu  
biotzez maite zaitunak,  
guk ainbat ezaguera ez dauka  
tiroa bota dizunak.

## ZAKURRA ERE ITXUTU

Ugarte-Amezketeta, 1987-X-10.

Gaia: egizu itxua zerala, eta egunero bidea erakusten dizun zakurra ere itxutu egin dala.

Neretzat ez da iñoiz egunik,  
neretzako beti illun,  
ni beti berdin-berdin bizi naiz  
nola gau ta nola egun.  
Jaio baiño len, Jainko maitea,  
ezeren kulkarik ez nun,  
betiko gauan bizitzezkero  
zertako sortu niñuzun?

Kalerik ezin iñolaz pasa,  
beti ibiltzeko bildurra,  
neretzat berdin eguna ta gau,  
itxasoa eta lurra.  
Txakurrarekin neukan nik orain  
nere itxaropen apurra,  
ta azkenikan itxutu dezu  
lagun nedukan txakurra.

Txakurra, zukin joaten nintzan  
kalera eta etxera;  
biok itxutu, biok gauean,  
au legezkoa ote da?  
Berrriro ere txakur maitea  
ni orain arteko antzera,  
galdu bear bada naio det galdu  
nonbaiten biok batera.

## **KANTAURI ITXASOAREN ASARREA**

**Tolosa, 1987-X-11.**

Gaia: joan dan astean, Donostian, itxasoak lan gogorrak egin ditu. Zu, Joxe Migel, itxaso zera, eta esaiguzu zergatik zatozen orren asarre.

Lenago nintzan bareagoa,  
lenago nintzan apala,  
baiña ikusi det nere terreno  
artutzen ari dirala.  
Orregaitikan nik defenditu  
bear det nola edo ala,  
jakin zazute Donostin Grosa  
lenago itxaso zala.

Itxaso onek lenago etzun  
gorroto txarrikan maite,  
zenbatsu burla egiñak ote  
zerate neri gaur arte?  
Baiña nik ere baditut mugak  
ta bear det nere parte,  
leno pakean nengoen baiña  
ostutzen ari zerate.

Ori dalako asarretuta  
etorria da Kantauri,  
orregatik zan oinbeste aize,  
orregatik ainbat euri.  
Nere paraje onentxoanak  
kendu didazute neri,  
emen burla eiten baizaio beti  
pakean dagoanari.

## OE MAITEARI

Donostia, 1987-X-25.

Gaia: illuntzero ixil eta gozo artzen zaituen oeari.

Oe maitea, gauz atsegiña  
ta polita zera egiz,  
amaika arrats pasatzen ditut  
zure gain on orren premiz.  
Jeikitzen ere ez dezu uzten  
dezun maitasun geiegiz,  
naiago nuke zure gaiñean  
sarrigo egongo banitz.

Zure gaiñean egon izan naiz  
gaixorik nagoenetan;  
o nere oitxo maitagarria,  
ederra zera benetan.  
Eta askotan etxeratzen naiz  
zuregantzeko pozetan,  
zure babesa eskeintzen dezu  
neguko arrats otzetan.

Zu zera nere bigarren lagun,  
zu zera nere pitxia;  
gaur ere pena aundia daukat  
nik orren goiztar utzia.  
Zuregan izan nuen mundura  
bein sortutzeko grazia,  
Jaunak nai badu zure gaiñean  
desio nuke iltzia.

## **TXERRIKIA GALERAZIA**

**Beasain, 1987-XI-13.**

Gaia: urte-sasoi ontan, oi dan bezela, aurten ere txerria il dezu. Urtero oi dezun bezela, sendagillearengana joan zera zeure txerri-opari orrekin, eta berak zera esan dizu: zuk txerrikoa jatea debekatuta dezula.

Neretzat txerrikoa txarra da  
zuk aitortzen didazunez,  
orain artean ni penatu naiz  
ori gizentzeko lanez.  
Gure auzoa beteta dago  
aitonez eta amonez,  
beren bizia pasa dutenak  
naiko txerrikoa jenez.

Ez dakit gure txerriki ori  
gaur zer maillatan daukagun,  
geure denbora guzian ori  
jenez pasatu oi gendun.  
Orain neretzat txarra detala  
ta nik nola gaur erantzun?  
Nik onen partez naiago nuen  
lana kendu bazidazun.

Aldrebes esan ote didazun  
ere pentsatutzen nago,  
nere denboran potajeetan  
jana naiz amaika txango.  
Beste malezi batekin ere  
etzaudela ez det esango,  
nik jaten badet pentsatzen dezu  
zeutzat ez dala izango.

## **NEGAR ALA BARRE?**

**Markina, 1987-XII-8.**

Gaia: negar ala barre?

“Negar o parre?” esaten zidan,  
entzun dezuten moduan,  
badakizute egite onek  
gaur zenbatsu tranpa duan.  
Askok negarra ta askok parra  
izaten dute goguan,  
biak e oso zallak dirade  
gogorik ez dan orduan.

Entierruan izandu nintzan  
lengo arratsalde baten,  
gizon bat eta beste bi andre  
irurak negarrez zeuden.  
Erentziaren zai omen zeuden,  
alboan ala zioten,  
ara zenbat gauz egiten degun  
itxura egitearren.

Derrior onek nai ez duela  
artutzen digu indarra,  
ondo pentsatzen jarri ezker  
ez al degu gauz bat txarra?  
Sentitutzen dan orduan dago  
gauz ori egin bearra,  
txarrak baidira sentitu gabe  
nola negar eta parra.

## GABONAK KARTZELAN

Aretxabaleta, 1987-XII-11.

Gaia: Gabonak badatoz, bañan bada zenbait jende  
Gabonak kartzelan pasa bearko dituztena.

Mundu txar ontan zenbat arazo  
izaten ditun gizonak!  
Erri ontan e izango dira,  
badaude edo egonak.  
Etorri arren Eguberriak,  
etorri arren Gabonak,  
zorion asko ez du izango  
giltzapetuta dagonak.

Orrela alperrik galtzen dijoa  
Euskal-Erriko indarra,  
Jainkoak ere ez du entzuten  
egindako deadarra.  
Zenbait amatxok, zenbait aitatxok  
egingo dute negarra:  
semea giltzapeturik eta  
bakarrik egon bearra.

Noiz amaituko ote da, Jauna,  
gizonaren arazoa?  
Askatu zazu giltzapetua,  
askatu zazu presoak,  
parre-irritan ipiñi dezan  
gure amatxo gaixoa,  
ea noiz emen alkartzen geran  
eusko fameli osoa.



## TXEPETXA

Zumarraga, 1987-XII-12.

Gaia: Markok Otañoren bertso bat kantatuko du, Lazkao-Txikik iru bertso kanta ditzan.

*Markok:*

*Euskal lurreko txorietan dan  
txikitxuena da bera,  
gaztain kolore bakarrekua,  
nai bada ez da ederra.  
Begi argiak, buru xanpala,  
moko tentia aurrera,  
gorputza motza, anka laburrak,  
xaltokako ibillera,  
xalapartaka egalaria  
eta kantari ergela.*

Lazkao-Txikik:

Orra zer fama Lazkao-Txikiri  
dioten emen atera,  
nik bai al daukat sasi tarteko  
txepetxak duen tankera?  
Or gabiltzade udaberrian  
sasi batetik bestera,  
baiñan sinistu: gu txikienak  
fiñenak izaten gera.

Txikiak ere txikitan badu  
aundiñaren desiua,  
amaika aldiz aundi batzuei  
emanikan leziua.  
Badauka nundik egan egiña,  
badauka nora iua,  
txepetxak ere egin izan du  
aundien serbiziua.

Txori txikiak ikusitzean  
etzaitzeltela arritu,  
bizimodua atera eta  
kabian aixa kabitu.  
Zer gauzak liraken bere senti-  
mentuk esango balitu?  
Putrerik aundienak bezela  
umeak azitzen ditu.

## ELUR AZPIAN

### Idiazabal.

Gaia: Aralarra eskiatzera joan, elur zulo batera sartu eta iru egun daramazkik atera eziñik.

Nik bezelaxe badakizute  
eskiatzaillen berri ta:  
mendi ontara etorri nintzan  
ni elurra ikusita.  
Baiña zer indar izandu nuen  
nere lanean asita!  
Elur azpian sartuta nago  
jostatzera etorrira.

Auxen da une tristia eta  
auxen da une zekena!  
Bakardadea besterik ez da  
emen ikusten detena.  
Lagunik iñun ez dago eta  
orrek ematen dit pena,  
bildurrez nago elur azpian  
ote dan neure azkena.

Zeiñi deiturik ere batere  
nolatan ez dagon emen,  
mendi guztia elurrez txuri,  
une bat ez dago lurmen.  
Ez dakit nere beste lagunak  
zein tokitan ô nun dauden,  
zeru ta lurren jabe zeranak  
lagundu zaidazu arren!

## **AURRA OTARREAN**

**Azpeitia, 1987-XII-19.**

Gaia: bart arratsean, etxean bakarrik agola, norbaitek atea jo dik. Irten dek eta or billatu dek otar txiki batean aur bat papertxo batekin. Paperak onela zio: "Joxe Miel, zeurea da eta zeuk azi!"

Lazkao-Txikik ona aurtxo bat  
naizta dagoen ezkongai,  
negarrez zaude, aurtxoa, eta  
orain egon zaitetz lasai.  
Zu bezelako aurtxo polit bat  
ez dira sortzen nolana,  
apellidua emango dizut  
ta maitasuna ere bai.

Gu, mutilzarrak, gera askotan  
zabar ibiltzen geranak,  
ez dakigula eiten ditugu  
postura ortako lanak.  
Ara frutua jakin gabe ta  
gero etortzen diranak,  
biotz aundirik ez dauka ola  
zu utzi zaituen amak.

Lazkao-Txiki txikia bañan  
ona mutiko apaiña,  
nik e utzi bear nun gurasoak  
utzi ninduten ordaiña.  
Muxu gorria eta polita  
ta begitarte apaiña,  
biberoiak aziko zaitut  
titirik ez daukat baiña.

## SEMEARI

Ondarroa, 1988-I-9.

Gaia: zu aita zera; ta gauerdian semea beldurrak eragin-  
da-edo esnatzen da negarrez. Ixildu ezazu iru bertsotan.

Orain artean lotan beterik  
zeunden, semetxo maitia,  
ta zer dalako pentsatzen dezu  
orain negar egitia?  
Oraindik lasai lo egin zazu,  
negarra gure kaltia,  
aundixeago egin bitarte  
ixilik egon zaitia.

Artu itzazu, seme maitea,  
nik emandako bi muxu,  
orren polit ta otxana zera,  
danak merezi dituzu.  
Orren gazterik erriarekin  
konturatuta zaude zu,  
Euskal-Erria preso dagola  
zeñek abisatu dizu?

Orain lo ta lo egon, semetxo,  
au artu zazu gogoan:  
etsai txar eta indar galduak  
daudela gure alboan.  
Gazterik artu dezun gogo oi  
gorde zazu zeure asmoan,  
denon artean askatuko deu  
aundia azitakoan.

## SAN MARTIN LOINAZKOARI

**Matxinbenta, 1988-II-6.**

Gaia: San Martiñen elizan eta San Martiñen jaietan gauden ezkerro, ezingo degu aztu gure Matxinbentako Zaindaria, Goierriko semea, Japonen martiri il zana.

Beasaiñen jaio Amunabarron,  
nik beintzat ala det jakin,  
an bataiatu eta izena  
ipiñi zizuten Martin.  
Gero kanpoan ikasi eta  
apaiza ziñan zu egin,  
gero kanpora Jesusen Berri  
Ona an zabaldu zedin.

Gaur ez da arren fin da zintzorik  
zoritxarrean ikusten,  
ni arritzen naiz gure Jesus zer  
ta zenbat maite zenduten.  
Bere berria zabaltzen zendun,  
bate etzenduten eten,  
ain firme zeuden beren sinisgaitz,  
martiri egin zinduzten.

Eta San Martin degu gaur egun  
auzo onen gurasoa,  
ainbat maite ta or aldarean  
ara nun dagon jaso.  
Zeruetatik bidal zaiguzu  
zeure maitasun gozoa,  
ta al dan ongien zaindu zaiguzu  
Matxinbentako auzoa.

## ELURRIK EZ

Andoain, 1988-II-21.

Gaia: aurten Goierriko notizirik edo gertakizunik aundienetako bat Txindoki elurrik gabe dagoala da. Zer ote diote goierritarrak?

Negu ederra aurtengo ontan  
gure aldean egin du,  
bakarrik bizi geranak ortan  
bear degu atsegindu.  
Bañan zapatak saltzen dituenak  
ez ote dirade mindu?  
Lenago ere elurra eiteko  
beñ ere ez det agindu.

Aurtengo ontan Jainkoak digu  
suerte onak emanak,  
naizta ez diran olako negu  
ederrak izaten danak.  
Izanez ere gu mutilzarrak  
baditugu naiko lanak,  
manta bearrik ere ez gendun  
mutilzar bizi geranak.

Ta Txindokiko puntan elurrik  
ere ez du egin aurten,  
nola negua danikan ere  
kasik ez duen ematen.  
Ta aldamenetan larre berdea  
nunaitikan zaio erten,  
ta gure artzai gizagaixoak  
ere zerbait bear zuten.

## **BASERRIETAKO SU BAJUA**

**Zumaia, 1988-IV-8.**

Gaia: baserrietako su bajuari.

Negu-partean su-bazterrean  
pasatzen genun eguna,  
aiton-amon aik ipui kontari  
bazuten zeñek entzuna.  
Orixen degu gaztearoan  
guk an ikasi genduna,  
toki onean daukagu orain  
orduako alkartasuna!

Dakiguna da ez giñala gu,  
ez, milloi askoren jabe,  
bañan alkarri itzegiteko  
umoretsu eta trebe.  
Garai artako alkarrizketak  
orain atzenduta gaude,  
orain bazkaldu egiten degu  
alkarri itzezin gabe.

Orain bezela telebistarik  
etzan izaten orduan,  
ta aurtzaroko egun goxoak  
oraindik dauzkat goguan.  
Zenbat errezo egiten gendun  
su bajuaren onduan!  
Errezatzen da euskeraz ere  
antxen ikasi genduan.



## LANAK EGIN ONDOREN

Leaburu, 1988-VII-2.

Gaia: nekazaria zaitugunez, eguneko lanak amaitu ondoren, etxe-atarian patxaran eseri ta eguzkia nola ezkutatzen dan begira zaude.

Lanak eginda mendi-ertzean  
nago begira jarria,  
eguzkiaren erretirada  
ain dago gorri-gorria.  
Egun osoa pasa dezu ta  
illuntzera doa ia,  
biar goizean ere etorri,  
eguzki maitagarria.

Zuk, eguzkitxo maitagarria,  
batere ez dezu kulpik,  
baiñan eguna pasatu eta  
ez det ikusten gauz onik.  
Ainbeste ordu sartzen ditugu  
ta ez degu ikusten sosik,  
baserritarrok ia ez degu  
lana egiteko pozik.

Aragia're sobre daukagu,  
esnea geiegi gero,  
bakaziorik gabe lanean  
or gabiltza egunero.  
Gazte maiteak, baserritikan  
ezer ez degu espero,  
gaur ura ere garestigo da  
botellan sartu ezkeru.

O baserritar maitagarriak,  
au artu zazute nota,  
ikusten baidet etorkizuna  
dadukagula lur jota:  
len esnari ut-ttanta batzuk  
iñoiz oi genion bota,  
baiñan gaur ez dago botatzerik  
garistiago dago ta.

## ASTOA

Zizurkil, 1988-VIII-14.

Gaia: bakarkako lanean prendak eman zizkioten bertso-lariei gaitzat, eta Lazkao-Txikiri asto bat eman zioten, Astoa erremaletik eldu eta onela kantatu zuen:

Ara, ementxe ekarri dute  
neretzat lagun bapua,  
arriturikan dago gaixoa:  
“Au ez da nere lekua”.  
Nungoa danik ez dakit bañan  
ondo mantendutakua,  
laguna're billatu didate  
neronen tamañakua.

Nundikan ote asto gazte au  
gaur neretzako zuzendu?  
Naiago nuke onek ainbeste  
entendimentu bagendu.  
Olako lagun txiki politak  
oso poza ematen du;  
ikastolan e ibillia da,  
euskeraz konprenditzen du.

Ara neronen lagun polita  
arturik aldamenean,  
emea dala ere esaten  
or ai dira azkenean.  
Nola alako andre politik  
ez dadukaten etxean,  
maiatz aldean berriz ekarri  
iel ipintzen danean.

## **GOGOKOENA**

**Aduna, 1988-VIII-15.**

Gaia: baserrian jaio eta an bizia zeranez, zein animali dezu gogokoen?

Atzo arratsez nik Zizurkillen  
asto bat nuen laguna,  
oraindik oso gaztea zan da  
polita eta kuttuna.  
Bañan bizkarra gogorra zeukan,  
biotza're ez biguna,  
begiratuan antzeman nion  
asko maite ez niñuna.

Ni animali-zalea naiz ta  
askorekin daukat pena,  
beste bi bertsoz esan nai nuke  
neuk sentitutzen dutena.

Txakur-zalea izan naiz beti  
ta ona aitortu dena,  
nola txakurra izan dan beti  
gizonen lagun onena,

Txakurra beti nola izan dan  
pertsone baten laguna,  
bat badadukat neure etxean  
ni ezagututzen nauna.  
Beti agurtzen nau ni goxoki  
zaunka egiñez entzuna,  
txakurra degu gaitz ta onalditan  
abandonatzen ez duna.

## **ILLUNABARRA**

**Ordizi, 1988-IX-10.**

Gaia: kontu egizu, Joxe Miel, Txindokiko gallurrera igo zerala, andik illunabarra ikusteko asmotan.

Sortutzen zaigun gauza guztiak  
betitik badu azkena,  
gauza bera da egunarekin  
ere gertatutzen dena.  
Eguardia du bere punturik  
politen da ederrena,  
gero eguzkia ezkutatzean  
zeñek ez du artzen pena?

Egunsentia ikusitzean  
auxe diot nerekiko:  
denok gerala jaio berriak,  
denok gerala mutiko.  
Bañan ez pentsa inork ere ez  
inoiz ez gerala ilko,  
gure eguna degun bezela  
gu ere ez gera betiko.

Egunsentiak illunabarra  
berekin dakar derrior,  
jaiotzen danak sinis dezagun  
eriotza degula zor.  
Ta egunaren illunabarra  
garbi ikusten degu or,  
guztiok sinis bear genduke:  
guretzat ere badator.

## **BASERRIA SUTAN**

**Mutriku, 1988-IX-17.**

Gaia: zeu jaio eta ainbeste maite zenduen baserria sutan ikusten dezu.

Aurpegitikan kanpora doa  
lengo nere par-irria,  
izanez ere erreautsetan  
ikusten baidet nik ia.  
Zure babesez ikusi nuen  
lendabiziko argia,  
ta zer dalako erre ote da  
ni gorde nindun kabia?

Edozein gauza egin liteke  
berez gaiztoa izanik,  
ta orren gaizki portatu naizen  
irudipenik ez det nik.  
Bañan norbaitek ez du sufritzen  
bere auzokoan onik,  
al bada beste iñori ez egin  
zeretzat nai ez dezunik.

Or sutan zaude, ni gordetako  
Abaliñe basarria,  
nere aurtzaro oso-osoan  
gorde niñuzun kabia.  
Bear bezela portatzen bada  
ni sortu nindun erria,  
gaizkille asko egonagatik  
jasoko degu berria.

## USOA

**Gaztelu: 1988-X-22.**

Gaia: zu zaitugu biar Gazteluko mendietan pasa bear dezun usoa.

Mingarria da uso gaixoak  
munduan daukan bizitza,  
pake-zaleak geurez gera ta  
falta da pakezko ditxa.  
Utsa alako egazti aundi  
aragitsua banitza!  
Neguan iges joan nai det eta  
danak tiroka dabilta.

Osto azpian izkutatuta  
ainbeste jende badago,  
nere bearrik ez daukatenak  
dira bat baño geiago.  
Nere lekuan gelditu banintz  
ez ote nun obeago?  
Bidean tiroz il bear naute  
iritxi baño lenago.

Negu beltzari igestutzeko  
banuen itxaropena,  
bildurgarria, ene kristauak,  
bidez ikusten detena.  
Seguru nago irixterako  
norbaitek ilko nauena,  
sinistatzen det gizona dala  
munduko pizti txarrena.

## SOLDATA

**Landeta, Azpeitia, 1988-XII-5.**

Gaia: etxeke lanetan ari diran etxekoandreei larogei ta amabost milla pezetako soldata tokatzen omen zaie. Zuk etxeokoak eta kanpokoak egiten dituzu. Zuk zer eskatuko zenduke: soldata edo beste zerbait?

Ni bakarrikan nago etxean  
ezkongai ta oso noble,  
soldatarikan ez daukat bañan  
baldin baneduka obe.  
Nik neureak ta besteren lanak  
danetatik daukat sobre,  
arek larogei bear baditu  
nik bearko ditut doble.

Ni bizi naizen etxean ez da  
etxekoandrerik martxan,  
izanez ere ezkonduzteko  
epoka ere joan zan.  
Neuk egiten det joste-lana ta  
neronek eiten det plantxan,  
jornalik ez det batere eta  
andre baten esperantzan.

Eta gañera jornalik ez det  
nik inñundikan espero,  
orain ez daukat bañan naiago  
izango banuke gero.  
Etxekoandrerik ez daukat eta  
bakarrik nago soltero,  
nik doble jornal artuko nuke  
norbaitek eman ezkeru.



## **AZKEN ITZAK**

**Oiartzun, 1989-I-6.**

Gaia: Joxe Joakin Mitxelenarekin azkenengo aldia zala jakin izan bazendu, zer esango zenion?

Azken aldian guk Mallabira  
egin genuen bisita,  
zer poz atsegin artu genuen  
biok alkar ikusita!

Jakin banuen bazijoala  
gure Jaungoikoak dei-ta.  
esango nion: "Nora ijoa  
gu bakarrikan utzita?"

Esango nion: "O Mitxelena,  
i utzitzea dit pena,  
bañan munduak berekin zeukak  
asera eta azkena.

Ta ala bada goiko Jaun orrek  
ematen diken ordena,  
egun aundian ikusi arte  
agur t'erdi, Mitxelena!"

Esango nion: "Ango berriak  
bialdu al danik lenen,  
ik ongi dakik notizi gabe  
emen triste nola gauden.  
Lendabiziko jakin nai nikek  
sagardotegirik baden,  
karta txiki bat bialdu beak  
nun da nola bizi aizen".

## **TXANTXANGORRI BATI**

**Zestoa, 1989-II-11.**

Gaia: urtero bisitatu oi duen txantxangorriak aurten ez omen du bisitatu. Zer esan bear diozu, etortzen danean?

Txantxangorritxo polit bat banun  
nere goizeko pozgarri,  
berak esan oi zidan urtero:  
“Zoriontsu urte berri!”  
Ain txori polit, ain zan goxoa,  
beti bezelaxe gorri,  
zer pasa zaizun ez det igertzen,  
aurten etzera etorri.

Zu, txantxangorri maitagarria,  
txori geienen modura,  
gu bezelaxe, sufrituzeko  
jaioa ziñan mundura.  
Negu-partean nik artzen nuen  
zu mantentzeko ardura,  
aurten Jainkoak jaso al zaitu  
betiko bizilekura?

Tristeia baida txantxangorrian  
bizitzaren izatia,  
gu bezelaxe janaren billa  
beti neketan betia.  
Alako txori polita eta  
alako txori maitia,  
illik ez bazera berriz ere  
leiora etorri zaitia!

## **LAGUNEN BERRI**

**Bergara, 1989-III-18.**

Gaia: Joxe Migelek inork baiño obeto ezagutzen ditu bere atzeko lagunak. Emaiguzu beroien berri.

Lendabiziko Lizasorentzat  
nere bertsoen puntua,  
biok batera daramakigu  
bertsolarien mundua.  
Inorentzako ez da bein ere  
gizon txarra izandua,  
nere bototik ori genduke  
urrengo Aita Santua.

Mañukortak e merezia du  
bere sarien ordaiña,  
Bizkai aldeko seme bizkorra  
gaur emen da alajaiña.  
Oraindik mutilzar dago, baiña  
ez al da mutil bikaiña?  
Andre polit bat mereziko du,  
baldar xamarra da baiña.

Gorrotxategirengana doa  
nere oraingoko itza,  
aspalditikan bertso-lanean  
biok askotan gabiltza.  
Ezkondu eta onek darama  
aita jatorran bizitza,  
erriko patroï egin liteke  
santu egingo balitza.

Ta Peña berriz santuen tokin  
ortaraiño nai det io,  
gizon onaren sentimentuak  
sarri ikusten zaizkio.  
Arratsaldeko auto-txokea  
gogoan det oraindio,  
makiñatxo bat sufritu du gaur  
ni naizelako medio.

Txapeldun ori beraz daukagu  
fama bearrik gabea,  
gizon bezela jatorra eta  
bertsotan nor da ohea?  
Zintzo ta garbi betetzen digu  
Jaungoikoaren legea,  
nunaitan ongi azaltzen baita  
aita on baten semea.

## **DENOK ELKARTZEN BAGERA**

**Oñati, 1989-V-24.**

*Kale Zarreko etxe errearen alde.*

Udaberria dala merio  
alkartu gera lau txori,  
txantxikutarrak alaitzearren  
astera goaz kantari.  
Jende jatorra etorri dala  
emendik degu nabari,  
eta lenengo biotz-biotzez  
gau on Jainkoak denori.

Ta samintasun baten jabe gaur  
da Oñatiko erria,  
neretzat ere mintzekoa zan  
gaur entzun dedan berria.  
Entzun dedanez emen etxe bat  
bai omen degu erria,  
bata-besteai lagun egiñez  
altxa dezagun berria.

Suak ta urak egin oi ditu  
makiñatxo bat galera,  
etxea sutan erre zan eta  
goiko teillatua bera.  
Baiñan gaitz ortatik nai genduke  
bertako danak atera,  
ezbear ori zuzenduko da  
denok elkartzen bagera.

## ISPILLUA

**Lierni: 1989-VII-4.**

Gaia: ispillu bat eman zitzaion, ari begira kanta zezan.

Oso ispillu eder polit bat  
didate aurrera ekarri,  
eman duenak jakingo zuen  
mutilzar zar onen berri.  
Gazte dan arte au izaten da  
gazte guztien pozgarri,  
zartutakoan ez da beiratzen  
au gartzetan bezin sarri.

Aizak: nik iri bota bear dit  
bertso koxkor bat edo bi,  
beingoan jarri geran ezker  
biok arpegiz arpegi.  
Neri begira ortik daduzkak  
alperrikako bi begi,  
ik ez nauk noski ni ikusiko  
bañan nik ikusten aut i.

Neri begira jarrita, motell,  
zertako ago onela?  
Ta pentsatzen dit aspalditxotik  
ezagututzen autela.  
Mutilzarraren moko orrekin  
ez dek ematen motela;  
azal-zimurtzen ari aiz, motell,  
Lazkao-Txiki bezela.

## **ABERASTASUNA**

**Billabona, 1989-VII-29.**

Gaia: Billabonan zabaldu omen da zu aberastuta bizi zerala.

Berriro ere zirika dator  
gure Aranalde maitea,(1)  
Lazkao-Txiki gaur e ez dago  
ainbeste diruz betea.  
Asko bear ta gutxi eduki  
ori da gauza tristea,  
jakin nai det zeri esaten zaion  
aberatsa izatea.

Nik daukaten aberastasuna  
esan leike zorra dena:  
baserri bat nik erosi nun da  
ez baidet pagatu dena.  
Aberats ez naiz, pobre izatea,  
orrekin dadukat pena,  
daukadanakin poztea baita  
munduko aberatsena.

Jaunari esker lanari esker  
jakin guk jaten deguna,  
lana egiñez pasatzen degu  
astea eta eguna.  
Bañan bestetik eskertutzen det  
zeru ta lurreko Jauna,  
osasun ona izatea det  
dedan aberastasuna.

---

(1) Gai-jartzaillea.

## GERO ETA AUR GUTXIAGO

Oiartzun, 1989-VIII-4.

Gaia: Euskal-Erriko agintariak beren kezka agertu dute gero eta ume gutxiago sortzen dala.

Agintariei etzaie falta  
ume gutxitxoren miñik,  
baiñan berak e apenas duten  
mordo aundirik egiñik.  
Neronek norbait izan nezake  
baiñan seguru ez dakit nik,  
nunbait seme bat baldin bada´re  
ez daukat seme jakiñik.

Umeak egin bear dirala  
diote or, alajaiña,  
“jendea bear” esate ori  
degu esate apaiña.  
Baiñan nun dago egin da gero  
aiek mantentzeko ordaiña?  
Bateri esaten errezago da  
aiek mantendutzen baiña.

Ume gutxitxo jaiotzen dala  
ta asko kezketan daude,  
alde batera ori pentsatzen  
egon izandu naiz neu’re.  
Eta len ere gutxixago  
bagiñake askoz obe,  
ainbeste seme ementxe dabil  
iñon enpleorik gabe.

Senar-emazte gazte maiteok,  
artu ezazute parte,  
agintariak ume geiago  
bear dala or diote.  
Baiñan oraindik ortan astea  
denentzat liteke kalte,  
pixka batean itxaro zuek  
lana ugaritu arte.



## **SAN LORENTZOTAN**

**Ikaztegieta, 1989-VIII-11.**

Gaia: esaera zar batek ala dio: "San Lorentzok esku batean sua eta bestean euria".

Berriro ere berritu nai det  
aspaldiko esaera,  
eta itz ortan ezagutzen da  
gure San Lorentzo bera.  
Danak neurrian ibilitzea  
askozaz ere obe da,  
sua ta ura onak ditugu  
bañan gerritikan bera.

Sermoi askotan San Lorentzogan  
egon izan naiz entzuten,  
martiri aundi eta santua  
izan baidegu ain zuzen.  
Gure Jesusen fede santua  
ain garbi gorde nai zuen,  
orregaitikan gizarajoa  
parrillean erre zuten.

Ta, San Lorentzo, neurrian egin  
bear diguzu euria,  
bestela ere naiko lanakin  
bizi da nekazaria.  
Etzazu bota lengoko eran  
turmoia eta arria,  
nekazariak gaizki daude ta  
orain erruki zaitia.

## **APAIZAK ZER DIO?**

**Baliarrain, 1989-VIII-14.**

Gaia: zortzian bein etortzen dan apaizak zer dio?

Erri-gizona arrapatzeko  
ia baneukan gogua,  
piska-piska bat txukundutzeko  
eleiza ta ingurua,  
koru-bideko eskallerak ta  
elizan bere zorua.  
Dirua eman, aiuntamentua,  
nai badezute zerua.

Ta emango det falta aundi bat;  
zerk egiten du neurria?  
Eliza dana zabarturikan  
da aspaldian jarria.  
Naiz konfesatzera etzaidan joaten  
ain jende ikaragarria,  
arotz bateri enkargatu or  
konfesonario berria.

Armiarmaren sarez bete da  
txerritegian tankeran,  
ez dakit aiuntamentu ortan  
fedea aundirik ote dan.  
Orregaitikan beste aitzera bat  
zuei nai dizuet eman:  
serora gazte bat e ekarri  
eliza garbitu dezan.

## "ARDI TXIKIA BETI BILDOTS"

Ibarra, 1989-VIII-25.

Gaia: "ardi txikia beti bildots".

Zeñen polita Aranaldek len(1)  
neri eman ditan itza,  
ederki asko esplikatu du  
mutil txikien bizitza.  
Bañan zartzean igesi doa  
gaztetasunaren ditxa,  
naiago nuke zarra izan ez  
eta bildotsa banitza.

Txiki naiz bañan gauza batekin  
bakarrikan nago triste,  
nere ustetan atzo goizean  
oraindikan nintzan gazte.  
Ume ondoren soldaduskara  
eraman niñuten laste,  
atzo goizean zala uste ta  
urteak badijoazte.

Aundi batek e lanak baditu  
ta txikiak ere lanak,  
gu gera geure kulparik gabe  
ola gelditu geranak.  
Bañan pentsatu gu're gerala  
leno gazteak izanak,  
zartutze ori berekin dakar  
gazterik iltzen ez danak.

---

(1) Gai-jartzaillea.

## OSTOAK ERORTZEN

Gaintza, 1989-IX-29.

Gaia: udazkenean sartuak gaude eta garai onetan, oi dan bezela, ostoak erortzen ari dira. Erortzen ari diran ostoei bi edo iru bertso.

Uda berria pasatu zan len,  
eldu gera azkenera,  
bizimodua nolakoa dan  
pentsatutzeko obe da.  
Osto maitea, orain bitarte  
or goiean egon zera,  
bañan azkena iritxi zaizu  
eta bazatoz lurrera.

Bein asi eta bukaerarik  
ez dunik ez gera ñor,  
sortu giñaden denok azkena  
nai ta nai ez baidegu zor.  
Jaiotzen danak il bear ori  
nola berez dun derrior,  
gaur ostoari pasa zaiona  
guztiontzako badator.

Askotan ibilli oi gera gu  
zerbait gerala iritzita,  
eta bein ere ez gera ilko  
geure kasa sinetsita.  
Baña udazkenak guztiontzako  
egingo digu bisita,  
orduan umil bizi gaitezen  
arrokeriak utzita.

## UDAZKENA

**Aizarnazabal, 1989-IX-30.**

Gaia: zuretzako udazkenak zer adierazten du?

Uda azkena urte guziko  
aldirikan illunena,  
arbolak ere billosten doaz  
eta illuntzen da dena.  
Txantxangorriak arbol gainetik  
kantatzen du ainbat pena,  
adierazten du gertuan dala  
urte luzean azkena.

Ostoak ere beraka datoz  
eta nabari da otza,  
aizea ere tristea degu,  
samiña edo mingotsa.  
Bera dalako illundu oi da  
zenbait pertsonen biotza,  
esan nai digu gertuan dala  
urtearen eriotza.

Anai-arrebak, obe genduke  
denak konturatzea or,  
urtea ezik emengo ere  
betiko ez gera iñor.  
Jaiotakoak iltzea nola  
guztiok deguen guk zor,  
urte zarrari pasa zaiona  
guretzat ere badator.

## GILTXURDIN BATEN BEARREAN

**Tolosa, 1989-X-12.**

Gaia: zu, Joxe Miel, gaixo daukazun lagun bat bixitatze-  
ra joan zera, eta giltxurdin baten bearren dagoela adierazi  
dizu.

Aspalditxoan gaixorik zaude,  
falta dezu osasuna,  
nik ongi dakit garai batean  
osasun ona zenduna.  
Gusto aundian emango dizut  
eskatutzen didazuna,  
olakoetan ezagutzen da  
egiz maite dan laguna.

Amar bat kilo galdu dituzu  
joan zan urtetik onera,  
leno etziñan gizona bañan  
piskaka zoaz gainbera.  
Borondateko laguna edo  
lagun zintzoa ain zera,  
biotza ere emango dizut  
giltxurdiñakin batera.

Premi orrekin baldin bazaude  
iñoiz etzaitut utziko,  
nere baietza entzun dezu ta  
zuk ez al dezu etsiko!  
Nere puska bat eman nai dizut  
zure denbora guziko,  
nola baldin zu ilko baziña  
ni ez bainintzan biziko.

## XALBADOR ZANARI

Urepel, 1989-X-29.

Gaia: orai dela hamahiru urte, hemen berean, leku hon-tan, egun batez asko egunez zahartu ginen.(1)

Amairu urte aurten ditugu,  
oraindik daukat goguan,  
bere oore eguna zan ta  
nola kantatu genduan.  
Bertsolari ta olerkari bat  
oberik ote munduan?  
Denok ezagutu baño leno  
Jainkoak eraman zuan.

Gure Xalbador zer gizon genun  
urte oetan ikusi da,  
lenago otzik zegon Urepel  
orain berotzen asi da.  
Egiten zaion oore dana  
Jaunarentzako gutxi da,  
askorentzako ilko zan bañan  
guretzat gaur e bizi da.

Ta Urepelen zabaldu zuen  
Jaungoikoaren grazia,  
gure euskera maitatzea zan  
bere egite guzia.  
Gaur emen bere bi illobatxo,  
denok degu ikusia  
orain jaiotzen ari zaigula  
ark erein zuen azia.

---

(1) Xalbador zanaren eriotza aitatu nai da itz auekin.

## LEEN BERTSO-LIBURUA

Ordizi, 1989-XI-17.

Gaia: gaur goizean, etxeko ganbara txukuntzen ari zerala, ango trastoen artean, zure eskuetan izan zenuen leen bertso-liburua aurkitu dezu.

O liburua, etzaitut izan  
bear bezela jaso,  
zure bitartez eman nuen nik  
bertsoz lenengo pausoa;  
ta arratoiak puska zaituzte,  
etzaude dana osoa,  
bañan oraindik bizirik zaude,  
nere liburu gaixoa.

Toki txarrean inortxo ere  
berri ezin da mantendu,  
ta arratoiak autsi zaituzte,  
orrien erdiak kendu;  
eta lenoko zure nausiak  
au gertatutzea pen du,  
obe genduen armario baten  
txukunao jaso bagendu.

Negar-malkotan egondua naiz  
liburuari begira,  
gazte denboran nik eman nizun  
zuri majiña bat jira;  
ta arratoiak txikitu eta  
utzi zaituzte erdira,  
ta ganbarako arratoi oiek  
erdaldunak ote dira?



## **BEEKO SUA**

**Markina, 1989-XII-8.**

Gaia: beeko sua.

Garai ontako ekonomikak  
bolara artan etzian,  
zuen berririk ez dakit bañan  
etzan, ez, gure etxian.  
Taloak erre ta taloak jan  
gauean eta goizian,  
ni baño mutil aundiagoak  
sarritan azi oi zian.

Beko su ura garai artan zan  
leiteken surik onena,  
bere ondoan bildu oi giñan  
etxeko fameli dena.  
Gure etxean kendu zuten da  
ai nik artu nuen pena!  
Ura izan zan gure euskera  
gaixoa gorde zuena.

Zenbat tertuli! Zenbat kontu on  
esaten genun etxean!  
Gaur alkarrekin itzik ez dago  
telebista ori jartzean.  
Aren ondoan ainbat senide  
bildutzen giñan pakean,  
berriro ere, o euskaldunak,  
bildu gaitezen batean.

## OROITZAPENAK

Bergara, 1990-XII-8.

Gaia: zu ainbat bertsolarirekin ibilia zera kantatzen. Orain ez daude danak: batzuk joanak, beste batzuk ixilduak. Zer oroitzapen dituzu?

Lengo bertsolari zarrak oaindik  
gordeta dauzkat buruan,  
gaur dadukagun askatasunik  
ez gendun izan orduan.  
Uztapide ta Basarri ere  
nago aitatu asmuan,  
bat oraindikan bizi da baiñan  
bestea mundutik juan.

Ipar aldetik Mattin, Xalbador,  
ta Naparrotik Lasarte,  
zenbait jaialdi eder askotan  
guztiak artuak parte.  
Bat oraindikan bizirik dago  
ta beste biak aparte,  
nik aien lagun izan nai nuke  
Jainkoak deitu bitarte.

Garai aietan zorrotzak ziran  
gobernuaren ordenak:  
kantatu aurretik esan bearko  
gerabilzkigun gai denak,  
ia sinistu ez lezateke  
emen entzuten daudenak.  
Zar oiek dira bertsolaritza  
defenditu zigutenak.

## **NESKATOA ESKEAN**

**Durango, 1990-I-7.**

Gaia: onuntz zentozela, zazpi-amar urteko neskato bat eskean ikusi dezu.

O neskatilla maite, polita,  
zertan zabiltz orren triste?  
Begietatik negar-malkoak  
iges egiten dizute.  
Nik galdetu ta neskatz gaixoak  
auxe erantzun dit laiste:  
“Aita ta ama dibortziatu  
ta bakarrik utzi naute”.

Guraso batzun biotza orren  
gogorra zanik nork uste?  
Beraien kulpaz beren alaba  
orren illun eta triste.  
Aterik ate antxen zebillen  
ogi koskor baten eske,  
gaixoak zion: “Bildu bearko  
bizi izateko beste”.

Aita ta ama aserretuta  
juanak dituzu igesi,  
aien maitasun-goxotasunik  
ez dezu asko ikusi.  
Zenbait pertsona nolakoa dan  
ortik pentsatutzen asi,  
aiek ez dute aita ta ama  
deitutzerikan merezi.

## OLAIZOLA ETA URIA

Iraeta, 1990-I-20.

Gaia: kale ontan, erri ontan, auzo ontan, kaleak izena du *Olaizola eta Uria*, bi mutil gazte, garai batean beren bizia utzi zutenak.

Au entzun eta kantuan asten,  
jaunak, bada naiko lana,  
luto beltzean egondu ziñan,  
ene Zestoa laztana.

Negar-malkotan an egon ziran  
ainbeste aita ta ama,  
arrats ura gu bizi gerala  
beñ e aztuko ez dana.

Gelditu gabe oso luzaro  
aritu baizan euria,  
orregaitikan gero izan zan  
izandako aberia.

Bi mutil jator ta emengoak  
Olaizola ta Uria,  
beñen bizitza salbatzarren  
an utzi zuten beria

Urte batzuek badira baiñan  
oraindik daukat goguan:  
batzuek autobus barruan da  
beste batzuek kanpuan,  
errosaioa errezatuaz  
urak eraman zituan;  
Zeruko Aitak artu ditzala  
bera bizi dan lekuan.

## ZARTZAROKO ZIMURRAK

Zestoa, 1990-II-10.

Gaia: zartzaroko zimurra gaztearoko parrak omen dira.

Iñoiz ere nik ez nuen entzun  
onek dion esakera,  
baiñan poz bat det: len gaztea ta  
iritxi gera zartzera.  
Zimurtasuna azaldu zaigu  
daukagun toki danera,  
gaztetan parra ein genulako  
ola zimurtu ote gera?

Sarri geienak emen edo an  
danak zimurra daukagu,  
nik pentsatzen det zimurtasuna  
dala urtearen kargu.  
Gaztetan ainbat parre egin gendun  
eta orain degu damu,  
beti serio egongo nintzan  
leno ori jakin banu.

Egia da, bai: parre egin gendun,  
baitare ainbeste trago;  
baiñan esaldi orren gauzetan  
oraindik zalantzan nago.  
Badaukat gauz bat santa sekulan  
parre egin gabe lenago,  
baiñan gaur egun kopeta ez-ezik  
bapo zimurtuta dago.

## ISABEL OLANORI

**Beasain, Alkartasuna Lizeoaren ogei ta bost urtebetetzean: 1990-V.**

Gaia: ikastolarekin zer ikusi aundia zuen izen bat: Isabel Olano.

Sankristauaren alaba Ixabel  
oraindik daukat goguan,  
ikastola bat txiki-txikia  
or nola ipiñi zuan.  
Gure Patxiko txorrotxallea  
bizirik zegon orduan,  
asera batez ola egiteko  
lan asko egin zenduan.

Ta zoriona berriz, Ixabel,  
eman nai nizuke zuri,  
gaur ulertzen e ez baita errez  
egin zenduen lan ori.  
Zu ziñalako euskera eder bat  
eman zenien askori,  
zuri zorionak ta beste ainbeste  
an ikasi zuteneri.

Izan liteken garai txarrenez  
zu asi ziñan lanean,  
zuk kezka zendun euskerarekin  
biotzaren barrenean.  
Orregaitikan artzen zaitugu  
guztiok zorionean,  
medalla eder bat merezi dezu  
jubilatzen zeranean.



“Zuk kezka zendun euskerarekin  
biotzaren barrenean”.

## **PATXI IRAOLA ETA FLORENTINO GOIBURU**

**Lazkao, 1990-VII-17.**

Gaia: Euskal-Erriko Bertsolari-Elkarteak datorren urtar-rillean bi bertsolari goierritar omentzen ditu: Patxi Iraola eta Florentino Goiburu.

Goiburu eta zu, Iraola,  
etzaitezte egon triste,  
dakiguena omenaldi bat  
zuentzat badator laiste.  
Euskal-Erria dana egon zan  
zuen omenaren eske,  
zuek ala uste ez badezute're  
erriak maite zaituzte.

Iraola ta Goiburu oek  
duten kantuzko grazia,  
Euskal-Errian bizi diranei  
ederki erakutsia.  
Oen omena aspalditikan  
zagon geroko utzia,  
datorren urtez eiten zaiote  
lenago irabazia.

Jakin bezela omenaldia  
prestatua dago dena,  
eta nai degu ikusitzea  
al deguen azkarrena.  
Ezkongai daude ni bezelaxe,  
merezi dute omena,  
oen azia galdu bearra  
orrek ematen dit pena.



## MUTILZARREI ZERGA BERRIA

Mutriku, 1990-IX-8.

Gaia: ume gutxi jaiotzen dala-eta, Gobernuak solteroei inpuestuak igo omen dizkie. Zer iduritzen zaizu?

Aspaldi ontan Gobiernua  
ez dago oso trankilla,  
aurrak eskasten doazela ta  
jarri duten iskanbilla!  
Oinbeste goma eta pildora  
ta orrenbeste pastilla,  
oi kendu arte alperrik dabil  
fameli geioren billa.

Mutilzarrari multa botatzen  
ori beti're errez-ta,  
nik andrerikan ez daukat eta  
orrekin det milla kezka.  
Ta ezkonduak bear bezela  
zuek egizute festa,  
ain ume gutxi jaiotze ori  
mutilzarren kulpa ezta.

Eingo nukenez egon izan naiz  
frankotan edo askotan,  
andre ezkondu bat jarriko balitz  
ni probatzeko asmotan.  
Baiñan pentsatu aur gutxirena  
ez da damua frankotan,  
neuk ere oraindik ingo nituzke  
auzoak mantentzekotan.

Neri kendu or inpestua  
jarri dezuten moduan,  
penetan nago azirik utzi  
ez detelako munduan.  
Emakume bat baldin balego  
probatutzeko goguan,  
zita eder bat egingo degu  
emendik jetxitakuan.

## ZENDOIA TRIKITILARIAREN OMENEZ

Urkia, Itsasondo, 1990-IX-16.

Tomas Zubizarreta *Zendoia* trikitaliaren omenez, ogei ta bost urte Urkira joan ondoren.

Lazkao-Txikik mezetako bertsoak:

Apostoluak artuta Jesus  
mendiratu zan beinguan,  
au ikusita garai uraxe  
gaur etorri zait goguan.  
Soiñu-jole bat ain ospetsua  
nola daukagun onduan,  
milla zorion eta olaxe  
jarraitu urte askuan.

Zerua ere askozaz gertu-  
ago ez al dago emen?  
Edo bestela ni dudan nengon  
zeru ortan ote gauden.  
Saiatuko naiz gure Jabeai  
otoitz berotan eskatzen,  
gaur bezelaxe sarri bildurik  
pakean bizi gaitezen.

Bazkal aurrean:

Oraindik ere badu denbora  
ordubeteko egonak,  
eta nik tripak ikusten ditut  
bajatuak ta sakonak.  
Jan-usaiean atean daude  
andreak eta gizonak,  
bertsorik ez du estimatutzen  
goseak dagon pertsonak.

Ba al dakizute au ikusi ta  
orain zer penitentzi dan?  
Leno probatu ez duen batek  
garbi eliteke esan.  
Gosetu eta ikusirikan  
oinbeste jateko ta edan,  
gazteagoa nintzala ere  
orixe pasa zitzaidan.

Ta milagrua nork ein bear du?  
Ori egiten det galde;  
ordu oetan ez naiz izan ni  
iñoiz milagroen alde.  
Zirien puntan gutxienezko  
amar bat arkume daude,  
emen jendea aseko da gaur  
milagrorik egin gabe.

## SEASKA GANBARAN

Idiazabal, 1990-XII-16.

Gaia: etxeko ganbara txukuntzen ari zerala, zu azitako seaska aurkitu dezu.

Uste gabean orra aurkitu  
nere izate tristea:  
ainbeste merezi dun pitxia  
dana zikiñez betea,  
nere gaztetako oroitzak eta  
ama zanaren dotea;  
pixka bat txukunduko zaitut gaur,  
nere seaska maitea.

Zure ara ta onuntzakoak  
oraindik dauzkat gogoan,  
nola astindu izan ninduzun  
nik lo artutzerakoan.  
Eta amatxo ixildu gabe  
aritutzen zan ondoan,  
aztu eziñik oroitzapenak  
oraindik dauzkat kolkoan.

Beti zure arrera ederra  
nere pozgarri izan da,  
bazterturikan zaude ainbeste  
atsegin goxo emanda.  
Amets goxoak egiten nitun  
zure gaiñean etzanda,  
urte askoan gorde ninduzun  
aixa kabitzen nintzan da.

## **TXANTXANGORRIA**

**Ugarte, 1990-X-13.**

Gaia: asi dira txantxangorriak atarira urbiltzen.

Len izan degu giro ederra  
ta egoaize epela,  
baiñan pentsatu bearra dago  
Errosaiotan gaudela.  
Txantxangorriak etxe ondora,  
zugaitzetik bera orbela,  
kalendario onena au da  
negua badatorrela.

“Ezkur urtea, elur urtea”  
asitzen dira esaten,  
aurtengoak e negu preskoa  
danikan ez du ematen.  
Txantxangorria, gure etxera  
maizik eldu zaite aurten,  
nola zuretzat gordeko dedan  
bear dezun ainbat jaten.

Beste lagunik ez det etxean,  
litzake nere kalteko,  
bion artean ere ez degu  
gure etxerik beteko.  
Txantxangorria ain txori polita,  
nola etzaitut gordeko?  
Negu onetan zu artuko zaitut  
nere senide ordeko.

## XALBADOR ZANA

ETB-ren estudioan, 1990-XI-10

Gaia: Zuk ezagutu zenuen eta, ola, liburuetan-eta beste-rik ezagutu ez dugunoi, esplika zaiguzu iru bertsoetan-edo, zergatik lillurutzen gaituen Xalbador zanak.

Xalbador, inoiz mindu bazaitut  
barkamen eskean nator,  
euskal profeta obeagorik  
berriz ote liteke sor?  
Euskerak eta bertsolariak  
zenbat ote dizugu zor?  
Bizi ziñala zure ordaiñik  
jaso gabeko Xalbador.

Bertso ederrik idatzi zenun,  
etziñan geldi egona;  
bertso-lanean gallurra ziñan  
ta olerkitan sakona.  
Txistua jotzen zutenentzako  
etziñan gaur bezin ona,  
usteldutzean ondu oi dira  
mizpera eta gizona.

Unkitzen gera entzun orduko  
zure bertsoaren otsa,  
omenaldiko egun aundian  
izan zenun eriotza.  
Arrezkeroztik etzaigu azten  
ain oroitzapen mingotsa,  
zu baizindugun bertsolariok  
anima eta biotza.



Lazkao-Txiki eta Jose Migel Barandiaran, Xalbadorren illobiaren ondoan.  
"Ustedutzean ondu oi dira / mizpira eta gizona".



## UMEEN BAIKETAK

Deba, 1991-IV-13.

Gaia: umeen baiketak albiste bilakatu zaizkigu. Egizu kontu baitutako ume oietako baten guraso zerala.

Len ere gauzak illun baziran  
eta baditugu aurten,  
badakizute aurtxo batzuekin  
zer gauzak egin dituzten.  
Kontzientzia daukan pertsonak  
ori ez du ongi ikusten:  
ume gaixoak iltzen astea  
bizitzen asi baiño len.

Negar-malkoak etortzen zaizkit  
zer pasatu dan jakinda,  
izanez ere aitan biotzak  
badauka ainbat samin da.  
Nik uste nuen alaba zala  
etxetikan aldeginda,  
atzo illikan arkitu degu  
nai zituztenak eginda.

Gure Jainkoak eman deiola  
beti-betiko grazia,  
orain bitarte nere alaba  
nuen eskolan ezia.  
Batere kulpik etzuelarik  
kendu diote bizia,  
jaunak, aurrera jarri zazute  
pakea ta justizia.

## TXORIA KAIOLAN

Oñati, 1991-VI-7.

Gaia: txoria zera; kaiolan zaude; baiña naiko jan eman arren, negarrez omen zaude.

Kantatutzeko nago kaiolan  
ta egiten det negarra,  
gaztetan arrapatu niñuten,  
ori aitzaki bakarra.  
Zer ote da, ba, gizon gaiztoen  
trakeskeri ta indarra?  
Jainkoak libre utzi nindun ta  
gizonak lotu bearra.

Ta naiko jana badaukat eta  
ta badaukat osasuna,  
kantuan partez *txio* ta *txio*  
or pasatzen det eguna.  
Nor ote da bein egun batean  
ni emen sartu niñuna?  
Jauna, al bada, eman zaidazu  
bear detan askatasuna.

Txoria beti minberatzen du  
kanpora erden eziñak,  
alanbre edo burnizko dira  
nere albo ta eskiñak.  
Egoak ere nerekin dauzkat  
pozgarri ta atsegiñak,  
emen itxita edukitzeko  
apenas diran egiñak.

Preso naukazun gizon astuna,  
ortan konturatu zaite,  
biotz gabeko gigon gogorra  
izango zera nunbaite.  
Zuk maite dezun zeure seme bat  
ola lotuko balute,  
kontzientzia lasai dagonik  
ortatik etzazu uste.

Zugaitz gainean kantuz bear nun  
ta emen nago negarrez,  
txori lagun bat eskatutzen det  
eta ori're baterez.  
Libertadean ibiltzekoa  
egiña bainaiz ni nerez,  
mesede auxe eskatzen dizut:  
aska nazazu mesedez.

## **BASERRI ERRE BATEN ALDE**

**Tolosa, Alkizako Arraitza baserriaren aldeko jaialdia.  
1991-VI-8.**

Lazkao-Txiki, Mañukorta, Murua, Garmendia.

Gaia: Alkizan baserri bat erre da. Esaiguzute zer dan egoera ori.

Ona emen Lazkao-Txikik kantatu zituanak:

Kabia falta duen txoria  
nola ez da egongo miñez?  
Eta gu ere samintzen gera  
zer gertatu dan jakiñez.  
Baiñan alaitu nai ditugu guk  
dakarkigun alegiñez,  
kabi berri bat egin dezagun  
alkarri lagun egiñez.

Gertatu zaion famili ori  
ezin lasaitu iñolan,  
pentsa zazute zenbat tristura  
egun artan izango zan.  
Proba gabeak ez du jakingo  
ori zer desgrazia dan,  
bestela ere baserritarrak  
badabilkigu naiko lan.

Negu-partean jakin genduen  
etxe bat zala erria,  
nere biotzak penaz entzun zun  
zabaldutako berria.  
Bear ainbeste ez degu maite  
euskaldunok baserria,  
euskal kultura gordetzen digun  
seaska maitagarria.

## EZKONGABEA BAKARTIAGO

Aztiri, 1992-VII-18.

Gaia: ezkongabea bakartiago omen da, eta zer pentsatu geiago omen du. Zure pentsamentuak.

Iñoiz txoroak izan giñan gu  
gazte asko oi dan gisan,  
baiñan aldatutzeko uneak  
badira baten bizitzan.  
Santa Marina ere alaxen  
gazte-aldiz ibili zan,  
garbitasuna gordetzearren  
martiri eginda il zan.

Pentsamentuak iñoiz oi dira  
pertsone baten kalteko,  
gu're edadez aurrera goaz  
zerbait pentsatzen asteko.  
Leno granuja izan nintzan da  
orain batekoz besteko,  
zintzoa izan obe omen da  
zerua irabazteko.

Amaika aldiz aritu gera  
gu berritsuak gerala,  
garai batean izatea're  
agian ziteken ala.  
Baiñan zugaitzak izanagatik  
berde-berdea azala,  
pentsa zazute zartutakoan  
asko aldatzen gerala.

## **MAITASUNA ETA SUFRIMENTUA**

**Albiztur, 1991-VIII-17.**

Aranaldek gai-jartzailleak: "asko maite duenak,  
asko sufritzen du" (Xalbador).

Neroni ere batera nator  
Aranalden esanean,  
izanez ere pertsona zarra  
probatzen baita danean.  
Aukera ori neuk e izan det  
zori txar edo onean:  
biotzak zenbat sufritzen duen  
egiz maitatzen danean.

Soldadu joan nintzan orduan  
neska maite bat banuan,  
bidean negar egiten nuen  
aruntz abiatakuan.  
Ikusi gabe ia bi urte,  
begiak negar-malkuan,  
Jainkoak eta nik dakigu an  
zenbat sufritutzen nuan.

Ta neskatx ura etzait aztuko  
ez orain da ez beñere,  
nai nuen baiña zoritxarrean  
ezin egin bere jabe.  
Orain nun danik ez dakit baiñan  
maitatutzen det alare,  
biotz aundiko txikia naiz ni  
mutilzar banago ere.

## **IRRIA**

**Urepel, 1991-XI-3.**

Gaia: zerk sortzen dizu irria?

Iritxi orduko aurtxo gazteai  
nengon begira jarrita,  
pozaren pozez oaindik euskera  
emen zaigula bizi ta.  
Aurtxo guztiak danak euskeraz  
Urepela etorrita,  
ori ikusita pozaren pozez  
ortxen egon naiz irrika.

Gizona gauza batekin beingoz  
ezin liteke, ez, goza,  
zuen artean orretan badet  
nik gauza bat aproposa.  
Amabost urte bukatu zala  
Xalbadorrek zuen otsa,  
bera il zalako pena det baiñan  
beste aldera det poza.

Alde batera bear genduke  
gauza au pentsatzen jarri,  
kulparik gabe zenbat kalte guk  
eiten diogun alkarri.  
Baiñan bestela gauz asko daude  
gure biotzan pozgarri,  
lagun urkoa ondo ikustean  
pozik egiten det irri.

## **BERRIZ JAIOTZERIK BALEGO**

**Irun, 1992-III-21.**

Gaia: berriz jaiotzerik balego, zer?

Berriz jaioko baldin banitza  
zan gaia eo nuen itza,  
len jaio giñan eta oraindik  
illaren bildur gabilta.  
Berriz jaiota ote nezake  
nik zorion baten ditxa?  
Eta kukua izan nai nuke  
berriz jaioko banitza.

Beti kukua izan nai nuke  
ta denok artu kontuan,  
beste txori bat alaiagorik  
bai ote dago munduan?  
Arbolarikan arbola dabil  
eten gabeko kantuan,  
etxean beñ e golperik ez ta  
beti or dabil kanpuan.

Edo bestela kukuarekin  
pentsatzen guztiok jarri,  
txoritxo orrek ongi badaki  
mundu guziaren berri.  
Urte guzia pasatutzen du  
ara juan, onera etorri,  
mutil panpoxo asko bezela,  
udaberriz udaberri.



## LANIK GABE

**Usurbil, San Esteban, 1992-XII-26.**

Gaia: ar zazu kontu amabost urte badaramazula lantegi batean, eta gaur goizean kontuak egin eta esan dizuela: "Emen ez dago lanik". Penaz etxera iritxi zera, eta maiaren gaiñean eskutitza zuretzat. Zabaldu dezu eta auxe jartzen du: "Kaixo, Errege Magoak: aurten naiko ona izan naizela uste det, edo saiatu naiz beintzat. Aurtengorako jostaillu-pilla bat gustatu zaizkit, baiñan auek bakarrik eskatuko ditut: bizikleta, bideojokuak, baloi bat, ordenagaillua eta monopatiña. Milla esker alde z aurretik..."

Ara zer lanak etortzen diran  
 pertsona gaizki astean,  
 lantoki on bat neu bizitzeko  
 baneukan nere ustean.  
 Gaur andik ere bialdu naute  
 fameli danen kaltean,  
 ta ainbat eskari an arkitu det  
 neure etxera joatean.

Aurtxoak ditun guraso on bat  
 nolatan ez da kezkatzen?  
 Danak maite ta ezin serbitu  
 pena artutzen da emen.  
 Ara berriro lantoki gabe  
 zenbat arazo daukaten:  
 ogiarentzat sosikan ez ta  
 aurrak jostaillu eskatzen.

Aurtxo guztiak izaten dute  
jostailu baten antsia,  
ta bitartean beraren aita  
lanikan gabe utzia.  
Nai nuke baiñan nik nola bete  
aurtxo oien kutizia?  
Zeruko Aita, eman zaidazu  
oraintxen pazientzia.

Nere aurtxoak sarien pozez  
pozik zebiltzan eskolan,  
aita lanikan gabe dagonik  
ezin sinistu iñolan.  
Izanez ere ainbat jostailu  
gaurkoan nola dan modan,  
fabrikan ez det lanikan baiñan  
etxean badet naiko lan.

**ARKIBIDEA**

ITZAURREA .....	9
BIZITZAREN ARGIBIDEAK .....	17
<i>Bizitzaren egun bereziak</i> .....	19
<i>Nere argibide batzuk</i> .....	23
<i>Alkarrizketa I</i> .....	35
<i>Alkarrizketa II</i> .....	41
<i>Donostiko omenaldia, 1976-I-25</i> .....	68
<i>Zegamako omenaldia, 1979-XI-11</i> .....	69
<i>Oñatiko omenaldia, 1985-IV-27</i> .....	71
<i>Getariko omenaldia, 1989-I-17</i> .....	74
<i>Beasaingo omenaldia, 1991-IX-15</i> .....	76
<i>Illetako bertsoak, 1993-IV-4</i> .....	78
GERTAERAK .....	81
<i>Abaliñe</i> .....	83
<i>Lazkao</i> .....	90
<i>Igeltsero</i> .....	95
<i>Soldaduska</i> .....	99
<i>Ordizian</i> .....	105
<i>Beasañen</i> .....	113
<i>Zaldibia</i> .....	119
<i>Idiazabalgo San Inaziotan</i> .....	127
<i>Plaentxiko Txurrukan</i> .....	130
<i>Lagun bertsoariekin</i> .....	133
<i>Gipuzkoa</i> .....	141
<i>Naparroan</i> .....	165
<i>Bizkaian</i> .....	174
<i>Iparraldean</i> .....	179
<i>Erriz erri</i> .....	183
<i>Txofer</i> .....	191
<i>Pipar bizia</i> .....	196
<i>Izkuntzaren kezka</i> .....	204
<i>Ikuspegiak</i> .....	211
<i>Politika</i> .....	215
<i>Arriarango Julian</i> .....	218
<i>Bazkaldarrak</i> .....	221
<i>Osasunaren kezka</i> .....	233

<b>TXISTEAK</b> .....	241
<i>Baserritarrak</i> .....	243
<i>Apaizak</i> .....	251
<i>Medikuak</i> .....	258
<i>Ataundarrak</i> .....	263
<i>Aurrak</i> .....	269
<i>Mojak</i> .....	275
<i>Naparrak</i> .....	279
<i>Politika</i> .....	283
<i>Senar-emazteak</i> .....	285
<b>JENDEAK BURUZ IKASITAKO BERTSOAK</b> .....	297
<i>Zaldibia</i> .....	299
<i>Erririk erri</i> .....	304
<i>Eztena</i> .....	317
<i>Urbia</i> .....	320
<i>Ezkongai</i> .....	322
<i>Artxanberri</i> .....	332
<i>Apaizei</i> .....	334
<i>Politika</i> .....	338
<i>Kantu-lagunak</i> .....	340
<i>Txiki-kontua</i> .....	348
<b>PAPEREAN JARRITAKO BERTSOAK</b> .....	355
<i>Arantzazuko Amari</i> .....	357
<i>Illoba Martiñari Donostira</i> .....	359
<i>Aralar mendian nabillela</i> .....	361
<i>Zegama</i> .....	363
<i>Kukoxoari</i> .....	365
<i>Lazkaoko jaiak</i> .....	367
<i>Sagardoa</i> .....	369
<i>Arantzazura erromes I</i> .....	371
<i>Arantzazura erromes II</i> .....	373
<i>Artzaia</i> .....	375
<i>Kandeleru eta Erramu-eguna</i> .....	379
<i>Lazkaoko Maizpide euskaltegi berriari</i> .....	381
<i>Auspoa Liburutegia</i> .....	382
<i>Beste zenbait jarri-aldi</i> .....	384
<b>BAKARKA KANTATUTAKO ZENBAIT BERTSO</b> .....	399
<i>Ameriketara</i> .....	401
<i>Neskatxak atzerrira</i> .....	402
<i>Legortea</i> .....	403
<i>Seme bakarrak bere burua il</i> .....	404
<i>Aur elbarri ta itxua</i> .....	406
<i>Moda berria</i> .....	407
<i>Pelota-jokua</i> .....	408

<i>Txiste bat</i> .....	410
<i>Il-kanpaiak</i> .....	412
<i>Orixe zanari</i> .....	413
<i>Baserri uts bati</i> .....	414
<i>Kontzientzia</i> .....	416
<i>Astronauta</i> .....	417
<i>Robert Kennedy-ri</i> .....	418
<i>Seme zaarrenari</i> .....	419
<i>Izar bati</i> .....	420
<i>Amerikanoa</i> .....	421
<i>Jaio, bizi, il</i> .....	422
<i>Nagusiaren alaba</i> .....	423
<i>“Gezurra esan nuen Getarin...”</i> .....	424
<i>Gaurko ikuskizunari</i> .....	425
<i>Erromeriak</i> .....	426
<i>Maitasuna</i> .....	428
<i>Usurbilko entzuleei</i> .....	429
<i>Atxurra</i> .....	431
<i>Len ala...</i> .....	432
<i>Magaetik lurrera</i> .....	433
<i>Lurrarentzat ala medikuentzat?</i> .....	434
<i>Elurretako loreak</i> .....	435
<i>Zergaitik</i> .....	436
<i>Amaren malakoak</i> .....	437
<i>Amnistia, presoak kalera</i> .....	438
<i>Infernua beteta</i> .....	439
<i>Urritzen</i> .....	440
<i>Neskatxa matraka bati</i> .....	441
<i>Seaska</i> .....	442
<i>Egunsentiari</i> .....	443
<i>Ogei ta lau orduko bizia</i> .....	444
<i>Ori merezi al zuan?</i> .....	445
<i>Zu txoria baziña...</i> .....	446
<i>Ibil gaiten umorekor</i> .....	448
<i>Zer da eriotza?</i> .....	449
<i>Eskela</i> .....	450
<i>Gorospek irabazi</i> .....	451
<i>Txal jaio berria</i> .....	452
<i>Joxe Miel Barandiaran gaixo</i> .....	453
<i>Mattin zanari</i> .....	454
<i>Aurtxoan maitasuna</i> .....	455
<i>Kanposantu berria</i> .....	456
<i>Itzala</i> .....	457
<i>Elurra</i> .....	458
<i>Uztapide zana</i> .....	459
<i>Mikrofonoa</i> .....	460
<i>Gure aurrak</i> .....	461
<i>Atariko zakurrari</i> .....	462
<i>Ezkonberri batzuei</i> .....	463
<i>Klabin bati</i> .....	464


<i>Robota ala neskamea?</i> .....	465
<i>Urte zaarrari</i> .....	467
<i>Soldaduskako ofizialari</i> .....	469
<i>Krabelin txuri bat</i> .....	470
<i>Ispilluko lagunari</i> .....	471
<i>Aldamioan</i> .....	472
<i>Euskal-Erria margotuzeko</i> .....	473
<i>Kontsejutxo bat</i> .....	474
<i>Zugaitzak ostoz ustutzen</i> .....	475
<i>Atxukarro zanari</i> .....	476
<i>Aspaldiko maitea</i> .....	478
<i>Oraindik ere</i> .....	479
<i>Perurenari</i> .....	480
<i>Aur bat salbatzearren</i> .....	481
<i>Karakol bati</i> .....	482
<i>Zenbat urte?</i> .....	483
<i>Aurtzaroa</i> .....	484
<i>Aitona garotan</i> .....	485
<i>Kabi autsia</i> .....	486
<i>Ispilluari</i> .....	487
<i>Seaskan dagoen semeari</i> .....	488
<i>Etorri nere etxera</i> .....	489
<i>Emendik eun urtera</i> .....	490
<i>Maitemiña</i> .....	491
<i>Miña, oiñazea</i> .....	492
<i>Lorez betetako sagastia</i> .....	493
<i>Ume bat negarrez</i> .....	494
<i>Festa aurreko bandoa</i> .....	495
<i>Neskamea</i> .....	496
<i>Ezkontza</i> .....	497
<i>Atzerritarren gidari</i> .....	499
<i>Aur bat negarrez</i> .....	500
<i>Alperkeriaren goraipamena</i> .....	501
<i>Atxukarro</i> .....	502
<i>Ate ondoko txakurra zanari</i> .....	504
<i>Zakurra ere itxutu</i> .....	505
<i>Kantauri itxasoaren asarrea</i> .....	506
<i>Oe maiteari</i> .....	507
<i>Txerrikoa galerazia</i> .....	508
<i>Negar ala barre?</i> .....	509
<i>Gabonak kartzelan</i> .....	510
<i>Txepetxa</i> .....	511
<i>Elur azpian</i> .....	513
<i>Aurra otarrean</i> .....	514
<i>Semeari</i> .....	515
<i>San Martin Loinazkoari</i> .....	516
<i>Elurrik ez</i> .....	517
<i>Baserrietako su bajua</i> .....	518
<i>Lanak egin ondoren</i> .....	519
<i>Astoa</i> .....	521

Gogokoena .....	522
Illunabarra .....	523
Baserria sutan .....	524
Usoa .....	525
Soldata .....	526
Azken itzak .....	527
Txantxangorri bati .....	528
Lagunen herri .....	529
Denok elkartzen bagera .....	531
Ispillua .....	532
Aberastasuna .....	533
Gero eta aur gutxiago .....	534
San Lorentzotan .....	535
Apaizak zer dio? .....	536
"Ardi txikia beti bildots" .....	537
Ostoak erortzen .....	538
Udazkena .....	539
Giltxurdin baten bearrean .....	540
Xalbador zanari .....	541
Leen bertso-liburua .....	542
Beeko sua .....	543
Oroitzapenak .....	544
Neskatoa eskean .....	545
Olaizola eta Uria .....	546
Zartzaroko zimurrak .....	547
Isabel Olanori .....	548
Patxi Iraola eta Florentino Goiburu .....	550
Mutilzarrei zerga berria .....	551
Zendoia trikitilariaren omenez .....	553
Seaska ganbaran .....	555
Txantxangorria .....	556
Xalbador zana .....	557
Umeen baiketak .....	559
Txoria kaiolan .....	560
Baserri erre baten alde .....	562
Ezkongabea bakartiago .....	563
Maitasuna eta sufrimentua .....	564
Irria .....	565
Berriz jaiotzerik balego .....	566
Lanik gabe .....	567





1010609  
B0-3969-I



   
PUSPOVA - SINTON

Jose Migel Izubieta

ELIZENGO TITULO

IRRIZ

ETA

MALKOZ



136-3969

11361

# IRRIZ

# ETA MALKOZ

# II



SEDOA

Sendoa Argitaldaria  
Auspoa Liburutegia



AUSPOA



EUSKALTZAINDIA  
AZKUE BIBLIOTEKA

---

**SENDOA ARGITALDARIA**

**Ugaldetxo auzoa**

**Tel. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53**

**Fax (943) 49 35 48**

**20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)**

Jose Migel Iztueta

---

«LAZKAO - TXIKI»

# IRRIZ ETA MALKOZ

## II

ANTONIO ZAVALA'ren zuzendaritzapean



SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA




AUSPOA

(1994)

© SENDOA ARGITALDARIA

© Bertsuen gainean Lazkao Txikiren oinordekoak 1994  
Fotokonposizioa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz  
ISBN: 84-89080-10-0  
ISBN: Lan osoa: 84-89080-11-9  
Legezko Gordailu: S.S. 1.104/94





Jose Migel Iztueta  
«Lazkao-Txiki»

# **GAI BEREZIAK**

## BERE BURUARI

Eibar, 1962, bertsolari txapelketa.

Puntua:

— Bertso bat botaiozu  
zere buruari...

— Ezagutzen det eta  
erreza da ori.  
Mutil txiki-txikia,  
koloreak txuri,  
arkume jaio berri  
txiki bat diruri.

\* \* \*

Tolosa, 1964-XII-13.

Gipuzkoako bertsolari-txapelketaren azkena.

Lau oiñak: jana, lana, kana, dana.

Gazte denboran nago  
oso eskax jana,  
eta gaiñera gero  
sobrantian lana.  
Ni ez izanagaitik  
zenbait aiña kana,  
bizkorra izatiak  
ordaintzen du dana.

\* \* \*

Beasain, 1965-I-24.

Atxukarro gai-jartzailleak puntua:

— Txiki guztiak dira  
polit eta fiñak...

— Orduan e zuek ere  
zaudete jakiñak.

Gaitz orrekin dirade  
nere lanen miñak,  
txikitasun geiago du  
ezer ez dakiñak.

— Lan asko egin gabe  
nai genduke bizi...

Ori pentsatu biar  
degu lendabizi.  
Lenago're gogotsu  
ni ez nintzan asi,  
ta orain dana uztea  
naigo nuke kasi.

\* \* \*

Beasain, 1966-V-22.

Bertsoaren bukaera: "gizon txikia baiñan  
biotzez aundia".

Txiki kontua entzuten  
aspertu naiz ia,  
neuk dakit badetela  
azitzen premia.  
Gauz orrekin engaiñatu  
ez dedin jendia,  
gizon txikia naiz baiño  
biotzez aundia.

\* \* \*

Elizondo, 1968-XII-15.

Gaia: zenbat urte dituen esanez, agur.

Geuren urteak aitortutzeko  
emen jarri digute gai,  
ni Lasarteren urrengua naiz  
ta pentsa zazute lasai.  
Beste aldetik oraindik berriz  
ni arkitzen naiz ezkongai,  
neskatxak ere entzuten daude  
ta garbi ez det esan nai.

Beste gai bat: artzaia ardi billa dabilela,  
Ama Birjiñak mantupean artu du.

Artzaiak ez du inoiz izaten,  
ez, au bezelako miñik,  
beraren berri dakienikan  
egon liteke jakiñik.  
O Ama Birjiña, bein ere ez det nik  
onelako atsegiñik,  
ardiak galduagaitikan zu  
billatu zaitut azkenik.

Erori zera artzaiarekin,  
erori zera kontuan,  
ardien billa nola nebillen  
bakar-bakarrrik kanpuan.  
Beste babesik enuen eta  
zuk bildu nazu mantuan,  
gaur bezelaxen bildu nazazu  
eriotzako orduan.

\* \* \*

Donostia, 1969-IX-21.

Puntuak:

— Gizon txiki guztiak  
ez al dira piñak?

— Itz oiek neretzako  
ziran atsegiñak.  
Guk beintzat baditugu  
egiteko griñak,  
ta gizona osatuzen  
baidu alegiñak.

— Nola ibili zera  
erriko pestetan?

— Emendik asi bear  
al degu izketan?  
Or ibili gerade  
erriko plazetan,  
kalabazarik ez baizan  
egiñaz dantzetan.

\* \* \*

Añorga, 1973.

Aranalde gai-jartzailleak puntua:

— Onek ere jo nai du  
kukurruku goitik...

— Aranalde zirikatzen  
asitzen da betik.  
Ni baju ibiltzen naiz  
jaio nintzanetik,  
kukurruku ein nezake  
txiki izanagatik.

\* \* \*

Zarautz, 1973.

Lau oiñak: aberats, latz, gatz, baratz.

Geren denboran lana  
egiñak gera latz,

izarditan bai galdu're  
makiñatxo bat gatz.  
Gelditu gabe gabiltz  
soro eta baratx,  
alare lanetikan  
iñor ez aberats.

\* \* \*

Zarautz, 1974-V-5.

Gaia: esaiguzu zein izan dan zure bizitza-ko larrialdirik aundiena.

Alde batera, ene lagunak,  
onek galdetu duena  
ez derizkiot izango danik  
galderarikan onena.  
Nere denboran pasatu det nik  
zenbait neke eta pena,  
baiñan ez dago bi bertsoetan  
emen esaterik dena.

Geroko berri ezin jakin guk  
ta azten dijoaz lenak,  
danak probatu bearra dauka  
mundu ontan dagoenak.  
Erantzungo det al baldin bada  
galdetu didazutenak:  
orain amabost egun oiñazez  
estuasuunik txarrenak.

\* \* \*

Zarautz, 1974-XII-22.

Gaia: traje bana egin bear dezutela-ta,  
Endañeta eta zu sastre batengana joan  
zerate. Neurriak artu dizkizute biori. Sas-  
trearen etxetik irten baiño len, zenbat kos-  
tako dan jakin nai dezute, eta sastreak  
bion trajeak berdin kostako dirala esaten

dizute. An orduan ixilik gelditu ziñan; etzi  
ñan ausartu. Baiñan orain esaizkiozu  
pentsatzen dituzunak.

Nere anaiak, gauza ez al da  
egiz artutzekoa min?  
Alde geiago txarra da baiñan  
mejora gutxi gurekin.  
Doble telaki berak bear da  
bion prezioa berdin,  
txikitasunak guri ez digu  
mesede aundirik egin.

Aizu, sastrea: bene-benetan  
orain nai dizut itzegin:  
bion trajea nola arraio  
kobratutzen dezu berdin?  
Neri sobre ta onentzat falta  
daukagun aldearekin,  
galtza pare bat egin liteke  
sobratzen zaidanarekin.

\* \* \*

Zarautz, 1975-IV-13.

*Patxi Barbero* gai-jartzailleak gaia: Ber-  
tsolari bakoitzak bere aurkezpena, saioa-  
ren asieran.

Nik ere eman bearra daukat  
jaioterrian kontua,  
errespetatu bear dalako  
Patzik ipiñitakua.  
Joxe Migel det izena eta  
Lazkao-Txiki deitua,  
Lazkaon jaio nintzaden eta  
azi gabe gelditua.

\* \* \*

Lazkao, 1975-IV-25.  
Gaia: txikia.

Amaika aldiz entzuna det au,  
neutzat ez da atsegiña;  
bajatu gabe ezin iritxi  
mikrofonoaren diña.  
Alare badet barruan poz bat  
naiz txikia baña fiña:  
ez pentsa nere kulpa danikan  
Jainkoak ola egiña.

Amaika aldiz ibilia naiz  
txikitasunaren lotsez,  
izen orixe deitzen didate:  
“O, Lazkao-Txiki” otsez.  
Beste aldera pentsatutzean  
beti egoten naiz pozez,  
beste edozein ainbat naizela  
izpiritu ta biotzez.

\* \* \*

Ahetze, 1978-IV-30.  
Gaia: Mattinen antzera, gizon alaia eta irri  
egilearen fama duzu. Hori bakarrik al da  
Lazkao-Txiki?

Ez eduki, ez, ni beti pozik  
egoten naizen usterik,  
ez baidadukat andregairikan,  
ez baidaukat emazterik.  
Amaika aldiz egon izan naiz  
barrua penaz beterik,  
baiñan nik poza kantatutzen det  
tristura neutzat gorderik.

\* \* \*

Urruña, 1981-IV-12.  
Gaia: gizon ttikia nola izan abertzale aundia?

Nik neronek e naiko min badet  
mutil ttikia egona,  
orregaitikan betidandik det  
nik Lazkao-Txikiren sona.  
Aunditutzeko esan nai nuke  
zer gauza litzaken ona:  
biotz ona ta umiltasunak  
aunditutzen du gizona.

Lazkao-Txiki deitzen didate  
norbaitek ipiñi zuna,  
ttikitasun bat daukatelako  
maiz kezkatu ta illuna.  
Baiñan alare pozik bizi naiz  
baidadukat osasuna,  
sudur gaiñetik buru gaiñera  
neurtutzen baita gizona.

\* \* \*

Tolosa, 1981-XII-7.  
Lau oiñak: baiña, zaiña. gaiña, aiña.

— Lurretik metro gutxira  
buruaren gaiña,  
alare euskalduna det  
odola ta zaiña.  
Biotzez beti asko  
maitatzen det baiña,  
alare ezin maitatu  
merezi dun aiña.

\* \* \*

Zegama, 1982-VIII-25.

Gaia: Lazkao-Txikik kantatu omen zituen jaio baiño lenago bi bertso. Kanta izkiguzu berriro bi bertso aiek.

Entzun dezute gai-jartzailleak  
neregatikan zer dion,  
nere baitako jaio baiño len  
neure kasa auxe nion.  
Aberats izanda're nik ezin  
daukaten ainbat zorion,  
jaio aurretik Jaungoikoari  
nik auxe eskatzen nion:  
Euskal-Errian jaio nazazu  
eta egin nazazu gizon.

Ez daukat penik naiz txikia ta  
naiz izate itxusiak,  
emen jaio ta Jaungoikoari  
ematen diot graziak.  
Jaio aurreko eskaera danak  
daduzkat irabaziak,  
ementxen artu nituelako  
jaiotzeak ta biziak,  
euskaldun ez baidira munduan  
berak nai duten guziak.

\* \* \*

Ordizia, 1982-IX-11.

Puntuak:

— Zenbat asto ote daude  
Goierrri osoan...

— Galdera egin dezu  
modu erosoan.  
Batzuek emen gaude,  
besteak auzoan,

bederatzi gera zu  
sartzeko kasoan.

— Umoreak kentzen du  
tristura-arantza...

— Poztu bear detela  
badet esperantza.  
Zartuagaitik ongi  
egiten det dantza,  
orrekin gordetzen det  
gaztetako antza.

Gaia: zu toreroa zera.

Plazarik plaza beti nabilla  
emanez milla endredo,  
orain txaloe jotzen didate,  
akaso txistua gero.  
Tailla aundirik ez daukat baiña  
ipiñi naute torero,  
lanik onena neurea emen  
adarrak moztu ezkeru.

Apaiz jauna're, ikusten danez,  
ezta bizi oso trankil;  
ni zezenakin beti peligroz,  
orain il edo gero il.  
Iñoiz kapotez ematen diot  
zenbait buelta ta maratil,  
nerez beia gustatzen zait eta  
beti zezenetan nabil.

\* \* \*

Ormaiztegi, 1982-X-1.

Gaia: bart negar egin dezu. Zergaitik?

Esan nai nuke, baiñan zailla da  
ta ez dakit esan nola,  
nere burua negarrez dago  
sentimentuetan ola.  
Bere amatxo falta duenak  
beti nola dun ajola,  
bart arratsean amets egin det  
ama bizirik zegola.

Il zala ere oraindik noski  
urte bete osorik ez,  
ta len esan det bizirik zala  
nola egin dedan amets.  
Egunsentian dana gezurra  
pentsatu detana gabez,  
esnatutzean illa zegon da  
orgaitik nago negarrez.

\* \* \*

Erretereri, 1982-XII-8.

Gaia: Itxas erdian zaude txalupa txiki  
batean. Bat-batean itxasoa gaiztotzen da  
bortizki, eta urperatzeko zorian zaude.  
Momentuko zure gogoetak.

Itxas erdian nagon ezker  
bizirik ezin atera,  
bestela ere mundu onetan  
gu betirako ez gera.  
Orain ilko naiz eta gorputza  
or joango da urpera,  
baiñan anima, Jauna, ar zazu  
zedorren aldamenara.

\* \* \*

Zubieta, 1983-VII-25.

Oiñak: legor, gogor, zigor, gor.

Bista bajatu zaigu  
ta belarriak gor,  
eskerrak gorputzetik  
ez gaudela legor.  
Ankak motxak lendik ta  
gerritatik gogor,  
Jainkoak nei eman dit  
bear ainbat zigor.

\* \* \*

Gabiria, 1983-VIII-14.

Gaia: nolako aurtzaroa izan zenuen?

Zortzi bat urtetik amarrera  
naiz ni eskola utzia,  
jakinduria edukitzeko  
naiko gauza itxusia.  
Amabi urte baiño lenago  
belar ebaten asia,  
neke azpian pasatua naiz  
gazte denbora guzia.

Zoritxarreko gose-urtea  
ere dadukat goguan:  
aragia ta gauza guzia  
razionatuta zeguan.  
Gaur bezelako jaten-aukera  
onik etzegon orduan,  
galanta azi baldin banaiz e  
ederki sufritu nuan.

\* \* \*



Zegama, 1984-VIII-25.

Bertsoaren bukaera: "nik ere badet biotz barruan zulatzen nauen arantza".

Bizi guztian etxean bizi,  
bakartzea ez da txantxa,  
ama bat banun, ura il zan da  
bururik ezin det altxa.

Urte batzuek pasatu arren  
Jaunak eramanda aruntza,  
nik ere badet biotz barruan  
zulatzen nauen arantza.

Puntua:

— Baratxurin antzera  
txikia ta fiña...

— Orregatik askok dute  
ikusi eziña.  
Zer adituko nuen  
zegoen jakiña,  
aundiak nola luzitu  
gu aundi bagiña?

\* \* \*

Oñati, 1984-X-5.

Puntua:

— Diru asko al daukazu  
Bankuan gorderik...

— Prailea, etzaidazu egin  
olako galderik.  
Pixka bat badet baiñan  
ez daukat sobrerik,  
komentuan ez al dute  
artutzen pobrerik?

\* \* \*

Tolosa, 1984-X-12.

Gaia: ementxe bertsoan ari zerala, erio-  
tzak deitzen dizu, eta bi bertso kantatzeko  
denbora eskatzen diozu.

Eriotza bat bakarra degu,  
bera instante batean;  
konturatu naiz sartu ote naizen  
eriotzaren atean.

Eraman nai nau ta nik bizi nai,  
ez dit utzitzen pakean;  
utzi zaidazu bertso-pare bat  
emen kantatu artean.

Zure mendean erori dira  
zar, serio ta berritsu,  
gizon arro ta aundiak ere  
umildutzen badakizu.  
Bizitza onen azken aldera  
etortzen zera beti zu;  
nik e obeitu bearra daukat,  
nai dezuena egizu.

\* \* \*

Ordizia, 1984-XII-29.

Gaia: Amaren bularrak.

Maitasunezko bi iturritxo  
bularrak edo petxuak,  
ama nereak eman zizkidan  
bere maitasun itxuak.  
Neregaitikan zer egin zuen  
nere amatxo gaixuak?  
Maitetasuna urtu ta eman  
alako trago goxuak.

Bularra eman eta ondoren  
an asi oi zan kantuan,

nere burua erdi lotan nik  
an jartzen nuen kolkuan.  
Nere amatxo maitagarria,  
egongo zera zeruan,  
aundia azi ez banaiz ere  
alegin egin zenduan.

\* \* \*

Zubieta, 1985-VII-25.  
Joxe Mari Aranalde gai-jartzailleak: Zertaz  
etзера egundaiño damutu?

Gai asko daude bide onetan  
ta ez dakit nik zein artu,  
baiñan bat esan bearko det ta,  
Joxe Mari, au det pentsatu:  
denak etziran gu jaio giñan  
toki o lurrean sortu,  
ni Euskal-Errian jaio nintzan da  
geroztik etzait damutu.

Beste guztiak bezela izan  
nituen aita ta ama,  
aiek nituen nere sortzea  
edo bizia emana.  
Ama izan nun gero euskera  
bein erakutsi zidana,  
ikasi nuen eta ori det  
damututzen etzaidana.

\* \* \*

Tolosa, 1985-X-12  
Puntua:

— Joxe Migel aspaldi  
asi zan bertotan...

— Bai, kantari nabil ni  
aspalditxo ontan.  
Oso ordu gutxi pasa  
izan ditut lotan,  
betiko ixilduko naiz  
ni ixiltzekotan.

Oiñak: ur, lur, zur, agur.

Naiz ta ez degun eran  
zenbaitek ainbat ur,  
ardoa pagatzeko  
ez gera izan zur.  
Baiñan il ondorean  
biurtuko gera lur,  
orduuan egingo degu  
betirako agur.

\* \* \*

Usurbil, 1986-VII-5.  
Puntua:

— Noiz iritxiko ote  
gera elmugara?

— Zerbait bide daukagu  
emendikan ara.  
Nik ia pasatu det  
bizitzako tara,  
amar urte baiño len  
iritxiko gara.

— Oraindik badaukazu  
azitzeko era...

— Geiago zertan azi  
emendik aurrera?

Lenago´re ez al daukat  
gizonen tankera?  
Zitalak izateko  
naikoa bagera.

Gaia: lengoan lagun batek zera esan omen  
zion: I, Joxe Migel: orain pertsonak txiki  
gelditzeko beldurrik etzeukak. Pertsonak  
azitzeko pastillak asmatu omen dizkitek.  
Zeuk artu bear al dituzu?

Ni oso pozik nago  
nagoen moduan,  
nork daki batek zenbat  
gorputz bear duan?  
Lanak egiten ditut  
nabillen lekuan,  
zuk ainbat azitzeko  
artu al zenduan?

Aundiegia baiñan  
neurrikoa obe,  
luzeak izanda ere  
or lanak badaude.  
Neu txikia banaiz ni  
nee buruan jabe,  
zu ainbat gizon banaiz  
pastillarik gabe.

\* \* \*

Billabona, 1986-VII-27.

Gaia: zure lagun zaar Xalbadorrek, *Nigarra*  
*begietan* bertso-sail batean, onela esaten du:

*Isilik egotea*  
*nuke nik obea,*  
*inori ez agertu*  
*nere dolorea.*  
*Odolaren mintzoa*  
*eduki gordea*

*naiko nukeen baina*  
*ezin dut ordea.*

Euskal-Erria dala-ta, zein da zure dolorea?

Jarri didazun gai illun orri  
erantzun bear onela,  
badakizute euskera beti  
maite izandu detela.  
Baiña ikusten det askotan oso  
baju antxean gaudela,  
amak maite du aurtxo eri bat  
nik maite dedan bezela.

Dolorea da gauza orretan  
ongi jarritako itza,  
ortan sufritzen daramakit nik  
orain arteko bizitza.  
Ez degu izan gure euskera  
goian ikusteko ditxa,  
naiago nuen beste lurralde  
batean jaio banintza.

\* \* \*

Bermeo, 1986-VIII-9.

Gaia: Aspaldiko urteetan etxetik kanpo ibi-  
li zara; eta, urte-mordo oiek pasatuz gero,  
etorri zara etxera, eta baserriaren aurrean  
bi bertso kantatu dizkiozu.

Jaiotetxe txit maitea,  
ikusten zaitut gaur egun;  
zu zindudan nere babes,  
nere gaztetako lagun.  
Baiñan aspaldi ontan zugandik  
ortxe ibili naiz urrun,  
ta ikusita zeuk ez dakizu  
ni zenbat poztutzen nauzun.

Ikusten det oraindik e  
tente ta zutik zaudela;  
poztutzen naiz zu ikusteak  
oraindik ongi onela.  
Pentsatu gero txori bakoitzak  
kabia maite duela,  
nik ere berdin maite zaitut zu  
arek kabia bezela.

\* \* \*

Zestoa, 1987-II-7.

Gaia: Zartzaroari.

Gazte denboran denok badegu  
zenbait irrintzi ta gala,  
baiñan pentsatu bear dana da  
pertsonea zartutzen dala:  
begi-gorritu, illez bakandu  
eta zimurta azala,  
Lazkao-Txiki're ortan dijoa  
beste guztiak bezela.

Guztiok gazte egon nai baiñan  
gazte ezin egon iñor,  
emen bezela erdi zartuak  
batzuek bazaudete or.  
Ta eskatzen det zartuarekin  
portatu zaitezte jator;  
orain auzoan ikusi arren,  
ori danentzat badator.

\* \* \*

Zegama, 1987-III-14.

Puntua:

— Zu nolakoa ziñan  
zazpi urterekin?

— Ez naiz gogoratzen da  
garbi esan ezin.  
Zarragoari galdetu  
nai badezu jakin,  
oso aundia ez nintzan  
izango beñepin.

Gaia: Txikitan eskolan ibiliko ziñan zu ere.  
Gogoratu zaitez garai aietaz eta konta izki-  
guzu bi edo iru bertotan orduko goraberak.

Eskolarik etzanean  
bagenduen lana:  
ganaduen itzulana  
ibiltzeko plana.  
Txikitan zer egin nuen  
galde dezuana,  
txikitan ibili bear  
aunditu ez dana.

Eskolako egunak  
daduzkat goguan,  
naiz ta ni gelegitan  
ez nintzaden juan.  
Bolara artan Francok  
agindutzen zuan,  
*Cara al sol* kantatzen  
ikasi genduan.

\* \* \*

Sorabilla, 1987-VIII-27.

Puntua:

— Negarra egitea  
ez da lotsagarri...

— Baiñan emen negarrez  
ez nazazu jarri.

Gaztetan ori ere  
egin nuen sarri,  
orain e iñoiz edo bein  
ibiltzen naiz larri.

\* \* \*

Tolosa, 1987-X-11.  
Puntua:

— Lekurik geienetan  
indarra nagusi...

— Orduan txiki xamarrek  
ondo ezin bizi.  
Geuk bearko degu  
zer eo zertan asi,  
muturrean jo edo  
ortzak erakutsi.

\* \* \*

Billabona, 1988-VII-29.  
Lau oinak: zillegi, egi, begi, aurpegi.

Zartzea gizonarentzat  
ez al da zillegi?  
Zartu ta bajatzen dala  
au bai dala egi.  
Naiz ta eduki arren  
len ainbat arpegi,  
len bi bakarrik nituen  
ta orain lau begi.

\* \* \*

Ordizia, 1989-III-5.

Gaia: Kirolaria zan eta bere prestaketak  
egiteko unean...

Bi metro ta erdian  
jarri dute kaiña,  
Lazkao-Txikirentzat  
altura bikaiña.  
Ori saltatutzeko  
esan alajaiña,  
azpitik pasa obe  
gaiñetikan baiña.

\* \* \*

Legazpi, 1992-IX-11.

Gaia: Azaldu orduko, inguruan irriparra  
sortzen du. Oni gizarteak, dituen penak  
agertzen ez dio uzten, eta berak izan izan-  
go ditu noski.

Adiskideok, senti dedana  
garbi aitortuko det nik,  
ez pentsa gero beti umorez  
eta beti nagon onik.  
Ez da izaten illuntasunik  
etortzen ez dan egunik,  
eta ez ere barruan penik  
izaten ez dun gizonik.

Ni nola naizen aitortutzea  
askozaz ere obe da,  
triste egon arren alai-itxuran  
beti ibili norbera.  
Eta pentsatu olaxen dala  
Txiki onen izaera:  
pena guztiak barruan gorde  
ta umorea atera.

## MUTILZAR

Ernani, 1962-XI-19.  
Puntuak:

— Lore bat sortua da  
baratz ederrean...

— Neu're aspalditik nago  
lore bearrean,  
eta egokitu zait  
aukera onean;  
ea, lorea, ongi  
konpondutzen gean.

— Laister emakumeak  
itoko gaituzte...

— Gauza ori pentsatuta  
neu're nago triste.  
Irigoien ez al da  
izango oinbeste,  
zuk ala diozu baiña  
nik ez det oi uste.

\* \* \*

Markina, 1963-V-22  
Alfontso Irigoienek gaia: Euskal-Errian  
begira dauzkazun neskatxa gazteei.

Emen bakarrik ibillitza  
guztioentzat kalte da,  
aspalditxuan billa gabiltza  
festa batetik bestera.  
Nai dan danetan ez da izaten  
emen aiñeko aukera,

neskatxari're pasa leioke  
mutillak duen gaitz bera,  
neskazar gelditu nai ez dunak  
orain kontuak atera.

Aspaldi ontan ni bizitzen naiz  
oso bildurti ta dardar,  
nik ere pasatu xamarrikan  
baidaduzkat ogeitamar.  
Nik ere ez nuke gelditu nai ta  
zuek e pentsatu azkar,  
Euskal-Erriko anai ta arrebak  
maitatu dezagun alkar,  
ez baldin badegu gelditu nai  
neskazar eta mutilzar.

Puntua:

— Andregaiaren billa  
zabiltz erriz erri...

— Alfontso e badaki  
Lazkao-Txikin berri.  
Ez dakit neskatxak ote  
dezuten igerri,  
gaur Markinara orta-  
rako naiz etorri.

— Neskatxa batzuk daude  
pozikan begira...

— Neuk ere itzultzeko  
bazedukat mira.  
Kalean or ibili naiz  
buelta eta jira,

oraindik ezkongai nago  
konforme badira.

\* \* \*

Donostia, 1965-I-1.  
Bertsolari-txapelketa nagusia.  
Lau puntuak: laguna, leguna, lizuna, illuna.

Enaiz mutil aundia ta  
ezta're lizuna,  
txiki xamarra bañan  
ez oso illuna.  
Gixen xamarra eta  
gañera leguna,  
orain falta zaitana  
neguan laguna.

Puntua:

— Neskata gazte askok  
arpegi leguna...

— Gaztea dala ortik  
dauka ezaguna.  
Izan dedilla gero  
biotzez biguna,  
oi da mutilzarrori  
komeni zaiguna.

Beste gai bat: baserri on bateko seme  
zarrenak ezkondu egin nai du, ta dei egi-  
ten die inguruko baserrietako neskatxa  
gazte ezkongai guziei. Zu zera seme ori, eta  
bi bertso kantatzen dituzu.

O, inguruko neskatxatxoak,  
nik asko zaituztet maite,  
eta auzoan bizi izandu  
geradenak orain arte.  
Batzuei galde eginagaitik  
askok ezetza diote,

ara mutilzar nola naguen  
ni zuekin mediante.

O, neskatxatxo biotzekuak,  
kontuak ongi atera,  
pentsatutzea ez uste gero  
guztiok bide batera.  
Baserriari goian lagata  
juan nai dezute kalera,  
alde batetik ortikan dator  
gure izkuntzaren galera.

\* \* \*

Beasain, 1965-I-24.  
Atxukarro gai-jartzailleak puntua:

— Ainbat neskatx egon da  
gu biok ezkongai...

— Beraz Atxukarro're  
ez daukagu alai.  
Inortxok orain arte  
ez dio esan bai,  
zuk zerea egin zazu,  
ez egon nere zai.

\* \* \*

Irun, 1965-IV-4.  
Bordari gai-jartzaille. Puntuak:

— Norentzako daukazu  
edertasun ori?

— Ez dadukaten gauza  
zertan esan neri?  
Ederra enaiz bein e  
ni inun ageri,  
eta illea artzen  
etzaita ari.

— Albiste bat dakarkit  
amorez betea...

— *Bordari*, ori ez da  
albist arlotea.  
Neu ere batentzako  
naiz gogoz betea,  
nere maitea beraz  
emen eongo ote'a?

\* \* \*

Zegama, 1965-VIII-25.

Atxukarrok gaia: jakin det andregai billa  
zabiltzala. Nolako birtute edo ondasunez  
jantzia nai zenuke? Billatzen dizkizute  
besteak alako eta onelako neskak; baiña  
norberak arrapatutako amorraia...

Emen badago jende jatorra,  
au loretegi apaiña!  
Billatzeko're txarraguen bat  
baliteke alajaiña.  
Aundi ta txiki, denetakoak,  
batek nai duen tamaiña;  
nerekin kezka da Atxukarro  
berak ez daduka baiña.

Urriak ere badijuazte,  
bakarrak baidu naiko lan;  
ea bada gaur irixten zaitan  
nik bear dedan ainbat plan.  
Esan didate muxugorriak  
badiradela Zegaman,  
saia bear det bat konkistatzen  
al banezake eraman.

Puntua:

— Orroko neskatx orri  
kiñuka ari zera...

— Pentsatu bear zenduen  
gutxi gora-bera;  
ez da atrebitzen etortzen  
gaur nere aurrera,  
baiñan illuntzerako  
konponduko gera.

\* \* \*

Beasain, 1966-V-22.

Bertsoaren bukaera: "gogo faltaz enaukazu  
gaur arte ezkongai".

Onek esan duen ori  
enun erantzun nai,  
baiñan preparatuta  
lendikan zegon jai.  
Ez dedalako billatzen  
nai dedan andregai,  
gogo faltaz enaukazu  
ni, ez, gaur ezkongai.

\* \* \*

Arrasate, 1967-XII-24.

Gaia: Jakin degunez, laister ezkontzen  
omen zera.

Lenago ere enaiz  
bikaiña izandu,  
argal ta txiki ibi-  
lia munduz mundu.  
Gaur pentsua saldutzen  
nagola esan du,  
pixka bat gizendu arte  
ez neike ezkondu.

\* \* \*



Elizondo, 1968-XII-15.

Gaia: Zenbat urte dituen esanez, agur.

Ez dakizute neska falta ta  
zenbat gauz pentsatzen dedan,  
bata besteai amor emanez  
eta or gabiltza teman.  
O Baztaneko neska gazteak,  
auxe nai dizutet esan:  
neskazar geldi nai ez duenak  
kalabazarik ez eman.

Puntua:

— Lazkao etorri zaigu  
neskatxaren billa...

— Lagunik ez det eta  
enago trankilla.  
Emen bada amaika  
neskatxa eta silla,  
premiari dagueña  
altxatu dedilla.

\* \* \*

Errenteri, 1969-XII-8.

Xenpelar il zaneko eungarren urte-muga.

Gai-jartzaile: Basarri.

Puntua, zotziko aundia eta txikia kantatzeko:

— Oraindik ez al zaizu etorri  
ezkontzerakoa ordua...

— Baserri onek txikiarekin  
egin nai luke tratua.  
Aukeratzia pentsatuta're  
bada neskazar-modua,  
bakarrik ez da errex pasatzen  
munduko bizimodua.

— Zer moduzko giroa  
Lazkao aldian?

— Aize otza daukagu  
juan dan aspaldian.  
Bestela're bakarrik  
bizi naiz oyian,  
indartuko al gera  
berotzen astian.

\* \* \*

Segura, 1970 urte inguruan.

Gaia: Zure logelara sartu zeranean, oe gai-  
ñean zer ikusiko eta neska gazte bat lo  
aurkitu dezu.

Norbaiti gerta bear zitzaion  
ta neri gerta zait au're:  
oe gaiñean neska gazte bat  
dudikan gabe logure.  
Baiñan, damatxo, sinistra zazu:  
aragizkok gera gu're;  
zurekikoa egingo degu  
premiari baldin bazaude.

\* \* \*

Añorga, 1972-III-19.

Puntua:

— Lazkao ez al dago  
mutilzar piñ-piña?

— Etzaidazula kendu  
nere atsegiña.  
Tratamentu ortan nago  
zerbait utsegiña,  
ezkontzen asi gintezke  
apaizak bagaña.

\* \* \*

Zarautz, 1973.

Gaia: zure andregaiaren begiei bi bertso.

Albotik zerbait galdezka degu  
ta esan bearko det au're,  
emen amaika neskatxa gazte  
nere aurrean badaude.  
Baiña notikan emanik iñor  
ta ustez ez daukat neure,  
kiñua gero egin zaidazu  
gustaturikan bazaude.

Neure andregaiak gerri gorputzak  
daduzka oso fiñ-fiñak,  
ez dakit orrelakorik izan  
zituen Ama Birjiñak.  
Illia dauka oria eta  
begiak berriz urdiñak,  
zeruak daukan pusketarikan  
onenarekin egiñak.

\* \* \*

Zarautz, 1974-V-5.

Puntua:

— Andregaiaren billa  
etorri al zera?

— Onek jakin bear ez ta  
ori da galdera!  
Aspaldian bateri  
beira naiz aurrera,  
berak kiñu egin du ta  
konponduko gera.

\* \* \*

Donostia, 1974-XI-17.

Bertsolari zaarrei omenaldia.

Gaia: zer dibertsio gustatzen zaik?

Ara barruan daukaten gauza  
azaldu-gogoa jarri,  
oraiñ artean ixilik neukan  
ta esan gabe iñorri.  
Orrengatikan nik nai nuenik  
orduana etzait etorri,  
berealaxen aitortuko det  
nere gogoaren berri.

Nere bizitza dana pasa det  
kezkaz eta beldurtuta,  
ixil-ixilik gorde baiditut  
baiñan ez negon aztuta.  
Emen akaso au jakitean  
norbait jar leike poztuta:  
jai-atsaldetan pasiatzea  
neska aundi bat artuta.

\* \* \*

Mendaro, 1974-XII-8.

Gaia: tabernan kafe konpletoa eskatu  
dezu. Neska lirain batek atera dizu. Zuri  
begirik kendu gabe egon zaizu gaiñera.  
Zenbat dan galdetu eta "ezer ez" erantzun  
dizu.

Erdi zartuta bizi geranok  
sari arriturik gaude,  
ta gaur goizean arriturikan  
ala gelditu naiz neu're.  
Neskaxa orri "kafea zenbat?"  
onelaxe diot galde;  
"zu zeralako ezertxo ez da,  
ematen dizut debalde".

Ondorenean au ikusita  
 neu ere bere tankeran,  
 neskata ari nik ez nekien  
 esker ona nola eman.  
 Ta pentsatzen nun ote nintzaden  
 ezkongaitako aseran,  
 ta esan diot: "luzaro gabe  
 ia alkartutzen geran".

\* \* \*

Mallabia, 1977-X-23.  
 Puntuak:

— Nola konpontzen zera  
 emazterik gabe?

— Lendik mutilzar gaudenak  
 gu oituta gaude.  
 Zeiñek egin bear ta  
 onek egin galde,  
 Arantzazun e alako  
 naikoa badaude.

— Sukaldean bakarrik  
 ta oean otza...

— Mutilzar batentzako  
 ain gurutz zorrotza,  
 Sukaldea ola ta  
 otzago biotza,  
 udara etortzeko  
 nik daukaten poza!

\* \* \*

Donostia, 1979-IX-7.  
 Gaia: zer eskatzen diozu Koruko Andre  
 Mariari beraren bederatziruenean?

Mundu onetako gauza zaila da  
 arkitzea atsegiña,  
 baiñan otoitzez zure aurrean  
 egiten det alegiña.  
 Lagun polit bat artu nai nuke  
 ta det billatu eziña,  
 andregaitxo bat billa zaidazu,  
 Koruko Ama Birjiña.

Ama Birjiña, entzun zaidazu  
 biotzetik itzeginda,  
 aspaldi ontan gaizki bizi naiz  
 iñor billatu ezinda.  
 Nik neskazar bat eskatzen dizut,  
 egongo zera jakinda,  
 ta zarrik billatzen ez badezu  
 gaztea ere berdin da.

\* \* \*

Tolosa, 1981-XII-7.  
 Gaia: Erregei zer eskatu diezu?

Ume-itxura daukagunontzat  
 auxe degu gai jakiña,  
 txikitasun au zirikatutzen  
 saiatu da alegiña.  
 Muñekatxo bat eska nezake  
 gaztexeguak bagiña,  
 al bada beintzat ekar bezate  
 ezur ta aragiz egiña.

Iru Errege enituzke nai  
 kezka geiegitan jarri,  
 nola lendikan danok dakigun  
 Errege on oien berri.  
 Lendabiziko, Errege onak,  
 biotzez ongi etorri;

nik bezin ongi dakizute ta  
nai dezutena ekarri.

\* \* \*

Segura, 1982-X-24.

Gaia: Joxe Migel, etzaizu txarra gertatu. Bart  
ametsetan kalean paseatzen doala, mutil  
koxkor bat gerturatu eta "aita!" otsegin dio.

Era onetan aurkitutzerik  
bein ere ez nuen uste,  
mutil koxkorrak iñoiz tranpak e  
asmatu izan dituzte.  
Ik neri "aita!" nola arraio  
otsegiten didak ote?  
Nere semetzat ez aut artuko  
ama erakutsi arte.

Neronek ezer ez nekiela  
aita naiz ni azkenian,  
olako mutil txiki-txiki bat  
sortu zait aldamenian.  
Baiñan irekin ez niok, motell,  
ni segurantzi aundian,  
kontuak argituko dizkigu  
eguna argitzen danian.

\* \* \*

Bermeo, 1984-I-7.

Gaia: Nik badakit badagozala iru neska, bere-  
ziki Lazkao-Txiki entzutera etorri direnak.

Niregaitikan eldu badira  
nai nuke oiekin asi,  
zine onetan egongo dira  
naiz ta nik ezin ikusi.

Maitasunaren nere ordaiña  
nai diet adierazi,  
niregaitik etorri badira  
eskerrik asko lenbizi.

Badakizute nolakoa dan  
Lazkao-Txikiren tamaiña:  
mutil txikia izatez eta  
bestela ez da apaiña.  
Baiña jenioz bizi-bizia  
ez izan arren bikaiña,  
ondo gobernaturten banaute  
banaiz irurentzat diña.

Oiñak: Dana, eztana, ezpana, laztana.

Ene, maitatzen zaitut  
biotzeko dama,  
nere biotza da zugan  
oztutzen eztana.  
Nirekin batera luzatu  
zaidazu ezpana,  
oraintxen emateko  
maiteki laztana.

Oiñak: egarri, larri, irri, xirri.

Neska gazte batek len  
egiten zin irri,  
ni bereganatzeko  
egondu naiz larri.  
Nere gogoia dago  
zurean egarri,  
atoz ondora orain  
egiteko xirri.

\* \* \*

Legorreta, 1984-I-28.  
Puntuak:

— Aizu, Lazkao-Txiki,  
zer moduz neguan?

— Otzak penaturikan  
egon naiz lenguan.  
Neskazar ipurtaundi bat  
nedukan goguan,  
ai zer ondo egongo nintzan  
aretxen onduan!

\* \* \*

Lazkao, 1984-VII-11.  
Puntuak:

— Asia omen zaude  
andregaiian billa...

— Nik ez lotu nai eta  
egon zaite ixilla.  
Ezkondu artean dago  
gerra ta iskanbilla,  
arrimatu nai duna  
etorri dedilla.

\* \* \*

Oñati, 1985-X-5.  
Gaia: zergatik ez dezu emaztea ekarri?

Lenago asko entzuna nago  
ta gaur entzun det geiago,  
ikusten danez gure lagun au  
gauza jakin nairik dago.  
Badakizute zenbat euri dan,  
an ere bazan olako,  
neukin batera ez det ekarri  
denbora txarra dalako.

Ta garbiago eman nai nuke  
nere emaztean berri,  
emakumetan komeri oek  
pasatu izanak sarri.  
Len argala zan ta une ontan  
arkitutzen baita larri,  
aur-esperantzan dago gaixoa,  
argatik ez det ekarri.

\* \* \*

Tolosa, 1984-X-12.  
Puntuak:

— Ezkondu ta soltero  
guztiok batera...

— Ezkondu baiño leno  
kontuak atera.  
Libre nai duenantzat  
lotzea kalte da,  
andrerik ez degu baiñan  
ondo bizi gera.

\* \* \*

Beasain, 1984-XII-14.  
Bertsoaren bukaera: lau probintziak jirata  
ere ez det andrerik topatzen.

Negarrez asi bear nun baiña  
astera nua kantatzen,  
neri gertatzen zaitan kontua  
zuen artean kontatzen.  
Txiki xamarra izan nunbait ta  
andrerik etzait tokatzen,  
lau probintziak pasatu eta  
ez det batere topatzen.

Gaia; San Antonion izan omen zera, luza-pena eskatzen mutilzar jarraitzeko.

San Antoniora joateko nun  
lenguan promesa egin,  
nola munduko bizimodua  
nola dedan ain atsegin.  
Ta nere errezo beroetan  
santuai nion itzezin:  
andregairik ez billatuzeko  
lasaiago bizi nadin.

Garai batean egondu nintzan  
ezkondutzeko asmotan,  
billatu edo ezkon ninteken  
pentsatzen nuen askotan.  
Baiñan ezetza pentsatu nuen  
nik or, Urkiola ortan:  
mutilzar askoz obe nuela  
luzaro bizitzekotan.

\* \* \*

Oñati, 1985-VI-7.

Gaia: danok dakizuten bezela, emen omenaldi bat egiña da Lazkao-Txikiri, eta orduan erregalatu zenizkioten guardasol bat eta linterna bat. Berak esan zuenez, ondo etorriko zitzaizkion andregai billa joateko. Zerbaitearako serbitu al dizute?

Eskerrik asko, oñatiarrak,  
eskerrik asko, Oñati,  
neure etxean zuengatik  
akordatutzen naiz beti.  
Linterna eder bat eman zeniten,  
gero guardasol ta guzti,  
len mozkortutzen nintzaden baiñan  
legorrik nabil gerozti.

Len esan nuen: ez naiz aztuko  
nere denbora guztian,  
bititzen bainaiz eman zidaten  
linterna aren azpian.  
Jai-egunetan usatutzen det,  
jasota daukat astian,  
baiñan linterna itzaldutzen det  
andregaiakin astian.

\* \* \*

Usurbil, 1985-VII-6.  
Puntua:

Kraskitin ta kraskitin  
larrosa krabelin...

— Krabelin orren billa  
ni nabil aspaldin.  
Billatu nai nuke ta  
nik billatu ezin,  
eskua jaso beza  
emen bada baldin.

\* \* \*

Gernika, 1985-VIII-10.  
Puntua:

— Andrarik ez dezu ta  
triste zera bizi...

— Neri adarra jotzen  
etzaitezte asi.  
Nik neuretzat bildu eta  
neutzat irabazi,  
zenbait andrekin baiño  
bakar obe kasi.

— Neskaxa bat bear dezu  
gaurkoan onduan...

— Arrazoi ori izan-  
go det nik goguan.  
Ez dakit ez dun edo  
ez dakit baduan,  
zeure alabatxo bat  
emazu orduan.

\* \* \*

Oñati, 1986-VI-7.

Nikolas Segurola gai-jartzailleak puntua:

— Esan da esanda're  
zelebrea zera...

— Mutilzar nagolako  
ni zure antzera.  
Lenago izan arren  
alako aukera,  
andrea zertako degu  
emendik aurrera?

Gaia: lengo urtean emen, linterna bat  
eman ondoren, badakizu zer agindu  
zenuen: urtebete barru linterna orrekin  
andregai billatuko zenuela. Zertan da  
ori?

Gogoan daukat joan zan urtean  
nik esan nuen gauz bera,  
ta naiz urte bat pasatu zaidan  
juan zan urtetik onera,  
edozein mutillek ez dauka nik  
dedan linterna-aukera,  
illuntze ontan arekin noa  
neskatxa baten etxera.

Lazkao-Txikik neskaxarekin  
ibilli nai du ondradu,  
itxura onez dabillen batek  
toki danetan ondra du.  
Baiña neskaxa bestela dago,  
argia naiko du galdu,  
bi linternakin joaten naiz eta  
ark illunpetan naigo du.

\* \* \*

Markina, 1987-III-19.

Puntua:

— Emendik ikusten det  
neska bat airosa...

— Begiratu utsean  
ematen dit poza.  
Udaberria da ta  
ori da larrosa,  
nigan etorri zaitetz  
nai badezu goza.

\* \* \*

Elosua, 1988-VI-4.

Gaia: konforme bizi al zera?

Ia konforme bizi al naizen  
galde egiten didate,  
nola mutilzar bizi naizenez  
guztiok badakizute.  
Orain kondaira lengo zar artaz  
berriz artu nai det parte:  
Adan e triste bizi izan zan  
Eba sortu zan bitarte.

Bakardadean berri ez daki  
norbaitek probatu ezik,  
orregaitikan bakardadean  
nola biziko naiz pozik?  
Koartean ez det lagunik eta  
sukaldea ere utsik,  
badakizute inun ez dala  
arantz gabeko larrosik.

\* \* \*

Oñati, 1989-V-24.

Gaia: nola pintatuko zenduke zuretzako  
gustoko neska gazte bat?

Pintatzen ere ipiñi naute,  
ez jakitea det pena;  
emakume bat oso polita  
nik pintatuko nuena:  
nere altura berdiñekoa,  
kolorez beterik dena;  
txiki batentzat norbere tailla  
izan liteke onena.

Eta eskote aundi xamarra  
jarriko diot urrena,  
kolko pixka bat ikustearren  
ta prestatzeko barrena;  
eta zapatak kendu urrena,  
ori da nere ordena;  
ta minifalda pintatuko det  
al dezakedan motxena.

\* \* \*

Bermeo, 1991-III-9.

Gaia: atzo emakume langillearen eguna  
izan zan.

Emakumeak maite ditut nik  
naiz ta mutilzarra izan,  
pena artzen det ikusitzea  
askotan nola dabilzan.  
Zenbait gizonek bere andrea  
artzen du kriada gisan,  
orrelakorik pasa ez dedin  
mutilzar gelditu nintzan.

\* \* \*

Irun, 1991-III-23.

Gaia: dotea.

Naiko zartuta bizi naiz baiña  
itxaropenez betea,  
naiz ta alako gauz tristea dan  
mutilzarra izatea.  
Baserri baten jabe egin naiz.  
ez naiz orren arlotea,  
neskazarren bat salgai badago  
badaukat naiko dotea.

\* \* \*

Billabona, 1991-VII-27.

Puntua:

— Joxe Miel Lazkaoko  
seme famatua...

— Leno gazte izana  
ta orain zartua.  
Etsipena dadukat  
neurekin artua,  
txikia izatea da  
nere pekatua.



Gaia: Zein dira zure penak?

Orrelakorik ez daukan ura  
jarri nai nuke jakiñik,  
ez pentsa gero errita gabe  
badagola atsegiñik.  
Sinistu gero: ez da munduan  
au autsiko duen miñik,  
etxera joan da ez badaukazu  
errita zeinek egiñik.

Berotasunik ez da izaten  
mutilzar askon etxian,  
txiki au ere orain bizi da  
aitatzen duen antzian.  
Gizona asko tristetutzen da  
oso denbora gutxian,  
launtasunik inñundik ez baitu  
aita ta ama iltzian.

## IZADIA

Donostia, 1962-XII-30.  
Bertsolari-txapelketa nagusia.  
Lau puntu: lurra, elurra, egurra, bildurra.

Atari ondoraño  
egin du elurra,  
txuriz jantzi digu gaur  
beltz zeguen lurra.  
Neguari aldez aurrez  
artu oin bildurra,  
ta ez daukazutenak  
ekarri egurra.

Lau puntu: garia, gurdia, txoria, komeria.

Gure uzten gañian  
mantentzen txoria,  
guk geretzat gorde nai,  
au da komeria.  
Jan baña len kargatu  
dezagun gurdia,  
etxera ekartzeko  
soroko garia.

Puntua:

— Illargian jenderik  
biziko ote da?

— Ez da oso xamurra  
olako galdera.  
Askok diote jendia  
egongo omen da,  
ori obekiena  
joanda jakiten da.

\* \* \*

Eibar, 1963-IV-7.  
Puntua:

— Artzai tontua danak  
otsuak gizendu...

— Berez tontua danak  
ori egiten du.  
Otsuak zoritxarrez  
guri ardiak kendu,  
zuri eingo lizuke  
gaur baldin bazendu.

Lau oiñak: erregua, negua, legua, tragua.

Aurtengo negu txarrak  
ditu bost legua,  
baserritarrari orrek  
emanik tragua.  
Jaunari denok ein bi-  
aiogu erregua,  
lenbailen pasa dedin  
daukagun negua.

\* \* \*

Bilbo, *Capitol* antzokia, 1964-XII-20.  
Gaia: bertso pare bat bota bear dizkazu  
itxasoari.

Lurra bezela zu ere zera  
zerutar Jaunak egiña,  
sarritan ez izanagatikan  
gozoa ta atsegiña.  
Zere barrena arraiz beteta,  
kolore urdiñ-urdiña,

gosea pranko bagenduke guk  
zu izan ez baldin baziña.

Gure janariz zure sabela  
daukazu bete-betea,  
nori etzaigu gustatzen sarri  
zure emaitza jatea?  
Zer ote da ba ur maite ona  
ta leiala izatea?  
Janagatikan millaka esker,  
lurraren anai maitea!

\* \* \*

Bilbo, *Capitol* antzokia, 1964-XII-20.  
Gaia: bertso pare bat suge gorri bati.

Zitalkeriak indar aundia  
beti du mundu onetan,  
eta sugeak ezautzen dira  
lurralderik geienetan.  
Piztiak asko dirade baiñan  
zu gaiztuena denetan,  
ankarik ez dadukazu baiñan  
zitara zera benetan.

Pizti luze bat, gaiztua zera,  
pozoiez betea dena,  
orrengandikan urrutiratu  
gizonarentzat onena,  
bera baidegu gure etsaia  
agerrerez oi duena,  
ta subea da lenengo Eba  
engañatu ziguena.

\* \* \*

Tolosa, Gipuzkoako Bertsolari-txapelketa-  
ren azkena, 1964-XII-20.

Gaia: zu izango zera Tolosako ibaian jalo-  
tako aingira zar bat. Zu jαιο ziñanean,  
ibaiko urak garbiak ziran. Gaur edozeinek  
baiño obeto dakizu nolakoak diran.

Zoritxarrean sortu nintzan bein  
eta bizi naiz uretan,  
garbiagoak ziran gaztea-  
goa nintzaden aietan.  
Aparra eta zikinkeria  
dago alderdi denetan,  
luzarago bizitzerikan  
ez daukat mundu onetan.

Ibaia ola zikindutzea  
arraiak giñan arritu,  
baiñan bestera beste gauz asko  
onbidekoak baditu.  
Papelik gabe ezin litezke  
ainbat inprenta serbitu,  
baiñan gu lenagokoak gera  
ta al dan azkarren garbitu!

\* \* \*

Zarautz, 1973.  
Lau oiñak: tximist, begi-bist, sinist, txirrist.

Ekaitza nolakua dan  
eleiteke sinist,  
bidean atzo banitun  
makiña bat tximist.  
Aldi bakoitzean kendu  
oi zidan begi-bist,  
orregaitik egiten nun  
orrenbeste txirrist.

\* \* \*

Zarautz, 1974-V-5.  
Gaia: udaberria.

Udaberria gaitzat bezela  
lagun onetxek dit eman,  
ondo esaten jakin ezker  
badauka naiko zer esan.  
Bazter guztiak lorez beteta  
paradiso baten eran,  
ea guretzat, udaberria,  
noizko etorritzen zeran.

\* \* \*

Zarautz, 1976-IV-5.  
Gaia: Zu mendizale purrukatua izan eta  
gaur goizean, eguraldi ederra izan arren,  
zergatik etzera mendira joan?

Goizean jeiki eta leiotik  
egon izan naiz begira,  
eta gaur ere banun asmoa  
abiatzeko mendira.  
Nor ez zalea jaiean joaten  
pakea dagon tokira?  
Baiñan mendiko pakeak ere  
orain izkutatu dira.

Arbola berde-berde batzuek  
asko mugitzen zirala,  
ala jantzita gaur ikusi det  
nik mendiaren egala.  
Etzait gustatzen eseritzeko  
arbola oien itzala,  
gauz orregatik sinistu emen  
kalean gorde naizala.

\* \* \*

Aretxabaleta, 1980-III-15.  
Gaia: aurtengo neguan, zure gelara leiotik  
txori txiki bat sartu da.

Esan bearrik ez da bein ere:  
otz izaten da neguan;  
ta, txoritxo, otzak il zori  
zu ortxe zeunden kanpuan.  
Etorri zaitetz nere gelara,  
neu're bakarrik neguan,  
gau goxo eder bat pasako degu  
biok alkarren onduan.

Negu beltzean kabirik gabe  
bizitzen ez dago errez,  
eta zu ere bakar-bakarrik  
or zeunden txio negarrez.  
Ni bezelaxe lagunik gabe  
illun eta triste gabez;  
bildurrik gabe atoz, badago  
zuretzat ainbeste babes.

\* \* \*

Donostia, 1980-XII-14.  
Gaia: Zer dio Txindokik?

Txindokiri begiraka  
egon naiz sarri edo maiz,  
tontor polit ederra da  
bistan dagola nolanaiz.  
Galdetu nion: "Txindoki, zer da?"  
Auxe erantzun zidan aitz:  
"Artzai guztiak juan zaizkit eta  
bakar-bakarrik bizi naiz".

Len esan det bakarrikan  
eta bizi dana triste,

ez daukala uda-giroz  
ainbat neska-mutil gazte.  
Ta esan zidan berriro ere:  
“Etorritzen asi laiste,  
eta or beko txoko orretan  
euskaldun gorde zaitezte”.

\* \* \*

Zarautz, Uztapideri omenaldia, 1981-IV-5.  
Lau oinak: kukua, lekua, kaikua, naikua.

Basoa izaten da  
kukuen lekua,  
txantxangorria ondatzen  
da naiko kaikua.  
Ola da txori danetan  
alperren kukua,  
gizonetan e badago  
ortatik naikua.

\* \* \*

Zumaia, 1981-V-9.  
Gaia: illunabarra.

Illunabarra etortzen zaigu  
eguneroko legera,  
eguna bera jexten dijoa,  
eguzkia ere bera.  
Pentsa zazute illunabarra  
da egunaren bukaera,  
gure bizitza bukatuko da  
egun onetxen antzera.

\* \* \*

Orio, 1981-V-24.  
Gaia: asi da izketan kukua. Zer dio?

Kukua beti azaltzen zaigu  
apirilla inguruan,  
geroztik beti or ibiltzen da  
kuku emen da kuku an.  
Kalendaioirik ez izan arren  
gizonak duen moduan,  
nunbaitetikan ikasitzen du  
noiz etorri ta noiz jua.

\* \* \*

Tolosa, 1983-X-30.  
Puntua:

— Txindokiri asi zaio  
burua txuritzen...

— Nunbait asi dalako  
negua urbiltzen.  
Artzaiak e asi dira  
andik bera biltzen,  
Txindoki zuritzeaz  
ez gera arritzen.

Gaia: aizeak aidean daraman orbela.

Uda guztia pasatu dezu  
zeru aldera begira,  
or beran bizi ziranarekin  
etziñan asko kupira.  
Baiñan zu ere laister bazoaz  
onttoak dauden tokira,  
gizon arroen arrotasunak  
olaxe bajatzen dira.

Alde batera pena artzen det  
zu ikustea orrela,  
lenago oso berde ziñan da  
gaur egin zera orbela.

Aizean morroi ara ta onuntz  
nun jausi ez dakiela,  
gizonak degun bizimodua  
akabatzen dan bezela.

\* \* \*

Ordizia, 1984-XII-29.

Gaia: ikusten dituzu mendi-tontorrek elur-  
rrez zuri daudela, eta gaur goizean zu  
etzaitu iratzargailluak, despertadoreak,  
esnatu, zure leioan xanpatu zan txantxan-  
gorri batek baizik.

Bertsolariak gauerdietan  
beti degu umorea,  
ta egunsentia datorrenean  
geienetan logurea.  
Ta ni bezela berdin zegoen  
gure despertadorea,  
estimaten dit, txori maitea,  
egin deken faborea.

Iregatikan ondo sartu nauk  
ni lantokiko atean,  
maisua ere antxen zegoen zai  
ni lantokira joatean.  
I aizelako iritxi niok  
alako presa batean,  
txori maitea, berriz etorri  
gusetutzen aizenean.

\* \* \*

Legazpi, 1985-X-11.  
Puntua:

— Euririk ez badator  
kixkalduko gera...

— Euteran zabilzatenak  
kontuak atera.  
Gaztetan erretzea  
denentzat kalte da,  
ardoa edan bear  
emendik aurrera.

Lau oiñak: legorra, gogorra, zorra, zaborra.

Aurten egiten digu  
legorte gogorra,  
ganadu asko daukanak  
egin bear zorra.  
Luzaro izaten bada  
daukagun legorra,  
baztarretan erreko da  
amaika zaborra.

\* \* \*

Zegama, 1987-III-14.

Gaia: bertsolari bakoitzari bina illabete  
zegozkien, eta Lazkao-Txikiri martxoa eta  
irailla edo agorra tokatu zitzaizkion.

Neri tokatu zait illabete  
ederra eta goxoa,  
udaberria berekin dator  
nolatan detan martxoa.

Zugaitz gaiñetik kantari dabil  
birigarro ta xoxoa,  
zoriontsua izan liteke  
oain jaiotzen dan aurtxoa.

Orain agorra izan bearko,  
udara joan da igesi;  
ni il orretan jaio nintzan da  
oso ongi ez naiz bizi.  
Iturriak e legortu dira,  
titiak antzutzen asi,  
ori dalako Lazkao-Txiki  
etzan aundigua azi.

\* \* \*

Ordizia, 1988-IX-10.  
Puntua:

— Eguna jaiotzen da  
goizero-goizero...

— Eguzkia etortzen da  
gugan egunero.  
Laiñorik ez danean  
egiten du bero,  
ta illunabarrean  
gordetzen da gero.

\* \* \*

Irun, 1991-III-23.  
Gaia: zuk zertan igerri diozu aurtengo  
udaberriari?

Etxe azpian saratsa loran  
eta berdin elorria,  
muxikari're atera zaio  
egundaiñoko orria.  
Lumak arrotu eta kantari  
leiora txantxangorria,  
beti egunero ark egiten dit  
neri ongi-etorria.

## GURE GIZONAK

Donostia, 1962-I-6.  
Puntuak:

— Pyri menderatu du  
Arruizko Txikiak...

— Txikiak ere motelak  
ez dira guztiak.  
Ni asko poztutzen nau  
ori ikustiak,  
ara askotan zer gauza  
eiten dun aundiak.

\* \* \*

Donostia, 1962-XII-30.  
Bertsolari-txapelketa nagusia.  
Lau puntu: laguna, kutuna, eguna, biguna.

Nere onduan daukat  
Basarri laguna,  
aspalditxotik nuen  
aiskide kutuna.  
Gaur ere iritxi da  
biltzeko eguna,  
gizon gogorra bañan  
biotzez biguna.

\* \* \*

Zizurkil, 1965-V-9.  
Pedro Maria Otañoren omenaldia.

Pedro Mari, zu maitia zera  
lurrean da zeruetan,  
orregatikan il ezgeroztik  
zaude bai iru pusketan:

animaz Jaunak beragan zauzka,  
gorputzez Ameriketan,  
biotzez berriz Euskal-Errian  
zure bertso bikaiñetan.

\* \* \*

Ordiziako *Gau-txori* ostatuan, Artxanberri  
bertsolaria zanari kantatua:

Bai, otoitzean ni zure alde  
aleginduko naiz sarri,  
ta illobian utzi nai dizut  
zerbaiten seiñalagarri.  
An jarriko det nik gurutze bat  
ta letrero au ezarri:  
“Emen sartu zan Goierriko  
bertsolari Artxanberri”.

\* \* \*

Arrasate, 1967-XII-24.  
Gaia: Prudentzio Egiguren *Artañola* il berria  
dan bertsozalearen omenez, bertso bat.

Gure lagun bat il berri da ta  
gu minberaturik gaude,  
zenbait laguntza mundu onetan  
egin zigun izan ere.  
Zuzendu zuen zenbait oiñarri,  
zenbait bertsolari-talde,  
ta bertso-otoitz au izan dedilla  
bere animaren alde.

\* \* \*





Zizurkillen, Pedro Maria Otañoren omenaldia, 1965-V-9-an.

Donostia, 1968-I-21.

Uztapideren omenezko jaialdia, *Centro de Atracción y Turismo* alkarteak antolatua. Agurra.

Une batean biurtu nai det  
nik egunsentiko txori,  
kantu politikak ematearren  
sortu zaigun egunari.  
Milla esker Atrazio edo  
Turismoen etxeari,  
beste ainbeste anai ta arreba  
etorri zerateneri.

Egun au degu gure Jainkoak  
Uztapideri emana,  
alare gutxi derizkiot nik  
guk egiten degun dana.  
Biotz-biotzez txalo dezagun  
gure Manuel laztana,  
au da gizon bat il da gero're  
bein e ilko etzaiguna.

\* \* \*

Donostia, 1969-IX-21.

Xalbadorren omenaldia.

Gaia: Txapel, Arregi, Olaizola.

Gaur iru gizon ospetsu aiek  
etorritzen zaizt gogora,  
negar-malkoak neregan doaz  
begiak egiñik lora.  
Gure artean bizi ondoren  
orain iyo dira gora,  
gure Jainkoak jasoko zitun  
bera dagoen ondora.

---

(1) Lerro au ezin osorik ulertu.

Txapel bertsolai senide gendun,  
eta Arregi gaztea,  
Olaizola zan ereslaria,  
zeru-doaiez betea.  
Berenganuntza erruki zaitez,  
zu, Jaungoiko maitea,  
zure senide jator oientzat  
izazu borondatea.

\* \* \*

Donostia, 1971-III-19, Lasarteren omenezko jaialdia.

Gaia: Lasarte.

Gure lagun au bai deguela  
umilla eta otxana,  
ainbeste izan izatez eta  
batere arrotzen eztana.  
Beraz, Lasarte, artu ezazu  
nik emandako laztana,  
zu ezagutu ziñuztenetik  
barruan gorde detana.

\* \* \*

Elizondo, 1971-V-6.

Goizuetako Andres Narbarte *Xalto* bertsolaria il berria zan.

Narbarte zana laguna gendun  
munduan izan zanean,  
kristau fede bat ..... ez dedin(1)  
illik zaigu azkenean.  
Zenbatsu bertso bota ote genun  
guk sarri alkar artean?  
Zeruko Jaunak artu zaitzala  
beraren aldamenean.

\* \* \*

Añorga, 1971.  
Gaia: Lasarteri bertso bat.

Lasarte ikusi ta bera entzun,  
ori da bertsolaria;  
jan bear baldin balitza ere  
bedeinkatutako ogia.  
Bertsoak aixa botatzen ditu,  
ez du etorri nagia,  
lantegi ortan onena eta  
lagun bezela obia.

\* \* \*

Ernani, 1971-VI-26.  
Txirritaren goralmenez:

Txirrita jauna goralmendutzen  
nik badaukat naiko lana,  
gure maixua lenagotikan  
bera genduen izana.  
Guk al dan ongi segitzen degu  
maixu zarraren esana,  
zoriontzen det ainbat bertso bota  
ondorenean il zana.

\* \* \*

Zegama.  
Uztapideren omenezko jaialdia.  
Agurra:

Euskal-Erriko gizon aundi bat  
gaur gurekin dala bide,  
Zegama ontan alkartu gera  
orrenbeste adiskide.

Beñere baiño poz aundiagoz  
zuenganatu naiz ni're,  
lenen egun on emengo denoi,  
zorionak, Uztapide!

\* \* \*

Donostia, 1972-I-10.  
Mattinen omenaldia.  
Agurra:

Mattinen berri badakizute,  
nik zertarako itzegin?  
Alaz ta guztiz gure berriak  
goitik nai ditut otsegin.  
Bera ezagutuzten dun batek  
maite duela dio zin,  
biotz aundi ta umoretsua  
naiz gorputzez izan pittin,  
anai bixki bat banu bezela  
biotzez maite det Mattin.

\* \* \*

Donostia, 1972.  
Uztapideren omenaldia.  
Agurra:

Mundu triste au sarritan ez da  
izaten zorioneko,  
gaitz tristeren bat etorri leike  
bat ongi bizi daneko.  
Uztapideri gertatzen zaio  
zeozer orren antzeko,  
ta guk guraso ta maixu on bat  
nola ez degu ba maiteko?

\* \* \*

Ataun, 1973-V-16.

Gaia: Euskaldunen maisuari, Barandiarani, zer esango zenioke?

Joxe Migel, au entzuten bada  
esan nai niokena nik,  
zuk dakizuen ainbeste gauza  
euskerai buruz jakiñik.  
Gazteak asko ikusten dira  
euskera ezin egiñik,  
maisu berriak onak sortzeko  
ori eskatuko dizut nik.

Zenbait euskaldun aditu utsez  
biotzak artutzen du min,  
ta, Joxe Migel, bertso-saio au  
pentsatu dala zurekin.  
Oker dabiltzan euskaltzaleaz  
saiatu zaitez alegin,  
lengo bidetik gure erreka  
xuxenkiro joan dedin.

\* \* \*

Tolosa, Isaak Lopez-Mendizabalen omenaldia.

Ara oraindik emen nun degun,  
emen, gure Isak jauna,  
euskeran alde liburu eder  
askotxo egin diguna.  
Larogei eta amabost urte  
ta daduka bista juna,  
liburuetan utzi baitzigun  
barrungo argitasuna.

\* \* \*

Deba, 1974-I-6, Zubeltzu zanari omenaldia.  
Bertsoaren bukaera: "Ez dira beti ondo  
pagatzen ondo egindako lanak".

Barkatu lenen gaizki badoaz  
nere kantuko esanak,  
nik bezelaxen gure Zubeltzu  
ezautzen dezute danak.  
Bere biziko urte guztiak  
nekepean eramanak,  
ez dira beti ondo pagatzen  
ondo egindako lanak.

\* \* \*

Mendaro, 1974-XII-8.

Mendaro Txirristaka bertsolariaren omenaldia.

Nik Txirristaka ezagutu nun  
eraman baiñan lenago,  
nolakoa zan oraindik ere  
dana aztuta ez nago.  
Poz bakarra det: bertsolarien  
zaletasuna badago;  
orregatikan besarkada bat  
eman nai dizut, Mendaro.

\* \* \*

Zarautz, 1974-XII-22.

Frantzisko Larrañaga edo *Patxi Barbero*-ri  
omenaldia.

*Patxi Barbero* beti izan det  
lagun eta maitagarria,  
sarritan bera izan baidegu  
bertsolarien lokarri.  
Patxi maitea, besarkada bat  
orain nai dizut ezarri,  
biotz barruan gorde dezazun  
betiko oroimengarri.

\* \* \*

Lexotiri, Oiartzunen egin zitzaion omenaldian kantatua:

Ez da markesa ta ez da duke  
baiñan badu zenbait lagun,  
zedorrek ere zuk ez dakizu  
zenbat maitatzen zaitugun.  
Eta Jainkoak eman deizula  
gaur dezun ainbat osasun,  
zorioneko urte askotan  
kukua entzun dezazun.

\* \* \*

Donostia, 1976-I-16.  
Joxe Lizasoren omenaldia.  
Azken agurra:

Kantari ezin naiz ase  
ta esan bear det zeoze:  
milla zorion biotz-biotzez  
nik ematen diat, Joxe.  
Aurrera ere jarrai zak ola  
orain arte bezelaxe.

\* \* \*

Lesaka, 1976-V-23.  
Migel Arozamenaren omenaldia.  
Leen agurra:

Milla zorion, Arozamena,  
eldu da egun aundia,  
maitetasunez bete-beterik  
bai bildu ere jendia.  
Erri ontantxe ikusi zenun  
eguzkiaren argia,  
oraindik ere oroitzen zaizu  
sortu ziñuzen kabia.

Gaia: eun urte Bilintx il zala.

Eun urte bete dira  
dagola ixilla,  
ta bizia pasa zun  
maitasunan billa.  
Bertsolari txukuna,  
kantari abilla,  
fueroak kendutako  
egunean illa.

\* \* \*

Bergara, 1978-III-19.  
Basarri eta Uztapideren omenez.  
Agurra:

Zer zoriona! Uztapide ta  
Basarri gurekin daude,  
gure maisu ta gure guraso  
oiek izandu dirade.  
Eta bestetik esker beroak  
eman bearrean gaude,  
bizitz osoa pasa baidute  
gure kulturaren alde.

\* \* \*

Ahetze, 1978-IV-20.  
Mattinen omenaldia.

Gure Mattin au ttikia danik  
iñork ez dezala uste;  
ttikia balitz toki au nola  
bear zun ainbeste bete?  
Ara Ahetzeko gure laguna  
euskaldun guztiak maite,  
aingeru baten doai guztiak  
berak baiditu nonbait e,

arrosatxoak eguzkiaren  
antzera maite zaituzte.

\* \* \*

Urepele, 1979-XI-4.  
Arabaren izenez agurtu bear zuen Xalbador zana.

Ene, Xalbador, zuri otoikia  
ni eldu naiz Arabatik,  
ia euskera geiena galdu  
zaigu juan dan aspalditik.  
Zuk indar asko nola daukazun  
Jaungoikoaren ondotik,  
gure Araba euskaldundutzen  
lagun zaiguzu zerutik.

\* \* \*

Donostia, 1979-XII-16.  
Manuel Lekuonaren omenaldia.

Lekuonaren abizena da  
merezi bezelakua,  
ain baita gizon aundia eta  
ain biotz apalekua.  
Gure partetik zor bat badegu,  
badegu zer eskertua:  
berari esker bertsolaiak gaur  
emen daukagun lekua.

Euskal-Erria nola zuzendu  
oi du bere arazoa,  
ta orren alde daramaki, bai,  
bere bizitza osoa.  
Gure mintzoen maitalea da  
ta maitatzen du bertsoa,

gaurtik aurrera dei genezake  
bertsolaien gurasoa.

\* \* \*

Zarautz, 1980-IV-20, Basarriren omenez.

Lendabiziko Jaunak egun on,  
bertako jende leiala,  
ta emen daukagu gure Basarri  
aundia bezin apala.  
Dakiguna da urte zail aitan  
beti zuzen izan zala,  
bertsolarien babesa eta  
bertsolarien itzala,  
nik opa dizut luzaro Jaunak  
gurekin gorde zaitzala.

\* \* \*

Aretxabaleta, 1981-III-14.  
Gaia: eranegun eortzi zuten Telesforo  
Monzon. Bertso bat.

Joan berria zaitugu  
Jaungoikoarengan,  
baiñan olerki asko  
emen dituzu eman.  
Olerki onak jartzen  
ona zera izan;  
bestalde emen zerbait  
jardun giñan teman,  
ia zeruan denok  
alkartutzen geran.

\* \* \*

Zarautz, 1981-IV-5.  
Uztapideri omenaldia.

Udaberria iritxi da ta  
denok artu dezagun poz,  
kukua ere ementxen dabil  
zugaitzetan kukua joz.  
Uztapide're ala ibili zan  
euskerara indartu asmoz,  
Jaun Zerukoak gorde zaitzala  
beste udaberri askoz.

\* \* \*

Orio, 1981-V-24.  
Lasarteri omenaldia.  
Gaia: Orio eta Manuel Lasarteri agur.

Gure Manuel beti izan da  
bertsolari eta gizon,  
berak e garbi ez du jakingo  
erriak zenbat nai dion.  
Ori dala ta omenaldi bat  
egin diote Orion,  
nere partetik ere, Manuel,  
ar itzak milla zorion.

\* \* \*

Zegama, 1981-XI-15.  
Uztapideri omenaldia.

Danok dakigu erri onetan  
askotan izan ziñala,  
ta ezagun da emen zurekin  
guztiak pozez dirala.  
Ixildu arren gordetzen dezu  
maixu aundi baten itzala,

gauza guztien jabe dan Arek  
luzaro gorde zaitzala.

\* \* \*

Ahetze, 1982-VII-18.  
Mattin il zala urtebetetzea.  
Leen agurra:

Oraintxen degu urtebetea  
il zitzaiguela Mattin,  
urte osoa iragan arren  
gu iñola're antzi ezin.  
Gorputzez nola il zitzaiguen  
naiz ta gaur guztiok jakin.  
gaur espirituz ikusitzen det  
emen dagola gurekin.

Azken agurra:

Leno esan det Mattin  
dagola gurekin,  
ispirituz dago ta  
guk ikusi ezin.  
Kantari ari arren  
biotzean det min,  
lagun bat galdutzea  
ez baita atsegin;  
agur, ahetzetarrak,  
eta agur, Mattin.

\* \* \*

Errenteria, 1982-XII-8.  
Gaia: Perurena arri-jasotzaileak marka  
berri bat ezarri omen du: 281 kiloko arria  
jaso omen du. Desafiatu ezazu bertatik.

Arrigarritzko marka aundi bat,  
Iñaki, egin dezuna:

ikusten dezu zure aldean  
txikiagoa nazuna,  
eta badakit kilo aundiak  
zuk altxatzen dituzuna;  
indar utsean ez da neurtutzen  
gizonen aunditasuna.

Lazkao-Txikik zuk dezun ainbat  
talentu gorputzez eztu,  
nola berez dan baju xamarra,  
baju ta gorputzez estu.  
Baiñan buru bat ona badet nik,  
ortaz etzaita aztu,  
nolabait ere baietz altxa nik  
egingo dizut apustu.

\* \* \*

Azpeitia, 1983-XII-17.

Gaia: Txapel zana.

Zeure izena Euxebio zan  
naiz geienak Txapel deitu,  
oraindik ere zure izenak  
denok pozez jartzen gaitu.  
Zure baratzan bertsolariak  
geroz eta dira geitu,  
zuk jarritako zugaitz ederrak  
kimu onak eman ditu.

\* \* \*

Zegama, 1984-VIII-25.

Gaia: Igaztik aurtena norbaiten faltarik  
aurkitu al dezu emen?

Oroitutzen naiz bat falta dala  
zana bizkor eta bikain,  
biotzak nai du baiñan ez daukat  
esateko ainbat mingain.

Juan zan urtean gure artean  
zebillen Joxe Laskurain,  
gure Jainkoak eramango zun  
emen ez baidabil orain.

Berriro ere Joxe Laskurain  
etorritzen zait burura,  
beti gurekin ibiltzen zana  
Ormazabalena modura.  
Nere otoitzetan nik artuko det  
arreta edo ardura,  
Zeruko Aitak jaso dezala  
santuen bizilekura.

\* \* \*

Gaia: Lasarteren txapela.

Txapel guziak pentsa suerte  
berdiña ez daukatela,  
naita fabrika berdintsuetan  
egiten dan bere tela.  
Ta txapel orri esango diot  
biotz barrendik onela:  
toki onean erori ziñan  
zu, Lasarteren txapela!

Txapel guziak izanagaitik  
ondo jartzeko gogua,  
erostuna nor dan ta erosi ta  
tokatu nola-alakua.  
Lasartenari tokatu zaio  
ona eta segurua,  
txapel guziak ez dute izaten  
zuk bezelako burua.

\* \* \*



Tolosa, 1984-X-12.

Bertsoaren bukaera: "Besarkada bat bialtzen dizut Tolosatikan zerura".

Tolosan bazan olerkari bat,  
juana da beste mundura,  
Emeterio Arrese gendun  
esan nai nuen jaun ura.  
Euskerangatik artu zenuen  
arreta edo ardura,  
besarkada bat bialtzen dizut  
Tolosatikan zerura.

\* \* \*

Tolosa, Zepai zanaren omenez.

Gaia: Agur bat Zepairi.

Zepai zana nik ez dut utzi nai  
iñolaz esker gabea,  
bera izan zan gu baiño lendik  
lantegi onen jabea.  
Ez dakit orain emango zaion,  
merezi zuen ordea,  
gera ondoko urte zailletan  
bertsolaritza gordea.

\* \* \*

Zegama, 1985-XI-10.

Leen agurra:

Egun eder au kantu ta pozez  
gaur asi bearra dago,  
izanez ere ooratzen da  
gizon bat gaurkoz geiago.  
Merezi zuen ta au ikusita  
pozak txoratutzen nago,

lenen egun on guztiori ta  
zoriona, Atxukarro!

\* \* \*

Donostia, 1985-I-13.

Jesus Alberdi *Egileor*-en omenez.

Leen agurra:

Auxen da giro epela emen  
naiz ta kanpoz otza egon,  
zein agurtzen zan jakiñik ori  
esan bearrrik etzegon.  
Nere partetik, o, i, Egileor,  
ar itzak milla zorion,  
eta zueri ongi etorri  
ta guztiori egun on.

\* \* \*

Añorga, 1986-VII-17.

Gaia: Mattin.

Bost urte dira Mattin il zala,  
oraindik daukat goguan,  
bata bestea artzen genuen  
bixki lagun moduan.  
Ain umore oneko gizona  
gure Mattin baigenduan,  
zeruan ere festa bear ta  
Jainkoak eraman zuan.

Alaia ziñan, jostalaria  
ta bertsolari moduan,  
irurogei ta bosten bat urte  
pasa zinduzten munduan.  
Eta badakit aulki eder bat  
badaukazula zeruan,

neretzat ere toki txiki bat  
gorde zaidazu onduan.

\* \* \*

Markina, 1986-XII-8.  
Gaia: Balentin Enbeita.

Nolabait ere, Balentin maite,  
faltatu zendun bizitza;  
nik ala uste: une oetan  
zeru aldetik zabiltza.  
Jaunak eman deizazula beintzat  
aingeruak duten ditxa,  
zergatikan zuk gorde ziguzun  
Bizkaiko bertsolaritza.

\* \* \*

Aia, 1987-VIII-7.  
Gaia: Manuel Lekuona oraintsu il berria.

Gizon apal da bizkorragorik  
sortu ote da mundura?  
Esan nai nuen gure Don Manuel,  
oraintxe il zaigun ura.  
Bertsolaritza altxatu zuen  
arturik bere ardura,  
gure izarrik maitatuena  
oain dala gutxi galdu da,  
gure Jainkoak jaso dezala  
santuak dauzkan lekura.

\* \* \*

Usurbil, 1987-VII-4.  
Puntua:

— Gaur sei urte emen zan  
gure lagun Mattin...

— Azken bertsoak bota  
giñun alkarrekin.  
Gaur Jaunari otoitz bat  
pozez diot egin,  
zeruan aingeruekin  
dibertitu dedin.

\* \* \*

Ernani, 1987-XII-5.  
Gaia: Paulo Zubiarrain, *Ernani Txikia*  
omenduari bertso bat.

Gure guraso zar bat bezela,  
gaiñera euskaldun fiña,  
Txirrita eta Frantzesarekin  
bertso-saioak egiña.  
Lagunartean pozgarria ta  
erriaren atsegiña,  
urretxindorra esango nizun  
txoria izan baziña.

\* \* \*

Zumarraga, 1988-VI-25.  
Luzio Gabiria zanaren omenaldia.

Pentsa zazute une onetan  
bera ikusten nagona,  
Luzio genuen gure maixua,  
bertsolari ta gizona.  
Ala ta guttiz gaur ezin eman  
merezita daukan sona,  
bera izan genun Goierrri ontan  
arnasa eman ziona.

\* \* \*

Donostia, 1990-I-21.  
Alberdi eta Pujanaren omenaldia.  
Leen agurra:

Lenen egun on guztioentzat,  
gero besarkada bana;  
urteoroko antzera gatoz  
bi lagun jatorrengana.  
Agurtzekotan pozgarria da  
oek len egindako lana,  
ori dalako milla zorion  
Alberdi eta Pujana,  
bildur bat daukat guk ezin egin  
merezi dezuten dana.

\* \* \*

Donostia, 1992-I-19.  
Teodoro Hernandorena, Emile Larre eta  
Mariano Izetaren omenaldia.  
Agurra:

Pozaren pozez nator oorez  
iru jaun aundirengana,  
alaz ta guztiz ezin eskertu  
oiek egindako lana.  
Ar itzazute nere zorion  
eta besarkada bana,  
zorionekoak oiek mundura  
ekarritako aita ta ama.

\* \* \*

Mutriku, 1992-IX-12.  
Agurrak, alkar aurkeztuz egin bear zituzten.

Nik presentatu bearco det gaur  
neronen eskubikoa:  
bi alaba ta seme baten aita  
eta gizon tajuzkoa.  
Itxuraz baju izanagatik  
aundienen neurrikoa,  
berez Azpeitiko semea ta  
Oranda baserrikoa. (1)

\* \* \*

Donostia, 1993-I-24.  
Aita Xanti Onaindia eta Alfontso Irigoien  
omenaldia.  
Lazkao-Txikiren azken bertsoa.

Bi gizon aundin ooreetan  
astera goaz kantari,  
lendabiziko besarkada bat  
eta egun on zueri.  
Ok ein dituzte gerra ondoan  
bertsolarien gidari,  
garai artako esker ordaiñez  
milla zorion bieri.

*Auxe izan zan Lazkao-Txikik jende aurrean kantatutako azken bertsoa, biaramonean poliklinikara sartu baizan, an lo artu arazi eta geiago ez esnatzeko.*

---

(1) Joxe Agirre bertsolaria, alegia.



Mendian, bere lengusu eta lagun batzuekin.



Aralarko San Migelen, Asoluzio-egunean, 1947 urtean.

## BERTSOLARITZA

Ernani, 1962-XII.-9.  
Euskal-Erriko bertsolari-txapelketa.  
Gipuzkoako azken saioa.  
Gaia: aurreko kopa orri bi bertso.

Ernanin ez gaituzte  
gu artutzen joka,  
nork esan bertsolariet  
orrenbeste opa?  
Eraman nai badegu  
orain da epoka,  
ta norentzat ote da  
or daguen kopa?

Emen jendia ez dago  
biziro trankilla,  
ta ni ere biotzez  
arkitzen naiz illa.  
Gero izan ez dedin  
zenbait eskanbilla,  
ongien portatzen danak  
eraman dedilla.

\* \* \*

Elgeta, 1973-VI.-21.  
Gaia: zergatik bertsolariak beti berandu  
eltzen dira?

Goiz etortzea gustatzen zaigu  
iñundik-eta al dala,  
baiñan barkatu berandu samar  
onuntz iritxi generala.  
Badakizute motor txiki bat  
guztiok badeguala,

ta gasolina falta zitzaion  
motor askori bezala.

\* \* \*

Aretxabaleta, 1980.

Gaia: Igaz ala zan eta aurten ere bai: bertso-gaiaren aurretik *Almen*-eko aur bertsolariak kantatu dute. Nik uste det ez dala aztu genezakena, ez baita sarri gertatzen. *Almen*-eko aur bertsolariet bi bertso.

Nik bezelaxe nork ez du emen  
entzun auetxen jarduna?  
Badakizute beren kantua  
barrura sartu zaiguna.  
Pozaren pozez urtu liteke  
biotz apurtxo bat duna,  
aur oietatik daukagulako  
biarko etorkizuna.

Udaberriko txorien gisan  
apal-apal, baju-baju,  
bertso txio ta kantu politik  
leno aditu ditugu.  
Biotz fin eta maitasun aundiz  
dozen erdi bat aingeru,  
olako asko sortzen badira  
euskera seguru degu.

*Almen* eskolako bertsolari gazteak kantatu ondoren:

Arrats onetan neri pasa zait  
lendik nedukan illuna,

ikusi baidet erri onetan  
poza eta osasuna:  
neska-mutillak bertso kantari,  
inun ikuste'ez deguna;  
poz orregatik milla zorion,  
badegu etorkizuna.

\* \* \*

Ordizia, 1980-IX-13.

Lau oiñak: merezi, berezi, ezi, esi.

Papel bat ipiñi dit  
puntuaren esi,  
lenago ni enintzan  
era ontan ezi.  
Ia letrarik ere  
ezin det berezi,  
erantzuterik ere  
eluke merezi.

\* \* \*

Zumaia, 1982-IV-24.

Bertso-saioaren asieran, Zumaia-ko bertso-  
-eskolakoak beren jarduna egin zuten.

Gaia: "Jaioko dira berriak".

Bertsolaritzaz kezka beteta  
egoten nintzan lenago,  
baiñan gaurko gazte oiekin  
pozak txoraturik nago.  
Bertsolariak orain badatoz  
Euskadiren onerako,  
oiñordekoak gelditzen dira  
gu iltzen geranerako.

\* \* \*

Lasarte, 1984-VI-29.

Gaia: lasartearrak gauza bat jakin nai  
dute: zuek, zabiltzaten ainbat bertsoan  
ibilita, beti bai al daukazute zer esana erri-  
rik erri? Zer esaten diozute erriari?

Misiolari antzera gabiltz  
erri batetik bestera,  
gure erria gora altxatzen  
saiatzen gera gaiñera.  
Beti aotan au dabilkigu:  
Euskadi eta euskera;  
nor bait euskeraz entzundakoan  
pozik gelditutzen gera.

Saiatzen gera jendea nola  
ipiñiko degun bero,  
egia pranko bai esan ere  
gabiltzaden erriero.  
Eta tartean gezurrak ere  
esaten ditugu gero,  
egiak ainbat balio baidu  
zuek sinistu ezkerro.

\* \* \*

Zumaia, 1986-IV-5.

Gaia: Saio-asieran kantatu duten gazteak.

Bertsolari gazte oiek  
gu pozik utzi gaituzte,  
landarerik zetorrenik  
garai batez ez nun uste.  
Zuek ikusita gure biotzak  
artutzen du zenbait pozte,  
gu pixkanaka bagoaz eta  
zuek berriz bazatozte.

**EUSKAL-ERRIAREN KEZKA**

Beasain, 1962-IX-30.

Bertsoaren bukaera: zenbat pertsona geran munduan beste ainbeste opinio.

Emen bat eta bestian itzak  
ez dute asko balio,  
nik nai detena det izkuntza au  
pixka bat gorago io.  
Eta gustatzen etzaion arek  
berriz ezezkoa dio,  
zenbat pertsona geran munduan  
orrenbeste opinio.

\* \* \*

Donostia, 1962-XII-30.

Bertsolari-txapelketa nagusia.

Puntua:

— Donostian oraindik  
egiten da euskeraz...

\* \* \*

— Euskaldun batek ori  
ar bedi aukeraz.  
Oraindik saiatzen dira  
gure mintzoeraz,  
al dezuten guztiak  
ortan segi beraz.

\* \* \*

Donostia, 1965-I-1.

Bertsolari-txapelketa nagusia.

Puntua:

— Zuretzat nai det bizi,  
euskera maitea...

— Biotza zuregana  
daukat nik betea.  
Askok pentsatu arren  
zu kolpez galtzea,  
eskatze-iot Jaunari:  
zu bizi zaitea.

Lau puntu: aukera, aurrera, minbera, euskera.

Asko egonagaitik  
onekin minbera,  
nik gauza ontan segi  
nai nuke aurrera.  
Beste izkuntzetan ere  
badaukat aukera,  
bañan nik geiagona  
maite det euskera.

Eibar, 1971-V-2.

Gaia: Errria, izkuntza.

Ia aspaldian izkuntza  
beraka dijua,  
beraka dijua,  
atzentzen ari zaigu  
lenoko ojua.  
Ain da izkuntz polita  
ta ain da goxua,  
bizkor bedi neskatxa  
ta berdin maixua,  
betiko galdu ez dedin  
euskera gaxua.

Denok alkar artuta  
saia gaiten emen,  
al badegu aurten,  
maite degun izkuntza  
arturikan barren.  
Bestela badakigu  
zer gauza datorren,  
ta saiatu gaitezen  
al degun azkarren,  
amona ta billoba  
entenditzearren.

\* \* \*

Oiartzun, 1971-VIII.

Gaia: agurra egiteko, bertso bat kanta  
zazu euskeraren etorkizuna adieraziz.

Gure euskera bizi da oraindik  
aitortua aspaldian,  
ta or jartzen det au ulertzea  
ainbat lagunuen artian.  
Egin zazute kalian eta  
egin zazute etxian,  
gure mintzoak iraun dedin  
betikotasun guztian.

\* \* \*

Azpeitia, 1972-I-7.

Gaia: urte berriari.

Aur jaio berri bezela degu  
asitzen degun urtea,  
ta onek ere ez al du obe  
ikastolara joatea?  
Nik nai nukena urte berri au  
oso ona izatea,

aurtxo bezela ikas dezala  
gure izkuntza maitea.

Aurtxo bezela urte berri au  
nolatan degun artua,  
oraintxe dala zortzi bat egun  
mundu ontara sortua.  
Nola daukagun aurtxo txikia  
oraindik oso mutua,  
gaur egiten dan billera onek  
eman dezala frutua.

\* \* \*

Donostia, 1973.

Gaia: nor da euskaldun?

Nere gustua bein betetzeko  
auxen da gai atsegiña,  
danak esan al baldin badira  
bada zertan itzegiña.  
Euskaldun bat nor dan galdetzen dit:  
bat dana biotzez fiña,  
gure euskera maite duna ta  
ortan itzeiten dakiña.

\* \* \*

Ataun, 1974, Joxe Migel Barandiaran  
zanaren omenaldi-eguna. Euskal-Erritik  
zazpi bertsolari bildu ziran.

Gaia: arbol zaarraren zazpi adarrak.

Zazpi adarrak zimeldurikan  
dira gure zabarkeriz,  
zuztarretikan nola dagoen  
indar berriaren premiz.  
Nik pentsatzen det oraindik ere  
ostotu liteke berriz,



belar gaiztoak ondo kenduta  
jorratuko baldin balitz.

\* \* \*

Urte batzuetan, kanpotarrak erruz sartu  
ziran Euskal-Errian. Garai artako bertsoa  
da onako au, taberna batean kantatua:

Ezti saltzeko brusa txurikin  
azaltzen dira lenbizi,  
gero zapata eta trajeak  
beren korbata ta guzi.  
Eta ondoren etxe-bizitzak  
edo pisuak erosi,  
martxa orretan segitutzean  
laister ditugu nagusi.

\* \* \*

Tolosa, 1975-VII-5.  
Gaia: indarkeria zertarako?

Indarkeriaz ezin liteke  
iñoiz erririk zuzendu,  
obeki jardun bear litzake  
ezagutuko bagendu.  
Gizonak beste gizon batekin  
indartsu gaizki ematen du,  
astoak ere egurrarekin  
beti gaizki ikasten du.

Ara zertara iritxi geran  
askatasunikan gabez,  
eta iñundik ez baidaukagu  
bear orrenbeste babes.  
Emengo gauza geientsuenak  
biribildurik gezurrez,

eta guk berriz egi pixka bat  
aitatutzeko bildurrez.

\* \* \*

Ordizia, 1976.  
Fermin lagun zanaren omenez bertso-afari  
bat izan zan, eta gai librean aritu ziran  
Iraola eta biak. Garaiko politika ere ikutu  
zan, eta au izan zan Lazkao-Txikiren  
azken bertsoa:

Zenbat partidu ta zenbat kontu,  
danak alkarren kaltean!  
Nik pentsatzen det madriltarren bat  
ote dabillen tartean.  
Kontu txoroak danak utzi ta  
danok alkartu gaitean,  
pasatu zanik pasatu gabe  
azkenengo gerratean.

\* \* \*

Urnieta, 1976 edo 1978-ko iraillean.  
Gaia: Ire taillerrera iru estremeño etorri  
dira, Euskadiko berri jakin nai dutela eta.

Extremadura, Extremadura,  
ez justizi ta ez lege,  
batzuek pobre-pobre zaudete,  
beste batzuek errega.  
Batzuek daude oinbeste milloi  
oe ta arean jabe,  
beste batzuek aza koskor bat  
jartzeko tokirik gabe,  
orain etorri zerate baiñan  
len etorritzea obe.

Extremaduran jaio ziñaten,  
an iñork ezin, ez, maite,

ta jaio zanak derriorrean  
bizi bear du nunbaite.  
Bizi asmoan eldu zerate,  
emen zauten iru gazte,  
an ogirikan etzendukaten  
zeren aur eta emazte,  
euskeraz ikasi zazute ta  
ontzat artuko zerate.

\* \* \*

Onako au, musika-jaialdiren batean-edo  
kantatua:

Musikagille bezela ere  
iaioak gera antziñez,  
buru argi ta biotza zabal  
naiz ta idazten jakiñ ez.  
Euskal-Erriko ama t'amon  
beren aurren maitemiñez  
ainbeste kantu gozo sortuak  
seaskari eragiñez.

Bertso au bera beste modu batera:

Musikalari bezela ere  
iaioak gera antziñez,  
euskal iturri zabalekoak  
naiz ta idazten jakiñ ez.  
Euskal-Erriko ainbeste amak  
beren aurren maitemiñez  
kantu gozoak sortzen zituzten  
seaskari eragiñez.

\* \* \*

Segura, 1976-XI-24.

Gaia: kanpotik etorri eta lezioak eman nai  
dizkigute.

Botazioak gertu dira ta  
jendea esnatzen asia,  
kontseju emale askotxo det  
aspaldian ikusia.  
Pentsamentua aldatu nairik  
ta gu noraka ezia,  
zuen esana egitea ez da  
egizko demokrazia.

Len bezelaxe zuen gogo  
beti naiean gurekin  
zabiltzabela pentsatzen jarri  
egon izan naiz neurekin.  
Geure burua sano degula  
zuen kontseju oiekin,  
guri aske utzi zaiguzute ta  
jakingo degu zer egin.

\* \* \*

Zarautz, 1977-IV.

Gaia: Gernikako bonbardeaketari.

Odol ixurtze negargarririk  
izandu bada munduan,  
berrogei urte pasatu zana  
izan dezagun goguan.  
Euskal-Erriko erri polit bat  
egon zan eundoko suan,  
armak probatu nai zituzten da  
Gernikak pagatu zuan.

\* \* \*

Azkoitia, 1978-V-5.

Gaia: ezintasuna.

Alde batera pena  
ta bestera miña,

beingoz elkartutzea  
ez al da berdina?  
Nere denbora danez  
nai det alegina,  
ezin iritxi baidet  
neure atsegina:  
gure Euskal-Erria  
askatu eziña.

Gure Euskal-Erria  
nola dago aurten?  
Kate gogorretatik  
ezin dala eten,  
semeok ez baitegu  
geurerik ematen.  
Batu bear degula  
ai gera esaten,  
askatu nai badegu  
elkartu gaitezen.

\* \* \*

Markina, 1978-XII-8.

Gaia: abenduaren 7-an greba osoa egin du  
Euskal-Erriak.

Ikusitzen da alderdi artan  
gure kontra dagozela,  
estatutoa bestela etzan,  
ez, ipiñiko orrela.  
Oraindik ere nai dutena da  
oiek lenago bezela,  
guri pakean utzi eta an  
aiek konpon ditezela.

\* \* \*

Aretxabaleta, 1980.

Gaia: aipatu bearra dago gure erriaren  
sinboloa: ikurriña.

Gurea degun ikurrin on au  
nola ez gentzake maite?  
Arana Goirik aspalditxoan  
egin ziguen noizbait e.  
Baiñan oraintxe dala lau egun  
or il digute bi gazte,  
pozaz txoratzen geunden orduan  
lutoan jarri gaituzte.

\* \* \*

Tolosa, 1981-III-7.

Larraulko Elizegi baserri erre berriaren  
aldeko jaialdia.

Lau oiñak: baiña, zaiña, gaiña, aiña.

Lurretik metro gutxira  
buruaren gaiña,  
alare euskalduna det  
odola ta zaiña.  
Biotzez beti asko  
maitatzen det baiña,  
alare ezin maitatu  
merezi dun aiña.

\* \* \*

Billabona, 1983-VII-29.

Gaia: udako Euskal Unibertsidadea Iruñe-  
an euskeraz.

Gure izkuntza maita dezagun,  
miña da iltzen uztia;  
kultura oni lagun deiogun  
al genezagun guztia.  
Baiñan askotan nik ikusten det  
beste gauza bat tristia:  
dakigunak ez egitezkeroz  
alperrik da ikastia.

\* \* \*

Bermeo, 1984-I-7.

Gaia: 1983 urtearen bukaera eta 1984-aren asiera.

Lengo bi oek(1) lengo urtea  
diote txarra izan zala,  
ni pozik nago oraindik ere  
bizirik gorde gerala.  
Ta oraingoai eskatzen diot  
portatu dedilla ala,  
lengoak gorde gaitun bezela  
bizirik gorde gaitzala.

Geure errian au pasatzen da,(2)  
ni ez nijoa ifiora,  
orregaitikan gaur ikastola  
neri etorri zait gogora:  
danak euskeraz pasatzen dute  
ikastolako denbora,  
baiñan erderaz mintzatzen dira  
amabost urtetik gora.

\* \* \*

Lazkao, 1984-VII-11.

Gaia: urtero egin oi da jaialdia, bertako eta euskera ikastera etortzen diranentzat.

Lazkaotarrak, lenen itzegin  
euskeraz or egunero,  
ta ikasten dabiltzanak e berdin  
ortikan jarraitu bero.  
Emen euskeraz ikasi eta  
orixe itzegin gero,  
ikasitzeak ez du balio  
ez itzegite ezkerero.

\* \* \*

Zegama, 1984-VIII-25.

Gaia: pentsa ezazu ikurriña zerala, eta kantatu bi bertso, Madriden ere entzuteko modukoak.

Ikurriñari pasatu zaio  
leiteken gauza txarrena:  
izkutatuta pasatu nuen  
nik juan zan gerrate dena.  
Franco zalako gero kartzelan  
egon nintzaden urrena,  
geure lurrean kastigatzeak  
orrek ematen du pena.

Madrid aldetik etorri oi da  
sarri alako ordena,  
ikurriñikan ez ipintzea  
neretzako da txarrena.  
Beltz jende ori izan ere da  
gazitza ta nabarmena,  
zertako bistan ez du egon bear  
erriak maite duena?

\* \* \*

Igorre, 1984-XII-8.

Gaia: Gipuzkoan aldakuntza edo kanbiorik izan dan.

Zer alde dagon jakin nai luke  
Gipuzkoatik onera;  
jakin zazute: alde artan ere  
gu berdintsu bizi gera.  
Lanikan asko ez dago eta  
dirurik ezin atera,  
zer edo zer aldatu da baiñan  
ori onetik txarrera.

(1) Azpillaga eta Amuriza.

(2) Amurizak, "Bermeon orain amar urte baiño euskera geiago entzuten da" esan omen zuen.

Aitortutzen det Gipuzkoan e  
berdin antzean gaudela,  
eskerrak badan zer jana ori  
arraia eta okela.  
Baiñan pentsatu jende geiegi  
lanikan gabe daudela,  
langabezia dago an ere  
toki askotan bezela.

\* \* \*

Azpettia, 1984-XII-22.

Gaia: euskera ikastera zuen etxera etorri  
dan gazte bati.

Etzekien da amak ez zizun  
euskerarik erakutsi,  
kontzientzia ortaratzea  
zuk ez dezu egin gutxi.  
Euskaldun zera jatorriz eta  
zeure asmoari eutsi,  
oraindik ez da berandu eta  
al dan guztia ikasi.

Ezagutzen da gure izkuntza  
dezula zeure gogotan,  
orregaitikan etorri zera  
ikasitzeko asmotan.  
Ikasita're beti aurrera  
zuk jarraitu zazu ortan,  
ikasitzea alperrik baita  
gero ez egitekotan.

\* \* \*

Bidani, 1986-VIII-23.

Puntua:

— Elkar maitatzea da  
gauzik politena...

— Ori da emen denok  
ein bear gendukena.  
Baiñan badakit beste  
bidetik gaudena:  
anaiak asarre gabiltz,  
ortan daukat pena.

\* \* \*

Ugarte, Amezketeta, 1986-X-11.

Gaia: "Nafarroa oiñez".

Garai batean Napar erriak  
euskeraz itzegiten zun,  
zoritxarrean Ribera aldean  
aspaldi ezin da entzun.  
Libre zeraten al dan guztiak  
biar Tafallaraiño jun,  
ia berriro gure lagunak  
euskaldundutzen ditugun.

\* \* \*

Markina, 1987-III-19.

Gaia: Aurten beteko da Gernika erre zute-  
naren berrogei ta amargarren urteurrena.

Astelena zan, feri-eguna,  
erria zegon trankilla;  
aeroplanoak azaldu ziran  
iñork ezer etzekilla.  
Danak igesi, abere, gizon,  
eta ura iskanbilla!  
Kulpa gabeko makiñatxo bat  
jende bazan, bai, an illa...  
Bonbak Gernikan erori ziran  
eta kuadroa Madrilla.

\* \* \*

Billabona, 1987-VII-27.

Gaia: Autobia egin bear dutenei erregu bat.

Ez det esango zenbat mesede  
edo kalte egingo dun,  
baiñan naparrak ere jakin guk  
dituguela euskaldun.  
Baratza onik ondatu gabe  
egin dezatela txukun,  
ta egiten dan kamiño orrek  
ea alkartutzen gaitun.

\* \* \*

Ernani, 1987-XII-5.

Gaia: aste ontan egin omen dira bost urte  
Felipe Gonzalez buru dala; PSOE presi-  
dentzira edo agintera igo dala Españin. Zer  
derizkiozu?

Agindu zitun lanpostu oiek  
bate ez naute kezkatzen,  
orrenbeste lan egin nai dunik  
nola iñor ez dagon emen.  
Baiña, Felipe, zer ari zera  
ezin leikena esaten?  
Lenak bezela or ari zera  
Euskadik egiña jaten,  
ia Gernikako estatutua  
noiz ematen diguzuten!

\* \* \*

Lasarte, 1988-III-18.

Gaia: *Bat Egin* kanpaiñak antolatutako  
bertso-jaialdia zan, eta euskera ezinbeste-  
ko gaia izan zan.

Agintarien berri ez dakit,  
nabil oen esanean,  
agian egon liteke bera  
emengo jende tartean.  
Euskera-zale izan dedilla  
nik diot zorionean,  
Euskal-Erria ez baita Euskadi  
euskera galtzen danean.

Guztion Ama euskera dala  
lenen oroitu gaitezen,  
eta euskera orregaitikan  
maite bear degu lenen.  
Itxura asko eiten dutenak  
gaur apenas dauden emen,  
ta bere ama maite ez dunak  
ez daki iñor maitatzen.

\* \* \*

Lazkao, 1988-IV-23.

Gaia: *Maizpide* euskaltegiaren inaugurazioa.

Urte auetan gure Lazkao  
portatutzen ari da ta,  
nik ez nuke nai arrotzerikan  
fama geiegi emanta.  
Baiñan aurten e eraiki dute  
euskaltegi bat galanta,  
nere iritziz Lazkao degu  
Euskadiko Salamanca.

\* \* \*

Billabona, 1988-VII-29.  
Puntua:

— Zeiñek ez ditu maite  
erria ta euskera?

— Nik beintzat maite ditut  
ta biak batera.  
Billabonan ez duenik  
iñor bai ote da?  
Zuek ere maitatu  
gaurtik aurrera.

\* \* \*

Abadiño, 1989-I-28.

Gaia: Abadiñora etorri pozik, baiña kalean  
aurrak erderaz itzegiten entzun dituzu.

Nere baitako galdetzen nuen:  
“Nun da ikastolako indarra?”  
Etorkizuna faltatzen bada  
guretzako gauza txarra.  
Aurtxo guztiak erderaz zeuden,  
begietara negarra,  
euskaldun jator askoren aurrak  
erderaz egin bearra!

Ta aurtxo oien amak diranak  
kontuak ondo atera,  
bide ortatik datorrelako  
Euskalerriko galera.  
Valladolid-en parera goaz  
ortik asitzen bagera,  
Euskadi ere galduko baida  
euskerarekin batera.

\* \* \*

Abaltzisketa, 1990-VI-24.

Gaia: San Juan suak dirala-eta, zer etze-  
nuke erretzea naiko?

Gu iñoiz bero ikusitzean  
askok eiten dute parre,  
ori desio duten geiegi  
egon ditezke gaur e.  
Gu euskaldunak alkarrengana  
sarritan gabiltz asarre,  
partidismoen kontuakgaitik  
iñor ez gaitezen erre.

## GURE ERRIAK

Beasain:

Usurbe eta beste mendiak  
dituzuela gañean,  
Oria berriz oñak garbitzen  
doa zure barrenean;  
tximiñi beltzak ke jarioka  
txondarrak balirakean,  
erri on baten gauza guztiak  
badira zure lurrean,  
Martin Deunaren agindupean  
bizi garbi ta pakean.

Negu txarraren ondorenean  
udaberriko garaiak,  
urte orotan bezela orra  
ekarri egun alaiak:  
baso guztiak ostoz beterik  
eta belartsu alaiak.  
Millaka esker, irakurleok  
ta Beasaingo anaiak,  
Lazkao-Txikik opa dizute  
ta ongi igaro jaiak.

\* \* \*

Eibar, 1963-IV-7.  
Puntua:

— Eibar gañean dago  
jarririk Arrate...

— Aren babesian pozik  
biziko zerate.  
Eibarko denok ongi  
baidezute maite,

lagun deizutela mundu-  
an zeraten arte.

\* \* \*

Tolosa, 1964-XII-13.  
Puntua:

— Gora Tolosa eder,  
Gipuzkoako ama...

— Nik ere eman nai diot  
merezi dun fama;  
neu gazte nintzaden baiño  
jendeak esana,  
entzun det garai batian  
erri buru zana.

— Galtzaundiren berririk  
zuk ba ote dezu?

— Ni ez naiz gauza ortan  
jakintsu ta maisu.  
Baiñan erantzunen bat  
eman biar zaizu,  
ardozalea zala  
jakinda gaude gu.

\* \* \*

Donostia, 1965-I-1.  
Bertsolari-txapelketa nagusia.  
Gaia: zure erriko elizako ponteari bi bertso.

O, eleizako ponte maitea,  
nago pozetan beteta,



zu ikustean nere barrena  
beti jartzen da aseta.  
Lenago zure bitartez zerbait  
iritxia badet eta,  
bertso gozo bat bota nai dizut  
nik orrenbeste maite ta.

Arriz egiñik zerade eta  
urakin betia dena,  
ta bisitatzen saiatutzen naiz  
al nezakian maizena.  
Zu izan ziñan nere aurtzaroko  
adiskide bat zuzena,  
zuk busti eta ezarri bainun  
orain daukaten izena.

\* \* \*

Lazkao, 1965-II-7.

Lazkao-Txikiren omenezko jaialdia.

Gaia: zure erria.

Nik ere zerbait esan bearke,  
au det erri gogokoa;  
ni bialtzera nunbait onuntza  
etorria da Jainkoa.  
Iru mendiren tartean dago,  
kabi antzeko txokoa;  
zure lurrean sortu ninduzun,  
Lazkao biotzekoa.

\* \* \*

Donostia, 1968-I-21.

Gaia: Ameriketara zaudet, baiña Donosti  
dezu oroimenean gau eta egun, eta batez  
ere egun berezi onetan: San Sebastian  
egun zoragarri onetan. Anaiari galdetzen  
dionzu: "Zer moduzko jaiak Donostian?"

Anai maitea, negar-malkotan  
dizkiat begiak busti,  
alderdi ontan ez ikusteaz  
or dezuten ain eguzki.  
Naiago nitek lur ori balitz  
itxasoaren onunzti,  
festak zer moduz pasa ituzute?  
Zer moduz zegok Donosti?

Sinistatu zak, anai maitea,  
Donosti maite detela,  
oinbeste galdera ta negar nik  
enikek eingo bestela.  
I bazekiat uri orretan  
ederki bizi aizela,  
eta euskeraz egiten al dek  
len egiten zan bezela?

\* \* \*

Deba: 1974-I-6.

Zubeltzu bertsolariaren omenaldia.

Gaia: Debako ondartza gustatu al zaik gaur?

Debako ondartza ondartza ederra  
eta paraje bapua,  
erri polita ta ondartza ere  
gutxitan bezelakua.  
Beiratutzeko denbora gutxi,  
eneukan asti naikua,  
baiñan udako partez gaur goizez  
ikusi det an lekua.

Otzak dagona preskatutzea  
negu partean kalte da,  
nik pentsatzen det: negua berez  
orren tristea ote da?  
Errian ere jende gutxi ta  
bakarrik ondartza bera,

lore guztiak azaltzen dira  
eguzkiakin batera.

\* \* \*

Tolosa, Isaak Lopez-Mendizabal omenaldia.  
Agurra:

Edertasun au ikusitzean  
nork ez du artuko poza?  
Oraindik ere bizi dalako  
gure mintzoaren otsa.  
Lenago illun baneukan ere  
pozez jarri zait biotza,  
egun on bana, anai-arrebok,  
besarkada bat, Tolosa.

\* \* \*

Zarautz, 1974-V-5.

Gaia: Udarako jai-goiz batean, zuek danok  
Zarautzen elkartu zerate; eta, txakoliñez  
ondo ase ondoren, itxas-ertzera, plaia-baz-  
terterra joan zerate, an zer ikusiko. Gauza  
politikak ikusi ere!

Txakoliñik ez degu  
sobratuta utzi,  
naiz ta etzan ekarri  
kantidade gutxi.  
Plaiara etorri ta  
orrenbeste pitxi,  
beñ ere ez det ikusi  
gaur ainbeste txitxi.

Txakoliña edan da  
ondartzara jira,  
or zerbait ikusteko  
bagenduken ira.

Ez giñake egongo  
oinbeste begira,  
dauzkatenak kenduta  
jarriko balira.

\* \* \*

Bergara, 1974-XII-7.  
Agurra:

Anai-arrebok, gabon Jainkoak  
lenbiziko dizutela,  
au giroaren edertasuna,  
au giroaren epela!  
Une batez len pentsatzen nuen  
Euskal-Erria il zela,  
au ikustean sinistatzen det  
oraindik bizi garel.

\* \* \*

Donostia, 1979-IX-7.

Gaia: "sekulan ez da sartu donostiarrik  
zeruan".

"Donostiarrik ez da zeruan"  
zaigu oi esaten asi,  
baiñan ez diot gauza egia  
danikan, jaunak, iritzi.  
Ikusirik ainbat gauza eder da  
emen dagon ainbat pitxi,  
Donosti ontan bizitzen dana  
zeruan ez al da bizi?

Donostiarrik zeru goiean  
ez dala esaten dute,  
emendik joanik ez dagoela  
ala esango nuke neuk e.

Au baiño askoz ederragoa  
zerua danik ez uste,  
ederra izango da baiñan gaurtik  
emen firmatuko nuke.

\* \* \*

Zarautz, 1981-IV-5.

Gaia: udarako egun bero sargori batean,  
Zarautzen gertatu ziñan. Bustialdi bat ar-  
tzeko, baiñu bat artzeko gogo bizia sortu  
zitzaizun. Putzura sartu baziñan sartu,  
gero andik irtetzen izan ziran kontuak.  
Larri ziñan. Bi bertsotan agertu itzazu  
egun artako estuasunak.

Aitortu naia badaukat udan  
emen pasatu nun jaia,  
busti bear ta bisitatu nun  
nik erri ontako plaia.  
Joateko nintzan umoretsua,  
korajetsu ta alaia,  
baiñan berela etzan iritxi  
ateratzeko garaia.

Ibili nintzan salto ta jira  
igel koskor baten gisan,  
ikusirikan aingerutxoak  
alboan nola bebiltzan.  
Ainbeste lotsa ez det pasatu  
sekulan nere bizitzan,  
poltsikorikan ez neukan eta  
zelebre atera nintzan.

\* \* \*

Urruña, 1981-IV-12.

Azken agurra:

Egun goxo bat zuen artean  
guk iragan degu egun,

enuen uste ikusitzerik  
emen orrenbeste lagun.  
Orain arteko espiritua  
bein ere ez dedilla jun,  
zuen artera al baldin badet  
berriz ere bildu nai nun,  
agur, Urruña ta urruñarrak,  
jarrai zazute euskaldun.

\* \* \*

Legazpi, 1981-V-1.

Gaia: Reala ligako txapeldun.

Pentsa dezagun gure Realak  
marka bat egin duela,  
ez da ibiltzen askoren gisan  
o madriltarrak bezela.  
Pentsa dezagun ekipo ortan  
danak bertakok daudela,  
kanpotarrikan erosi gabe  
irabazi du txapela.

\* \* \*

Legazpi, 1984-V-4.

Gaia: aurten ere Atletik txapeldun.

Bilbao degu berriz txapeldun,  
beti da nere graziko,  
euskaldun naiz ta euskaldunaren  
kontra ez naiz ni asiko.  
Emengo batek eramatea  
nai nuen lendabiziko,  
baiñan Realak nai izan ez balu  
etzuen irabaziko.

\* \* \*

Oiartzun, Ugaldetxo, 1986-IX-28.

Gaia: zu urte-mordo bat bada Oiartzunen zabilzala. Zer da Oiartzunen geien gustatzen zaizuna?

Esaten ez da oso erreza nola gauza asko daukagun, emen ainbeste bertso-entzule guk ez degu ikusten inun. Bertsorik inun izaten bada jendeak ongi erantzun, euskaldun onak dituelako asko maite det Oiartzun.

Bi bertsoetan ez leike esan pentsatutzen dedan dena, esan liteke Oiartzun dala euskaldun erri onena. Ta bertakoa ez izatea orrek ematen dit pena, neska ederrak dituelako gustatutzen zait geiena.

\* \* \*

Oñati, 1987-I-2.

Gaia: Magoak izan oi dira geroa igertzen dutenak. Zu ere mago oietako bat bezela jartzen zaitut, eta zer gertatuko zaio datoren urte onetan Oñatiri?

Magoa ez naiz beñ e izan da dio magoa naizela, asmatu bear Oñati onek zerbait izan litekela. Eskatzen diot nik Oñatiri jarraituzeko onela: euskaldun eta Euskal-Erri on orain bitarte bezela.

Gure Oñati, zuen Oñati bein ere ez dago triste; gauzak, pentsatzen asitakoan, bikain egiten dituzte. Oñati ongi izango dala beñepein ala det uste, Arantzazuko Aman ondoan pakean izan zaitzte.

## AURRAK

Beasain, 1963-II-10.

Gaia: zure besoetan daukazun len seme  
jaio berriari bi bertso.

negarrez zaude kulparik gabe,  
zoragarrizko uxua.

\* \* \*

O, nere seme maitagarria,  
zu zera neria dena,  
orain artean izan zaituten  
kasik pozik aundiena;  
zu zera nere puska,  
beti naukazu oska,  
biotzak pozaren pena,  
zu zera nere zar denboretan  
auldaden itxaropena.

Irun, 1965-IV-4.

Gaia: komunio aundia egin duen mutikoari.

Zer atsegiña aldareara  
inguratu zeranean,  
umil da txintxo portaturikan  
gurasoen esanean!  
Eta pentsatzen jarri zindezke  
sinistamen onenean:  
zeru ta lurren jabe dan Kristo  
artzen dezu barrenean.

\* \* \*

Ene semetxo, egiten dizut  
kantuz ongi-etorria,  
zure bitartez utzitzen baidet  
nere lengo jatorria;  
izan zaitez zintzoa,  
maite zazu mintzoa  
ta euskaldunen irria,  
zure eskutan uzten det, seme,  
biarko Euskal-Erria.

Tolosa.

Isaak Lopez-Mendizabal jaunari omenaldia.  
Gaia: Gizon edo emakume on izateko bi  
aolku aur bati.

\* \* \*

Tolosa, 1964-XII-13.

Gaia: Seaskan negarrez dagoen aurrari.

Seaska baten ume txiki bat,  
ori da ume gaxua!  
Falta baizaio bere amaren  
babes ta ezti goxua.  
Ta falta dezu zeure amatxok  
ematen dizun muxua,

Aurtxo maitea, nai nizuke nik  
nere iritzia itzegin,  
zartutakoan zure bizitzan  
damurik izan ez dedin.  
Iñori ezer ez lapurtu ta  
lanean jarrai zazu fin,  
eta or gaurko dantzatoki oi-  
tati al badezu aldegin.

Gero txintxoa izan zaitea  
aita-amaren esanean,

eta al bada jarraitu beti  
lengo oitura onean.  
Urrengo garbi gorde zaitea  
eta ikasi lanean,  
orren damurik ez dezu izango  
gero zartzen zeranean.

\* \* \*

Elgoibar, 1981-III-18.  
Gaia: aur baten negarrari.

Aurtxo maitea, zer gauz dalako  
negarrez ai zera emen?  
Ixildutzeko gauz bat oraintxen  
nik eskatzen dizut arren.  
Aldez aurretik al zekizuen  
munduan zer gauz datorren,  
bestela nola zaude negarrez  
bizitzen asi baiño len?

Alde batera arrazoi dezu  
zu asitzea negarrez,  
munduko egun latzak pasatzen  
ez baidago oso errez.  
Bizitza zailla gure Jainkoak  
azaldu al dizu aurrez?  
Baiñan amatxok maite zaitu ta  
ixildu zaite mesedez.

\* \* \*

Zubieta, 1983-VII-25.  
Gaia: zergatik maite dituzu ainbeste aurrak?

Badakizute ni aurtxoekin  
beti pozikan nagona,  
izanez ere udaberria  
zeiñentzako ez da ona?

Amaika aldiz ori pentsatzen  
geldituta naiz egona:  
malezietan sartu baiño len  
obea dala pertsona.

Zein maitatu guk, aurtxo-taldea  
maitatutzen ez badegu?  
Ikuspegirikan zintzoena  
beti oiekin daukagu.  
Inpernurikan latzena ere  
oek eiten dute zero,  
oek ditugu ondorengo ta  
mundu ontako aingeru.

\* \* \*

Legorreta, 1984-I-28.  
Gaia: negarrez ari dan mutiko bati.

Mutil koxkor bat negarrez da,  
negarra dauka gogora,  
munduarekin kezkatan dago  
ta begiratzen du gora.  
Baiña, motiko, oraindik zertan  
negarrez joan iñora,  
oi gerorako utzi ezazu,  
badadukazu denbora.

Oraindik zaude zu, motikotxo,  
oso edade onean,  
baiñan negarrik etzazu egin  
gogor ein bear danean.  
Eta negarra egingo dezu  
biziaren azkenean,  
mundu triste au nolakoa dan  
akordatzen zeranean.

\* \* \*

Donostia, 1984-IX-6.

Gaia: ire etxeko ate ondoan aur jαιο berri bat utzi diate.

Batzuentzako ariñak dira  
gurasoaren legeak,  
edozer gauza txar egiteko  
nola diraden trebeak.  
Aurtxo onek e, nik pentsatzen det,  
izango ditu jabeak;  
baiñan uste det izango dira  
buru ta biotz gabeak.

Erdi jantzian dago aurtxoa  
baiñan ain aurtxo bikaiña,  
nik ere nolabait egin bear  
gurasoaren ordaiña.  
Etxean ez det seaskarikan  
ta aurtxo bat alajaiña,  
baiñan nolabait aziko zaitut  
mutilzar bizi naiz baiña.

\* \* \*

Ernani, 1985-IV-20.

Gaia: zuen aurretik abestu duten aurtxo oiek.

Leno kantuan entzun ditugu  
zenbait lore ta arrosa,  
gure biotzak pozez jartzeko  
ain kuadrilla aproposa.

Aspaldi ontan gaur onenbeste,  
jaunak, ni ez bainaiz goza,  
gurekin dana ez da bukatzen,  
orrek ematen dit poza.

Aingeru oek Jaunak emana  
gure euskeraren sari,  
au ikustean alako dardar bat  
beti sortu oi zait neri.  
Segi, aurtxoak, bertso-lanean,  
segi aurrera kantari,  
milla zorion maixuari ta  
aitari eta amari.

\* \* \*

Orio, 1986-IV-26.

Puntua:

— Lazkao-Txiki, maite  
al dituzu aurrak?

— Asieratik txikiak  
eiten ditu lurrak.  
Ni're txiki utzi niñun  
azteko bildurrak,  
txikiak maite ditu  
gaur biotz xamurrak.

## LANA ETA BASERRIA

Azpeitia, 1974-XII-15.

Azken itzak: aberats, latz, gatz, baratz.

Geren denboran lana  
egiñak gera latz,  
izarditan bai galdu're  
makiñatxo bat gatz.  
Gelditu gabe dabil  
soro eta baratz,  
alare lanetikan  
iñor ez aberats.

\* \* \*

Euba, Erkoles, 1976-VI-6.

Gaia: baserritarrari bi bertso.

Nere lagunak, ain tristea da  
gaur baserri-izenan itza,  
oinbat enuke nik sentituko  
bertakoa ez banitza.  
Gau eta egun, aste eta jai  
latzenetako bizitza,  
amasei ordu lana eginda  
ezin bizirik gabiltza.

Gure baserri maitagarria  
bear luteke konpondu,  
ezin liteke bestela zutik  
urte askoan egondu.  
Berba ederrak eiten dituzte,  
radiotikan lagundu,  
baiñan ostera beste aldetik  
al duten guzia kendu.

\* \* \*

Ordizia, 1980-IX-13.

Gaia: lana.

Nik ez det beintzat asko maitatzen,  
ez, zoritxarreko lana,  
ona izan balitz ez pentsa eto-  
rriko zanik guregana.  
“Osasuna da” beti ori da  
jende askoren esana,  
aberats danak famatzen dute  
pobreak eiten duana.

\* \* \*

Tolosa, 1981-XII-7.

Larraulko Elizegi baserria erre berriaren  
alde dirua biltzeko ospatutakoa jaialdia.  
Leen agurra:

Egun bat geigoz alkartu gaitu  
maitasunaren kolkoak,  
alkar olaxen maitatu bear  
bailuke lagun urkoak.  
Besarkada bat ezker-eskubi,  
berdin beko ta goikoak,  
afariak on deizutela ta  
gau on bana Jaungoikoak.

Gai librea.

Maitasun batek alkartu gaitu  
oinbeste zar eta gazte,  
alkar ainbeste maite genunik  
gaur artean ez nun uste.  
Edozer gauza galdutze orrek  
beti utzitzen nau triste,



baiñan ezertxok ez nau mindutzen  
basarri batek ainbeste.

Badakizute basarria da  
euskaldun denen kabia,  
an izan genun lendabiziko  
geronen bizitokia.  
Badakizute nola erre zan  
Elizegi baserria,  
emen guzcion laguntzarekin  
egin dezagun berria.

\* \* \*

Legazpi, 1985-X-11.

Gaia: duela denbora gutxi, Andoain aldean  
baserri bat erre zan. Goizeko irurak aldera  
sute bat izan zan; eta, guztiak lo zeudela,  
bertako aitona esnatu, etxeko beste guz-  
tiak esnatu eta salbatu ziran. Baiña aitona  
bera bertan erre zan.

Biotzak senti duen guztia  
kantari nik nola esan?  
Andoaiñen zer gerta zitzaigun  
nola orain jakin dedan.  
Perlesiakin jota zegon da  
pausorik ezin zun eman,  
beste guztiei abisatu ta  
bera an sutan erre zan.

Istillu txarrak ikustekoa  
nunbait jaio zan mundura,  
gizarajoak berak artu zun  
fameliaren ardura.  
Iñork ez daki nundik sortu zan  
an piztutako su ura,  
baiñan Jainkoak eraman zuen  
inpernutikan zerura.

\* \* \*

Andoain, 1987-IV-30.

Gaia: maiatzaren batarekin zer burutapen  
datozkizu?

Biarko eguna zertarako dan  
askotxo daude galdezka,  
neronek ere bide orretan  
badadukat naiko kezka.  
Langillearen eguna dala  
eta egiten da festa,  
biar e langilleak lan eingo du  
eta alperrak protesta.

Gu langilleok mundu guztiak  
juzgatutzen gaitu ero,  
eta diote gaur ez dagola  
leno ainbeste enpleo.  
“Lanik ez dago”, “Lana nai nuke”  
entzuten da egunero,  
orain e lana billatu leike  
gogoia izan ezkeru.

\* \* \*

Mutriku, 1987-IX-11.

Oiñak: danean, lanean, azkenean, ederrenean.

Neke azpian ibillia naiz  
sasoirik ederrenean,  
ogia falta etxean eta  
etengabeko lanean.  
Suerte orixe izandu det nik  
nere denbora danean,  
bildurra daukat pobre bezela  
il bearko azkenean.

\* \* \*

Mutriku, 1988-III-17.  
Gaia: Baserriaren egoera.

Garai batean baserria zan  
langintza danen errege,  
baiñan joan dan aspaldi ontan  
bapo bajatuta gaude.  
Nekeen bidez eiten bagera  
iru-lau txanponen jabe,  
amaika ordu sartzen ditugu  
*extra-rik* kobratu gabe.

Baserri onek aspaldi ontan  
badaduka naiko samin,  
mutilzar bizi naiz oraindikan,  
ortik pentsatu nerekin.  
Andre gaitxo bat billatu nai ta  
ura're billatu ezin,  
gaurko neskatxak naiago dute  
argi gorritan lan egin.

\* \* \*

Ordizia, 1989-III-5.  
Gaia: "Aurtengo neguan orratik ez dituk  
kejatuko baserritarrak" entzuten da. Zuk  
zer diozu, Joxe Migel?

Baserritarra beti bezela  
ez da pozez aurten ere,  
izotza pranko egin du eta  
elurrikan ez batere.  
Legorretikan zail da egiten  
kosetxa askoren jabe,  
azirik ere ez da ernetzen  
eurirrikan egin gabe.

Badakizute nolakoa dan  
baserritarren bizitza,  
nekearekin izendatzen da  
guk degun nekazaritza.  
An jaiotako ainbeste seme  
kale aldean dabilta,  
ainbeste etxe etzan ustuko  
jornalik egon balitza.

\* \* \*

Zestoa, 1992-II-8.  
Gaia: baserritar bezela nola ikusten dezu  
92 urte famatu ori?

Ni baserritik begiratuta  
oso pesimista nago,  
baserritarrak pobreak baiñan  
zerbait bagañan lenago.  
Alde batean lan-eskasia,  
baserria beran dago,  
bi lagun bizi diran bitarte  
berriz pakerik eztago.

Gerora zer gauz etorriko dan  
iñork ez dakigu emen,  
baiñan badakit une onetan  
zenbat estututa gauden.  
Fabrika danak kiebran dauzkagu  
eta baserriak usten,  
Euskal-Erriko etorkizuna  
ez det ederki ikusten.

## FEDEA

Donostia, 1962-XII-30.  
Bertsolari-txapelketa nagusia.

— Apostoluak ere  
ezjakiñak ziran...

— Begiratu noraño  
altxatuak diran.  
Dotriña zabaldu zuten  
munduaren jiran,  
Espiritu Santuaz  
azkartu baitziran.

\* \* \*

Tolosa, 1964-XII-13.

— Laister jaioko zaigu  
Belenen Aurtxo...

— Gizonik onena eta  
ain gizon gaixoa,  
zeru-lurraren Aita  
edo Gurasoa,  
gure pekatuaren  
karga oiek jaso.

Gaia: Izaskungo Ama Birjiñari.

O Izaskungo Ama maitea,  
zenbat dedan zukan goza!  
Eta Izaskun entzun utsean  
barnean artzen det poza.  
Bera dalako gordetzen da gaur  
emen euskeraren otsa,

zure magalak zaintzen du eta  
pozik bizi da Tolosa.

\* \* \*

Beasain, 1966-V-22.

Gaia: Usurbeko gurutzeari bi bertso. San  
Martiñi erregu bat.

Erri ontako Zaindariari  
goruntz nai diot itzegin,  
Beasain gure auzo maite au  
geiago galdu ez dedin.  
Dana lezaken tokian zaude  
ta ortikan lagun egin,  
zoritxarragoz gerta ez dedin  
zu jaio ziñan Beasain.

Naspilla txarrak zorigaitzean  
sortu zaizkigu onuntza,  
nik ez dakit zer dala medio  
dioten oieri bultza.  
Danaren gaindik or Usurbean  
arkitzen zeran gurutza,  
erabat galdu baiño lenago  
egin zaiguzu laguntza.

\* \* \*

Donostia, 1967-VI-11.

Bertsolari-txapelketa nagusia.

— Anaiak omen ziran  
Kain eta Abel...

— Alkarri eman zioten  
zenbait azote epel.

Aien gaindik pentsatzen  
dago Joxe Migel,  
lenengo gurasuak  
portau ziran ergel.

\* \* \*

Donostia, 1973-III-19.

Gaia: emen, *Astoria*-n, edo irratiz bertsoak  
entzuten dauden Jose guztiei zorionak  
eman bi bertsoetan.

Udaberriak berekin ditu  
onelako egun sakonak,  
poztutzen gera egun onekin  
andrezkoak ta gizonak.  
Ni ala naiz ta jaso dedilla  
gaur sala ontan dagonak,  
Jose izena dezuteneri  
biotzetik zorionak.

Jesusen aita ordeko eta  
Birjiñan gizon izana  
badakizute nolatan degun  
gure San Jose laztana.  
Aipa bear da Jesus azitzen  
oinbeste saiatu zana,  
azken orduan eman deigula  
denoi eriotz on bana.

\* \* \*

Zarautz, 1977-IV.

— Ez al zaitu beldurtzen  
inpernuko suak?

— Bai, pasa bear banitu  
an urte osuak.  
Orren bildurrik ez du  
pertsona zintzuak,

salbatuko baigaitu  
Jaun errukitsuak.

\* \* \*

Urepele, 1981-XI-8.

Oiñak: Jesukristo, gaizto, ministro, bi asto.

Erramu egunean  
bazitun bi asto,  
Jesus egin ziguten  
orduko ministro.  
Baiñan alkaturikan  
ainbat gizon gaizto,  
azkenik gurutzean  
josi zuten Kristo.

\* \* \*

Aztiria, 1992-VII-18.

Azpillaga, Agirre eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Bakoitzak aitagurearen zati bati  
kantatuz, Lazkao-Txikiren bertsoak:

Aita gurea dakit  
gazte-gaztetatik,  
dotrina-zale ona  
izandu naiz beti.  
“Libratu nazazu, Jauna,  
tentaziotatik”,  
bestela auzon batera  
juan bearko det nik.

Gora-bera ugari  
ikusi det munduan,  
gerrate ondoreneko  
gosete orduan.  
Ogirik eskatzeko  
nola etzeguan,  
euneroko taloa  
nik eskatzen nuan.

## AGURRAK

Donostia, 1962-I-6.  
Leen agurra:

Sinis zazute onuntz elduta  
gaur pozetan naguela,  
batik-bat beintzat anai-arrebok  
alkartutzean onela.  
Nik ere agur nai nizuteke  
beste lagunak bezela,  
ongi etorri eta egun on  
Jaungoikoak dizutela.

\* \* \*

Donostia, 1962-XII-30.  
Bertsolari-txapelketa nagusia.  
Azken agurra:

Beti bezela gaur ere nator  
ni egunsentiko txori,  
ori dalako pozaren pozez  
astera nua kantari.  
Nere biotza poz-itxasoan  
arinki dabil igari,  
txaloakgaiti millaka esker  
bildu zeraten denari.

\* \* \*

Donostia, 1965-I-1.  
Bertsolari-txapelketa nagusia.  
Leen agurra kantatzeko gaia: bertsolari  
guztiak botako dute agur bana, radioaren  
bidez entzuten dauden beren erritarrai.

Lendabiziko agurtzen ditut  
Lazkaoko sukaldeak,

eta urrena berexi eta  
datozten bertsozaleak.  
Guk nai bezela erantzun du gaur  
baserriak ta kaleak,  
egun on eta urte berri on,  
biotzeko entzuleak.

Arratsaldeko leen agurra:

O, urte berri, aurtxo gaztea,  
gaur zera jaio ta asia,  
bildurgarri zait oraindik dezun  
zeure denbora luzia.  
Biotz barnetik eskatzen dizut  
osasuna ta bizia,  
ala komeni ez baldin bada  
ondo iltzeko grazia.

Azken agurra:

Agurtzen ditut ezker ta eskubi,  
goikoak eta bekoak,  
agurtzen ditut etxe-alde ta  
ango sukalde txokoak.  
Urte askuan olaxen bildu  
gaitezela Jaungoikoak,  
milla esker ta agur ta agur,  
entzule biotzekoak.

\* \* \*

Donostia, 1967-VI-11.  
Bertsolari-txapelketa nagusia.  
Azken agurra:

Eskerrik asko, jaun da andreak,  
biotz dana zabaldurik;

esan nai nuke: berriz ez jarri  
len bezela zapuzturik.  
Denok anaiak gerala zuek  
ipiñi konturaturik,  
Xalbador ere ala degu ta  
geiago ez jo txisturik.

\* \* \*

Añorga, 1969-VII-18.

Gaia: bakoitzak nai duana esanda, bi bertso.

Naiagaitikan ez degu bota  
nai ainbeste bertso polit,  
naiago nuen nere buruak  
obeto lagundu balit;  
baña zuek ortikan txaloka  
bera izan zerate txit,  
ta orain azkeneko bertsoetan  
nola ordaindu ez dakit.

Denbora asko ez du, ez izan  
alkar arteko batzarrak,  
eskerrak len e ez gerala gu  
galduan bildu bakarrak;  
ta bertso ontaz agurtzen ditut  
emengo gazte ta zarrak  
berriz pentsatzen dezuten arte,  
ta agur, añorgatarrak!

\* \* \*

Añorga, 1972-III-19.

Leen agurra:

Asko pozten naiz urte bat geio  
alkar ikusten geranez,  
zuek entzuten denok ixilik  
eta gu katigu lanez.

Lendabiziko egun on denoi  
biotzak duen barrenez,  
eta urrena pozez zeraten  
denai zorion emanetz.

\* \* \*

Añorga, 1973.

Leen agurra:

Aspaldi ontan alderdi onetan  
giñaden izan gabeak,  
bainan barrendik poztutzen gaitu  
zuek emen ikusteak.  
Beti bezela bildu zerate  
egizko bertso-zaleak,  
eta egun on dezazutela,  
biotzeko entzuleak.

\* \* \*

Antzuola, 1975-IV-5.

Leen agurra:

Oso gutxitan elkartzen gera  
gaur bezelako taldeak,  
toki gutxitan ikusten dira  
olako jende-aldeak.  
Zuek bai txintxo etorri onuntz,  
lagun da adiskideak;  
nik ere lenen gau on denori,  
biotzeko senideak.

Azken agurra:

Zuen artetik joan bearra  
alde bat ematen dit min,  
izanez ere paradisoko  
antzean negon zuekin.

Baiñan garaia eldu da eta  
noizbait bearko aldegin,  
agur, senide biotzekoak,  
ta ametsik gabe lo egin.

\* \* \*

Lazkao, 1975-IV-25.  
Atzeratuen aldeko jaialdia.  
Leen agurra:

Besteen gisa, jaun ta andreak,  
astera noa kantari,  
jakiñik nola dagon oinbeste  
*subnormala* edo eri.  
Nik ere lenen millaka esker  
etorritako danari,  
bear aldian lagundutzea  
euskaldunena da ori.

\* \* \*

Euba, Erkoles, 1976-VI-6.  
Leen agurra:

Edertasun au ikusi gabe  
bate ez leike sinetsi,  
nik ere ez nun sinistatuko  
ez baldin banu ikusi  
gure izkuntza alderdi ontan  
onenbeste zanik bizi;  
ta, Erkoleko adiskideak,  
arratsalde on lenbizi.

Azken agurra:

Lagunarte bat politagorik  
ez det askotan ikusi,  
pena artzen det zuen artetik  
juan bearra igesi.

Danak euskaldun zerate eta  
bertan naiago det kasi,  
ni banijoa baiñan ementxe  
nai nuke biotza itxi,  
urrengorarte, neba-arrebak,  
bitartean ongi bizi.

\* \* \*

Segura, 1976-VI-10.  
Leen agurra:

Nik ere gau on eman bearko  
nere lagunen modura,  
giro eder au ikusitzean  
nola ez artu ardura?  
Bildu zerate euliak iñoiz  
ezti tartera modura,  
entzule maite, o, gau on eta  
besarkada bat, Segura.

\* \* \*

Bergara, 1978-III-19.  
Azken agurra;

Udaberriko arrats batean  
frontoi dana bete-bete,  
gaur ikusiaz oroituko naiz  
zentzua detan bitarte.  
Penetan baiñan agur ta erdi,  
bertako zar eta gazte,  
abertzale on eta euskaldun  
zintzoak izan zaitezte.

\* \* \*

Zegama, 1980-XI-5.  
Lasarte bertsolariaren omenez.  
Leen agurra:

Beti bezela egun eder bat  
badu Zeamako txokoak,  
bildu zerate kalekoak ta  
bildu zerate goikoak.  
Biotz-biotzez lenengo agur,  
zeamar ta kanpokoak,  
eta urrena danoi egun on  
deizutela Jaungoikoak.

\* \* \*

Zestoa, 1980.  
Azken agurra:

Nik ere erri on au  
ez daukat aztua,  
beti izandu baitet  
nere gogozkua.  
Juateko guztiori  
emanaz eskua,  
agur zestuatarrak  
ta agur Zestua!

\* \* \*

Zestoa, 1983-II-7.  
Leen agurra:

Gau on emanaz agurtu nai det  
bildu dan jende prestua,  
besarkada bat orren ondoren  
luzaturikan eskua.  
Frontoi aundi bat jendez beteta  
gaur dago estu-estua,  
milla zorion, anai-arrebak,  
ta eskerrik asko, Zestua.

\* \* \*

Azpeitia, 1983-XI-12.  
Txapel zanaren omenez.  
Leen agurra:

Gau onak eta ongi etorri,  
Azpeitiko zenbait lagun,  
naiz eguraldi otza eduki  
ongi dezute erantzun.  
Asieratik otza dagola  
nik garbiro esan nai nun,  
aberriaren maitatutzeak  
ea berotutzen gaitun.

Azken agurra:

Besarkada bat emanda agur-  
tu nai zaituztet gaur denak,  
ia oztuta gaudelako gu  
mai gain onetan gaudenak.  
Bota ditugu gure barruan  
ziran bertsorik onenak,  
ta arrimatuta lo egizute  
laguna daukazutenak.

\* \* \*

Tolosa, 1985-X-12.  
Leen agurra:

Uda azkena izanagatik  
ementxen gera sei txori,  
gu nola geran beti gaueko  
astera goaz kantari.  
Uda azkena esan det baiña  
udaberria diruri,  
lendabiziko ongi etorri  
ta gau on bat guztiori.



Azken agurra:

Sei txorik emen kantu-lanean  
nola artu degun parte,  
eginkizun bat genduen eta  
or al dan bezela bete.  
Agur eginda bagoaz baiña  
ez gera bizi aparte,  
besarkada bat, gau ona pasa,  
berriz nai dezuten arte.

\* \* \*

Zegama, 1985-XI-10.  
Goizaldeko saloaren azken agurra:

Une eder bat goxo-goxoa  
pasatu degu zuekin,  
onak askotan oi dira baiña  
obeagorikan ezin.  
Ta amaiera bazkal aurretik  
eman nai diot onekin:  
agur, andre ta emakumeak,  
ta bazkariak on egin.

\* \* \*

Agiñeta, 1986-XI-9.  
Leen agurra:

Leno besteak jardun dira ta  
guk orain bearko asi,  
korrika eta aizkolariak  
denok ditugu ikusi.  
Anai-arreba biotzekoak,  
denai egun on lenbizi,  
gaurko egunak oi ta geiago  
nolatan duen merezi.

Azken agurra:

Zuek aspertuko ziñatela  
guk olaxen degu uste,  
obe degu ta or tabernara  
abia gaitezen laiste.  
Bertso onekin agur ta erdi  
nola zar ta ala gazte,  
al dan ondoen bazkaldu eta  
gero etorri zaitzete.

\* \* \*

Antzuola, 1986-XI-29.  
Leen agurra:

Banku guztiak beteta daude,  
tokirik ez dago iñon,  
poztutzen gera ikusitzean  
zenbat afizio dagon.  
Eskerrik asko, neskatxa, mutil,  
andre, gizon, aiton, amon,  
afariak on deizutela ta  
gero guztiori gau on.

\* \* \*

Donostia, 1987-I-18.  
Jon Azpillagaren omenez. Leen agurra:

Naizta aurreko egun oetan  
elurra genduen txuri,  
udaberria datorrela ta  
bildu gera ainbat txori,  
omenaldi bat egin asmotan  
geure lagun onenari;  
Azpillagari zorionak ta  
egun on beste denori.

\* \* \*

Ugarte-Amezketeta, 1987-X-10.

Leen agurra:

Ama Birjiñan jaiak dira ta  
festetan zaude Ugarten,  
igaz e emen giñan zuekin  
eta emen gera aurten.  
Gau on guztioi biotz-biotzez,  
orixe nai nuke lenen;  
nolatan ez dan nai dan bezela  
erreza bizi izaten,  
arrezkeroztik galdetzen det nik  
ondo bizi al zeraten.

Azken agurra:

Festa ta gerra biak batera  
iñoiz moldatu litezke,  
pake utsetik ere ezertxo  
dagonikan ez det uste.  
Bertso onekin agur ta erdi,  
bertako zar ta gazte,  
eta azkenik besarkada bat  
ematen dizut, Ugarte;  
aurten aspertu ez bazerate  
datorren urtera arte.

\* \* \*

Tolosa, 1987-X-11.

Leen agurra:

Gure aurrean itxura txar ta  
gauz txarrik ez da ageri,  
au orla ikusitze utsak e  
poza ematen dit neri.  
Naizta kanpoa gaur dadukagun  
aize otzakin da euri,  
barrunpe onek beste aldera  
udaberria diruri,

biotz-biotzez gau on Jainkoak  
opa dizutet denori.

\* \* \*

Donostia, 1988-I-17.

Batista eta Xalbador Madariaga bertso-  
rien omenez.

Leen agurra:

Ongi etorri, neska, mutiko,  
aitona eta amonak,  
beste ainbeste bertan zaudeten  
andreak eta gizonak.  
Egun eder bat eman deigula  
mundura egin gaitunak,  
Madariaga bi anaieri  
biotzeko zorionak.

\* \* \*

Anoeta, 1988-VI-5.

Leen agurra:

Naizta ez duen asko agintzen  
umore edo gogoak,  
kantatu bear nola gu geran  
ortara eldutakoak.  
Bildu zerate kanpo-erriko  
eta berdin emengoak,  
ongi etorri ta arratsalde on  
deizutela Jaungoikoak.

\* \* \*

Billabona, 1988-VII-29.

Leen agurra:

Billabona ta ingurukoei  
Jainkoak gau on leenen,

au bete eta ikusitzea  
o gu zeinzen pozez gauden!  
Enuen uste zaletasun au  
aurkituko zanik emen;  
urtebete da alkar bildurik,  
berriz bildu gera aurten,  
kezkaz beteta galdetutzen det  
denok ongi al zeraten.

Azken agurra:

Barkazioa eskatutzen det  
gaizki portatu bagera,  
zuek utzi ta pentsatu penez  
denok goazela etxera.  
Guztion Aitak nai badu eta  
sano ta bizi bagera,  
ia olaxen elkartzen geran  
emendik urte batera.

\* \* \*

Bergara, 1989-III-18.  
Leen agurra:

Len Mañukortak esan duenez  
jo omen digu kukuak,  
eta gu ere ez al gerade  
kukuaren antzekuak?  
Agurtzen ditut kanpotarrak ta  
baita're Bergarakuak,  
ongi etorri eta gau on bat  
deizutela Jaungoikuak.

\* \* \*

Deba, 1990-III-17.  
Azken agurra:

Besarkada bat eman dizuet  
bertso saioen sarreran,  
era ontako aukera onak  
noiznai ez dauzkat aukeran.  
Ez dakizute zuen artean  
zenbat disfrutatu dedan,  
egun oberik askotan ez det  
bein ere pasatu Deban,  
ea aurrera al dan maizena  
olaxen alkartzen geran.

\* \* \*

Mutriku, 1990-IX-8.  
Lenengo agurra:

Anai-arreba biotzekoak,  
guztiori gau on lenen,  
asko pozten naiz zaletasun au  
gaur ikusirikan emen.  
Juan zan urtean giñan bezela  
emen bildu gera aurten,  
ta jakin nai det urte osoan  
ondo izan al zeraten.

Azken agurra:

Mingarria da: etorri gera  
oso denbora gutxiko;  
kasi-kasikan naiago nuen  
etorri banintz betiko.  
Agur, andreak, agur, gizonak,  
neskato eta mutiko,  
ta azkenean besarkada bat  
ematen dizut, Mutriko.

\* \* \*

Idiazabal, 1990-XII-16.  
Florentino Goiburu eta Patxi Iraolaren  
omenez Donostian egin bear zan Bertsolari-  
Egunaren aurreko jaialdia.  
Leenengo agurra:

Kanpoan otza egonagatik  
auxen da giro epela,  
ezagutzen da omenaldiko  
egun aundian gaudela.  
Ta zuek ere bildu zerate  
espero gendun bezela,  
ongi etorri eta egun on  
Jaungoikoak deizutela.

\* \* \*

Donostia, 1991-I-13.  
Florentino Goiburu eta Patxi Iraolaren  
omenezko jaialdia.  
Leenengo agurra:

Omentzen diran Goierriako  
pare gabeko bi txori,  
ez dakit emango diegun guk  
bear ainbat kategori.  
Florentino ta Patxi ditugu  
aiei diranak kantari,  
milla zorion ta besarkada bat  
eskeintzen diet bieri,  
eta luzaro gorde zazute  
gaurko buru argi ori.

\* \* \*

Deba, 1991-IV-13.  
Leenengo agurra:

Deba errian zaletasuna  
ederki zaigu nabari,  
aurre onetan ikusten ditut  
neska-mutiko ugari.

Eta atzean ainbat guraso,  
eskerrik asko denari;  
eta azkena besarkada bat  
ematen diot Debari.

Azken agurra:

Deban ikusten dedanarekin  
oso arriturik nago,  
igaz bagendun jende pixka bat  
ta aurtengoan geiago.  
Baiñan noizbait e asten dan lana  
amaitu bearra dago,  
agur, aiskide biotzekoak,  
guztiok gau on igaro.

\* \* \*

Tolosa, 1991-VI-8.  
Alkizako Arraitza baserriaren aldeko jaialdia.  
Leenengo agurra:

Al baldin bada umore on bat  
emen nai genduke jarri,  
naizta tartean disparteak  
kantatu arren alkarri.  
Guk bezin ongi badakizute  
gaurko jaialdian berri,  
beraz lenengo gau on deneri,  
urrena ongi etorri.

Azken agurra:

Agur, anaia, agur, arreba,  
agur on bat azkenean;  
ixildutzeko esan digute,  
aspertu gera lanean.  
Aurrera ere jarrai dezagun  
denok umore onean,  
bata besteai lagun egiñaz  
bizi gaitezen pakean.

**LAGUN  
BERTSOLARIEKIN**



1962-XII-30. Ezkerretik: Zabaleta, Azpillaga, Lopategi, Mattin, Lazkao-Txiki, Uztapide, Basarri, Arozamena eta Xalbador.



Aretxabaleta, Origuen, 1963. Ezkerretik: Joxe Lizaso, Uztapide, Basarri, Lazkao-Txiki eta Atxukarro gai-jartzaillea.



Azpeitia, 1974-III-10, Lizaso, Agirre eta Lazkanori omenaldia.  
Ezkerretik: Garmendia, Arozamena, Joxe Lizaso, Lazkano, Joxe Agirre, Lasarte,  
Uztapide, Lazkao-Txiki, Mugartegi, Gorrotxategi, Larrañaga, Igartzabal,  
Abel Enbeita eta Balentin Enbeita.

## GIPUZKOAKO BERTSOLARI BERRIEN TXAPELKETA(1)

### (1959-IX-9)

Amasei bertsolari gazte bildu ziran. Ona emen izen-abizenak: Jesus Basoarte, zumaiarra; Txomin Garmendia, berrobiarra; Bizente Mujika, ormaiztegiarra; Tomas Lasa, lasartearra; Jose Antonio Lazkano, donostiarra; Jose A. Iturbe, lasartearra; Florentino Nosellas, berrobiarra; Jesus Eskisabel, legorretarra; Jose Luis Lekuona *Lexoti*, oiartzuarra; Jose Agirre, azpeitiarra; Patxi Etxeberria, oriotarra; Jose Usabiaga, errenteriarra; Jose Otamendi, amezketarra; Patxi Arregi, *Moxo*, irurarra; Patxi Beloki, bidaniarra, Jose Migel Iztueta Lazkao-Txiki, lazkaotarra.

Epai-maiekoak: Manuel Lekuona zana, Aita Ixidro Baztarrrika zana, Jesus Lete *Ibaiertz*, Jose Maria Aranalde.

Txomin Garmendia atera zan txapeldun; eta bigarren, Lazkao-Txiki.

Egun artan kantatuak onen bertsorik zaarrenak izango dira, guk ezagutzen ditugunetan beintzat. Onako auek izan ziran.

Leen agurra:

*Laz.-*

Nere txanda ere iritxi da ta nolabait biariko asi,  
nai detan eran nere buruai  
gaur ezin egin arazi.  
Zorioneko epai-maia ta  
zorioneko Ordizi,  
gaiñerantzeko anai-arreboi  
arratsaldeon lenbizi.

Bakarkako gaia: zer da bertsolaria?

Auxen da gaia ala bear da  
egoki jarri diguna:  
bertsolaria nor dan aipatu,  
ori det eginkizuna;  
poza du bere lagun maitea  
ta memoria laguna,  
gure izkuntzaren puska bakarrak  
neurtu oi dituna.

Euskal-Erriko bertsolaria  
nola dan bere jatorriz,  
estudioaz ez da egiten  
ez baldin bada etorritz;  
alde batetik gaiari segi,  
itzak neurtu bestetiz,  
naiago nuke gai oen jabe  
seguru baldin ni banitz.

Binakako gaia: Beloki itzai ta Iztueta perratzaille.

*Bel.-*

Perratzaille au arkitzen zaigu  
ejemplo baten premian,  
ez det probatu antziña dala  
ongi daukat memorian;  
berrogei duro kobratu baiño  
erantsia txarkerian,



lenengo egunez perrarik gabe  
gelditu nintzan mendian.

*Laz.-*

Nik banekien itzaiangaitik  
ez neukala itz onik,(2)  
ez det esango alde batera  
utsegiñik ez detanik;  
nik perrak ongi ipiñi baiño  
etzuen neurtzen lanik,  
itzaintzan ongi ez dakiñantzat  
iñun ez da perra onik.

*Bel.-*

Lenago, ez bein, entzuna nago  
au gizon alperra dala,  
idi bateri zortzi perra onek  
jarri zizkan beriala;  
nik banekian lan ondo eginda  
ori ezin zeikeala,  
ikusten nago: galdu biar du  
Goierriko klientela.

*Laz.-*

Nere tranpia aitatzen digu  
lasaitasunez jarrita,  
eskerrik asko auzo geienak  
daukatela igerrita;  
inguruan eta gure errian  
dakite onen berri ta,  
gau bat osua tabernan bota  
perratzera etorrita.

Azken agurra:

*Laz.-*

Zu Billafranka, zu Billafranka,  
lenagoko Ordizia,  
oraindik ere gordetzen dezu  
gaztearoko bizia;  
bertsolarien zale zerala  
nago ongi ikasia,  
izanez ere seme asko'ituzu  
gauza on askon jabia,  
zure zugatzen gaiñian baita  
Urdanetaren kabia.

---

(1) Ordiziko *Santa Ana 1994* aldizkaritik.

(2) Onik itza bi aldiz punturako. Leenengo au ez al da *gizonik* izango?



Ordizian, 1960-IX-7. Lazkao-Txiki eta Iñazio Mari Atxukarro.

## EZ NINTZAN AZI GAZTERIK

Donostia, 1962-I-6.

Lazkao-Txiki eta Ormaiztegiako Bixente Mujika *Etxaburu*.

Gaia: Orain alkarrekin teman egingo dute, bertso bi bakoitzak, gai librean. Asera Jose Migel Iztueta Lazkao-Txikik.

*Laz.-*

Nere laguna pozikan dago,  
zertsu datorkit gogora,  
baju xamarra ikusizian  
egiten duen mejora.  
Onek gañetik artutzen nau ta  
nik beiratu biar gora,  
pozikan ator gaurkuan beintzat  
txikiaguan ondora.

*Muj.-*

Nere laguna asi da emen  
pentsatakua esaten,  
baña onek ainbe estuasun neri  
iñork ez baitit ematen.  
Txikia baño ni baño geio  
au jan eta eraten,  
onen onduan jarritakuan  
ez da ain giro izaten.

*Laz.-*

Nik dadukatena egia da:  
ez nintzan azi gazterik;  
t'arrezkeroztik ez det aditzen  
txiki kontua besterik.  
Egiz aundia dan arek eztu  
beñere aundi usterik,  
ta aundiak ere ni baño geio  
ez dira lurra besterik.

*Mug.-*

Nik zerbait esaten diot baña  
ez du egiten atzera,  
orrelakuan izketak neurtzen  
oso errezak ez dira.  
Eunen iru aldiz arrimatuaz  
mai onaren ertzera,  
oinbeste janda orren txikia  
nolatan gelditu zera?

**PRAILE IZANA ETA EZ IZANA**

Donostia, 1962-I-6.

Gaia: Lazkao-Txiki izango da sekula praile izan ez dana; eta Bizente Mujika, praile izana bañan konbentutik irtendakoa.

*Laz.-*

Nere lagun au atera gabe  
zu or zabilza elizan,  
andik kanpora ikusten degu  
zer itxuretan zabilzan.  
Nere iritziz induljentzirik  
ez dezu emengo bizitzan,  
itxuragaitik joatezkeroz  
obe zenduke ez izan.

*Muj.-*

Jarria nauten ofizio ontan  
prailetarako jakiñan,  
gaztetan ori pentsatu eta  
konbentura juañan.  
Nunbait mutiko nota onakin  
ibiltzen nitzen dotriñan,  
zuk e obe zendun nere antzera  
aruntza juañan.

*Laz.-*

Nere laguna, badoakizu  
lenokuaren ordaña,  
egin zuena aitatu arte  
larri izan zera baña.  
Oni etzaio nunbait gustatu  
frailien regla tamaña,  
andik bialdu dutenerako  
au ez da kristau bikaña.

*Muj.-*

Prailliak izan ere bagaude  
amaika olako entzuteko,  
bañan bertara juañan biar da  
bizitza ori ikusteko.  
Nik biotz aundia det zuretzat  
zu pixkat biurtutzeko,  
eunero errezatzen ari naiz  
gizataldera etortzeko.

*Laz.-*

Onek edozein engañatzen du  
bere izketa otxanaz,  
bañan guztiok badakizute  
nolakua degun famaz.  
Bolara batez ibillia da  
au're jantzia sotanaz,  
arrezkeroztik atzian ditu  
Luzifer eta Satanas.

*Muj.-*

Nere laguna, gauza txarrak  
pentsatz'ituzu buruan,  
bañan alare ibilliko naiz  
beti zure inguruan.  
Joxe Migel, errezau zuretzat,  
ez ai nere ondolik juañan,  
egunen batez bertetan ein zagañan  
biok alkarrekin zeruan.

## BASERRITARRA ETA TRANTANTEA

Donosti, 1962-I-6.

Gaia: Lazkao-Txiki izango da baserritarra, Eta Jose Luis Lekuona, *Lexoti*, tratantea, bei bat saltzeko daukana.

*Laz.-*

Bei baten eske nabil, Lexoti,  
bost illabete osuan,  
ta jakin nai det nere etxera-  
ko modukorik dezuan.  
Len ere zuri erosten dizut  
bastante urte askuan,  
pobre nago ta eman zaidazu  
artu zenduen moduan.

*Lex.-*

Lenago ere oinbeste iten  
guk badakigu alkarri,  
asko patzeko ez zaudela zu  
egiten dizut igerri.  
Nik negarrikan zure etxian  
ez bainuke in nai jarri,  
artu prezion emango dizut,  
bildurrik gabe etorri.

*Laz.-*

Lexoti onen erantzunak gaur  
eman dit zenbait apuro,  
onek eztena sartutzen ere  
iñoiz badaki aguro.  
Baldin esanez konformatuta  
zenbaitso bosteun bat duro,  
orren merkia ematen badit  
ajeatua seguro.

*Lex.-*

Nik tranpikerik ez baidet egin  
jaio ta orain bitartian,  
zeuk esan dezu nola zauden len  
bei on baten faltian.  
Ziriak sartzten asitzen dana  
animarentzat kaltian,  
prezioik ere ez dut jarriko  
juan da ikusi artian.

*Laz.-*

Ezautzen zaitut, Lexotikua,  
juan daneko aspaldian,  
eta zertako asi zerade  
olako zurikerian?  
Zu etzerade ikaratuko  
zeuren animan kaltian,  
oni zerua aztutzen zaio  
tratuan asten danian.

*Lex.-*

Nik fama txarrik ez det izan ba  
tratantia ni gaur arte,  
nere burua bezel-bezela  
ditut auzokuak maite.  
Autik pozkeian ortik asi da  
eta beretzako kalte,  
merezi luke ez ematia  
lengu pagatu bitarte.

**TXAKURRA ETA LAPURRA**

Beasain, 1962-IX-30.

Gaia: Lazkao-Txiki txakurra eta Gregorio Etxeberria baserri batera dijoan lapurra.

*Laz.-*

Alde batera etzan ain gauza,  
ain zan ederra txakurra,  
ez-ezaguna izan ezkerro  
sarri txarrezko agurra.  
Izanez ere guardiak aurrez  
artu bear du bildurra,  
ni ez banintzan etxean aixa  
sartu ziteken lapurra.

*Etx.-*

Bide txar batez bart gauean ni  
aterea naiz etxetik,  
nunbait gauz ona ikusi eta  
ura arrapatzeagatik.  
Zakur gaizto bat saltoka zegon  
ixildu gabe atetik,  
an gelditu nauk odol usturik  
eldu dit-eta lepotik.

*Laz.-*

Zenbait pertsona eozein etxetan  
atrebimentu geiegiz,  
eta gauean ere txakurra  
erne egoten naiz berriz.  
Sartu naiean ikusi zaitut  
nik makiñatxo bat aldiz,  
jan nai duenak egin dezala  
bere buruko izerdiz.

*Etx.-*

Ta zakur orrek bart korrikan  
bazitun ainbat pasiak,  
ta poza nunbait ematen zion  
atetikan zaunkatziak.  
Gu ere tonto ez gera izan  
baiña bastante biziak,  
ordurako nik leiotik kanpora  
atea'itut nai dan guziak.

*Laz.-*

Nai zenduena atera eta  
iges egiña orduan,  
pentsa zazute lapurrak gauez  
berekin zenbat lan duan.  
Ni larri negon nere nausian  
etxea ezin zainduan,  
galtzetatikan eldu ez banizu  
zuk eramango zenduan.

*Etx.-*

Txakur txar onek gaur esaten du  
emen gezurra ugari,  
ta ortzakorik gaurkoan beintzat  
ez dita sartuko neri.  
Lenago ere pasa izan zait  
neri olako ugari,  
lendabiziko txandan ez baiña  
bigarreanean zan ori.

## MUTILLA ALA NESKA?

Beasain, 1962-IX-30.

Gaia: Aranzadi, senarra; Lazkao-Txiki, emaztea. Ezkonberriak dira eta senarrak mutilla nai luke izango duten aurrera. Emazteak, ordea, neska nai du.

*Ara.-*

Ezkondu giñan eta ementxe  
bizi gerade bakarren,  
ta emaztia kontra jarria  
gertatzen zait nere aurren.  
Etxea gora jaso nai eta  
jarria nauka bildurren,  
lenbizikoa semea nai nik  
laguntza izatearren.

*Laz.-*

Onek etxean ez du ematen  
bear arrenbeste traba,  
ni nola naizen emaztekoa  
egin izan diot laga.  
Euna lanean pasatzen du ta  
eta tabernetan gaba,  
zure antzekoa izatezkeroz  
obe genduke alaba.

*Ara.-*

Emakumeak ola asita  
etxean lan ematen du,  
ni damututzen jarria nago  
baiña lastimaz berandu.  
Nere kontrako arrazoitxon bat  
beti or ateratzen du,  
ez dakit berak jantziko'itun baiña  
galtzak nai dizkit kendu.

*Laz.-*

Nere senarra aspalditxotik  
dago semearen eske,  
guk nai deguna izan leikenik,  
gizona, etzazu uste.  
Jaungoikoaren emankizunak  
osatu bear gaituzte,  
nork galtzak eraman dezunean  
pozikan bizi zindezke.

*Ara.-*

Zure arrazoia bizimoduan  
triste tira eta bultza,  
ta gaur auek esan nairikan  
etorri gera onuntza.  
Auek entzun da nori etzaio  
kupituko, ba, biotza?  
Neri galtzak kendu nai dizkit  
ta entregatu gurutza.

*Laz.-*

Ene senarra, zertan daukazu  
orrenbeste iskanbilla?  
Auxen da gauzak desiatzea  
berak ezer ez dakilla.  
Nik ez det juan nai gure Jainkoak  
dun gogo-kontuan billa,  
gure Jainkoak nai duen ura  
gureganatu dedilla.

**SOLDADUA ETA NESKAMEA**

Ernani, 1962-XII-9.

Gipuzkoako bertsolari-txapelketaren azken saioa.

Gaia: Mitxelena, Donostian soldadu dagoan mutil gaztea; Lazkao-Txiki, bertan neskame dagoan aur-zaita. Erdi nobio bezela dira. Une ontan Donostiko Kontxan aulki batean eserita daude.

*Mit.-*

Aizu, neskatxa: nê baztarrean  
gauza polita zu zaude,  
eta entzun det Donosti ontan  
omen zaudela mirabe.  
Ta nik ez daukat ordu onikan  
iñoiz zu ikusi gabe,  
mundu onetan egin nai nuke  
nik zure gorputzan jabe;  
era ortako izar polita,  
nongo alaba zerade?

*Laz.-*

Beraz, mutilla, gustatu zera  
era ontako landarez,  
apartexego egon zaitezen  
eskatzen dizut faborez.  
Gaurko mutillen berri jakiten  
ez baidago oso errez,  
neskatxai gauza txuriak esan,  
josta nai luteke parrez;  
zui gustautako izar polita  
goierritarra da berez.

*Mit.-*

Zukin bildutzen naizen ordutik  
biotza daukat festean,  
zorioneko soldaduska onek  
nauka laguntza eskean.  
Neskatxakin e ezin naiz egon  
neuk nai deten ainbestean,  
baiña amaren launtzako ere  
nola etxian iñor ez dean,  
aber gu biok elkartzen geran  
erropa txar ok uztean.

*Laz.-*

Nere iritziz mutilla ere  
zerade eder askua,  
itzetan beintzat maite nazula  
ematen dizut juzkua.  
Onduan zaude eta ez uste  
nagoenik zapuztua,  
baiña ez baida sinistekua  
zenbait mutillen kontua,  
biotzez maita nazazu baiña  
geldik eduki eskua.




Mit.-

Beida, neskatxa, nere esanak  
ez dira gero lizunak,  
garbi ta argi eaman nai ditut  
munduko eginkizunak.  
Zu neregandu nai zaitut beintzat  
launtzen banau osasunak,  
ta zuretzako eskeintze'izkizut  
nik dauzkaten ondasunak,  
eta eskua mugi azten nau  
biotzan berotasunak.

Laz.-

Ene mutilla, esan didazu:  
"maitatzen zaitut biotzez";  
eta ni ere mutil onakin  
eneiteke egon lotsez.  
Gaur Donostiko neure etxera  
ni biurtuko naiz pozez,  
zure kontu polit ta gainera  
eman dizkidazun gauzez;  
eun batzutara antzemango'izut  
egitan zabiltzan ô ez.



Ordizia, Euskal Jaiak, 1951-IX.  
Ezkerretik: Lazkao-Txiki, Uztapide, Basarri eta Mattin.

**MAIORAZKOA ETA KALEKO NESKATXA**

Ernani, 1962-XII-9.

Gipuzkoako bertsolari-txapelketaren azken saioa.

Gaia: Lazkao-Txiki, mutilla, maiorazkoa eta ezkongagia. Mitxelena, kaleko neska dotore bat.

*Laz.-*

Aspaldi ontan, ai neskatxatxo  
ez gera biok egondu,  
baiña alare nereganuntza  
etzera kopet-illundu.  
Ni baserriko maiorazkoa,  
zu kale orretan jaundu,  
orain aukera ipintzen dizut  
nai bazenduke ezkondu.

*Mit.-*

Ezkondutzeko mandatutxo bat  
bialtzen nazu asieran,  
ta badakizu kalean ere  
gu nolatsu bizi geran.  
Ezkontzak ere ez dira egiten  
ain momentuzko joeran,  
lendabiziko jakin nai nuke  
nolako mutilla zeran.

*Laz.-*

Ni zer mutiko eratsu nagon  
beiratu zazu musura,  
nik ez pentsatu dadukatenik  
biotza ainbat itxura.  
Baiña, kaletar neskatxatxo,  
jarri gaur nere kargura,  
ez dezazula beintzat ibili  
gaur arte ainbat pintura.

*Mit.-*

Kale onetan nere gorputza  
daukat laiken dotorena,  
ta maiorazko mutiko onek  
beiratzen nau neregana.  
Baldin-da gu biok, ai, bildutzen  
bagera alkarrengana,  
onez aurreko pinturak dira  
bei zarren itsatsarena.

*Laz.-*

Neskatxatxoa, ez da egoki  
burla egite geiegia,  
baldin zuk izan nai bazenduke  
nere egizko nobia.  
Jakingo dezu baserri-lana  
eta ango gauza larria,  
ikastearren nola sortzen dan  
eguneroko ogia.

*Mit.-*

Orain arteko ezkontzak noski  
ez dira ola etenak,  
ta gauza oien berri emendik  
emango'izu Mitxelenak.  
Naitasun ori sortutzen baidu  
biotz gozoko barrenak,  
ta ogirikan ez du pentsatzen  
ori pensatzen duenak.

## PISTOLEROA ETA BANKEROA

Donostia, 1962-XII-30.

Bertsolari-txapelketa nagusia.

Gaia: Zabaleta izango da pistolerua; eta Lazkao-Txiki, banku batean enpleatua dagoena. Sartu da pistolerua bankuan ta bertan arkitzen dan enpleatuari, pistola eskuan duela, bankuko diru guzia eskatzen dio.

*Zab.-*

Ateraldi bat orain izan du  
Zabaletaren buruak,  
ikusirikan ikasitzeko  
daduzkagun liburuak.  
Zu or zaude banku batian  
kanpo eta inguruak,  
ilko zaitut, ekarri izkazu  
zeorrek dauzkazun diruak.

*Laz.-*

Gizon alperrak sumatutzen du  
makiñatxo bat eskola,  
bañan pentsatu diruak zaintzen  
fintasunean nagola.  
Ik eskuetan ekarri arren  
ikaratzeko pistola,  
bizirik kentzen ez baldin banak  
ez dit emango inola.

*Zab.-*

Modu onetan zeren bankuan  
trantze txarrian jartzia,  
eta ar zazu nik esan arte  
zuk e ba pazientzia.  
Eta pentsatu zu or zaudela  
diruan jaun da jabia,  
bañan aguro pistolarekin  
kenduko dizut bizia.

*Laz.-*

Pistolarekin egin nai dezu  
emengo diruen jabe,  
lanian geio saiatutzea  
zuk ez al zenduke obe?  
Igertzen dizut: zure barrua  
egiñik etsaizko labe,  
gelditu biazu dirurik gabe  
eta itzalaren jabe.

*Zab.-*


Zu, bankerua, jarri didazu  
orain sekulako lana,  
bañan alare egin beazu  
pistoleruan esana.  
Eta orduan ongi izateko  
zuk izango dezu dana,  
diruak neri ekarri eta  
ingo'itegu erdibana.

*Laz.-*

Nere etsai au maltzurkerian  
ni engañatutzen dabil,  
lendabizitik zakar asi zait  
ta orain jarri zait umil.  
Bañan nola're nerekikua  
gaur ez dek egingo, mutil,  
iri ezertxo gaur utzi bañan  
kasik naiago diat il.



Eibar, 1962-XI-11, Gipuzkoako bertsolari-txapelketaren azken aurreko saioa. Ezkerretik: Manuel Uranga, Lazkao-Txiki eta Alfontso Irigoien gai-jartzaillea.



## PAKEA

Donostia, 1962-XII-30.

Bertsolari-txapelketa nagusia.

Lazkao-Txiki eta Basarri.

Gaia: asiera Lazkao-Txikik dauka eta berak aukeratu lezake gaia urrengo auetatikan: pakea, lana, maitasuna, dirua, osasuna, gaztetasuna, adiskidetasuna, familia edo zuzentasuna.

*Laz.-*

Emen aukeratzeko  
gauza asko daude,  
eta al dan ongiena  
esan bear au're.  
Askok egingo dute  
"nor da onena?" galde,  
ni beintzat ateratzen naiz  
pakiaren alde.

*Bas.-*

Nundik asiko ziñan,  
gaztia, banekin,  
nik ere nere aldetik  
nai nizuke ekin.  
Ni pakiaren alde,  
ni osasunarekin,  
ederki etortzen dira  
biak alkarrekin.

*Laz.-*

Nere ustez pakia  
gauza danen abe,  
ta dirua jotzen det  
grña txarren labe.  
Bat izanagatikan  
interesen jabe,  
an ez da zorionik  
pakerikan gabe.

*Bas.-*

Interesak etzaizkit  
kopetara io,  
galtzalliak dirala  
onek ala dio.  
Pakiak e luzitzen du  
osasunakin geio,  
bakarka jarri ta oiek  
ez dute balio.

*Laz.-*

Bietan nor dan onena  
ez dago esaterik,  
ezin baida sumatu  
tarteko aterik.  
Osasuna izanda're  
ez bada pakerik,  
laguna, ez dago or  
ondo izaterik.

*Bas.-*

Osasunak pakiari  
aukera auxe jarri,  
esan artian negon  
estu eta larri.  
Beso emanda ibilli  
gaitezen alkarri,  
konponduko dirade  
Lazkao ta Basarri.

## TESTAMENTUA

Donostia, 1962-XII-30.

Euskal-Erriko bertsolari-txapelketa nagusia.

Gaia: Egun batzuk dirala, baserritar bat il zan, eta baserri on eta eder baten jabea zan gaiñera. Bi seme utzi ditu munduan. Ta momentu ontan eskribauak irakurtzen die seme biei aren testamentua. Eskribaua testamentua irakurtzen ari dala, gelaren erdian agertzen da aita zana. Noski zerutik bueltatu da; beste mundutik itzuli da. Aitak testamentuan uzten dio seme zarrenari baserri osoa, bere ganadu ta gauza guziekin, soro ta guzi. Gazteari, berriz, gaizki portatu zala gurasoekin, gaiñera len ere naikoa jaso zuela etxetikan, eta ez dio ezertxo ere uzten.

Xalbador izango da eskribaua. Uztapide izango da semerik zarrena. Lazkao-Txiki izango da seme gaztea. Eta Basarri aita zana, gelaren erdian zerutik agertua. Xalbador asten da eskribauaren izenean.

*Xal.-*

Horra, mutilak, nik egin behar  
ditut hartu ttutan lanak,  
ofizioak gradotxo batzu  
eni badauzkit emanak.  
Ni ez nau ezertan mendratuko  
papertxo hunek dionak,  
huna zer utzi nai dautzazuen  
zuen aita maite zanak.

*Uzt.-*

Neri aita zanak eman zizkiran  
sekulako alderdiak,  
beste gauza bat agindutzen dit  
neri zeruko argiak.  
Abogadu onek ez baditu egin  
gauzak alako garbiak,  
ta beste seme txiki oneri  
emaizkazute erdiak.

*Laz.-*

Aizken orduko eginkizunak  
badu estuaren lana,  
bi seme gaitu aita orrek ta  
ni len zeozer emana.  
Bañan badakit eriotz txarrak  
estuturikan daukana,  
aitona zana, zuzendu zazu  
gaur aitak ezin duana.

*Bas.-*

Seme gaztiak aitonarentzat  
atera digu mintzua,  
nik ondo dakit gazte-denboran  
etzala oso zintzua.  
Orri partilla eman nion ta  
oneri etxe osua,  
alare gaurko ume ziztriñak  
gaizki artzen gurasua.

*Xal.-*

Ene lekua ez da gaur ona,  
hauxe da hauxe lan otza,  
Jeinko maitea, zuzen gaitzazu,  
egiten dautzut otoitza.  
Nik konprenditzen dut aitona  
samur horren bihotza,  
ez du nai merezi ez duenak  
ditzan osasunak goza.

*Uzt.-*

Sesiyuakin ez dago ezer,  
bildu gaitezen batea,  
zuk ere, lege-gizona, ondo  
eure kontuak atea.  
Zer balio du deretxo danak  
nik dauzkadala esatea?  
Gezurrik gabe obe da emen  
nork berea ematea.

*Laz.-*

Aita azkeneko arnasaz da ta  
ez du arnasik lasatzen,  
gu, bi semeak, nori zer eman  
biok larri gaude emen.  
Len pixkatxo bat emanagaitik  
berriz ari naiz eskatzen,  
aita on baten borondaterik  
beñi ere ez baita amaitzen.

*Bas.-*

Borondaterik ez da amaitzen  
baña ezin jardun ematen,  
gure etxian lanik etzegok  
zegovon pixka eramaten.  
Guraso zarragatikan ari  
zerate au t'ori esaten,  
seme aueri kostako zaie  
aita añakuak izaten.

*Xal.-*

Huntara ezkeroz ez bedi egin  
hemen gehiago kalte,  
ni ere beira konpon zadien  
egondu naiz orai arte.  
Etzazu egin, aitona ona,  
bihotz on hori bi parte,  
inposible da zuk ez dituzun  
zure bi semeak maite.

*Uzt.-*

Aita maitea, mundutik jua  
ziñan gaur baño lenago,  
gure aurrian zaude gaur berriz  
eta nik ori naiago.  
Borondatia izan dezu ta  
ezin zindezke geiago,  
zerbait sarritan ein badezu ere  
dana barkatuta dago.

*Laz.-*

Bi senideak erentziagan  
zertarako jarrai teman?  
Aitak beriak ditu diruak,  
nork gaur ez dio antzeman?  
Aitak arnasa doi-doi dauka ta  
itzikan ezin du esan,  
zerutikan zatoz, aitona, eta  
norentzat biar du eman?

*Bas.-*

Seme zarrena, zuk etxeari  
eutsi zaiozu zutik,  
seme gaztia, ez gastatu zuk  
nolanai nere dirutik.  
Aitanganako gorrotu txarra  
kendu zazute burutik,  
lezio auxe ematiarren  
jetxita nago zerutik.

**EZKONGAIAK**

Tolosa, 1963-II-3.

Mitxelena eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Lazkao-Txiki andregaiia da; eta Mitxelena, senargaia. Mutillak ez dauka presarik ezkontzeko; neskatzak bai.

*Mit.-*

Andregaitxo bat egin nuan nik  
etzana oso mardula,  
oain enioke bera oneri  
golpetik egin nai burla.  
Ta esaten du otza onekin  
elkartu bear degula,  
ta nik ezkontzeko kezkarikan  
ez det izaten sekula.

*Laz.-*

Negu-partian neska argalak  
bizitzen gerade triste,  
ta uste nuen gizonarekin  
nik berotutzia laiste.  
Baiñan igerri diot, ez dauka  
presarik nik orrenbeste;  
ille zuritzen asi zera ta  
zu're mugitu zindezke.

*Mit.-*

Neskatxa onek beti ematen nau  
ezkondu bear dun sona,  
oinbeste presa dadukanian  
ez da izango oso ona.  
Eta nai nuke neregandu nik  
itxura dadukan gona,  
onekin ezin asko berotu  
otzak dagoan gizona.

*Laz.-*

Auxen da gauza zelebrezkua  
didazuna gogoratu,  
nik len baiño askoz geiago ezin  
zindezket zu adoratu.  
Aizu, mutilla: oiek esaten  
etzaitez ainbat arrotu,  
biok alkarrenganatzian  
ez al gindezke berotu?

*Mit.-*

Oinbeste jenden aurrian, jaunak,  
esatia auxen dana,  
bertsolai baten aorako ez da  
oso arrazoi apana.  
Baiña momentun etorri zaida  
barkatu bear didana:  
edozeiñekin berotuko da  
onekin berotzen dana.

*Laz.-*

Nere mutillak kontu onikan  
ez du iñoiz aterako,  
uda-partian alderagua  
ez al da aparterako?  
Gauza batzuek pentsatzen ere  
oraintxen asia nago:  
kontuk atera bearko'itut nik  
oia erositzerako.



## GIPUZKOA

Beasain, 1963-II-10.

Uztapide, Basarri, Lazkao-Txiki eta Lasarte.

Gaia: laurok gipuzkoar izanik, Gipuzkoako aunditasun ta edertasunak goratzen eta aupatzen ari zerate. Baiñan berealaxe sortzen da zuen artean izketaldi biziagoa. Izan ere, Uztapide Urola aldekoa da; Basarri, beterritarra; Iztueta, goierritarra; ta Lasarte, itxas aldekoa. Ta, jakiña, bakoitzak bere lurraldea obeto ezagutzen ta geiago maitatzen.

*Uzt.-*

Laurok gerade gipuzkoarrak,  
laurok euskaldun garbiak,  
nork arrazoi dun ikusitzeko  
jarri begiak argiak.  
Batzuek kontra izango ditut  
ta alde beste erdiak,  
orain esango ditugu emen  
geure lurren alderdiak.

*Bas.-*

Gure Gipuzku maitagarria  
nik juzgatzen det loreztat,  
munduan ixkin bat ezta dukat  
geurea baño obetzat.  
Gaia ere ala jarri dute ta  
auxen bururatutzen zat:  
Beterri salla bezelakorik  
ezer ez dago neretzat.

*Laz.-*

Oi Gipuzkoa maitagarria,  
egin nai dizut laguntza;  
erdi erori zabilta bañan  
gora nai nizuke bultza.  
Une onetan etzera arkitzen  
len ziñaden bezin utsa,  
zu baizerade gure izkuntza  
gordetzen diguzun kutxa.

*Las.-*

Nik Gipuzkoa maitatuko det  
iñoiz baño apaiñago,  
ementxe bizi naiz ni ere ta  
orretarakoxe nago.  
Geure aldea goratutzeko  
edozein baño prestago,  
udara aldean kosta dan baño  
politagorik eztago.

*Uzt.-*

Guztiak dira maitagarriak  
Gipuzkoako eskiñak,  
bañan Urola errekak dauzka  
intxaurrak eta gaztaiñak.  
Ni sortu nintzan Zestuak berriz  
oso iturri bikaiñak,  
orrek sendatu izandu ditu  
danen gibleko miñak.

*Bas.-*

Arbol, itxaso, mendi ta zelai,  
Gipuzkoa bedeinkatua,  
klase guztitik ikusten zaitut  
ondo asko osatua.  
Bañan ain seme txepelak gera,  
au da gure pekatua,  
beste penarik ez daukat ezer:  
euskera atzeratua.

*Laz.-*

Guk e badegu gauz eder asko,  
o Goierriko anaiak,  
gure bitartez zuzentzen dira  
toki askotako maiak.  
Gureak dira geientsuenak  
maite ditugun artzaiak,  
gure lurretik jaten baidira  
arkumeak ta gaztaiak.

*Las.-*

Beste konturik eztabilkigu  
alkarregana biltzian,  
seme bezela jokutzen gera  
Gipuzkoak beartzian.  
Lenago esan det gure tarteko  
komerri danak zer zian,  
txori guziak goxatzen dira  
udaran plaia-ertzian.

*Uzt.-*

Lau anai gera ta obe degu  
alkarri esku ematia,  
bertsolariak orretarako  
badegu borondatia.  
Gipuzkoa da jardin polit bat  
guztia lorez betia,  
beste faltarik ez dauka onek:  
txikitxua izatia.

*Bas.-*

Metroz erririk ez da neurtutzen,  
o Uztapide prestua,  
Goierri, Beterri ta itxaso,  
eman alkarri eskua.  
Danon artean osa dezagun  
famili itxurazkua,  
danen gañetik bear dezu zuk,  
biotzeko Gipuzkua.

*Laz.-*

Intxaur ta gaztain ta arrai presko,  
arkume, gazta ta abar,  
oek batera bildu ezker  
zorion bikaiña dakar.  
Orregatikan lotu gaitzen,  
zertako ibilli bakar?  
Alkartasuna indarra da ta  
denok ar dezagun alkar.

*Las.-*

Gure izketak ezer ez dute  
alperrikan kentzekorik,  
baño ez degu abildaderik  
okerrak zuzentzekorik.  
Bat altxatzeko ez genduke nai  
bajatu gañontzekorik,  
baño munduak iñun ote du  
Gipuzkoan antzekorik?

*(Beasain Festivo, 1963)*

## ASTOA OSTU

Markiña, 1963-V-22.

Gaia: Joxe Lizaso baserritarra da eta astoa ostu diote. Ez daki nor dan ostu duena; baiña uste du Lazkao-Txiki dala, ijitoa dalako.

*Liz.-*

Kezkaz beteta iritxitzen naiz,  
ez nago penak aztua,  
nere biotzak gaur badaduka  
naigabea ta juzkua.  
Gure auzoan ijitotxo bat  
nola dan oso gaiztua,  
seguru nago onek ostua  
dala Lizason astua.

*Laz.-*

Ai, basarriko nere laguna,  
orretaratu al zera?  
Izanez ere inguratu naiz  
au bizitzen dan etxera.  
Ni ez nijua baserritikan  
astorik arrapatzera,  
pentsatu zazu: neure aitzekiz  
beste ijito bat ote da?

*Liz.-*

Markinatarrak, egon zaitetze  
ijitoa sinistuta,  
jaio ezkeroko beste lanikan  
onek ezertxo ez du ta.  
Bizimodua ateratzen du  
aberen batzuk ostuta,  
ta Bitorian saldu omen du  
illia ederki moztuta.

*Laz.-*

Ara: lapurtzat ni tratatzen nau  
orain momentu guzian,  
baiña geienak jarri zaitetze  
ori ezin sinitsian.  
Baserritar au beti ibiltzen da  
gauz ortan zabar antxian,  
asto bat ostu badiote're  
beste bat bada etxian.

*Liz.-*

Lenago ere botiak dizkit  
amaika nolabaiteko,  
bildurrez nago gauza zuzenik  
ez degula aterako.  
Langintza ortan baldin bazabiltz  
zerorentzat kalterako,  
zuk astotako dezun laguna  
ez dezu arrapatuko.

*Laz.-*

Ez zaitiala, nere laguna,  
era orretan altxatu,  
beste edozeiñek izan liteke  
guk orrenbeste pekatu.  
Ikusten ez dan gizonik iñoiz  
ezin liteke juzkatu,  
nik ostu dedala badakizu  
guardiari abisatu.

**ARTZAI A ETA ARDI-ZAKURRA**

Markina, 1963-V-22.

Gaia: Joxe Lizaso, artzaia; Lazkao-Txiki, ardi-zakurra. Oñatin daude urtero egiten duten jai ortan: txakurrak ardiak esi batean sartu bearrez; eta artzaia txakurrari agintzen.

*Liz.-*

Berriro ere guaz  
lanari eltzera,  
zer kargu eman diguten  
oroitzen al zera?  
Ageri da lanbide  
guretzat zartzera:  
Oñatira juan ber degu  
ardiak zaitzera.

*Laz.-*

Indar gutxitxo dauka  
txakurran muturrak,  
Oñatira joateko  
baidago bildurrak.  
Berak mamiak jan da  
neretzat ezurrak,  
lan asko ez du egingo  
orrela txakurrak.

*Liz.-*

Txakur onen afanak  
beti esanera,  
naita're ezin bialdu  
liteke lanera.  
Jakiñian jartzen zaitut  
gaurtikan aurrera:  
okela izango dezu  
portatzen bazera.

*Laz.-*


Nausia ta txakurra  
ari gera teman,  
baiña, nagusi, gauz bat  
nai nizuke esan:  
gero lanak aitzakirik  
izandu ez dezan,  
obe dezu okela  
aurretikan eman.

*Liz.-*

Gaur emendik egin det  
onekin bisita,  
gure aziuai nago  
gaizki iritzita.  
Pardela zabaldutzen  
nausia asita,  
tortillak danak jan dizkit  
ogiak utzita.

*Laz.-*

Txakurra're gosiak  
gaizki egoten da,  
ta nagusiak berekin  
ibiltzen du denda.  
Tortilla ori pardelean  
onek zeduken da,  
neronek artu biar  
ez du ematen da.



Ordizian, 1963-IX-4 an. Goien: Lazkao-Txiki, Uztapide eta Basarri.  
Bean: entzule jendea.



**BAHAMONTES ETA LOROÑO**

Legorreta, 1963-VI-9.

Uztapide, Lazkao-Txiki eta Luluaga.

Uztapide eta Lazkao-Txiki Legorretako *Zubiondo* jatetxean aurkitzen ziran. Bazkaldu ondoren, derrigorrezko saioari ekin zioten. Baiña, beraiek asi aurretik, soiñuarekin dantza egiteko aukera izan zan, tabernan bertan.

*Uzt.-*

Asiko al gera bada bertsotan  
ortara etorri giñan da?  
Emen nengoan pazientzian  
au nik ezin eramanda.  
Soiñu-jotzaille orrek baidigu  
saio ederra emanda,  
oain, Joxe Migel, pixka batean  
guk egin bearko txanda.

*Laz.-*

Beti lanean pertsona bati  
egin gentzaioke kalte,  
nola graden danok anaiak  
ta zerbait badegu maite.  
Guk ere geure utsune ori  
zintzo nai genduke bete,  
guk ere zerbait ein gentzakegu  
orrek atsedeen bitarte.

*Uzt.-*

Bazkaria zan oso luzea  
eta etzan itxusia,  
kilo erdi bat gutxieneko  
nik badet irabazia.  
Orain nago ni ixildu ezinda,  
zerbait kantatzen asia,  
bertsotikan gaur onez aurrera  
dezute nai dan guzia.

*Laz.-*

Ni ta Manuel konforme gaude  
segitutzeko lanian,  
zure barrena indartsu xamar  
daukazu agidanian.  
Ni ere beraz fuerte nago ta  
jarrai bear armonian,  
giro izango da irugarrena  
kantari asten danian.

*Uzt.-*

Iztueta ta ni asi gera  
bertsotan lendabiziko,  
begira negon aldamenian  
zein ote nun ikusiko.  
Gure lagun bat etorri zaigu  
gaur arratsalde guziko,  
bildurra daukat Pello ez dala  
emen bertsotan asiko.

(Uztapidek egindako konbita orri etzion muzin egin Pellok. Jaiotzez orendaindarra, baiña txikitan Legorretara bizitzera joandako Jose Antonio Luluaga degu Pello ori. Bahamontes-zale eta Loroño-zaleen artean amaika txolarte osatuko zan garai aietan; eta Bahamontesi bertsoak jarri eta Toledo-raiño joana genduen Pello.)

Lul.-

Uztapide ta Lazkao-Txiki  
gaur etorriak zerate,  
aurrian bistan ikusitzeko  
oso aparte ez daude.  
Zaletasun bat aspaldian nun,  
egin nai nuke alkarte:  
gaur geiena dana taberna ontan  
bertsolaritan alkate.

Laz.-

Lenago biok bakarrik giñan,  
ara laguntza berria,  
geuk bate uste ez genduela  
auzotikan etorria.  
Len ezagutzen ez bazenduen  
gaurtik jarri igerria:  
au da Bahamontes txirrindulaiai  
bertso berriak jarria.

Uzt.-

Nik Pello maite oneri egin  
nai nizkioke gaur itz bi,  
ta Bahamontes orreri ere  
bertsoak jarriak dauzki.  
Gaur ezagutzen zaitut nik baiño  
jatorra zerade noski,  
zuk pixkat guri lagundutzia  
gaur ez datorkigu gaizki.

Lul.-

Bahamontes ori izandu degu  
korrikalari bikaiña,  
orrek ein zuan buelta Prantzian  
eta guttiz alegiña.  
Euskalduna're ez dala baiña  
kastillanua fiña,  
korritzen beti izandu dezu  
maitagarrikorik aiña.

Laz.-

Bertso-paperak atera zitun  
eta Toledora korri,  
ez dakit dana egia degun  
ala jakin degu berri.  
Andik etzaigu trajiakin da  
gorbatarekin etorri,  
Bahamontista ona da baiña  
dirurik etzun ekarri.

Uzt.-

Iztueta onek bai ote daki,  
Pello, zu nola zabiltzan?  
Lengo bertsoan portatu zera  
beintzat gizonaren gisan.  
Bahamontes oso ona izan da  
bizikletako langintzan,  
bakoitzai beria eman ber zaio  
naiz euskalduna ez izan.

Lul.-

Merezi duan gizona dago,  
egin dezagun goratu,  
oi bezelako ziklistarikan  
ez da oraindik azaldu.  
Aldapa gora onena dago,  
iñork ezin du arrapatu,  
mundu onetan azaldu danik  
kanpeonetan maitatu.

Laz.-

Bahamontes oi bera famatzen,  
Pello, ai zera orduan,  
Legorretatik Toledoraiño  
bisita egin zenduan.  
Norbaitek zerbait esan zizun da  
zu fedetsuen moduan,  
andriak esku eman zizuen,  
baiña txanponak Bankuan.

Uzt.-

Bertsolarien artian, Pello,  
bada ainbeste naspilla,  
Lazkao ere gaiztua da ta  
beste orrelako milla.  
Zu juan ziñan Toledoraiño  
zoriontzera mutilla,  
ez orrek pentsatzen dun bezela  
aren diruaren billa.

Lul.-

Gure euskera maitagarria  
ia egin da ain nastu,  
nola baidiran gure artera  
jende arrotzak juntatu.  
Gure izkera ikasten dute,  
etzaitez, ez, deskuidatu;  
kastillanuak bizkorrak dira  
euskeraz .....(1) aditu.

Laz.-

Zuk Bahamontes famatzen zertan  
zendun ainbeste enpeño?  
Erdaldun ori jaso nai dezu  
zuk zeruetan goraño.  
Euskaldunikan beste onikan  
ez al degu oraindaño?  
Bahamontes ona baiña neretzat  
nik naiago det Loroño.

Uzt.-

Alkarren kontra gabiltza, Pello,  
sekulako apanian,  
Bahamontes ori famatzen dute  
gaur ia mundu danian.  
Loroñok ere lenago ondo  
jarraitzen zion lanian,  
ua pixka bat bajatu egin zan  
Bahamontes sortu zanian.

Lul.-

Loroño ori buelta Españan  
lendabiziko atera zan,  
nik ori emen bene-benetan  
eta ona izango zan.  
Gero *vuelta de Francia* ere  
alaxe ara juan zan.  
nere iritziz bosgarrengo  
numeroz gelditua zan.

Laz.-

Loroño au zan mutil fuertea  
eta korritzen txukuna,  
makiñatxo bat prueba emen  
irabazitzen ziguna.  
Utzi zazu zuk Bahamontes eta  
zaitez Loroñon laguna.  
bestela etzera beñ e izango  
egitazko euskalduna.

Uzt.-

Zertan ibili bat bera jetxi,  
bestia altxatu gora?  
Lenago ez det denborik izan  
abiatzeko iñora.  
Aurten udara nunai pasatu  
nai banu badet denbora,  
esan zaidazu trena zenbatsu  
kostatzen dan Toledora?

Lul.-

Iruroi duro gutxi gora-bera  
emendikan Toledora,  
ez da orixe gauza aundia  
asko juaten bazera.  
Orregatikan kartera beintzat  
loria izanduko da,  
orain asi da primaberatik  
juandakoa udara.



*Laz.-*

Oraindik ere zuk Bahamontes  
jaso nai gora ta gora,  
mesederikan ez dan tokian  
etzaitez juan iñora.  
Egia da, bai, irurogei duro  
zerbait bera edo gora,  
oi izan zuen Bahamontesek  
egin zioen mejora.

*Uzt.-*

Onek esan du zure bentaja  
zer zan al duen azkarren,  
Toledotikan buelta eginda  
zer atsegiña dakarren.  
Andik igesi aldegin zuen  
Madril alde ortan barren,  
sekula geio etzan ertengo  
sartu balitz Alkazarren.

*Lul.-*

Munduan ez da toki oberik  
Madril baño're izango,  
zaletasunan joango nitzake  
berriz erri areaiño.  
Dirua ere ematen bazu  
kariño ta oso bero,  
ikusiko da prueba ori  
lendabizi eta gero.

*Laz.-*

Madril degula toki onena  
zaigu aitaturzen jaiki,  
esan leitezke bertso bikaiñak  
bate kantatzen baneki.  
Baiña jeneral gure antzekua  
onuntz biurtzen da beti,  
au an aixa bizi zeiken, Manuel,  
botak garbitzen baleki.

*Uzt.-*

Lenago Pellok esan ditun itz  
oik etziran seguruak,  
ez dakigula agertze'itugu  
askotan geure buruak.  
Ongi probatu bear badira  
ango kariño beruak,  
asteko ainbat ere ez dira  
Pellon da nere diruak.

*Lul.-*

Fama txar bat e ia artu det  
Madril aldean ibiltzeko,  
Lazkao-Txiki emen asi da  
zerbait toreatutzeko.  
Botak garbitzen ez dakit baiña  
ez nago ni ortarako,  
berak e ere planta obe du  
zapatak garbitutzeko.

---

(1) Itz bat zintatik ezin ulertu.

**BAT AUKERATU BEARRA**

Aizarna, 1963-VI-23, luistarren eguna.  
Uztapide eta Lazkao-Txiki.

Uzt.-

Lanean asi bearako degu  
bagerade itzekoak,  
ta gu gerade morroi jatorrak  
oi diraden antzekoak.  
Emen diote ia garaiak  
dirala asitzekoak,  
galdetutzen det nola zeraten,  
aizarnar biotzekoak.

Laz.-

Nere barrenak sentitutzen du  
goi-arnasaren epela,  
anai luistar bat beste lagunak  
inguratzean onela.  
Pozaren pozaz kantura nator  
txori bat oi dan bezela,  
ongi etorri eta egun on  
Jaungoikoak dizutela.

Uzt.-

Zuk badakizu Euskal-Erriak  
nun-nai daukala atsegin,  
orregatikan amaika gauza  
gaur bailitezke itzegin.  
Lenago ununtza etorri ezak  
orain ematen dizu min,  
Aizarna ikusi artian onek  
mundua zer zan etzekin.

Laz.-

Gaurtik aurrera nik egingo det  
makiña bat ametseta,  
sinista zazu nere gogua  
juango dala aseta.  
Aizarnaz ez da beñe aztuko,  
oso atsegin zait eta,  
tontor batian daukagu baña  
lore politez beteta.

Uzt.-

Ikusitzen du nola daguen  
lore politez betia,  
zer ote da lore eder baten  
faltan bizi izatia?  
Emen Aizarnan egon liteke  
zuk nai zinduzken maitia;  
Aizarna ere gustatzen zaizu,  
bertan gelditu zaitia.

*(Iru bertso grabatu gabe gelditu ziran emen.  
Ondoren onela jarraitu zuten;)*

Uzt.-

Berriz erantzun nai banuke're  
eman didazu aukera,  
gaur arte luistar izan zera ta  
ortik nai dezu atera.  
Len esan dezun lore oiekin  
ongi konpontzen bazera,  
ukatu igual eingo dezu zuk  
Luis Santuaren bandera.

*Laz.-*

Ai, Uztapide, pentsatu zazu  
zer datorkidan gogora:  
ia pasatzen ez al naiz ari  
ni udaberriko lora?  
San Luisentzako zartu naiz eta  
urtiak dijoaz gora,  
alako batez jua n nai nuke  
San Frantziskoren ondora.

*Uzt.-*

Mundu onetan etortzen dira  
zerbait pentsatu biarrak,  
denbora juanda gastatzen dira,  
bai, gorputzeko indarrak.  
Poz aundirikan ez du izaten  
zartuta gizon bakarrak,  
bi santutatik bat aukeratu,  
biak e ez dira txarrak.

*Laz.-*

Bi santu oiek maitatutzia  
da nere gogo zabala,  
ori betetzen beti izan naiz  
zintzua eta leiala.  
Baña batengan jua biar det  
iñoiz iñundik al dala,  
pentsatzen nago San Luis ia  
nerekin aspertu dala.

**ESANA LIBRE**

Usurbil, Santuene auzoa, 1963-VIII-4.  
Lazkao-Txiki eta Mitxelena.  
Bazkalondoko saioa.

*Mit.-*

Nonbaitetikan eman ber zaio  
bertsoetako asiai,  
eta guk ere mesede degu  
lanari garaiz eutsiai.  
Lazkao-Txiki i're al badek  
arrazoi onez jeiki ai,  
asierako esanez emen  
arratsaldeon guztiai.

*Laz.-*

Gure Mitxelena etorri zaigu  
tristia eta motela,  
animosua nunbait etzegen  
onek jan duen otela.  
Nik e agurra ein nai dizutet  
len Mitxelenak bezela,  
ongi etorri ta arratsaldeon  
Jaungoikoak dizutela.

*Mit.-*

Nik ez det ainbat beartu bañan  
entzun dezute orrena,  
onek esan du motel samarra  
gaur onuntza natorrena.  
Otel txarrian bete dedala  
dio ba nere barrena,  
emen denboraz ikusiko da  
nor geraden bizkorrena.

*Laz.-*

Lazkao-Txiki orain e dago  
oso umore onean,  
au ezta austen oso errex  
tenplian jartzen danean.  
Ta Mitxelena etorri zaigu  
erarik tontoenean,  
mejora asko eztu ekarri  
siesta ondorenean.

*Mit.-*

Ik ez dadukak leporik eta  
ez daukak gorputz eokirik,  
ez dezakela emen bertsotan,  
motell, gaur jo arrokeirik.  
Begiratuta alde batian  
ez dek gauza geiegirik,  
eta alare besterei burla  
ein nai lioke oraindik.

*Laz.-*

Mitxelenari asma nai diot  
lenago zuen kakua,  
gazte denboran au etzan izan  
ni baña geiagokua.  
Mutil luze ta igar xamarra  
Laxkanoren antzekua,  
soldadu egon intzan orduan  
ez intzan orrelakua.

Mit.-

Soldaduskara joan nitzanian  
eniñun onen gizona,  
orduan ere kilo batzuek  
baiuen ba Mitxelena,  
larogeta eta amarrekuan  
errazki pasa oi zena,  
ta pisu oi dek ire denboran  
i iritxiko ez aizena.

Laz.-

Nere laguna, zu pixuetan  
gazterik ziñaden io,  
nik zerbait esan nezake orri  
begiratuko banio.  
Lenago sobre zitun da gaur e  
oni sobratzen zaizkio,  
pixu alperrak gure lurretan  
ez du batere balio.

Mit.-

Pixu alperrai zuk dakizuna  
artu liteke tamaña,  
itxura duan gizonarekin  
iñoiz ez laike engaña.  
Zuk badakizu ni nagoala  
bai aski gizon bikaña,  
ni flakatzia errazago da  
bera gizentzia baña.

Laz.-

Ni gizentzea gauza zalla da,  
au argaltzea okerra,  
bion artean arma liteke  
emen egundoko gerra.  
Baña zu ere baserri bate-  
rako etzaude ederra,  
zokor aundiak zabaldutzeko  
ai zer nolako alperra!

Mit.-

Bai al dakizu zer pentsatuta  
erantzun bear dedan nik?  
Esan litake zuk ez dezula  
soro zabaleko lurrik;  
Lazkao-Txiki baldin bagendu  
konparazio zokorrik,  
au apurtzeko ez ukek noski  
alper aundian bearrik.

Laz.-

Mitxelenaren esanik ezin  
aditu agidarian,  
nekazaritzan ezin liteke  
artu gaurko egunian.  
Ain da alperra lan egiteko  
dagon giro onenian,  
ta zer zuluak eingo lituzken  
ebia ari danian!

Mit.-

Ik besterenak esaten dituk  
ondo eure iritxiko,  
nork bereakin konforma bear,  
ez gaude komenentziko.  
Euritan ere lokatz aundirik  
zuri etzaizu erantsiko,  
onek lur berrian gañian e  
ez luke markik utziko.

Laz.-

Nekazaria omen genduen  
guk Mitxelena antziña,  
berak ez digu aitortzen baña  
alaxen nago jakiña.  
Ez omen degu zenbait ainbeste  
lanian lerra egiña,  
oraindikan an segiko zendun  
txintxua izan baziña.

Mit.-

Nai ez duana esaten dunak  
nai duna oi du entzuten,  
da onekin e zer gertatu dan  
emen jakingo etzuten.  
An baserrian maiorazko bat  
uste ortan izan zuten,  
langille ona zalako bera  
arriba etxeratu zuten.

Laz.-

Nere lagunak, gustatzen al da  
Mitxelenan abelera?  
Onen bizitza ere badakit  
emen gutxi gora-bera.  
Len lotsa pixkat bazenduen da  
gaur geina botia zera,  
parragarri geitu bear dezu  
esaten asten bagera.

Mit.-

Zuk badakizu gezurra ez dala  
nik kantatu detena oi,  
zure etxian merezi zendun  
artutzea zenbait jipoi.  
Kalera etorritzen zan bizkor da  
etxera joaten zan doi-doi,  
oain arriba du etxekoandre  
ta bera egoten da morroi.

Laz.-

Ni iñoiz ere enaiz izandu  
mixeri txar orren zale,  
len Mitxelenak bota du eta  
nik botako diot dale.  
Gaurko onetan jaurtitzen baidu  
tokatz'eztan zenbait ale,  
gaur Mitxelena bizi omen da  
ez basarri ta ez kale.

Mit.-

Gauz izan ezak etzaidak neri  
bate gorputzik damuan,  
sekulan enak nere sorora,  
motell, atxurrakin juan.  
Geren denboran bizitu gaituk  
gu baserritik kanpuan,  
arrebik etzan nagusituko  
baldin eduki banuan.

Laz.-

Gaur Mitxelena emen ari da  
Laxkanokin zapuztuta,  
nunbait nai zitun sentimentuak  
publikuetan ustuta.  
Baña ni ere esangai danak  
oaindik ez nago aztuta,  
au ez kale ta ez baserrikoa  
ondorengorik ezta ta.

Mit.-

Beida zazute: gure Lazkano  
utzi det erdi totela;  
egi aundin bat esan omen iot  
neronek ez dakitela.  
Beida zazute gezurrarekin  
egia sortu laikela,  
nik e zerbait e asmatu noizbait  
bertsotan ari naizela.

Laz.-

Berak botatzen dizkit onek ta  
nik bota bearko dale,  
gañera ez naiz izan izandu  
ni egi au esan zale.  
Bañan etortzen diradenian  
amaika olako ale,  
estraperlorik ez baldin balu  
ez basarri ta ez kale.

*Mit.-*

Aizak, Lazkano, emen bazaudek  
era askotako langintzak,  
ori ain gauza sagradokua  
dala ik aurrez jakin zak.  
Erropa berde duten gizonak  
inguruan baizebiltzak,  
oiek ez ttuk euskaldunak baño  
beti kontuz itzezin zak.

*Laz.-*

Mitxelena're konturatu da  
erropa berde dutena,  
gauzak aurrera omen dijuaz  
juan zan urtetik aurtena.  
Emen zeintzu da politketan  
kanpora xamar irtena?  
Iñor arrapatu nai badute  
lenbiziko Mitxelena.



Lazkao-Txiki, txapelketa baten ondoren, bi adiskiderekin.

## TXIRRITAREN OMENEZ

Ereñozu, Ernani, 1963-X-20.

Txirritaren irudia bere jaiotetxearen ondoan eraiki zan eguna. Bazkalondoa. Uztapide, Basarri, Ernani-Txikia, Arozamena, Etxeberria eta Lazkao-Txiki.

*Uzt.-*

Esan digute bertso kantari  
ez ote geran asiko,  
nik agindua kunplitu gabe  
al badet ez det utziko,  
bestela pena izango nuke  
nere denbora guziko.  
Esango'et janak on ein daiela  
danari lendabiziko.

*Bas.-*

Bat asi da ta besteak ere  
egin bear bere lanak,  
aditutzeko arreta biziz  
nola zaudeten or danak.  
Manuel zarrak arrazoi sakon  
batzuk baditu emanak,  
gaurko janak on egin dezala  
eta gaitzik ez edanak.

*Ern.-*

Len oiek biak kantatu dute,  
txanda etorri zait neri,  
agindu naute eta jarraitu  
bearko diot lanari.  
Len beste biak goraltzak eman  
eraria ta janari,  
nik auxe eskatuzten det, bai, on  
egin deiela danari.

*Aro.-*

Aspalditikan kantatutzeko  
kemen neukan barrenian,  
nik e nerea aitortu bear  
ontaratu geranian.  
Pozaz beterik ementxe nago  
gaurko laguntasunian,  
egun eder bat igarotzeko  
Txirritaren izenian.

*Etx.-*

Ainbat euskaldun bildu gerade  
gustoko kabi batea,  
eta nik nai det danaren aurren  
gauzak garbi esatea.  
Txirrita zanai bultzatze'ioгу  
zeruetako atea,  
nai nuke arek izan dezala  
zeruko glori betea.

*Laz.-*

Txirrita zana alderdi ontan  
ibillia da lenago,  
emengo zarrak badakizute,  
esan biarrik eztago.  
Berriro ere bera goraltzen  
ni pozik eta prest nago,  
bazkaltzen ez da maiean bañan  
gaur ere gurekin dago.



*Uzt.-*

Gogoratutzen asia nago  
Lazkaon esanetikan,  
gaur oroimenak ditu Txirritak  
alderdi onetatikan.  
Urte batzuek aldegiñikan  
gure aldamenetikan,  
Urumea erreka tristetu egin da  
Txirrita il zanetikan.

*Bas.-*

Txirrita zana bere denboran  
izandu zan baztertua,  
zar eta gazte aitortu zugun  
egindako pekatua.  
Urte gutxian ainbesteraño  
aldatu zaigu mundua,  
bertsolariak aintzat artzeko  
iritxia da ordua.

*Ern.-*

Bein bear eta egi jator bat  
kantatu digu Baserrik,  
ainbeste balio zun gizona  
egoten zan bazterturik.  
Euskal-Erriko erri danetan  
txalo gogorak arturik,  
bañan alare gizarajoa  
jateko ezin sorturik.

*Aro.-*

Neonek enun ikusi baña  
jakinda nago bestetik  
gaitza txar batek eraman zula  
ibillitzen zan mundutik.  
Gaizkitu eta ekarri zuten  
auzoko plaza batetik,  
eriotzian pasa omen zan  
bera jaio zan etxetik.(1)

*Etx.-*

Orra, Txirrita, gertatu zaizu  
makiña bat diferentzi,  
gizona ezin leiteke, jaunak,  
nai baño geiago bizi.  
Zure penetan emen gabiltza,  
ez al gaituzu ikusi?  
Ordun jantzita lutozko trajeik  
oraindik ez deu erantzi.

*Laz.-*

Gaur ikusi degu nun jaio zan,  
ta jaio omen zan antxe;  
gaur erdi eroririkan dago,  
len izan omen zan etxe.  
Erdi erori ta untzaren mende  
gaur illikan zaude, Latxe,  
gaur omen eta goratzen degun  
gizon ori bezelaxe.

*Uzt.-*

Gaur entzun degu nola ziñaden  
Latxe zarrean jaiua,  
untzak itxirik ikusten da gaur  
zure kuartoko leiua.  
Urumeako erreka ortan  
sortu zan gizongai ua,  
nerekin egin zendun. Txirrita,  
zuk atzen bertso-saiua.

*Bas.-*

Aitamen on bat eman deiogun  
maian dagon jaun bateri,  
orretzaz ere denbora gutxi  
esan nezazke bi egi.  
Txirrita ondo atera dezu  
nola gorputz ta arpegi,  
merezi du ta txalo bero bat  
orra, Jose Lopetegi.(2)

*Ern.-*

Lopetegiri botako diot  
 nik Basarrirek bezela,  
 arriarekin ola eiteko  
 etzera langin txepela.  
 Orrek egin du arpegi dana  
 bera zan bezel-bezela,  
 ta nei linguak iruitu zaizkit  
 belarrrik eta txapela.

*Aro.-*

Ogei ta zazpi urte dirade  
 juan ziñala mundutik,  
 eske goxo bat egingo dizut  
 neure biotzan barrutik.  
 Maitetasuna beti izan det  
 Lujanbio zanangatik,  
 eriotzian otseingo dizut  
 arkitzen naizen lekutik.

*Etx.-*

Ai, Lopetegi, izango zera  
 gizon bat zoragarria,  
 lanean paregabekoa ta  
 burubidetan argia.  
 Baserrik eta Paulok esan du  
 Txirritan gorputz erdia,  
 nik len bezela ikusi dizkat  
 petxua eta gerria.

*Laz.-*

Txirrita zana arrian dago  
 oso ongi eta noble,  
 erretratotik ezautu degu  
 beste iñork ez esanda're.  
 Bañan gauza bat dago ain txarra,  
 ni ezin naiz egin jabe:  
 Txirrita zana zertako egin  
 sagardo upel bat gabe?

*Uzt.-*

Latxe aldean or izan gera  
 danok Ernaniko mugan,  
 da, Lopetegi, Txirritarekin  
 ipiñia nazu dudan.  
 Nik pentsatu det: an egongo da  
 udaran eta neguan.  
 Jakin al leike Lopetegi onek  
 abildade ori nun duan?

*Bas.-*

Lazkaok akats txiki bat zeukan:  
 or kupelikan etzala;  
 nik pentsatzen det artarañoko  
 pekatu astun bat eztala.  
 Guk esan degu eskultorea  
 Jose Lopetegi dala,  
 .....  
 .....(3)

(1) Txirritak Goizuetan izan zuan atakea. "Auzoko plaza" artatik bera bizi zan etxera ekarri zuten. Altzako Gazteluenera. Bidean zeramatela, beraz, "bera jaio zan etxetik" pasa zan: Latze-zar baserriaren ondotik. Andik iru bat egunera il zan.

(2) Jose Lopetegi, Txirritaren irudiaren egillea.

(3) Lerro auek ezin zintatik ulertu.

## AMERIKETARA

Lesaka, 1964-II.

Gaia: Baserri batean bizi dira aita ta seme bakarrik. Ta semeak aitari erraten dio Ameriketara joateko gogoia duela. Aita, Arozamena; ta semea, Lazkao-Txiki.

Aro.-

Seme maitea, egin nai dezu  
Ameriketâ bisita,  
zure idia bete naiean  
orain alderdi guzitâ;  
an e guzia ona ez dala  
egon zaitia etsita,  
nola demontre juan biar dezu  
aita bakarrik utzita?

Laz.-

Gure lur txar au nola daukagun  
pentsatu zazu lenbizi,  
zu buru gogor antxean zaude,  
nai dizut adierazi:  
guk emengo bizitza besterik  
iñork ez degu ikasi,  
ez al da obe biak aldrebes  
bañan bat obeki bizi?

Aro.-

Lengo batian bestek esanda  
kanpotikan jakin nuan  
nai zendukela Ameriketan  
artalde baten onduan;  
seme maitea, eduki zazu  
lengo esaera buruan:  
aita bat bakarrik daukazula  
bizi zeraden munduan.

Laz.-

Zu zaitut, zu, ai!, zu zaitut aita  
ta ni naiz zure landare,  
orren gaiztoa naizelakoan  
zure semia al zaude?  
Geio sinistatu dezakezun  
esango dizut au ere:  
nere aitangana ez naiz aztuko  
Amerikara juanda're.

Aro.-

Aitan esana biotzetikan  
orain dezu ikasiko,  
gurasuaren bete biarra  
auxen da lendabiziko;  
bestela mundua onetan nik  
zu etziñudan aziko,  
an gaixotutzen baldin bazera  
aita ez dezu ikusiko.

Laz.-

O, nere aita, zuk dezun pena  
nai det biotzetikan ken,  
zure semea zu maitatutzen  
nunaitan dabil nabarmen;  
barka zaidazu Amerikara  
baldin banijua aurten,  
aberastuta etorriko naiz  
zu emendik juan baño len.



Ordizia, 1964, irailleko festetan. Ezkerretik: Basarri, Lazkao-Txiki eta Joxe Lizaso.

## AMA ETA SEME JAIO BERRIA

Tolosa, 1964-XII-13.

Gipuzkoako txapelketaren azken saioa.

Gaia: Zu, lztueta, izango zera zeure seme jaio berriari bularra ematen ari zeran ama bat. Eta zu, Etxeberria, seme jaio berri ori.

*Laz.-*

Zorionean ara gertatu  
lur ontan gertatzekoa,  
ara seme bat jaio berria  
aita t'aman antzekoa.  
Maite zaitugu eta ez zera  
bazterrera uztekoa,  
negarrik gabe lo egin zazu,  
semetxo biotzekoa.

*Etx.-*

Aizazu, ama, ez zaitez asi  
itz goxoakin luzitzen,  
semea emen jarrita dago,  
gaiñera asko sufritzen.  
Negar sailletan sartua nago,  
ez zait gauz ori ondo iruitzen,  
nola naguen goseak eta  
ez baizait lorik etortzen.

*Laz.-*

Baiña, semetxo, eskatzen dizut  
pixka bateko pakia,  
zu zera nere biotza eta  
nere barneko zatia.  
Zuregan utsa utzitzen det nik  
geroaren izatia,  
apur batian itxaron zazu,  
emango dizut titia.

*Etx.-*

Aizazu, ama, badezu pranko  
arrazoi umil ertena,  
baiña segitun aitortuko'izut  
emen gertatzen zaitena.  
Zure titia lenago ere  
tiraka daukat etena,  
bidali nazu al dan azkarren  
ardi zar eder batena.

*Laz.-*

Daukatanetik ematen dizut,  
zertan ordaindu ainbat pena?  
Biotzetikan nai dizutela  
eduki sinistamena.  
Nere barnean lenengo sortu,  
bularra eman urrena,  
semetxo, egiten ari naiz zugar  
ordainduko ez dezuena.

*Etx.-*

Begira nago ordurik ordu  
eta ari da txikitzen,  
titirik onek bistan daukanik  
zeiñek dute ikusitzen?  
Erronka pranko jendian aurren  
eta semia sufritzen,  
penitentzia ederki asko  
emen ari naiz kunplitzen.

**MINBIZIDUNA, MEDIKUA ETA ENPLASTEROA**

Bilbao, 1964-XII-20.

Gaia: Narbarte, minbizia duen gaixoa; Xalbador, medikua; eta Lazkao-Txiki, enplasteroa.

*Nar.-*

Gaixo txiki au aстера dio  
egi batzuak esaten,  
gu bezelako pobriak ez du  
suerte onik izaten;  
mainguturikan zuengana nator  
medikuk nola zeraten,  
besteñekuan ilko naiz laister,  
ia sendatzen nauzuten.

*Xal.-*

Ni naiz zure zerbitzari eta  
zu zaitut ene nausia,  
gaixo zaudela zuhaurek lehen  
dautazu erakutsia;  
gure Jainkoak ematen badaut  
zure artatzen grazia,  
desiro dautzut, Narbarte gaixo,  
ixtaño baten bizia.

*Laz.-*

Gure Jainkoak etziken eman  
zenbaiteri ainbat grazi,  
nunbait suertia beingo juan uken  
iregandikan igesi.  
Bañan bisita ik zertarako  
medikuari lenbizi?  
Enplasteroarengana ator  
luzaro nai badek bizi.

*Nar.-*

Egun ardi ta bi bei bikañak  
nik badauzkat oraindikan,  
etxian berriz beñe ez daukat  
urre ta zillar faltikan;  
miñeri txar bat sartu zait eta  
laister juan biar mundutikan,  
ordaindu gabe ez det utziko  
ni sendatutzen naunikan.

*Xal.-*

Negarrez, otoi, ez has, Narbarte,  
etsitu baten moduan,  
konfidentzia hartu behauzu  
zure gaixo medikuan;  
Iztueta onek gauza on batzuk  
sartzen baitu enplastuan,  
ta enplastua jartzen ezpadu  
minik ez dagon lekuan.

*Laz.-*

Mediku oen esan guztiak  
sinistatzen ez aritu,  
botikario zelebre oiek  
bere lagunak baiditu.  
Enplasteroak ez ote dauka  
oek ainbeste meritu,  
oek eziñik utzitakoak  
sendatzen baldin baditu?

*Nar.-*

Medikua ta enplasteroa  
badirate kutizia,  
neronek ere aitortuko det  
burutan duten guzia:  
neure partetik izan zazute  
urte askotako bizia,  
eta eriotzeko orduan  
zeruratzeko grazia.

*Xal.-*

Nundik heldu den, Narbarte ona,  
zure gaitzaren hazia,  
aski denboran miatu eta  
oraitxe dut ikasia:  
ez pentsa gero ezergatikan  
daukazula minbizia,  
sobera edan dezuke hor ta  
hartarik dago guzia.

*Laz.-*

O, gaixo maite, enplasteroak  
garbi nai lizuke aitor:  
zuk dadukazun gaitz zital ori  
sendatuko dizut jator.  
Medikuaren botika oiekin  
zertarako zabilta or?  
Kimikatikan ez dago ezer  
belarretik ez badator.

**BAIMENIK GABEKO EGURRA**

Donostia, 1965-I-1.

Bertsolari-txapelketa nagusia.

Gaia: ofizioa emango diegu orain: Lazkao-Txiki izango da baso-zaitzalea, mendiko guarda: eta Xalbador, berriz, guardaren baimenik gabe arbolak botatzen ari dan baserritarra,

*Laz.-*

O, mendizale nere laguna,  
etзера portatzen jator,  
zeure kasako libertadea  
ekarri dezu derrior.  
Ez al dakizu egun guztian  
baso-zai naguela or?  
Permiso gabe egurrak mozten  
zertan zabilta, Xalbador?

*Xal.-*

Permisioa eskatu nizun,  
oroit dut nik egun hura,  
bainan zuhaure aldetik beti  
baitzabilta zu ardura,  
ene galdea entzun eta zuk  
zimurtu duzu sudurra;  
nik familia berotzekotan  
nunbaitik behaut egurra.

*Laz.-*

Lagun Xalbador, nere esanez  
arren etzaitez atzendu,  
baimenik gabe dabillen batek  
nun-nai ere ondatzen du.  
Nik pobre bati ez nioke nai  
etxeke ogirik kendu,  
oinbat fabore egingo nizun  
eskatu baldin bazendu.

*Xal.-*

Eskatu nizun nola hortan zuk  
baiteraukazun almena,  
bainan zuk ere ez duzu egiten  
manatua zautzuz dena.  
Eta gero hor zerbitzatu  
beharretan ez dagoena,  
batere beharrik eztaukanari  
ematen duzu baimena.

*Laz.-*

Bañan, Xalbador, etzaitezela  
litzarkerietan ari,  
neri ogia kentzeko bide  
txar bat nola dezun ori.  
Pentsatu zazu: ortik ez daukat  
ez premio ta ez sari;  
eta debalde gero egurra  
orrela dabillenari.

*Xal.-*

Biguintasunik ez duela dakit  
guarda jaun hunen bihotzak,  
gero bazterretik izitzen  
gaituela hunen bozak.  
Ni bezelako miserableai  
zendako erakutsi hortzak?  
Egurrik eiten ezpadugu guk  
denak hilen gaitu hotzak.



## LAU ANAI

Donostia, 1965-I-1.

Bertsolari-txapelketa nagusia.

Gaia: Gipuzkoako erri txiki bateko larogei urteko senar-emazte baserritar batzuek lau seme dituzte: zarrena, apaiza da; bigarrena, tratalaria; irugarrena, filarmonika-jotzallea; ta laugarrena, nekazaria. Apaiza, tratalaria ta filarmonika-jotzallea Donostian bizi dira; eta nekazaria, berriz, bere gurasoekin baserrian. Baña nekazariak ere baserriko lan gogorrakin aspertu dala eta Donostira bizitzera etorri bear duala dio. Lau senideak bildu dira gaur emen, eta jardunean ari dira, erabaki eziñik gurasoekin eta baserriarekin zer egin. Xalbador da apaiza; Lazkao-Txiki, tratalaria; Mattin, filarmonika-jotzallea; eta Mitxelena, nekazaria.

*Xal.-*

Basarri hori salba dadien  
zerbaiten beharra badu,  
seme guziak ezin ordea  
lan egiteko izandu.  
Saia, anaiak, hantxet lanean  
etxia ez dadin galdu,  
nik elizatik ingo zaituztet  
ene otoitzaz lagundu.

*Laz.-*

Gure baserri maitagarria  
maite izan degu beti,  
gu Donostian biziagaitik  
ikusitakoa nai degu zuti.  
Nik e laguntza pozikan egin  
nezake nere parteti,  
aita ta amai laguntzearren  
tratoko irabaziti.

*Mat.-*

Geure familia maitagarriak  
lau seme pulit baditu,  
soinulari itia obe zela  
neri zautan iduritu.  
Ta oi zertako? Nere amak ere  
soñua maite baitu,  
il-kanpana baño naio du  
filarmonika aditu.

*Mit.-*

Bat apaiza da kale aldean  
jende gaixtua ontzeko,  
eta bestia tratalaria  
ditunai sosak kentzeko.  
Irugarrena soñua jota  
mundua engañatzeko,  
ai zer nolako irukua dan  
etxiai lagundutzeko!

*Xal.-*

Anai hauk ez ditut nik jetxiko,  
 orai jarri naiz etsita,  
 asteen behin egiten dute  
 baserri hortan bisita.  
 Nola etxia galtzen ari den  
 penarekin ikusita,  
 nihaur banoa harat lanera  
 sotana hortxet utzita.

*Laz.-*

Tratalariak zer sufritzen dun  
 aitortuko det aizkenik:  
 nekazaria beti eskian,  
 besteak oi egiten dik;  
 eta apaizak eskatuko dit,  
 or ez dago zer esanik;  
 ta aizkenean oen akatsak  
 beti pagatzen ditut nik.

*Mat.-*

Aita ta amaren ondotikan ni  
 partitu nintzan ondarrik,  
 baserrian lan egiteko  
 ezpaineuraukan indarririk.  
 Bainan biziak alaitasuna  
 ere pixka bat bear dik,  
 zorionik ez duk izaten  
 lanaekilan bakarrik.

*Mit.-*

Auen iruren karrera zer dan  
 nai al zenduteke jakin?  
 Ni bakarrikan or aritzen naiz  
 baserrian gogor da pin.  
 Auek joan da gurasoari  
 lore ederrez itzegin,  
 da billatze'idan puskik onenak  
 jan da berriro aldegin.

*Xal.-*

Zuek irurak maiz baserrira  
 zatozte lan egitera,  
 hazi zaituzten tokiarentzat  
 ez al zaizute sobera!  
 Familiako segida ona,  
 otoi, ez utzi galtzera,  
 etxe hortatik bear ginuke  
 bertze apez bat atera.

*Laz.-*

Baserrikoak kalera nai du,  
 bestea lanetik izu,  
 o, tratantea, zer eiten dezun  
 zeorrek bakarrik dakizu.  
 Abade anai, al dan ongien  
 konpon gaitezen ni ta zu,  
 nere tratoko tranpa pixarrak  
 barkatu bear dirazu.

*Mat.-*

Geure familia hau dagon baiñon  
 alaiagoak nun dira?  
 Ama zarra're azkar etortzen  
 baita ba gure erdira.  
 Begi-kolpian hantxet jartzen da  
 beti Mattini begira,  
 filarmonika jotzen badet nik  
 denak dantzan hasten dira.

*Mit.-*

Gue baserria lagunik gabe  
 daukagu lurpera juna,  
 iru anaikin kontaktzen det da  
 bat bakarrik ez laguna.  
 Bai apaiza ta bai tratolari  
 ta berdin soñuba duna,  
 nik nai nuke ba oiek utzita  
 atxurak astintze'ituna.



Donostia, Bertsolari-txapelketa nagusia, 1965-I-1.  
Ezkerretik: Lazkao-Txiki, Uztapide, Alfontso Irigoien, gai jartzaillea.



Donostia, Bertsolari-txapelketa nagusia, 1965-I-1.  
Bertsolariak: Arozamena, Mugartegi, Lazkao-Txiki,  
Lopategi, Uztapide, Xalbador eta Mitxelena.



Donostia, Bertsolari-txapelketa nagusia, 1965-I-1.  
Lazkao-Txiki eta Alfontso Irigoien bertso-jartzaillea.



Donostia, Bertsolari-txapelketa nagusia, 1965-I-1.  
Lazkao-Txiki eta Antonio Arrue euskaltzaiña.

## URRUTIKO INTXAURRAK

Donostia, 1965-I-1.

Bertsolari-txapelketa nagusia.

Gaia: biok langilleak zerate, ta Alemaniarra joateko atera zaizute kontrato on bat. Emen baiño bost aldiz gelagoko jornala eskeintzen dizuete. Xalbador, zu Alemanira zoaz; baiña, Lazkao-Txiki, zuk naiago dezu emen segitu, gutxiago irabazita ere.

*Xal.-*

Oi, Jose Migel, entzun nezazu,  
estura haunditan nago,  
holakorikan gerta ezpalitz  
askotaz nuen naiago.  
Alemanira lan egitera  
orain baitut joan-gogo,  
irabaziak han omen daude  
bortz alditan haundiago.

*Laz.-*

Nere laguna, ibilli zaitetz  
anaikiro eta legez,  
irabazien ots berri oiek  
zabaldu ziraden aurrez.  
Ez al zerade eskarmentatu  
zu urrutiko intxaurrez?  
Joan bitartean amalau dira  
ta joandakuan baterez.

*Xal.-*

Prueba txiki bat egin bidez nik  
ikusiko dut mundua,  
nik deraukatan esperantza ez da  
oraino ere galdua.  
Egon zaitte lasai zu, otoi,  
ez dut gaiduko burua,  
Euskal-Errian baliatuko dut  
han irabazi dirua.

*Laz.-*

Zeure gogua orrela bada  
o, nere laguna, segi,  
bañan an diran esperantzakin  
etzaitetz poztu geiegi.  
Euskal-Erriak beronek dauka  
landutzen oinbeste premi,  
emen ere izango dezu  
zuretzaiko ainbat ogi.

*Xal.-*

Aldatu behar halarik ere  
asiz gerotzikan lurrez,  
hemendik goiti abiatuko  
naiz harara buruz urez.  
Zer nahi duzu? Ni ere gose  
gizon-galgarri den urrez,  
ta nihaur ere hementzet nago  
harek galtzeko beldurrez.

*Laz.-*

Ikusten dezu Alemanitik  
dagon diru-etorria,  
beraz oinbeste gustatzen zaizu  
zillarra eta urria.  
Erdiarekin bertan segitu  
ez al zenduke obia?  
Zure izerdia an ixurtzea  
ez al da penagarria?

## AITONA ETA BILLOBA

Donostia, 1965-I-1.

Bertsolari-txapelketa nagusia.

Gaia: Uztapide izango da larogei urteko aitona; eta Lazkao-Txiki, berriz, aitonaren billoba. Emezortzi urte ditu onek, Lazkao-Txikik, eta estudiantea da. Aitonak Euskal-Erriko antziñako oitura garbiak goratuko ditu; ta billobak, berriz, gaurko aurrerapenak. Aitona asiko da.

*Uzt.-*

Aitonak eta billobak orain  
ditugu geren kantauak,  
estudiante guziak ere  
ez dira izaten santuak.  
Gaur moda asko dabilta,  
gero inpernuko giltza,  
artu arren komentauak,  
zein biretatik zoazen, billoba,  
ongi atera kontuak.

*Laz.-*

Aitona ona, ni ez nijua  
gaur zu ofenditutzero,  
nola zeraden guraso zar da  
maite dezuen euskera.  
Al degunikan zuzen  
zerbait mugi gaitezen  
ikasirikan karrera,  
beti lenian baldin bagaude  
ziaro ondatuak gera.

*Uzt.-*

Billoba, gauzak aitonak zuri  
jarriko'izkizu aukeran,  
gure oraingo bizimodua  
dago zuen goraberan.  
Artu moda berriak,  
galtzen dira erriak,  
zu zabilta orien eran,  
jakin nai nuke karrera artuta  
geo zer izandutzen zeran.

*Laz.-*

Badakizu zuk lengo lurrean  
guk bear degula bizi,  
bañan nai nuke atzera dagon  
lur maite au aurre erazi.  
Berriari ekiñik,  
lan pixka bat egiñik,  
makina onak erosi;  
lengo kontuan gaurko munduan  
ezin gindezeke bizi.

Uzt.-

Nere billoba, zure bertsua  
ez al zan aditzekoa?  
Ori usaia! Ematen zuan  
arrosa maiatzekoa.  
Bañan emen lekua  
dadukazu bapua,  
zeruaren antzekoa,  
gaurko mundua nola dan berriz  
gerokoa galtzekoa.

Laz.-

Ez dakit adelantu au degun  
gauza txarra edo ona,  
bañan pixkabanaka aldatzen  
nola dijoan gizona,  
lengo adelantuak  
dirade juandakuak,  
gaurkuak eztira broma;  
bañan alkar maitatu dezagun  
illoba eta aitona.



Lazkaoko *Esparru* alkartean egin zioten omenaldian, 1965-II-7-an.



## ARTZAI-MUTILLA ETA ARTZAIA

Beasain, 1965-I-24.

Lazkao-Txiki eta Uztapide.

Gaia: Lazkao-Txiki artzai-mutilla da; eta Uztapide, artzaia. Neguan artaldearekin biak kale aldean ibili dira. Artzai-mutillak, emengo irabazia ikusita, udaberrian ez du mendira joan nai.

*Laz.-*

Nagusia, ez dizut  
gauz txarrik tirako,  
baizik abertentzia  
beste baterako.  
Geio enaiz mendira  
zukin aterako,  
beste mutil bat billazu  
udaberrirako.

*Uzt.-*

Zugandik enun espero  
orrelako itzik;  
ez bazaitu poztutzen  
irabazi gutxik,  
nigandik ez zuaz bada  
oso esku utsik;  
kalean ez da zuk uste  
ainako laguntzik.

*Laz.-*

Garbi itzegiten dizut  
konturatu da ta,  
gaztetasunak geroa  
nola duen falta.  
Jornala ematen zidazun  
ogia ta gazta,  
biar bizitzeko ori  
nola ez dan basta.

*Uzt.-*

Kale aldeko lanak  
artu dituzu gai,  
artzantzari utzi ta  
aldegin ere bai.  
Nerekin bizi izan  
ziñan bada lasai,  
oraindik ere obe  
zendun segi artzai.

*Laz.-*

Onekin etzaitut triste  
utzi nai, nagusi,  
baña dirua irabazten  
nik nai nuke asi.  
Len ez didazu egin  
txit laguntza gutxi,  
agur, nagusi maite, ta  
ongi-ongi bizi.

*Uzt.-*

Ez didazu atera  
izketa lizuna,  
estimatutzen dizut  
esan didazuna.  
Arrazoi dezu eta  
saiatu al dezuna.  
Jaungoikuak emango  
al dizu osasuna!

**MORROIA ETA ETXEKOANDREA**

Beasain, 1965-I-24.

Basarri eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Basarri morroia da; eta Lazkao-Txiki, etxeakoandre alargun diruduna.

*Bas.-*

Etxekoandria daukat  
nik oso aparta,  
suertez biok ederki  
moldatzen gera ta.  
Gauza batek eiten dio  
morroiari palta:  
jasoko al didazu  
pixka bat soldata?

*Laz.-*

Len zorionez nitzan  
andre senarduna,  
ta zorigaitz txar batek  
kendu dit laguna.  
Morroia, au alibioa  
eman didazuna!  
Zuk konponduko dezu  
andre alarguna.

*Bas.-*

Jainkuak erabaki zun  
laguna kentzia,  
eta andre maitagarria  
bakar gelditzia.  
Nik pentsatu dedana  
soldata eskatzia,  
lotsatu egiten naiz  
zu pretenditzia.

*Laz.-*

Alargunai galdetzea  
ezta, morroi, falta;  
nik garbi esango diot  
bildurtutzen da ta.  
Eskeiñiko dizut, bai, nik  
dirutza galanta,  
etxean gelditzen baita  
emandako soldata.

*Bas.-*

Beraz mandatu egiten  
bearko det asi,  
burua makurtzen dizut  
ondo lendabizi.  
Ezkondu nai dan edo ez  
zerorrek ikusi,  
morroi baiño naiago det  
neuk ere nagusi.

*Laz.-*

Esan dezu entendi-  
tutzekoan aiña,  
zertarako dagoen,  
morroi, zure griña.  
Gero bazera leno  
ziñan bezin fiña,  
juntatu bear degu  
pareja bikaiña.

## APAIZA ETA TABERNARIA

Beasain, 1965-I-24.

Lazkao-Txiki eta Lasarte.

Gaia: Lazkao-Txiki apaiza izango da; eta Lasarte, erriko tabernaria. Parrandari buruz iruna bertso kantatuko dizkigute.

*Laz.-*

Nere laguna, bear diogu  
guk geure lanari eldu,  
eta nai dizut nere barrengo  
sentimentua azaldu.  
Ez badezu nai fedea eta  
errespeto ona galdu,  
tabernatikan len baiño leno  
jende gaiztoak bialdu.

*Las.-*

Apaiz prestua, zuk badakizu  
errespetoz alegintzen,  
itz egokia eman dezu ta  
orrekin ez nazu mintzen.  
Tabernariak erantzungo du  
buruz ez bada arintzen;  
ongi dakizu: apaizak ez du  
tabernan ezer agintzen.

*Laz.-*

Tabernaria, itzegingo'izut  
txit umil eta serio,  
zure etxeak animarentzat  
ez dauka erremerio.  
Alkol geiegi jendiai eman,  
gero bururaino io,  
zenbat anima galtzen ote da  
zu zeralako merio?

*Las.-*

Egin didazun ateraldia  
ezin nezake aztu nik,  
baiña orduan ez det desio  
olako erakustunik.  
Anima itxuran bustitze orrek  
al du pekatu astunik?  
Zeruan ezin liteke sartu  
bataiorikan eztunik.

*Laz.-*

Tabernaria, nere esana  
artu zaidazu onian,  
gure eleiza tabernak galdu-  
tzen du gaurko egunian.  
Pulpitotikan alperrikan gu  
ariko gera lanian,  
gorputzak ez du ezer balio  
anima galtzen danian.

*Las.-*

Errespetua beti litzake  
erriarentzat atsegin,  
pulpitutikan bear bezela  
bear dezute itzezin.  
Eta, apaiza, zuk eleizako  
lanak or itxuraz egin,  
zuek zabarrak zeratelako  
animik galdu ez dedin.



Lazkaoko *Esparru* alkarteak egindako omenaldi batean.  
Goien: Lazkao-Txiki eta Arozamena, Mitxelena, Agirre  
eta Garmendia bertsolariak; Felipe Barandiaran illoba  
eta adiskide batzuk, 1965-II-7-an.

## NOR ERRUDUN?

Beasain, 1965-I-24.

Gaia: Basarri, Uztapide eta Lasarte fabrikako sozioak dira. Lazkao-Txiki, fabrika orretako eskribientea edo kontablea. Fabrika oso gaizki omen dijoa. Nor ote da errudun?

*Bas.-*

Pentsatzen jarrita're  
martxa arraiua,  
amaika sufritzeko  
mundura jaiua.  
Norbaitek egiten digu  
guri aziua,  
oso gaizki dijua  
or negoziua.

*Uzt.-*

Autsi bearra dago  
nolabait frentiak,  
lautan ez dakit zein geran  
emen tunantiak.  
Lenago pasa ditugu  
egun dezentiak,  
izurratzen ote gaitu  
eskribientiak?

*Las.-*

Nagusiak baditugu  
naiko zer esanak,  
orain arte nola geran  
txuxenak izanak.  
Gero ingurukuak  
egindako lanak,  
eskribiente onek  
jaten ditu danak.

*Laz.-*

Nik dirurik fabrikatik  
bein e ez det eraman,  
eta ez dan gauzarikan  
etzazute esan.  
Iru nausiak dabil tza  
alkarrekin teman,  
ezer ez dagon fabrikan  
ezin liteke jan.

*Bas.-*

Eskribientiak orain  
esan du ordago,  
bidia jarri diogu  
berari lenago.  
Jan badu eta ez badu  
au txikia dago,  
irutako bat baziok  
oi baiño okerrago.

*Uzt.-*

Gure fabrikan gogor  
egiten da lana,  
len galdu det eskribiente  
txiki orren fama.  
Baiñan Basarri au ere  
ez da ona izana,  
gizen dago au eta  
asko xamar jana.

*Las.-*

Nagusitan Uztapide  
daukagu zarrena,  
au ere esan bear det  
al dan azkarrena:  
bildu geran laurotan  
zein dan alperrena  
ezin leike erabaki,  
au da okerrena.

*Laz.-*

Aitzaki danak neriak  
dirade orduan,  
naizta fabrika ibili  
onenan moduan.  
Famelia or daukat  
ezin mantenduan,  
beiratuta ezagun da  
zeiñek jaten duan.

*Bas.-*

Nabarmentzen dira emen  
zuri eta beltzak,  
zar onek ezautzen ditu  
fabrikaren ertzak.  
Bera errespetatzeko  
eman giñun itzak,  
Uztapidek daduzka  
kajoi danan giltzak.

*Uzt.-*

Neretzat ai dira auek  
estu eta presa,  
atzenarako datorkit  
kontu aldrebasa.  
Gure lanteiko txarrena  
lanik egin eza.  
gu izurratzen etziok,  
mutillak, erreza.

*Las.-*

Sozidadiak badakar  
amaika naigabe,  
era ontan ibiltzekoz  
asi ez ta obe.  
Auek irurak badira  
diruaren jabe,  
xoxik gabe ni nago  
dudarikan gabe.

*Laz.-*

Itzegiten dizutet,  
nagusiak, bare,  
ni nago gauza ortan  
kulparikan gabe.  
Irurok or zabiltzate  
joko ta kabare,  
ola gastatu liteke  
asko izanda're.

*Bas.-*

Ondatu gerala nago  
tankera ematen,  
egiten ez dan tokian  
lanik ez da jaten.  
Eskribientia artu  
gendun egun baten,  
ez dauka lan aundirik  
kontu eramaten.

*Uzt.-*

Danak emen gabiltza  
alkarri ujuka,  
eta disputerikan  
ez liteke buka.  
Etxe utsian beti  
txakurrak burruka,  
emen txarrenak eiten du  
bestiaren kulpa.

*Las.-*

Al duena egiten du  
pikaro bakoitzak,  
emen alperrik dira  
esandako itzak.  
Joxe Migel, ik dauzkak  
kajoiaren giltzak,  
al deken azkarrena  
entregatu itzak.

*Laz.-*

Eskribienteai zertan  
kulpa danak bota,  
ni ortan errurik gabe,  
Lasarte, nago ta?  
Fabrika aspalditxo  
dago kiebra jota,  
entregatuko dizut  
ezer ez dago ta.



Joxe Lizaso, Basarri eta Lazkao-Txiki bertsolariak.  
Foto Josetxo Marin, Ordizia, 1964 urtean.

## ANDREGAI BELTZA

Irun, 1965.

Gaia: Mitxelena ta Lazkao-Txiki erri bereko gizonak dira. Mitxelena, ordea, erriko alkatea; Iztueta, Afrikatik etorri dan soldadua, orainxe kunplitu. Lazkao-Txikik an, Melillan edo Zeutan, andregai beltz bat omen zeukan; da ango gobernadoreak bortxatu edo obligatu nai du, ez dakit zergatik, an duen amorioarekin ezkontzera. Onelako karta jaso du alkateak, Mitxelenak; eta Iztuetari jakin arazten dio.

*Mit.-*

I, Joxe Migel, bertso birekin  
nik artu nai aut gaur langan,  
ik badakik ba ie soldaduska  
zer parajetan juana dan;  
notizi txarrak zetoztek andik  
ta ezin diat eraman,  
jakin nai nikek zer okerbide  
eginda daukaken ik an.

*Laz.-*

Alkate jauna, nik ez det egin  
komeni ez dan lanikan,  
Afrika aldeko mora gazte bat  
engañatzea baizikan;  
ez dadukagu ezen okerrik  
zuk baimena emanikan,  
amorioan nola ez dan egon  
zuririk eta beltzikan.

*Mit.-*

Andik etorri zaigun kontua  
neukan nik esan bearra,  
txuria beltzaz lotutzia're  
ez dek ezkontza ederra;  
bañan pekatu egin ezkeroz  
sortu ez dedien gerra,  
ie pekatua tapatutzeko  
daukak ezkondu bearra.

*Laz.-*

Alkate jauna, ez dek nik jarri  
iñun, ez, oinbat endrero,  
baizikan mora beltz politakin  
asia naiz bero-bero.  
Ni txuria izan arren zertako  
arekin ez egon ero?  
Pekatu ori tapatu nai du  
denei kontatu ta gero.

*Mit.-*

Len bizi gera emen geratu  
diran belarrimotzakin,  
gure naigabe batzuak pasa-  
rikan gure biotzakin;  
oain bertsolari batek sartuko  
gaitu betiko gaitzakin,  
gure Lazkano ezkontzen bada  
Afrika aldeko beltzakin.

*Laz.-*

Alkate jauna, etzaitut gaizki  
zere errian utziko,  
oroitamen bat izango dezu  
zeure denbora guziko;  
bataiatu ta ezkondu eta  
ez naiz aldrebes biziko,  
kristau berri bat guk egitea  
ez da gaizki etorriko.



*Mit.-*

Ongi zer laiken esan litake  
ezkondu eta ondora,  
bañan al dakik zer pentsamentu  
datorren nere gogora?  
Ire eskutan artu nai badek  
Afrika aldeko mora,  
ire bizitzan jua intzake  
Euskal-Erritik kanpora.

*Laz.-*

Mora beltz ura sartu zitzaidan  
bein biotzaren erdira,  
orregaitikan arrezkerotik  
beti egiten dit dirdira.  
Galdetzen dizut; beltzak olako  
gorrotagarri al dira?  
Beltzak zertako beraz ez ekar  
ni jao nintzan tokira?

## OSABA-ILLOBAK

Lazkao, 1965-XII. Eguberri-egunetan, erriko jaialdi bateko tarte batean, Lazkao-Txikik eta bere illoba Felipe Barandiaranek kantatutako bertsoak.

*Fel.-*

Baiñan orri're gaurkoan beintzat  
erantzun nai nioke nik,  
zu sermolari ta ni entzule  
kristau bezela izanik.  
Baldin munduai eman nai baiou  
benetako zorionik,  
gaur bezela etzazu aitatu,  
ez, oiñetako ligarik.

*Laz.-*

Ara golpian zer esan gabe  
oraintxe naiz ni gelditu,  
ta liga ori pentsatutzian  
ote zerade arritu?  
Ori edozein dendako andre  
noiznaitan saldutzen ditu,  
gaizki artu duen pertsona arek  
kulpa guztiak ark ditu.

*Fel.-*

Atzetikan zai daude eta  
ixildu bearko degu,  
irten gabetan ez gelditzearren  
gaur gerade agertu.  
Nere osaba pikaro au're  
ementxe daukagu gertu,  
andregairikan ez dauka eta  
orain praille nai du sartu.

*Laz.-*

Nere illobai sortzen zaizkio  
amaika atarramentu,  
gaztia baiña ortan badauka  
nik ainbeste eskarmentu.  
Eta nonbait e izango al da  
neretzat ainbat konbentu,  
ni zerbait egin bearrean naiz,  
ola enabil kontentu.

*Fel.-*

Azkenik orruntz irixterikan  
zuk etzenduen espero,  
ara zer gauzak gertatzen diran  
urteak juan ezkeru.  
Praille kontua nei aitatzen dit  
onek ia egunero,  
baiñan gaizki oituta dago ta  
onekin ez dago giro.

*Laz.-*

Jarri zaitetze nere ondoko  
illoba oni begira,  
ematen duen eztenkada edo  
ematen duen segira.  
Zartu naizela golpe batian  
kantatu dit arpegira,  
oinbeste urte nik enitukun  
urtiak juan balira.

*Fel.-*

Urtiak emen daduzkazuen  
itxura aundirik ez dezu,  
urte ta guzi eta oraindik  
bulto txikikoa zera zu.  
Aundiak entzun bildur bazera  
laister moztu beariko degu,  
bestiak ere zai daude eta  
emendik bagoazke gu.

*Laz.-*

Oraindik geio ere badaude  
gauz asko kantatzekoak,  
eta guk egin beariko'itugu  
oraingoaz emengoak.  
Ta gero arte esaten dizuet,  
aurreko ta atzekoak;  
bertsolarien partetik agur,  
entzule biotzekoak.



Lazkaon, 1950 urteko Iñauterietan.

## ITZ-BIDEAK

Ataungo Aia, 1966-II-12.

Lazkao-Txiki ango jende zaarraren ondoan zan. Lasarte, berriz, apaizen eta estudianteen ondoan.

*Laz.-*

Bildurra dago estudiantek  
artuko ote dun puntua,  
izan e oiek asko zekitek  
ta eduki zak kontua.  
Beste aldetik or dadukak ik  
egizko fundamentua,  
gaizkixego itzeginda're  
badek zeñek barkatua.

*Las.-*

Pekaturikan ez det egiten,  
ni naiz beti legezkoa;  
zuzentasuna, zeuk dakizuna,  
bear baida berezkua.  
Eta ez daukat zertan arturik  
nik bide aldrebeskoa,  
goardi ona daukat onduan  
Jainkoaren ordezkua.

*Laz.-*

Enian uste, lagun, oinbeste  
intzanikan bildurtuko,  
oien onduan jarrita're ik  
ez dekala ukatuko.  
Ez dakinari erakustia  
ez dek izan pekatuko,  
bildurrik gabe ari inteke,  
ez aute gaizki artuko.

*Las.-*

Nik erantzuna emango dizut  
nere izketa xamurrez,  
esan liteke neri bertso au  
sortu ote zaidan aurrez.  
Oraindikan e gogoratzen naiz  
gizatasun eta lurrez,  
gauza askotxo uzten ditut nik  
pekatu egin bildurrez.

*Laz.-*

Esan naiean gauzak ik ere  
gordetzen dituk txokuan,  
lasaitasunez bota bear dituk  
etortzen bazaik goguan.  
Ok bazekitek pekatariak  
danok gerala munduan,  
bildurrik gabe ari gintezke  
gu apaizaren onduan.

*Las.-*

Nik barkamena osua daukat  
berak eskutik eltzian,  
baiña don Juan ikusitzen det  
franko kopeta beltzian.  
Lenago ere pentsatzen nuen  
gure kontuak zer zian,  
oraintxe galdez astera nua  
txuletak erre al zian.

Laz.-

Nere anaiak, ez gaitzela  
izan zabar da errezak,  
utzi ditzagun mundu ontako  
arrapatzeko ametsak.  
Baiña batzuek bertso oetxek  
diote dirala gezak,  
gai onetatik ixildutzeko  
kiñu egin dit apezak.

Las.-

Lenago ere ikusi degu  
amaika onelako mai;  
oker ai gera, Lasartek ez du  
salto egingo nolana.  
Zuen gustua egitearren  
ni juango naiz noranai,  
baiña anima zeruratzetik  
apaizak ez ote du nai?

Laz.-

Ustez botatzen gu asi giñan  
oso sermoi txit mardula;  
nik fediakin itzegiten nun,  
ezin nuen disimula.  
Baiña don Juanek ortikan laister  
egin du baju eztula,  
antzeman diot kiñu orrekin  
guk ainbat fede eztula.

Las.-

Gu eleizara sartuak gera  
ta ez dira gure lanak,  
bigurri xamar ote gabiltzan  
konturatu dira danak.  
Iruditzen zait baxtar onetan  
ote ditugun esanak  
bezperatikan, gure don Juanek  
ustez biarko zeuzkanak.

Laz.-

Beste bertso bat astera nua  
umil da baju-bajuan,  
antzeman edo pentsatuzten det  
ez ote nagon tajuan.  
Ustez ondo ari giñadela  
utsegin degu lenguan,  
Kontziliua aldatu bada  
barkatu zazu, don Juan.

Las.-

Uste gabetan geure burua  
guk lotzen degu katian,  
neurri gabeko amets guziak  
dira geuretzat kaltian.  
Sermoa onela egitekotan  
askotan lagunartian,  
oiek alperrik estudiatzen  
jardun amabi urtian.

Laz.-

Baiña, Lasarte, meza emateko  
bakarrik dala ez uste,  
asko ikasitzen digute eta  
bapo domatzen gaituzte.  
Bestela ez dik bear denbora  
ik dioken orrenbeste,  
nundik kenduko ikastearren  
urtiak pasatze'ituzte.

Las.-

Oiek dirua eskatu arren  
jenderik ez dute ito,  
erabakia emango dizut  
biak gelditzeko kito.  
Erroma aldera inguratuak  
badira amaika tipo,  
enteratu naiz izan zirala  
zazpi bat milla ijito.

Laz.-

Aizak, Lasarte, pasadizo au  
aitortu bitarte ago,  
ni're peregrinazio orrekin  
enteratuta bainago.  
Oi aurten ez dek pasatu, motell,  
igaz un edo lenago:  
zazpi milla apaiz sano ziranak  
ta sotanakin geiago.

Las.-

..... i, Joxe Migel,(1)  
asita al ago palizan?  
Lenago libre nenbillen baiño  
orain sartu nauk kalizan.  
Izanez ere etzekiagu  
nundikan nora gabiltzan,  
ainbat sotana juan ziranian  
i ere izan al itzan?

Laz.-

Aizak, laguna, ik ez akidak  
ipiñi olako lanik,  
eleikek esan ire bertsuan  
ezagututzen geranik.  
Gaur bitartian ainbat konfiantza  
izan diagu ik ta nik,  
ijitano ni izan nitekek  
baiña etzeukat sotanik.

Las.-

..... dizkiat ni bertso ortan  
neurriak eta puntuak,  
sotanadunak izan lezazke  
gizonen pulamentuak.  
Ongi zekiat nolatsu diran  
kuadrilla ontako kontuak,  
gu gobernatzan lanikan asko  
bazeukak Aita Santuak.

---

(1) Bertso osoa ezin ulertu. Urrengo utsuneak ere berdin esan nai dute.

## GAI LIBREAN

Donostiako Ibaeta auzoa, 1966-III-6.  
Lazkao-Txiki eta Jose Joakin Mitxelena.  
Gai librean.

*Laz.-*

Nere laguna, asi orduak  
oraintxen dira betiak,  
guregaitikan itxaroten or  
baizeuden jende guztiak.  
Arratsalde on lenengo eta  
agur, zarrak ta gaztiak,  
biotzetikan poztutzen gaitu  
zuek ondo ikustiak.

*Mit.-*

Leku batera agindu eta  
juan gerade bitara,  
eta ezin gu iritxi beti  
nai ainbat alderditara.  
Pentsatu gero gaur etortzeko  
zuen artera Igara,  
pasararen bat emango nautela  
ekarri deten ikara.

*Laz.-*

Jende artian ikusi det nik  
emen zerbaiten armoni,  
ordutik gero etorritzia  
iñorako ez dek komeni.  
Ez dakit nik zer pasatu zaion  
gure Mitxelena oni,  
ni're an nitzan aizkol-jokuan  
baiña len etorri naiz ni.

*Mit.-*

Aizkora-joku ortan giñaden  
gu beste askoren gisan,  
jendea pixkat dibertitzeko  
ain ikusgarria baizan.  
Baiña Laxkaok duan alderdi  
ori ez det ba nik izan,  
zure neurriak euki banitu  
lenago etorriko nitzan.

*Laz.-*

Ttikixegua banago ere,  
Joakin, ez daukat penik,  
aundiegiak gauza denetan  
ez baidu egiten onik.  
Jarri zaitezte, nere anaiak,  
zer pasatu dan jakiñik:  
ordu erdi bat or pasatu du  
kotxetik irten eziñik.

*Mit.-*

Aundiak eta txikiak badu  
mejora eta galera,  
gauza guztitan bentajoso  
ez da izango au bera.  
Gaur biok juan gerade noski  
bai noski leku batera,  
nik ainbat etzun bearrik baiña  
berdin kobratu sarrera.

Laz.-

Arrazoi dezu gauza orretan,  
 neu're pentsatzen nenguan,  
 sarrera ori neuk e ordaindu  
 baidet aundien moduan.  
 Alde oneko tokia biok  
 okupatutzen genduan,  
 pixu kontua izan balitza  
 doble kobratuko zuan.

Mit.-

Gauz batekin ni, jaunak, nago ba  
 pentsatzen eta goguan,  
 elkar serbitzen baidegu iñoz  
 premia degun moduan.  
 Bitatik batek bear da au da  
 takillara eske juan,  
 baldin eta ni juan banitza  
 zenbat paga berko nuan?

Laz.-

Nere lagunak bi artu ditu  
 erdiak eta baztarrak,  
 izanez ere ez dira onen  
 ibilbidiak azkarrak.  
 Ango entradak atera ditu  
 emengo mutil kaxkarrak,  
 zuri doblea kenduko zizun,  
 nik ekarria eskarrak.

Mit.-

Gaurko jokuan berri're noski  
 ematea gomeni da,  
 ori entzun nai lukiena're  
 makiña bat belarri da.  
 Donosti onta leku askotatik  
 pezta asko ekarri da,  
 len galdutakok bildu baditu  
 naparra ondo jarri da.

Laz.-

Gaurkuan naita irabazi du,  
 etzeguen justu-justu,  
 diferentzia aundia zan da  
 ez da ibilia estu.  
 Baiña jokutik ezin liteke  
 gizonikan aberastu,  
 gaur Mitxelenak galdu duela  
 egingo nuke apustu.

Mit.-

Gauza batekin asi zerade  
 bazterretik errezuan,  
 jokatzen dunak kontraria  
 edukitzen du auzuan.  
 Zuk diozunez or Mitxelena  
 gaur lotu dute lazuan,  
 nik galdu deten dirua ori  
 norbaitek eamango zuan.

Laz.-

Mitxelenaren arpegi ori  
 azkar ezagutzen det nik,  
 izanez ere biak batera  
 sarritan ibili lenik.  
 Gaurko konkurso orrek ez dizu  
 egin egundoko onik,  
 baiñan lenago ezer ez dunak  
 ez du galdutzen, ez, lanik.

Mit.-

Jokuak ere suertekuak,  
 jaunak, izaten baidira,  
 gaur ere beintzat bi milla pezta  
 zetoztek nere alderdira,  
 errezua len ein detelako  
 emengo aingeru guardira,  
 ta pentsatu det txanpona oiek  
 bialdutzen Indira.



Laz.-

Nere laguna, orduan gaur e  
zu diruturikan zaude,  
ixilik egon ez geralako,  
jaunak, jakin degu au're.  
Ta poltsikuan sartuta dago  
pare bat milla pezta're,  
gaurko egunaz konforme zaude  
emen kobratu ez-ta're.

Mit.-

Gizonak ez dik pentsatu biar  
irabaztea utsea,  
dotriñak dio lana omen dek  
beartsuai laguntzea.  
Zu ere nekin batera beintzat  
baldin konforme bazea,  
gure jornalak ez al da obe  
Indira bialdutzea?

Laz.-

Lenago ainbat irabazita  
oraindik gose al zaude?  
Diru zalia zertako zeran,  
lagun, egiten det galde.  
Bi milla pezta jokatu ditu  
Naparrokuaren alde,  
gaur ortaz Ibaetako lana  
utzi diteke debalde.

Mit.-

Nik esango det len esan dedan  
..... alako moduan,  
sentitzen dana konfesatu det  
jende guztien onduan.  
Beste alako zirikatxalle  
bat baidadukat albuana,  
nik galdetutzen detena da aber  
beronek utziko duan.

Laz.-

Luzatzen ari gaituk, laguna,  
ia geiegi lanian,  
entzun diat nik bi saio egin  
biar dirala goizian.  
Abixo ori eman diguna  
emen daukagu aurrian,  
orain ixildu ta ari gaitezen  
errifa ondorenian.

Mit.-

Ik, Joxe Migel, berriz e emen  
asi bearako zerbait e,  
jendeak ere gure egonik  
ez baidu luzaro maite.  
Entzulearen guztua eitea  
ona izango dek nonbait e,  
bate sasoirik baldin badezu  
oaintxen gogor asi zaite.

Laz.-

Nere sasoi, i Mitxelena,  
ziok ondo ikusia;  
gauza bat zeukat: oraintxe niok  
zerbait oztutzen asia.  
Baiña nolabait bete bearako  
goizeko irabazia,  
kanta zak, motell, ik esan libre  
derizkioken guzia.

Mit.-

I Joxe Migel, galdetzen diat  
orain aspaldiko partez,  
bertsoetako bazekiat ba  
agokeala aldartez.  
Goierri ortan neskazarren bat  
betia dagona dotez,  
jakindu diat orrekin lotzen  
omen autela i katez.

Laz.-

Galdetzen diat neronek ere:  
 ori zeñi entzun diok?  
 Gure artean oraindik, motell,  
 konpromisorik etziok.  
 Gazte zaliak izaten gaituk  
 gu gizonezko guziok;  
 oi etzak esan, zarra izateko  
 neroni aski natxiok.

Mit.-

Gaztia danik ez diat entzun  
 i or abillen kuttuna,  
 interes puskat izan bear du ta  
 ez da neskazar illuna.  
 Zer emana're bai omen du ta  
 biotza berriz biguna,  
 pallo bakarra: irurogei ta  
 beatzi urte dituna.

Laz.-

Onek esan du emaztegaia  
 irurogeitikan gora,  
 orrelakorik etzak aitatu,  
 oraindik eniok txora.  
 Neguan beintzat ezin leike jua  
 gizonik aren albora,  
 berotutzeko bial bearko  
 Mitxelenaren ondora.

Mit.-

Irurogei ta beatzi urte,  
 ez dago bat loratzeko,  
 ik e zerbait e esango iuen  
 ezkontza oi gogoratzeko.  
 Denbora askoren bearrik ez dik  
 arek lurpian sartzeko,  
 interes aikin ondo ago i  
 beste gazte bat artzeko.

Laz.-

Ez dakit nik zer gauza pentsatu  
 ta asi zerade kantatzen,  
 Lazkao-Txiki oraindik ezta  
 asi ainbeste tontotzen.  
 Naiz egon arren interes gaiñez  
 Banku guziak tontortzen,  
 arekin ez det lan aundirikan  
 susidioak kobratzen.

Mit.-

Susiduan pentsamentuan  
 emen asia au noski,  
 iruditzen zait badaukakela  
 berakin perezik aski.  
 Milloiak ere bai omen dizkik  
 ogei eta amazapi,  
 ura artzen dunak susidiuak  
 ondo kobratuak dauzki.

Laz.-

Diruarekin zu, Mitxelena,  
 ni enaiz oinbeste pozten,  
 nola ortikan etorkizunak  
 txit aldrebesak datozten.  
 Nik naiago det pobre gaztia,  
 asi famelia azten,  
 sinista zazu aingerutzorik  
 ez dala diruz erosten.

Mit.-

Arena edade zarra da eta  
 berdin jun laike biona,  
 zuk ere noski lenago izan  
 baizenduan sasoi ona.  
 Au ere dago berrogeitatik  
 pixka bat aurrera jona,  
 oneri ere pasako zaio  
 ari pasatu zaiona.

*Laz.-*

Landaretxo bat bazeukat, motell,  
gaztia eta polita,  
makiñatxo bat gustatzen dituk  
ari begira jarrita.  
Onek bota du disparatia  
emen kantari asita,  
ik nola dakik gaur orren berri  
bera eztek ikusi ta?

*Mit.-*

Gauzak esaten ari az baiño  
ez dituk esaten denak,  
disimuluan kontatu nai ttuk  
oso gauza nabarmenak.  
Aingeru-kontu ortan gerade  
gaur gogor ai geradenak,  
nik ere asko ikusten dizkit  
bañan denak besterenak.



Ordizian, 1960-IX-7-an, Lazkao-Txiki, Lexoti, Kaxiano Iburguren  
eta Patxi Etxeberria bertsolariak, lagun batzuekin.

**DANTZARI TXIKIETATIK ASITA**

Ereñozu, 1966-VI-19.  
Lazkao-Txiki eta Mitxelena.

*Laz.-*

Edertasun au ez da ikusten,  
ez, jaunak, toki denetan,  
emen egon naiz ortik begira  
izugarrizko pozetan;  
dantzari gazte maitagarriak  
bikaiñak ziran benetan,  
reuma aundirik oraindik ez da  
dantzari oien anketan.

*Mit.-*

Ereñozu au festak egiten  
ai zeñen gauza fiña den!  
Or ikusi dituguanakin  
ainbat arritzen giñaden.  
Dantzari asko gorputzez ere  
nola iñoiz ariña den,  
txiki aietan nik uste nuen  
zedorri ote ziñaden.

*Laz.-*

Mitxelena onek atera digu  
zirikatutzeko itza,  
bertsotan sarri gabiltza baña  
gu dantzari ez gabiltza;  
salto ederrak egin dituzte  
oi baitzan oien egintza,  
emengo olak autsiko zitun  
baldin au asi balitza.

*Mit.-*

I, Joxe Migel, etzak eragin  
legian kontrara parrrik,  
emengo olak ni asita're  
etziok autsi bildurrik;  
bañon dantzako izan banintza  
baldin neroni bakarrik,  
etzedukaten orren ol lodir-  
rikan gaur jarri bearrik.

*Laz.-*

.....bat txikia eta(1)  
bestia aundia izatia,  
beti onekin ibiltzen degu  
bertsoetako jakia;  
esaten digu ola bastante  
lodia dala jarria,  
bañan alare enaiz fiatzen,  
zu geldik egon zaitia.

*Mit.-*

Onek esan nai zendukena da  
bañan gezurra geiena,  
gaurko bertsotan ez al zaudeze  
naiko gizon nabarmena?  
Bertsot batian ez laike esan  
batek sentitzen dun dena,  
zenbaitan karga ibiltzen dezu  
au autsiko zendukena.

Laz.-

Orrekin esan nai zitun sarri  
eiten ditudan traguak,  
baña ortan ere emen badira  
ni bañan okerraguak;  
askoz geiago nola biar dun  
Mitxelenaren zakuak,  
onek sarritan ibiltzen ditu  
nik bañan aundiaguak.

Mit.-

Biok negurri batekin noski  
ez gera juaten dendâ,  
ta serbitzeko dagona berriz  
eman zale egoten da;  
onek dionez aundia ere  
oker ibiltzen omen da,  
aga berdiña artzen degunen  
zu baño aixo juaten da.

Laz.-

Nai dezuena bota libre da,  
eztit egingo kalterik,  
etzait gustatzen lagunarekin  
bildurtuta ibiltzerik;  
ta, Mitxelena, etzazuela  
aitatu orrelakorik,  
nei doble pentsu emanda ere  
zu eztago berdintzerik.

Mit.-

Onen biotzeko naigabea,  
sortzen zaio zenbait malko,  
kargatu samar ibili dala  
bertsoz esan dedalako;  
gezur edo egi kantatzen degu  
makiña bat onelako,  
andregaiare gaur emen du ta  
ez nion esan beariko.

Laz.-

I, Mitxelena, gauza orregaitik  
ez adi bildurrez jarri,  
libre zeukagu nai dan guztia  
kantatutzia alkarri;  
abixatuta nian nik baña  
ez ote zaidan etorri,  
nere andregaiak ongi bazekik,  
motell, ni ta ire berri.

Mit.-

Dakiten ustez orrekin iñoiz  
berak egoten dirade,  
eta bienak ote dakizkin  
esaten ari zerade;  
gaur edo biar egiten bada  
mutil kokkor onen jabe,  
aber mundutik aldegiten dun  
zurerikan jakin gabe.

Laz.-

Nere andregaiaretzak tratatu  
ik orren era tristean,  
ire ondoan txiki nauk eta  
maite enauen ustean;  
esango diat gauzaren berri  
oraingo bertso batean:  
txiki onekin biziko dek, bai,  
irekin arrenbestean.

Mit.-

Irekin ondo biziko dala  
ago eure errezelaz,  
ta kontu oiek esaten dituk  
askotan ago zabalaz;  
i ere pixkat arro samarra  
bai aiz erorren egalaz,  
andria pozez bizitzekotan  
pixkat mudatutzen al az.

Laz.-

Nik zer bentaja detan, neskatxak,  
zuek ez dezute usteko,  
obligazio jakiña da ez  
dakinai erakusteko;  
onek ainbeste talentu badet  
dirua irabazteko,  
eta erdia bear det berriz  
mantendu eta jazteko.

Mit.-

Joxe Migelek zer esan duen  
artu al dezute notan?  
Neska gaztiak zeraten oiek  
eaman zazute gogotan;  
nere erdia aski duala  
jantzi ta mantentzekotan,  
bañon pentsatu beste erdia  
joango zaiola ardotan.

Laz.-

Berriro ere aitatu nai du  
len aitatzen zuen pama,  
nere kontrako daguela gaur  
ala nago antzemana;  
zoritarreko zurruta edo  
zorigaiztoko erana,  
Mixelenai're gustatzen zaio  
neri gustatzen zaidana.

Mit.-

Kontu guztiak esatekotan  
jaiuak gera munduan,  
onez aurrera neska gaztiak  
zaizka faltako onduan;  
jakindu det ba kaiolatxo bat  
Tolosan nola artu duan,  
ta oraindikan ez daki berriz  
txoria ori nun duan.

Laz.-

Oni ezertxo ixil-ixilik  
esaterikan ez dago,  
egia da, bai, oraintxe, lagun,  
ni ortarako prest nago.  
Nik gauza gaizki egin detala  
pentsaturikan al ago?  
Kaiola erosi biar baitu  
txoria bañan lenago.

Mit.-

Gauza guztiak ondo zegoztekin  
dituken bide ortan,  
bañan an ere norbait e jarri  
bear dik jateko palotan;  
urtetan ere gora ua ta  
auxen artu zak gogotan:  
kaiola ere alperrikan dek  
utsik edukitezkotan.

Laz.-

Enazazula, Joakin, jarri  
berriro orren tristia,  
zure kontsejuz ezin billatu  
nik nai nuken emaztia;  
etzan komeni urtien berri  
denan bistan esatia,  
anima zarra dadukat bañan  
gorputza gazte-gaztia.

Mit.-

Kargu pixka bat artu litake  
Joxe Migelen jolasai,  
nundik neskatxa etorko zaion  
mutiko au daukagu zai;  
barrio au dek ortakua ta,  
motell, egon adi lasai,  
ta falta badek galdetu egiok  
emen daukaten apaizai.

*Laz.* -

Makiñatxo bat olako gauza  
pasa biar da bizitzan;  
sinista zazu, gauza orrekin  
aspaldi oroitu nitzan;  
beste bat bada apaiza ezik  
ta jarri zaitte jakintzan:  
San Antoniori eskatutzen  
leno izan naiz elizan.

*Mit.* -

San Antonioz egin zerade,  
dudik ez dana, oroitu,  
bañan zuk emengo legietâ  
bear baizenduke oitu;  
San Antoniok ekartzen ditu  
ta beste batek partitu,  
emengo apaizak emengo sobrak  
banatu izan oi ditu.

---

(1) Utsune au, eta urrengoak ere berdin, magnetofonoz entzun eta ezin ulertu ditugun itzak bete bearko luteke.

**KALIFORNIRA**

Elizondo, 1966-III-19.

Gaia: Uztapide, aita; eta Lazkao-Txiki, Kalifornira joan nai duen semea.

*Laz.-*

Bizimodua ain zalla da ta  
jarri naiz aruntz begira,  
ta, aita, garbi esango dizut  
buruan daukaten idira:  
joan nai nuke nik dirua errex  
irabazten dan tokira,  
zure baimenik baldin banuke  
banoa Kalifornira.

*Uzt.-*

Seme maitia, ez idazu esan  
neri olako gauzikan,  
ezjakiñian negon len eta  
ez didazu eman pozikan.  
Lana eginda zer uste dezu:  
emen ez dala sosikan?  
Kalifornian ere zakurrak  
dabiltza anka utsikan.

*Laz.-*

Nere aitari ez ote diot  
buruan sartu eraziko?  
Bera nola ez dan iñon izan len  
orrek ez luke etsiko.  
Orduan ere biaje ori  
ez dezu zure graziko,  
aberastu ta etortzen banaiz  
ez gera gaizki biziko.

*Uzt.-*

Seme maitia, ori entzun ta  
ez nago oso trankilla,  
zuk diozunez, Kalifornira  
zoaz diruaren billa.  
Ainbeste kostata azi degu  
orrenbesteko mutilla,  
gure Jainkoak ala nai badu  
alaxen izan dedilla.

*Laz.-*

Gaurko munduan ongi pasatzen,  
aita, ez dago jolasa,  
zuk badakizu emen jornala  
dagola oso eskasa.  
Aste guzia pasata ezin  
milla pezetatik pasa,  
andik geiago ekarriko det  
ta zu egon zaitez lasa.

*Uzt.-*

Orain artean egin zaitugu  
beintzat jantzi ta mantendu,  
onek olako diru pixka bat  
beti izan zigun kendu.  
Orain suertia allegatzen da:  
iges egin bear omen du;  
orretarako obe semerik  
batere izan ez bagendu.



*Laz.-*

Biotz barrura sartu zait, aita,  
zuk une ontan esana;  
egia da, bai: semearentzat  
ez zera txarra izana.  
Baña andik ere oroituko naiz,  
nere aita eta ama,  
txintxo ta azkar bialduko det  
an irabazten dedana.

*Uzt.-*

Konseju onak ematia da  
aitaren eginkizuna,  
badakizu emen guraso bat  
bertan gelditzen zaizuna.  
Jaunaren borondatia bada  
egin zazu nai dezuna,  
Kalifornian izan itzazu  
pakea ta osasuna.

**ERABAKIA ARTU BITARTEAN**

Tolosa, 1967-V-4.

Gipuzkoako bertsolari-txapelketaren azkena.

Goizeko saioaren ondoren, epai-maiekoak erabakia eman bitartean, Uztapidek eta Lazkao-Txikik, txapelketa artan parterik artzen ez baitzuten, bertso auek kantatu zituzten:

*Uzt.-*

Lendabiziko egun on denoi  
ta gero zerbait geiago,  
ixilik egon baño kantatu  
guk nola degun naiago.  
Jendia bertsozale zegola  
bagenekigun lenago,  
gaur Tolosako zine aundia  
dezente betia dago.

*Laz.-*

Bai, Uztapide, edertasun bat  
gaur ikusten degu emen,  
ta zine onek utsik dagonik  
iñolaz ez du ematen.  
Ta guri berriz len ai zitzaigun  
kantatuzeko esaten,  
len nekatuta dauden lagunak  
zerbait atsedeen dezaten.

*Uzt.-*

Gure biotzak alaitzen ditu  
jende ori ikusteak,  
nundik alaitu badegu eta  
zertako egon tristeak?  
Bertsuak beti emango ditu  
batak ez bada besteak,  
zarrak ai gera galdutzen baño  
badatozkigu gazteak.

*Laz.-*

Zu, Uztapide, amaika bertso  
botia zere bizitzan,  
oraindik ere gu pozten gera  
jakiñik nola zabiltzan.  
Bañan oraindik bertsolaritza  
dago zerutarren ditxan;  
zu lasai egon, ez da galduko,  
orren kezkarik ez izan.

*Uzt.-*

Bertsuak beti izango dira  
bai biar eta bai etzi,  
anai-arreba maitagarriak,  
arren etzazute etsi.  
Eskubi aldera begiratuta  
emen daude bederatzi,  
len bezelaxen gu zer geraden  
ai, gaztiak, erakutsi.

*Laz.-*

Bai, oraindikan sortzen ari da  
emen zeñek egin lana,  
gero zein bertso.....(1)  
nago, Manuel, antzemana.  
Zein ezta pozten ikusirikan  
gaur goraka dijoana?  
Urte oetan indartu zaigu  
lenago ia il zana.

Uzt.-

Len bezelako berotasunik  
ez dago nere labian,  
gorputza sarri sumatzen det  
alakoxe naigabian;  
lana dadukat galerazia,  
lo ezin egin gabian,  
zuk ere ia zerbait izaten  
dezun nere edadian.

Laz.-

Arrazoi dezu, gizon zarrari  
komeni zaio babesa,  
bañan oraindik zu lanerako  
etzaude ain aldrebesa;  
lana kendu dun mediku ura  
da konformatzen erreza,  
gogorik ez dunari eragiten  
berriz da oso nekeza.

Uzt.-

Oraintxen ere bota didazu  
aldamenetik ttanttua,  
zer uste dezu zuk: Uztapide  
dagola olain tontua?  
Lana bakarrik ez dute kendu,  
baitare alimentua,  
ez al dakizu zer izaten dan  
medikuaren kontua?

Laz.-

Ta, Uztapide, alimenturik  
gabe ez dago indarririk,  
etzazubela billatu inñan  
olako mediku txarrik;  
agindu zizun ez erateko  
ardorik eta patarrik,  
rejimen ori gordetzen dezu  
ez dezunian bakarrik.

Uzt.-

Lazkao-Txiki, arren etzazu  
era orretan itzegin,  
bestela zure onduan ezta  
izango oso atsegin;  
entzuten ditut kontseju onak:  
medikuendik aldegin;  
ez dute dana ondo esaten da  
pentsatzen detena egin.

Laz.-

Rejimen ori bearrekua  
bañan geiegi ez asi,  
medikuak e inñor ez iltzen  
nola ez duten ikasi;  
etzaiozula bizio denai  
al dezun bitarte utzi,  
rejimen ona eindakorikan  
gaur nola inñor eztan bizi.

Uzt.-

Gazte denboran egiñak giñan  
makiña bat pikardia,  
ta badakizu parrandatikan  
datorkigun alderdia;  
eman zidaten mediku jaunak  
oso rejimen aundia,  
oso-osorik ez det egiten,  
geienez ere erdia.

Laz.-

Ni ere zu ibili ziñan eran  
alaxe nabil gaur egun,  
izanez ere danok dakigu  
zer konpromiso daukagun:  
oraindik ere bildurrik gabe  
zuk segitu bear zendun,  
bañan geiegi zartu baño len  
kupua bete zitzaizun.

Uzt.-

Zu ari zera atrebitutzen  
 oraintxen ia jarrian,  
 gazte denboran ibiltzen nintzan  
 ñoiz erdi egarrían;  
 zu berriz beti ikusten zaitut  
 nik oso era larrian,  
 rejimen eman baño lenago  
 obe dezu asi neurrian.

Laz.-

Beraz ni ere neurritik gora  
 ari naiz, ari, lanean,  
 eta esan dit enabilela  
 ni oso bide onean;  
 ta esaten dit gelditu gabe  
 nabilela eranean,  
 zu ere gertu izaten zera  
 ni ikusten nazunean.

Uzt.-

Biok ederki ibiltzen gera  
 tamañ onean jarriak,  
 pentsatu etxetik ertendakoan  
 nola ibili egarriak;  
 erari orrek askori dizke  
 kalte aundiak ekarriak,  
 laister kupua beteko zaizu,  
 ordun istillu gorriak.

Laz.-

Gure Uztapide txikiarekin  
 bildurtzen asia dago,  
 eta neu ere kezka pixka bat  
 oraintxen artua nago;  
 bañoan rejimen ori egiteko  
 ez det orrenbeste gogo,  
 gañera neri bete nezaken  
 Manueli bañoan lenago.

Uzt.-

Biori ere uste baño len  
 ez al litzaiguke bete?  
 Erabakia artu da emen,  
 geio ezin kantatu bate;  
 zuek oraindik bertsuen zale  
 igual egongo zerate,  
 bañoan juezak emen dira ta,  
 jaunak, geroxiago arte.

---

(1) Emen falta diran itzak, magnetofonoz entzun eta ezin ulertu.

## EZKONBERRIA GERRARA

Donostia, 1967-VI-11.

Bertsolari-txapelketa nagusia.

Gaia: zu, Lazkao-Txiki, eta zu, Lopategi, gaur goizean ezkondu zerate. Eztai-bazkaritan zera-tela, ezkonberria zeran gizona gerrara deitu zaituzte. Kafea doi-doi artuta bazoaz kuartelera. Zu, Lazkao-Txiki, senarra zera; eta zu, Lopategi, emaztea.

*Laz.-*

Anai-arrebak, ezkonberria  
gertatu liteke triste,  
oraintxen giñan zorionsuak,  
oraintxen giñaden gazte.  
Une gutxi da egin generala  
biok senar ta emazte,  
ta kafia artu bañan lenago  
gerrara deitu gaituzte.

*Lop.-*

Desilusio ainbestekorik  
ez nuen uste lenago,  
nere senarra agurtutzian  
negar-malkoetan nago.  
Ezkondu eta beingo batian  
gerrara juteko dago,  
ointxe gelditu da Lopategi  
soltero baño txarrago.

*Laz.-*

Nik berriz orain jua bearra det  
fusillarekiñ aruntza,  
eskerrik asko, gaurtik badaukat  
emaztiaren laguntza.  
Etzaiz bildurtu, emazte maite,  
gerrate ori da utsa,  
gerra bukatutakuan berriz  
etorriko naiz onuntza.

*Lop.-*

Orain zuretzat gerra txar ori  
itxuratik atsegin da,  
beste batzuek jua ezkeru  
zu gelditzia bardin da.  
Aruntz juanda izan zintekoz  
gero etorri ezinda,  
frutuak nola ekarko ditut  
senar onek aldeginga?

*Laz.-*

Egon zaitia pazientzian,  
nere emazte kuttuna,  
sinista zazu gerran benikan  
badezuela laguna.  
Oraindik beintzat bizi naiz eta  
etzaitz jarri illuna,  
maitasuna da gerra jarri ta  
gerrak bentzitzen dituna.

*Lop.-*

Nere senarra bere lanian  
beti izan da mardula,  
ta ona emen aberriakin  
aurrera egin nai dula.  
Suerte txarrez gerorantz onuntz  
naizta ez etorri sekula,  
egun guztitan idatzi zazu  
biotzez maite nauzula.

## AUR GEIEGI

Arrasate, 1967-XII-24.

Gaia: Lazkao-Txiki senarra izango da; Agirre, berriz, emaztea. Famili aundia, diruz urri xamar, seme-alabak bat bestearen ondoren; eta, diotenez, pastillaren bat bai omen da...

*Laz.-*

Alde batera, nere andrea,  
oraintxen jartzen naiz triste,  
bizitzen oso xamur dagonik  
guk ez gentzakegu uste.  
Asko ta asko aritu arren  
aurtxo berri geion eske,  
orain badago adelantua  
ta gu're saia gindezke.

*Agi.-*

Baña, senarra, ez dezu azaltzen  
bear dan fundamenturik,  
famiak zer neke daukan zuk  
ez dezu eskarmenturik.  
Oaindaño arte ez dezu izan  
aurtxoa beste konturik,  
gure etxera nai al da sartu  
kanpoko adelanturik?

*Laz.-*

Nere andrea, ni enaiz ari  
berriketan ta berritsu,  
lenago ere gure etxean  
bada bear ainbat pixu.  
Gaurko jornalez geiago ezin,  
andrea, zeuk badakizu,  
medikuagan jua zaitez ta  
rezeta egingo dizu.

*Agi.-*

Komeniko zat errespetuan  
nere lanari eltzia,  
etzat gustatzen txorakerian  
eta dudan ibiltzia.  
Nere ustetan pekatua da  
landare onak galtzia,  
eta pakerik onena det nik  
zu ondotik bialtzia.

*Laz.-*

Bizi bearrak ematen ditu  
makiñatxo bat itzaldi,  
eta, andrea, itzegin zazu  
ondo pentsaturik geldi.  
Nere aitzakia andre onetxek  
ortan egiten du beti,  
berai gustatu ez balitzaio  
bialdu niñun aspaldi.

*Agi.-*

Petralkeriak dabilzkizu zuk  
zure mingaiñan ertzian,  
andreak gauzak garbi esango'itu  
biotza penaz lertzian.  
Aztuta nago garai bateko  
txoro-kontuak zer zian,  
ezetz esanda're alperrik zuri  
moxkortuta etortzian.

*Laz.-*

Ez det esango bein enitzala  
zerbait txoratuta juango,  
baiñan andre au bera're ia  
sorgintzen asia dago.  
Gaur bezelakoxia nintzan ni  
ezkondu baño lenago,  
ta orain asko maite baniñu  
gauz ori etzun esango.

*Agi.-*

Ezkon aurretik maite ninduan  
ia itxura geiegitan,  
orain purrustaka ibiltzen zat,  
jaunak, irutatik bitan.  
Aurrak zaindutzen ni utzi eta  
tabernara jun sarritan,  
andria bapo .....(1)  
sinistu bear egitan.

---

(1) Zinta arretaz entzun arren, itz auek ezin ulertu.

**BERTSO-AFARI BATEAN**

Zaldibi, 1967.

Lazkao-Txiki eta Patxi Iraola.

Bi misiolari napar etorri ziran, eta *Gaztelu* elkartearen bertso-afari bat antolatatu zan.

*Laz.-*

Intzeko gazte onek  
ote digu etsi?  
Kristoren dotriñarik  
ezin zuk sinitsi.  
Duda dago zer dagon  
biar edo etzi,  
kristaua degu baiña  
esperantza gutxi.

*Ira.-*

Baiña onek ortarako  
ez dauka gogorik,  
zuk bezelaxe argi  
igartzen diot nik.  
Ez uan zabalduko,  
ez, erlijiorik,  
baldin izan ez balitz  
napar berogorik.

*Laz.-*

Obe degu guk gorde  
lengo lege zarra,  
geroko sinistia  
ez da gauza txarra.  
Esperantzetan jarri  
zaitia, naparra,  
kristauarentzat ez da  
gaurkua bakarra.

*Ira.-*

Otz xamarra ote dan  
baneukan bildurra,  
berak egin ondoren  
alako agurra.  
Leno're ia fedea  
joa digu lurra,  
orrekin galduko degu  
daukagun apurra.

*Laz.-*

Obe dek entzutia  
abadian otsak,  
alde batera utzirik  
kezkek eta lotsak.  
Luziferren sardiak  
dauzkagu zorrotzak,  
gaurko zabarkeria  
akordatuko zak.

*Ira.-*

Izan itzak itz oiek  
goguan jasuak,  
ta gero pentsa nola  
eman ik pausuak.  
Fedeko gauzak bakoitzak  
altura iguak,  
ez al au bildurtutzen  
inpernuko suak?



Laz.-

Jende guztia dago  
zugatik minbera,  
gaiztotzen ari zera  
urtetik urtera.  
Zuek ez zaitetze juan  
Amerika aldera,  
au konbertitu arte  
etorri onera.

Ira.-

Egun batez jo zuen  
Zaldibi aldera,  
uste ez zala azaldu  
zitzaigun onera.  
Emen ezkondu zan au  
gutxi gora-bera,  
aingeru bat artu zun,  
gaiztua da bera.

Laz.-

Zaldibin ezkondu zan  
ola edo ala,  
baiñan ikusten zaió  
sinismen argala.  
Gaurtik juzkatutzen det  
aren iguala,  
badakit Luzifer e  
aingerua zala.

Ira.-

Broman esana ez da  
gaizki artzekua,  
baiña berriz pixka bat  
zikatzera nua.  
Zuk e ala jo dezu  
onek dun gradua,  
Miel ote degu ba  
aren antzekua?

Laz.-

Jainkua badegula  
ez zaitte atzendu,  
obe genduke garbi  
artuko bagendu.  
Zere emazteari  
federik ez kendu,  
patata ustel batek  
bestia usteltzen du.

Ira.-

Ez zazu fedez ustu  
zere emazterik,  
ez zazu pentsa iñoiz  
ortatik asterik.  
Eta ez ola eduki  
fameli gazterik,  
edukazio oberik  
ez baida besterik.

Laz.-

Bestela izango da  
errespeto gutxi,  
akordatuko zera  
biar edo etzi.  
Lengo erlijioai  
beaiogu eutsi,  
zeuk siniste'ez badezu're  
aurrai erakutsi.

Ira.-

Joxe Miel, ez al da  
zelebrezko lana  
kunplitzen zuk agindu  
diozuan dana?  
Alde batera dauka  
ezin eramana,  
zail baita beste ematen  
batek ez duana.

*Laz.-*

Saiatu bear dezu  
zuk zintzo ibiltzen,  
fedea ez zazu utzi  
oinbeste debiltzen.  
Beste batek esanda  
arrituko nitzen,  
orrelakorik zanik  
Naparroko Intzen.

*Ira.-*

Zuk disparatiak bota  
ta jendiak parra,  
gerta dalako emen  
olako naparra.  
Izketan astean onek  
badu, bai, indarra,  
asto xamarra da baiña  
ez du biotz txarra.

*Laz.-*

Kantari daramagu  
iru ordu laurden,  
geienez ari gera  
gu gaizki esaten.  
Gizonak beti berdin  
ez du ondo ematen,  
au lasai geldi dedin  
ixildu gaitezen.

## DENDARIA, ETXekoANDREA ETA POLIZIA

Arrasate, 1967-XII-24.

Gaia: Lazkao-Txiki dendaria izango da; Lopategi, etxekoandrea; eta Imanol Lazkano, polizia. Etxekoandrea keajatsu joan zaio polizia: prezioak ezdirala igoko agindu ori austen ari ote dan.

*Laz.-*

Aspalditxoko aldi auetan  
komeri latza daukagu,  
erritik ere artzen ditugu  
makiñatxo bat enkargu.  
Ta, etxekoandria, oi egin nairik  
gaur etorri al zera zu?  
Eta ondoko erostun ori  
zertan ekarri didazu?

*Lop.-*

Asmo txarrikan ez nekarren nik  
dendatxo ontan sartuta,  
lenago ere izan baigiñan  
zu ta ni sarri partuta.  
Babarrun batzuk erosi ditut  
boltsa aundia artuta,  
oi, polizia, zuk kargu artu  
larregi kobratu du ta.

*Ima.-*

Dendariaren jokera ez det  
oso zuzena iritzi,  
gobiernuko lege on ori  
ez al dizute erakutsi?  
Ez al dakizu gure lurretan  
daukagula diru gutxi?  
Denak kolpetik juan ez ditezen  
lengo prezioai eutsi.

*Laz.-*

Ez dago oso errez betetzen  
polizi oen ordenak,  
pixka-pixka bat pentsa ber luke  
pertson bakoitza nor denak.  
Igo'ituzute guk emateko  
kontribuzio ta denak,  
zuek zerate gure jornala  
txupatzen diguzutenak.

*Lop.-*

Garai batean oso-osuan  
zurea zenduen plaza,  
alako baten estutu zaizu  
zuri're ortan arnasa.  
Gaurtik aurrera izan etzazun  
iñoiz lapurraren traza,  
premiñezkoa deguanian  
geiegi ez kobra gauza.

*Ima.-*

Gauza onikan iñoiz ez dago  
geiegia kobratuta,  
etxekoandrea asarre dago  
karga ori dana artuta.  
Dendari maite, oker txiki bat  
gaur ere zuk ein dezu ta,  
urrengo txandan kartzela zuaz  
zu esku biak lotuta.

*Laz.-*

Au entzutean dendari ona  
 jarri bearko serio,  
 “tasatik gora gauzak ez altxa”  
 oraindikan ala dio.  
 Ta berai berriz oraindik orain  
 lenoko jornalak io,  
 nazio dana ondatua da  
 zuek zeratela medio.

*Lop.-*

Nazio ori bere itxuraz  
 ez da azaldutzen trebe,  
 erri onetan zu ziñalako  
 gauza guziaren jabe.  
 Gure dirutan aberasturik  
 batere lotsarik gabe,  
 alako baten poliziak e  
 jarri dira gure alde.

*Ima.-*

Dendari xar au diruzalea  
 eta kobratzen asia,  
 etxekoandreak gaizki ikusi du  
 salneurri galerazia.  
 Bien tartean momentu txarrez  
 emen dago polizia,  
 bi emakumen tartean zeïnek  
 egin leike justizia?

## EROSLEA ETA MUGAZAIÑA

Arrasate, 1967-XII-24.

Gaia: Egileor Frantziatik dator, erosketak egin ondoren. Lazkao-Txiki mugazaiña da, eta kontuak eskatu dizkio.

*Egi.-*

Zerbait merketik eroatea nai,  
au da desio nuana;  
orreatikan emendik aruntz  
nitzan Frantziraño juana.  
Ta poliziak kendu nai zidan  
nik an erosi nuana,  
gorputz aundia ez dauka baiña  
txarrerakua daukana.

*Laz.-*

Nere lagun au bildurrez dago  
poliziarren onduan,  
andik onera gauzak ekarri  
oi nai zenduen orduan.  
Ez al dakizu ni zer kargutan  
ipiñirikan nagan?  
Estraperloa etzala libre  
len e ez al zekizuan?

*Egi.-*

Frantzi aldeko estraperloa  
daukagu bere platican,  
bizimoduko gauza batzuek  
artu nituan andikan.  
Polizia au nigan zegona  
ongi nekian lendikan,  
pertsone txarra kentzen zailla da  
norberan ingurutikan.

*Laz.-*

Andik ekarri ta emenguak  
ongi ez ditezke bizi,  
ta obe dezu ni or nagola  
geio lan ortan ez asi.  
Gizon txiki bat zureztat kaltez  
egindu zuten polizi,  
aundia zera baiñan ez dezu  
onek ainbeste malezi.

*Egi.-*

Estraperlorik pasatu nai ez  
eta tristuraz naukazu;  
ta, polizia, bizio txarrez  
nabillela uste al dezu?  
An merke artutako gauza danak  
bidian kentzen dituzu,  
ta inpernurik baldin badago  
zuk beintzat merezi dezu.

*Laz.-*

Ongi dakizu: galestigo da  
Frantzi aldeko bizitza:  
ta pezeta orrek ere ez dauka  
lenago zedukan ditxa.  
Zer kalte ote litzake danak  
libre utziko balitza?  
Nazio dana ondatutzeko  
drogak pasatzen zabilta.

## ESANAK ESAN LAGUN

Idiazabal, 1968-II-2.  
Lazkao-Txiki eta Mitxelena.  
Gai librean, leenengo saioa.

*Laz.-*

Beingoz Idiazabala  
etorri geranez,  
denok gaude onez;  
ongi artu gaituzte  
kafe ta patarrez.  
Ortega mugatarra(1)  
daukagu esanez,  
naiz gu geran bezela  
euskaldun izan ez:  
danak kanta dezagun  
txanpaina edanez.

*Mit.-*

Kantatu ori neunek  
artzen det goguan,  
emale alban;  
esan-nai pixkat bada  
jaun oien abuan.  
Baño nor da artzeko  
gerogoko duan?  
Kobratu bear dunak  
eukiko'u goguan;  
jakin nai nuke zeinek  
ordainduko duan.

*Laz.-*

Aduanan egoten da  
lau urte osuan,  
zer jakin deguan;  
idiazabaldar denak  
eduki goguan.  
Txanpaina eman nai du  
kafien onduan,  
nolatan ukatu guk,  
zeinek nai eztuan?  
Aduanan kenduta  
ekarriko zuan.

*Mit.-*

Aduanako bista  
deguala lendik  
askorek jakin dik;  
euskeran zale dala  
ta etorri dek andik.  
Bista batek iraba-  
zia du nunnaitik,  
begira egon bearrik  
gauz orretan al dik?  
Jornaletikan ere  
aixa patuko dik.

---

(1) Ortega jauna, Irungo aduanako *bista* izana.

Laz.-

Zenbatsu estraperlo pasatu dan aurten zeñek daki emen? Bere ori ez dakien bat nola asi esaten? Bertso bat bota biat gaur jakin dezaten, Mitxelenak ez du or ederki ematen, aduanakoai ai zaio pelota egiten.

Mit.-

Joxe Migel ez dago oso izlaria, bear bezin garbia; gaizki esaten zaude zu, mutil propia. Zeñek eman dizu gaur gauz orren tokia, utsa bazendakizu laurdenen berria, jakin gabe nola esan ni pelotaria?

Laz.-

Ik pasatzen dituken tabako guziak dituk ok utziak; zertarako guk bota gauza itxusiak? Gaur ikusten diranak ola ikusiak, nik e ongi zekiat ire maleziak, pelotan ai zerate Atano ta biak.

Mit.-

Joxe Migelen bertsoz ni nua eskian bat eta bestian; bista au etzedukat nik lagun ustian. Kotxez egun batian bi puska nizkian, gordeta neukazkinak asiento azpian, zortzireun pezeta kobratu zizkian.

Laz.-

Mitxelenak badauka tranposuen traza, atera nai du baza; gauza oiek pasatzen etziok jolasa. Oek diradelako daukak ik arnasa, orregatikan ago agon bezin lasa, zortzireun pagatuta bost bat milla pasa.

Mit.-

Ni enauk bizitua auen arrimuan, ez Frantziko muan; orduan ez niñuen asmu ortan juan. Alfonbra eder bat saltzeko zeguan, milla pezetarekin erosi bainuan, ura artu nuanin au laun egin nuan.

*Laz.-*

Aduanan badezu  
laun maitagarria,  
nago igarria;  
lastimarik ezautzen  
asi da erria.  
Bear baiño atrebitugo  
zu zaude jarria,  
pasatzen dezulako  
nai dezun guzia,  
estraperloz ein dezu  
taberna berria.

*Mit.-*

Zuk gauza aunditzat jotzen  
dezu Mitxelena,  
esan'zu izena,  
kontrabando-kontuan  
pizkorra naizena.  
Ez badet e ibilli  
joera zuzena,  
i're ago bertara  
iritxiko aizena,  
aber ortik eite'uken  
pentsu-almazena.

*Laz.-*

Norberak ar zaiogun  
gorputzen tamaiña,  
naiz ez izan apaiña;  
ni flako nagola ik  
diok alajaiña.  
Danak bear al dute  
Joakiñen tamaiña?  
Etzait iruitzen danik  
pertsona bikaiña,  
neure kiloz baniok  
neuretzako aiña.

*Mit.-*

Ni enauk asi emen  
bero azten da ozten,  
esangaiak zeuzten;  
bat bestiai sartu ber  
orrenbeste ezten.  
Len ere esan dizkigu  
batian da besten,  
ire edertasunak  
ez dik iñor pozten,  
ta daukaken pixkatik  
ari aiz zorrozten.

*Laz.-*

Ni naiz mutil txikia,  
Joakin laztana,  
entzun nere esana:  
ez naiz gizenen zale  
beñere izana.  
Nik zertarako artu  
zuk daukazun zama?  
Gizona zera eta  
emat'ezu ama,  
zuk daukazu pixu bat  
utzitzen ez dana.

*Mit.-*

Ari zerate pruebak  
emen erakusten,  
garbi da ekusten;  
nik ere bazakiat  
temari egusten.  
Gizen-plakuan nola  
nai dan aiña ezten,  
ik zaillena dadukak  
kiluk irabazten,  
ik gizendutzen baño  
nik erraxo'it uzten.



*Laz.-*

Arrazoian bidea  
nai nizuke kendu,  
entzungo bazendu;  
nere bertsuarekin  
etzaitz atzendu.  
Gizona gizontiak  
etxia galtzen du,  
bear dan kosetxarik  
ezin almazendu,  
andria plakatu ta  
gizona gizendu.

*Mit.-*

Gizona gizendu ta  
andre flakatzea  
oi dek galdetzea;  
ik ortikan eman dek  
ire iritzea.  
Lenen artu bear dik  
batek gurutzea,  
eta i ez aiz trebe  
orretan lotzea,  
komeni dek oi zer dan  
ezagututzea.

*Laz.-*

Ni zirikatzen, Joakin,  
aritzen aiz betik,  
juan dan aspalditik;  
baiñan arrazoi asko  
eman diat betik.  
Lazkao-Txikik larogei  
kilorik etzetik,  
baiñan landarerikan  
nai balitz onetik,  
txikia galduta're  
etziok inportik.

*Mit.-*

Matrimoniotikan  
juan da landarera,  
artu du beera;  
neonek aitortuko det:  
gu gabiak gera.  
Ezkonduta gero're  
onen gora-bera,  
Jainkoak emandako  
suertezko etorrera,  
gure kulparik ez dek  
gu gabe bagera.

*Laz.-*

Amabosten bat urte  
bete dira aurten,  
ala esan zuten;  
gauzak garbiro esan  
bear dira emen.  
Ikusirik zer raza  
ederra zeraten,  
txikiagatik gaizki  
ai zera esaten;  
lanik ein be Jainkuak  
ere eztik ematen.

*Mit.-*

Begira gora-bera  
nola izaten dan  
bertsozko koleran,  
askotan jokatuta  
norbere galeran.  
Zernai esaten degu,  
bi trago dira edan;  
baño matrimonio  
zer sekretua dan,  
saiatu giñan baño  
etziguan eman.

*Laz.-*

Saiatu ziñadela  
 len nuen entzuna,  
 nik badet zentzuna;  
 kontuak aterata esan  
 esaten dezuna.  
 Gizonarentzat ez da  
 izketa txukuna,  
 propio ortarako zer  
 ar zendun laguna,  
 raza bikaiña baiñan  
 balio eztuna.

*Mit.-*

Gauza orretan ere  
 ein det zenbat bidar  
 zuzen edo zear;  
 esperantzakin beti  
 gaur ez bada biar.  
 Jaungoikuai eskaka  
 gora beida diar,  
 baiña joku guztiak  
 gelditu dira igar,  
 Jainkuak nai dunakin  
 konformatu biar.

*Laz.-*

Mitxelena, ari adi  
 formal eta noble,  
 ez al uke obe?  
 Ire relejiua  
 ez aitatu sobre.  
 Arbola aundia baiñan  
 frututikan pobre,  
 bete ez dekenak ik  
 bear ainbat lege,  
 ortan jardun aiz Jainkoz  
 akordatu gabe.

*Mit.-*

Lazkaoren bertsua  
 oi det errezela  
 gezurri bezela;  
 kezkarik ez daukanak  
 lasai du sabela.  
 Ik ez uan ikusi  
 gure etxeko gela,  
 naizta eduki biok  
 barrunbe epela,  
 askok usteko dik i  
 beida egon aizela.

*Laz.-*

Gauzak bear dirade  
 itxuretan juzka,  
 ez egin bi puska;  
 Lazkao-Txikik gauz oiek  
 goguan daduzka.  
 Bestiai aitzeki ematen  
 arnasa ta puzka,  
 berak ezin sortu du  
 nai ainbeste puska,  
 berak ezin dunian  
 Jaungoikoai kulpa.

*Mit.-*

Mutilzarran berri're  
 badakigu guk e,  
 esan naia nuke;  
 mintzatutzen aiz emen  
 gauza utsen truke.  
 Onek aitortutzen du:  
 "Nik al dana uke".  
 Alderdi pixkaren bat  
 bazeukagu geuk e,  
 soltero dan partetik  
 ixildu bear luke.

Laz.-

Nere aitzaki dana  
nai nuke azaldu,  
enazu zapaldu,  
ongi deguelako  
guztiok apaldu.  
Nik ez ezkontziakin  
ez det ezer galdu,  
len bizkorra nitzan da  
orain enaiz auldu;  
merezi ez dun sorua  
zertako goldatu?

Mit.-

Joxe Migel, ez artu  
orren kontu ziñik  
da mingain zikiñik;  
ezin laike mintzatu  
gauzik ez dakiñik.  
Zuk etzendake esan  
or, ez, jolas piñik,  
garbi ez baidakizu  
ezkontzan dotriñik;  
aber gelditzen zeran  
goldatu eziñik.

Laz.-

Nekazari-kontuan  
etzaitia asi,  
ixil zaitetz kasi;  
labrantzan oitu gabe  
gu ez gera bizi.  
Zeure baratzaz oroitzen  
zera lendabizi,  
ni artu nai niñuke  
berarekin nasi,  
itzai ederra daukat  
akullu ta guzi.

Mit.-

Joxe Migel onek e  
dadukan fallua  
baida urgullua,  
gaur ez da leku onez  
onera billua.  
Bizkorrari're sortzen  
baizaio fallua,  
iri're emango ditek  
uste ez dan mallua,  
bei txikiak bilduko'ik  
ire akullua.

Laz.-

Ongi itzegitea  
zuk zenduke obe,  
izan gauzen jabe;  
etzaidazula eman  
ainbeste naigabe.  
Pobria nago baiñan  
enago oi gabe,  
etxe pobre batean  
bizi naiz txit noble,  
beiangana juango naiz  
akullurik gabe.

Mit.-

Gauzak artu itzazu  
bide guztietan  
lege ezietan,  
neri garbi esanda  
ajola ez dietan.  
Enabile gezurrez,  
dana egietan:  
entenditu nai badek  
kontu garbietan,  
ire akullua zebillek  
biga gaztietan.

*Laz.-*

Ordu erdi batean  
 ai gaituk kantari,  
 gezurrak kontari;  
 oraindikan bagaude  
 tontua ugari.  
 Ez uen oso ona  
 lengo bertso ori,  
 ire zañetatikan  
 ez baidek ixuri,  
 arrazoirik ez daukak  
 ta ixildu ari.

*Mit.-*

Nere lengo bertsoa  
 ez uen ergela,  
 esana orrela,  
 esan nai nun askorek  
 jan ez digutela.  
 Oneri're gustatzen  
 baizaio okela,  
 eta gazte samarra  
 al laiken bezela,  
 orko txala gartzitan  
 saiatutzen dela.

*Laz.-*

Nei oroituziak e  
 inportik etziak,  
 poz zeudek guziak;  
 bañan saio luziak  
 dituk itxusiak.  
 Asper dituk morroiak,  
 berdin nagusiak;  
 bertso-atentziuak  
 dizkitek utziak,  
 ta gaizki esan danak  
 barkatu akiak.

*Mit.-*

Joxe Migel, ortikan  
 bertsoan zer diok?  
 Entzun al dik inork?  
 Konfiantzik ez dunai  
 ori esakiok.  
 Laguntza geio badiok  
 gure amoriok,  
 Mitxelenari beintzat  
 bate nai badiok,  
 esanak esan lagun  
 bear digu biok.

*Laz.-*

Len baidizut botia  
 zenbait zuk entzuna,  
 badezu zentzuna,  
 barkatuko al dezu  
 gaur esan zaizuna.  
 Luzaro egotia  
 ez da gauz leguna,  
 ustu biarra dago  
 eraten deguna,  
 orain jakin nai nuke  
 nun dagon komuna.

*Mit.-*

Azken agurra daukat  
 bertsuengaitikan,  
 gaur degun jaitikan,  
 gure Joxe Migel e  
 kejatu ortikan.  
 Txikia dala baño  
 etzaio inportikan,  
 azkenian nabari  
 zaio orretikan:  
 depozito txikiak,  
 muitu ber maitikan.



Lazkao-Txiki eta Mitxelena, Oiartzungo  
San Estebanetan, 1984-ean.

**KALABAZAREN AUZIA**

Donostia, 1968-II-4.

Eun milla pezetako saria.

Gaia: Kalabaza zuk zure lurreean erein zenuen, Lazkao-Txiki; baiña aienak luzatzen joan dira eta kalabaza-burua Mugartegiren saillean azi da. Zeiñena da kalabaza?

*Laz.-*

Auzi-unea eldu zaigu ta  
oraintxe ez nago lasa,  
erabakitzen, nere laguna,  
ez uste danik jolasa.  
Biok burrukan aritu bear  
ta batentzako da baza,  
zure soroan gaur egon arren  
nerea da kalabaza.

*Mug.-*

Anai-arrebak, gure artean  
au da daukagun auzia,  
baiña neronen begien bistan  
dago ondo ikusia.  
Bere lurreean itsatsi zuen  
lendabiziko azia,  
baiña nerea izan bear du  
neure lurreean azia.

*Laz.-*

Zuk ori ola esan didazu  
baiña ni ez nago pio,  
ta asi bear degu pentsatzen  
zeiñena degun serio.  
Murko bat pasa eta zurera  
etzekiela zan io,  
kalabaza ori etzan aziko  
zaiñak moztu banizkio.

*Mug.-*

Egia berak aitortuko du  
eta garbi esaten du,  
nik oraindikan beste iñori  
ez diot ba ezer kendu.  
Bere lurreean sortua dala  
onek garbi aitortzen du,  
zeure lurreean erein zenduna  
zertan ez bertan mantendu?

*Laz.-*

Gu alkar ongi konpon gindezke,  
alaxen iruditzen zat;  
ta gutxi degu erdi-erditik  
partitutzia bientzat.  
Baiñan azkena esandakua  
artu bear dezu aintzat:  
egon-tokia pagatuko det  
ta utzi zazu neretzat.

*Mug.-*

Frutu onikan ez da sortutzen  
ez bada izaten azirik,  
egun askotan ez degu izan  
onenbesteko auzirik.  
Zure lurreean egondu balitz  
arek etzuen bizirik,  
neurean azia dago eta  
ez dezu zer ikusirik.

## KATUA ETA SAGUA

Urruña, 1968-III-3.

Gaia: Ezponda katua izango da; eta Lazkao-Txiki, sagua.

*Laz.-*

Emen nebillen bizi naiean,  
aizu, zu etsai katua,  
neretzat noiztik ote dezu zuk  
gorroto ori artua?  
Bi atzaparrak dirazu neri  
errurik gabe sartua,  
gauza guzien bizibidea  
ez dago debekatua.

*Ezp.-*

Ni begira hor egotu nauzu  
zilotik atera arte,  
zure aragi fin ta gordiña  
nik dutalakoan maite.  
Nere hatzaparretan zaitut eta  
zu ere estu egontu zaitte,  
zeren etzaitut nik lasatuko  
azken hatsa eman arte.

*Laz.-*

Estuasunez bizi naiz bañan  
esan biar dizut au're:  
mundu onetan txiki guztiak  
aundiaren mende gaude.  
Orain orrela bizi gera ta  
ala izango zan len ere,  
nekin etzera asko aseko  
lenago gose bazaude.

*Ezp.-*

Ni gatu sortu bainintzan eta  
zu berriz zira sagia,  
horrela dago gure bientzat  
mundu hontan izatia.  
Ni azkarrago naiz hemen eta  
zu berriz arra txikia,  
zu atzematte hortan pasatzen  
dut nik nere errabia.

*Laz.-*

Baiñan pixka bat errukitu zu,  
pentsatu zazu ainbeste,  
gure egilleak bioren gauzak  
berdin ikusten dituzte.  
Zu orain arro zabiltza baiñan  
laister bear dezu triste,  
txakur aundi bat or dator eta  
kontuz ibili zindezke.

*Ezp.-*

Txakur aundi hoi gaur neretzako  
ez dadiela agertu,  
holakorikan neretzat izan  
zeikela ez dut amestu.  
Zuk deraukazun libertatea  
nik oraintxe baitut hartu,  
horixe da ni gatu izatea  
eta Lazkao-Txiki sagu.

## AINGERU-ZALEAK ETA ABAR

Zumarragako Agiñeta, 1968-XI-17.  
Lazkao-Txiki eta Lasarte.

*Laz.-*

Ekarri degun eginkizuna  
al bagenezake bete,  
orretarako berriro ere  
kantatutzeko diote.  
Preparatuta ipiñi adi,  
nere aixkide Lasarte,  
guk ere zerbait egin dezagun  
oiek deskansatu arte.

*Las.-*

Lazkao-Txiki, zure bertsoak  
ez nau, ez, asko samindu;  
erantzun naia, ni Jaungoikuak  
buruz jantziko banindu.  
Asko kantatu izan det len da  
buruz pixka bat arindu,  
alare zuen mende gera gaur,  
nai dezutena agindu.

*Laz.-*

Geure artean zer gauza dagon  
ederki asko dakik ik,  
emen bertsoak aditu gabe  
jendiak etzeukak onik.  
Ta guk izanik buru pixka bat  
eta mingaña txintxilik,  
edertasun au ikusi eta  
zein egoten dek ixilik?

*Las.-*

Entenditu det berialaxen  
zuk esan nai dirazuna:  
bertsoentzako mendigain ontan  
badala zaletasuna.  
Eta biotzez entzun ezazu  
Lasarteren erantzuna:  
kanta dezagun al dan guzia,  
badaga zeñek entzuna.

*Laz.-*

Lengo urtetan e paraje ontan  
zeñi kantatua bazan,  
nola tabernan toki onetan,  
zer esanik ez an plazan.  
Eta oraintxen bost aingerutxo  
or ikusten nitun dantzan,  
pentsatzen nuen ote neguen  
paradisoko baratzen.

*Las.-*

Berriro ere erantzuteko  
orra ordua neretzat,  
emen ametsak egin bearrak  
dauzka bakoitzak beretzat.  
Aingeru polit oien usaia  
ain gustagarri guretzat,  
bostetatikan orain pentsatu  
zein aukeratu zeuretzat.



Laz.-

Len ere entzun izandu diat  
igandik bertso ederrik,  
ta azkeneko onetan ere  
ez dek ibili okerrik.  
Esan deguen aingerutxuak  
eztitek maitatzen zarrik,  
gu unuzkero konforme biar  
ikustiakin bakarrik.

Las.-

Jaun Zerukuak lege ederrak  
jarri zituen lurrian,  
al dana egiten saiatu bear  
geure bizi laburrian.  
Zeruan zaudela ezin esan  
baña gaur zaude urrian,  
zenbat alditan arkitu zera  
bost aingeruren aurrian?

Laz.-

Aingeru-zale aundia negok  
ta zerutarren laguna,  
min bat zedukat orain ezertxo  
eiterikan ez deguna.  
Eskubitako au're etziok  
ilusio danak juna,  
beste fraile bat baziok emen  
begirik kentzen ez duna.

Las.-

Berriro ere erabaki bat  
al bada nai nuke esan,  
fraile jatorra ez dala izan  
jendiak ikasi dezan.  
Ta onen berri guk emateko  
garaia nunbait aurten zan,  
aingeru-zale zalako ori  
komentutikan erten zan.

Laz.-

Lenago jaun bat emen jardun zait  
onen berriak ematen,  
ta aitatu dit gure errian  
prailetan nola egon zen.  
Etorri zala oi ta emezortzi  
urte omen dira aurten,  
andikan onek anka egin zun  
koroia egin baño len.

Las.-

Garaian nago baxtar ontatik  
egiak otsegiteko,  
Balerdirekin nola bildurrik  
ez dedan utsegiteko.  
Oraintxen degu gure garaia  
garbiro itzegiteko,  
Lazkao ez da leku ederra  
praile onak egiteko.

Laz.-

Aizak, Lasarte, ez itzak esan  
emen arrazoi grabiak,  
ik bai al dakik nola diraden  
Jaungoikuaren legiak?  
Etsaiak ere izaten dituk  
ausartak edo trebiak,  
aiek kartzelan sartzen ditunak  
eztituk askoz obiak.

Las.-

Utzi dezagun konpromisua,  
utzi dezagun ardura,  
ni iritxi naiz berriz Balerdi  
toriatzeko ordura.  
Praile-bizitza egin ez arren  
juan zindezke zerura,  
ongi maitatzen baldin badezu  
len artu zenduen ura.

Laz.-

Urte txarretan gure errian  
 fraile egona zera ta,  
 urte aietan atera ziran  
 au bezelaxen amaika.  
 Ogi gorria ematen zuten,  
 boniato ta patata,  
 onek andikan aldegin zuen  
 alimentua faltata.

Las.-

Kantatutzeko jarri nazute  
 berriro era bapuan,  
 luzaro segi bear badegu  
 olako praile-tratuan.  
 Iñola ezin etsi zun orrek  
 gosia zegon lekuan,  
 libre ibili naiago zuen  
 ainbeste sufritzekuan.

Laz.-

Oponioa ala asi zaio  
 fraile egiten asita,  
 au egon zala zeñek sinistu  
 orain emen ikusita?  
 Angua ere jakitearren  
 egin zenduen bisita,  
 gero andria artu zenduen  
 ango sotanak utzita.

Las.-

Ez al zenion ango sotana  
 emazteari emango,  
 sinistu zure kargik ez dula ark  
 gorputzian eramango.  
 Zerbait geiago itzeginda're  
 gezurrik ez det esango:  
 au praile egin balitza ere  
 etzan zuzena izango.

Laz.-

Bere etxian juan bitarte  
 ez omen zedukan onik,  
 sei bat urtean ama aspertu ta  
 konbentu artara juanik.  
 Amabi urtera iritxi zan da  
 etzuen maite sotanik,  
 fede santuan alde aundirik  
 ez dadukagu zu ta nik.

Las.-

Gogor xamarra iduritzen zait  
 egin diozun sarrera,  
 diferentzia billatzen det nik  
 bitatikan bakarrera.  
 Au konbentura juan zan eta  
 an jo zuen okerrera,  
 berak argatik kunplitu zuen  
 sei urte barru karrera.

Laz.-

Ez gaitezela gizonagaitik  
 gaizki esaten aritu,  
 fraile izan onek kalteak eta  
 meiorak ere baditu.  
 Andik atera, gero ezkondu,  
 lanian ez da gelditu,  
 seme leialak azi ezkeru  
 badago naiko meritu.

Las.-

Meritu onak artu dituzu  
 Lazkao-Txikik emanik,  
 ta ez det uste bide ortatik  
 martxa txarra daramanik.  
 Famedi ongi azi badezu  
 ez daukagu zer esanik,  
 fraile zertako ein bear zendun  
 biziosua izanik?

*Laz.-*

Projimuaren pekatu ori  
obe ez al degu laga?  
Ta gizonari gaur ez ipiñi  
*jar zaiion ainbeste traba.*  
Onek dionez biziosua  
noizbait izandu zera ba,  
bañan Jainkuak barkatzen ditu  
gero damututzen bada.

*Las.-*

Lenago triste zegon gizona  
orra iritxi pozera,  
orretarako etorri giñan  
*gaur txoko apraposera.*  
Baña ixildu nai genduke guk  
oitura degun klasera,  
gu onenbestez konforme gaude  
zu ala baldin bazera.

*Laz.-*

Ta bukaera, adiskideeak,  
eman zaiogun orduan,  
gaizki ai gera orain bitarte  
ari geraden moduan.  
Okasiorik sortzen bazaizu  
pixka bat zartutakuan,  
ango atiak zabalik daude  
ta bildurrik gabe juan.

**BERTSO-KANTARIA ETA SERENOA**

Gaintza, 1970-VI-29.

Gaia: Zu, Lasarte, afalondoan bakarrik geratu zera etxean; eta, bertso kantari ari zerala, serenoa etortzen zaizu, ixilik egoteko esanez. Lazkao-Txiki, zu serenoa zera.

*Laz.-*

Ni kale zaintzen nengoelarik  
or erori naiz kontuan,  
bakar-bakarrik negon geldiro  
kale ertzeko onduan.  
Gaugiro ederra eta txintikan  
ez da entzuten kanpuan,  
lo egin bear dan ordutan zu  
nola ai zera kantuan?

*Las.-*

Apalonduan kantatutzeko  
noiz gaur ainbesteko gogo?  
Al dezuna zuk esan didazu,  
ez zenezake geiago.  
Nai dedan egin eskubidetan  
ni neure etxean nago,  
zuen mendean dagon erria  
esku ederretan dago.

*Laz.-*

Ez det esan nai arrats batean  
bear deguna tristerik,  
baiñan ez daukat ikasbidean  
zu zabiltzaden usterik.  
Ez dago ongi gauez kantari  
era ortan ikusterik,  
ez dezu egiten lo egin nai dunai  
galeraztea besterik.

*Las.-*

Lotan daudenak ez esnatzeko  
serenoak itzegin du,  
nere txokoa bakardadean  
gauez nai nun atsegindu.  
Gogoa neukan ontarako nik,  
burutik ez naiz arindu,  
ta, serenoa, nere etxean  
ez al nezake agindu?

*Laz.-*

Lo egiteko izaten baita  
beti oiaren epela,  
eta ez zu ari zeran eran  
aritutzeko onela.  
Esan liteke gauez kantari  
mozkorturikan zaudela,  
egunsentian kantako dezu  
txori bizkorrak bezela.

*Las.-*

Egunsentian kantatu leike  
gauez ixilik egiña;  
ta, serenoa, zu ez zerade  
gaurko nere atsegiña.  
Umiltasunez kantari danak  
ematen al dizu miña?  
Kalea zaindu bear zenduke  
gizon jatorra baziña.

## BAT BARRURA, BESTEA KANPORA

Gaintza, 1970-IX-29.

Lasarte eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Biok anaiak zerate, aspaldian alkar ikusi ez badezute ere. Eta orain espetxe edo kartzela bateko atean topo egiten dezute: bat barrura eta bestea kanpora. Lasarte, zu zatoz kanpora. Asi zaitetz bertsoetan.

*Las.-*

Berriro ere iritxi gera  
itzegiteko ordura,  
anai maitea, au esan bear  
dizut al dedan modura.  
Artu ezazu espetxe ontan  
bizi izateko ardura,  
ni emendikan kanpora nua,  
zu sartu zaitetz barrura.

*Laz.-*

Ez nuen uste bizi txar onek  
zeukanik oinbeste kate,  
galdezka nago nere buruai  
zertan ein ote nun kalte?  
Askatasunak nunbait ez gaitu  
beraren kolkuan maite,  
zertan utsegin dedan ez dakit  
ta itzalera naramate.

*Las.-*

Esango dizut berialaxe  
utsegitia nola zan:  
karameluak ostu ziñuzen  
festan zenbiltzala plazan.  
Litxarrerian ibili zera  
juan dan ogei urte pasan,  
lenago sartu bear ziñuzten  
justizirik egon bazan.

*Laz.-*

Karameluak ostu nik eta  
merezi al nun ainbeste?  
Gizon eginda zabiltzatenak  
baietz eliteke uste.  
Aurran pekatuz gizon aundiak  
kartzeleratu gaituzte,  
beste batzuk milloiak ostu ta  
kanpuan libre dabilzte.

*Las.-*

Oraindik ere biotz gogorra  
ez zaizu asko xamurtu,  
urteak joan da kopet aldean  
naiz ta azala ximurtu.  
Orain barrura juan bearrak  
zaitu erabat bildurtu,  
kulpa guztiak zureak dira,  
ori badakit ziartu.

*Laz.-*

Nere anaiak ez du itzegiten  
egokitzen dan moduan,  
gizon geiago ziñala zeu're  
nik ala pentsatzen nuan.  
Zu ere zerbait izan dalako  
or egon zera orduan,  
olako asko dago barruan,  
kulpa dutenak kanpuan.

**USTE GABEKO BAZKALDARRA**

Gaintza, 1970-IX-29.

Gaia: biok lagunak zerate. Zu, Lazkao-Txiki, emen Gaintzan bizi zerana; eta gaur Lasarte etorri zaizu bazkaltzera, zuk deitu ere egin gabe.

*Laz.-*

Umore ona pasatzia da  
jaiaren eginkizuna,  
au zoramena San Migeletan  
gaur egokitu zaiguna.  
Ainbeste urte alkarrengandik  
aparte giñala juna,  
gaur bazkaltzera inguratu zait  
uste ez nuen laguna,

*Las.-*

Lenago ere pasiak gera  
makiña bat onelako,  
lagun zarra, nik bertso txiki bat  
prestatua det belako.  
Ez zaitezela ainbat arritu  
nik au egin dedalako,  
zuk deitu gabe etorria naiz  
konfiantza nuelako.

*Laz.-*

Orregatikan zure laguna  
ez da, ez, gelditu triste,  
neu poztu naiz oi ikusizian  
zuk uste zendun ainbeste.  
Ta gaizki artu detenik ere  
ez zazu pentsatu bate,  
egiz maitatzen diran lagunak  
orixe egin oi dute.

*Las.-*

Aspalditxoan nun ote ziñan  
ni bizi nintzan kezketan,  
lagun maiterik biotzagandik  
apartatutzen ez detan.  
Gaur bezelaxe alkartasunez  
ibili giñan gaztetan,  
ta berriro're bilduak gera  
zure erriko festetan.

*Laz.-*

Zu ez jakiñik etorri arren  
ez det orrenbeste kezka,  
nun eta nola bizi ote ziñan  
egoten nintzan galdezka.  
Jan asko biarrikan bestetik  
nere aiskidia ezta,  
gure artean maitasuna da  
sobrante eta gaiñezka.

*Las.-*

Zenbat maitasun dedan zuretzat  
nola ez dezun neurriko,  
biotzean zer ekarri detan  
ez diozu igerriko.  
Al dan garbien nabil izketan  
jakiñik nundik jarriko,  
lan ein bearra izan balitza  
ez nintzan, ez, etorriko.

## NESKAMEA ALA MORROIA

Gaintza, 1970-IX-29.

Gaia: baserri bateko senar-emazteak zerate biok. Lasarte nagusia da; eta Lazkao-Txiki, etxe-koandrea. Nagusiak neskame bat ekarri nai luke etxeko lanetarako; eta etxekoandreak morroi bat, soroko eta beste lanetan senarrari laguntzeko.

*Las.-*

Andre maitea, neskame billa  
orainguan naiz asia,  
ez dezazula zuk ere artu  
bizimoduko esia.  
Laguntzaille bat nai nuke ondoan  
nola naizen nagusia,  
baiño zurekin zail det egiten  
pentsatutako guzia.

*Laz.-*

Nik ongi dakit, zuk ez-ezikan,  
gure etxe ontako berri,  
zer martingalak dabilzkizuen  
ederki dizut igerri.  
Utzi zaiozu leno artuta  
daukazuen asmo orri,  
askozaz ere obego degu  
morroi jator bat ekarri.

*Las.-*

Etxekoandrea len bezelaxe  
bere aldetik da mintza,  
aspalditxoan gu alkarrekin  
bigurri xamar gabilitza.  
Lengoarekin asperturikan  
zu berri billa zabilitza,  
etxean agindu bear badezu  
artu zazu nagusitza.

*Laz.-*

Gure nagusi onek ez dakit  
badu ezin konpondua,  
neskame gabe gure etxian  
badago bizimodua.  
Lenago ere ez da ikusten  
mardula ta gizendua,  
ura ekartzian ez zaio asko  
lodituko lepondua.

*Las.-*

Emazte maite, arrazoiari  
jar zaitetz erreparuan,  
urte batzuek pasa giñuzen  
guk alkarren anparuan.  
Okertu eta jarria dago  
amona zarren moduan,  
gatzexego bat ekarri nai det  
au xarra nola daguan.

*Laz.-*

Gauza ortatik ote daduka  
gizonak oinbeste kezka?  
Zu, nagusia, neskame ori  
etxera ekartzen errez-ta.  
Bestela ere arkitzen zera  
etxeko lanez beteta,  
berria zertan linguakin e  
ezer ezin dezu eta?

**MAGNETOFONOA ETA ABAR**

Gaintza, 1970-IX-29.

Bazkalondoa.

*Laz.-*

..... ipiñi al aiz(1)  
kantatutzeko goguan?  
Une onetan ixilik ezin  
egonik emen nenguan.  
Aguazil eta alkaterikan  
ez zedukagu onduan,  
bakarrik asi bearco diagu  
agintzen ez dan lekuan.

*Las.-*

Emen badira traste batzuek  
ta ez oso onraduak,  
lenago ere zintan artuak  
genduzkan gure graduak.  
Bear bezela itzegiteko  
artua nago goguak,  
aguazillik ez degu baiña  
badatoz okerraguak.

*Laz.-*

Orregaitikan kopeta illun  
ez adi jarri iñola,  
ikusi dit nik gertugokua  
eta lasai ni negola.  
Zinta oekin emen lagunak  
ipiñi arren onela,  
jakin biar dek gure artean  
txibatoik ez deguela.

*Las.-*

Txibatorikan ez leike egon,  
ori ala degu uste,  
baiña lanaren freno gaizto onek  
ni jarri oi nau ain triste.  
Geroko bertso gordetzailleak  
zintak ekarri dituzte,  
berez umillak izanak arren  
lotsagabetzen gaituzte.

*Laz.-*

Euskal-Erriak oaindik bazezkik  
bertso ta oituren antsiak,  
batzuentzako nola diraden  
gauza onaren graziak.  
Zinta barnean sartu bearra  
gure kontu itxusiak,  
aparato au asmatu zunak  
zeduzkak kulpa guziak.

*Las.-*

Aparato au gorrotatu nun  
oso gaztea nitzala,  
au sortu zunak merezi luke  
pixka bateko itzala.  
Ta ikusten det katxarro auekin  
oso gaizki dabiltzala,  
gure bertsoak lapurtzen emen  
fraile gaiztoak bezela.



Laz.-

Magnetofona edo zinta au  
zegok bizkor eta iaio,  
esandakua beti-betiko  
goguan gelditzen zaio.  
Ta Donostian izan berri dek,  
aiskide, ire tokaio,  
Galizi edo Madrilla eraman  
gustatzen baldin bazaio.

Las.-

Urtian beingo bixita egin  
oi digu geure errira,  
eta orduan aldatu oi da  
negutik udaberrira.  
Denbora asko ez du pasatzen  
bertsolariei begira,  
nere iritziz naiago luke  
ark denak ilko balira.

Laz.-

Aren naiaren berri ez jakin  
ta nola dek ori kanta?  
Juxtu-juxtuan gizarajoak  
orain bear dik aguanta.  
Ikusirikan aurten Donostin  
berak azaldu dun planta,  
gu iltzea nai baldin badu're  
berak asko ez dik falta.

Las.-

Al dan artean bizimoduai  
emen bear zaio eldu,  
gizon jatorrak berriro ere  
obrak nai ditu azaldu.  
Gure laguntzak denborarekin  
erabakia bear du,  
aparatoak dauzkaten denak  
aren ondora bialdu.

Laz.-

Ta gizon orrek nundik ote du  
gu ondatzeko antsia?  
Kristau aldetik begiratuta  
oso gauza itxusia.  
Orregaitikan nola ixildu  
Euskal-Errian ezia?  
Gizonak ezin liteke lotu  
Jainkoak libre utzia.

Las.-

Beste bertso bat botako dizut  
eta guztizko noblezan,  
gai berezi au artu ez balitz  
biontzat askoz obe zan.  
Kontsejuxto bat emango dizut  
ta au zuk goguan izan:  
pakean bizi nai baldin bada  
iñori gaizki ez esan.

Laz.-

Neroni ere ire esanez  
konbentziturik natxiok,  
gaurko egunean gauza geiegi  
esaterikan etziok.  
Biar Madrillen jakin lezake  
zer esan degun gu biok,  
gaur izkutuko tokirik iñun  
mundu guztian etziok.

Las.-

Notizi oiek eramatia  
ote litzake atsegin?  
Berriro ere guztien bistan  
zerbait bear det itzejin.  
Oiek artuta Madril aldera  
buelta bat nai dunak egin,  
Parisa billetia pagatu  
geio etorri ez dedin.

*Laz.-*

Arrek etzeukak juan bearrik  
bere tokitik iñora,  
bere txokuan pasia badik  
makiñatxo bat denbora.  
Len egindako azio txarrak  
etortzen zaio gogora,  
aspaldi ontan ez dek atera  
naziotikan kanpora.

---

(1) Emen falda diran itzak, zintatik entzun eta ezin ulertu.

## BASARRIA

Gaintza, 1970-IX-29.  
Lazkao-Txiki eta Lasarte.

Laz.-

Lasarte, festaz festa  
gu gabiltzak sarri,  
bertsoak ta puntuak  
botiaz alkarri.  
Asko zeudek zeozer  
jakiteko egarri,  
ta esango al diagu  
basarriko berri?

Las.-

Basarriai itzegiñik  
jartzen al da festa?  
Basarritarrak nekia  
badauka gaiñezka.  
Ango berri badakit  
an jaioa naiz ta,  
burua argitzen gaur  
basarrian gaitz-ta.

Laz.-

Basarria len gaizki zan,  
gaur gaizkigo kasi,  
zenbaitu ustu eta  
ditugun ikusi!  
Etxe oiek gauz ori  
ez zuten merezi:  
lurrak piñu sartu ta  
kalera igesi.

Las.-

An bizitu giñan gu  
denbora frankuan,  
langintz ura goguan det  
oraindaiñokuan.  
Kalean bizi diranak  
nai zuten lekuan,  
arkitze'ira basarria  
ona dalakuan.

Laz.-

Mendirira begiraka  
jarri zaitia zu,  
ta zere barrenean  
artuko dezu su.  
Au ere bestien eran  
berdintsu daukagu,  
Gaintza're ustuta da  
urte gutxi barru.

Las.-

Gai ortan ez genduke  
esan nai ezere,  
penik ez ematia  
egizu mesere.  
Basarrian segiko  
dute berriz ere,  
neke franko egiñaz  
eskerrikan gabe.

Laz.-

Askok segiko dutenik,  
Manuel, ez uste,  
oraintxe alde danaz  
estutu gaituzte.  
Mutilzar asko dago  
ez andre, ez emazte,  
emengo basarriak  
utsik dituk laste.

Las.-

Gaztea gogor artzen du  
basarriko lanak,  
kalera begira gaur  
daude ango danak.  
Baiña ez al zaizkigu  
bajatuko danak,  
oraindik badu zerbait  
maiorazko danak.

Laz.-

Asko daude zeozer  
ikus desiuan,  
jakitia nola dagon  
obligaziuan.  
Erakusten da zorrak daude  
diputaziuan,  
olako asko zegok  
gure naziuan.

Las.-

Diputaziuan zenbat  
dira soziuak?  
Txikiak sortze'ituzte  
sarri sesiuak.  
Besteren lanari egin  
errez preziuak,  
alper asko mantentzen du  
diputaziuak.

Laz.-

Basarriko gaztiak  
zerbait nai du jakin,  
eta ikasten saiatzen  
dirade alegin,  
nola diputaziuan  
berdin Zabalegin;  
besteri erakusten da  
berak zorrak egin.

Las.-

Ni're konturatu naiz  
zure esanean:  
oiek ez dabiltzala  
bide zuzenean.  
Gazteak zeiniek ezi  
basarri-lanean,  
lengo guraso zarrak  
iltzen diranean?

Laz.-

Basarriai egin zaio  
makiña bat kalte,  
leno're egin zaio  
beti orain arte.  
Etxe utsik ez leike  
iñola're bete,  
esnea zazpi pezetan  
dagoen bitarte.

Las.-

Guk emango genduke  
arrazoi ederrik,  
baiño egiak ez du  
askotan eskerrik.  
Basarria lanean  
ari da alperrik,  
orri laguntzen zaio  
radioz bakarrik.

*Laz.-*

Ortik dator galera  
eta sesuia,  
basarrian betik bera  
diru-aziua.  
Lenago bai omen zuten  
jaso desiu,  
baiña dobleko ta geio  
kontribuziua.

*Las.-*

Gauzak esan ditzagun  
geldiro-geldiro,  
ni zure bide ortara  
banua berriro.  
Basarrian bizitzen  
gaur ez dago giro,  
obek ikusten dira  
amaika zikiro.

*Laz.-*

Agintariak ber luke  
kontuak atera,  
nai badute jendia  
emen egotera.  
Uraren gisa geienak  
badijuaz bera,  
.....  
.....ari gera.(1)

*Las.-*

Ederki itzegiten du  
gaur nere lagunak,  
berriz ez du etorri nai  
bein beraiño junak.  
Gaiñekuen egintzak  
ez dira txukunak,  
nai duena egiten du  
gaur agintzen dunak.

*Laz.-*

Ta kalera jetxitzia  
obea guk kasi,  
emen lana eginda  
ezin baida bizi.  
Ainbeste bei mantendu  
ta txekorrak azi,  
ta fabrikan ainbeste  
ezin irabazi.

*Las.-*

Basarriaren kontra  
zu lengo jokeran,  
beste erantzuntxo bat  
badator aukeran.  
Zu're kalian zabiltz  
gaur askoren eran,  
eta esan zaidazu  
nola bizi zeran.

*Laz.-*

Nola bizi naizen nik  
esango det gogoz,  
zure galdera nago  
erantzuteko asmoz.  
Len basarrian negon  
babarrun ta taloz,  
gaur kalian bizi naiz ta  
obetogo askoz.

*Las.-*

Kalearen txoramenak  
zaizkizu iritxi,  
arrazoi orri ez diot  
ain ontzat iritzi.  
Kalea obe dezu  
gerorako utzi,  
an dago lasto asko  
eta gari gutxi.

*Laz.-*

Zu ondoen zabiltzala  
pentsatutzen nago,  
basarrian egon arren  
ni baiño lenago.  
Esan dizut, Lasarte,  
esateko asko,  
gaur basarrian ez dago  
ez gari ta ez lasto.

*Las.-*

Ez dezu atzendu bear  
basarriko griñik,  
bizi zera bestieri  
lana eragiñik.  
Ni kalean sufritzen  
nekeak egiñik,  
iñola familia  
mantendu eziñik.

*Laz.-*

Basarriai emate'io  
orrelako famak,  
oi etziten esango ire  
aitak eta amak.  
Diru asko gabe gaudek  
gu leno izanak,  
beti basarri ortan  
ibili geranak.

*Las.-*

Kontseju bat ez dezu  
geroko kalteko,  
bertso baten bidez nago  
ori emateko.  
Arrazoi prestu bat badet  
zuri esateko:  
dirua ez du bear  
ondo izateko.

*Laz.-*

Iñortxok ez dit eman  
zuk ainbeste lege,  
zu zerade orduan  
emengo errege.  
Diru gabe bizitzeko  
al zerade trebe?  
Emen ezertxo ez dago  
dirurikan gabe.

*Las.-*

Sobrean baldin badezu  
dirua ekatzu,  
bertso au entzun eta  
gentzake deskantsu.  
Gauza bat ikasi nuen  
oraindik oraintsu:  
diru gabe're bizi  
leike zoriontsu.

*Laz.-*

Beraz, Lasarte, zaude  
zu asmo onian,  
bestelakua zera  
kasik geienian.  
Zer egin badakizute  
gaur Gaintza aldian:  
jornalik batere ez eman  
bukatzen danian.

*Las.-*

Jornala kobratzera  
nator ni propio,  
zertan egiten dezu  
ola desapio?  
Beraz oni diruak  
falta egiten dio,  
nere iritzirako  
neskatxa bat geio.

*Laz.-*

Beraz diruagaitik  
ez dizu ardura,  
egiz esaten badezu  
dionun modura.  
Ez zazuela egin  
aberats itxura,  
ta arririk ez bota  
zeure teillatura.

*Las.-*

Zu're badakit ez zera  
interesen jabe,  
ni're gelditu neike  
xentimorik gabe.  
Gaur jaso ezagatik  
juango naiz noble,  
urtego etortzean  
izango det doble.

*Laz.-*

Egia da, zu ez zaude  
diruaren premiz,  
gizona ondatzen da  
interes geiegiz.  
Baiña, Lasarte laguna,  
ez zabiltza egiz,  
guk ez genduke kantatuko  
dirurik ez balitz.

*Las.-*

Zuri entzuten dizut  
bertso txukunikan,  
baiño izketa ontan  
ez da zentzunikan.  
.....  
.....  
.....  
.....

---

(1) Lerro auetan falta diran itzak ezin zintatik ulertu. Urtego utsuneak ere arrazoi bera dute.

## AITA ETA ALABA

Elizondo, 1971-VI-6.

Gaia: Agirre aita da; eta Lazkao-Txiki, alaba. Alaba beti tabernetan ibiltzen da, zigarroa erretzen eta edaten. Aitari ori etzaio gustatzen.

*Agi.-*

Alaba, sortzen dezu  
naigabe ugari,  
aspaldi burutikan  
arintzen aiz ari.  
Zure posturarik etzait  
gustatutzen neri,  
nork aginduta jantzi  
dezu jantzi ori?

*Laz.-*

Erantzuna eman be-  
ar diot aitari,  
jantzian aitzakiakin  
bero baizait ari.  
Naizta dan gona luzea,  
naizta dan motxa ori,  
danak ongi ematen dio  
neska jatorrari.

*Agi.-*

Zure kontura amaikak  
egiten du parre,  
arrazoiakin aita  
daukazu asarre.  
Zurruta galanki ta  
zigarrua erre,  
neri ikasitakorik  
ez dezu ezer e.

*Laz.-*

Aita, zuk len bezela  
egin zazu lana,  
ori da astuari  
tokatzen zaiona.  
Zertako etorri zera  
alabarengana?  
Bera zartu da eta  
ezin eramana.

*Agi.-*

Aita zarrak, alaba,  
asko zaitu maite,  
zere gorputzarekin  
konturatu zaite.  
Jantzi motxa daukazu  
benetan arlote,  
al dana tapatuta're  
billatuko dute.

*Laz.-*

Gustatu omen da emen  
onek aitatua,  
alaba edukirik  
asko maitatua.  
Ez al naiz orrela're  
neskatxa bapua?  
Gorputza erakustia  
ez da pekatua.



*Agi.-*

Zuri begira nola artu  
nik pazientzia?  
Lotsa guztia galdutzen  
baizaude asia.  
Zure jantzian dago  
tela-eskasia,  
gero're badaukazu  
noiz erakutsia.

*Laz.-*

Aitak a zer arrazoi  
zuen azkenian!  
Ni ere arkitzen naiz  
esan biarrian.  
Gona motzakin nago  
sasoi ederrian,  
danak tapatuko ditut  
zartzen naizenian.

**NOIZ EZKONDU?**

Oiartzun, 1971-VIII-3.

Gaia: Mattin mutilla da; eta Lazkao-Txiki, neska. Biak dira nobio-nobiak. Illabete daramate alkarrekin. Mattinek aguro ezkondu nai du; Lazkao-Txikik oraindik ez.

*Mat.-*

Zurekin pentsatutzen naiz,  
neskatxa, egondu,  
nik zenbat maite zaitudan  
sinistiak lan du.  
Ta horrela egon gabe  
sobera berandu,  
lenbailen nahi nuke  
zurekin ezkondu.

*Laz.-*

Aldegingo diotela  
nunbait dauka traza,  
onek denbora gutxi  
nai liguke pasa.  
Ezkontze kontu ori  
ain da gauza erraza,  
ezkonduko gera ta  
ibil zaitetz lasa.

*Mat.-*

Nik beti goguan daukat  
ezkontza kontua,  
ta laister egiteko naiz  
deliberatua,  
noiz izango ote detan  
andre bat artua,  
hortako haiña diru  
badut sobratua.

*Laz.-*

Presaka asi zera  
bildurri antzera,  
obe dezu pazientzi  
pixka bat artzera.  
Beste bi illabete  
gora edo bera;  
nik utziko zaitutela  
bildurtzen al zera?

*Mat.-*

Ni esposatutzera naiz  
bai deliberatu,  
ta laister egin nai duala  
ezin esplikatu.  
Ihizi kontuan ere  
abila zera zu,  
pasaia dagon garaian  
bihar da tiratu.

*Laz.-*

Ni ezkontzeko nago ta  
zuk etzazu etsi,  
senar-emazteak gera  
biar edo etzi.  
Eta lendabiziko  
zurrutari utzi,  
ni biar baldin banazu  
berriketa gutxi.

## MUTILZAR ABERATSA ETA NESKAMEA

Oiartzun, 1971.

Gaia: Mitxelena, mutilzar aberatsa; Lazkao-Txiki, bere neska,

*Laz.-*

Beti zure serbitzari  
ta zurekin nago,  
baiña ola ibiltzerik,  
nausia, ez dago.  
Zu nola zeran leen  
baiño aberatsago,  
eman bear didazu  
soldata geiago.

*Mit.-*

Neskame onekin galtzen  
det nik osasuna,  
au da garbiro emen  
entzun bear dezuna:  
aski soldata badezu  
leno daukazuna,  
kobratzen dezuna ta  
kentzen didazuna.

*Laz.-*

Au da gizon aberatsa  
baita ikusia,  
diru asko du baiña  
oso itxusia.  
Aparte dirua aitzen  
dadukat asia,  
ez logratuko balu  
nai duen guzia.

*Mit.-*

Emen sortu nai dezu  
gezurrezko saltsa,  
neskame batentzat baitu  
dozena bat tatxa.  
Zortziretan bear ta  
amarretan altxa,  
eta nun dauden ez daki  
sukalde ta plantxa.

*Laz.-*

Zirrika asi zitzaidan  
joan zan egunean,  
nigana gozatu nairik  
dirua dunean.  
Pobrea izanda ere  
nik nai det pakean,  
naizta aberatsa ez izan,  
garbitasunean.

*Mit.-*

Disimulo ederrean  
bai erakusten du,  
gerrarako bidea  
berarek asten du.  
Oera dijoanean  
nonbait e azten du:  
koartoko atia  
zabalik uzten du.

## NESKA BAT ETA BI MUTIL

Donostia, Astoria, 1973.

Lazkao-Txiki, Gorrotategi eta Imanol Lazkano.

Gaia: Lazkao-Txiki neska bi mutil auek enamoratuta.

*Laz.-*

Bein ere baiña aukera ohea  
ara neska batek emen,  
biok maitatzen nautela asko  
ala ari zait esaten.  
Baiñan biotzak maite bear du,  
mingaiña ez da izaten;  
ikusiko det bitan ea nor  
ondo portatzen zeraten.

*Gor.-*

Neskatxatxua, aldamenetik  
guk zuri begirazuna;  
bat artu eta seguru dezu  
munduko etorkizuna.  
Zuk jakin biar dezu aurretik  
zein dan inporta zaizuna,  
orrek itz goxok eskaintze'izkizu  
ta nik berriz maitasuna.

*Ima.-*

Ikusten danez, biok maitale  
sortu giñaden ludira,  
eta bioren begi-biotzak  
bide batetik jun dira.  
Irrikatutzen omen gabiltza  
damatxo bati begira,  
aundixagua izandu balitz  
artuko genun erdira.

*Laz.-*

Leno txikia ni izanda orain  
bi aldetatikan eske,  
eta puskatzen asi ezker  
asko naizenik ez uste.  
Bi mutil oek neskatxa batek  
txoratzen jarri dituzte,  
baiñan txiki bat izan liteke  
bi gizonentzat ainbeste.

*Gor.-*

Gure biotzak neska onentzat  
maitasunez daude bero,  
naiz eta kontu latzak etorri  
neska au artu ta gero.  
Lazkano, erdi-banaterikan  
ik etzakela espero,  
gauza txikia uts biurtzen dek  
erditik bi ein ezker.

*Ima.-*

Erabakia zuretzat dago,  
nere neskatxa laztana,  
maitasun gauza izaten baita  
nolanai eiten ez dana.  
Juan zaitia zeuri geiena  
gustatzen zaizunengana,  
zeure gustoko artuta ere  
izango da naiko lana.

*Laz.-*

Bizilagun bat nai luteke ta  
ez dakit nori lagundu,  
izanez ere ibilia naiz  
sarri mundurikan mundu.  
Neska batekin bi gizonezko  
ezin litezke konpondu,  
biar gaubian pentsatuko det  
biokin norkin ezkondu.

*Gor.-*

Neskatxatxua, ainbeste bider  
amets goxotan zurekin,  
ta orain Lazkano aldamenetik  
pujatzeko asmoekin.  
Ta zuk nola ezkonduzerikan  
ez dezun gizon birekin,  
gure asmuak ikusi dira,  
orain nai dezuna egin.

*Ima.-*

Argibide bat izan dezala  
gure maitasun itxuak,  
mundu onetan gizon geienak  
ez al gera berdintsuak?  
Ezkondu arte izaten gera  
leialak eta zintzuak,  
uztartu arte aingeru eta  
uztartutzean otsuak.

**AITONA ETA BILLOBA**

Donostia, Astoria, 1973.  
Lazkao-Txiki eta Mattin.  
Gaia: aitona eta billoba.

*Laz.-*

Ikusitzen det gure mundua  
len bezela ez dagona,  
beti batean ibiltzen ere  
nola ez litzaken ona.  
Aurrerapenak pixkabanaka  
aldatutzen du gizona,  
eta zu ere pixka-pixka bat  
aldatu zaite, aitona.

*Mat.-*

Nere iloba, kontseju on bat  
emanen dautzut umilki,  
nere denboran ikusi baitut  
mundua goiti ta beiti.  
Eta aitonak bizi oin berri  
uste askoan badaki,  
ta nahi nuke nere iloba  
bizi baladi hobeki.

*Laz.-*

Aitonak utzi bizimodua  
ta orain billoba asi,  
baiñan lenoko zar onengatik  
asko ez degu ikasi.  
Bear etziran astakeritan  
ibiltzen ziran lenbizi,  
zuk utzitako diru oiekin  
ezin leike ongi bizi.

*Mat.-*

Aizu, iloba: zure esanak  
ez bainau eman atsegin;  
eta oraitxe esango diot  
bera informatu dedin:  
ni pobre jaio ninduzun eta  
bizitzeko justuekin,  
zuk ere ondo bizi nai bauzu  
ein beharko duzu berdin.

*Laz.-*

Lengoak ere ez dira danak  
bear bezela eziak,  
lengoak ere askotxo ziran  
gaztetan gaizki aziak.  
Gaztea zala ibiltzen zitun  
oso bide itxusiak,  
gero jokuan galdu zituen  
orduko irabaziak.

*Mat.-*

Ni oso pobre jaio ninduzun  
Euskal-Herriko partean;  
zorion gutxi ikusia det,  
beti giñen gerrapean.  
Bainan, iloba, desidera'utzut,  
ni mundu hontarik juatean,  
gelditutzen zeraten gazteak  
bizi zaitezten pakean.

## SENAR-EMAZTEAK APARTATZERA

Donostia, Astoria, 1973.

Imanol Lazkano, Lazkao-Txiki eta Gorrotxategi.

Gaia: senar-emazteak apartatzera dijoaz. Lazkao-Txiki semea izango da.

*Ima.-*

Andreak ez nauela  
biotzetik maita,  
ikusten danez orrek  
kariñua falta.  
Bere aur eta guzi  
nai luke aparta,  
zeurekin eman zazu  
nerea ez da ta.

*Laz.-*

Zenbait ezkondutzea  
artutzen da pena,  
auxen da neri ere  
gertatu zaitena.  
Oek zuten asmo bat  
bein bete ez dena;  
bi aur ezkondu ziran,  
ni irugarrena.

*Gor.-*

Biok apartatzea  
degu erabaki,  
gure ezkontza ez dijua  
munduan egoki.  
Zenbat sufritzen detan  
Jaungoikuak daki;  
gizona etzait inportik,  
umea erruki.

*Ima.-*

Orain amar bat urte  
giñaden nobio,  
orduan bagenduan  
milla amorio.  
Orain neregandikan  
dijoala dio,  
gaixoa joango da ta  
igarri bear dio.

*Laz.-*

Ara aita ta ama  
zer eratan dauden:  
amar urte ezkondu ta  
apartatu aurten.  
Ara ni umezurtz emen  
nola uzten nauten,  
ai apartatu balira  
ni sortu baiño len!

*Gor.-*

Lengo kariño ori  
ia dago juana,  
gure etxean galdu  
amodio dana.  
Ta aurra degu beti  
pagatzen duana;  
biotzeko pusketa,  
atoz amagana!

**KANPOTIK ETORRI ETA...**

Zarautz, 1973.

Gaia: Lazkao-Txiki, kanpotik etorri dana. Imanol Lazkano, baserritarra izana.

*Laz.-*

Gure lurrean ezin bizi ta  
eldu naiz Euskal-Errira,  
garai batetik gaur egunera  
lur onek egin dun bira!  
Baserritarrak beraka datoz  
ta iñor ezin da jira,  
ni kanpotikan etorri eta  
sartu naiz oen kabira.

*Ima.-*

Gure etxea txukuna eta  
eder zan garai batean,  
nere sendia baserri artan  
bizitutzen zan artean.  
Orain beltz auek sartu dira ta  
gure lurraren kaltean,  
berialaxe galduko da au  
sasi ta ote tartean.

*Laz.-*

Geren denboran len entzun degu  
amaika orren antzeko,  
belarrimotxak ez gaude gero  
sasiak ikartzeko.  
Onek ainbeste karga ez daukat  
ote gaiñetik joateko,  
zuk baiño gorputz obia daukat  
nik sasian ibiltzeko.

*Ima.-*

Esan bezela gure etxea  
ez zegon oso eskasa,  
alperkerian denborarikan  
an ez baigenduen pasa.  
Baiñan azkenik gertatu dana  
ez pentsa danik jolasa,  
soro garbiak zeuden baiñan  
sartu zaigu barrabasa.

*Laz.-*

Lanik egin nai ez dutelako  
jexitzen dira kalera,  
ortikan dator ez uste arren  
erri on baten galera.  
Eta belarrimotxa joan bear  
orain basarri aldera,  
zeuen kulpakin galdu bear du  
basarria ta euskera.

*Ima.-*

Nik basarria biotz barrendik  
beti izan nuen maite,  
bizi eziña etorri zan da  
aldegin bear aparte.  
Ta orain berriz gure kabia  
txurrianuak daukate,  
or egongo'ira nik egindako  
sagastiak galdu arte.



## PAKE-EGILLEAK

Azpeitia, 1974-III-10.

Lazkao-Txiki eta Lasarte.

Gaia: Pakeak egin naiez, bi lagunen artera sartu zerate; baiña aundi samarrak artuta irten ere bai. Lazkao-Txikik pakeak egitera joan nai zuen; Lasartek ez.

*Laz.-*

Ez dago edozer moduz sartzerik  
zenbait pertsonen tartera,  
naizta batek lagunak itzuli  
nai izan arren pakera.  
Lasarte ta ni gaur ere ortan  
probatzen bazan aukera,  
pakea egin nai eta aundiak  
artuta gelditu gera.

*Las.-*

Zuk etzekizun borroka oiek  
nundikan nora zetozen,  
olako kezka aundirik gabe  
gu Azpeitira gentozen.  
Bein bear eta leku onean  
sartua zera ain zuzen,  
bizkarrekuak artu dituzu  
eta merezi ziñuzen.

*Laz.-*

Besterenakin, lagun Lasarte,  
etzaitz arro geiegi,  
neri utzi ta geroago're  
zurekin or dute segi.  
Dudan nago ni ezur erdiak  
ez ote dioten autsi,  
nik ez-ezikan Lasartek artu  
ditu bereak eta bi.

*Las.-*

Zer gertaera izandu dan gaur  
esango dizut kantuan,  
etxeke partez Lazkao-Txikik  
luzitu nai zun kanpuan.  
Ezagututzen ez dan tokian  
ibili zaitz kontuan,  
eta etzaitz aurrera sartu  
deitzen ez duten lekuan.

*Laz.-*

Arrazoi dezu: toki oietan  
sartzea sarri galera;  
ezagututzen ez dan tokian  
ola sartzea kalte da.  
Gu beintzat ez gerade ederki  
sail ortatikan atera;  
esaera da: makil autsiaz  
ez sartu iñoren tartera.

*Las.-*

Egun eder bat pasa asmotan  
naiz gaur etxetik ertena,  
beste batzuek armatu dute  
lendik espero zutena.  
Kulparik gabe tartean sartu,  
nik orrekin daukat pena;  
ni naiz gaur emen asto beltz ori  
paliza artu detena.



Azpeitia, 1974-III-10-ean, Joxe Lizaso, Agirre eta Lazkanoren omenaldia. Lazkao-Txiki, eta Lasarte.

## NOLABAITEKO SENAR-EMAZTEAK

Zarautz, 1974-V-5.

Joxe Lizaso eta Lazkao-Txiki.

Gaia: zuek biok senar-emazteak zerate. Lizaso, gizon jatorra izan arren, tentazioak ere izaten dituzu; eta, gona-motx batekin zoazela, istripu bat izan dezue. Irten eta kargu artzen asi zera; eta zure emaztea, Lazkao-Txiki, mutil gazte batekin.

*Liz.-*

Bidean neska batek  
alto eman neri,  
ta pitxi itxusia  
ez baitzan ageri,  
baztarra jo degu ta  
lurrera erori.  
Zuk nun billatu dezue  
mutil aundi ori?

*Laz.-*

Nere gizona dabil  
granuja-moduan,  
neska gazte polit bat  
arturik onduan.  
Jakin degu baztarra  
gaur nola jo duan,  
zuk aldegin zendun da  
nik e bear nuan.

*Liz.-*

Egokitu gerade  
alkarren antzeko,  
ta pekatua dago  
bistan azaltzeko.  
Lagunak bear da're  
ortan jolasteko,  
etzeunden txiki batekin  
konformatutzeko.

*Laz.-*

Biok ere badegu  
oraindik aukera,  
naiz zartutzera juan  
emendik aurrera.  
Nere senar maitea,  
zelebrea zera:  
etxian naiko lan da  
kanpora lanera.

*Liz.-*

Egin deguan lana  
errian testigu,  
orain ukatuzia  
alperrikan degu.  
Andre txiki onetxek  
artutzen dit kargu,  
au're egunen baten  
asentauko zaigu.

*Laz.-*

Andre txiki naizela  
dio alajaiña,  
artzerako're nuen  
oraingo tamaiña.  
Zerorri're etzera  
pertsone apaiña,  
txikia naiz baiña bai  
zuretzaiko aiña.

**SENAR-EMAZTEAK**

Zarautz, 1974-V-5.

Puntu banaka, Lazkao-Txiki eta Joxe Lizaso.

Aurreko binakako saioan, Lazkao-Txiki emaztea izana zan; eta Lizaso, senarra.

- |  |  |
|--|--|
| <i>Laz.-</i> Ara: mikrofonoa<br>bajatu dit bera.         | <i>Laz.-</i> Zertarako joan ziñan<br>beste batengana?    |
| <i>Liz.-</i> Bestela igual goraiño<br>iritxiko etzera.   | <i>Liz.-</i> Orrelakoxia da<br>gizonan afana.            |
| <i>Laz.-</i> Zeure emaztiakin<br>errukitu zera.          | <i>Laz.-</i> Etxian e bazegon<br>zuretzako lana.         |
| <i>Liz.-</i> Aulki bat artuta etorri<br>jendien aurrera. | <i>Liz.-</i> Zertan alperrik galdu<br>aukeran neukana?   |
| <i>Liz.-</i> Emaztia, etzaitela<br>errietan asi.         | <i>Liz.-</i> Gauza ori ez dago<br>gero egiterik.         |
| <i>Laz.-</i> Ezin iritxi ori<br>al dezu ikusi?           | <i>Laz.-</i> Nere gizonak ez dauka<br>kontua besterik.   |
| <i>Liz.-</i> Oraindik alargunduta<br>ez baizaitut utzi.  | <i>Liz.-</i> Ortan etzazu beintzat<br>gaur artu zelorik. |
| <i>Laz.-</i> Artarako ere zuk<br>gaur ajola gutxi.       | <i>Laz.-</i> Motelian ez dago<br>au bezelakorik.         |
| <i>Laz.-</i> Langille txarrarekin<br>kanpora lanera.     |  |
| <i>Liz.-</i> Onelakoxia da<br>gure ibillera.             |  |
| <i>Laz.-</i> Zure berri badakigu<br>gutxi gora-bera.     |  |
| <i>Liz.-</i> Etxian geldituko naiz<br>portatzen bazera.  |  |

## AMALAUKO KINIELA

Zarautz, 1974-V-5.

Txomin Garmendia, Anjel Larrañaga eta Lazkao-Txiki.

Gaia: leengo igandean amalauko kiniela bat asmatu dezute, eta irurogei milloi dituzute banatzeko. Aurretik, ala ere, parranda ikaragarri bat egin bear omen dezute.

Gar.-

Amalauko bat asmatu eta  
iruroi milloi geurena,  
guregandikan iges juan da  
ainbat naigabe ta pena.  
Irurok parranda bat egitea  
lendabiziko onena,  
ta ortarako Zarautz juzkatze'et  
lekurikan ederrena.

Lar.-

Len garai baten kinielakin  
sarri egin nuan amets,  
orain tokatu zaigu guzia  
ta ezin ibili oiñez.  
Barruan degu poz aundia ta  
diruakin egin gaiñez,  
amabost egun pasatutzera  
Benidorrera gutxiñez.

Laz.-

Orain artean bein ere ez degu  
diru askorik ikusi,  
baiña milloiak tokatutzean  
pentsatu det nola asi.  
Beti eleike lengo moduan  
erdi zurkerian bizi,  
argi gorriak dauden tokitik  
asi gaitezen lenbizi.

Gar.-

Zu, Larrañaga, zertako zaude  
or Benidorraren eske?  
Argi gorriak gure lurrean  
e txokoak badituzte.  
Zarautzen *hotel* paltik dagonik  
berriz etzazute uste,  
pauso baldarra daukagu baiña  
pozik artuko gaituzte.

Lar.-

Neskatxen zale ikusten ditut  
bata bezela bestea,  
Lazkao-Txikik pentsatua du  
andratxo bat erosteia.  
Ta neronek e ez derizkiot  
ain ilusio tristeia,  
baiñan lenengo obe degu guk  
zuri-berdetik astea.

Laz.-

Ogeina milloi bakoitzarentzat  
egiñikan iru parte,  
beste munduan diru orretzek  
ez du balioko bate.  
Ta emen danak gastatutzea  
ez degu izango kalte,  
gazte-gazteak ez gera baiña  
sasoia daukagun arte.

## IÑAUTERIA ETA GARIZUMA

Añorga, 1974.

Gaia: Gorrotxategi iñauteria izango da. Lazkao-Txiki, berriz, garizuma.

*Gor.-*

Ikusten zaitut beti zaudela  
traje illuna jantzita,  
beti arpegi negartiakin  
garai ori iritxita.  
Jesukristoren eriotza zuk  
ez dezu maite gutxi ta,  
atoz salto ta dantza egitera  
tristura oiek utzita.

*Laz.-*

Egia da bai; ni triste nago  
ta jantzita nago lutoz;  
umore ona baldin baneuka  
neuk ere naio gaur askoz.  
Ta iñauterin ibili arren  
oinbat zarata eta poz,  
zeu konturatu baiño lenago  
zu neregan onuntz zatoz.

*Gor.-*

Iñauteria pozgarria da  
ta orlakua komeni da,  
ezingo gera gu egon beti  
garizumari begira.  
Bestela ere naiko tristura  
badator gure errira,  
zure antzeko askokin azkar  
guaz danok illobira.

*Laz.-*

Karnabaletan egin izan da  
zeiñek daki zenbat oker,  
ni ortik urruti nabil eta  
Jainkuari milla esker.  
Gaur igandea, ta asteazkena  
etorritakuan au zer?  
Zuk daduzkazun arrokeriak  
umilduko dira laister.

*Gor.-*

Bearrezko zerala badakit  
ta ez daukat baztertzeko,  
baiño esaten dizut nerea  
ere gogotik artzeko.  
Ni egiña naiz oiua ta dantza  
gaztiak besarkatzeko,  
pekatu batzuk ein bear dira  
garizuman aitortzeko.

*Laz.-*

Bromarik gabe badakit ez da  
dibertitutzen gazterik,  
edade ortan ezin liteke  
egundo egon tristerik.  
Baiñan ez dezu biarko ogia  
irabazteko usterik,  
zuen bromarik ez det ikusten  
txorakeri bat besterik.

Gor.-

Len esan dizut, o garizuma,  
bearrezkua zerala,  
baiño zure traje beltz ori nik  
zuritu nai beriala.  
Zuk badakizu zure denbora  
dana penitentzi dala,  
garizuma baiño askoz e naio  
dute orain karnabala.

Laz.-

Arrotasunak utzi itzazu  
ta izan zaite apala,  
errespetoa zintzo gordetzen  
saiatu zaite al dala.  
Orain arro ta dotore zabiltz,  
ez dezu sasoi makala;  
pentsatu autsez egiña eta  
auts biurtuko zerala.



Azpeitian, 1974-III-10-ean, Jose Lizaso, Agirre eta Lazkanoren omenaldia.  
Ezkerretik: Lazkao-Txiki, Mugartegi eta Larrañaga.

## TESTAMENTUA

Bergara, 1974-XII-7.

Mattin eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Onezkeroko, biak ere testamentua egiña izango dute. Euskal-Erriarentzat zer uzten duten jakin nai nuke.

*Mat.-*

Lazkao-Txiki, ez al duk  
asmatu oraindik?  
Beste mundura biek  
juan beiau hemendik.  
Euskal-Erriak zer izain  
ote'ik hiregandik?  
Seme bat euskalduna  
utziko diat nik.

*Laz.-*

Ara zer gauza esan dun  
andria duanak,  
bestelakuak dira  
Lazkaoren planak.  
Dakiguela frutu  
gutxitxo emanak,  
nik ere uzten ditut  
sortutako danak.

*Mat.-*

Orai pasatu diagu  
munduko bizia,  
geroaz akordatzia  
ez al duk hobia?  
Denak hi bezala mutil  
zar egongo balia,  
ziaro akabo duk  
Eskual-Herria.

*Laz.-*

Mattin berritxu zala  
banekin len ere,  
berriro aitatzia  
nai nuke alare.  
Ni ikusi nauelako  
emazterik gabe,  
semiak sortu leizke  
ezkondu gabe're.

*Mat.-*

Oraindik garaia duk,  
ez dukek beranta,  
hau ikasi behar huke  
Mattinek esanta.  
Geroko fede pixka bat  
oroitu behar baita,  
nori egin behar diok  
hire testamenta?

*Laz.-*

Aitortu nahi dizutet  
testamentu hori,  
badabilkigulako  
gauz txarra ugari.  
Dirurik bein ere etzait,  
ez, tokatu neri,  
biotza uzten diot  
Euskal-Erriari.



## KORRIKA-APUSTUA

Mendaro, 1974-XII-8.

Mendaro Txirristaka zanaren omenaldia.

Lazkao-Txiki eta Joxe Lizaso.

Gaia: korrika-apustua egin dezute, eta bazkaria jokatu ere bai. Batak bide luzea nai, eta besteak laburra. Orain erabaki.

*Laz.-*

Erabaki bearra  
daukagu lenbizi,  
apustu luzegiak  
ez baitu merezi.  
Urrutira korrika  
ez diat nai asi,  
bazkai-tokiraiño nik  
naio diat kasi.

*Liz.-*

Arrazoa zeukazun,  
Lazkao-Txikia;  
erabakiko degu  
apustu guztia.  
Zertarako atera  
ber du izerdia?  
Luzerako daukat nik  
tripa aundigia.

*Laz.-*

Motxean ere ez adi  
i erronkan ari,  
korrikarako badek  
ik kilo ugari.  
Motxean ere ez didak  
irabazten neri,  
bajatatzen ez badek  
tripa aundi ori.

*Liz.-*

Motxian egingo det  
nere egiñala,  
irabazi nai nuke  
nik orko jornala.  
Aldegiten ez badek  
ik nola edo ala,  
ankapian artuko aut  
baria bezala.

*Laz.-*

Ni tratatzen nau onek  
barian antzera,  
kostatu bear zaizu  
ankaperatzera.  
Irrixt eiten badezu  
bareen tankera,  
zeiñek jasoko zaitu  
erortzen bazera?

*Liz.-*

Zer entzun bear nuan  
nekin aspalditik,  
bazkari bategatik  
etzaizkit inportik.  
Bizirik joan nai badek  
Mendaro ontatik,  
egin bear dekana dek  
alde ankapetik.

## ETXEAN ZEÏÑEK AGINTZEN?

Leitza, 1975-III-2.

Manuel Lasarteren omenaldia.

Joxe Agirre eta Lazkao-Txiki.

J. M. Iriondok gaia: zuen etxean zeïnek agintzen du?

*Agi.-*

Gure Iriondok gauza-modua oraintxe galdetutzen du, berak esan nai etzuelako beste bat zirikatzen du. Egia esan, gure etxean andreak agindutzen du; zuri're, Joxe Migel, bai, ori nik bezela artu bazendu.

*Laz.-*

Ikusten degu ezkondu asko gaur zer esaten dabiltzan, andre-ustetzat artu zuten da orain morroiaren gisan. Lazo txar ori neretzat ez da sekula ona bizitzan, aurrez kontuak atera eta mutilzar gelditu nintzan.

*Agi.-*

Berak dionez, orrek ez dauka fortuna aldrebesikan: besteren mende egote ori txarra da, arranek ezikan. Baiñan alare baldin baleuka alamouzko larrosikan, aginteari beiratu gabe artuko luke pozikan.

*Laz.-*

Ik esan deken proportzioa nik izan nian leno're, ortik etorri al baldin balitz uste ainbeste fabore. Nere laguna egin liteke ori jakin da gero're, etxean ez det iñor nai nik e neretzat gobernadore.

*Agi.-*

Lazkao-Txiki ezkonduzera ez duela nai abitu, emaztearen mendean noski ez omen du nai gelditu. Alaz guztiz e gure mutil au etzaigu asko aunditu, agintze orrek ez du izango uste ainbeste meritu.

*Laz.-*

Mundu ontako martxak ez dira asmatzen oso xamurrak, izanez ere orrenbeste lan ematen baitigu lurrak. Ezkondu asko jai-arratsetan etxeratzeko bildurrak, afaldutzeko bronka galanta ta gosaltzeko muturrak.

## SORGIÑA

Leitza, 1975-III-2.

Manuel Lasarteren omenaldia.

Gaia: Lazkao-Txiki, etorkizuna asmatzen duen sorgiña izango da. Imanol Lazkano, ari galdezka datorrena.

*Ima.-*

Sorgin bat bear baldin banuen  
nun aurki politagua?  
Eta kezka bat badaukat eta  
galdezka aстера nua.  
Baldin iñola badakizu zuk  
zabaldu zazu agua:  
esan zaidazu nola bukatu  
biaun aurtengo negua.

*Laz.-*

Sorginkerizko eginkizuna  
gai daukat nik azkenean,  
eta Lazkano ementxe dator  
geroa jakin naiean.  
Xamurra daukak, esango diat  
oraingo puntu batean:  
negu guztia amaituko dek  
martxoan oitabatean.

*Ima.-*

Sorgintza dauka ofizioa  
eta taberna lantoki,  
kontuak kontu bizimodua  
darama naiko egoki.  
Itxura ederrak egiten ere  
asitzen da bera aurki,  
gizarajoak ohea luke  
bera baldin baleki.

*Laz.-*

Orain arteko negu guztia  
izan da oso epela;  
esan bearrik ere ez neukan,  
badakit dakizutela.  
Baiña pentsatu martxo aldean  
otza egingo duela;  
eskerrak emaztea badaukak,  
otzak ilko au bestela.

*Ima.-*

Berealaxen esaten ditu  
udaberri-gorabarak,  
ta artu dizkit garai orretan  
neri otzaren tankerak.  
Andrearekin berotzeko're  
nik badaduzkat aukerak,  
eta nolatan berotutzea  
pentsatzen ote du berak?

*Laz.-*

Nik esan bear eta oraintxen  
kontuak galdezka asi,  
ik pentsatu zak sorgin geranak  
badegu milla malezi.  
Otzak galdutzen oraindik ez du  
iñork sorgiñik ikusi,  
oera ere joaten baigera  
poltsa bero eta guzi.

**KARTERISTA**

Lazkao, 1975-IV-25.

Gaia: zuri, Joxe Lizaso, karterista batek kendu dizkizu zenduzkan xox guztiak. Karterista ori Lazkao-Txiki da.

*Liz.-*

Gaur arratsean asiko degu  
geren biziko disputa,  
ustez etxetik abiatu naiz  
neuretzat zerbait artuta.  
Mutil txiki bat bizkor zebillen  
eta azkar da izkuta,  
enazu oso ederki utzi  
ditudan xoxak kenduta.

*Laz.-*

Jarri diguten gai polit ortan  
bada zeñi ekindua,  
diru pixka bat ostu diot nik  
eta jarri da mindua.  
Sinista zazu, olakoxea  
dago oraingo mundua,  
nola kastigatzen ez duten  
zazpigarren agindua.

*Liz.-*

Ez dakit zeñek agindu dizun  
lantegi ortan asteko,  
esaten dizut griña txar orri  
al dan azkarren uzteko.  
Nik ogei duro nituanikan  
onek etzuan usteko,  
kolpe aundiagoik eite'ez badezu  
etzera aberastuko.

*Laz.-*

Kolpe makala izan det oso  
nik lapurretan asita,  
baña arrapatu dedan orduan  
or gelditu naiz etsita.  
Dirurik gabe aldegin bear  
gero kartera utzita,  
nik aberatsa zala uste nun  
planta ori ikusita.

*Liz.-*

Bere okerra egiñak arren  
burua daduka tente,  
ikusten danez onek oraindik  
ere dirua du maite.  
Asi ezkerokolpe batean  
ingurau zazu dexente;  
dirudun danak Madriden daude,  
alde artara juan zaite.

*Laz.-*

Bera batere oartzeko  
nik kendu diot kartera,  
patrikan sartu diot eskua,  
txintikan ez du atera.  
Pentsatzen nuen: "Kaballero au  
oraindik lotan ote da?"  
Beste geio're kenduko nion  
karterarekin batera.

## GERRIKOAK ESTUTU BEARRA

Antzuola, 1975-IV-5.

Imanol Lazkano eta Lazkao-Txiki.

Gaia: aurtengo urte onetan gerrikoak estutu bearra izango omen da. Baiña zeinek estutu bearko ote du geiago?

*Ima.-*

Ikusten danez aldatu dira  
juan dan aspaldian planak,  
gastatu dira diruak eta  
gastatu dira zer janak.  
Gerrikoz pixkat estututzeko  
ordenak dira emanak,  
baiña berriz e estutu bear  
lenago estu zuanak.

*Laz.-*

Gerriko danak estutzen doaz,  
garbi ez dakit noraiño;  
izanez ere badabilkigu  
makiñatxo bat engaiño.  
Beste gizon bat plakoagorik  
ote liteke ni baiño?  
Nerea beintzat estututa da  
azkeneko zuloraiño.

*Ima.-*

Bajuarentzat arria beti,  
au da griña betikoa;  
ura beti da arrastaka ta  
gaiñekoa da Jainkoa.  
Ministro batek agindu zuan  
estutzeko gerrikoa,  
guri jatea galerazi ta  
berak jan dezan naikoa.

*Laz.-*

Zenbatsu pobre ote dabilta  
ezin egonikan tente?  
Itzaldiakin engaiñatuaz  
makiña bat iñuxente.  
Ministro oiek estututzeko  
oraindik ere diote,  
ta bitartean berak dabilta  
banketerikan bankete.

*Ima.-*

Gureganaiño eldua dala  
oinbeste ordu serio,  
denen artean estutu eta  
erria bear dala io.  
Lenago baju zebillenari  
oraindik eskatu geio;  
au betiko gauz okerra degu,  
bajuai gertatzen zaio.

*Laz.-*

Noiz ez dakigu, baiña noizbait e  
au bearko da zuzendu,  
langilleari egin guztia  
al duten danetan kendu.  
Langille bidez ainbeste alper  
ez ote dira mantendu?  
Zoriontsuak gure tankera  
denak egingo bagendu.

**LAN BILLA**

Antzuola, 1975-IV-5.

Gaia: lan-eskasia dala eta, Mitxelenaren ostatura joan da Lazkao-Txiki lan billa.

*Laz.-*

Aizak, i, Mitxelena,  
neurea badakik:  
gure fabrika ori  
kiebrak e jo dik.  
Irabazi ezean  
etzegok gauz onik,  
ta iri galdetzen dit  
bai al deken lanik.

*Mit.-*

Ez diat nik emango  
eskatzen dekana,  
ire gorputza ez dek  
luzean bikaina.  
Lanan eske al ator,  
motell, neregana?  
Oi baiño obe dituk  
jan eta erana.

*Laz.-*

Lan gabe, motell, ez nauk  
ederki arkitzen,  
pentsatu zak pobreak  
gu nola gabiltzen.  
Lagun aizen partetik  
ez b'aiz aserretzen,  
nik lagunduko diat  
txuletak erretzen.

*Mit.-*

Borondate onakin  
etorri zait ba au,  
lanean aitzeko konforme  
igual egun da gau.  
Lengo nagusia're  
or lurpera bota'u,  
neroni deskuidatzen banaiz  
onek galduko nau.

*Laz.-*

Lagun ona niok ta  
i ez ai bildurtu,  
len esan dedan lana  
neutzat nai dit artu.  
Len bezin ona niok,  
bate enauk txartu,  
txuletak erre eta  
kontuak kobratu.

*Mit.-*

Ik nai ukena dek ni  
or bera erori,  
kobratzeko bazeukat  
ik ainbat memori.  
Txuleta erretzen ob'ek,  
or saiatu ari,  
neronek egingo diat  
azkeneko ori.

## EMAKUMEZKOAK LANEAN

Antzuola, 1975-IV-5.

Egileor eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Azkar usteko tonto batek bere lantokitik gizona ez du bialdu eta neska gazteak artu ditu langilletzat.

*Egi.-*

Mundu ontatik aldia degu  
Jaunaren kontzientzia,  
komeni zaigun bezela au da  
gaia gaur etorritzia.  
Nola erabaki du emakumeak  
orrek lanean artzia?  
Kostako zaio bear bezela  
guztiak engaiñatzia.

*Laz.-*

Ori egin dun nagusiari  
damutuko zaio bitan,  
emakumien pasadizuak  
nola pixkat badakitan.  
Illean beingo oporraldia,  
etxean berriz erritan,  
artu zituen baiña damutan  
egon bear du sarritan.

*Egi.-*

Nere ustetan asmo au ez da  
izango ziaro ona,  
zuk ori kantau denboran ni naiz  
gauz au pentsatzen egona.  
Lazkao-Txikik e emakumientzat  
ez du ain biotz sakona,  
zure moduko terkon bat baizan  
ori egin zun gizona.

*Laz.-*

Lendik biotza biguna det nik  
ta orain ez naiz txartuko,  
emakumeak ez al dezute  
dana gaizki pentsatuko.  
Andrerik ere ez daukat eta  
zertarako egin uko?  
Nere antzikan izan bazuen  
batere ez zun artuko.

*Egi.-*

Zenbat olako aditutzen dan  
jaio ezker munduan!  
Gauza au ere, Lazkao-Txiki,  
aditu bear genduan.  
Zu emakume gabe zabiltza  
beti uda ta neguan,  
onen gisako izan balitza  
kiebra joko zenduan.

*Laz.-*

Ez dakit nere adiskidea  
gaiakin enteratu dan,  
zueri zurikeria egiten  
emen badabil naiko lan.  
Gizon guziak bialdu zitun  
ta neska batzuk eraman,  
ori egin zun nagusia're  
apenas aberastu zan.

**MAISUAK**

Soraluze, 1975-VII-24.

Lazkao-Txiki eta Joxe Lizaso.

Gaia: zuen maisuak nortzuk izan dira?

*Laz.-*

Gauza aitortu nai det  
jarri duen gisan,  
zer irakasle izan  
genduen bizitzan.  
Ni enintzan ibili  
beste askon ditxan,  
neska-mutillak ango  
barrion zebiltzan.  
maistra izan nun ta ez nun  
maisurikan izan.

*Liz.-*

Pentsatzeko jarri du  
gaur illunabarra,  
irakaslea daukat  
aitortu bearra.  
Askoren artetikan  
aipatuz bakarra,  
nere maisu izan zan  
Uztapide zarra.

*Laz.-*

Lizasok aitortu du  
maisu nor izan zan,  
neretzat ere maisu  
geiago ote zan.  
Baiñan lenen aldia  
nai dizutet esan:  
Basarrikin kantatu nun  
lenbiziko plazan.

*Liz.-*

Gauza gertatutzen naiz  
esan bearrian,  
uraxe aitatu det  
gaur derriorrian.  
Arek maitasuna zun  
biotz xamurrian,  
nik bestela ezin kantatu  
gaur zuen aurrian.

*Laz.-*

Beste maisu bat nuen  
nik Saiburu zana,  
Basarrirekin gure  
errian an zana.  
Baiñan esatezkero  
gauza garbi dana,  
maisurikan onenak  
aita eta ama.

*Liz.-*

Gauzakin oroitzia  
obeto da garaiz,  
alare bertsorikan  
nik ezin bota sustraiz.  
Orain gauza batekin  
akordatutzen naiz:  
lengo maisu zarrakin  
zorretan bizi naiz.





Xalbadorreneko atarian. Ezkerretik: Xalbador, Lazkao-Txiki eta Joakin Berasategi. Leioan: Xalbadorren emaztea eta alaba.

## NOLA ZUZENDU LEIKE AU?

Lesaka, 1976-V-23.

Migel Arozamenaren omenaldia.

Lazkao-Txiki eta Mattin.

Gaia: etxean euskera eta kanpoan erdera. Nola zuzendu leike au?

*Laz.-*

Euskal irratsaio bat ikusi  
genduen lengo astean,  
begira pozik egon giñaden  
botatzen zuten unean.  
Andik irten da kale ertzeko  
banku batera joatean,  
euskera azkar aztu zitzaien,  
danak erderaz kalean.

*Mat.-*

Aspalditxoan hola dabila  
gaur egunez gaztedia:  
etxen euskaraz itzegin eta  
kalian galdua erdia.  
Radiotikan ere euskaraz  
orai zerbait hasi dia,  
naski horrela ez da galduko  
hizkuntza maitagarria.

*Laz.-*

Aurtxo txikiak ikastolara  
aitak eta amak atera,  
zerbait itxura egitearren  
olaxen ibiltzen gera.  
Ta gurasoak biak erderaz  
juan orduko etxera,  
nere irtiziz bide ortatik  
galdu bear du euskera.

*Mat.-*

Gazte maiteak, ez otoi ibil  
hitzen sortarik ihesi,  
eta hizkuntza lenbizi etxean  
behar litzake ikasi.  
Baiñan kalean gaur ikusten da  
erdara dala nagusi,  
era horretan nola behar du  
gure euskarak luze bizi?

*Laz.-*

Nik kontseju bat aurtxoentzako  
eman nai det azkenean,  
eta nai nuke bertakoak e  
au artutzea onean:  
euskeraz beti egin zazute  
ikastola ta kalean,  
zeuen amatxok erakutsia  
bularraren barrenean.

*Mat.-*

Orai euskaraz entzuten dira  
aitonak eta atsuak,  
eta erderaz gazte gehienak  
etxeko eta auzuak.  
Baiñan euskaraz saia zaitezte,  
oi ene maite haurtxuak,  
denen beharra izanen baitu  
gure hizkuntza gaixuak.

## TXANTXANGORRIA ETA KUKUA

Lesaka, 1976-V-23.

Gaia: Mattin kukua izango da; eta Lazkao-Txiki, txantxangorria.

*Laz.-*

Arbolaren gainean  
or zabiltza sarri,  
*ku-ku* eta *ku-ku* beti  
estu eta larri.  
Txantxangorriak badaki  
alperraren berri,  
nere kabian etzazu  
arrautzarik jarri.

*Mat.-*

Ni hola ibiltzen naiz  
zelai ta mendian,  
ni iduri asko da  
gaurko egunian.  
Hau ere ohartuko da  
naski azkenian,  
alperra nekez hasten  
zaigula lanian.

*Laz.-*

Kuku au iñola're  
ezin det zuzendu,  
kabitik nere arrautzak  
lendabizi kendu.  
Onek famelia sortu  
eta nik mantendu,  
orren alperrak emen  
gaizki ematen du.

*Mat.-*

Len gaiztoa banaiz ere  
hasiko naiz ontzen.  
txantxangorri hunekin  
ez bainaiz konpontzen.  
Hau ere lehenago  
langilea omen zen,  
buru abilak ez dik  
bizkarririk nekatzen.

## AZERIA ETA OILLOA

Euba, Erkoles, 1976-VI-6,

Gaia: Azpillaga azeria izango da; eta Lazkao-Txiki, oilloa.

*Azp.-*

Mendian ez da jatekorik ta  
orra jeitxi naz kalera,  
gose dagonak oillo bat nai ta  
or nun aurkitzen dan bera.  
Luma arroak, zama luzea,  
arkokusoen antzera;  
denbora askoko bizik ez dozu  
deskuidatutzen bazera.

*Laz.-*

Fiña izateak ez du balio,  
alantxe iruditzen zat;  
amenazua nunaitik bada  
beti langille fiñentzat.  
Azari zakar bildurgarri au  
gauza maltzurra da beintzat,  
ni oillo txiki xamarra ez al naiz  
azeri aundi batentzat?

*Azp.-*

Sasoi batzutan bildotsen billa  
ibiltzen gara mendian,  
ezer ez dago eta kalera  
jetxi bear azkenian.  
Okela gítxi ta luma asko  
zuk dadukazu aldian,  
oillo zarra be ez da ain txarra  
besterik ez dagonian.

*Laz.-*

Onek daduka gose aundia  
ta onek jateko antsia,  
piñu artetik oillategira  
gau ontan dago jetxia.  
ICONA-k ere oek iltzea  
nola dun galerazia,  
merezi ez dun makiña bati  
gordetzen zaio bizia.

*Azp.-*

Oillo zarra da, etxeoandreak  
au ez dau asko zainduko;  
onek emanda arraultza asko  
abitik ez da kenduko.  
Baiña besterik ez dagonian  
zuri ezin egin uko,  
luma ta guzti jan eta ere  
ez nau asko gizenduko.

*Laz.-*

Piñu tartean onek eiten du  
egun guziko bizitza,  
gero gauean oillategira  
arroturikan isatsa.  
Ni arraultz jartzen txintxo ta ongi,  
ori da nere egintza;  
gu langilleok persegitu ta  
lapurrak libre dabilta.

## PRAILE

Segura, 1976-VI-10.

Gaia: Agirre, jakin dek Lazkao-Txiki praile doala.

*Agi.-*

Au ere entzun bear  
gendun azkenian,  
Txiki au ez dabil or  
bide zuzenian.  
Neska ondoren ibili  
bizitza danian,  
orain fraile dijoa  
etsi duanian.

*Laz.-*

Akabatu ziraden  
gaztetako planak,  
kalabazaz bete'itut  
nik ganbara danak.  
Aspertu nautelako  
neskatxen esanak,  
norabait juan bear  
besteik ez duanak.

*Agi.-*

Lenago komentuak  
pena ematen zizun,  
naiago ziñuzen zuk  
zenbait bide lizun.  
Gauz bat daukazu txarra,  
ez dakit dakizun;  
zuretzat sotanarik  
ez da Arantzazun.

*Laz.-*

Olako burla bat e  
egin dit azkenik,  
asko entzun bear nik  
txikia izanik.  
Alde aundirik ez degu  
altuan zuk ta nik,  
komentuan nola ez izan  
guretzat sotanik?

*Agi.-*

Alde batera arrazoi da  
esan dezuana,  
ta erantzun didazu  
merezi nuana.  
Mutiko asko zan le-  
nago aruntz juana,  
egon leike norbaitek  
ibili zuana.

*Laz.-*

Oraindik bizkor nago  
lenoko modura,  
arpegiz izan arren  
zarraren itxura.  
Len bezelaxe nago  
jenio ta pixura,  
praile nijoa baiña  
monjen konbentura.

**SAN INAZIO KALEAN PASEATZEN**

Azkoitia, 1978-V-5.

Joxe Agirre eta Lazkao-Txiki.

Gaia: San Inazio kalean paseatzen ikusi dezute, errenka-errenka.

*Agi.-*

Onek zer eskatu dion  
 San Inaziori  
 esan bearra daukat  
 orain guziori;  
 sasoia pasa ta gero  
 oroitu zaio ori,  
 ori gertatzen zaio  
 bat baiño geiori.

*Laz.-*

Jakin zazu Loiolara  
 zertan naizen juna,  
 ta gauza bat eskatzen  
 pasatu eguna.  
 Badakit andregairik  
 berak e etzuna,  
 eskatu diot diruz  
 aberastasuna.

*Agi.-*

Diruak faltik ez dio  
 egiten zenbaiti,  
 ta neskaxaren ondoren  
 zu zabilta beti.  
 San Inaziokin dezu  
 fedea urruti,  
 xirri ein omen diozu  
 monja gazte bati.

*Laz.-*

Agirre granuja dala  
 garbi ageri da,  
 berak nabarmendu du  
 dadukan erida.  
 San Inaziok bazitun  
 iru-lau *querida*,  
 ezkondutzea baiñan  
 obea ori da.

*Agi.-*

Beraz iru-lau *querida*  
 gaztea zanian,  
 gero konbertitu zan  
 estuasunian,  
 anka baten balazua  
 artu zuenian;  
 zu ere damutuko zera  
 ezin dezunian.

*Laz.-*

Agirrek gauza ortan  
 bearturik nauka,  
 zakur bakoitzak ezberdin  
 egiten du zaunka.  
 San Inaziok bazun  
 orrenbeste tranpa,  
 ez balitzaio eritu  
 irugarren anka.

*Agi.-*

Onek izan du santu  
arek izan zuna:  
irugarren ankatikan  
galdu zun zentzuna.  
Lazkao-Txiki ere ez da  
mutiko astuna,  
baiña korajien faltik  
bein ere ez duna.

*Laz.-*

Zuen San Inazio  
santu egiñik dago,  
zu bezela granuja  
izana lenago.  
Sinistuko genduke  
ez bagiña ero,  
denok damutzen gera  
aspertu ta gero.

## “NESKAZAR BAT TENTATZEN...”

Zestoa, 1980.

Larrañaga eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Neska zar bat tentatzen  
asi naiz lenguan.  
izan ere alako  
ederra zeguan...

*Lar.-*

Nik bizimodu zarra  
goguan arturik,  
naizta Lazkao-Txiki  
ez izan itxurik,  
nola ikusi nuen  
bati ikuturik,  
ta egin al zenduen  
aurtengo traturik?

*Laz.-*

Jakin nai luke baiña  
ez dit aterako,  
tratu luzea ez da  
iñon onerako.  
Neskazarra zegoen  
neure aukerako,  
tratua egin nun baiña  
egun baterako.

*Lar.-*

Uste nuan ziñala  
aren egarriko,  
ta alturan e berriz  
zetorren neurriko.  
Geio nai zenduanik  
zion igarriko,  
aurrera're ez litzake  
gaizki etorriko.

*Laz.-*

Eguna pasa gendun  
markesen moduan,  
besotikan elduta  
alkarren onduan.  
Gaua're etzitzaigan  
ezer gabe juan,  
azal zimurrak baiña  
polita zeguan.

*Lar.-*

Nunbait ibili zendun  
zuk e zerbait saltsa,  
biok e bazenduten  
or alkarren antza:  
urtetan aurrera ta  
ori bada martxa,  
bat berotu ezin da  
bestea ezin altxa.

*Laz.-*

Ez jakiñik mintzatzen  
askotan errez ta,  
baiñan emango dizut  
orren errespuesta.  
Gaztetan bezelaxe  
egin gendun festa,  
goseak dagonantzat  
jan txarrikan ezta.



## JOMEINI ETA NESKA AMERIKARRA

Aretxabaleta, 1980-III-15.

Azpillaga eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Jomeini eta baiturik dagoen neska amerikarra.

*Azp.-*

Amerikako enbajada bat  
sekuestratzen aski lan da,  
len Amerika zegon nagusi  
ta orain berriz Iran da.  
Guk iraultza bat laister gendula  
lendik zegoen esanda,  
zu nola arraio sartu zera or  
emakumea izanda?

*Laz.-*

Nik erantzuna eman bearko  
Pertsiaiko jabe oni:  
emakumeak presentatzeko  
beste lan gabe nago ni.  
Al dan azkarren aska gaitzazun  
eskatzen dizut, Jomeini,  
zeure lurraren famarako're  
au ez baitzaizu komeni.

*Azp.-*

Emakume bat tartean dala  
ere dute iragarri,  
juan dan iru bat illabetean  
or zaudete oso larri.  
Baiñan lenengo egunean nik  
kondizioa nun jarri:  
libertadea nai badezute  
*sha de Persia* ekarri.

*Laz.-*

*Sha de Persia* nai al zenduke  
zeure mende ikustia?  
Zerengatikan ark len eiten zun  
berak nai zuen guztia.  
Baiña pentsatu biak angoak  
ain diferente ezta:  
leno zakur bat kendu zuten da  
ipini zuten bestia.

*Azp.-*

Iran aldeko emakumea  
da langillea ta piña,  
arpegian du oial gogor bat,  
gerritik bera berdiña.  
Aspaldin gogor dantzatua da  
zuk dadukazun jardiña,  
Jomeinik ez du onen bearrik  
nola ez dagon birjiña.

*Laz.-*

Oraintxe dala bastante aldiz  
sartu ginduzun onera,  
guk kulparikan ez deguela  
konturatzen ez al zera?  
Zeure relijioko gauzakin  
txoratutzen asi zera?  
Carterrek bonbaz erreko zaitu  
deskuidatutzen bazera.

**EZKONBERRIEN KEZKAK**

Aretxabaleta, 1980-III-15.

Lazkao-Txiki eta Larrañaga.

Gaia: Ezkonberriak zerate, Barkuko kapitanak, bakoitzak bere kamarotean lo egin bearko dezutela esan dizuete.

*Laz.-*

Andretzat bein artuko  
olako alaba,  
ta batera lo egiten  
ez digute laga.  
Au da penagarria  
mingarririk bada:  
aparte pasa bear  
lenbiziko gaba.

*Lar.-*

Olako eskaria  
nola ez estima?  
Zuretzat eskeiñi nitzan  
gorputz ta anima.  
Aparte egotea  
ez al da lastima?  
Nun botako ote dezu  
gaur gabeko firma?

*Laz.-*

Aldrebes atera dira  
eguerdiko planak,  
batera lo egitea  
giñaden esanak.  
Baiña malezi asko du  
gure kapitanak:  
berak ein naiko ditu  
lenbiziko lanak.

*Lar.-*

Orregatik, senarra,  
ez egon penetan,  
gizon orrengan ez nator  
gaur emen brometan.  
Kapitana portatutzen  
bada modu orretan,  
anka biak lotuta  
laster da uretan.

*Laz.-*

Orren kamarotean  
beintzat etzaiz sartu,  
aurretik beaituzu  
kontu danak artu.  
Leitekian bezela  
beartzen bazaitu,  
ipurdia atzera ta  
iztarrak estutu.

*Lar.-*

Ezkonberritan degu  
olako girua,  
asko gustatua zait  
zure enbirua.  
Nai duna egitea  
ez da segurua,  
ez du errez ikusiko  
nere florerua.

## NESKA ETA SENDAGILLEA

Aretxabaleta, 1980.

Gaia: Lazkao-Txiki sendagillea izango da; eta Azpillaga, sendagillearengana dijoan neska.

*Azp.-*

Arrasteon, medikua,  
banator zure atera,  
sekula ez naiz inguratu  
olako toki batera,  
iñori esan gabeko gauzak  
orain zuri esatera;  
baiña nondikan eldutzen dezun  
kontuak ondo atera.

*Laz.-*

Medikuak ez ote du  
neska onek ainbat zentzun?  
Gaitzen berri ikasitzen  
ari naiz gau eta egun.  
Neska maitea, zaude ixilik  
ta portatu zaite txukun,  
erantzi zaitez ta esango dizut  
non eta zer gaitz daukazun.

*Azp.-*

Len ixilik eduki det  
baiña ezin det aguanta,  
jantzita ere or zaude zu  
ikusten nik detan planta.  
Lendik danetan etortzen zana  
orain iruetan falta,  
pozik ibili bagiñan ere  
badet disgustu galanta.

*Laz.-*

Neskatil ederra zera  
baiñan ez zabilta iaio,  
pentsa zazu ume batek  
noizbait bear dula jaio.  
Malizirikan ez duen bati  
errukitutzen bazaio,  
tranpien berri ez dakitenai  
orixe gertatzen zaio.

*Azp.-*

Gaitz bat daukat ta gaitz ori  
ez baidet errez pasako,  
lenago nik gogo asko  
izan det jolaserako.  
Ogei urtekin bakarrik ezin  
jolasean da dantzako,  
pastilla edo indizioakin  
au ez ote da pasako?

*Laz.-*

Leno ere indizioa  
da kalte egin dizuna,  
au neskatil txorrea ta  
au neskatilla tuntuna!  
Ta noiz etorriko ote zaio  
esnatutzeko eguna?  
Ni baiño mutil altugoa zan  
zu ola utzi zaituna.

**ANDREAREN GALTZA GORRIAK**

Zegama, 1980-XI-5.

Lazkao-Txiki eta Lopategi.

Gaia: Lopategi, andrearen galtza gorriak jantzita etorri da.

*Laz.-*

Pentsatzen nago mundu au dago  
dana aldatzen asita,  
ta Lopategik era orretan  
gaur egin digu bisita.  
Parrari ezin eutsi nion nik  
gizona ola ikusita:  
nola arraio agertu aiz gaur  
andreaan galtzak jantzita?

*Lop.-*

Besteren utsak ikusteko zu  
nola etzeran makala,  
badirudi gaur koloreetan  
utsen bat egin detala.  
Esan baitute praka gorri au  
emaztearena dala,  
ortik atera bear zenduke  
ongi konpontzen gerala.

*Laz.-*

Zegama aldera azaldu zaigu  
prestua eta bapua,  
jazkera ere ekarri digu  
bear dun bezelakua.  
Galtza gorriak deabruan gisan  
nunbaiten egindakua,  
aurrez ederki beteagatik  
atzean bada lekua.

*Lop.-*

Gure etxean len eta orain  
badegu naiko armoni,  
atze ta aurre ornitua naiz  
ongi ezur eta mami.  
Gauzak gaur oker ikusterikan  
nola etzaigun komeni,  
praka gorriak ekarri arren  
aurrelaria nauzu ni.

*Laz.-*

Zuen etxeko gauza bat ezin  
naita ere disimula,  
pentsatu zazu Lazkao-Txikik  
ondo arrapatzen zaitula.  
Beste oinbeste nere bizitzan  
ez det ikusi sekula,  
nabarmendu da zuen etxean  
galtzak andreak ditula.

*Lop.-*

Feministaren mogimendua  
puestuak irabazia,  
andreak naiko eraso arren  
oraindik ez nau ezia.  
Libertadean bear genuke  
kolorearen grazia,  
beste gauzetan putza baitegu  
eldu dan demokrazia.

*Laz.-*

Ez ai bildurtu gauza orregatik,  
zu patxadan egon zaitez,  
ikusitzen da zure andrea  
daukazula borondatez.  
Bere gonakin ibili bear  
izan du beraren kaltez,  
barrundik ere arenak ditu  
gantzontzillo oien partez.

*Lop.-*

Txikia degu mutilla baiña  
bizia eta arrua,  
ustekabian aldamentetik  
bialdu didan orrua!  
Bakoitzak berak nai duen eran  
eramaten du barrua,  
praka gorriak nik ditut baiña  
Txiki au da deabrua.



Zaldibian, Gurutzeta baserrian. Ezkerretik: Eneka Berasategi,  
Manuel Lasarte, Lazkao-Txiki, Joxe Lizaso eta Amaia Auzmendi.

**BOTIKARIOA ETA NESKA LAPURRA**

Zegama, 1980-XI-5.

Joxe Lizaso eta Lazkao-Txiki.

Gaia: botikarioa eta lapurretara doan neska.

*Laz.-*

Nere pistolarekin  
ni botikan sartu,  
ta botikario au  
bat ez da bildurtu.  
Drogarik bai al dezu?  
Nai nuke drogatu,  
zoriona zer gauz dan  
ezbaitet probatu.

*Liz.-*

Entzun dezute orain  
neskatxak zer dion,  
zeren billa zebillen  
antzematen zaion.  
Nun izan aiz: Zarautzen,  
berdin da Orion?  
Pistola ori, neska,  
zeiñi kendu dion?

*Laz.-*

Pistola ekarri det  
dizun moduan,  
orain errez billatzen  
diraden lekuan.  
Bati ostu nion ta  
gorde nun kolkuan,  
beste bat e badet ta  
ibili kontuan.

*Liz.-*

Arma aundi batekin  
au da neskatilla!  
Disimuluan dator  
droga batzun billa.  
Zertarako den droga,  
zertako pastilla?  
Ik ez al uke obe  
gustoko mutilla?

*Laz.-*

Drogaren billa nator,  
zuk ondo sinetsi;  
beti zuk zeureari  
nai diozu eutsi.  
Emaidazu porrua  
eo berdin zait hatxi,  
emen kontu oiekin  
berriketa gutxi.

*Liz.-*

Neskatxa arraioa,  
jarrai zazu txukun,  
mutil jator batekin  
egin adi lagun.  
Arek dibertiko au  
tanbolin da ttun-ttun,  
droga ta txorakeiak  
alperrikan ditun.

## FRAILEA ETA TXOFERRA

Zegama, 1980-XI-5.

Lasarte bertsolariaren omenez.

Gaia: Lazkao-Txiki Arantzazuko frailea da. Agirre, autoa bedeinkatu eta gero istripua izan duena.

*Laz.-*

Malda oietan ez da izaten  
ain gauza atsegiñikan,  
pena bat daukat pasa danakin  
emendikan joanikan.  
Bedeinkatuta nik utzi arren  
arkitzen zera klinikian,  
baiñan galdetzen dizut, Oranda,  
bai al daukazu miñikan?

*Agi.-*

Miñikan gabe klinikarako  
nork dauka ilusiua?  
Ta Arantzazura joateko ere  
banuen bokaziua.  
Neska batekin txoke egin det,  
jaunak, au da aziua!  
Indar aundirik etzuen zana  
zure bedeinkaziua.

*Laz.-*

Guk dadukagun bedeinkapenez  
indar aundia daukagu,  
Jaungoikoakin orazioan  
aritutzen baigera gu.  
Arantzazura juana orain,  
Joxe, al daukazu damu?  
Orrelakorik etzan pasako  
neska bedeinkatu banu.

*Agi.-*

Beraz, zuk neska bedeinkatzeko  
ere badezu oitura,  
arekin ere naiko zenduen  
bearbada zenbait lotura.  
Ez dezutela ezer balio  
eroria naiz kontura,  
mutiltzar batzuk bizi zerate  
Ama Birjiñan kontura.

*Laz.-*

Onek uste du bedeinkazio  
orrek ein diola kalte,  
bentajarikan ez bazun ere  
or kalterik ez da bate.  
Estudiatuak geradela gu  
kontuan eroi zaitezte,  
gu orrelaxe biziko gera  
tontuak dauden bitarte.

*Agi.-*

Praile txikiak berak esan du  
nik esan bear nuana,  
nabarmen dago federik ere  
batetxo're ez duana.  
Zure otoitzak egiñak arren  
ni okerrera juana,  
izan ere au praile egin zan  
monagillo bear zuana.

**ERRETORA ETA BIKARIOA**

Urruña, 1981-IV-12.

Gaia: Bikarioa Alkat, eta erretorea Lazkao-Txiki. Bikarioa Urruñan arras langilea da. Base-ritarrekin-eta aritzen da lanean. Erretora kontent ote dago?

*Alk.-*

Hoinbertze gauza aspaldiskuan  
hemen gaindi da ikusten:  
jaun erretorak bikarioari  
gauza txar asko erraiten,  
katixima ez egin nahi ta  
bertzetan lana egiten;  
egungo katiximan ez baita  
gauza onikan ikasten.

*Laz.-*

Eleiza barrutitik kanpora  
zu hor zabilta lanian,  
baiña askotan etzabiltzade  
zu hor hain bide onian.  
Neska pare bat oso politak  
daude basarri batian,  
haiengaitikan juaten zera zu  
lan eiteko aitzakian.

*Laz.-*

Laborantzara juaten zera zu  
orko laborarigana,  
juan dan astea're nunbait or du  
bikarioak igana.  
Baiñan badakit bidetik zerbait  
irtetzen asi zerana,  
meza eman da katixima da  
zuk ein bear dezun lana.

*Alk.-*

Asko alper ta asko apez, bai,  
lehen baitziraden sortu,  
orai apezak Euskal-Herrian  
anitez dira negurtu.  
Katixima ta meztatik urrun  
bainan lanean jokatu,  
ta neskatxen maitatzea ere  
Jaunak ez du debekatu.

*Alk.-*

Ez baita gauza berdinez bete  
bion bihotzen xokoa,  
senditzen dutan gauza guzia  
hemen erraiterat noa:  
badakizue, egungo haurrek  
ez dute laneko gogoa;  
lana maitatzen ez duen batek  
ezin du maita Jainkoa.

*Laz.-*

Bazkoak ere badatoz eta  
konfesatzeko denbora,  
bi neskatx haiek konfesatzeko  
deituko ditut ondora.  
Eta pentsatzen jarria nago:  
pekatu bat egongo da;  
oi ola bada bikarioa  
elizatikan kanpora.



## ZORIONTSUAK

Legazpi, 1981-V-1.

Azpillaga eta Lazkao-Txiki.

Gaia: inkesta batek dionez, zoriontsu diranen artean, bostetatik lau ezkonduak omen dira.

*Azp.-*

..... entzun dezute,  
gaitz ortaz ez gaude flako,  
Españi ontan zorion orrek  
badauka indarra bapo.  
Bostetikan lau zoriontsuak,  
zein nazio da olako?  
Ni're bizi naiz ain zoriontsu  
ezkonduata nagolako.

*Laz.-*

Nik berri ori ezin sinistu,  
komeri txarrena au da;  
edo bestela atzotik gaurra  
gauzak egin duen muda!  
Bostetatik bat da zoriontsu,  
lenakin egin det duda,  
kulpa gurea ez da izan ortan,  
esaten konfunditu da.

*Azp.-*

Esan diguten informe orrek  
Lazkao-Txikiri miña,  
ezkonduaren zoriona du  
nunbait ikusi eziña.  
Mundu au ez da mutiltzar eta  
neskazarrentzat egiña,  
oiena degu iñoiz fruturik  
eman ez duen jardiña.

*Laz.-*

Zeuk sinistatzen ez dezun gauzik  
ez zaitetz esaten asi;  
zeure etxeko berri guztiak,  
ai, nik baneki lenbizi!  
Askatasuna, demokrazia,  
ez al da adierazi?  
Lotuta dagon pertsonarikan  
ongi ez liteke bizi.

*Azp.-*

Bildurra al dezu ezkontzak daukan  
lege ta loturarena?  
Andre bat artu eta arekin  
daramat bizitza dena.  
Dibortzioa aitaturtean  
neri ematen dit pena,  
lengoa utzi gabe're pozik  
artuko det bigarrena.

*Laz.-*

Arrokeririk ez diot entzun  
oraindaiño bitartean,  
mingaiñetikan badu indarra  
ta izatez apartean.  
Au're sartu da berrogei eta  
zazpigarreneko urtean,  
batekin ezer ezin egin da  
bigarrenaren eskean.

**KARAKOLA ETA BAREA**

Orio, 1981-V-24.

Lasarteren omenaldia.

Gaia: bi leengusu: karakola ta barea, a zer nolako pare! A zer bi bitxo, ez odol, ez ezur, itxuaurreko ederrak. Lazkao-Txiki, karakola; Joxe Lizaso, barea.

*Liz.-*

Gizon parearentzat  
 auek abisuak,  
 baratz batean gaude  
 gauean sartuak.  
 Landaretxo politak  
 badira sortuak,  
 tranpan gabiltzadenok  
 biok lengusuak.

*Laz.-*

Ibiltzen ez gerade  
 bizkorrak izanak,  
 naiz ez galerazi inoiz  
 bizkarreko zamak.  
 Letxu ostro ta aza  
 asko dira janak,  
 aserretu ditugu  
 ortelano danak.

*Liz.-*

Lengusu onen berri  
 lendik banekian,  
 eskapatu ziraden  
 atzo gauerdian.  
 Naiz ta nekazariak  
 jardun armonian,  
 au errez gordetzen da  
 azaren azpian.

*Laz.-*

Bare gaixoak badu  
 nik ainbeste kalte,  
 au ere ni bezela  
 ez baidute maite.  
 Nei baiño erruki geio  
 artuko diote:  
 benenua botata  
 ondatuko aute.

*Liz.-*

Oraindik e bertsoa  
 azan azpitikan,  
 basarritarreatatik  
 ez zaio inportikan.  
 Ertetzen dezunian  
 leku ortatikan,  
 ea eltzen dizuten  
 adar puntatikan.

*Laz.-*

Biok ere adardun  
 ez al gaituk bizi?  
 I ni baiño gaizkio  
 ikusten aut kasi.  
 Gizonaren aurretik  
 ezin jua igesi,  
 baiña ni ibiltzen nauk  
 etxe eta guzi.

*Liz.-*

Etxia badu onek  
ijitu antzeko,  
bere teillatu ori  
ez dauka saltzeko.  
Arriskurik txarrena  
bariarentzako,  
bildurrez jarria nago  
itaia sartzeko.

*Laz.-*

Oraindik uda dana  
ez diagu pasa,  
ortelanun amorrua  
ez dek, ez, jolasa.  
I ere ibil adi  
estu eta presa,  
buruan e badaukak  
barearen traza.

**MANDAZAIA ETA BI MANDO**

Orio, 1981-V-24.  
 Lasarteren omenaldia.  
 Lazkao-Txiki, Lopategi eta Joxe Lizaso.  
 Gaia: mandazaia eta bi mando.

*Laz.-*

Une onetan mandazaiaren  
 tokian jarrita nago,  
 bide zailletan mandoak ola  
 edukitzerik ez dago.  
 Ezkerrekua ondo det baiña  
 arunzkua gabe ago,  
 perratutzero eraman bear  
 errendu baiño lenago.

*Lop.-*

Ez dakit nik zer esan dun baiña  
 ez du batere inporta,  
 momentu batez lasai nengoen  
 joana bainintzan lota.  
 Baiña mandazai txiki uger au  
 beti zelatan dago ta,  
 su-bazterrera bota bear dot  
 ostikoz gogotik jota.

*Liz.-*

Animalia zoritxarrean  
 gaur ere konpromisuan,  
 erren galantak egiñez nabil  
 beti pausuan-pausuan.  
 Ta, mandazaia, ikusi zazu  
 zer kargu artu dezuan;  
 larri zabiltza mando zar onen  
 ankarik ezin jasuan.

*Laz.-*

Naiko baba ta lastoa janez  
 zabiltzate egunero,  
 egunez lana zerbait eginda  
 gauean etzanda gero.  
 Mando beltz onek oi esaterik  
 enuen bate espero,  
 perrarik ere ez det jarriko  
 ostikoz jotze ezkeru.

*Lop.-*

Bi gera emen mando aundiak,  
 ni nago beltz eta edar;  
 amaika ostiko artu du eta  
 egin du amaika negar.  
 Karga aundia erabilia  
 naiz ni mundutikan zear,  
 mandazaintxo au eramateko  
 perrarikan ez det bear.

*Liz.-*

Gure mandazai kakanarru au  
 degu onelakoxea,  
 alper samarra izan da neri  
 perra berriak jartzea.  
 Arraio onek pentsatze'ez badu  
 eskailleran bat artzea,  
 kostako zaio alboan dagon  
 mando au kargatutzea.

*Laz.-*

Kargatutzeko mandazai au ain  
txiki ta bajua da ta,  
ezkerrekuak botatzen dizkit  
t'arek ezin du aguanta.  
Baiña bestela ere badute  
egizko manduen planta,  
perratokian perrak jartzea  
besteik etzaiete falta.

*Lop.-*

Gu ala gera eta serbitzen  
eiten degu alegiña,  
mando bikote ederra gera,  
estimatu eta fiña.  
Beste oneri begiratuta  
lendik genuen jakiña:  
mandazain txiki auek ipintzen  
dute kargarik aundiña.

*Liz.-*

Gure mandazai txiki au dago  
petralkeritan loturik,  
seguru nago ez dula maite  
batere animalirik.  
Illabeteak izango dira,  
ez dit ematen pentsurik;  
lana galanki t'aldamenetik  
maldeziua besterik.

**SENAR-EMAZTEAK**

Usurbil, 1981-VI-4.

Gaia: Mattin, senarra; Lazkao-Txiki, emaztea.

*Mat.-*

Nere andrearekin  
enaiz konformatzen:  
oian zahartu naizela,  
dibortza galdatzen.  
Nai badezute jakin  
arrazoia zer den:  
oian ez omen dut nik  
gehiago berotzen.

*Laz.-*

Biok gerade pixka,  
biok gera txikik,  
alde gutxi daukagu  
Mattinek eta nik.  
Lengo arrats batean  
oatzera joanik,  
gaua pasatu nuen  
billatu ezinik.

*Mat.-*

Gertatzen baitirade  
holako kasuak,  
ez nau gehiago maite  
etxeko atsuak.  
Orai mementu hauek  
ez dira goxuak,  
zer atsegina zuen  
lehengo musuak!

*Laz.-*

Nik ez dedala maite  
dio, alajaiña!  
Neu're enaiz aundia  
ta enago bikaiña.  
Gizonari moteldu  
arrantzako kaiña,  
ezta azkure eder bat  
egiteko aiña.

*Mat.-*

Nere andrearekin  
enaiz akort bate,  
zertako enauzu gaur  
lehen bezin maite?  
Oian ere egoten  
da beti aparte,  
ortan ere badauka  
segur zerbait kalte.

*Laz.-*

Jakin bear zenduke  
maite zaitutena,  
zartu zera ta orrek  
ematen dit pena.  
Zuk badakizu zerbait  
nik bear detena,  
ta bastoia bakarrik  
daukazu zuzena.

*Mat.-*

Orai galtzen ai dela  
gure komeria,  
ez dedala balio  
kexu da andria.  
Nahi baduzue aitu,  
jendiak, egia,  
berak ere eztula  
lehen hainbat premia.

*Laz.-*

Biotzez maite zaitut,  
bear dezu jakin;  
zu zera nere maite,  
zu nere atsegin.  
Barkatzen dizut, nere  
senar zeran Mattin;  
konpletatu bearko  
beste norbaitekin.

*Mat.-*

Dibortzio kontua  
hobe dugu utzi,  
nora joango zera  
nigandik ihesi?  
Nik etzaitut, andria,  
nahi inorat utzi,  
holaxe behar dugu  
oindik biok bizi.

*Laz.-*

Etzaitut utziko ta  
lasaitu zaitia,  
ezkontze egunetik  
nik zaitut maitia.  
Baiña zu zartu zera,  
ni oindik gaztia;  
biak maiteko ditut:  
zu eta bestia.

*Mat.-*

Bigarren senarra zuk  
gaur zinue kalte,  
nola izango'ituzu  
biak berdin maite?  
Bigarrena gutxi ta  
lehengua bate,  
etzenun hola esan  
duela hogoi urte.

*Laz.-*

Nere emazte onek  
badu naiko kezka,  
bi zertako ditudan  
ari da galdezka.  
Zar bati aguantatzen  
eztago errez ta,  
zu oean berotu,  
besteakin festa.

*Mat.-*

Orai zahartu eta  
joan behar mundutik,  
ez zaitezen dibortza  
gauza horrengatik.  
Mattinek egi batzuk  
aitortuko ditik:  
ni atxikiko nauzu  
diruarengatik.

*Laz.-*

Nere senarra Mattin,  
lasai egon zaite,  
gaztetan bezelaxe  
gaur ere nik maite.  
Elizako itz oiek  
nai nituzke bete,  
etzaitut, ez, utziko  
bizi naizen arte.

## GALTZAK IA GALDUAN

Zegama, 1981-XI-15.

Gaia: Gaur goizean, arnas estuka ta larri, galtzak erdi galduan ikusi dezu Lasarte Zegama bidean. Kontuak artu bearko dizkiozu.

*Laz.-*

Nere lagun au gaur goiz onetan  
gaizki zebillen nonbaite,  
bart arratseko lo egite ori  
nunbait ez du ongi bete.  
Galtzak e ia-ia galduan  
edo etzitun aparte,  
era ortaraiño jetxitzeko  
zer gertatzen zaik, Lasarte?

*Las.-*

Lasarte onek berekin badu  
beti onelako festa,  
Lazkao-Txiki or asia da  
zer pasa zaidan galdezka.  
Baiña etzazu, lagun maitea,  
izan orrenbeste kezka,  
galtzak galduagatik Lasartek  
gantzontzilloak badauzka.

*Las.-*

Gantzontzilloak bazeuzkan eta  
bazuen premi galanta,  
beste aldetik gaur goiz onetan  
izotz piska bat bazan ta.  
Gerrikorikan etzeukan eta  
onek zeramakin planta!  
Bat aztutzea ez da ezertxo,  
gero ipurdia falta.

*Las.-*

Nik ipurdia badaukatela  
egon zaitetz sinistuta,  
bainā illunpean ibillia naiz  
argirik ez det piztu ta.  
Izanez ere zartu naiz eta  
ainbat nago narrastuta,  
etxe aldetik aterea naiz  
galtzak jartzea aztuta.

*Laz.-*

Gure Lasarten galtzak galtzea  
gauz zelebrea zan egiz,  
gerrikorikan ere ez du artu  
bere logure geiegiz.  
Bere denbora guzian dabil  
berotasunaren premiz,  
oraindik ere ala zebillen  
izotza urtu ez balitz.

*Las.-*

Izotzik ez det errespetatzen  
gorputzez bero egonik,  
oraindik ere etzazu uste  
oso galdua nagonik.  
Etzaidazula berriro jarri  
neri orrelako bromik,  
Oriotikan ez da etortzen  
galtzik gabeko gizonik.



## DESAFIOAK

Zegama, 1981-XI-15.

Joxe Lizaso eta Lazkao-Txiki.

Gaia: nunbait asarretu dira biak, eta entzun zer nolako desafioak botatzen dizkioten alkarri.

Liz.-

Motell, zelebrea dek  
ire jeniua,  
nerbiuak al ago  
burura iua?  
Ik burrukako beintzat  
ez ago jaiua,  
ixilik egon adi,  
txatxu arraiua!

Laz.-

Lizaso lagun auxe  
dago fundamentuz,  
gizon izugarria  
espalda ta buruz.  
Neu're natxiok, motell,  
asitzeko asmuz,  
ni berotu baiño len  
itzegin zak kontuz.

Liz.-

Edozein artutzen du  
oraindikan autan,  
lotsagabetzen dira  
nai duten lekutan.  
Nerekin ez ai asi  
orrela disputan,  
ikusi nai ez badek  
Aizkorriko puntan.

Laz.-

Egin bear ote du  
desafio geio?  
Elduko baldin balit  
kasik nuke naio.  
Eskua bere lekutik  
ertetzen bazaio,  
Txiki au apuntatzen  
kostatuko zaio.

Liz.-

Zertarako jarri naiz  
ni asarretuta?  
Borrokari egiteko  
balio ez du ta.  
Ondatu baiño leno  
Lizason konduta,  
etxera eramango det  
patrikan sartuta.

Laz.-

Zer bitxo naizen lenen  
jar adi begira,  
neuk ere ekarri dit  
ortarako ira.  
Kolpe botako diot  
beko alderdira,  
moztean arbol aundiak  
eroritzen dira.

**TXAKURRAK BABARRUNAK JAN**

Tolosa, 1981-XII-7.

Larraulko Elizegi baserri erre berriaren aldeko jaialdia.

Gaia: Amuriza, perira etorri eta lasai babarrunak jaten ari zan. Alako batean, Imanol Lazkano txakur txiki batekin sartu da, neskazar panpoxa; eta, biak kontutan ari diran bitartean, txakur txikiak babarrun danak jan ditu. Pentsatuko dezute nor dan txakur txiki ori: Lazkao-Txiki.

*Ima.-*

Iñoiz ez da arkitu  
mai obeaguan,  
babarrunak ederki  
zijoazkion abuan.  
Azkena noiz jan zuen  
ez dauka goguan,  
onek etzun uste baiñan  
goseak zeguan.

*Laz.-*

Txakurrak e bear zun  
asetzeko txanda,  
neskazarra neretzat  
gaur ona izan da.  
Aldameneko au zegon  
orregana juanda,  
txikia bapo dago  
babarrunak janda.

*Amu.-*

Aizu, neskazar sorgiña,  
gu geunden pakean,  
ta txakur txiki au emen  
neronen kaltean.  
Putza izango du ainbeste  
babarrun jatean,  
gaur beintzat etzazu sartu  
zeure gonapean.

*Ima.-*

Zeñek pentsatuko zuen  
olako fortuna?  
Txakur txikiak jan du  
naiko babarruna.  
Zoriontzeko artzen det  
nik gaurko eguna,  
indartu zaidalako  
oirako laguna.

*Laz.-*

Txakur txiki xamarra naiz,  
beti katerako,  
baiñan pasiura zeñek  
enau aterako?  
Neskazarra izan da  
zure kalterako,  
gaur espabilatu zaitut  
beste baterako.

*Amu.-*

Zaude, txakur arraiua,  
ixilik mesedez,  
banekin lapur aundia  
zeradela zerez.  
Babarrunak onek janda  
neskazarra ezetz,  
egun triste au etzait  
aztuko ain errez.

*Ima.-*

Nolabait erori gera  
zelebrezko saltsan,  
bizimodurako jarri  
naiz ni esperantzan.  
Biarritan etxia  
jarriko det martxan,  
baldin ustutzen bada  
etxeko baratzen.

*Laz.-*

Neskazarra, eskerrak  
emate'izut, aizu;  
nere triparentzako  
gaur ona ziñan zu.  
Zuk gaur bezelako otorduak  
izaten baituzu,  
len ez-ezik bizarra  
luzatuko zaizu.

*Amu.-*

Bizar luzea badet  
ezpaiñen ertzean,  
erdia jarriko dizut  
zerorren ortzean.  
Eta ostikada bat  
emanik atzean,  
zeu egosi bear zaitut  
babarrun-eltzean.

## ASTO-TRATUA

Ernani, 1982-1-2.

Gaia: Lazkao-Txiki baserritarra izango da. Lasarte, berriz, ijitua. Joxe Mielek asto bat erosi dio Lasarteri, ijitoari. Oso mantsoa eta oso asto ona. Baiña etxera eraman duenean, izugarri aldatu da astoa. Oso biurritu, ostikoa ugari eta ez dakit zer. Berak esplikatuko du.

*Laz.-*

Tranposo antxa ote aguen  
egiñik niok juzkua,  
ire eskutik ez diat artu  
animali tajuzkua.  
Indizioaz dominatuta  
ik saldu didak astua,  
orain arrotzen asi dek eta  
ez niok oso gustua.

*Las.-*

Berialaxe aterako det  
baserritarra sustotik,  
aukera aundia ijituak du  
mandotik eta astotik.  
Ez da komeni, baserritarra,  
gure tartean disputik;  
gauza onikan etzazu espero  
ijitoaren eskutik.

*Laz.-*

Lengo batian puskatu zidak  
marmidak eta eltziak,  
balio duen ainbeste gastu  
lengo ortan egin ziak.  
Eta ederki astintzen dizkik  
aurriak eta atziak,  
arrokerian badizkik arek  
nagusiaren partiak.

*Las.-*

.....(1)  
ez orain azkar etsiko,  
ta ez al dezu asto gaixoa  
zuk bazterrera utziko?  
Toki txarrean artzen badezu  
deskuido batez ostiko,  
ark inbalido jarriko zaitu  
zeure bizitza guztiko.

*Laz.-*

Ni inbalido jarriko naula  
jitanoak ala dio,  
Lazkao-Txiki domatzerikan  
ez pentsatu oraindio.  
Bigote gabe ijitano au  
ikusten degu serio,  
bera ostikoz asto txar onek  
len jo zuelako merio.

*Las.-*

Gauz ori etzan egia eta  
iñork ez sinistu auxe,  
gure astoak etzuen pasa  
iñoiz orrenbeste gose.  
Auen antzera zer gertatzen dan  
nik esango det belaxe:  
erdi goseak dago astoa,  
nagusia bezelaxe.

(1) Zintatik bein eta bitan entzun eta ezin ulertu emen zer dion.

## ANDREGAIK EZETZ

Zestoa, 1982-II-2.

Gaia: neska-mutillak zerate. Ezkontzera joan eta Lazkao-Txiki neskak ezetz esan dio Azpilla-ga mutillari.

*Laz.-*

Erantzun eta ez naiz atera  
ni bear bezin prestua,  
izanez ere une au baita  
nerbioso ta estua.  
Baietz esaten asi bearrez  
luzatutzean eskua,  
neronek ezer enekiela  
esan dizut ezezkoa.

*Azp.-*

Altara aurrera jua gera ta  
zuk eman didazun miña!  
Emakumeak beti baidauka  
kontra egiteko griña.  
Esaten zendun ni ote nintzan  
munduko gizon aundiña;  
ordu gutxian aztu al zaizu  
lengo egunean egiña?

*Laz.-*

Ezkondu bear genduen biok  
eta izan degu galera,  
ta apaizari galdetzen diot:  
berritzekua ote da?  
Baiña, mutilla, oitura dala  
zu konturatuko zera:  
gaur arte ezetz esan dizut ta  
gaur orixen zait atera.

*Azp.-*

Aitortu bear bear bezela  
gaur arte egin diranak,  
aintzat artuko al ditu apaizak  
gertatzen zaizkigun lanak?  
Damua gero sortu liteke  
alperrik denbora jua nak,  
gero ere ezetz esan dezake  
gaur ezetz esan duanak.

*Laz.-*

Orain bitarte saiatzen baizan  
ezkonduaren moduan,  
ta nik ezetza esaten nion  
au asitzen zan orduan.  
Ta gaur bai esan bear nion da  
nik lenokua goguan;  
baietza ere esango dizut  
oiera juandakuan.

*Azp.-*

Bat ezkontzeko ustetan bada  
komeni da indartzea,  
pentsa genduan ezkondu eta  
etxe batean sartzea.  
Baiñan ez det nai baietz batekin  
nere burua galtzea,  
beti ezezka ibiltzekotan  
obe det ez ezkontzea.

Laz.-

Apaiz jaun ori galde ta galde gaur berealako kezkan, len ezagutu ez bagiñan eran beti egin oi duten festan. Lenago ere "nik maite zaitut" sarritan baidizut esan, zeremoniak nazkatu nau ni, galdetu bearrik etzan.

Azp.-

Beti ezezka pasatua da nere neskaren denbora, alako baten ezkontutzea etorri zaio gogora. Aldareraño jua da ezetz, itz orrek baidauka moda; nik uzten zaitut ta jua zaite apaizarekin serora.



Lazkao-Txiki eta Amuriza, Ondarrabin, 1982-IX-10-ean.

## GEZUR KONTARI

Zestoa, 1982-II-6.

Gaia: Agirre, Lazkao-Txiki eta Lopategi, nai dezuten aña gezur kontatu.

*Agi.-*

Sarri egia esanda ere  
nola izaten dan kaltian,  
orain gezurra komeni bada  
esaten asi gaitian.  
Pozak txoratzen bizi gerade  
desgrazitik apartian,  
eta Euskadi askatuta dago  
juan dan berrogei urtian.

*Laz.-*

Esaten dute bi bat metro ni  
alturatan banaizela,  
eta alare azaldutzen naiz  
enanotxo bat bezela.  
Pentsa zazute gezur aundiak  
asmatuko dituztela,  
esan didate ETA-ko jefe  
Rosón ipiñi dutela.

*Lop.-*

Onek esan du, baña lenago  
ori jakiña genduan;  
berri guztiak ezautzen ditu  
txiki onek beranduan.  
Españolakin bizi baigera  
armoni onez onduan,  
gaur egunean torturarikan  
ez da ezautzen munduan.

*Agi.-*

Jende guztiak ondo egiteko  
artuta daude ardura,  
eta txikiak esan duena  
lengo baten zabaldu da.  
Rosón ETA-ko buru jarri ta  
Juan Karlosek naiko duda,  
ikusten nago ezker aldeak  
irabazten dula guda.

*Laz.-*

Leopoldoren tokian laister  
ipiñiko da Apala,  
emengotarra agintaritzan  
jarri dezagun al dala.  
Beste berri bat ere, lagunak,  
pentsatu entzun dedala:  
orain daukagun Aita Santua  
laister ezkonduzen dala.

*Lop.-*

Ortan utsunik gertako balitz  
ark beteko du zuluia,  
ez dakit nola ereingo ditun  
garia eta olua.  
Baña emen nola gertatu dan gaur  
omenaldiko arlua,  
Martin Villa-k e bialdu omen du  
neretzat erregalua.

**ALDERDI ONAK ETA TXARRAK**

Zestoa, 1982-II-6.

Lazkao-Txiki, Joxe Lizaso eta Imanol Lazkano.

Gaia: Joxe Lizaso, etxeko jaun eta jabe.

*Laz.-*

Ezkontzeko esanez  
dago jende dena,  
baiñan lotutze orrek  
ematen dit pena.  
Demokrazian alde  
da jende geiena,  
mutilzar dagoena  
dago ondoena.

*Liz.-*

Jakiñean jarri dira  
Lazkaon tiruan,  
edozer esan leike  
olako giruan.  
Lazkanok ez du agintzen  
andrian onduan,  
ikusten da etxian  
nork agintzen duan.

*Ima.-*

Arra emearentzako  
menderikan mende,  
ortara bildutzen da  
makiña bat jende.  
Ni arkitzen etxean  
andrearen mende,  
txikia, obe zenduke  
zu ala bazeunde.

*Laz.-*

Andreak mogitzen ere  
ezin dio utzi,  
kalera juan nai badu're  
eskutikan eutsi.  
Ikusten dezute ori  
nola zaigun bizi,  
gizon galanta baiñan  
errespeto gutxi.

*Liz.-*

Lazkao, etzazuala  
egin negarrikan,  
zenbait ezkonduzea  
ain da alperrikan.  
Lazkano onek ez dauka  
aginpiderikan,  
onek etxian dauzka  
galtzak bakarrikan.

*Ima.-*

Mutilzarraren pausoak  
dira guztiz motzak,  
artarako indar gutxi  
ttikian biotzak.  
Naiz andreak aldizka  
erakutsi ortzak,  
negua ez det pasatzen  
anketako otzak.



*Laz.-*

Zuregaitik andreari  
etzaio inporta,  
morroi bat bezelaxe  
mendean ago ta.  
Askotan bakar-bakarrik  
egiten du lo ta,  
goizean lanera bialdu  
bizkarrean jota.

*Liz.-*

Mutilzar au ezagutzen  
degu aspaldian,  
nola bizi zakuan  
andrian premian.  
Nere lagun au ere  
dabil istorian,  
ez baidit atsegiten  
nai dedan tokian.

*Ima.-*

Ttikiari zelebrea  
ez al zaio gerta?  
Naita're lortu ezin  
ezkondun karneta.  
Burua arindu zaio,  
legortu brageta,  
Arantzazura zoaz  
alperrik zaude ta.

*Laz.-*

Txikia oraindik dago  
ain sasoi onean,  
pozikan arituko  
litzake lanean.  
Ortikan goseak bizi  
baida geienean,  
etxera joango natzaizu  
ezin dezunean.

*Liz.-*

Txikiak pikardia  
gaur ere esan du,  
gaiztoa jaio zan da  
ezin da zuzendu.  
Beste au ere or dabil  
mundurikan mundu,  
daukan ilusiorik  
ezin du mantendu.

*Ima.-*

Beraz gure mutilzarra  
dago oso bizi,  
indarrean dagola  
eman du notizi.  
Au nai duenak artu  
katxarro ta guzi,  
errifan jarriko degu  
nai dunak erosi.

*Laz.-*

Ez pentsatu naizenik  
katxarro gabia,  
txikia izateko  
kasi geiegia.  
Bat baiño geiago're  
gustatutzen dia,  
ta partorako berriz  
zu baiño obia.

*Liz.-*

Gaiztotzen asi dala  
nago antzemandan,  
oraindañoan beintzat  
onela izan da.  
Egia baldin bazan  
onen propaganda,  
lo arrazi iozute  
bularra emanda.

*Ima.-*

Bertsotan luzitu naia  
genduen al dala,  
afalondoa ortarako  
ez da ain tamala.  
Burua ariña baiña  
aboa zabala,  
ez al zuten esango  
neskazar gerala.

## BIZARRA

Zumaia, 1982-IV-24.

Gaia: Auek komeriante batzuk bezela dabiltz, eta Lazkao-Txikik galdetzen dio Amurizari: "Zer abil bizarrarekin?". Eta Amurizak Lazkao-Txikiri esaten dio: "Nun dek bizarra?"

*Laz.-*

Zu, Amuriza, bizar luzeaz  
zabiltzade aspaldian,  
udaz itzala eta babesa  
badezu negu aldian.  
Ta nik bizarra nun ote dedan  
omen zabiltza aspaldian,  
arpegikoa moztuta daukat,  
beste pixka bat gordian.

*Amu.-*

Gordian dauzkan dudak badituz  
ta egingo dituz gaur zaunkak,  
onen kontuak olaxen dira  
eta nik gogoan daukat.  
Emen norbaitek gezur aundia  
ere gordean bazeukak,  
Lazkao-Txiki, nun dek bizarra  
nonbaiten baldin badaukak?

*Laz.-*

Len esan dizut nik nun daukaten,  
ez dezu aditu ala?  
Ille tartetik ematen dezu  
bastante gorra zerala.  
Sandaliak e bere oiñetan  
ikusten diogu ala,  
len apaizatit atera zan da  
kaputxino sartu dala.

*Amu.-*

Besteren kexa agertzen ari  
zaigu oso borondatez,  
Lazkao-Txiki, zere buruaz  
arduratzen asi zaitetz.  
Nik sandaliak eta bizarra,  
eta zuk ordea batez,  
txitxare batzuk ortxe dituzu  
bizar aundiaren partez.

*Laz.-*

Zure anairen bat bizarretikan,  
Amuriza, bada emen,  
moztu det eta ez daukatela  
zer ari zera esaten?  
Eta zeuk ere dezunarekin  
ez dezu ongi ematen,  
obe zenduke dana moztea  
erabat zuitu baiño len.

*Amu.-*

Nere bizarra zuria daukat  
tartean beltza ere dala,  
ta dena zuri emateko ere  
borondatez nago ala.  
Alare kezka aundia nuke  
esango dedan bezala:  
jende guztiak esango luke  
basakatua zerala.

*Laz.-*

Bestela gizon polita baiña  
 orrekin zaude baldarra,  
 ori uztea egin zenduen  
 zeure pekatu bakarra.  
 Ematen dezu koba zulotik  
 erten dan zomorro zarra,  
 arpegirik ez garbitzearren  
 utzi zenduen bizarra.

*Amu.-*

Nik arpegia garbitzeko ere  
 banuke, lagun, indarra,  
 alare daukat zure ondoan  
 gizon agertu biarra.  
 Zuk bizarrikan ez dezulako  
 argi nezake izarra,  
 nerea baiño obe zenduke  
 neskazar baten bizarra.

*Laz.-*

Neskazarren bat emen badago  
 bizar aundi baten billa,  
 biar goizetik neuk utziko det  
 ta egon dedilla trankilla.  
 Bizarrarekin egiten bada  
 gizona eta mutilla,  
 gauz orren zale dagon neskaxa  
 biatza jaso dedilla.

*Amu.-*

Neskazar oiek zar izan arren  
 badute naiko gar ta su,  
 Lazkao-Txikik egin dizue  
 mandatu edo amenazu.  
 Aizu, Lazkao, bostgarren bertso  
 ortan ia bazaude zu,  
 jarraitu zazu bizarra irten  
 arte utzi nai ez badezu.

## NESKA-MUTILLAK ONDARTZAN

Ahetze, 1982-VII-18.

Mattin il zala urtebetezea.

Gaia: Neska eta mutila. Lazkao-Txiki neska izanen da. Ezponda, mutila. Hondartzan elkar ezagutu duzue.

*Ezp.-*

Uda betean baidago eta  
gabiltz hondartza hoietan,  
sinist zazue ni ez nagola,  
ez, egun ere penetan.  
Neskatxa gazte hau ikusi det  
dela larru gorrietan,  
hitzez ezin degu egin baina  
senditzen da begietan.

*Laz.-*

Ni're plaiara joanda izan naiz,  
nengon preskatu goguan,  
eta alako mutil eder bat  
jarri zait nere onduan.  
Larru gorrian ni ikusita  
au arriturik zeguan,  
etzaiz arritu, Jainkoak ere  
olaxen egin ninduan.

*Ezp.-*

Nola menturatu den neskatxa  
ematen larru gorrita,  
eta nik ere hondartza hortan  
egun egin det bisita.  
Hau ikusi ta nere gorputza  
eman zaita irakita,  
nerea ezin det gobernatu  
holako bat ikusita.

*Laz.-*

Biok ez gera konprenitutzen  
ta konpreni bearrean,  
larru gorrian arkitzen naiz ni  
ondartza onen gainean.  
Nere mutil au ez det ikusten  
oso jite ederrean,  
bulto galanta azaltzen zaio  
praka txikien aurrean.

*Ezp.-*

Elgarri hitzik ezin deu egin,  
hau dago guk daukaun planta!  
Baina ni neskatxa polit hontaz  
orain har nezake arta.  
Maitasunean hitzegitea  
beti ez da inportanta,  
beronek ontsa konpondutzen nau  
musu goxo bat emanta.

*Laz.-*

Biok mintzaira ezberdiña ta  
bion arteko jokera,  
eskuarekin mintzo gera gu  
batera eta bestera.  
Mutilla, zuk e biar zenezake  
gaur daukazuen aukera,  
ondartzatikan joandakoan  
ongi konponduko gera.

**MATTIN, NERE GIZONA LIBURUA**

Urruña, 1982-VII-18.

Ezponda eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Mattin orai urte bete hil zen, eta orain Mayik, bere alargunak, *Mattin nere gizona* liburua idatzi du.

*Ezp.-*

Mattin maitagarriak dauku  
 mundu zabala utzia,  
 baina nork azaldu dezake  
 harek egin dun argia?  
 Bere emazteak liburutxo bat  
 hor omen du idatzia,  
 hortxet azaltzen ote du Mayik  
 berak maite dun guzia?

*Laz.-*

Libru batean ematen dezu  
 zere senarraren berri,  
 maitasun eta istori danak  
 ortxe dituzu ezarri.  
 Ta zoriona ematen dizut  
 egin dezun libru orri,  
 gauza polit bat utzi baitezue  
 senarraren oroigarri.

*Ezp.-*

Bere senarra galdu du eta  
 beti zerurat begira,  
 bertsolarien bizimoduak  
 holaxet izaten dira.  
 Mattin zena nolatsukoa zen  
 eman behar gaur argira,  
 eta Mattin gureztat nor zagon  
 orai ikasten hasi gira.

*Laz.-*

Denok dakigu gorputzez emen  
 ta animaz goian dagola,  
 bere andreak ezin ahantzi ta  
 guk ere ezin inola.  
 Libru polit bat Mayik egin du  
 malkoak darizkiola,  
 il ondorean nabari da zuk  
 bihotzez maite duzula.

*Ezp.-*

Mayik senarra maitea zuen,  
 maitatua zen hoinbertzek;  
 ta gu denak estekatu gaitu  
 Mattinen adiskidantzek.  
 Liburu polit hoi izan arren  
 dolua dugu anitzek,  
 holako lore polit bat berriz  
 sortu dezala Ahetzek.

*Laz.-*

Mattin guziok maitatzen degu  
 basarrian da kalean,  
 izanez ere ain aundia zan  
 irrian da apalean.  
 Guk ere beti maite dezagun  
 inundik ta ahalean,  
 egun batean alkar gaitezen  
 goiko zeru zabalean.

## ERLEKISTENDUNA ETA KURANDEROA

Zubieta, 1982-VII-30.

Gaia: Lasarteri ipur-masaillean erlekisten bat atera zaio. Lazkao-Txiki, kuranderoa.

*Las.-*

Lazkao-Txiki biotzekoa,  
nerekin det naiko pena,  
ta al badezu entzun zaidazu  
orain esaten detena.  
Ipurtaldean sortu zait bere-  
biziko erlekistena,  
au zulatzeko, kuranderoa,  
zuk bear dezu eztena.

*Laz.-*

Ni kurandero ipiñi naute  
ta zu sendatu bearrez  
arkitzen zera bolara ontan  
ain erlekisten txit txarrez.  
Begiratu ta begira nago,  
antzematen ez da errez,  
irutatik zein kendu bear dan  
esan zaidazu mesedez.

*Las.-*

Berealaxe esango dizut  
galtzen ez bazait burua,  
erremedio bat bear nuke  
ona eta segurua.  
Erlekistenak arrapatu dit  
zintzarrien ingurua,  
au sendatzeko egin zaidazu  
zuk enplasto bat berua.

*Laz.-*

Ipurdi ortan andik onuntza  
zuri egin dizut jira,  
erlekistena zein dan baneki  
naiago nuke sikira.  
Alde aundirik ere ez baida  
emen tokitik tokira,  
ta iru koxkor ikusten ditut,  
irurak berdiñak dira.

*Laz.-*

Erlekisten au beingoz sortu zan  
oso toki apaiñean,  
bera errege bezela dago  
beste koxkorren gainean.  
Berez gaiztoa izaki eta  
gogor ari da lanean,  
baiñan ori're geldituko da  
ezurra jotzen dunean.

*Laz.-*

Zuk badakizu ni naizela emen  
praktikanterik onena,  
pozikan asko egingo dizut  
zuk agintzen dezuena.  
Baiña aldrebes egingo banu  
banuke betiko pena,  
ea deskuidoz kentzen dizuten  
koxkorrik printzipalena.

## AJENTZIATIK EZKONTZA

Zubieta, 1982-VII-30.

Gala: Amuriza, ezkontzak egiten dituen ajentzia bateko nagusia da; Lazkao-Txiki, berriz, ezkondu nai zuena. Tratua egin eta andrea irurogei urtekoa eta anka bat egurrezkoa.

*Laz.-*

Ongi dakizu: nik emazterik  
len ez det izan oaindaiño,  
Baiñan aspaldi ontan banuen  
ezkontzen zenbait enpeiño.  
Zu ezkontza eiten zabiltzana ta  
neri oinbeste engaiño!  
Ori saltzeko obea dago  
iñork erosteko baiño.

*Amu.-*

Joxe Mielek ez omen du nai  
salgai dagonik erosi,  
ori zureztat artua neukan  
bere anka eta guzi.  
Gazte denboran ibili ziñan  
aukerakoen igesi,  
berandu asten dan mutilzarrak  
ez dik besterik merezi.

*Laz.-*

Zuri galdezka bein juan nintzan da  
joan ez banintza obe,  
anka're egurrezkoa dauka,  
iruroi urteren jabe.  
Naiz eta ni zartuta gaur egon  
lana egiteko trebe,  
orrek tranpa egin liteke  
pastillarik eman gabe.

*Amu.-*

Pastilla ori gazte denboran  
izan leike legezkoa,  
baiña edade batetik gora  
nun da orren arriskua?  
Kejutzen zera omen dulako  
anka bat egurrezkoa,  
orrek ez ziok inportarikan  
bestea badu freskoa.

*Laz.-*

Beste ori nik beroa nai det  
beste askoren antzera,  
neri jelazko gauzak saltzera  
onuntz etorri al zera?  
Eta fraile(1) au etorri zaigu  
olako gaiak jartzera,  
Arantzazura bialdu zazu  
konbentua garbitzera.

*Amu.-*

Ai, Joxe Miel, orain bota dek  
oso arrazoi galanta,  
praile bat emen izan diagu  
ta artu nioan planta.  
Atso zar ori lengo urtean  
baizan an goian izanta,  
praileren batek kenduko zion  
orain falta zaion anka.

---

(1) Nikolas Segurola.



## ITXUA ETA ITXU-AURREKOA

Zegama, 1982-VIII-25.

Gaia: Lazkao-Txiki itxua da; eta Lasarteri eskutik elduta egiten ditu pausorik geienak.  
Bien arteko elkarrizketak.

*Laz.-*

Au da tristura eta illuna  
mundura sortu zaiguna,  
eta aditu bear didazu  
orain galdetzen zaizuna.  
Neretzat nola diran berdiñak  
gaua bezela eguna,  
ta eguzkia nolakoa dan  
esan zaidazu, laguna.

*Las.-*

Nik gaur Zegaman ikusia det  
eguzki eder askua,  
Orion berriz itxas aldetik  
zeterren aize preskua.  
Ezin dunari lagundutzea  
degu gauza bidezkoa,  
ni nago zure gidari eta  
luza zaidazu eskua.

*Laz.-*

Tori eskua ta entzun zazu  
nere barreneko miña:  
mundua oso polita dala  
esanda nago jakiña.  
Ainbat lore ta edertasun on  
daukat ikusi eziña,  
mundu onetan itxuak dauka  
kastigurikan aundiña.

*Las.-*

Bistikan gabe emen gizonak  
ez daduka atsegiñik,  
izugarrizko gaitza da ori  
gauza garbi itzegiñik.  
Lazkao-Txiki, goza gaitezen  
biok senide egiñik,  
andik aurrera ez da izango  
alkar ikusi eziñik.

*Laz.-*

Jaio nintzala ere penetan  
egon izan naiz erditan,  
izanez ere argitasunik  
ez dago nere begitan.  
Mundu onekin asperturikan  
bizi naiz ainbat alditan,  
beste munduan ikusiko al det  
Jaungoikoaren argitan!

*Las.-*

Munduko argi guztiak daude  
zuretako itzalduta,  
kastigu ori izandu dezu  
Jaungoikoak bialduta.  
Baiña, anaia, poztu zaitea  
etzera oso galdu ta,  
bazkaritara juango zera  
neri eskutik elduta.

**AGUAZILLA ETA LARRU GORRIZKOA**

Zegama, 1982-VIII-25.

Gaia: Lazkao-Txiki larru bixian dabil, zato artoa bizkarrean duela, erriko festetan. Lasarte erriko aguazilla da, eta kargu artzen dio.

*Las.-*

Larru gorrian gera  
Jaunak ekarriak,  
bainã zartutakoan  
bai beldurgarriak.  
Lazkao-Txikik daduzka  
istillu gorriak,  
tapatzen ez baditu  
bere zintzarriak.

*Laz.-*

Pestak triste ibiltzeko  
al dezu ustia?  
Umorez pasa nai det  
festaldi guztia.  
Bizkarrean zato bat,  
aurrean bestia,  
alare emengo neskak  
bildurtzen ezta.

*Las.-*

Aguazillak makilla  
dizu dantzatua,  
zu ola ikusita  
neukan pentsatua.  
Laister moztuko dizut  
nik beko zatua,  
ori nola daukazun  
asko luzatua.

*Laz.-*

Nere zatuarekin  
orrenbeste kezka,  
moztuko didazu ta  
banoa igeska.  
Begira pozik daude  
orrenbeste neska,  
dunak erakustia  
pekatua ezta.

*Las.-*

Larru gorrian oiñez  
dabil taka-taka,  
aguazillak ikusi  
du au or bueltaka.  
Azkenik pasako da  
sekulako marka,  
orain txintxilik du ta  
laister arrastaka.

*Laz.-*

Oraingo arrazoi ori  
etzendun zuzena,  
arrastaka ikusteak  
ematen du pena.  
Laister tente jartzean  
aurreko antena,  
joan bearko det nik  
neskatxen batena.

## MUTIL POBREA ETA NESKA ABERATSA

Zegama, 1982-VIII-25.

Gaia: Lasarte izango da neska, eta Lazkao-txiki mutilla. Lasarte etxe oneko alaba da; aberatsen alaba. Lazkao-txiki, berriz, oso pobrea. Lasarteren gurasoak ez dute nai biok ezkontzea. Biok maiteminduta daude.

*Laz.-*

Neskatxa maite, zugana nator  
pentsa zenezake zuk e  
amodioa partituzea  
amodioaren truke.  
Etxe pobreko semea naiz ni,  
ez naiz konde edo duke,  
zu emaztetzat artu nai zaitut  
zedorrek nai bazenduke.

*Las.-*

Entzun dezute, anai-arrebak,  
mutillaren parezera,  
pobre da baiña bildu nai luke  
neskatx baten babesera.  
Alde batera utzi dezagun  
diruaren gorabera,  
barometroa ongi badezu  
bapo konponduko gera.

*Laz.-*

Neskatxa auxe atrebitu da,  
zer arrazoia zan ori?  
Pobre-aberats inporta danik  
asko etzaio ageri.  
Lendabiziko beiratzen dio  
nere barometroari,  
baiña lenengo baimena eskatu  
aitari eta amari.

*Las.-*

Aita ta amaren goraberak nik  
dauzkat ederki egiñak,  
orain kunplitu nai nituzke nik  
gorputzaren atsegiñak.  
Ta orrenbeste mereziko du  
nik daukaten krabeliñak,  
ikusi nai det ia zer moduz  
dauden zure kanpaliñak.

*Laz.-*

Nere neskatxa mintzatutzen da  
lotsagabeen moduan,  
onen antzeko makiñatxo bat  
len e baditut goguan.  
Ezkon aurretik badakizute  
zer aparato nai duan,  
zu gizentzeko barometrorik  
ez da sortuko munduan.

*Las.-*

Gorputzez argal egonagatik  
ispirituz nago ni fin,  
ez dakit nola konpondu bear  
dedan mutiltxo onekin.  
Kobarde antza zala izatez  
lenago ere banekin,  
zazpi urtean zirri bat ere  
oraindakian ez dit egin.

Laz.-

Orain aitatu dezuen ori  
etzaizt bein ere aztuko,  
ni bezelaxe beste edozein  
ere ez litzake poztuko.  
Nik ez nizuen ikutuko ta  
zuri etzaizu damuko,  
beti ezurra billatzen baidet  
ikuitzen asi orduko.

Laz.-

Zuk badakizu ezurra ere  
oso premizkoa dana,  
aragi pixka bat ere badet  
gure Jainkoak emana.  
Mutil traste au iñolaz ezin  
da inguratu nigana,  
aparatua edukiko du  
katu zarren batek jana.

Laz.-

Zuk nai dezuen aparatua  
ementxen daukat aldean,  
ezkondu baiño leno asi da  
dokumentuen galdean.  
Egon zaiz lasai gauzak obeki  
elkarganatu artean,  
prueba ori egingo degu  
datorren larunbatean.

Las.-

Neskatxa argizaria da ta  
mutil au berriz marmola,  
onekin nola txertatuko det  
bearrez dagon arbola?  
Lengo batean ikusi nion  
ara begira nengola,  
ematen zuen zintzilik zegon  
erloju baten pendola.

Laz.-

Bein edo beste ez naiz arritzen  
leike zintzilikaturik,  
baiña, neskatxa, etzaitez jarri  
ortan gaizki pentsaturik.  
Baiña aragia jatea nik  
ez daukat debekaturik,  
eta zurekin ez leike egin  
aragizko pekaturik.

Las.-

Ni ez naukazu, adiskidea,  
ortara zuk beartzeko,  
denbora piskat artu dezagun  
goxoago alkartzeko.  
Jateko onek ez du balio  
ta txikia da saltzeko,  
asmo aundirik ez du neskatxak,  
ez, au senartzat artzeko.

## MANTAK EROSTEN

Tolosa, 1982-X-10.

Sebastian Lizaso eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Lizasok lengoan, Tolosan, denda batean, mantak erosten ikusi omen zaitu.

*Seb.-*

Negu partean eguzki gutxi,  
sarritan oi degu laino,  
preparatzeko Lazkao-Txiki  
badauka zenbait enpeiño.  
Lengo batean iritxi ziñan  
mantatara dendaraiño,  
zuk neskazar bat obeko dezu  
mantarik onena baiño.

*Laz.-*

Negu bildurra neuk e artu det  
negua gertuan da ta,  
mutilzar batek neguko otzak  
bakarrik nola aguinta?  
Nere lagunak, ikus zazute  
gure Lizasoren planta:  
au artu zunak ere artu zun  
altxatzen zailla dan manta.

*Seb.-*

Len e esan det emen negua  
nola dagoen gertuko,  
ta mutilzarrak etorkizuna  
nola ote burutuko?  
Elurrak ere berealaxe  
nola digun zurituko,  
bi mantarekin ire ankarik,  
aizak, ez dek berotuko.

*Laz.-*

Gizon txarraren andreami ere  
gauzak gertatzen zaizkio,  
erantzun ori orain dijua  
ori dalako medio.  
Onek andre bat bein artu zuen  
ain formal eta serio,  
oraindik anak otzak dauzka ta  
burua berotzen dio.

*Seb.-*

Mutilzar batek egiten ditu  
emen ezkontuan plantak,  
denbora juanda ibili dituk  
iskanbilla ta zaratak.  
Len e etxera eramane dituk  
iñoiz biaje galantak,  
anak berotuta joaten da  
zertarako dituk mantak?

*Laz.-*

Ezkontutzia gauz ona dala  
nere lagun onek dio,  
bera kontentu xamar da baiña  
andrea illun da serio.  
Jakiña nago: au bigarren du,  
len birekin intentzio;  
obego zuen gaurkuak ere  
denboraz utzi balio.

*Seb.-*

Onek esan du ni nagoela  
lendik andrea artuta,  
oni urteak aurrera eta  
bera dago bakartuta.  
Negua dator, ez zaitetz jarri  
kolpetikan bildurtuta:  
Lazkao-Txiki berotu leike  
poltsa beroan sartuta.

*Laz.-*

Aizu, Lizaso: bolara ontan  
demokrazian gabiltza;  
beti lotura ez al da izaten  
esposatu baten itza?  
Ortan ez dezu arrazoirikan,  
alper-alperrik zabiltza,  
Aranalde're ezkonduko zan(1)  
gauz ona izan balitza.

---

(1) Jose Maria Aranalde, apaiza, gai gartzaillea.

## EIZTARIAREN OKERRA

Segura, 1982-X.24.

Uztapide eta Basarriri omenaldia.

Gaia: Jakin dudanez, Segurako Partzonerietan dauden uso-puestoetakoren bat galanki ordaindu eta artua omen du Manuel Lasartek. Ez dakit egia den. Eta lengo goiz batean, uso zai zegoela, pago artean zerbait ikusi ta tiroa bota du, eta or jotzen du Lazkao-Txiki.

*Las.-*

Ongi kostata usotarako  
txoko bat nuen erosi,  
baiña okerrak gertatzekotan  
ez nuen asko merezi.  
Zerbait bota nai nuen tiroz ta  
emen golpeka naiz asi,  
ta azkenean nere lagun bat  
nik or det tirotan josi.

*Laz.-*

Nere lagunak, begiak ongi  
zabaldutzeko al zaude?  
Aundia egin det erdi argituz  
onuntz etortzea neu're.  
Erbia zala usteko zendun,  
ala izan balitz obe;  
Lazkao-Txiki nola jo dezu  
bate apuntatu gabe?

*Las.-*

Eiztari txarrak orrelakoak  
sarritan egiten ditu,  
ta orrenbeste gertatzeakin  
arren etzaitez arritu.  
Uste gabeen sasi tartean  
mutiko au det eritu,  
baiña badegu mediku on bat  
ta ark sendatuko zaitu.

*Laz.-*

Barkatzen dizut deskuidoakin,  
tiroz jo nazu orduan;  
orrekin ez naiz bate arritzen  
ikusten ez dan lekuan.  
Mediku on bat baldin badezu  
zuk esan dezun moduan,  
bazkari on bat egingo degu  
ongi sendatutakuan.

**BERTSO-LIBURUA IRAKURTZEN**

Segura, 1982-X-24.

Uztapide eta Basarriri omenaldia.

Lazkao-Txiki eta Imanol Lazkano.

Gaia: gaur egun omentzen ditugun bertsolarien bertsoak ikasten ari diran aurtxoeci.

*Laz.-*

Uztapidek ta Basarrik zenbat  
bertso duten idatzia!  
Izanez ere berekin dute  
gauz ortarako grazia.  
Bi ume koxkor oiek letutzen  
nik gaur nago ikusia,  
ori ikusita gaur aldegin dit  
leno nuen tristezia.

*Ima.-*

Aurtxo batentzat liburua da  
biar egungo gidari,  
zoritxarrean bada ordea  
ortan bide oker ugari.  
Baiña, gazteak, zuek ez zerate  
bide okerretik ari,  
neroni ere liburu ortatik  
egin nintzan bertsolari.

*Laz.-*

Ikusten danez, gaztetxo oek  
nunbait nai lenari eutsi:  
irakurritzen bestela nola  
euskal gauzak gaur ikusi?  
Eskerrik asko, gazte maiteok,  
ez dezute egin gutxi;  
al dan geiena zeuk ikasi ta  
laguneri erakutsi.

*Ima.-*

Urte narratsak etorri dira  
Euskal-Erriaren kaltez,  
erdera kutsu ugari dago,  
euskeraren onik batez.  
Aurrera ere segi, gazteok,  
olakoxe borondatez,  
maite zazute liburu ori  
telebizioan partez.



## AIZKORRITIK TXINDOKIRA EGAN

Ordizia, 1982-XI-11.

Lazkao-Txiki eta Patxi Iraola.

Gaia: Aizkorritik Txindokira egan zoazte biok.

*Laz.-*

Gai zelebren bat jarri digute  
ta nik asiera eman,  
gauza berri bat sortu zaigula  
ez al dezute antzeman?  
Aizkorritikan Aralarrera  
juan bear degu egan,  
neretzat ez da gauza gaiztoa  
nola pixu gutxi dedan.

*Ira.-*

Nik ere zerbait esan bear  
onek esanik berriak,  
guk orain artutako asmoak  
dirade paregabiak.  
Aizkorritikan Txindokiraño  
biok gu egan abiak,  
Jesukristok egin al zitun  
oinbesteko mirariak?

*Laz.-*

Geren bizitza guzia degu  
ongi asko penatuta,  
ta orain ere gauz zail bat degu  
lagun onek eskatuta.  
Baiñan biajea nola egin nik  
daukat ongi pentsatuta:  
lengoan emen ibili zuten  
globo aundian sartuta.

*Ira.-*

Nik ere ori beraxe neukan  
modu onetan gogoan:  
beaje ori egin leikela  
askoz modu obegoan.  
Zuk ta nik biok talentu berdin  
xamarra degu egoan,  
egia da bai, baezpada ere  
obeko degu globoan.

*Laz.-*

Beaje oi nola egin bear dan  
aitatuko det itz bian:  
gu juango gera aidean eta  
zuek begira azpian.  
Beste au ere an sartuko da  
globoan gukin batian,  
bizar gorria erreko zaio  
butano ura piztian.

*Ira.-*

Bizarrak ere erre leizke ta  
zuk pentsatzen dezu egiz,  
komeri latzak ikus bearra  
guk izan gentzake berriz.  
Globoa zeñek geio errenditu  
errendi bear dan neurriz,  
danak sutzean juango gera  
emendik eta illargiz.

## ALDE EGINDAKO AITA

Errenteria, 1982-XII-8.

Gaia: Lazkao-Txiki, aita. Murua, semea. Aitak, orain dala ogei ta amar urte, emaztea aurdun utzirik etxetik aldegin zuen. Urte oietan aur ori azi eta sendagille egin da. Aita, berriz, zarzaroan gaitz txar batek jo du, eta il ala biziko operazio batera doa. Sendagillea beraren semea da. Aitak ez du ezagutzen; baiña semeak badaki zein operatzera doan. Kirofanoan alkarritzeta, operazio aurretik.

*Mur.-*

Aita bat daukat ama aurdun utzi ta etxetik joan zana, egia da, bai, txiki bat onik mundu onetan ez dana. Orain gaixotu zaigu erabat eta dator neregana, alprojak ere sendatu bear, au sendagillean lana.

*Laz.-*

Andreangandik aldegin nuen gaizto samarra izanik, mediku onek ala esan du ez dagola txiki onik. Baiñan oinbeste ez zazuela iñoiz bajatu gizonik, orain artean nik ez nekien nere semea ziñanik.

*Mur.-*

Orain artean ez zekiela berak ala du kontatu, ta nere lana alaxe danez nik bearko det sendatu. Ama bat ala utzi ta aldegin, bitarten ez da damutu, semea umezurtz utzi zendula ez al ziñan konturatu?

*Laz.-*

Aldeiterako ere banuen nerekin naiko bildurra, gure andrea ezagutuzten ez zala oso xamurra. Aren seme bat aundi-aundia, illea ere kuxkurra, nik eindakoak ote dituzu gorputza eta muturra?

*Mur.-*

Medikua're gaizki uzten du, ori du bere kasketa; olako arrazoi illuna entzunda neri beztu zait kopeta. Baiña gorputza sentimentuaz aitangana det beteta, nere aitan gisan sendako zaitut amak ala esan dit eta.

*Laz.-*

Aldeiterako traza gaiztoa nik eman nion amari, gure etxean izaten zala bixitazaille ugari. Ala bazera senda nazazu, obra jator bat da ori; Jainkuak ere barkatzen dio gero damutzen danari.

## BORDARI ZANARI

Zestoa, 1983-II-5.

Lopategi, Lazkao-Txiki, Gorrotxategi eta Sebastian Lizaso.

Gaia: atzo Fernando Artola *Bordari* eortzi zuten.

*Lop.-*

Euskera oso maitea zuen,  
bazerabillen arreta;  
gozatu zuen euskal giroa,  
sufritu etsaien treta.  
Agurtu zagun gure Bordari  
errespetuak gordeta,  
bertsolarien lagun aundia  
eta euskaldun poeta.

*Laz.-*

Euskal-Errian gain-gaiñekoa  
izan genduen Bordari,  
abertzaletan lenengoa ta  
bestetikan olerkari.  
Izkribiturik utzi ziguen  
ortxen poesi ugari,  
gure Jainkoak bein eman zigun  
Euskal-Erriaren sari.

*Gor.-*

Jaiotakorik nola betiko  
ez dan izaten munduan,  
eraman dunak gorde dezala  
betiko bere onduan.  
Euskal-Erria zun biotzean  
ta olerkiak buruan,  
izar argi bat itzali zaigu  
Euskal-Erriko zeruan.

*Seb.-*

Eriotzak atea jotzean  
aldegiterik ez dago,  
len ere emen pasatu degu  
malkozko amaika trago.  
Nere lagunak triste daude ta  
ni ere alaxe nago,  
bertsolariak atzotik degu  
maitale bat gutxiago.

*Lop.-*

Uste gabean etortzen zaigu  
geure ordu eta txanda,  
gure gaiñetik dagoenari  
guk nola jarri demanda?  
Mundu illun au emen utzirik  
zeru argira juan da,  
atseden on bat izan dezala  
ondo merezi zuan da.

*Laz.-*

Kristau bezela lenengoa zan,  
oso fededun sakona,  
gure Jainkoak eman deiola  
lenagotik zor ziona.  
Abertzalea lenengo eta  
bertso egiten txit ona,  
Euskal-Erria bizi dan arte  
aztuko ez dan gizona.

*Gor.-*

Era ontako gizonak dira  
Euskal-Erriaren ondra,  
euskaltzaleok, abertzaleok  
berari diogu zorra.  
Urteak jua da urteak pasa  
etzaigu aztuko orra,  
lurpera sartu eta kimuak  
emango ditun enborra.

*Seb.-*

Gutxik dakigu olerkariak  
barrenean zer sen duan,  
olerki eta bertsoz jarduna  
beti arrazoi senduan.  
Il zerade ta orain eskerrak  
emen ezin zuzenduan,  
merezi ainbat goraldutzeko  
il egin bear zenduan.

## NESKA BAT DALA MERIO

Zestoa, 1983-II-7.

Lopategi eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Asarre omen zeundeten; baiña Lopategik apaltzera konbidatu zaitu gaur, Joxe Migel.

*Lop.-*

Badakizute Lazkao-Txiki  
nolako laguna dedan,  
sarri askotan elkartzen gera  
plazetan eta tabernan.  
Egun batzuek pasa ondoren  
biok asarre ta teman,  
gaur afaltzera konbidatu dut  
ia pixka bat azten dan.

*Laz.-*

“Ia pixka bat azten ote dan”  
nere lagun onek dio,  
beti asarre bizitzeak e  
eztu askorik balio.  
Amabost egun pasa ditugu  
ain goibel eta serio,  
beste gauzarik ez degu izan:  
neska bat dala merio.

*Lop.-*

Izaten dira gertaera auek  
bizimoduko pausuan,  
maitetasuna onek eta nik  
biok daukagu usuan.  
Baiña sarritan txikia izanda  
jartzen zaigu abusuan,  
nik maite nuen rubiatxo bat  
berak eraman nai zuan.

*Laz.-*

Nik ere noizbait dibertitzea  
arrazoia nuke beintzat,  
txiki xamarra nola naizen ni  
ez niñuen artzen aintzat.  
Biontzako bat naikoa dala  
orain iruditutzen zat:  
gerritik gora zuretzako ta  
andikan bera neuretzat.

*Lop.-*

Be alderuntza atakatuta  
jarriko luke gainezka,  
egiten duen eskintza orrek  
ni're jarri nau parrezka.  
Banuen, bai, nik partitze ortan  
naiko ardura ta kezka,  
ik apaldu zak pulamentuan  
ta neretzat utzi neska.

*Laz.-*

Zenbait pertsona arpegitikan  
txit gogorra izaten da;  
gero diote: estudia  
ona izaten omen da.  
Au atera zaigu mutilla, au,  
frailetatikan ertenda!  
Bekoa beintzat utzi neuretzat  
gora enaiz irixten da.

## ALEMANITIK EKARRITAKO ROBOTA

Usurbil, 1983-VII-5.

Gaia: Gorrotxategik, berak esaten duen guztia egiten duen *robot* txiki bat etxeratu du. *Robot* ori Lazkao-Txiki da.

Gor.-

Aurrerapen abantailla da  
orain esango detana,  
Alemanira joan nintzan da  
ekarri nun neregana.  
*Robota* dauka izena eta  
tekla batzutan du plana,  
nik oiek zapalduko ditut ta,  
*robot*, egin zazu lana.

Laz.-

Botoi batzuek zapaldu eta  
onek jartzen du ordena,  
reklamazio gabe ni nago  
bere morroirik onena.  
“Ori egin zazu! Ura egizu!”  
obeditzen diot dena,  
tontoan mende egon bearrak  
orrek ematen dit pena.

Laz.-

Nai dezuena agindu zazu  
neri ez baidit inporta,  
gizonezkoak egin da ola  
zuen mendean nago ta.  
Gaur gizonetan ere badago  
makiñatxo bat bobo ta,  
nik pentsatzen det azkarragoa  
izango dala *robota*.

Gor.-

Egun batean Alemanira  
nik egin nuan bisita,  
olakorikan zanik ez nekin  
nik toki ontan bizita.  
Orain kezkatzen asia nago  
ni *robot* au ikusita,  
tekla bat bakarrik daduka ta  
aberiatzen asita.

Gor.-

Estranjeritik ekarri nuen  
makinatxo dotoria,  
bereizten ditu lan mota eta  
bereizten du koloria.  
Beltza esan da beltza egin du,  
txuria esan da txuria,  
orra noraiño iritxi zaigun  
gizonen jakinduria.

Laz.-

Len esan dizut, txintxo betetzen  
det nik beti zure esana;  
zuk ekarrita zure morroia  
ain naiz txintxoa izana.  
Zuk esandako tekla orrekin  
nik egingo nuke lana,  
proba egiteko eraman nazu  
zeure emazteangana.

Gor.-

*Robota* dala eta nundikan  
onek ainbeste malezi?  
Alemanian sexu-gaietan  
ere au zuten, ba, ezi.  
Orain olako aparatirik  
nik ez det iñun ikusi,  
txatarretara saldu bearko  
bere tekla eta guzi.

Laz.-

Pasatzen degu iñoiz alkargan  
makiñatxo bat txolarte,  
zuk egindako agindu oiek  
asperturikan naukate.  
Oraindik badet sano ta ondo  
zuk dezun ainbeste parte,  
txatarretara ez nazu bota  
andreak ikusi arte.

## APAIZ EGIN?

Zubieta, 1983-VII-25.

Gaia: Lasarte obispoa da. Ez du gerri alde aundirik, baiña obispo jartzen degu. Ta Lazkao-Txikiri karta egiten dio; apaizak bakantzen ari dirala ta olako mutilxar fina ta argia artuko lukela pozik apaizetarako. Peñagarikano bertsolari lagun bat da, ta ikusiko degu zer kontseju ematen dion.

*Las.-*

Lazkao-Txiki biotzekoa,  
gaur bidali dizut karta;  
ta uste gabe alkarrizketan  
emen biok zirti-zarta.  
Apaizak oso urri dauzkagu,  
sentitzen det oien falta;  
zu mutilzarra zera, ortarako  
zaitugu polit ta aparta.

*Laz.-*

Jakiñik nago Eleiza dala  
orain apaizen premizko,  
ni juaten banaiz egin liteke  
fededun edo egizko.  
Mutilzarraren kontu txar ori  
etzazu esan berrizko,  
galdetzen dizut: zu ezkondata  
egin al ziñan obispo?

*Peñ.-*

Ondo badakit mundura nola  
ez nitzan sortu betiko,  
erabaki bat artu bear det  
emen bein betiko, kito!  
Apaiz santuan izenen dabil  
emen ainbeste ijito,  
zu egin zaitte apaiza eta  
ni egingo naiz akolito.

*Las.-*

Obispo zarra alderdi ontan  
bada naiko bildurrian,  
pena gogorrek sortuko dira  
nere biotz xamurrian.  
Akolito bat berria ere  
emen jarri zait urrian,  
lotsagabe au nola asi da  
obispo baten aurrian?

*Laz.-*

Jakiñik nago bokazioak  
aspaldi joanak dirala,  
eta badakit apaiz berria  
orain asko bear dala.  
Ni egiten banaiz izango nauzu  
txintxo eta formala,  
baiña juan baiño len jakin nai det  
zer dan apaizen jornala.

*Peñ.-*

Beraz, Lasarte au omen degu  
obispo edo apaiza,  
eta sermoian ematen dezu  
izugarritzko paliza.  
Eta baezpada ardo goxokin  
puntaño bete kaliza,  
berriz e jende gutxi juango da  
zure erriko eliza.



*Las.-*

Lazkao-Txiki bildu nai det nik  
ez dabil aldrebes eta,  
onek erri bat jarriko luke  
txistez poliki aseta.  
Bere jornala izango luke  
illeko ogei pezeta,  
onentzat ori aski da, ez da  
bera metro bat luze ta.

*Laz.-*

Obispo onek ikusten danez  
beretzat nai du guztia,  
Jaungoikoaren ministro da ta  
ori da gauza tristia.  
Ori entzunda gauza zailla da  
Jainkuakin sinistia,  
nik amar milla duro beaitut  
eta neskame gaztia.

*Peñ.-*

Obispo eta mutilzar aiña  
badakit nere tontuan,  
nundikan abituko zeraten  
jarri zazute kontuan.  
Lazkao-Txiki sartu daiteke  
iñoiz praile konbentuan,  
pekatu geio ez badu egiten  
seigarren mandamentuan.

**BON VINO, BONA MESA, BONA HEMBRA**

Billabona, 1983-VII-29.

Lopategi eta Lazkao-Txiki.

Gaia: bada gaztelani zaarrean esaera bat. *Arcipreste de Hita* dalakoak idatzia: gizonak ondo eta luzaro biziko bada munduan, iru gauza auek bear ditu: *bon vino, bona mesa et bona hembra placentera*. Euskeraz: ardo ona, mai ona eta emakume atsegiña.

Lop.-

Artzipreste zar batek  
bidalia da ta,  
ez al du orrek batu  
amaika zarata?  
Lazkao-Txiki emen da  
mutilzar aparta,  
*bon vino* badu baiña  
*bona hembra* falta.

Laz.-

Lopategi, ez zaitez  
berriketan ari,  
frailearen esana  
gustatu zait neri.  
Tartean botatze'ituzte  
egi bat edo bi,  
neretzat ondo dator  
mandamentu ori.

Lop.-

Nunbait jaun aundi ori  
ibili zan bero,  
eta inguru dena  
jarri zuen ero.  
Praile izateakin  
ez ezer espero,  
artzipreste egin zaite  
bein asi ezkeru.

Laz.-

Artzipreste zar orrek  
esan zuen egiz,  
eta oraindik ere  
gertatzen da berriz.  
Au're fraile egingo  
zan amar bat aldiz,  
len entzun degun ori  
egia izan balitz.

Lop.-

Gezurra zan ori ta  
ortik det demanda,  
andik irten da gero  
billaturik txanda,  
Zubeltzun nola gauden  
afari ona janda,  
*hembra* izango al da  
plazara joanda!

Laz.-

Au Tolosan frailetan  
len egona dago,  
ez jakiñik leizke gaur  
bat baiño geiago.  
*Hembra* bat aindu bazuten  
bere etxerako,  
sakramentinotatik  
ez zan aterako.

## AITON-AMONIK GAZTEENAK

Billabona, 1983-VII-29.

Lopategi eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Españian jokatu da txapelketa bat, ea nortzuk diran aiton-amonik gazteenak, eta Extremadurako bikote batek irabazi du. Ogei ta amalau urte dituzte.

*Lop.-*

Kasu xeblebre asko baidatoz  
aspaldion Españira,  
arrigarria ez al genuen  
txapelketa orren jira?  
Ikaratua nago aitona  
gaztetxo oiei begira,  
Lazkao-Txiki baiño urjentzi  
geiagoz ibili dira.

*Laz.-*

Extremadurak omen dauka ai-  
ton-amon gazten txapela,  
zenbait konkurtso gaizki egiñak  
izaten dira orrela.  
Pentsa zazute gauz orren berri  
bein jakin ez litekela,  
geiago ere egongo dira  
etxean ez dakitela.

*Lop.-*

Egindakoa jakin oi degu  
beranduan edo garaiz,  
bikote ori azaltzen zaigu  
beren sari eder alaiz.  
Ni Txikiakin arduratua  
ikusten nauzute gaur maiz,  
aita izatera eldu baiño len  
ni aitona egingo naiz.

*Laz.-*

Pozgarria da Lopategi onen  
umore ona ta gaita,  
praile zegola zenbatsu neska  
biotzez ote zun maita?  
Au're aitona bi urte edo  
iruan egiña baita,  
konbentutikan ertetzerako  
egiña baizegon aita.

*Lop.-*

Sotanapean azaltzen nuen  
kalekoak ainbeste su,  
denbora dena ez nuen pasa  
meza, sermoi ta errezu.  
Eta oraindik txori bezela  
txiki ta lirain zaude zu,  
aitona baten edadeakin  
illoba ematen dezu.

*Laz.-*

Alde ortatik nik badadukat  
zenbaitek ez ain zorion,  
aitona bear eta ikusi  
oraindik zein gazte nagon.  
Baiña Lopategi konbentuan e  
apenas zan geldi egon,  
baiña estuasuna zunean  
sotanai ortz eransten zion.

**EMAKUME ALARGUNAK**

Billabona, 1983-VII-29.

Lazkao-Txiki eta Peñagarikano.

Gaia: Gipuzkoan ba omen dira larogei milla emakume alargun.

*Laz.-*

Zoritzarreko bizitza onek  
badu ainbat estuasun,  
ikusit degu gai emaleak  
oraintxe zer esan digun.  
Nola liteke Gipuzko ontan  
oinbeste milla alargun?  
Gaixoak bakar-bakarrik daude  
ez senar eta ez lagun.

*Peñ.-*

Amaren bidez mundu ontara  
bein batean sortu nintzen,  
ori entzunda nere biotza  
ia-ia asi da mintzen.  
Senarrik gabe ez da erreza  
munduan ondo bizitzen,  
gajoak zenbat sufritzen duten  
beren semeak azitzen!

*Laz.-*

Laguna joanda gero bakarrik  
ez da gauza atsegiña,  
ikusitzean bere gizona  
mundutikan aldegiña.  
Baiñan uste det kendu leikela  
emakume oien miña,  
soltero edo mutilzarrak gu  
arrimatuko bagiña.

*Peñ.-*

Saiatu arren inolakoan  
oraindik ez da erori,  
onek eskutan ez dauzka baiñan  
aidean ainbeste txori.  
Beren denboran onek ez dio  
pasarik eman iñori,  
alarguntzea baiñan askozaz  
tristeagoa dek ori.

*Laz.-*

Peñak kontatu ditun kontuak  
danak egiak ez dira,  
orretarako esperientzia  
ik bear uke sikira.  
Amaika aldiz egon izan naiz  
alargun oiei begira,  
pare batena egingo nuke  
berak konforme balira.

*Peñ.-*

Oni burura etorri zaizka  
une ontan alargunak,  
Lazkao-Txikiri ez zaizka ikusten  
eskuetan eraztunak.  
Pulamentu gabekoak dira  
txistoso eta iztunak,  
zartu ta gero egingo al du  
gaztetan egin ez dunak?

*Laz.-*

Ez zazutela aintzakoz artu  
Peñaren gaurko esana,  
gaur zoratuta banago ere  
leno sanua izana.  
Au beti txoro izango dala  
ala nago antzema,  
zartzean ez da mejoratuko  
gaztetatik txoro dana.

*Peñ.-*

Aizu, mesedez, nei ez idazu  
olako tirorik tira,  
konturatuko bagiña zer dan  
utsa litzake sikira.  
Ta alargunak ez bitez jarri  
Lazkao-Txikiri begira,  
au bezelako gizonengandik  
akurik sortuko dira.

## BILBOKO FERIAN

Azpeitia, 1983-XI-12.

Txapel zanaren omenez.

Lazkao-Txiki eta Sebastian Lizaso.

Gaia: Lazkao-Txiki baserritarren azafatatzan ibili da Bilboko *Itxas-lur* ferian. Bere taldeko baserritar bat, Sebastian Lizaso, galdu egin zaio. Bi ordu billa ibili ondoren, topatu dek azkenean ere.

*Laz.-*

Baserritar au Bilbora eramán  
damu ederra badet nik,  
bandoa ere jo bearrean  
gertatu gera azkenik.  
Inñun e etzan azaldutzen au  
orren aundia izanik,  
egun ta erdi pasatu ditut  
gizon au billatu eziñik.

*Seb.-*

Mutilzar txiki au jarri zuten  
beste danen azafata,  
Bilbora joanda gertatu zaigu  
guri kaso bat aparta.  
Lenen batera giñaden baiño  
gero gidaria palta,  
Cortes kalera eramán niñun  
feria an zegola ta.

*Laz.-*

Berari pasa zitzaion ori  
pentsatu dala jakiña,  
gauza orretan kankaillu au da  
galdua ta utsegiña.  
Antxe izango zala ta billa  
egin genun alegiña,  
Cortesko berri nik enekien  
zu ara juan ez baziña.

*Seb.-*

Azafata biziosoa da,  
ori gure kalterako;  
aurretik ere bildur nintzaden  
zer ote zan aterako.  
Aurtengoakin eskarmentua  
daukat beste baterako,  
zintzarriakin jarriko degu  
au datorren urterako.

*Laz.-*

Beraren baitan pasatzen dana  
neregaitik esaten du;  
norberarena besteri bota,  
orrek gaizki ematen du.  
Zu baiño asto aundiagorik  
ezin liteke zuzendu,  
baldin aurrean daukazun ori  
atzean baldin bazendu.

*Seb.-*

Beraz astoaz neri beitura  
egiten dezu itxusi,  
aurrean dutana atzean neri  
nai digu jarri arazi.  
Taldean giñan taberna baten,  
gero juan zan igesi;  
jende asko ta argi gutxi zan,  
argatik ez nun ikusi.

*Laz.-*

Gizon onekin aruntz joan bear  
orrekin izan nun pena,  
nere aitzaki bateagaitik  
bera eztegu onena.  
Eman genduen zortziretako  
alkartutzeko ordena,  
bista ona ta ikusi nai ez  
itxutasunik txarrena.

*Seb.-*

Bein bear eta Txikiak ditu  
ate ainbat maratilla,  
denok batera juanagatik  
ezin giñan korapilla.  
Guri begira bolara baten  
parrez zegon jende-pilla,  
esaten zuten: "Or zijoaztik  
basua eta botilla".

*Laz.-*

Ezin billatu eta Cortesen  
billatu nun azkenean,  
bere antzeko neska aundi bat  
bazuen aldamenean.  
Ikusten zanez moteldua zan  
len nekatua lanean,  
soka batekin lotuko degu  
urrena dijoanean.

*Seb.-*

Edozer gauza esaten digu  
oi orrelako jentuzak,  
bañan egiak eztira izan  
azafata onen gauzak.  
Au billatzea pentsatzen zuen  
jolasgure edo susak,  
onek ixkuak baztertu eta  
maitatzen ditu urruxak.

## NORK BOTA DU?

Azpeitia, 1983-XI-12.

Txapel zanaren omenez.

Larrañaga, Lazkao-Txiki eta Imanol Lazkano.

Gaia: iru lagun dauden tokian zail da jakiten puzkarra nork bota duen.

*Lar.-*

Erabakiko al degu  
gauza beriala?  
Esan bearra dago  
nola edo ala.  
Jaten duanarentzat  
ain da gauz normala,  
eskerrak aize otza  
gertu dagoala.

*Laz.-*

Ez dakit nolatan dun  
gauza ori esan,  
berarentzat errurik  
geio izan ez dezan.  
Irurok zertarako  
gu aritu teman?  
Iriondok bota du ta  
guri kulpa eman.

*Ima.-*

Festara etorri ta  
au da komeria,  
kiratsak atzeraka  
bota niñun ia.  
Nik oso edukatua  
daukat ipurdia,  
gizon txiki auek baiña  
usaia aundia.

*Lar.-*

Zeñek bota dun tankera  
gaude gu emanda,  
Lazkao-Txikik esana  
egia izan da.  
Orain orrentzat dago  
bertsuaren txanda,  
nunbait etorriko zan  
babarrunak janda.

*Laz.-*

Praille izana leno  
ta gizon lasaia,  
Iriondok badu guri  
kulpa eman naia.  
Baiñan auzia emango  
diot noranaia,  
puzkar orrek bazuen  
intzentsu-usaia.

*Ima.-*

Gorputzak eduki arren  
txiki edo erkin,  
jaunak, ez dago giro  
oillasko auekin.  
Naiko pentsamentua  
badaukat nerekin,  
urrena jarriko ditut  
paketearekin.



*Lar.-*

Gure jarduna dago  
emen berdintsua:  
begiak zabalikan,  
sudurrez itxua.  
Iriondok onerako  
ai zer kapretxua!  
Urrengo zatozenean  
ekarri kortxua.

*Laz.-*

Kulpa gabeak kulpadun  
makiña bat aldiz,  
lengo izan zan eta  
izango da berriz.  
Iñortxo ez geunden gu  
auzi onen premiz,  
puzkarra baldin garbi  
ikusiko balitz.

*Ima.-*

Festara etorrira  
au bizimodua!  
Nor dan asmatu eziñik  
kezketan burua.  
Eskerrak oraingotik  
degu guk negua,  
aurrea otza baña  
atzea berua.

**LEGE ZELEBREA**

Markina, 1983-XII-18.

Gaia: Munduan badira lege zelebreak. Ara zer gertatzen dan Pakistanen: an, andreak senarrari adarrak ipintzen badautsoz, amabost azoteko zigorra dau. Azpillaga, ezkondua; Lazkao-Txiki, ezkongabea. Zer deritzozue lege orreri?

*Azp.-*

Pakistaneko kontua zer dan  
kontatzeko alegiña,  
kastigu bat da andrearentzat  
izan leikenik aundiña.  
Arra ta emeak pekatu ori  
dabe alkarrekin egiña,  
andra-gizonak bear leukie  
biak kastigu bardiña.

*Laz.-*

Berdiña bear dala zigorra  
esanda ez zazu laga,  
ori kanpoan dabillen arte  
besterezako ona da.  
Ta gizonetan kastigu ori  
baldin ipiñitzen bada,  
ain galantak artu bearrean  
dago gure Azpillaga.

*Azp.-*

Lazkao-Txiki, ori dala ta  
neri zer esaten diak?  
Igoal txarto pentsa liteke  
emen dagoen jendiak.  
Amabost golpe jendearentzat  
dira kastigu aundiak,  
gizon tontoa etxean bada  
zer egingo dau andriak?

*Laz.-*

Errexak dira, zu, Azpillaga,  
azken bertsoko esanak,  
zuk ere noizbait kanpo aldean  
ein dituzu olako lanak.  
Nik garbi ez dakit baiña gauz bera  
aitortutzen dute danak:  
etxian ez du lanik egiten  
kanpoan nekatzen danak.

*Azp.-*

Adar kontuak beregaz dauka  
aurea eta atzia,  
da Pakistandik Euskal-Errira  
dator esperientzia.  
Ez dago ondo emakume bat  
golpetan kastigatzia,  
ez al da obe kremallera bat  
kandauarekin jartzia?

*Laz.-*

Kremallerakin jar lezaieke  
or kastigu bat geiago,  
obeago da libre uztia,  
ni eritzi ortan nago.  
Andrea ola azotatzeko  
eskubiderik ez dago,  
gaixoak zer egin bear du orduan  
goseak baldin badago?

## PENTSIÑO BARDIÑA

Markina, 1983-XII-18.

Lopategi eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Españiako tribunal nagusiak au esan dau: oindik aurrera senarrak be, alargun gelditzean, andrearen pentsiñoa kobratzeko eskubide bardiña duela.

*Lop.-*

Arrisku ortan gabiltzenontzat ez dira berri eskasak: aitonak ere alarguntzean merezi ditun arnasak. Lazkao-Txiki ezkontzeko ta ondo preparatu gauzak, pentsio ori kobratutzeko larozeiko bat artu zak.

*Laz.-*

Lopategi onek Lazkao-Txiki ipiñi du bildurtuta, aspalditxoan nola zegoen ezkonduzea aztuta. Larogei urte ditun andrea nola dagoen zartuta, zer fameli izan bear det nik urte oiekin artuta?

*Lop.-*

Bein onezkero galdua dezu gaztearoko indarra, gazte batekin pentsatze orrek sortuko bailuke parra. Mutilzar bati tokatzen zaio laguntzako neskazarra, bein onezkero pentsio bat da zuretzat frutu bakarra.

*Laz.-*

Zuk, Lopategi, entzungo dezu lengo bertsuen ordaiña, zarra nagola ta zar bat artu esan dezu alajaiña. Oraindik ere ez naiz orren zar naiz ta ez izan bikaiña, andre gazte bat naiago det nik pentsio guztiak baiña.

*Lop.-*

Urtetan gora zoaz ta alare badaukazu osasuna, ez dakit nola izango dezun geroko etorkizuna. Andretzat artu bear zenduke Patxikoren alarguna, uraxe dezu pentsio onena utziko dizun laguna.

*Laz.-*

Patxi zarraren alargun ura or naiko lanakin dabil, Lopategiren maltzurkeriaz beraz ni ez nago trankil. Pasako dala pentsatzen nago ainbeste eriotz ixil, ta pentsio bat kobratzearren andrerik ez zazute il.

**ZORTZIREUN MILLA LANPOSTU BERRI**

Billabona, 1983-XII-29.

Peñagarikano eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Laister jarri bear omen ditu Gobernuak zortzireun milla lanpostu berri.

*Peñ.-*

Jaietan atsedena artzen det,  
berriz ekin astelenez,  
nere ogia irabazten det  
beti izerdi ta lanez.  
Zortzireun milla ba omen dira  
Felipek esan zuenez,  
politikoen dotriña au da:  
agindu eta eman ez.

*Laz.-*

Makiñatxo bat gauza esan zun  
gure Felipe prestuak,  
orain berotzen asiak daude  
lengo notizi preskuak.  
Balentzi ortan ez omen dira  
esan zitunak aztuak,  
an ipiñi omen zizkiguen  
lenbiziko lanpostuak.

*Peñ.-*

Badakit nik zer dan ardi beltza,  
baita ere aren artzai;  
Españaiko etorkizuna  
utzi genduen orren gai.  
Baiñan ikusten da gizon orrek  
gurekin dadukala jai:  
zortzireun milla lortu ez baiñan  
beste ainbeste galdu bai.

*Laz.-*

Botazioen aurrean zenbat  
kontu ote zan aditu?  
Jendeak negar egingo luke  
esango baldin banitu.  
Baiñan Felipek postuak jartzen  
badauka naiko meritu,  
jarri dituen postu geienak  
Sagunton ipiñi dit'u.

*Peñ.-*

Gaur egunean emen gabiltza  
txakur-katuen tankeran,  
lana galdu eta billatzea  
ez da izaten aukeran.  
Krisisa otsa bada *Sacem*-en  
ta *Oria* papeleran,  
ea Felipekan kanbio onekin  
danok aberasten geran!

*Laz.-*

Agindu zuen eta eman ez,  
gero garbitu eskuak;  
len ere agintzen geiegi egon  
dira orren antzekuak.  
Mesede ederra izan degu guk  
Bizkaia ta Gipuzkuak:  
guardiazibil ta polizietan  
jarri ditu lanpostuak.

## KONTSEJU ESKE

Bermeo, 1984-I-7.

Gaia: Lazkao-Txiki, ezkondu naiean-edo, Azpillaga lagun ezkonduari doakio kontseju eske.

*Laz.-*

Orain bitarten mutilzar nengon  
beste asko dauden legez,  
gaur egunean ezkontzen ere  
ez dalako oso errez.  
Azpillaga det nere laguna  
ta jakin nai nuke aurrez,  
ea ezkontza ona dan edo  
merezi duen edo ez.

*Azp.-*

Belarri ondora esango dautzut  
gerturik edo urretik:  
emakumea bai al dakizu  
tratutzen gauz samurretik?  
Baiña ikusi bear zelakua  
dagoan bera txarretik,  
bada ez bada probau egizu  
ezkondu baiño aurretik.

*Laz.-*

Baiña, Azpillaga, ni etorri naiz  
oi ona al dan galdezka,  
ezkondu aurretik nedukalako  
ainbat bildur edo kezka.  
Zuk esan dezu: "Ezkondu baiño len  
obe dezu egin festa".  
Bein nolako dan jakin ezkeru  
ezkondu bearrik ezta.

*Azp.-*

Ezkonduzuean zer gertatzen dan  
jakin nai du onezkero,  
seguru asko agirian be  
izaten da egunero.  
Mutilzartuta jakin nai dozu,  
ezkontzeko zagoz bero,  
bi ere artu leizkizuz baiña  
andra onak izan ezkeru.

*Laz.-*

Zure andrea andre ederra  
edo polita da egiz,  
gorputz ederra daduka eta  
Ama Birjiña arpegiz.  
Eta zu beti kanpoan zabiltz,  
etxean ez zaude aldiz,  
gaixo arek askoz obeago zun  
neskazar gelditu balitz.

*Azp.-*

Disimuluan berak esan dau  
zein daben ain biotzeko,  
nire etxeko barriak emen  
al daukazuz kontatzeko?  
Lazkao-Txiki prest ete dago  
neure andrea artzeko?  
Baiña pena da: nire andrea  
ez dago zuri saltzeko.

*Laz.-*

Neutzat ez dala zure andrea  
 egin du desafiua,  
 baiña andreak izan lezake  
 txiki baten desiua.  
 Inoiz aundiak izaten badu  
 goruntza ezin iua,  
 gaur txikar batek egin lezake  
 aundian serbiziua.

*Azp.-*

Balientia ez dago bera,  
 entzun da zer esan duan;  
 abildadea jua jakoa eta  
 dabil sasoi beranduan.  
 Lazkao-Txiki sartu balitza  
 nire andrian onduan,  
 titi artean ibili bear  
 arkakosuen moduan.

*Laz.-*

Lazkao-Txiki txikia baiña  
 oraindik sasoi onean,  
 makina ere ondo egoten da  
 gastatutuz ez danean.  
 Arkakosua naizela ere  
 esan dit or azkenean,  
 arkakosuak ibiltzen dira  
 tokirik ederrenean.

*Azp.-*

Batak bestea ezautzen dogu,  
 badogu konfiantzia,  
 makina bere zartzen asi ta  
 orrek dabilen trantzia!  
 Mutil gaztea dala pentsatzen  
 etorri jakoa zartzia,  
 Lazkao-Txiki, obeko dozu  
 orain ez ezkonduzia.

## GITARRA BIZKARREAN

Legorreta, 1984-I-28.

Gaia: Lazkao-Txiki, aita. Peñagarikano, semea. Aitak semea bidali zuen Tolosako ferira sega eta aitzur baten bila; eta non etortzen zaion gitarra bat bizkarrean artuta.

*Laz.-*

Semea, juan zaitea  
Tolosa aldera,  
peria nola degun  
zerbait eroatera.  
Noiznai ez da izaten  
olako aukera,  
ta erosi itzazu  
aitxurra ta sega.

*Peñ.-*

Geiago're badira,  
ni ez naiz bakarra,  
aita oni sartu diot  
nik ziri edarra.  
Umorerako badet  
gatza ta piparra,  
argatik erosi det  
olako gitarra.

*Laz.-*

Ez zait asko gustatzen  
seme onen planak,  
ez baiditu bete nai  
aitaren esanak.  
Lanan berri ez daki  
errez bizi danak,  
gitarrakin ezin egin  
baserriko lanak.

*Peñ.-*

Ferira joateko  
nik banun eskusa,  
baiñan ez naiz etorri  
ona esku utsa.  
Umorea jartzeko  
ni beti naiz gauza,  
ea nola dantzatz'ezun  
jota andaluza.

*Laz.-*

Gitarra jotzea da  
gazte askon moda,  
gitarra etorririk  
du bere gogora.  
Gitarra bera eta  
ta gitarra gora,  
erreminta orrekin  
oa teatrora.

*Peñ.-*

Alare ez naiz jarriko  
ni buru makurra,  
zer pasa bear zuen  
banuen bildurra.  
Nik gitarra artuko det,  
zuretzat atxurra;  
artu ta joan zaitez  
or beko bitxurra.

*Laz.-*

Komeri geitxo daude  
gaurko egunian,  
aita're amorratua  
ez dago lanian.  
Atxurraren bearra  
badet azkenian,  
zuloa egiteko  
iltzen zeranian.

*Peñ.-*

Gaztearen kontua  
nai dunak sinitsi,  
azken bertsoai ez diot  
ederra iritzi.  
Akordatuko zera  
biar edo etzi,  
zu sudur luzea ta  
errespeto gutxi.



## SULTAN TXIKIA

Zestoa, 1984-II-11.

Lazkao-Txiki eta Sebastian Lizaso.

Gaia: 2006 urtean gaude, eta arabeak Zestoako baiñu etxearen jabe dira. Orrela izanik, emen dator Lazkao-Txiki, Arabiako sultan txikia, eun da amazazpi emamukezkoekin.

*Laz.-*

Eskerrik asko Lazkao-Txiki denetako dala trebe: umorez eta indarrez sendo, eta beretzako obe.

Une onetan arabe naiz ta eun da amazazpi andre, ta txarrena da gero oiera juandakoan bate gabe.

*Seb.-*

Zuk biajea prestatu zendun Arabitik onerako, eundaka geio andre dituzu, denak zure kalterako. Neri entzunda gogoan artu, lagun, beste baterako: alperrik zabiltz, azi aundirik ortik ez dek aterako.

*Laz.-*

Baiñu etxea erositzeko ni etorri naiz onera, an petroleo asko dago ta arrunt aberastu gera. Alde galanta badago emen gizon batetik bestera, ainbeste andre artzen baituzu zu're txikituko zera.

*Seb.-*

Andre guztiak serbitutzeko ez du bear ainbat asti, onek geienak alperrik ditu, irtengo zaio garesti. Gure uretan egin nai dezu, Lazkao-Txikia, busti, jakin nai nuke etorri al zeran flotadore eta guzti.

*Laz.-*

Arabe txiki au txiki aundi da sinista zazu nolanai, eun da amazazpi andre baditut, beste larogei andregai. Zu aundigua izanagatik ortikan dadukazu jai, guk petroleo asko daukagu, beste ortatik ere bai.

*Seb.-*

Jeke txikia, kopetarikan neri ez zaidazu beztu, nere ustetan egiña zaude burutikan aldrebestu. Ainbat andre ta andregairekin bere burua babestu, emakume asko onduan da semerik batere eztu.



Sebillan, 1982 urtean, Apirilko ferietan.



## SEBILLAN BOST EGUN

Legazpi, 1984-V-4.

Gaia: Lazkao-Txikik Sebillan igaro ditu bost egun. Nola ibili ote da?

*Azp.-*

Lazkao-Txiki jira batean  
izan zaigu lengo baten,  
ez da erreza bost eguneko  
gauzak bertsoan esaten.  
Neska ederrak ikusi ditu  
ta ardo goxoak edaten,  
konta zaiguzu Sebillan aldetik  
nola ibili zeraten.

*Laz.-*

Nik uste nuen nere berririk  
emen inork ez zekilla,  
mundu guzira zabaldu berriz  
nere biaje ixilla.  
Barrungo kezkek ziradelako  
bisitatu det Sebillan,  
beste lan gabe juanda izan naiz,  
lagun, eme baten billa.

*Azp.-*

Apirilleko feria zer dan  
aspaldi jakin genduan,  
esaten dute ederragorik  
ez dala izaten munduan.  
Andaluzira joan ezker  
zu joan zeran moduan,  
gutxienezko andre koxkor bat  
ekarri bear zenduan.

*Laz.-*

Asmo orixe eraman nuen  
zuk esan dezun moduan,  
Sebillan dagon feri artara  
baita pozik asko juan.  
Neska itxura zuen bat antxe  
erdi konkistatu nuan,  
gero gizona fortunatu zait  
ni neskatxa zalakuan.

*Azp.-*

Sebillaraiño joan zera ta  
orra artu dezun miña,  
an ere nunbait zuk nai zenduen  
jotzea zeuk tanboliña.  
Seguru asko penetan zaude  
biaje ori egiña,  
gisa ortara ibiltzekotan  
obe joan ez baziña.

*Laz.-*

Festak ederki pasatu ditut,  
ez det penarik batere;  
sinista zazu: alderdi artan  
toki ederrak badaude.  
Juan zaitez ara neskatxan billa  
len izan gabe bazaude,  
baiña tratorik ez zazu egin  
ondo rebisatu gabe.

**PLATER GARBIKETA**

Legazpi, 1984-V-4.

Lopategi eta Lazkao-Txiki.

Gaia: euneko batek bakarrik, bazkaldu edo apaldu ondoren, egiten omen du plater garbiketa lana.

*Lop.-*

Kontu ori entzuten  
nabil egunero,  
baiña buruz oraindik  
ez naiz orren ero.  
Platerak garbitzerik  
ez det nik espero,  
andreak beste lanik  
ez duen ezkeru.

*Laz.-*

Batere ez zait gustatu  
azkar esatera,  
pekatuan dagola  
kontuak atera.  
Eunetik batek garbi-  
tzen badu platera,  
oietako bat Lopa-  
tegi ez ote da?

*Lop.-*

Dudan jarri du baiña  
gezurra da dena,  
neri ere andreak  
jotzen dit ordena.  
Platerak garbitzea  
ez da gizonena,  
baizik mutilzar auei  
tokatzen zaiena.

*Laz.-*

Ezkonduen artean  
dago ori modan,  
pentsatu Lopategi  
nola egongo dan.  
Lan ori ez det nik egin  
aspalditxo ontan,  
garbitutzen det baiña  
bazkari denboran.

*Lop.-*

Bazkariakin ere  
ainbeste arazu,  
gero plater zikiñak  
milla enbarazu.  
Destino triste ori  
zurekin daukazu,  
lan oiek uztekotan  
andrea ar zazu.

*Laz.-*

I andrea artzeko  
egon intzan pozak,  
orain pasatzen dituk  
sukaldeko lotsak.  
Burua berotzen dik  
eta anakak otzak,  
solteroko garaiak  
gogoratuko zak.

## BALOIA GALTZARBETIK

Lasarte, 1984-VI-29.

Gaia: gauean esnatu nintzan bi aldiz, eta bietan gauza bera etorri zitzaidan burura: Arkonadari sartu zioten gola. Arkonada, Jon Lopategi izango da; ta galtzarbetik igesi egiten duen baloi txuri-beltza, Lazkao-Txiki.

*Lop.-*

Beso sendoak ditut,  
badet naiko ezi,  
baiña txikia da ta  
ainbeste malezi.  
Zergatik joan ziñan  
nigandik igesi?  
Desprezio ori nik  
ez nuen merezi.

*Laz.-*

Lopategi beltza da,  
au jakin lenbizi;  
zer pasatu zitzaion  
nai det adierazi:  
itzalakin baloia  
tapatu zun kasi,  
beraren illunakin  
ez zuen ikusi.

*Lop.-*

Zuk badakizu zer zan  
nere interesa,  
biok besarkatzea  
nik nuen ametsa.  
Ez bainuen espero  
olako igesa,  
beltza baiño naiago  
al zendun prantzesa?

*Laz.-*

Frantzesak irabaztea  
nai zenduen egiz,  
nunbait diruarekin  
erosia azpiz.  
Arrapatuko niñuzun  
amazazpi aldiz,  
neska baten titia  
izan baldin banitz.

*Lop.-*

Ola gertatu gera  
sarri gure dantzan,  
titiak orain nola  
ditugun balantzan.  
Utsa eman zenidan  
nere esperantzan,  
biak nai nituen da  
bat iges joan zan.

*Laz.-*

Zebre atera zan  
lengoko jornada,  
baiña txapela orain  
Prantzira joana da.  
Gaizki portatua da  
gure Arkonada,  
nai ditunak arrapatzen  
au ere ona da.

*Lop.-*

Arrapatze orretan  
banuen bearra,  
geroztik gau ta egun  
au nere negarra.  
Frantzi ta Españiak  
neurtzean indarra,  
lotsaz utzi zenuen  
euskaldun bakarra.

*Laz.-*

Arkonada txit ondo  
da fama aldetik,  
baiña ez da gizona  
ondo egoten betik.  
Erne ibili zaitez  
ni nagon tokitik,  
berriz e pasako naiz  
zure besopetik.

## EGURALDI SARGORIA

Lazkao, 1984-VII-11.

Gaia: egun auetako eguraldi sargoria dala bide, Lazkao-Txiki, ezagunik ez ikustearren-  
edo, urrutiko ondartza batera or Biarritz alde orretara joan zaigu; eta, ara iritxi ta bere-  
ala, or ikusten du Zeberio eguzkia artzen, amak mundura ekarrita bezela.

*Zeb.-*

Zelebrea nola degun  
udako bizitza,  
ta neronek egingo det  
lenbiziko itza.  
Eguzkia artzera etorri  
nintzan Biarritza,  
ta, Joxe Migel, zu emen  
gaur zertan zabilta?

*Laz.-*

Erantzuna emango dizut  
garbi eta jator,  
badakizu zenbat mingain  
gaizto daukagun or.  
Baiñatzeko gogo  
nedukan derrigor,  
an lotsatzen nintzan da  
ni're onera nator.

*Zeb.-*

Aundiegia egiten dezu  
zuk an lotsatzera,  
onuntz abiatu zera  
gutxi gora-bera.  
Edade ortan emen  
oi da gaur galdera:  
Lurdesa zoazela ta  
deskuidatu al zera?

*Laz.-*

Lurdesa nijoala  
etxian esanak,  
nola besteak ere  
len diran izanak.  
Baiña zelebreak dira  
emen zure planak,  
nolatan dauzkazu bistan  
dokumentu danak?

*Zeb.-*

Ori esanda ni ez naiz  
gaur jarriko izu,  
emengo danak parrez  
zuk jarri dituzu.  
Dokumentuk bistan eta  
arritu zera zu,  
bestian diferenteak  
zuk ote daukazu?

*Laz.-*

Ez zaude egokia  
nere iritzian,  
danak bistan dituzula  
tximuen antzian.  
Iñoiz ez bazaizu jartzen  
postura obian,  
lan aundirik ez dezu  
gingo etxian.

*Zeb.-*

Oi esanda nik ez det  
egingo negarrik,  
Joxe Migel, ez dezu eingo  
Biarritzen parrik.  
Zeberiori ez dio-  
zu joko adarrik,  
lanak eiteko ez daukat  
nik zure bearrik.

*Laz.-*

Anaia ere buruz  
bera dadukazu,  
eskerrak itxurazkua  
zaudela gaur zu.  
Orrela ikustean  
lotsatutzen nauzu,  
azitako patata oiek  
tapatu itzazu.



## TXIKIAREN BENTAJAK

Usurbil, 1984.

Gaia: Kixki eta Mixki ziran bi anaia bixki. Mattin eta Lazkao-Txiki, bi anai bixki zerate. Konta txikiaren bentajak.

*Mat.-*

Suertea daukagu  
txiki bizitzeko,  
tela gutti ere aski  
degu jantzitzeko.  
Batena naikoa degu  
biak mantentzeko,  
suertia degu hola  
guk aberasteko.

*Laz.-*

Mattin, asko poztu naiz  
ori esatera,  
txikia izatea  
kalteko ote da?  
Inoiz joan bear badegu  
zerbait ostutzera,  
txulo txikinetikan  
pasatutzen gera.

*Mat.-*

Txiki gelditziak ere  
badu bere lana;  
etzen, ez, haundia  
egin gaitun ama.  
Esne gutxi daukagu  
txikitan edana,  
bixkiak ginen eta  
biek titi bana.

*Laz.-*

Geure burua artu  
bear degu aintzat,  
txikiak gera baiña  
zerbait gera beintzat.  
Itxura ona ez izan arren  
guk edozeñentzat,  
ez al degu egiten  
bion artean bat?

*Mat.-*

Bat egiten degula  
lagun honek dio,  
eta txikiarentzat  
badet amodio.  
Hau esan bear det orai  
umil ta serio:  
anka luziak izatia  
ez dula balio.

*Laz.-*

Ankak irixten zaigu  
gerritik lurrera,  
luzena ere geiago  
izango ote da?  
Ta amak zeratenak  
kontuak atera,  
jaiotzekuan ere  
obeguak gera.

## UZTAPIDE LAGUNARI

Zegama, 1984-VIII-25.  
 Uztapideren omenaldia.  
 Gaia: bina bertso Uztapide lagunari.

*Las.-*

Jaun Zerukoa, aurkitutzen naiz  
 argitasunaren premiz,  
 Uztapide au zer gizon degun  
 aitortuko badet egiz.  
 Ez dakit onen parekorikan  
 ikusiko degun berriz,  
 bi klasetara baita aundia:  
 gizonez ta bertsolariz.

*Laz.-*

Nik Uztapide ezagutu nun  
 gaztea nintzala oso,  
 arrezkeroztik entzun diogu  
 makiña bat bertso gozo.  
 Ori zalako gu zenbait gazte  
 giñan kontuan eraso,  
 bildurrik gabe jarriko nuke  
 bertsolarien guraso.

*Las.-*

Bertsotarako Uztapide nun  
 nere gustoko laguna,  
 zure ondoan aspertu gabe  
 joaten zitzaidan eguna.  
 Biotz-biotzez estimatzen det  
 gaur Zegamak egin duna:  
 omenaldi bat eskeiñi dizu  
 ondo merezi zenduna.

*Laz.-*

Danok dakigu erri onetan  
 askotan izan ziñala,  
 ta ezagun da emen zurekin  
 guztiak pozez dirala.  
 Ixildu arren gordetzen dezu  
 maixu aundi baten itzala,  
 gauza guztien jabe dan orrek  
 luzaro gorde zaitzala.

## EGUNKARIKO IRAGARKIA

Zegama, 1984-VIII-25.

Gaia: Lasartek iragarki bat jarri du egunkarian, eta onela dio: "Neskatxa gazte eta diruduna, neure antzeko batekin ezkondu nai nuke". Eta urrengo egunean or dijoakio Lazkao-Txiki ate joka.

*Laz.-*

Orain artean salgai nago ta  
iñola're saltzen ez ta,  
periodiko bat or billatu det  
nik anuntzioz beteta.  
Etxe onetan badagoela  
diru asko duen neska,  
ea nerekin nai zendukean  
oraintxe nator galdezka.

*Las.-*

Anuntzioak ekarria dit  
uste gabeko laguna;  
ni gaztea naiz, zu zera zarra,  
sasoia daukazu juna.  
Beraz zuk ere desio dezu  
neska gazte diruduna,  
or ezagun da Lazkao-Txikik  
berak askorik ez duna.

*Laz.-*

Lendabizitik teman asi zait,  
neska onekin akabo;  
ikusten danez, tratu onikan  
egiterikan eztago.  
Dirua ere nai nuke baiña  
beste gauza bat geiago;  
trato-aseran galdetzen dizut:  
jardiña ondo al dago?

*Las.-*

Jardiña ongi dagola lendik  
esaten asi natzaizu,  
eta zuretzat izango dezu  
ori gustatzen bazaizu.  
Lazkao-Txiki, lendabiziko  
ongi tratatu nazazu,  
danak zuretzat izango dira  
biotzez maite banazu.

*Laz.-*

Ederki dago, neska maitea,  
itzegin didazu txukun;  
beraz gaurtikan aurrera biok  
beagu alkarren lagun.  
Beste gauzaren billa ez nebillen,  
azkenean ori nai nun:  
ea semetxo ta alaba batzuk  
biok sortutzen ditugun.

*Las.-*

Gure arteko seme-alabak  
izango dira nabarmen,  
lenago ere gauza orrekin  
badegu milla txoramen.  
Azkenerako tratu politik  
egingo ditugu emen,  
ea ba biok moldatzen geran  
erabat zartu baiño len.

*Laz.-*

Bene-benetan etorri naiz ta  
geiago etzaitut utziko,  
zeuk maite eta nik maite zaitut,  
ortan ez degu etsiko.  
Izanez ere alkar maitatu,  
ori da lendabiziko;  
nik zu ainbeste zuk maitatu ta  
ez gera gaizki biziko.

*Las.-*

Zuk diozunez, neska-mutillak  
egin bear degu lagun,  
ta geroxego biok ezkondu  
oso apain eta lagun.  
Len e zurekin paseak ditut  
amaika gustoko egun,  
maitasunaren ezkontza eder bat  
ea preparatzen degun.

## TXERRIA IL BEARRA

Zegama, 1984-VIII-25.

Gaia: Zegaman gertatu dan kaso batean oiñarrirituz, Lasarte baserritarra da. Txerri bat azten aritu da urte guztian, eta deitu dio Lazkao-Txikiri. Lazkao-Txiki arakiña da. Etorri da txerri ori iltzera, eta ez dio itxura onik artu: belarri motxak eta bizi xamarra iruditu zaio. Ta esan dio baserritarrari ez dala atrebitzen txerri orri gantxoaz sartzen.

Laz.-

Alde batera gauza txarra da  
peligroan ibiltzia,  
nagusi jauna, asi baiño len  
orra nere iritzia:  
txerri onek du mutur luzia  
edo oso itxusia,  
nai dezuen egizu baiña  
ez nai ausartzen iltzia.

Las.-

Txerri beltz ori ilda odolkitz  
etxean nai degu ase,  
aspalditxoan nola baigeunden  
jaki goxo oien gose.  
Txerria berez umilla dala  
aitortuko dizut auxe:  
bere azalez beltza da oso  
nagusia bezelaxe.

Laz.-

Arto pixka bat ekarri zazu,  
bota dagoen lekuan,  
aurrerapen bat lenagokua  
oraintxen daukat goguan:  
Bizkai batean garai batean  
egiten zuten moduan,  
mazo aundi bat ekar zazu ta  
neuk joko det, bai, buruan.

Las.-

Txerriak gizen gutxi du baiña  
etzaio falta giarrik,  
alde batera etzendukazun  
zuk ori esan bearrik.  
Sinistu gero, ez leike eduki  
olako txerri igarrik,  
mazoa gora altxatzeko zuk  
bai al daukazu indarrik?

Laz.-

Zu ez bildurtu, mazo aundia  
altxako det nola-ala;  
badakit ortan nunbait nerekin  
fiatutzen etzerala.  
Zeure musaje berdiña dauka:  
ezurra eta azala;  
alde batera pentsatzen negon  
zure senidea dala.

Las.-

Nere senide kalkulatu  
dezu gutxi gora-bera,  
zuk dakizuna danok bizirik  
mundura sortuak gera.  
Txerria iltzea nai nuke eta  
zuk egin zazu aurrera,  
tiroz iltzea obe kutxilloz  
atrebitzen ez bazera.

LAZKAO-TXIKIRI BURUZKO BERTSO ETA IRITZI BATZUK .....	497
“Bertsoa zuzen artzen dakizu...” .....	499
Aia, 1979-III-18. Manuel Lasarteren omenez .....	500
Beasain, 1991-IX-15. Lazkao-Txikiren omenaldia .....	501
“Naizta batzuek kalean bizi...” .....	506
Zestoa, 1993-II-13 .....	507
“Lazkao-Txiki loaldi luze...” .....	508
Zornotza, 1993-IV-3 .....	509
Zumaia, 1993-VII-10 .....	511
Donostian, 1993-ko Bertsolari Txapelketa Nagusian .....	512
“Jose Migel Iztueta, oroitzen naiz zurekin...” .....	513
“Samina daukat bihotzean ta...” .....	514
“Lazkao-Txiki bertsoan zan...” .....	515
Aia, San Pedro, 1993-VII-4 .....	516
Azpeitia, 1993-XII-21 .....	518
Lazkao, 1994-IV-4.....	519
“Penaren bidez gaude...” .....	520
Ura amets gozoa! .....	521
“Joxe Migel, lagun zarra, ...” .....	523
Iritzi batzuk .....	525
DOIÑUA .....	537

*Laz.-*

Ez dakit bada, lagun Lasarte,  
nundikan nora zabilten,  
pentsu asko ez du gastatu nunbait  
ori gizendu t'azitzen.  
Tiroarekin esan didazu  
eta jarri naiz arritzen,  
karnizeroak tiroarekin  
ez du txerririkan iltzen.

*Las.-*

Saiatu zaitez txerria iltzen,  
izan zaitea apala,  
zerez al zera zu lotsatia  
edo erabat makala?  
Sinistu zazu ori il eta  
zerbait eskura leikela:  
gero etxera eramateko  
emango dizut gibela.

## KITARRA JOZ ESKEAN

Zegama, 1984-VIII-25.

Gaia: Lasarte, Urbitik Zegamara festetara etorri dan artzaia da; eta Lazkao-Txiki, bere laguna eta ezaguna. Paroan dago eta, txapela lurrean duela, kitarra joz diru eske aurkitzen du Lasartek Lazkao-Txiki au, eta Lasarte asten zaio bertsotan.

*Las.-*

Kitarra jotzen dezu  
goxo eta txukun,  
len e nunbait ikasten  
aurrez zera jardun.  
Nik diru aldetik egin  
nai nizuke lagun,  
eta esan zaidazu  
zenbat bear dezun.

*Laz.-*

Laguna, bota zazu  
al dezun moduan,  
ikusirik zenbat dagon  
zure poltsikuan.  
Badakizu aspaldian  
nagola paruan,  
ea bizitzen naizen  
zuen anparuan.

*Las.-*

Lagun au eskerako  
ain da kobardia,  
ta eskeintzera dator  
Lasarte berdia.  
Dirua sobratzeko  
ona da Urbia,  
milloi erdi bat badet  
zuretzat gordia.

*Laz.-*

Milloi erdi bat liteke  
gelegia izan,  
naiz ta zuk aberats zaude-  
la orain emen esan.  
Ez natzaizu asiko  
eskearen teman,  
borondate billa nator,  
nai dezuna eman.

*Las.-*

Ola nabil eskale  
bat eta bestean,  
len egona aberats  
nitzaden ustean.  
Zuk ere txintxo gorde  
al dezun artean,  
ez dago esaterik bat  
zerta leitekean.



**GALTZAK ETA GABARDINA**

Zegama, 1984-VIII-25.

Gaia: Festetan biak dispartaturik, Lasarte Lazkao-Txikiren galtzak jantzita, eta Lazkao-Txiki Lasarteren gabardinarekin.

*Las.-*

Zer motibo dezu, lagun maite,  
zuk gabardina jazteko?  
Orrek aldrebes ematen dunik  
igual ez dezu usteko.  
Eta nik berriz ez nun asmorik  
neronen galtzak mozteko,  
ta zure motxak ditut jantziak  
iztarrak erakusteko.

*Laz.-*

Nik gabardina ta orrek galtzak,  
au da bikote bapua,  
Lasartek badu orain disfraz  
merezi bezelakua.  
Nik gabardina luzegi daukat,  
au dago okerragua:  
galtz oiek badute atzealdean  
bi Lasartentzat lekua.

*Las.-*

Zure galtzakin ez al naiz jarri  
gizon bat txukun da piña?  
Nik pantorrillak erakutsitzen  
egingo det alegiña.  
Zuk gabardina arrastaka ta  
daukazu jaso eziña,  
sotana egin leike orrekin  
frailea baldin baziña.

*Laz.-*

Baiña Lasarte nere aldean  
txarrago dago egitan,  
era ortako disfrazik beñe  
ez det ikusi begitan.  
Zu zauden baiño politagoak  
ikusi ditut sarritan:  
galtzak lastoarekin beteta  
txorien izugarritan.

*Las.-*

Lazkao-Txiki, berriro ere  
ematen dizut abisu,  
gabardin ori jantzi dezu ta  
ain gaizki ematen dizu.  
Begien bistan ikusirikan  
erabat arritu nazu,  
iñoiz lumarik izan ez duen  
kukua ematen dezu.

*Laz.-*

Ni politago azaltzen naiz ta  
au da eraman eziña!  
Obe zenduke ni bezin ongi  
zu or jarriko baziña.  
Nola beti ez dan ibilitzen  
kalean moda berdiña,  
orain luzea dago ta ondo  
daukat zure gabardiña.

## TENTSIO ALTUA ETA BAJUA

Zegama, 1984-VIII-25.

Gaia: Lasarte eta Lazkao-Txiki senar-emazte edadetuak dira. Lasartek tentsio baxua dauka, ta Lazkao-Txikik altua. Etxean komeriak dira janariekin eta abar.

*Las.-*

Emaztea, len ziñan  
ijaraz majua,  
zu zeralako det nik  
tentsio baxua.  
Pena bakarra daukat  
len geiegi jua,  
orain ez dago bikain  
nere relejua.

*Laz.-*

Ezkontzean zu artu  
zinduten laguna,  
auxe azken zelebrea  
gertatu zaiguna!  
Zuk dezu leitekenik  
tentsio baxuna,  
nik daukat zoritxarrez  
zuk bear zenduna.

*Las.-*

Berriz esango dizut  
umil eta txukun,  
nere almena zala  
urrutiraiño jun.  
Ara abisutxo bat  
al badezu entzun:  
ia beian dagona  
jasotzen didazun.

*Laz.-*

Ta nik tentsio altua,  
au da gora-bera;  
nolabait berdindutzea,  
gizona, obe da.  
Makaltzen ari zera  
urtetik urtera,  
ta baxuena daukazu  
gerritikan bera.

*Las.-*

Berriro iritxi da  
neretzako txanda,  
amaika sufritzeko  
bein sortu nintzan-da.  
Ez dezu ezer egin  
gauz ori esanda,  
tentsioa altu zuk  
baxua izanda.

*Laz.-*

Zartu gera ta bizi nai  
eta kasi pena,  
au da gure etxean  
gertatutzen dena:  
bi lagun da iru eltze,  
ori da okerrena,  
ezin konpondu baita  
bion rejimena.

## OPORRALDIA

Zegama, 1984-VIII-25.

Gaia: Lazkao-Txiki eta Lasarte datorren illean oporretara omen doaz elkarrekin, Baiña oraindik ez dakite nora joango diran. Izan ere, Lasartek Urbira joan nai du, eta Lazkao-Txikik Benidorm aldera edo norabait.

*Las.-*

Abertentzi bat emango dizut,  
nere lagun zar jatorra,  
oporraldia igarotzea  
aurten degu derrigorra.  
Ta nora joan nork erabaki?  
Au da lantegi gogorra;  
ni Urbiara joango naiz, zu  
juan zaitez Benidorra.

*Laz.-*

Gure Lasarte mendiai beira  
artzai askoren antzera,  
itzal ederrak badaude eta  
naiko luke itzalera.  
Eta ni berriz pentsatzen nago  
juatia Benidor aldera,  
aspaldi ontan garbitu ez naiz ta  
uretan preskatutzera.

*Las.-*

Garbitasuna nolatan egin  
pentsatu zazu lenengo,  
azkenerako ez ote zaitu  
itxasoak eramango?  
Zure tokian ni ez nintzake  
Benidor aldera joango,  
an Urbiako gazta ederrak  
ez dira ugari izango.

*Laz.-*

Pentsa, Lasarte, ni urak ere  
ez nauela eramango,  
izanez ere Benidor ortan  
ura ain mantsoa dago.  
Arrazoi dezu, Lasarte juan  
zaite zu Urbira txango,  
trajebaiñuan baiñatutzeko  
ez dezu ederki emango.

*Las.-*

Busti bearrik ez daukat urez,  
nago garbi eta bero,  
zuk Lasarteren berri ederki  
badakizu onezkero.  
Eta etzaitut ara joanda  
lagun aundi bat espero,  
zu txiki geldituko baizera  
zikiñak kendu ezkerro.

*Laz.-*

Arrazoi dezu, bestela txiki  
baiña beti aundi naiak;  
alde batera ematen degu  
biok gerala anaiak.  
Baiña itxaso-ertzean pasa  
nai ditut aurtengo jaiak,  
antxen gordetzen diradelako  
aragjak ta arraiak.

## OILLAR ZAARRA ETA OILLAR GAZTEA

Donostia, 1984-IX-6.

Gaia: zuek biok oillategi bateko bi oillar zerate. Lazkao-Txiki, oillar zaarra; eta Amuriza, oillar gaztea.

*Amu.-*

Ni gaztea naiz eta ez nago edadera iritxia, kukurrukua egiten baidet oindik mokoia itxia. Laguna badet ondoan eta badet ortan aitzakia, zarrez gaiñera lan geiegiak utzi omen du txikia.

*Laz.-*

Lengo oillarra zartu da eta lan egiten ez du errez, orren txikia len gelditu zan lan gogorraren indarrez. Oillar gaztea emen dezute orain zuen aurrez-aurrez, kukurrukua jotzen du baiña oillo gaiñean ezer ez.

*Amu.-*

Zaar txikiak gauza onikan daukanik ez iñork uste, gaixoengana ez iñor joan oillandatxo baten eske. Oillo gaiñean ere zertxobait banaiz izan arren gazte, poliki egiten det lana eta bildur gabe il zintezke.

*Laz.-*

Oillar gaztea, zer ari zera disparateak esaten? Balio gabe erronkak ez du bein ere ondo ematen. Askotan dudan egon izan naiz au kapoiren bat ote den, demostrazio bat eman zazu Gabonak eldu baiño len.

*Amu.-*

Gabonak eldu baiño len asi bear al degu serbitzen? Izotzez eta preskuraz ez da errexela lanak ornitzen. Demonstrazio ortako gertu aspaldi jarria nintzen, nai badezu asiko naiz zure zorri ta lumak garbitzen.

*Laz.-*

Nere azia zabaldua det batera eta bestera, asko Naparron da Gipuzkoan, besteak Bizkai aldera. Baiña zuk ezer egin al dezun egiten dizut galdera, zuk ibillitako oilloak ez dute oindik txitorik atera.

## SEMEA ARANTZAZURA

Oñati, 1984-X-5.

Gaia: Lopategi fraile izana da, esaten dutenez. Orain bere seme Lazkao-Txiki bialdu nai luke kolejiora, baiña au apenas nai lukena...

*Lop.-*

Seme, berotua naiz  
ni zure uztera,  
nere mundu ontako  
denbora bete da.  
Lasai bizi zaitezen  
bat eta bestera,  
zoaz Arantzazura  
latin ikastera.

*Laz.-*

Makiña bat alproja  
badago munduan,  
nik ez det ibili nai  
aitaren moduan.  
Ogei bat urterekin  
zuk egin zenduan  
latiña ikasi ta  
nesketara juan.

*Laz.-*

Aitaren ejenplua  
gauza atsegiña,  
beti ondo izaten da  
eskola dakiña.  
Alperrikako gauzak  
ematen dit miña,  
baiña, aita, zertarako  
det nik gaur latiña?

*Lop.-*

Beraz damutasunez  
zatozkit ertzera,  
ez dezu ibili nai  
aitaren antzera.  
Beste bide bat bada,  
ez egin atzera,  
Nikolasen moduan(1)  
ibiliko zera.

*Lop.-*

Kendu bear nizuke  
orrelako kezka,  
artu jakinduria,  
gozatu gaiñezka.  
Munduan egin ditut  
nik amaika festa,  
praileen zientzia  
alperrikua ezta.

*Laz.-*

Nikolasen modura  
joango nintzake, bai,  
noiz deituko didaten  
aspaldi nago zai.  
Baiña ez zu bezela  
granuja ta lasai,  
Jaungoikorik ez det nik  
beiñe engañatu nai.

---

(1) Nikolas Seguroa.

## EGUN AIZETSUAK

Tolosa, 1984-X-12.

Gaia; joan dan asteko egun aizetsu oietan, irratia esan da esan aritu da eun kilotik beeko pertsonak kalera ez irteteko. Baiña or ikusi degu Lazkao-Txiki lasai asko, bere emazteari, Lizasori, besotik elduta.

Laz.-

Aize onekin kanpo aldean  
oso atsegin ez dago,  
arin samarra naizela pixuz  
bazekizuten lenago.  
Baiñan andrea aundia daukat,  
or anparo bat geiago,  
beste Hortensiari eldu bear nik  
*Hortensia* bat dalako.(1)

Seb.-

Aundi-txikiak egun batean  
gu alkarrekin asiak,  
naiz ta ez jakin loratuko dun  
eragiten dun aziak.  
Neurritz kanpoko indarra nola  
ekarri dun *Hortensiak*,  
patrikan artu ez baldin banu  
eramango zun aiziak.

Laz.-

Andre txikia artu banuen  
neretzako zan obia,  
artara xamur neretzat nuen  
eguneroko ogia.  
Baiña tratuak nai dan bezela  
beti egiten ez dia,  
nik falta eta bizarrarekin  
artu nuen emaztia.

Seb.-

Antzeman nion aizearekin  
au azkar bildurtu zala,  
beingoagatik estimatu zun  
emaztearen itzala.  
Eta aitortu nere lepotik  
zintzilik jarri ziñala,  
aruntz ta onuntz or ibili zan  
au medalla bat bezala.

Laz.-

Une batean beartu nintzan,  
andreak egin zin lagun;  
baiña bestela orren mendean  
ni egoten naiz gau ta egun.  
Batek etxean ezagutzen du  
andre zakar au nor degun,  
naiago nuen joan zan aldiko  
aizeak eraman bazun.

Seb.-

Oillar txikiak bazuen fama  
ezkondu giñadenian,  
estorbo besterik ez du egiten  
andrea aldamenian.  
Eta zuzentzen ez bazerade  
zeure oeko lanian,  
aizean esku utziko zaitut  
berriro datorrenian.

(1) *Hortensia* egun aietako aizeari jarri zioten izena da.

## AGUAZILLA ETA SALTZAILLEA

Igorre, 1984-XII-8.

Gaia: Lopategi enteratu da emen badagoela zeozer aundia, eta bere tresnak artu eta nijeriar baten moduan jarri du or txozna bat, erlejuak-eta saltzeko. Eta or arkitzen du Lazkao-Txikik, erri ontako aguazillak, Lopategi.

*Laz.-*

Jende beltz au beti emen dabil  
 batera eta bestera,  
 aspaldi ontan asko dabilta,  
 bate arritzen ez gera.  
 Txozna txiki bat ipini eta  
 traste batzuek saltzera,  
 galdetzen dizut zeñien baimenez  
 etorri zeran onera.

*Lop.-*

Karrera zala entzun nuen da  
 enteratua naiz garaiz,  
 erri onetan gauza zaleak  
 bildutzen zaizkigula maiz.  
 Negozioa armatzen degu  
 guk emen bezelako jaiz,  
 erleju batzuk erosi eta  
 emen saltzera etorri naiz.

*Laz.-*

Jakin detanez ez omen dezu  
 alkatearen baimenik,  
 beraz naita're ez dadukazu  
 emen egiterik lanik.  
 Zortzireun urte pasatu ziran  
 oek bialdu ezinik,  
 ta erlejuak saldu aitzakiz  
 etorri zaizku azkenik.

*Lop.-*

Beraz asi da zortzireun urtez  
 eindako lanak azaltzen,  
 alde orretan ez ote zoaz  
 arrazoi guztiak galtzen?  
 Moroak edo beltzak giñala  
 eta emendik bialtzen,  
 zuk ere ez dezu Euskal-Erriko  
 erraza asko ondratzen.

*Laz.-*

Ttiki samarra baldin banaiz be  
 ni emengoa naiz dana,  
 emen sortu ta emen bizi naiz,  
 emen egiten det lana.  
 Eta ez zazutela sinistatu  
 moro beltz oen esanak,  
 erleju zar bat bein saldu zidan  
 bate ibiltzen ez dana.

*Lop.-*

Eta berri bat nai bazenduke  
 ementxe daukat bapua,  
 sekula ez zendun ikusiko  
 au degun bezelakua.  
 Ez zera Arratin sortua izan,  
 Lazkanon jaiotakua,  
 baiñan ez zera Ataun aldeko  
 jentillen errazakua.

*Laz.-*

Pentsa zazute: moro beltz oek  
ez dabilkite gauz onik;  
oek ez dute pertsona fiñen  
trazarik edo itxurik.  
beste releju bat saldu nai ta  
erakusten du azkenik,  
baiñan ez dezu geiago artuko  
nik emandako dirurik.

*Lop.-*

Beraz ez zaude nere erleju  
jeneroen egarrían,  
ofizioan agintaria  
ta joera biurrian.  
Lan egitera etorri naiz ni  
neure bizitza larrian,  
aguazil fiñik ez det ezautu  
oraindik Euskal-Errian.

*Laz.-*

Zu emendikan bialdutzeko  
nik artuko det ardura,  
era ontako jende beltzikan  
guk emen ez degu gura.  
Jende guztia engaiñatutzen  
dabiltz gaiztuen modura,  
al dan azkarren jua zaitez berriz  
etorri ziñan lekura.

*Lop.-*

Urrutitikan oneratzeko  
izan nuen adorea,  
norabaitera mugitu bear  
ni bezelako pobrea.  
Ez naiz emendik berriz juango,  
ain da leku dotorea,  
ta segurutik aterako det  
zu baiño raza ohea.



## INPUESTORIK EZ ORDAINTZEN

Beasain, 1984-XII-14.

Gaia: zuk, Imanol Lazkano, inpuestorik ordaintzen ez dezula-ta, irugarren aldiz etorri zaizu etxera billa Lazkao-Txiki, udalzaiña edo aguazilla bera baida.

*Laz.-*

Nik fabore bat nai nizuke gaur  
bear bezela eskatu,  
zeu nola zeran lasai xamarra  
beñe ez zera kezkatu.  
Erritar on bat nai bazenduke  
zertan oinbeste pekatu?  
Bestien gisan ibiltzekotan  
inpuestoak pagatu.

*Ima.-*

Zuk eskatutzen didazun ori  
ez derizkiot justua,  
nola arraio izan diteke  
ain gizon ipurt-estua?  
Andrea eta lau aur badauzkat,  
sobrante daukat gastua,  
lenago ere badadukat nik  
naikua inpuestua.

*Laz.-*

Andre bat eta lau ume ditu  
kanpoan lorarik lora,  
amaika aldiz ikusitzen det  
or Igorretikan gora.  
Pagatu nai izan bazenduen  
pasa da ainbeste denbora,  
pagatze'ez badezu laister zoaz  
erri ontatik kanpora.

*Ima.-*

Gure kontura bizi da berau,  
guk egiñetik jaten du;  
alaz ta guztiz berealdiko  
lata berak ematen du.  
Bestela ere nik badadukat  
etxean zeintzuk mantendu,  
inpuestorik bear badezu  
mutilzar daudenei kendu.

*Laz.-*

Zure kontura bizi naizela  
ori egiten det duda,  
ustez arrazoiz zebillen baiña  
puntu orretan galdu da.  
Aurrera ibilitzen bazera  
orain arteko modura,  
munduan iñor ez da bizitzen  
pagatze'ez dunan kontura.

*Ima.-*

Eman didazun paper ori au  
kolpez bear det puskatu,  
iñolaz ere ezin baidet nik  
gauza normaltzat juzkatu.  
Diruarekin baldin bazera  
zu orrenbeste kezkatu,  
diputauakin gaizki bazabiltz  
Garaikoetxeai eskatu.

*Laz.-*

Pertsona onek ez ote dauka  
uste ainbeste delitu?  
Lau ume eta andrea baitu,  
parrandan ez da gelditu.  
Garaikoetxeai eskatutzeko  
ez al dezute aditu?  
Ark e kiebra laister joko du  
olako asko baditu.

*Ima.-*

Inpuestotik jantziak gaude  
gu kale eta baserri,  
propagandatik pranko zan baiña  
bizi gera naiko larri.  
Ez zaidazula bizimoduan  
oztopo geiago jarri,  
zuretzat ez det sosikan eta  
berriz ez zaitez etorri.

## BASERRITARRA ETA SATORRA

Zestoa, 1985-II-9.

Gaia: Lazkao-Txiki satorra da; Agirre, baserritarra. Satorra lurra arrotzen *tunpa-tunpa* ari dala, Agirre, bere atxurra bizkarrean duela, begira dago.

*Agi-*

Aspaldian sator beltza  
or zebillen bapo,  
iñortxok ere oindik  
jo ez duelako.  
Golpe baten moztuko det  
gerri eta lepo,  
geiago *tunpa-tunpa*  
onek ez du joko.

*Laz-*

Txixtareak jatea  
da nere asmua,  
ori da Jaungoikuak  
guri emandakua,  
Baserritarra, zurekin  
kejatzer a nua:  
goitik bera zenbat da  
zure terrenua?

*Agi-*

Nere terrenuak emen  
oso asko daude,  
ta edozeinetan ere  
zu kalteko zaude.  
Zu ere egin ziñan  
tripa baten jabe,  
baiña mantendu zaitez  
kalteik egin gabe.

*Laz-*

Baserritarra ez da  
jenio onekoa,  
galerazi nai ditala,  
ala Jaungoikoa!  
Nere jatena beti da  
belar zaiñekoa,  
bekoa neuri utzi,  
zutzat gaiñekoa.

*Agi-*

Nunbait egiteko ere  
ba'ezu balorea,  
egia esateko au da  
lurpeko lorea.  
Onek ibiltzen duna  
jantzi dotorea,  
iñork jo bitartean  
zikindu gabea.

*Laz-*

Atxurrakin egin du  
sekulako koska,  
eta txakurrari're  
or asi da oska.  
Olako kolperikan  
ez zaidazu bota,  
zuk lur azpirik ere  
ez didazu opa.

## BULTZAKA

Zestoa, 1985-II-9.

Gaia: aurtengo elurte onek ainbat gorabera ekarri dizkigu; eta bi auek, bertsotara dijoaztela, zelebre asko ikusi dituzte: kotxea patinatu ta joan zaie bide bazterrera, eta atera eziñik an ari ziran. Baiña modu zelebrean: Gorrotxategi bolantean eta Lazkao-Txiki bultzaka.

*Laz.-*

Bestela ere badakizute  
nork dun langille itxura,  
alde aundia bai izan ere  
bultora edo pisura.  
Ori barruan ta ni bultzaka  
arkitzen naizen pigura,  
amaika alper mantendutzeko  
jaioko giñan mundura.

*Gor.-*

Lengo batean nere kotxea  
bide ertzean zearka,  
joan nai gendun ta joan ezin,  
orixe genduan marka.  
Onek zertxobait egingo zula  
eta azkenean kaka,  
au teatroa: txakur txikia  
elefanteai bultzaka!

*Laz.-*

Len ere ori dala medio  
txiki geldituta nago,  
azkenik ere ni lertutzen or,  
esan bearrik ez dago.  
Gure kotxea amar bat zaldiz  
motorrez ditu lenago,  
Gorrotxategi txofer jartzean  
asto aundi bat geiago.

*Gor.-*

Nik zenbat indar dedan badakit  
beintzat nere makalian,  
Lazkao-Txiki ortxe bultzaka  
barrenak egiñalian.  
Maldizioak bota zituan  
ain jenio petralian,  
ta azkenean lo artu zuan  
motorraren epelian.

*Laz.-*

Mundu onetan zoritxarrean  
beti aldrebes gabiltza,  
toki danetan berdin samarra  
da gizon txikien ditxa.  
Eta esan du bota nuela  
noizbait erderazko itza,  
maldiziorik ez nun botako  
barruan egon banintza.

*Gor.-*

Kulparik ez zun baiña jarri zan  
Lazkao-Txiki sututa,  
kotxea ezin zuzendu eta  
zerbaitekin izututa.  
Guk bertsotako ordua ere  
bagendun naiko gertu ta,  
alako baten abiatu zan  
maleteroan sartuta.

*Laz.-*

Nere lagunak lanean badu  
zenbait gorroto ta seta,  
olako lagun alperrarekin  
oraintxe nago aseta.  
Leno esan det: kotxea zegon  
aundi ta txikiz beteta;  
maleteroa aurrean zeukan,  
aren gaiñean maleta.

## UMEZURTZA

Oñati, 1985-IV-27.

Gaia: Lazkao-Txiki aurtxo bat da; eta Imanol Lazkano, ume askoren aita. Lazkao-Txiki, aurtxo, estalpe baten eske agertzen da.

*Laz.-*

Ni umezurtz utzi nindutenak  
egin zuen pekatua,  
txintxo ta ondo ez zuen bete  
artuta zuten kargua.  
Illunabarrez ementxe nator  
gauarekin kezkatua:  
mesedez emango al didazu  
gau ontako ostatua?

*Ima.-*

Ni ta andrea bizi gerade  
amar bat aurren esklabo,  
erabakia artua degu:  
orrenbestekin akabo.  
Gure etxean guk mantentzeko  
naiko aurtxoa badago,  
baiña tartean babestuko det  
beste aurtxo bat geiago.

*Laz.-*

Jaio nintzaden zorigaiztoan,  
jaio ez banintz obea;  
kulparik gabe neurekin daukat  
nai ez nuen naigabea.  
Ez dakit nondik ibiliko dan  
nere gorputzan jabea,  
merezi ez dun zenbat amak gaur  
izaten duen semea!

*Ima.-*

Pekaturikan baldin badago  
ori pekatu mortala,  
au dala bide etorri zaizu  
ain bizimodu petrala.  
Baiña ez estutu, emango dizut  
bestien gisan magala;  
neure aurreri esango diet  
beren senide zerala.

*Laz.-*

Aita ta ama igesi joanak,  
neretzako au da lana;  
badakizu zuk nere gorputza  
oraindik txikia dana.  
Pixka batean azitakoan  
saiatuko naiz al dana,  
gaurtik aurrera zu izango zera  
nere bigarreno ama.

*Ima.-*

Nolabait ere bizimodua  
ez dago oso erreza,  
ez det izan nai une onetan,  
aurtxoa, zure jueza.  
Aztu ezazu aita ta aman  
batere biotzik eza,  
oien tartean emango dizut  
deseo dezun babesa.

*Laz.-*

Borondatea badezu eta  
ezin ninteke gogaitu,  
gure Jainkoak nai zuen dana  
zuk ongi didazu aitu.  
nere kasaka ezin nezake  
ta al baldin bada zaitu;  
gure Jainkoak egunen batez  
ori ordainduko zaitu.

*Ima.-*

Ikusitzen det, aurtxo maitea,  
daukazun estuasuna,  
ta eman nai dizut al dan ondoen  
gurasoen erantzuna.  
Dote aundia ez da izango  
eskuratuko dezuna,  
baiña bai ziur aita ta ama  
jator batzuen maitasuna.

*Laz.-*

Zoritarrean ama txar bati  
ni Jaunak seme emana,  
nun dan ez dakit baiña nigandik  
norabait igesi joana.  
Gaur edo biar aunditutzean  
billatutzen badet lana,  
irabazitikan zor guztia  
pagatuko dizut, ama.

*Ima.-*

Arrats beltz ori gertatu bedi  
betiko egunsentia,  
orregatikan erabaki det  
ostatua ematia.  
Andre maiteak eduki arren  
lendik talde dexentia,  
aurtxo berri au goserik dago,  
eman zaiozu titia.

*Laz.-*

Aur galduantzat auxen dan baiño  
gauza oberik ote da?  
Nere amatxok aldegin eta  
orra ama bat berbera.  
Maitetasunez pozik artu nau  
bere aurtxoeren tartera,  
begiratu zer diferentzi dan  
ama batetik bestera.

*Ima.-*

Ona dan fama zabal nai degu  
etxean eta auzotan,  
baiña erakutsi bear degu  
guk onelako kasotan.  
Nere aurtxoeren era berean  
artuko zaitut besotan,  
erakutsi're al dedan dena  
euskeraz eta bertsotan.

*Laz.-*

Aita ta ama ez dakit nun nik,  
nunbait or dira aparte;  
sortu nintzaden denbora aiek  
oroitzapenak dakarte.  
Zeuk ere naiko aur badituzu  
ta nik bat geiagogz bete,  
bakarrik mantendu bear nauzu  
amar urtera bitarte.

*Ima.-*

Al baldin bada bete nai nuke  
orain agintzen detena,  
memori onek eiten ez badit  
uste gabeko etena.  
Sinista zazu, aurtxo maitea,  
agindutzen dizutena:  
guzietatik izango zaitut  
zedorri aurrik maitena.

*Laz.-*

Ama maitea, berriro ere  
naukazu zuri begira;  
nere begiak zure aurpegiai  
eman diote bi jira.  
Ni jaso nauzu ain maitasunez  
zeure aurraren tokira,  
naiago nuke ama guziak  
zure antzeko balira.



Xabier Zeberio eta Lazkao-Txiki, Ordizian.



## AITA-SEMEAK

Lazkaomendi, 1985-V-5.

Gaia: Lasarte aita da. Lazkao-Txiki, semea. Lasarte, bere denbora guzian, au esaten aritu da: "Gurasoa guraso dena, goizean familia jeikitzerako erretiratu bear du etxera". Baiña bart deskuidatu da ederki: Joxe Miel, semea, ikuillukoak egiten ari dala, or aurkeztu zaio.

*Laz.-*

Zelebrea da aitak  
dabilen joera,  
kanpoan izan baita  
atzotik onera.  
Jornara aundiakin  
datorre gaiñera:  
aita, galdetzen dizut:  
nun ibilli zera?

*Las.-*

Itxura txarrez, beraz,  
naiz ni plantatua,  
ordu txarrez da gaizki  
alimentatua.  
Au da aitona baten  
atarramentua!  
Jornara aundia ta  
gaizki kargatua.

*Laz.-*

Aita au planta gaiztoa  
dago gaur artuta,  
berak dionez dator  
gaizki kargatuta.  
Sobrante edatea  
bestarik eztu-ta,  
praketa irikia ta  
txapela galduta.

*Las.-*

Naiago nuke, seme,  
kontentu banengo;  
zeure praketa ikusi  
ezazu lenengo.  
Itxi bearrikan nik  
ez daukat aurtengo,  
ortik txoria ez da  
urrutira juango.

*Laz.-*

Aita maitea, asko  
arritutzen nazu,  
kanpoa ta barrua  
bustita dauzkazu.  
Gaur artean etzaitut  
ikusi ola zu,  
ta egorik gabeko  
txoria daukazu.

*Las.-*

Egorik ez dauka ta  
bidean etzanda  
txoria gelditu da,  
garbiro esanda.  
Seme au leno bera  
ola ibiltzen zan da,  
orain etorria da  
aitarentzat txanda.

*Laz.-*

Ni abia naizenean  
gaur beiak jeztera,  
gure aita mozkortuta  
eldu da etxera.  
Nere baitan galdetzen det:  
"Posible ote da?"  
Guardasola zeurekin da  
dana busti zera.

*Las.-*

Disimuluan zegon  
gaurko eguzkia,  
kanpoan ibili da  
olako piztia.  
Naiz kanpoz legor egon  
barrendik bustia,  
orra garbi aitortu nik  
ixtori guztia.

*Laz.-*

Karga aundia artu ta  
etorritzen lana,  
oi da gurekin sarri  
gertatu oi dana.  
Auzokoak parrez daude  
ta negarrez ama,  
zuk galdu bear dezu  
etxean dan fama.

*Las.-*

Aita peligrosua  
izanik munduan,  
gure seme au gaurkoz  
aserre zeguan.  
Ez nazu sarri ikusi  
ni gaurko moduan,  
zuk lentxegotik ori  
egiten zenduan.

**BION ARTEAN EUN BAT KILO JUSTU**

Lazkaomendi, 1985-V-5.  
Gaia: gai librea, bazkalondoan.

*Laz.-*

Era onetan bazkaldu ezker  
zailla da egoten triste,  
ni ere pozez jarri naiz eta  
pozez daukagu Lasarte.  
Plako ta txiki egonagatik  
jan ez degunik ez uste,  
Lazkao-Txikik bazkaltzen jan du  
gizon aundiak ainbeste.

*Las.-*

Jakiña dago nolakoa dan  
Lazkao-Txikin kontua,  
gorputzez txiki izanagatik  
buruz ez baida tontua.  
Lasartek berriz emen daukana  
oillagor baten lepua,  
baiñan alare betetzen degu  
gizon aundien lekua.

*Laz.-*

Gizon txikiak ematen dute  
askotan zenbait engaiño,  
besteak baiño txikigo geran  
ustez gaude oraindaiño.  
Lasarte ere estu daukagu  
ni txit baju nago baiño,  
gerrikoa re lotuta dauka  
azkeneko zuloraiño.

*Las.-*

Lazkao-Txiki, itzegin didak  
betiko bide antzetik;  
serio asi bearra zioik,  
ezer etziok txantxetik.  
Etzakela ik pentsa gerriko  
au dabilela atzetik,  
zulo batzuek beteagatik  
geiago ere bazetik.

*Laz.-*

Naiz txiki eta naizta plakua  
biok ere gaude prestu,  
aunditzea ta gizentze ori  
ez daukagu gure esku.  
Aragi utsak indar aundirik  
askotan izaten eztu,  
Lasarte ta ni bion artean  
eun bat kilo gera justu.

*Las.-*

Eun bat kilo gerala biok,  
orretan dotore zabiltz;  
lenago ere esana zera  
zu amaika olako itz.  
Txikiak izanagatik biok  
gu oso kontentu gabiltz,  
aundirik etzan ezagutuko  
txikirik izan ez balitz.

Laz.-

Lenago gaizki asi nintzan da  
orain oroitu zat laste:  
gerrikorikan onek ez dauka,  
nik leno ez nuen uste.  
Izanez ere zulo guztiak  
azken tokirik ez dute,  
Fraga bezela tiranteakin  
etorri zaigu Lasarte.

Las.-

Lasarte dezu seme leial bat  
berez Euskal-Errikoa,  
erropa danak kendu ezkero  
ni're larru gorrikoa.  
Ta gerrikoa jantzi izan det  
gerriaren neurrikoa,  
Fragak pozikan artuko luke  
Lasarteren gerrikoa.

Laz.-

Beraz badegu guk alkarrekin  
emen ezin konpondua,  
ni Fraga orri askotan nago  
erreparoz egondua.  
Izanez ere diferente da  
gure arteko mundua,  
zuk ere pozik ar zenezake  
ark duen txilborrondua.

Laz.-

Reagan orri guregaitikan  
etzaio asko ardura,  
oraingoz ere ekarri ziguk  
negoziante-itxura.  
Pareta auetan jarri zigutek  
motoristaren modura,  
nai baldin badu azkar joan zeikek  
etorritako lekura.

Las.-

Zuk diozunez, jantzia dago  
bere gilbor eta galtza;  
gizatasuna ibiliko du  
ta orren gaiñetik boltsa.  
Lasarte oso bajua dago,  
gora ezin leike altxa;  
baiña nik Fraga berdindutzeko  
badaukat gaur esperantza.

Laz.-

Baiña askotan ezin liteke  
iñori inbiritan egon,  
nola zeregin asko munduan  
emen danentzako dagon.  
Ark ere, mutil, ez dik izango  
nai duen ainbat zorion,  
txikian ere ez ote gera  
ura dan ainbeste gizon?

Las.-

Lenago ere eman didazu  
oso erantzun bapua,  
Reagan ere etorri zaigu  
gizon baten modukua.  
Amerikatik etorri eta  
ark billatu du lekua,  
erropen azpitik omen dauka  
ark txapazko txalekua.

## PEZETA ETA DOLARRA

Anoeta, 1985-VI-19.

Gaia: Lazkao-Txiki, pezeta, gauzarik txikiena; eta Azpillaga, dolarra.

*Laz.-*

Amerikako diruak badu  
aspaldi ontan indarra,  
baju antxean daukagu berriz  
emengo pezeta txarra.  
Or dadukagu diru aundi bat  
deritzen dana dolarra,  
emen daukagu mundu guziko  
arrotasunen oillarra.

*Azp.-*

Diruarekin egiten degu  
orrenbeste amets eta,  
negozioa egin liteke  
ez dakit zenbat klaseta.  
Esan dutenez, ni dolarra naiz,  
Lazkao-Txiki pezeta;  
begiratuta ezagun dago,  
aundiagoa naiz eta.

*Laz.-*

Leno esan det: dolarra dago  
oraintxe altu antxian;  
nai duen dana egiten digu  
España ta Frantzian.  
Baiña ni ere banaiz zeozer  
neroni naizen txikian,  
orren antzeko kankaillu aundi bat  
dadukat fotografian.

*Azp.-*

Baiña alare pezeta beti  
egundoko atakian,  
dolarra goitik dagola eta  
ezin da egon pakian.  
Beti bezela orain e dago  
oso debil da plakian,  
pezetak ez du zer egiñikan  
dolarra dagon tokian.

*Laz.-*

Etorriko da dolar aundia  
bajaturko dan eguna,  
berak dadukan puri geiena  
aspalditxuan da juna.  
Badute *sida* ta ainbat gaixo,  
falta dute osasuna;  
gizonarentzat uskeri bat da  
diruzko aunditasuna.

*Azp.-*

Alde aundia lendikan dago,  
au ez baida oraingua:  
dolarrarentzat beti udara,  
pezetarentzat negua.  
Animaliai begiratuta  
gauz bat esatera nua:  
dolarra degu elefantea,  
pezeta berriz xagua.

Laz.-

Ala ta guztiz dolarrarekin  
oindik ez daude aseak,  
egoismo asko nolatan duen  
olako jende klaseak.  
Gu pezetakin konforme gaude  
lenago gaizki paseak,  
eta al bada aguro kendu  
Zaragozako baseak.

Azp.-

Beraz ortaiño iritxi al dira  
baseak kendu bearrak?  
Amerikano oiek oraindik  
dituzte beren indarrak.  
Lagundu bear legortuzeko  
españitarren negarrak,  
erregea're erosiko dute  
Reagan-ek dauzkan dolarrak.



1985-VII-14-ean. Ezkerretik: Iñaki Aranzadi,  
Lasarte, Lazkao-Txiki. Goien: Otxotorena.

**SENDAGILLEARENGANA**

Usurbil, 1985-VII-6.

Lazkao-Txiki eta Mañukorta.

Gaia: Lazkao-Txiki, gibeletik kejatsu dabillen gizona da. Sendagille billa asi eta etzaio non-bait Mañukorta baiño trebeagorik bururatu.

*Laz.-*

Zoritxarrean gaixorik nago,  
ez det bear ain osasun,  
estualdian arkitzen naiz ta  
zuk egin zaidazu lagun.  
Gibeletikan gaizki antxean  
arkitutzen naiz gaur egun,  
sendagillea, zugana nator  
ia sendatutzen nazun.

*Mañ.-*

Lazkao-Txikik berekin dauka  
berak gibelesko miña,  
sendagilliak ori sendatzen  
egingo du alegiña.  
Ori galtzeko trago geiegi  
txarra dala da jakiña,  
min orrentzako satorrak dira  
whiskia eta txanpaiña.

*Laz.-*

Etxean ere kontseju ori  
entzun det amaika aldiz,  
txanpaiñak eta wiskiak txarrak  
dirala esan dit berriz.  
Baiñan entzun zuk ni nagoela  
sendagillearen premiz,  
kontseju oien bearrik ez nun  
gaixorik egon ez banitz.

*Mañ.-*

Lenago ere ezaguna zan  
Lazkao-Txikin konduta,  
sendagilleana azkar etorri da  
gibelen miñak elduta.  
Sendagilleak ezin duenik  
gaurko onetan ez du ta,  
gibel berri bat jarriko dizut  
arkume bati kenduta.

*Laz.-*

Nola arraio gibel berria  
jarriko didazu neri?  
Zu etzerade medikua ta  
eztezu ainbat kategori.  
Zein demoniok eman ote du  
onek dun titulo ori?  
Asto gaiñetik eroritako  
pulpa-zakua diruri.

*Mañ.-*

Pulpa-zaku bat da Mañukorta  
karrera ona artuta,  
sendagilleren titulo oitan  
ondo-ondoraiño sartuta.  
Lazkao-Txiki maitatutzen det  
bertsuetan ezaututa,  
sendagilliak jarriko zaitu  
betirako osatuta.

## AITON-AMONAK

Usurbil, 1985-VII-6.

Jose Lizaso eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Santa Isabelak zirala eta zarata asko omen zebillen Usurbilgo kaleetan. Lazkao-Txiki eta Lizaso zaarra, iadanik onenak emanda-edo, euren etxe bizitzan, kaleko zarata-otsa dala eta, lo artu eziñik dauden aiton-amonak.

*Liz.-*

Zelebren jarri zaku  
gaztedi berria,  
zer iruditzen zazu,  
Lazkao-Txikia?  
Nere onetatikan  
atera naiz ia,  
lorik ezin det egin,  
au da komeria!

*Laz.-*

Otsailleko katuak  
ibiltzen dun planta:  
teillaturik teillatu  
karrasi ta kanta.  
Eta gu zartu gera,  
bearko aguenta,  
ezer ez egiteko  
oinbat zalaparta!

*Liz.-*

Laguna utzi nai det  
orain jakinian,  
gauzak zelebren daude  
gaurko egunian.  
Karrasika dabilza  
gaurik geienian,  
formalago giñan gu  
gazte giñanian.

*Laz.-*

Nere agure maitea,  
konturatu zaitez,  
ia lotsatutzen naiz  
gazteen izatez.  
Karrasika or dabilz  
joan dan aste betez,  
geuk egingo al degu  
gazte oien partez?

*Liz.-*

Gu're garai batean  
giñan indarrian,  
emakumeta juanaz  
onez-onenian.  
Formal erretiratu  
illunabarrian,  
musu batzuk emanda  
meta baztarrian.

*Laz.-*

Gazte oiek gaur drogatik  
daukate gainezka,  
orren mende dagonak  
nola egin festa?  
Guk biok egitea  
oraindik errez-ta,  
nai deguna eginda're  
peligorik ezta.



Liz.-

Oroitu bear degu  
nor giñan antziñan,  
nere lagun au ere  
uzten det jakiñan.  
Musuka asitzean  
metaren eskiñan,  
drogarik gabe ere  
arrotutzen giñan.

Laz.-

Oraindik e amona  
emen dago premiz,  
ez dago aspertua  
lengo berdekeriz.  
Zartua dago baiña  
eingo luke berriz,  
gure aitona pixka bat  
mugituko balitz.

Liz.-

Aitona're ez dabil  
arnaska ta puzka,  
amona nola dagon  
entzutean juzka.  
Nunbait berekin dauka  
lenago zun puska,  
lengo dibertsiuak  
goguan daduzka.

Laz.-

Amona emen dago  
umil da tristerik,  
orrek ez du pentsatzen  
ezertan asterik.  
Zalaparta galantak  
bazitun gazterik,  
baiñan orain ez dauka  
puzkarra besterik.

Liz.-

Ori're esan digu  
lotsarik ez du ta,  
amona au ez al dago  
burua galduta?  
Zenbat urte daduzkan  
or dago aztuta,  
errosaioa esan  
kandela piztuta.

Laz.-

Pertsona ezertako  
ez baita zartzera,  
gu ere jarri gera  
trapuen antzera.  
Salto bat egiteko  
gauza ez bazera,  
ni aspertu naiz eta  
zoaz baztarrera.

## ALEMANIRA JOAN BEARREAN

Lazkao, 1985-VII-11.

Gaia: Lazkao-Txiki, emaztea. Goiburu, senarra, negozio-gizona, Alemanira joan bearrean arkitu dana amabost bat egunerako, bere negozioetara. Emazteak gaur goizean telebista piztu du zortziretan, eta zezenaren aurrean or ikusi du senarra.

*Laz.-*

Askotan ezin leike sinistu  
iñoiz ikusten ez danik,  
eta olako kaso polit bat  
gaurko ontan izan det nik.  
Nere senarra or arkitzen zan  
Alemanira joanik,  
ez nekien nik gure Iruña  
Alemanian zegonik.

*Goi.-*

Iruña ori gertuguan da  
egingo nizuke amen;  
poltsa're neukan baju xamarra,  
ori zeguan nabarmen.  
Eta ez neukan Alemanira  
juateko ainbat kemen,  
diru gutxitxo nedukalako  
gelditua nazu emen.

*Laz.-*

Alperrikan da emazte bati  
gezur asko esatia,  
geientsuenak dakitelako  
gizonaren izatia.  
Zezen aurrian ikusi zaitut  
panparroikeriz betia,  
adar zorrotzak dituzte oiek,  
kontuz ibili zaitia.

*Goi.-*


Adar zorrotzak ez dit egiten  
neri orrenbeste grazi,  
baiña dirua bear da emen  
nunbaitetik irabazi.  
Lenago nuan negoziua  
gaizki baidijua kasi,  
argatik nai det ofizio bat  
orain berria ikasi.

*Laz.-*

Ara andreak uste gabetan  
gizonaren berri jakin,  
berak ez zuen usteko baiña  
nunbait ez baizebillen fin.  
Iruña aldean egongo dira  
makiña bat andre zikin,  
beste gauza bat esaten dizut:  
kontuz zure adarrarekin.

*Goi.-*

Ainbat peligro ez da egoten  
adarra zerbait moztean,  
edo gaztetan ziraden odol  
beruak zerbait oztean.  
Gu biok ondo ibiliko gera  
igandez eta asteen,  
diruan paltik ez dezu izango  
nik torero ikasteen.



Manuel Lasarte eta Lazkao-Txiki, 1985-VII-14-ean.

## LENENGO ANDREAREKIN TOPO

Gernika, 1985-VIII-10.

Gaia: Lazkao-Txiki etorri da gaur *Lurgorri*-ra bertsoak kantatzera, bigarren andrea etxean utzita; eta bertan lenengo andrea arkitu du, Jon Enbeita, bera ere bertsoak kantatzera etorria.

*Laz.-*

Toki zokoak egun askotan  
kalteko izaten dia,  
uste ez dala ikusten baida  
batek uste ez dun jendia.  
Gu alkarrekin len egon eta  
geroztik urteak jua dia,  
neregandikan aldendu ezkeroz  
nola zabiltza, andria?

*Enb.-*

Alperrik galduko nintzala ni  
zuk ete zenun espero?  
Alkarrekin bizi giñanean  
beti ibiltzen giñan bero.  
Ez jat niri beintzat txarto joan  
aldendu ta onezkero,  
bertsotan ere ikasi diat  
i utzi izan da gero.

*Laz.-*

Amar bat urte andre zar onek  
zituen nere onduan,  
bertsolaria ez bazan ere  
temosa bat zan orduan.  
Tabernatikan etxe aldera  
berandu juandakuan,  
orduan ere zuk bertsueta  
ederki egiten zenduan.

*Enb.-*

Gorputzetikan ez da aundia,  
zentzuetik ez da plako,  
onen ondoan dabillen batek  
badauka amaika kako.  
Botatzen nion berari ere  
amaika bertso olako,  
asarratu zan berak baiño nik  
geio egiten niolako.

*Laz.-*

Jakin beazu beste andre bat  
nik etxean badedala,  
ez da zu bezin arroa ura  
baizikan andre apala.  
Baiña jakizu zure berri're  
pixka bat jakin dedala,  
entzunda nago praille batekin  
arrimatutzen zerala.

*Enb.-*

Ez dago zertan okerra izan  
praille batekin tratua,  
gizonezkoak denak dira ta  
berdiña da pekatua.  
Antza zu zagoz eskapatzeaz  
orain nigaz damutua,  
zu aguantatzeko zure andrea  
gorra da ala mutua?

*Laz.-*

Neska-mutillak baditut orain,  
 nago ni alako ditxan,  
 zurekin egon nintzan orduan  
 gaizkiago bizi nintzan.  
 Errietan ongi egiten zuen,  
 bein ere ona ez zan izan,  
 ez dakit orain ni utzi eta  
 zu zer modutan zabiltzan.

*Enb.-*

Txikia dauka gorputza baiña  
 jenio demoniñoa,  
 andrearekin ibiltzeko zun  
 sekulako afiziñoa.  
 Baiñan urteak joan jakoz ta  
 burura jausi laiñoa,  
 garritik gora dau tentsiñoa,  
 garriz bera intentziñoa.

*Laz.-*

Zoritxarrean bein artu nuen  
 nik orrelako laguna,  
 gaua pasatzen kostatutzen zan  
 ta okerrago eguna.  
 Ain da emakume sorgiña eta  
 pixua eta astuna,  
 bi gizonezko pasatu eta  
 famelirikan ez duna.

*Enb.-*

Fameli batek ekartzen ditu  
 milla arazo ta lata,  
 ni andre modernoa naiz eta  
 nago ondo preparata.  
 Onek esanak aundiak ditu  
 baiña gero egiñak falta,  
 agoan dauka indar larregi  
 ta bean falta galanta.

*Laz.-*

Lendik nengoen neskatxa oni  
ni arriturik begira,  
zango ta titi ikustearren  
eman dizkiot bi jira.  
Ta azkenean txanpan artzeko  
ere ba omen du ira,  
kobratzen duten neskatxak ere  
olaxen ibiltzen dira.

*Lop.-*

Afaldu gabe gure gorputza  
ez jaku jartzen ain bero,  
eta ametsetan asi oi gara  
txanpana edan da gero.  
Alan da guztiz zuregandikan  
gauz asko ezin espero,  
zure lako lau bear ditut nik  
lanean asi ezkeru.

## EZEZKOA

Gernika, 1985-VIII-10.

Gaia: Lopategi neska bat da; Lazkao-Txiki, berriz, neska orrekin oeratzea nai dabena.

*Laz.-*

Nere neskatxa maitagarria,  
berriro alkartu gera,  
oraindik ere buruan daukat  
lengo pentsamentu bera:  
gaztetasuna aprobetxatuz  
guztiontzako obe da,  
urteak geio pasa baiño len  
goazen biok oera.

*Lop.-*

Ai zer bizkorra agertu zaren  
oso txikia izanik,  
baiña ez uste konkista ori  
orrela egiten danik,  
Inbitaziñoz abilla zara  
berba gozoak esanik,  
baiñan oraindik logura eta  
gogorikan ez daukat nik.

*Laz.-*

Ez ditu nonbait gaur ondo artu  
mutillaren iritziak,  
ezezko dira orain bitarte  
ditun arrazoi guziak.  
Nik daduzkaten arpegi antzak  
ez dirade itxusiak,  
ta gorputzeko zati guziak  
gero ez ditut txikiak.

*Lop.-*

Dana txikia ez daukazula  
ez da oso nabaria,  
udazkenera elduagatik  
gogoia dozu ugaria.  
Baiña ez dator bear bezela  
gaurko zure eskaria,  
oea baiño naiago dot nik  
Arrien-en afaria.

*Laz.-*

Oeratzeak, ikusten denez,  
ez dizu egiten grazi,  
afari eske gizonaren lez  
zu ere ez zaitez asi.  
Nerekin gaua pasatutzea  
obego zenduke kasi,  
gero kalabaza emazu baiña  
proba nazazu lenbizi.

*Lop.-*

Maitasunaren legea beti  
aurretikan doa traba,  
zaletasuna badaukazu ta  
bada ez bada ez laga.  
Afari ori aipatu dot nik  
eta luzea da gaba,  
txanpan apur bat edan da gero  
igual berotuko gara.

## OILLOAK FALTA

Aduna, 1985-VIII-14.

Gaia: Lazkao-Txiki baserritarra degu; eta auzokoa, Lopategi. Lazkao-Txikiri oilloak falta zaizka. Zein ote da?

*Laz.-*

Au da desgrazi illuna orain  
etxean pasa zaiguna,  
badakizu zuk oillo mordo bat  
lendikan bagenduguna.  
Nik nori kulpa bota ez dakit,  
ori da gauza illuna;  
ezeren berririkan al dezun  
galdetzen dizut, laguna.

*Lop.-*

Nigana beintzat zure oillorik  
ez zan etorri eskintzan,  
gau illunean lapurrak sarri  
dabiltza beren ekintzan.  
Baserritarrak desgrazi asko  
darama bere bizitzan;  
bart nik karaxak entzun nituen,  
ez dakit zertan zebiltzan.

*Laz.-*

Oillo eder ta gorri gizenak  
etxean zeuden aukeran,  
batzuek goiko oillategian  
ta beste batzuek beran.  
Ille beltz batzuk billatu ditut  
oillategiko erteran,  
kezketan nago jan dituen  
azari beltza ote dan.

*Lop.-*

Oilloak zaindu bear dituzu  
beti toki seguruan,  
eta ez zera berriz izango  
onelako apuruan.  
Azeri beltza ni ote naizen  
sartu al zaizu buruan?  
Oillo lumarik ezetz aurkitu  
nere etxe inguruan.

*Laz.-*

Ni ola eta andrea ere  
ez da jenio gozuan,  
oillo oiekin ainbeste fama  
inguruetan bazuan.  
Baiñan alako azeri beltz bat  
badago gure auzuan,  
baiña laister erori bear du  
zepoan edo lazuan.

*Lop.-*

Ez dakit zer dan zure buruan  
eta zer dezun gogotan,  
zuk badakizu ni ez nabille  
lapurretako asmotan.  
Gaba lasaiki pasatu dezu  
zeure andreakin lotan,  
nik oillo ura artuko nuen  
ezer arrapatzekotan.



*Laz.-*

Nere andrea ez da oilloa  
ta nerea da gaiñera,  
okerragoa izan liteke  
argan joaten bazera.  
Ez zait bein ere gustatu izan  
azari beltzan joera,  
gauz txarragorik pasa baiño len  
orain kontuak atera.

*Lop.-*

Orixe degu beraz, Txikia,  
zurekin dan komeria,  
baserrietan sarri sortzen da  
olako erromeria.  
Ni ez nazute azeri beltza,  
esaten dizut egia;  
baiña ondo zaitu zeurea andrea  
ta zeure oillotegia.

## UDABERRIA ETA UDAZKENA

Aduna, 1985-VIII-14.

Gaia: Lazkao-Txiki, udaberria; Amuriza, udazkena.

*Laz.-*

Udaberria zein polita dan  
jarri zaitezte kontuan,  
arbola danak osto berritu  
eta txoriak kantuan.  
Aiton-amonak itxaropenez  
gazte batzuen moduan,  
urte alderik politagorik  
ez dakit bestek nun duan.

*Amu.-*

Emen polita izatea ez da  
lendabiziko auzia,  
ni irugarren garaia naiz ta  
banago markak autsia.  
Udaberria zalamera da  
baiña pixkat itxusia,  
udazkenera aillegatzen da  
udako frutu guzia.

*Laz.-*

Arrazoi dezu: frutak eldu ta  
uda azkenez etxera;  
ori're gauza polita dala  
denok konturatzen gera.  
Baiñan eguzkia auldu eta  
eguna ere gainbera,  
uda azkena ain tristea da  
jubilatuen antzera.

*Amu.-*

Jubilatua ez da itz ona  
festaren aldamenean,  
Euskal-Erriak etorkizuna  
omen dauka azkenean.  
Udaberrian alai asi ta  
udan bero geienean,  
neronengana dator erria  
tristerik dagoanean.

*Laz.-*

Pozgarria da udaberriko  
aize goxo ta epela,  
ikusirikan baratza danak  
lorez beteta daudela.  
Ikusten dira txoriak ere  
jolasean dabiltzala,  
neska-mutillak erromeritan  
ibiltzen diran bezela.

*Amu.-*

Udaberria askok uste du  
dala munduko zerua,  
ordezkaritzat emen dezute  
Lazkaoko aingerua.  
Nere garaian gaztaiñak jan da  
atzetik bota tirua,  
berriketa oiek albora utzi ta  
ori dek, ori, girua!

*Laz.-*

Uda azkenak bere ondoren  
sartutzen gaitu neguan,  
udaberriak berriz udaran,  
izan zazute kontuan.  
Kukua ere zugaitzik zugaitz  
*kuku* emen da *kuku* an,  
udaberria bezin politik  
ez dago ezer munduan.

*Amu.-*

Gure munduan Euskal-Erria  
omen diagu zarrena,  
ainbeste mende ta urte garai  
bizkarrean dakarrena.  
Zein ote degun ohea ola  
zetan dema jarri aurrena?  
Laurak batera ditun erria  
orixe dek ederrena.

*Laz.-*

Bertso onekin udaberriak  
eman nai du bukaera,  
aspaldi ontan zai bizi eta  
noiz etorriko ote da?  
Berriro ere zueri egin  
nai nizuteke galdera:  
udaberria datorrenean  
indartuko da euskera?

## ARROKETAN EGUNA PASA ONDOREN

Zizurkil, 1985-VIII-17.

Lazkao-Txiki eta Sebastian Lizaso.

Gaia: zuek biok gaur goizean joan zerate arroketa eguna pasatzera, kotxean zuen erropak utzita. Baiña illuntzean, kotxera etorri zeratenean, ez erropa ta ez kotxe arkitu zerate. Biok *auto-stop* egiten ari zerate.

*Laz.-*

Au bezin era zelebrea gu  
bein e ez gera ikusi,  
gaur zer gauz pasa zaigun arrokan  
nai nuke adierazi.  
Kotxea ostu, erropak artu  
eta jua dira igesi,  
larre-zezen bat zirudin onek  
bere zintzarri ta guzi.

*Seb.-*

Norbaitek burla egin nai zigun,  
ezin ziteken bestela,  
egin duana izango degu  
faltsoa edo ustela.  
Sinistu gero kamiño ertzean  
zelebre egon naizela,  
aurra besoa berekin dula  
ijito zar bat bezela.

*Laz.-*

Kamiño ertzean pasa ditugu  
eundoko estuasunak,  
biok Adanen trajea gendun,  
nik eta nere lagunak.  
Patrikararik ez du izaten  
erroparikan ez dunak,  
jantzitzen badu naiko lana or  
nereak ostu ditunak.

*Seb.-*

Getaritikan Zumai aldera  
kotxeak ziraden bakan,  
eta beatza luzaturikan  
biok egonak gera an.  
Alako baten norbait gelditu  
borondatetsuan plantan,  
asientuan ni jarri nau ta  
Lazkao-Txiki seaskan.

*Laz.-*

Ola ez itzezin ez dadukagu  
oinbeste diferentzi ta,  
au da gizona arrotutzea  
bein arrotutzen asita!  
Arritu naiz ni au ikustean  
traste danak erantzita:  
soiñean ez zun ezertxo eta  
pasamontaña jantzita.

*Seb.-*

Matrimonio bat errukitu,  
gu ala gaitu ikusi;  
erroparikan ez genduen da  
egongo giñan itxusi.  
Ni sillan eta Lazkao-Txiki  
seaskan etzan arazi,  
aurra bezela jantzi digute  
bere pañal eta guzi.

Laz.-

Kotxean ez zan seaskarikan,  
 zer aiz esaten asia?  
 Zezen antzean onek egin du  
 egundaiñoako grazia.  
 Ez da damutu ango andrea  
 ni era artan ikusia,  
 anakak daduzkat motz xamarrek nik  
 baiña ez naiz itxusia.

Seb.-

Bokadillorik batere gabe  
 gu itxas ertzera juan,  
 zelebre giñan kotxea eta  
 erropak kendutakuan.  
 Lazkao-Txikik ere jatena  
 gero're zuan goguan,  
 titiak kolpe egiten zion,  
 nunbait goseak zeguan.

Laz.-

Nere lagun au aundia baiña  
 aundia bezin motela.  
 pentsatu gero guardak ere  
 gaizki artua dutela.  
 Ain baizetorren beda dagola  
 malkoak zerioela,  
 tanganillua ipiñitako  
 zakur gandul bat bezela.

Seb.-

Beraz kotxean sartu gera ta  
 an sortu da zalaparta,  
 onek bazuen goseak dagon  
 ume txikiaren planta.  
 Andrezkoari kolpe ta kolpe  
 onek eman dion lata!  
 Konpletatzeko txupetetxo bat  
 besterik ez zuen falta.

## BI MEDIKU ETA GAIXOA

Ordizia, 1985-IX.

Gaia: Zu, Lazkao-Txiki, osasunez gaixo zaude. Garmendia dezu kabezerako medikua. Lopa-tegi, berriz, mediku naturista.

*Laz.-*

Gaixo dagoen pertsona batek  
bein e ez du atsegiñik,  
medikua ta kuranderoa  
jarri nai ditut jakiñik.  
Gauetan lorik ezin egin det  
eta etzait joaten miñik,  
beste aldetik oso gaizki naiz  
oiñez ibili eziñik.

*Gar.-*

Lazkao-Txiki, zure osasuna  
dago naiko errenduta,  
ta zu eztago sendatutzerik  
botika batzuk artuta.  
Aspaldin geiegi dabilzkizu  
zigarroa ta zurruta,  
laister zerade gizon egiña  
bi oriek baztertuta.

*Lop.-*

Itxura danez bronkioetan  
dituzu gauza estuak,  
laguntasuna merezi luke  
olako mutil prestuak.  
Tabako eta bizioetan  
egiñagatik gastuak,  
kalte guztiak kendu oi ditu  
nik daukadan enplastuak.

*Laz.-*

Medikua ta sendagillea,  
zertan zaudete orrela?  
Nik uste nuen etortzerako  
geiago zekizutela.  
Kuranderoak ezer ez daki  
ta medikua motela,  
beatzi urte pasatu ditut  
ezer erre ez detela.

*Gar.-*

Zure bronkiok lasai daudela  
nik ez dadukat usterik,  
ta ezer erre ez dezula're  
nik ez daukat sinisterik.  
Nere esanak bete itzazu,  
jarriko zera gazterik;  
kuranderuak ez dizu egingo  
dirua kendu besterik.

*Lop.-*

Dirua kentzen mediku ori  
berori dezu aparta,  
medizina asko saldu naiean  
ditu ainbat zalaparta.  
Ni erretzaille porrokatua  
ta osasunik ez falta,  
zuk e puro bat erre ezazu  
gauza naturala da ta.

*Laz.-*

Kuranderoak nola sendatu  
belarrikan ez dago ta?  
Botikan berriz edozer eman-  
da're etzaio inporta.  
Gerritik bera ederki nago,  
andik gora nago jota,  
lunbago izango ote dan ere  
ni nago oin pentsatuta.

*Gar.-*

Zuk akatsikan ez dezu izan,  
ez, illeroko kuotan,  
orregatikan pozez beterik  
gaur nago kuarto ontan.  
Beti jan garbia jan zazu ta  
ordu asko pasa lotan,  
eta nik sendatuko baitzaitut  
iñork sendatutzekotan.

*Lop.-*

Medikuana joandakoak  
or dabiltz bizi eziñik,  
oiengandikan ez da sendatzen  
bein artutzen degun griñik.  
Eta belarrik ez badet ere  
zuk ezazu artu miñik,  
lurrakin ere enplatu onak  
egiten ondo dakit nik.

## LEGORTEA DALA BIDE

Oñati, 1985-X-4.

Gaia: Imanol Lazkano aguazilla degu; eta alkatearen aginduz, legortea dala bide, or doa ura neurrian erabiltzen duan edo ez bazterra begiratzer. Ondo begiratzen ari dala, or ikusten du bere etxe atzean piztzean plasta-plasta Lazkao-Txiki.

*Ima.-*

Olakorikan ez zait pasatu  
sekulan orain artean,  
eta ez dakit asmako dedan  
gauzak garbi esatean.  
Bañatu gabe zegon gutxiñez  
au amabost bat urtean,  
ta noiz asiko bañatutzen da  
asi zaigu legortean.

*Laz.-*

Lazkao-Txikintzat noiznai aski da  
dagoen putzu txikiña,  
legorte ontan etorri baizait  
neri preskatu eziña.  
Zuk ere obego zenduke zerbait  
nunbait bustiko baziña,  
ala ez zenduke botako orain  
daukazun usai zikiña.

*Ima.-*

Ala ta guztiz arrazoiakin  
azaldu nai luke bera,  
negargarria ez ote degu  
gaur gizon onen jarrera?  
Dokumentuak bistan ditula  
lengo oitura zarrera,  
tximu-kaiolan eramango det  
alkatearen aurrera.

*Laz.-*

Ezjakin batek beti libre du  
nunai esatea dana,  
tximu naizela esanez, orra,  
etorri da neregana.  
Zeu tximu aundigua zerala  
ala nago antzemana,  
zirkutik iges egin al dezu  
olako orangutana?

*Ima.-*

Zuk egin dezun astakeririk  
ezin diteke berdindu,  
au ikusita errizaiña ni  
nola ez biotzez mindu?  
Itxasertzera juan zaite ta  
zikiñetatik arindu,  
baiñan erriak edan bear dun  
ur garbirik ez zikindu.

*Laz.-*

Ori esateko lenen bertsoetik  
asi bear zendun legez,  
analfabeto zeran ezker  
faltatutzen dezu errez.  
Zergatik mesede ta faborez  
ez didazu eskatu aurrez?  
Errespetoa galdu dezu ta  
lotsarik ere baterez.



**BI ABERTZALE, BI ALDERDI**

Tolosa, 1985-X-12.

Lopategi eta Lazkao-Txiki.

Gaia: bi lagun, bi euskaltzale, bi abertzale zerate; baiña partidu ezberdinetan. Sarritan elkarren aurka.

*Lop.-*

Abertzale ta euskaltzaleok  
denok batasun-premiñez,  
Lazkao-Txiki lagun bezela  
artuko nuke atsegiñez.  
Bi partidutan jarri gaituzte  
elkar ulertu eziñez,  
Gora Euskadi kantatzen degu  
baiña duoa egiñez.

*Laz.-*

Bi abertzale, biak lagunak,  
biak puskatu rik triste,  
baiña abertzale ez geradenik  
iñork ez dezala uste.  
Orregaitikan eginkizuna  
zintzo bear degu bete,  
geronek ezer ez dakigula  
Madrildik austen gaituzte.

*Lop.-*

Ara begira jarri ezkerro  
ez da etortzen ordainik,  
sentimentutan biok berdiñak  
mantentzen gera oraindik.  
Bat errailetan eta bestea  
karreteratik joanik,  
meta berdiña billatzen degu  
Lazkao-Txiki eta nik.

*Laz.-*

Biok euskaldun puntu danetan  
naiz ta batera ez gauden,  
gauz batzuetan bata besteai  
egiten diogu kalte.  
Baiñan alare, konprendi zak ik,  
izanagatik bi talde,  
egingo dana egin dezagun  
Euskal-Erriaren alde.

*Lop.-*

Aizeak dantzan erabiltzen du  
aidean doan orbela,  
ez det pentsatzen Lazkao-Txiki  
kasu ortan dagoela.  
Kontra jarri nai gaituzte baiña  
guk ez degu nai orrela,  
ez degu aztu askatasuna  
batasunez datorrela.

*Laz.-*

Esan bearra esan zaiogun  
biok arpegiz arpegi,  
sarri bezela ibili gabe  
or biok setan geiegi.  
Arrazoietan gabiltzanean  
bata besteari adi,  
ori egiten baldin badegu  
askatuko da Euskadi.

## EZKONTZAREN LANAK

Zegama, 1985-XI-10.

Iñaxio Mari Atxukaroren omenez.

Gaia: Agirre eta Lazkao-Txiki, gai librean.

*Agi.-*

Ezkondu gabe geldituzia  
ez da milagro orrela,  
neskatxak moja juan baziran  
emen dioten bezela.  
Baiña pentsatu atzeko aldetik  
oraintxen esan duela:  
oraindik ere polit-polit bat  
pozik artuko lukela.

*Laz.-*

Nik ere entzun izan det beti  
amaika orren antzeko,  
denborarikan ez genun izan  
guk emazte bat artzeko.  
Zer motibo da nere baitako  
beti gauz ortan sartzeko?  
Oraian daukagu premi geiena  
ankak ondo berotzeko.

*Agi.-*

Beti zertako egingo degu  
guk jardunaldi tristea?  
Zuk e onezkero zail izango'ezu  
ezkontzara irixtea.  
Eta gauza bat desio eta  
gerta liteke bestea:  
berotzeko asmoz artuta ere  
tokatutzen da oztea.

*Laz.-*

Ezkondata're ez dadukat nik  
obeki bizi usterik;  
zartutakoan pereza asko,  
ez genun egin gazterik.  
Baiñan zu egon zindezke lasai,  
garbi aitortuko det nik,  
pentsatuta're ez baitu bear  
ordu erdi bat besterik.

*Agi.-*

Onek dionez, ordu erdi baten  
ezkondu leike txukun da,  
denborarikan ez dala ez esan,  
oinbeste izango zendun da.  
Ai, Joxe Migel, zure denbora  
naikoa aurrera jun da,  
batekin zu ezin konformatu  
guziak maite ziñun da.

*Laz.-*

Ezkondu eta komeri asko,  
bakardadia tristia;  
nolanai ere zaila da lortzen  
batek nai duen guztia.  
Oraindik ere leitekena da  
artutzia emazia,  
udazkenean ere goxoa  
izaten da eguzkia.

Agi.-

Gaur ere emen ikusten dira  
majiñatxo bat arpegi,  
itxaropena badaukazu ta  
norbaiten atzetik segi.  
Baiña, zu, lagun, ez da komeni  
luzatutzerik geiegi,  
gu ixilduta asiko dira  
Lasarte ta Lopategi.

Laz.-

Iru edo launa bertsorekin  
gure denbora jua da,  
zeozer esaten jardun gera  
ez genekin zer esan da.  
Ta, Lopategi eta Lasarte,  
orain egin zazue txanda,  
alperkerian or egon gabe  
eserita edo etzanda.



Aralarko San Migelen. Ezkerretik Zutik: Alejandro Azpiroz,  
Julian Albisu eta Lazkao-Txiki.

## “¡TE QUIERO, JOSE MIGUEL!”

Zarautz, 1985-XII-13.

Lazkao-Txiki eta Egaña.

Gaia: Lazkao-Txikik mutilzar fama dik. Baiña or atean, biok izketan zeundetela, aldamenetik “¡Te quiero, Jose Miguel!” esan zioz neska batek.

*Ega.-*

Nexka kontuan sortutzen zaigu  
ez dakit zenbat endrero,  
Joxe Migelek nola baditun  
irurogei urte edo.  
Nexka gazte bat urreratu ta  
or esan dio: “*Te quiero*”,  
Amaika gauza entzungo zitun  
gaztea izan ezkeru.

*Laz.-*

Erderarikan ez nun ikasi  
gaztea nintzadenean,  
ezin ikasiz an pasatu nun  
nik soldaduska danean.  
Neskatxa batek “*Te quiero*” zion  
atean aldamenean,  
tea nai zula ulertu diot  
ori esan duanean.

*Ega.-*

Aldrebeskeri latza bota du  
bere lenengo pausuan,  
tabernarikan ez da egongo  
neskatxa orren auzuan.  
Katillutxo bat ta kutzarilla  
ekarri ditu besuan,  
zure partetik goxatutzeko  
azukrea naiko zuan.

*Laz.-*

Neskatxa ori pintatu arte  
izan liteke tristia,  
eta pinturan ikusi diot  
bere balio guztia.  
Nik ejemplo bat zarra naiz eta  
ematen dizut, gaztia:  
“*Te quiero*” esaten duten oiekin  
kontuz ibili zaitia.

*Ega.-*

Bere inguruan beti sortzen da  
makiña bat eskandalu,  
eskuak dauzka pizkor xamarrak  
ta mingaiña berriz zalu.  
Beste erara adierazteko  
zera txiki bezain alu,  
ainbat konkista egingo zitun  
Egañan sasoia balu.

*Laz.-*

Leno gaztea ni're izana  
gaur Egaña dagon gisan,  
pentsatu gero beste batzuek  
ere gaur nola dabilizan.  
Bakoitzak destino ezberdiña  
nola daukagun bizitzan,  
naiko lotsati nintzan ni eta  
mutilzar gelditu nintzan.

*Ega.* -

Lazkao-Txikiren izakera au  
nexkeri asko atsegin,  
baiñan alare intentu danak  
omen dituzu utsegin.  
Nik esan nion neskatxa orri:  
“Kariño osoz itzegin,  
Lazkao aldeko mutilzar ori  
pitin bat alaitu dedin”.

*Laz.* -

Bakoitza bera dan bezela ta  
zertarako jardun teman?  
Zuk esan zendun akaso baiña  
neretzako izan etzan.  
Eta orregaitik berriro ere  
nola lagun onak geran,  
bizarra uzten asi bear det  
ea billatutzen dedan.

## ZARAGI ARDOA

Zarautz, 1985-XII-15.

Gaia: Lasartek Lazkao-Txikiri zagi ardoa saldu dio.

*Laz.-*

Nere lagun au beti izan da  
umilla eta apala,  
lagun urkoa serbitzen ere  
jatorra eta leiala.  
Zagi ardo bat eskuratu dit  
eskatu ta bereala,  
lenen tragan igerri diot  
Riojan egiña ez dala.

*Las.-*

Lazkao-Txiki, eskuan dezu  
ardo goxo ta epela,  
sinistu zazu zuretzako nik  
propio egin detela.  
Zagi ardoa saldua dizut  
gizon jatorrak bezela,  
jakin ezazu ardozaletan  
nerez naparra naizela.

*Laz.-*

Zagia ere erdi ustua,  
ez du ekarri gaiñezka;  
bapo pagatu eta ondoren  
darabilzkit milla kezka.  
Izanez ere ardo onena  
bataiatutzen errez-ta,  
eta, Lasarte, ardo ontatik  
mozkortu bildurrik ezta.

*Las.-*

Aspalditxoan ez nuen jaso  
olain arrazoi treberik,  
Lasartek ez du orain artean  
baztertu gizalegerik.  
Iñola ezin zenezake zuk  
billatu ardo oberik,  
zeruan ere ez baida sartzen  
bataiorikan gaberik.

*Laz.-*

Alde batera badaukazu zuk  
santu umillen itxura,  
ni bezelaxe oso altua  
gaiñera etzaude pisura.  
Zagi ardoa bataiatuta  
katolikuen modura,  
aurten egin dun legorteakin  
zuk nun billatu dezu ura?

*Las.-*

Ardozalea zera zerez da  
laister bear zaitut ase,  
edarietan izaten dira  
emen onenbeste klase.  
Zaragi ortan zer gertatzen dan  
esango dizut belaxe:  
dagola bera argal xamarra  
nagusia bezelaxe.

Laz.-

Gure Lasarte ardoa saltzen  
nola atrebitu ote da?  
Negoziante jartzen asia  
dago urtetik urtera.  
Nik abixu bat eman nai dizut  
zimur baidaukat kartera:  
zenbat dan esan da ordainduko det  
emendik illabetera.

Las.-

Emen ez gera izketan asi  
prezioen gora-beran,  
ondo gogoan artu ezazu  
nik orain zer esan dedan:  
ardo ederra zagian dezu  
zuk edateko aukeran,  
ortik piska bat txupatu zazu  
ea meioratzen zeran.

Laz.-

Len esan dizut zeuk'e ez dezu  
nik dedan ainbeste pixu,  
zer diferentzi dagon biotan  
ederki asko dakizu.  
Eta ardo au galdetzen dizut  
nork zuri emana dizu?  
Zeuk txanpaina edaten dezu ta  
ardoa saldutzen dezu.

Las.-

Nere ardoa, Lazkao-Txiki,  
det nik etxean egiña;  
erabakia emango dizut,  
nere lagun atsegiña.  
Zartzerako komeniko zaizu  
olako edari bat piña,  
obe zenduen lendikan ortik  
edaten asi baziña.

## IÑUDEA ETA AURRA

Ernani, 1985-XII-22.

Gaia: Garai batean asko egiten zan gauza omen zan; norberak modurik etzualako-edo, beintzat bere aurra beste emakume bati utzi, bularrean azi zezan, iñude. Kontua egin dezagun zu, Lazkao-Txiki, Lasartek azi zaitula; Lasarte dala zure amaordea, eta gaur dator zure egitazko ama zure billa.

*Las.-*

Badakizute nola naizen ni  
emen iñude izana,  
eta, aurtxoa, gogoan artu  
biazu nere esana:  
nik uste nuen ni ote nintzan  
kasik, aurra, zure ama,  
baiña ikusten det zure amatxo  
lendikan beste bat zana.

*Laz.-*

Beste ama bat al dator bada  
emendik eramatera?  
Ara aurtxoai uste gabetan  
etorri zaion galera.  
Nik galdetzen det: beste amarik  
iñun neretzat ote da?  
Besterik ez det ezagututzen,  
neretzat ama zu zera.

*Las.-*

Umezurtz ziñan da egin zendun  
alako eskakizuna;  
zu azitzea izan zan, aurra,  
artu nun asmakizuna.  
Ikusten dezu zure amatxo  
orain agertu zaizuna,  
baiña beiñere etzazu aztu  
bularra eman zizuna.

*Laz.-*

Zurekin azten izango det nik  
nere denborako lana,  
naizta etorri beste ama bat  
egun ontan neregana.  
Zu zera nere maitea eta  
titi goxoa emana,  
bere aurtxoa uzten duena  
ez da egiazko ama.

*Las.-*

Amatxo baten eginkizuna  
ustez bete det munduan,  
eskerrik asko, aur maitea, zuk  
ori dezula goguan.  
Zuk bear zendun bular goxoa  
zegoan nere kolkuan,  
eta nik ere ematen nizun  
nerea ziñalakuan.

*Laz.-*

Ta magalean kantatu dezu  
orrenbeste kantu goxo,  
bularra artu ta zure ondoan  
pozik bizi nintzan oso.  
Lengo ama ark utzi ninduen  
eta zuk niñuzun jaso,  
biotz-biotzez millaka esker,  
nere egizko amatxo.



*Las.-*

Eskerrik asko, eskertu nazu  
biotza bete-betea;  
berriro ere gu alkartuko  
gera egunen batean.  
Munduan da bestela zeruan  
ni emendikan joatean,  
beti zure zai an egongo naiz  
zu ara joan artean.

*Laz.-*

Orain nere ama legor orrek  
narama bere etxera,  
orain artean biok batean  
pozik ibili baigera.  
Baiña luzaro bizi banaiz ta  
kontuak ongi atera,  
bear dezunaz lagun eingo'izut  
beartzen baldin bazera.

## DOMADOREA ETA LEGOIA

Zaldibi, 1986-III-13.

Gaia: Lazkao-Txiki, zirku bateko domadorea; eta Mitxelena, legoia.

*Laz.-*

Egia da, bai, zirkuan gaude  
eguardi ontan benetan,  
Lazkao-Txiki ibili oi da  
oiek domatu lanetan.  
Legoi aundi bat bistan dezute  
nere aldamenez bertan,  
probatutzera aстера nua  
ea domatutzen detan.

*Mit.-*

Orrek uste du or nik beteko  
detela onen agindua,  
ainbat alditan gogor asten da  
ta nago pixkat mindua.  
Legoi zar auek euk dakikena  
indar asko zaukigu, ba,  
gaur e obe dek kontuz ibili  
or daukaken latigua.

*Laz.-*

Nere ondoko legoi aundi au  
okelaz ederki dago,  
pizti oetan argalagoak  
baira bat baiño geiago.  
Gauza batekin peligro gabe  
segurantzi osoz nago:  
eskatutzen baldin bada're  
ez da urrutira joango.

*Mit.-*

Legoi onakin abuso pixkat  
ibilitzen du askotan,  
baiña orain duten domadore au  
ez daukat oso gogotan.  
Askotan neuri joka asten zait  
lasai nagonian lotan,  
amorraizitzen naun egunian  
jango det bi mokadotan.

*Laz.-*

Nere legoia, zer ari zera  
disparateak esaten?  
Pistola ere nerekin daukat  
poltxiko barruan emen.  
Eta legoiak gose aundirik  
daukanik ez du ematen,  
naiko jandako legoi gizenak  
ez du pertsonarik jaten.

*Mit.-*

Domadoria, ez didazu, ba,  
gaur neri joko adarrik;  
esan nai zendun ez daukatela  
nik nonbait gorputz igarrik.  
Baiña daukaten apetituak  
beti zerbait e bear dik,  
ta au jateko ez dago noski  
gose aundian bearrik.

*Laz.-*

Arazoi ori nerontezako  
alde zan lendabiziko,  
beste aldetik mutil txikiak  
ez ditu bere graziko.  
Nazkatu eta geldi zintezke  
zere denbora guziko,  
pentsaturik ni janda ez dezula  
askorik irabaziko.

*Mit.-*

Askotan jango nuke pozikan  
eta egin bear barau,  
animaliak era guztian  
arrisku ori badaukau.  
Baldin-da nere amorro txarrez  
nik jaten baldin badet au,  
igoal gero besten batek or  
pistolarekin ilko nau.

*Laz.-*

Legoi guztiak purrustadaka  
izaten dute asera,  
eta au ere ala asten da  
bere lagunen antzera.  
Baiña legoia aundia baiña  
oso gaiztoa etzera,  
latigo baten otsa entzunda  
bildurrez gelditzen zera.

*Mit.-*

Zuk aspalditik ondo dakizu  
legoi aundi onen berri,  
gorputz aundia dadukat eta  
beti gose ta egarri.  
Maitasun on bat artu zaiogun  
al baldin bada elkarri,  
latigo txar oi bazartu eta  
mokadu onak ekarri.

*Laz.-*

Nagusi jaunak bildur asko du  
au ondo gobernatzeko,  
ez daduzkagu zirku batean  
iru bat onen antzeko.  
Bein Indiatik ekarri zuten  
ta zirkuaren kalteko,  
emengo astoak gutxitxo dira  
legoi aundi onek jateko.

*Mit.-*

Gure legoi ta goraber oiei  
eman dizkagu palizak,  
eta, laneko etorri aizen  
puntu jartzaille, adi zak:  
erorri ere lan pixkat noski  
egitia komeni zak,  
lengo gai ori bukatu digu  
eta berri bat jarri zak.

## MUTILZAR ONDO BIZITZEN AL DA?

Aia, 1986-VIII-7.

Gaia: Gaur Peñagarikano ez dakit etsi samar ez ote dabillen, eta Joxe Migeli lentxeago egin dio galdera: "Mutilzar ondo bizitzen al da?"

*Laz.-*

Nere laguna, i ere beraz  
ezkondutzeko asmuhan,  
gaztea aiz ta gauz ori beti  
edukiko dek goguan.  
Ezkondu baiño arrimatzea  
askoz ere obe uan,  
edo bestela gelditu adi  
Lazkao-Txikiren moduan.

*Peñ.-*

Galdetu dizut mutilzartuta  
zu zer moduz bizi zeran,  
ta erantzuna eman didazu  
orain esango dan eran.  
Bazkaia presta bear izaten dit  
ta zapatai betuna eman,  
baiñan ohea ez dek izaten  
beti andreakin teman.

*Laz.-*

Neri kontseju galdezka zera  
zu, gazte maitea, asi;  
ezkonduaren bizimodurik  
neuk ere ez nun ikasi.  
Baiña askotxo ikusten ditut  
bizi dirala itxusi,  
lagun txarrakin alkartzekotan  
obe da bakarrik bizi.

*Peñ.-*

Mutilzartuta bizi zera ta  
zuk badezu naiko lana,  
lenago esan det: Aiara dakart  
bat neregantzeko plana.  
Gure etxean nik nola detan  
seme alprojaren fama,  
zuetakon batek zuzentzen banau  
poztuko da nere ama.

*Laz.-*

Bakar-bakarrik naiz bizi naizen  
nola jantzi ta jateko,  
negu partean mutilzar batek  
beti beraren kalteko.  
Baiñan alare gaizki nagonik,  
laguna, ez dek usteko,  
fraile sartzea ere ona dek  
zerua irabazteko.

*Peñ.-*

Praile sartzea ona ote dan  
onek ala du esana,  
bere garaian au ere ez da  
sujeto zuzena izana.  
Lazkao-Txiki, esango dizut  
orain dadukaten plana:  
guk neskame bat artuko degu  
biontzako erdibana.

*Laz.-*

Ni inor gabe gelditu nintzan  
ez bainintzaden azi ta,  
nunbait ez nuen emakume bat  
emazterik merezi ta.  
Zuk ala geldi bearko dezu  
sudur ori ikusita,  
orrekin joko baidezu lenen  
musu ematen asita.



*Olaberri, Arrieta jatetxea. Lazkao-Txikiren ezker-eskubi: Julian Albisu eta Fermin Belamendia.*

## ARDAO BARIK

Bermeo, 1986-VIII-9.

Gaia: Azpillaga, parroko jauna; eta Lazkao-Txiki, sankristaua. Gaur, illuntzeko meza ematen joan danean parrokoa, ardao barik suertatu da.

*Azp.-*

Gaur illuntzean meza emateko bagenduen enkargua, ta sankristaua or azaldu da xeblebre eta arrua. Meza ematen asi bear da au da, au, deskalabrua! Sankristau jauna, jakin nai nuke: zeñek edan dau ardua?

*Laz.-*

Orko ardaua nork edan duen parroko jaunak badaki, jende aurrean lotsatzen da ta orain nola erabaki? Sankristaua da gizon txikia betidanik Lazkao-Txiki, berak goizean edan du eta sankristauari aitzaki.

*Azp.-*

Ta ala ere berba egin dau gizon zintzuaren gisan, baiña parrokian zer gertau dan atzo enteratu nintzan. Jakin dodanez atzo gabian mozkortuta ibili zan, egia esaten asi bear dezu ta ez guzurria izan.

*Laz.-*

Sankristau eta abade jauna au da ezin konpondua, baiña pentsatu nolakua dan jaun onen bizimodua: pulpitutikan diarka dabil engañatutzen mundua, ardaurik gabe ez da urteten olako zilborrondua.

*Azp.-*

Danok dakigu zer gertatu dan da ez ukatu iñola, ta orain amen sartu nai dauzku bere guzur edo bola. Zazpi botilla edan dituzu eta nik ez dakit nola, orain zerekin egin biar dot Jesukristoren odola?

*Laz.-*

Jesukristoren odol kontuan orain zertan emen asi? Abade baten izenik ere zuk ez zenduke merezi. Ardau zale ez dan abaderikan ez det bein ere ikusi, ordu erdi bat euneko lana tartean trago ta guzi.

## ZARAUZKO ONDARTZAN

Deba, 1986-IX-26.

Sebastian Lizaso eta Lazkao-Txiki.

Gaia: biak lur-barrukoak dira. Itxasoari bildur diote. Itxasorako plana egin dute, ordea; eta Zarauzko ondartzan or agertu dira biak: Lazkao-Txiki flotadore batekin, eta Sebastian *wind-surf*-eko ol batekin.

*Seb.-*

Lur barrukoentzat itxaso  
gerta liteke kalteko,  
bainan ez dakit gure asmorik  
Zarautzen degun beteko.  
Plana aspaldi egiña gendun  
ondartzara joateko.  
onek ur askon bearrik ez du  
igerian egiteko.

*Laz.-*

Badakizute, aunditasunez  
danak berdiñak ez gera;  
emen badago txiki-aundia  
berezitzeko aukera.  
Ur txikiakin ito ninteke  
sartutzen banaiz urpera,  
au berriz oiñez pasatuko da  
alde batetik bestera.

*Seb.-*

Onek asmoak aundiak zitun,  
bakarrik ez du kunplitu;  
ta legorrean zegoen arte  
ezin nuan errenditu.  
Txorkatillatik busti ordurako  
berriz kanpora abitu,  
geiago busti bear ez badek  
berriz etxean gelditu.

*Laz.-*

Ol kaskar bat du itxasorako,  
aundiarentzat zer gauzak!  
Nik dadukaten flotadore au  
iri ondo etorriko zak.  
Itxaso ortan ito bildurrik,  
Lizaso, ez al dek, aizak?  
Kargamentua artu ezakek  
bizarra bustitzen bazak.

*Seb.-*

Bizar da guzti moldatuko naiz,  
zu ez bildurtu nerekin;  
etorri aurrez zer pasako zan  
nere ustetan banekin:  
neskatxa batzuk ikusi ditu  
eta odolak irakin,  
flotadora're zulatu zaio  
eta badakit zerekin.

*Laz.-*

Flotadorea zulatu det nik,  
pentsatu nola nenguan;  
au ol batekin igerin dabil  
katxalotien moduan.  
Frantzisko Franco-k txikiagoak  
arrapatutzen zituan,  
ea au ere bildutzen duten  
ballena bat dalakuan.

## AITA-SEMEAK

Deba, 1986-IX-26.

Gaia: Lazkao-Txiki aitak ezin du Sarasua aurra seaskan ixildu arazi.

*Laz.-*

Aurtxo maitea, nunbaitetikan  
artzen ote dezu zuk min?  
Zer daukazun nik ezin det jakin,  
ezin baidezu itzegin.  
Seaskarekin ara ta onuntz  
zuri eman nairik atsegin,  
zure ondoan naukazu eta  
negarrik etzazu egin.

*Sar.-*

Neri oraingoz jaten baizikan  
ez didate erakutsi,  
kontu goxoak bear ditut nik  
eta itz zakarrak gutxi.  
Aita, albotik aldegin zazu,  
aman eskuetan utzi,  
ta zure esku zakar oiekin  
ez nazazula igurtzi.

*Laz.-*

Ama geiago maite dezula  
aitortutzen dezu egiz,  
eta ni zu zaintzen emen nago  
dedan maitasun geiegiz.  
Aita naiz eta naita're ezin  
gaur azi zindezket titiz,  
baiña etziñaden jaioko, seme,  
aitarik izan ez balitz.

*Sar.-*

Berorrek lana egin omen zun,  
orain eskatu ordaiña;  
begien bistan ementxe dauka  
alako aurtxo apaiña.  
Baiñan janaren egarriz dago  
oraintxe nere ezpaiña.  
aman esnea bear det orain,  
zure esnerik ez baiña.

*Laz.-*

Ama kalera joan da eta  
egon zaite pixka baten;  
ondo dakizu: gizonezkoak  
bularrik ez du izaten.  
Ez dakit gaurko aurtxo gazteak  
zuek nolakoak zeraten,  
jaio orduko asten zerate  
esker gaiztoak ematen.

*Sar.-*

Esne goxoa bear det orain  
edo papilla bestela;  
eskatzen dizut, aita, ondotik  
pixkat joan zaitezela.  
Une onetan kezka bat daukat  
erentzi txar bat bezela:  
aitaren kastan banator beintzat  
txikia izango naizela.



*Laz.-*

Txikiak ere gizon aundiak  
izaten dira askotan,  
nere aurtxo au munduratu da  
aundigi izan asmotan.  
Oain biberioia emango dizut  
eta jarri zaitetz lotan,  
naiko aundia egiña zaude  
petrala izatekotan.

*Sar.-*

Nere aitatzok esan duenak  
oraintxe egin dit argi:  
aundi petrala gauza txarra da,  
orain ikusi det garbi.  
Aurra azitzen aitak eginda  
ez dakit zenbat izerdi,  
bertsotan ola ikasten badet  
izango degu gaitzerdi.

## TABERNATIK IKASTOLETARA

Ugarte, Amezketan, 1986-X-11.  
Mendizabal eta Lazkao-Txiki:  
Gaia: bertsolaritza tabernatik ikastoletara.

*Men.-*

Ikastoletan jendea dabil  
gerozaz eta geiago,  
bearrezkoa ote dan ori  
ia pentsaturik nago.  
Gazte jendia bertsoen alde  
ia murgildurik dago,  
bertsoa zer dan ikas dezaten  
mozkortu baiño lenago.

*Laz.-*

Bertsolaritza taberna utsetan  
aditutzen genduen len,  
beti olako toki batean  
ez zuen ongi ematen.  
Ikastola ta eskoletara  
aterata dabil aurten,  
gure oitura zarra ikasten  
obeki jakin dezaten.

*Men.-*

Bide jator au ezin liteke  
emen ukatu iñola,  
garai batean bultzagarri zan  
sagardoa ta alkola.  
Sagardotegin ordezeko orain  
jarri zaigu ikastola,  
txikitatikan jaso dezaten  
euskaldunaren odola.

*Laz.-*

Ala nai degu baiñan oraindik  
segurantzirik ez dago,  
zertara doan gure bertsoa  
ez det ikusitzen klaro.  
Gazteak moda asko dute ta  
oraindik dudetan nago,  
askok *rock and rold* naiago dute  
bertsoa baiño geiago.

*Men.-*

Ikastoletan lantze orrekin  
ez da sortuko okerrik,  
da al degula ez zaie falta  
bultzatutzeko indarrik.  
Alegin ortan ez gera ari  
gaur egunean alperrik,  
jakin bezate bertsoa ez dala  
mozkor kontua bakarrik.

*Laz.-*

Badakit emen gazte talde bat  
aurrean badaukaguna,  
gazte bixi bat or ikusten det  
txintxo begiratzen duna.  
Al baldin bada gogoan artu  
Mendizabali entzuna,  
zuen eskuan uzten baidegu  
biarko etorkizuna.

**BASERRIKO BI ANAI**

Agiñeta, 1986-XI-9.

Gaia: Baserri bateko bi anai zerate. Lazkao-Txiki, sega bizkarrean duela doa lanera. Agirre, berriz, boligrafoa poltsikoan eta karpeta besapean.

*Laz.-*

Neke azpian daramakigu  
geren biziko denbora:  
ni baserrian gelditu gabe  
mendian bera ta gora:  
nere anaiak izan du beti  
nik dedan ainbat mejora;  
alde ederra ez al da, jaunak,  
segatik boligrafoa?

*Agi.-*

Zuk zeureakin zabilta eta  
nik neronek dedanetik,  
pentsatu zazu biok ere gu  
bizi gerala lanetik.  
Al dan guzia inguratzen det  
ematen didanetik,  
ta gu ez dago bizitzerikan  
baserriak emanetik.

*Laz.-*

Nere aldean jornal aundia  
irabazten du asteko,  
baiñan geiago nekatzen danik  
iñortxok ez du usteko.  
Pluma dutenak askotan dira  
nekazarien kalteko,  
ai zer alajak dauzkagun oek  
bestek egiña jateko!

*Agi.-*

Zuk diozunez, ni izango naiz  
nolabaiteko trastea:  
errexena da olako gauzak  
iñori esaten astea.  
Zuk diozunez, beti obeto  
ibiliko da bestea;  
ta zuretzat e libre daukazu  
egin gabe irabaztea.

*Laz.-*

Bistan nago ni: onen aldean  
ttiki ta argala nago;  
sega ori izan zala medio  
enintzan azi geiago.  
Tranpa pixka bat ura nastuta  
egiten genun lenago,  
oain urak geio balio du ta  
ori egiterik ez dago.

*Agi.-*

Zuk diozunez, zure bizitzan  
badezu naiko engaiñu;  
eta besteak txartzat botatzen  
badezu oinbeste enpeiñu.  
Terreno batzuk ote ta sasiz  
ta beste batzuek piñu,  
ez esan ainbat jaiotetxea  
maitatzen baldin baziñu.

*Laz.-*

Errukitutzen asi al zera  
ainbat sasi ikusita?  
Izanez ere gure etxea  
dago zikintzen asita.  
Txerria iltzen danez bakarrik  
egiten dezu bisita,  
bakaziotan etorri zaitetz  
boligrafoak utzita.

*Agi.-*

Uste al dezu nik ez detala  
agindu ori beteko?  
Ote ebaitzen e izango naiz ni  
anai auxe ainbesteko.  
Zu kapaz zera bestegatikan  
gauza txarrak esateko,  
ta sega orrek erdoi asko du  
langilea izateko.

## NORENGANA JOAN?

Agiñeta, 1986-XI-9.

Joxe Agirre eta Lazkao-Txiki.

Gaia: Agiñetako baserri geienak Zumarragakoak dira. Baiña Agiñeta bera Azkoitikoa da. Auzotarrak orain Zumarragarekin lotzea nai dute. Azkoitiko Udalak "sí, pero..." erantzuna eman du.

Agi.-

Beraz baillera ontan  
oinbeste istori,  
ikusi bearko dezute  
amaika komeri.  
Agindu eta eman ez  
ala esan dit neri,  
nere gazte denboran e  
alaxe zan ori.

Laz.-

Zuretzat ere orduan  
gauz ori izan da,  
probatuta zaudela  
nago antzemanda.  
Emen ere badabil  
amaika demanda,  
jendea ez dago pozik  
"bai pero" esanda.

Agi.-

Agindu ta eman ezak  
oinbeste jaleo,  
bazarretan sortutzen du  
amaika endredo.  
Itzegino giñoke  
geo ta gogorrigo,  
Azkoitiko alkatea  
gaur emen balego.

Laz.-

Gauzik errexena da  
baietz agintzea,  
ori askotan izan da  
eskatze luzea.  
Zuentzako kalte da  
ola ibiltzea,  
obeago dezute  
botoak biltzea.

Agi.-

Botaziuan ote leike  
ain garbi geratu?  
Orduan ere norbaitzuk  
igual minberatu.  
Azkoitia ez baldin bada  
itxuraz eratu,  
Zumarragan eskuta  
denak entregatu.

Laz.-

Nik ere esango det  
Agirren moduan,  
pentsatzen nago jendiak  
zer gauz naiko duan.  
Puskatzeko ordua  
datorren orduan,  
geiena ematen duenan-  
gana zuek juan.

## AUTESKUNDEEN AURREAN

Agiñeta, 1986-XI-9.

Gaia: Lazkao-Txiki Garaikoetxea izango da; Joxe Agirre, Ardantza. Auteskundeen aurrean gaude eta egin bakoitzak bere propaganda.

*Laz.-*

Alperrikan da propaganda ta  
alperrik balitz kontua,  
badakizute nola dabillen  
Euskadiko asuntua.  
Len e ni nintzan lendakari ta  
berriz aitatzera nua;  
Euskadi askatu nai badezute  
neretzat bota botua.

*Agi.-*

Zuri zeurea egin ezkeru  
batere etzaizu ajola,  
pentsatu zazu ni're erriak  
aukeratuta nagola.  
Baiñan Euskadi askatutzerik  
ez leike iritxi ola,  
nai danik ezin gentzake egin  
Madrillen morroi dagola.

*Laz.-*

Erriak etzaitu aukeratu,  
ez izan orren usterik;  
ta etzazula bein ere egin  
olako mitin tristerik.  
Alde batera enuen nai nik  
gaizki esaten asterik,  
zu etzera Artzalluk emandako  
monigote bat besterik.

*Agi.-*

Ondo dakigu lendakaritza  
lenbizi zuk zenduela,  
zuk utzi eta sinistu zazu  
ni aukeratu nindutela.  
Neuk aitortzen det guk propaganda  
txarra egiten deguela,  
erri guzia jarraika degu  
zer egin ez dakitela.

*Laz.-*

Nik esango det ein bear dana  
ta ar zazute gogora;  
ni lendakari jartzen banaiz or  
badaukazute mejora.  
Dirua emen geldituko da,  
ez da juango iñora;  
guardiazibillak bialduko ditut  
Euskal-Erritik kanpora.

*Agi.-*

Garaikotxea, etzazu ibili  
orrenbeste berriketa,  
oraindik ere badadukazu  
zuk gezurrezko kareta.  
Guardiazibillak naiago nuke  
nik ere emendik alde ta,  
baiña ez daukagu bialtzerikan  
berak agintzen dute ta.

*Laz.-*

Partidu dana puskatua da  
 zuek zeratela erruz,  
 ez joka izan bazenduten len  
 bista aundiz eta buruz.  
 Entzun zazu, zu, Ardantza jauna,  
 ta entzun zazu, Artzallus:  
 ia aspertzen asita gaude  
 diktadore ta kaskalluz.

*Agi.-*

Diktadorez ta kaskalluz beraz  
 asita zaude aspertzen,  
 ta zuk daukazun jokera ere  
 errex a dago ikusten.  
 Erten zenduan sailletik eta  
 ez dezu pakean uzten,  
 emen gizonak jakin bear du  
 galtzen eta irabazten.

*Laz.-*

Pentsa zazute gure saioa  
 benetakoa etzala,  
 pentsa zazute nere tokia  
 defendi bear nuala.  
 Ta pentsatzen det beste aldeko  
 norbait e egongo dala,  
 azken bertsoan eskatzen diot  
 arren barkatu dezala.

*Agi.-*

Joxe Migel, zuk esana dezu  
 nik pentsatutzen nuana,  
 ondo dakite oraingo gai au  
 guk brometan genduana.  
 Baiña ez daukagu intentziua  
 pikoetara juana,  
 nik ez dakit zein jarriko'an baiña  
 Euskadi maite duana.

## TXOFERRA ETA MONJA

Agiñeta, 1986-XI-9.

Gaia: Lazkao-Txiki, kotxean zoazela, *auto-stop* egin dizu Agirre monja onek.

Laz.-

*Auto-stop*a egiten  
nola zaude emen,  
pentsaturikan zenbat  
granuja gaur dauden?  
Badezu ainbat balore  
edo ainbat kemen,  
monjatxua, esan zazu  
ea nora zuazen.

Agi.-

Emendik aparte da  
komentua nere,  
eta *auto-stopean*  
jun oi naiz len ere.  
Tokia badaukazu ta  
ori ez da ezere,  
monja bati ein bear zaio  
oinbeste mesere.

Laz.-

Monjak itzegiten dit  
ondo ta dotore:  
ein bear diotela  
oinbeste fabore.  
Oraindik gazte zaude,  
oraindikan lore,  
nai badezu eingo dizut  
ori ta geio're.

Agi.-

Nere esana ez dezu  
zuk ondo artu ta,  
nai al dezu jartzea  
aurrera sartuta?  
Jaungoikoari nago  
ni entregatuta,  
ta ez nazu ipiñiko  
zuk endredatuta.

Laz.-

Jaungoikoakin zaude  
esposaturikan,  
gauz orren berri, monja,  
nekien lendikan.  
Gauean ostatura  
juanagatikan,  
arek ez dizu egingo  
gauza aundirikan.

Agi.-

Beste moduz itzeitea  
ez al dezu obe?  
Benetan egin nitzan  
Jaunaren mirabe.  
Izan banintz bizio  
gaizto oien jabe,  
ibili neiken gona  
auek jantzi gabe.



*Laz.-*

Gonak ez dituzu nai  
nolanaitan utzi,  
nunbait ez dadukazu  
errespeto gutxi.  
Gauz bat esango dizut  
nai bazu sinetsi:  
oirakoan erantzi  
ta egunez jantzi.

*Agi.-*

Monjari kendu nai dio  
zerbaitxo kreditu,  
gure gizon txiki au  
ezin errenditu.  
Txorakeirako asmuan  
ni ez naiz abitu,  
formal jua ber ez bazu  
seituan gelditu.

*Laz.-*

Azkar geldituzteko  
egiten dit galde,  
zerbait aitatu eta  
kezketan al zaude?  
Debalde eraman nai nun  
xentimorik gabe,  
ezer ez badezu eman nai  
emendikan alde!

*Agi.-*

Luzaro enaiz jardungo  
zurekin disputan,  
badakizu zer asmo  
neurekin ditutan.  
Ba al dakizu zer tankera  
ematen dizutan?  
Erre bearko dezula  
infernuko sutan.

## GASOLINERA BATEAN

Antzuola, 1986-XI-29.

Gaia: gasolinera batean, kartel batean, onela jartzen du idatzita: "Aizu, gizona: etxe onetan gasolina artzen badezu, neska gazte batek emango dizkizu bi musu". Lazkao-Txiki, ori ikusi eta gelditu egin da. Or dator Sebastian Lizaso, neskatxa, mangera artuta.

*Laz.-*

Bein bear ta billatu det  
toki atsegiña:  
gasolina ematen  
olako birjiña.  
Arpegi polita ta  
korputza're fiña,  
eman zaidazu bi musu  
eta gasoliña.

*Liz.-*

Mutilzarrak letreroa  
ikusi du garaiz,  
jakin balu au nigana  
emen litzake maiz.  
Naizta borondatez nagon  
ta arpegi alaiz,  
nun eman bear didazu  
makurtzen ez banaiz?

*Laz.-*

Krabelin maiatzekoa,  
bildurtu al zera,  
biok daukagulako  
oinbat gora-bera?  
Gasolina bota ta  
utz zazu mangera,  
tititan emango dizut  
makurtze'ez bazera.

*Liz.-*

Txikia da, badirudi  
gaur akolitua;  
pixka bat tentatzea  
ez da delitua.  
Mangerarekin negoen  
lendikan oitua,  
mutilzarra, nola dezu  
zuk depositua?

*Laz.-*

Neska gazte maite au,  
txoratuta nago,  
olakorikan ez det  
ikusi lenago.  
Musu eman didazu ta  
esango det klaro:  
zuk nai dezun depositua  
kargatuta dago.

*Liz.-*

Surtidorean zabiltza  
emen jolasean,  
zerbait egin naiean  
nere babesean.  
Etzerade egongo  
denbora luzean,  
ori ez dezu ustuko  
ordaindu ezean.

*Laz.-*

Neska polita dala  
 naiz esaten asi,  
 bestela ez dit egiten  
 orrenbeste grazi.  
 Nik santa sekula ez det  
 iñun e ikusi  
 bi titi nola ditunik  
 bizar eta guzi.

*Liz.-*

Mutilzarrak zabaldu nai  
 nere maratilla,  
 lotsarekin gorritu da  
 orain neskatilla.  
 Bizar ta guzti, dionez,  
 ni ez naiz abilla,  
 ta beti saiatzen dira  
 bizarraren billa.

*Laz.-*

Barkatu, baiña zuk dezu  
 ezin disimula,  
 zu neskatzat artzerik  
 ez dago sekula.  
 Pentsatzen det gizonan  
 itxura dezula,  
 obe dezu erakutsi  
 neri matrikula.

*Liz.-*

Orixe besterikan  
 ez genuen falta,  
 gasolina nai eta  
 daukan zalaparta!  
 Beste batena nuan  
 txiki au lagata,  
 altu ta dotore bat  
 etorria da ta.

## TXERRIA ERRETZEN

Zarautz, 1986-XII-14.

Gaia: Auzokoak zerate biok. Goizeko ordubiak aldera berebiziko sua ikusi dezu zuk, Joxe Miel, Otamendirenean. Joan zera eta Otamendi txerria erretzen, alajaina.

*Laz.-*

Nere baitako pentsatzen nuen:  
"Ez ote dago gauz onik!"  
Etxea erretzen ari ote zan  
ori pentsatzen nuen nik.  
Zer gertatu dan ikusitzea  
ez daukat batere penik,  
orain ederki konpon gindezke  
gu gibel preskua janik.

*Ota.-*

Ai, Joxe Miel, sua ikusi  
eta zu bildurtu zera,  
itxumustuan erdi jantzirik  
etorri zera onera.  
Egia esan naiko goizik zu  
eldua nere etxera,  
oraindikan nik gibelik nola  
ez diotan bate atera.

*Laz.-*

Zuk egin dezun azio ori  
tristea degu benetan,  
nola liteke gizona jardun  
goizeko ordubietan?  
Gauz ori bera Pernandok ere  
lenago ziguen eman,  
ori egin du odolkirikan  
gero partitu ez dezan.

*Ota.-*

Ai, Joxe Miel, zergatik eman  
auzuari amenazu?  
Txerri zarra nik il det aurrena  
ta gero eman diot su.  
Eta zuk berriz odolkiaren  
espero ori daukazu,  
anka oraindik mugitzen du ta  
pixka bat eutsi zaiozu.

*Laz.-*

Txerria nola sutan ipini  
onek dana il bitarte?  
Penitentzia animaliak  
eta neretzako kalte.  
Ordu oietan txerria iltzen  
ez det entzun orain arte,  
apetitua badauka baiña  
borondatea aparte.

*Ota.-*

Borondatea nik badadukat,  
ez zazu esan gezurra;  
baiña txerriak urdaia gutxi:  
azala eta ezurra.  
Aurrena kutxillua sartu ta  
gero suakin egurra,  
Bizkaiko gisan juango ote dan  
badaukat naiko beldurra.

*Laz.-*

Onek uste zun auzoetatik  
ez zutela ikusiko,  
gauza orixe pentsatu eta  
asi da lendabiziko.  
Nunbait odolkiak partitzea  
ez baidu bere graziko,  
onek dadukan borondatean  
ez gera asko aziko.

*Ota.-*

Bein bear eta oraintxen ere  
bota diguzu mardula,  
itxura danez, onek naikua  
ez zuen jango sekula.  
Nik pentsatzen nun txerri orrekin  
xexiña ona gendula,  
iruditzen zait gazitu gabe  
ederki jango degula.

## IGELTSEROA ETA ETXEKOANDREA

Zestoa, 1987-II-7.

Gaia: Lazkao-Txiki, etxeokoandrea; eta Sebastian Lizaso, igeltseroa. Etxekoandreak deituta, igeltseroa sukaldea zuritzen ari da, baldea, brotxa eta ixipu aundi bat artuta. Eta orra or: ixipu aundi ori su gaiñean dagoan eltzean sartzen dio etxeokoandreaki.

*Seb.-*

Etxekoandre onek deituta  
joan nintzaden lenguan,  
etxe artako tetxua ere  
zuritutzeko asmuan.  
Lapiko xar bat antxe zedukan  
fregaderaren onduan,  
deskuidatzea ez da milagro:  
ura bakarrik zeguan.

*Laz.-*

Igeltserua deskuidatu ta  
eltzean sartu alajaiña,  
gaur eguardian atera bear  
zaigu potaje bikaiña.  
Fameliak e nozituko du  
etxeokoandreak aiña,  
odolki on bat sartu obe zin  
gaur or ire brotxa ez baiña.

*Seb.-*

Zelebrea da etxeokoandreak  
atera dun zalaparta,  
uste ez arren zuen etxean  
gaurkoan menu aparta.  
Pintura zuri, brotxa illerik  
nolatan ez zaion falta,  
zuk gizonari eman zaiozu  
oilloan zopa dala ta.

*Laz.-*

Igeltsero onek erakusten du  
etxean ainbat meritu,  
tetxua nai zuen eta lurra  
askoz geiago zuritu.  
Gero ixipua eltzean sartu,  
nor ez liteke arritu?  
Okotza eta ixipua're  
biak berdiñak baiditu.

*Seb.-*

Bide ortatik segi ezkeru  
igeltseroa akabo,  
ni nor nintzaden ez al zekizun  
etorri baiño lenago?  
Etxekoandre au ikusita  
gauza bat pentsatuz nago:  
nere brotxakin lapiko danak  
zuritzerikan ez dago.

*Laz.-*

Iñork ez digu etxean jango  
gaur gure eguardiko janik,  
brotxa usaiez ez du izango,  
ez, olako gusto onik.  
Baiña geroko beste plan bat e  
pentsatuta dadukat nik:  
datorren urtez ez dadukazu  
onera etortzen lanik.

## AJEAK ERE AGERTZEN

Usurbil, 1987-VII-4.

Gaia: Joxe Miel, urteak joan ala ajeak ere agertzen dira: Kolesterola dala, azidoa dala, tentsioa, bronkioak, biotzak... Kontua da sendagille gazte onek, Euzkitzek, ogia, gatza, kafea eta, zer esanik ez, alkoola eta tabakoa kendu dtzkizula, bizitzen jarraitzekotan.

*Laz.-*

Illunak dira sendagillean  
agindu eta esanak,  
kendu digute erre bearra,  
kendu digute edanak.  
Bizi izateko, sendagillea,  
oek al dirade planak?  
Zer arraiotan kendu didazu  
lana ez besteko danak?

*Euz.-*

Zuregandikan ez nun espero  
ain erantzun itxusirik,  
ekarri dezun gizon itxura  
eta planta ikusirik.  
Zure gorputza zaindu ezazu  
rejimen ontan asirik,  
edo bestela ez dezu izango  
urte beteko bizirik.

*Laz.-*

Arrazoi dezu: zuk eman dezu  
lendik zendun iritzia,  
galeraziaz neri gustatzen  
zaidan gauza on guzia.  
Nik nai nukena len bezelaxe  
lagunekin ibiltzia,  
ori egiterik ez baldin badet  
kasik naiago iltzia.

*Euz.-*

Astakeria iruditzen zait  
albotik esan dezuna,  
rejimena da zure gorputzak  
bear duen erantzuna.  
Rejimen baten jarri bear det  
Lazkao-Txiki laguna,  
orretarako obeto dago  
len dana probatu duna.

*Laz.-*

Zenbait medikuk izan oi dute  
jakitia ainbat fama,  
baiñan uste det ez dagoela  
sinistatutzerik dana.  
Zuekgaitikan kanposantura  
askotxo da eramana,  
zu utzi eta laister joango naiz  
enplastero batengana.

*Euz.-*

Sasoi txukunik ez dezu eta  
or zaude oso tristerik,  
ikusten dezu zarragorikan  
sasoiko eta gazterik.  
Martxa onetan ez dezu izango  
aje zikiña besterik,  
onela beintzat ez zazu pentsa  
orko arriai eusterik.

*Laz.-*

Zure rejimen ori nago ni  
orain ezin sinisturik,  
ez ote dezu bear bezelako  
memori edo eskurik?  
Zedorri ere ain melar zaude  
eta ez dezu pisurik,  
nere ustetan ez dadukazu  
zuk sano zauden itxurik.

*Euz.-*

Erabat bistan dagoen gauzik  
ez dezazula ezkuta,  
sendagillea atakatzea  
da sortu dezun disputa.  
Besotan bate indarrik ez ta  
mutur dena gorrituta,  
orretxegatik kendu dizkizut  
tabakua ta txurruta.



## ANIMALIRIK GOGOZKOENA

Aia, 1987-VIII-7.

Lazkao-Txiki eta Joxe Agirre.

Gaia: bi auek animalien defentsan bertso ederrik asko kantatuak dira; baiña ez dakit bakoi-tzak zein izango duen animalirik gogozkoena.

*Laz.-*

Oso zailla da batek jakiten  
zein maite duen geiena,  
neri edozein animali iltze  
orrek ematen dit pena.  
Badakit milla eta millaka  
abere on badaudena,  
ala ta guztiz txakurra degu  
gure lagunik onena.

*Agi.-*

Beraz txakurra dala onena  
au da esan dezuana,  
eta nik beia artu nai nuke,  
ez det burutik juana.  
Nik aitortzen det bizia ere  
berak salbatu nauana,  
amak bularrik ez zualako  
ni mantendu ninduana.

*Laz.-*

Begira biok mundu onetan  
zer peskisatan gabiltzan,  
onek gutxi ta neretzat ere  
onek izan zuen gisan.  
Nere amatxo maitagarria  
zoritxarrez ura il zan,  
nik txakurrana edan nuen da  
txikia gelditu nitzan.

*Agi.-*

Edozein moduz sortutzen dira  
itzegiteko moduak,  
zakur esnea erateko zuk  
berak ziñuzen goguak.  
Amaika olako bota izan du  
Lazkao-Txikiren abuak,  
zakurrak ere izaten dira  
zu baiño astunaguak.

*Laz.-*

Ik burlatzako artu dek baiña  
jakin bear dek gero're,  
Erromak duen istori ori  
aitortuko dit dotore.  
Nere kaso ta okerraguak  
pasatu dituk leno're,  
otso esneaz azi ituen  
Romulo eta Remo're.

*Agi.-*

Nere bizitzan ez nuan entzun  
Txikiak gaur dioena,  
onen onduan ezjakiña naiz,  
orrek ematen dit pena.  
Beraz zakurrak esan litake  
bat defenditzen duena,  
baiña txarrera asi ezkeru  
ez da prendaik ederrena.

*Laz.-*

Nik esan diat txakurra dala  
gizonarentzat onena,  
jipoi galanta emanagaitik  
saludatutzen duena.  
Nai baldin badek ez zak sinistu  
baiñan egia dek dena:  
txakurra degu onena eta  
gizona berriz txarrena.

*Agi.-*

Gizona dala emen gaiztona  
nik ere uste det orrela,  
baiña pentsatu zakur utsetik  
gauz onik ez datorrela.  
Gosetuta ere ezin leike jan  
iñoiz zakurran okela,  
ta biar ere txekorrarena  
uste dek jango lukela.

*Laz.-*

Eztabaida bat nai ez degula  
Joxek eman digu emen,  
zailla dalako animala bat  
biren gustoko izaten.  
Zertan ai gaituk batak bestiai  
disparateak esaten?  
Bakoitza bedi bere arrazoiz  
pakean geldi gaitezen.

## TXAKURREN OTELA

Bilbo, 1987-VIII-22.

Gaia: Telleria gizon aberatsa da, eta oporretara joan asmotan da. Bere txakurra, Lazkao-Txiki, txakurren otelean utzi nai du. Bosteun pezeta da eguneko mantenua, atzoko egunkariaren arabera.

Tel.-

Arratoietan oso ona da,  
Txiki daduka izena;  
auxen da gure gertakaria  
txakur nagusi batena.  
Otel batean utzi bearrak  
neri ematen dit pena;  
bahiña berriro itzuliko naiz,  
eduki itxaropena.

Laz.-

Zu bazoaz ta utzitzen nauzu  
aztu baziña bezela,  
sinista zazu ni zure lagun  
txintxo ta ona naizela.  
Ez zait gustatzen prezio ortan  
bosteun peztako otela,  
diru orrekin izango al det  
nik bear ainbat okela?

Tel.-

Askoren gisan nik agoztuan  
nituen oporrak artu,  
eta txakurra nunbait sartzea  
nola nintzaden beartu.  
Dirudienez nere txakurrak  
ori ez digu onartu,  
kalean utzi ez dedanean  
egon liteke kontentu.

Laz.-

Ni utzi naute besten etxean,  
bera badoa igasi;  
zure etxea nik zaindutzen det,  
ori pentsatu lenbizi.  
Ta otel orrek ez dit egiten  
zuk uste ainbeste grazi;  
nik ongi dakit: txakurra naiz ta  
burlarik ez det merezi.

Tel.-

Dirudienez zakur txikia  
senaz ez degu motela,  
onek kalean bete nai luke  
eginkizun da papela.  
Pertsona asko dabil kalean  
ta txakurrentzat otela,  
oso dotore biziko zera  
atzeritarrak bezela.

Laz.-

Berak joan dira oporretan da  
ni emen naiz azkenean,  
etenik gabe zure etxean  
ni aritu naiz lanean,  
bear zenduen tokietan da  
premian zegon danean;  
ankatik kozka egingo dizut  
berriro zatozenezan.

*Tel.-*

Ainbestekoa ez da okerra  
ta, txakurra, zaude lasai,  
agoztu aldean nik lantokitik  
nola artua detan jai.  
Izango dira txakur frantzesak,  
txakur inglesak ere bai,  
bizimodua txakurrentzako  
ez degu jarri nolanai.

*Laz.-*

Gauz oiek ola baldin badira  
otela ez nuke kalte,  
preso bezela sartzen nintzala  
lenbizitik nuen uste.  
Ainbeste txakur ingles, aleman,  
beren ubela eta kate;  
nik e dibertitu bear det zu  
andik zabiltzan bitarte.

**GAZI-GEZAK**

Ugarte, Amezketan, 1987-X-10.

Lopategi eta Lazkao-Txiki.

Gaia: auek dira taldetik bertsolaritzan urterik geien daramatenak. Konta bertsolaritzaren gazi-gezak.

*Lop.-*

Bertsolaritzak ere baditu  
zenbait pena eta samin,  
gaurko ejenplua kontatuko det  
errezago uler dedin:  
zortzitan irten Gernikan eta  
afaltzeko eldu ezin,  
bertsolarien jun-etorriak  
beti ez dira atsegin.

*Laz.-*

Bertsolaritza gauza alai bat  
dalakoan asko daude,  
gauzak bestela sinistatzea  
da guztiontzako obe.  
Naiz umore txar, naiz miñez izan,  
naiz kantatzeko ez trebe,  
amaika aldiz abitzen gera  
umore askorik gabe.

*Lop.-*

Ala ta guztiz bertso-kantua  
izaten degu guk maiten,  
baña esango det sarri askotan  
gurekin zer gerta leiken:  
erria pozik jarri nai eta  
bertso txar eskasak irten,  
ez dakizute orrelakoak  
zer pena ematen ditzen.

*Laz.-*

Bertsolaritzan tristetasunak  
bear badira atera,  
bein pasatako kaso bat orain  
banijoa esatera:  
nere amatxo maitea il da  
andikan bost egunera,  
negarra egin eta kantari  
juan nintzan erri batera.

*Lop.-*

Eta kantuan saiatu zan au  
biotz ori triste zela,  
bere erria serbitu nai ta  
nola jokatu bestela?  
Kasu tristeak sortu oi dira  
gu kantari gabiltzela,  
bertsoa sarri irtetzen zaigu  
parto estu bat bezela.

*Laz.-*

Gogorik gabe zenbait erritan  
guk artutzen degu parte,  
bañan badakit entzule askok  
biotzez gaitula maite.  
Ta ikusten det jendez beteta  
gaur nola dagon Ugarte,  
zuen serbitzura elduko gera  
gu gauza geran bitarte.

## DIRU BILLA

Tolosa, 1987-X-11.

Gaia: Joxe Migel, igande arratsalde batean diru premian arkitu eta Egaña *cajero automático* onengana joan zera.

*Laz.-*

Kaja ontara diruan billa  
Bankuan nola duten jai,  
baiña ikusten da emen dirurik  
ez da ertetzen nolana.  
Ni numeroa markatu eta  
noiz aterako ote dan zai,  
sartutzekoan ona da baiñan  
orain ez digu eman nai.

*Ega.-*

Ez pentsa gero eske guztia  
dezunikan balekua,  
arratsaldea izanagatik  
topatu digu lekua.  
Bost milla duro eskatzen ditu  
kolpetik, alajainkua,  
mutilzar batek ogei durokin  
badu beretzat naikua.

*Laz.-*

Mutilzar batek ez al du bear  
ezkondu batek ainbeste?  
Argi gorritan dauden neskatxak  
diru eskatzen digute.  
Zuek e berdin xamarrak emen  
artu bitartean parte,  
nagusia ta kaja, biok e  
berdin xamarrak zerate.

*Ega.-*

Ez naiz sentitzen zure andantzak  
emen juzgatutzeko gai,  
baiña bizitza daramakizu  
oso ondo eta alai.  
Illean zortzi sartzen dizkigu,  
ogei ta bost atera nai,  
matraillak ditu gorri-gorriak  
eta kartilla ere bai.

*Laz.-*

Lengo batian etorria naiz  
milloi erdi bat sartzera,  
zoritxarrean gaur jai da eta  
utsikan daukat kartera.  
Astelenean diru guztiak  
nik bear ditut atera,  
eta pozikan sartuko ditut  
an beste Banku batera,

*Ega.-*

Diru-mordo bat eskatu arren  
ez naiz askorik sustatu,  
ikusten danez argi gorridun  
etxeak oni gustatu.  
Gaur gauean e oietakon bat  
nai omen dezu dastatu,  
eskerrik asko bixitagatik  
ta osasunez gastatu.

**AJENTZIA BATEN BITARTEZ ELKARTU**

Donostia, 1987-X-25.

Gaia: biak ere soltero aspertuta bizi ziran, eta ajentzia baten bitartez elkartu dira gaur lenengo aldiz. Lazkao-Txiki, mutilla; eta Telleria, neska.

*Laz.-*

“Ezkondu zaitetz! Ezkondu zaitetz”  
entzuna nago frankotan;  
eta jakin det: negu txarra da  
aurten datorren negu ontan.  
Lenago kartaz ezagun giñan,  
adierazten det ortan;  
aurpegiz aurpegi gaur biltzen gera  
ezagutzeko asmotan.

*Tel.-*

Aspaldi ontan nola nebillen  
senar koxkor baten faltan,  
iragarki bat jarria nuen  
nik ere ajentzi batetan.  
Orain artean nere asmoak  
agertu nizkion kartan,  
baiñan nengoen zerbait geiago  
azalduko zan ustetan.

*Laz.-*

Txiki xamarra naizelako zu  
ez zaitetz oinbat kezkatu,  
eta geiago nere erru ez da  
ez baldin banaiz altxatu.  
Gizon geienak izango dute  
nik dedan ainbat pekatu,  
gizon koxkor bat nai zenuen da  
orra koxkorra billatu.

*Tel.-*

Orain artean jaso diranak  
ainbat berri eta mezu,  
ta ezagutu zaituen orrek  
nere eskeintza adizu:  
begiratuta irurogei bat  
urtekon antza daukazu,  
baiña senartzat artuko zaitut  
ondo serbitzen banazu.

*Laz.-*

Zarra naizela esan didazu  
zere arrazoi bizian,  
gazte ustetan gorde izan naiz  
orain arteko guzian.  
Baiñan alare gaitz erdi degu  
jausi banaiz ni grazian,  
urte kontua aztuko zaizu  
argiak itzalitizian.

*Tel.-*

Beraz urteak aurrera baiña  
bigun daduzka ezurrak,  
argiak danak itzali eta  
nai ditu jolas xamurrak.  
Negu gogorra datorrela ta  
ia artu nau bildurrak,  
biok batera pasako'itugu  
aurrerako urte apurrak.

*Laz.-*

Zu keja zera; baiña, neskatxa,  
ni pozik nago zurekin:  
gerria me ta alta xamarra,  
oberik topatu ezin.  
Bestela gerorako banuen  
nik lenago ainbat samin,  
ea urrengo nere ondorena  
argigua izan dedin.

*Tel.-*

Orain artean arrotz giñanak  
gaur alkarrentzat bisita,  
esan didazu lirain nagola  
eta neskatxa polita.  
Ta onek anak okerrak dauzka  
len astoan ibilita,  
orregatikan oeratu nai du  
gaur argiak itzalita.

*Laz.-*

Ankatara're fijatu zera  
emakumien antzera,  
geroago're izango dezu  
oik ikusteko aukera.  
Biontzako're tente egon baiño  
etzatea askoz obe da,  
bestela musu nik ezin eman  
makurtutzen ez bazera.



**LIMOSNA ESKE**

Markina, 1987-XII-8.

Gaia: Sebastian Lizaso langille bat da eta taberna batean angulak jaten ari da; eta langabezian dagoen Lazkao-Txiki tabernan sartzen da limosna eske.

*Seb.-*

Biotza badet bear duenai  
nai ainbeste laguntzeko,  
zu're premian izango zera  
emen ola eskatzeko.  
Gonbita kolpez egiten dizut  
zuk nerekin apaltzeko,  
sosik ez dizut iñoiz emango  
zurrutean gastatzeko.

*Laz.-*

Lenago ere ongi dakizu  
ni ez nagola mardula,  
ta badakizu pobre dagonak  
beti zerbait bear dula.  
Zu angulakin afaltzen zaude,  
ez det probatu sekula;  
etortzerako pentsatzen nuen  
zuk emango zidazula.

*Seb.-*

Zu ez bildurtu, aldamenetik  
ez zaitut iñoiz botako;  
bear duenai len egin diot  
makiñatxo bat olako.  
Beartsu oni jaten ematen  
nik alegindu bearco,  
nik ezer daukadan bitartean  
zuri ez zaizu faltako.

*Laz.-*

Eskerrik asko, lagun jatorra,  
asko estimatzen dizut nik,  
amabost milla kilo bakoitzak  
balio dula jakiñik.  
Gaur ikusten det: munduan iñor  
ere ez gera berdiñik;  
onek olako afaria ta  
gu ogia sortu eziñik.

*Seb.-*

Len esan dizut zuri laguntzen  
dadukatela afana;  
zer prezio dun nik ez nekien,  
iñork ez zidan esana.  
Bein bear eta gaurko onetan  
badadukazu zer jana,  
gutxieneko onartu zazu  
nik borondatez emana.

*Laz.-*

Zeure afaritik nai zidazuke  
gaurkoz nere tripa bete,  
eta goseak dabillan batek  
ori nolatan ez maite?  
Baiñan ondoren egun geiago,  
lagun ona, badatozte,  
naiago nuke lantoki on bat  
emango bazidazuke.

*Seb.-*

Langillea naiz, biar juan bear  
ogia irabaztera;  
ta zu eskean omen zabiltza  
leku batetik bestera.  
Gu euskaldunak lagunarentzat  
biotz gogorak ez gera,  
gure etxera etorri zaitte  
Gabonak igarotzera.

*Laz.-*

Ara azkenik Gabonetako  
egiñak ditugu planak,  
berrizko ez dizu kalte egingo  
gaur neri zerbait emanak.  
Naiago nuke zure berdiñak  
baldin balirake danak,  
gaur edo biar ordainduko'izu  
Belenen jaiotzen danak.

## MITXELENA ETA LEKUONA

Zumarraga, 1987-XII-12.

Gaia: bi gizon joan zaizkigu. Euskal-Errian lan aundia egindakoak. Muruak Mitxelenaren papera, eta Lazkao-Txiki Lekuonarena artuta, orain elkartu dira eta nola ikusten duten etorkizuna edo...

*Mur.-*

Il nintzan baiña gaizki utzirik  
dedanikan ez det uste,  
bizi artean saiatu nintzan  
kulturan alde ainbeste.  
Ni joan arren badira geio,  
iñor gero ez jarri triste;  
nire moduan edo obeto  
zuek saiatu zaitezte.

*Laz.-*

Euskal-Erria maite gendun da  
guk ezin utzi nolanai,  
berandu arte egondua naiz  
nere eriotzaren zai.  
Il nintzan baiña orain zerutik  
begiratutzen det alai:  
anima asko salbatu nuen,  
gure izkuntza ere bai.

*Mur.-*

Tamalez baiña ikusi nuen  
ainbat senide erderaz,  
kanpo erritik zapaltzailleak  
ekarri zuten berberaz.  
Orain elmuga garbi jator bat  
jarri nai dizuet beraz:  
eskola denak D eredu  
ta euskaldun denok euskeraz.

*Laz.-*

Ni pozik nago, euskal indarra  
oraindik ez dago juna;  
gauza ori zan munduan leno  
sarri pentsatzen genua.  
Emen daukagun gazte jendea  
ez dago oso illuna,  
au ikusita Euskal-Erriak  
badauka etorkizuna.

*Mur.-*

Gure lekutik saiatzen gera  
zuengana begiratzen,  
jardun ondoren ideal batzuk  
aliko ondoen serbitzen.  
Al badezute beti saiatu  
gaztediari laguntzen,  
eta euskera gure nortasun  
ikurra betiko zaintzen.

*Laz.-*

Mitxelena ta Manuel biak  
gu illikan gera aurten,  
Jainkoak ere bere tokian  
laguntasuna nai zuen.  
Ta kontseju bat gaztetxoeri  
astera nua ematen:  
guk jarri gendun bide ortatik  
ea jarraitzen zeraten.

## EUROPA BATUA

Azpeitia, 1987-XII-19.

Lazkao-Txiki eta Joxe Lizaso.

Gaia: aspaldi ontan, Europa dala eta ez dala, bada naiko gorabera; eta Euskal-Errian, nola baserritar ala arrantzale, naiko kezkatu. Nora goaz?

*Laz.-*

Europar sartu bear zala ta  
gu orain Europar gaude,  
ez nagusi ta morroi ere ez,  
itxaropenikan gabe.  
Aragia're jetxi zaigu ta  
esnia berriz debalde,  
Europa orrek guri egin digu  
mesede ainbeste kalte.

*Liz.-*

Ai, Joxe Miel, balio al du  
orain negarrez astiak?  
Nik bezelaxe esaten dute  
emen bata ta bestiak.  
Zaildu zaizkigu arrantza eta  
zuen esnia saltziak,  
alderdi ederra ekarri digu  
Europa ortan sartziak.

*Laz.-*

Europar sartu bear zala ta  
denok geunden ero-ero,  
izango zala zenbait lantoki  
edo ainbeste enpleo.  
Esnea ere igoko ez zanik  
zeiñek ez genun espero?  
Urak ere balio du ainbat  
botillan sartu ezkeru.

*Liz.-*

Nere laguntxo maitegarria,  
ez zazu egin negarrik,  
gure artean nola ez degun  
orain tristura bearrik.  
Europa ortan anka jartzeak  
badu alderdi ederrik,  
mejora pixkat badauka baiña  
ministruantzat bakarrik.

*Laz.-*

Euskal-Erriko baserritarrak  
alperrik gabiltz lanean,  
gure esnea bajatutzen da  
kanpotik sartzen danean.  
Nik pentsatzen nun izango zala  
Euskadirentzat onean,  
baiñan uste det sartu gerala  
Europako komunean.

*Liz.-*

Bejondaizula, Lazkao-Txiki,  
ori da itzegitea,  
zure biotza nabaitutzen det  
samintasunez betea.  
Europar berri nai duanak oin  
zuztarretik jakitea,  
gaur eguardian naikua zuan  
Iruñaraiño joatea.

Laz.-

Sartu giñaden komun ortatik  
ezin giñezke gu irten,  
eta bentajarik daukagunik  
ez du batere ematen.  
Emen askotxo gureztat ona  
dala ai dira esaten,  
baiña Euskadiko etorkizunik  
iñundik ez det ikusten.

Liz.-

Lazkao-Txiki, zure galdera  
azalduko det argira,  
esan liteke jarri zerala  
zu urrutira begira.  
Nik galdetzen det: arraiak eta  
gure okelak nun dira?  
Zer janik izaten ez badegu  
komunak alperrik dira.

Laz.-

Euskal-Erria galduko danik  
askok ez dute sinisten,  
baiña geroa oso illuna  
nik ikusitzen det emen.  
Fabrika danak itxitzen doaz  
eta baserriak usten,  
ta geroaren etorkizunik  
nik bate ez det ikusten.

Liz.-

Esaten dizut nekazaritzan  
ni nagola aspertuta,  
ni bezelaxe arrantzale au  
daukagu aserratuta.  
Aragirikan ezin det saldu  
aurrez ainbat nekatuta,  
berriro ere artzai nijua  
auntzak katetik artuta.

Laz.-

Baserritarra zenbait ordutan  
aritua dan lanean,  
*extra*-rik bate kobratu gabe  
oraindaiño bitartean.  
Euskera ere antxe gorde da  
lengo basarri xarrean,  
nun gorderikan izango al du  
ura galdutzen danean?

Liz.-

Lazkao-Txiki maitegarria,  
izan zaitela itzeko,  
mundu ontara sortu giñaden  
majiña sufritutzeko.  
Basarria ta euskera xarrai  
emen lagun bear zako,  
ez dezagula ezertxo utzi  
Europar konpondutzeko.

## AURTXOA NEGARREZ

Azpeitia, 1987-XII-19.

Gaia: zuek aita- semeak zerate. Lazkao-Txiki, aita; eta Murua, semea. Santa Luzi egunean, jostuna izaki, emaztea eta ama etxetik kanpo dabillela, or asten zaio aurtxoa negarrez. Nola ixildu?

*Mur.-*

Ama joan da eta  
martxa itxusia,  
etxeko gelditu da  
gizon eskasia.  
Iru ordu negarrez  
daramazkit ia,  
aita, ez ote zaude  
gortutzen asia?

*Laz.-*

Nere semea dago  
mimotan betia,  
neretzat mingarri da  
ola egotia.  
Negargarria dalako  
munduko izatia,  
txupetea artuta  
ixildu zaitia.

*Mur.-*

Orren gauza erreza  
nai zenduke gerta,  
gaindik egingo luke  
berak errieta.  
Aspalditxotik dauzkat  
atzeak erreta,  
paiñalak alda itzazu  
kaka egin det eta.

*Laz.-*

Ikusten det seme au  
xelebrea dala,  
mundura sortu genuen  
nola edo ala.  
Orain ordu erdi bat  
aldatu paiñala,  
eta zikindu zendun  
nik aldatu ala.

*Mur.-*

Beraz aldatu didazu  
lenoko orduan,  
baiña nik jarraitzen det  
lenoko moduan.  
Amaika zure antzeko  
badabil munduan,  
ez daki bere semeak  
atzea nun duan.

*Laz.-*

Atzea nun daukazun  
galdezka zaude zu,  
baiña, semea, ia  
nazkauta naukazu.  
Iru-lau aldiz kaka  
ere egin didazu,  
len nun zan ez nekin baiña  
erakusten dezu.

*Mur.-*

Negar egiten det nik,  
ezin det kantatu,  
baiña sesiorako  
beriala plantatu.  
Berriketa gutxikin  
atzea aldatu,  
bestela ezin dizut  
pakerik suertatu.

*Laz.-*

Aita emen daukazu  
txintxo eta prestu,  
zu mantendutze ori  
nik ezin erreztu.  
Titia ematea  
ez da nere esku,  
titia badaukat baiña  
esnerikan eztu.

*Mur.-*

Ainbeste agertzeko  
zu zer zera, aizu?  
Lenago biberioia  
agindu didazu.  
Baiña oraindik negarrez  
lertutzen naukazu,  
biberoi ta titia  
berdiñak daukazu.

## ATEA TRANKA EMONDA

Ondarroa, 1988-I-9.

Gaia: Sebastian Lizaso bertsolaria da, gaueko orduetan etxeratsen dana. Gaur etxeratu da, baiña etxeko atea ezin zabaldu kanpotik. Andreak, Lazkao-Txikik, tranka emonda dauka barrutik.

*Seb.-*

Berandu nator etxera  
sarritako antzera,  
ez naiz iritxi atea  
kolpez zabaltzera.  
Andrea, jeiki ta azkar  
asten ez bazera,  
buelta artu ta berriro  
banua kalera.

*Laz.-*

Kalera juan zera ni  
bakarrik utzita,  
iru-lau mutil gaztek  
ein dute bisita.  
Bear dan ordurako  
ez zera iritxita,  
orregaitik dadukat  
atea itxita.

*Seb.-*

Andrea, ez zaidazu  
neri jo adarrik,  
mutil gazteak ez du nai  
emen atso xarrik.  
Arrimatu bazaizu're  
tentel da baldarrik,  
zurekin ez zedukan  
tranparen bearrik.

*Laz.-*

Ttikiguak maite ditut  
nai badezu jakin,  
zu nolatan ez zauden  
bizkor eta arin.  
Ia aspertua naiz ni  
gizon aundiakin,  
onen azpian egoten  
ez dago atsegin.

*Seb.-*

Azkenean xeleb्रे  
degu bukaera,  
neronek e kanpoan  
badaukat aukera.  
Esan bezela agur da  
banoa kalera,  
tabernan egongo naiz  
damutzen bazera.

*Laz.-*

Len etorri berria ta  
berriz juan zaitez,  
zuri aguantatutzen  
ez da oso errez.  
Astoaren antzekoa  
zerade baldarrez,  
kilo mordoia baiña  
besterik ezer ez.



## TXOFERRA ETA ARTZAIÑA

Ondarroa, 1988-I-9.

Gaia: Lazkao-Txiki artzaiña da. Bere artaldearekin badoa bidean zear, eta kurba batean kotxe aundi batekin or azaltzen da Amuriza. Au bozina otsean asten da.

*Amu.-*

Tirri ta tarra banentorrela  
oraintxe dana aldrebes,  
artzain txiki bat aurrean daukat,  
tranposua ei da berez.  
Emen natortzu zure aurrera  
ministrao ta *mercedes*,  
zeugatik ez daust inportik baiña  
ardiak kendu mesedez.

*Laz.-*

Gure ministro bizar aundia  
arro jarririkan dago,  
pentsatu zazu artalde dana  
kendutzerikan eztago.  
Pixka batean itxaron zazu,  
denontzat da obeago.  
Ez al dakizu? Ardiak dira  
kotxea baiño lenago.

*Amu.-*

Errespetoa falta dauana  
ori da gauza tristea,  
ertzaiñen batek arrapatuko  
baleu au bai desastrea!  
Ez jat tokatu sekula olako  
artzain txikia ikustea,  
ardiak saldu ta oba zeunke  
konejuak eroste.

*Laz.-*

Artzai txikia tratatutzen du  
ijito baten modura,  
oni ardiak eta artzaia  
nunbait ez zaio ardura.  
Neroni ere arritutzen naiz  
zuk dadukazun itxura!  
Kaputxinuen tankera dezu  
eta zuaz konbentura!

*Amu.-*

Au komeria gertatzen dana,  
ta Ondarrun-orain jakin:  
ni konbentura joateko bere  
ikasita nago latin.  
Ni asiko naz akerrakin da  
au barriz konejuakin,  
ta konbentura jua gaitzezke  
ta Gasteizera be bardin.

*Laz.-*

Kotxe orrekin pasako zera  
ardiak kendutakuan,  
txakurra ere deskuidatuta  
atze aldean zeguan.  
Eta mesedez zu egon zaitez  
kamiñutikan albuana,  
ardi guztiak izutu gabe  
otsua zeralakuan.

## MONTEKRISTOA PIZTUTA

Lasarte, 1988-III-18.

Gaia: biok afaldu eta gero, Sebastian Lizasok *Montecristoa* piztu du, eta Lazkao-Txikik ezin eraman du kea.

*Laz.-*

Zer ote da gizona  
zabarra izatea?  
Patrika ekarri du  
gaur puruz betea;  
piztu du ta arpegira  
botatzen dit kea,  
aldegin zak ondotik  
ta eman zak pakea!

*Seb.-*

Gaur ere egin nai du  
txintxoan papela,  
arrastoa sartu bear,  
akabo bestela.  
Nunai esaten didate  
au kaskarra dela,  
ketan mejoratuko dek  
gaztaia bezela.

*Laz.-*

Lizaso etorri da  
gaur ere indarrez,  
baiña gaurkoan dago  
au entzun bearrez;  
gu ez giñaden azi  
au bezain errez,  
titiak uzterako  
*habanoak* errez.

*Seb.-*

Errespetu askorik  
ez dek erakutsi,  
akaso oartuko aiz  
biar edo etzi.  
Ik nunbait ortan izan dek  
abildade gutxi,  
naiz purua erre ez diot  
titiari utzi.

*Laz.-*

Gauzak jakiten dira  
batetik bestera,  
Sebastian oraindik  
olakua ote da?  
Ni baiña doble aundia  
izango da bera,  
oindik titiai tiraka  
aritzen al zera?

*Seb.-*

Zer bide artuko zuen  
len nuen pentsatzen,  
puruan keak orain  
ez al au kezkatzen?  
Bere gustoko bidea  
asi da aipatzen,  
titia ikusi utsez  
ez nauk konformatzen.

**BILLOBA ETA AMONA**

Elosua, 1988-VI-4.

Gaia: Lazkao-Txiki, amona; Sarasua, illoba. Etxean sute ikaragarri bat izan da. Billobak aal dituanak atera ditu, baiña amona oraindik barruan.

*Sar.-*

Gure etxeko barrutik zaigu  
su gaiztoren bat atera,  
lau ta bost buelta egiñak ditut  
etxekoak salbatzera.  
Orain, amona, falta zera ta  
berriro bueltan etxera,  
alperrik baita beste guztia  
zu salbatzen ez bazera.

*Laz.-*

Illoba onek ainbeste maite  
niñunik ez nuen uste,  
neroni ere ain illun negon  
onen laguntzaren eske.  
Atera zuek etxeko gauzak  
edo orrenbeste traste,  
ni bestela're zartu naiz eta  
zuek salbatu zaitetzte.

*Sar.-*

Suaren menpe utzi bearrak  
ez du iñungo zentzunik,  
bestela berriz ez geneukake  
etxeko goxotasunik.  
Ez pentsa gero emen zaarrak  
guk aztuko ditugunik,  
neroni erreko banaiz ere  
atera bear zaitut nik.

*Laz.-*

Nere magalez azia zera  
juan daneko amar urtez,  
nere billoba maitagarria  
zu or lasai egon zaitetz.  
Zartutako bat bestela ere  
salbatzen ez dago errez,  
emen sufritu naiago det nik  
purgatorioko partez.

*Sar.-*

Bakoitzak emen egin bearko  
gure alegintxo bana,  
il eta gero sufrituko da  
emen sufritu bear dana.  
Txikitan zure magal gozoa  
ta zure maitasun dana,  
jakin ezazu zu zaitudala  
geien maite zaitudana.

*Laz.-*

Ondo artzen du amonatxoak  
zure ongi etorria,  
ni nola naizen amaren ama  
edo zure jatorria.  
Orain sute bat dala merio  
ni nago erdi erria,  
tori musu bat ta milla esker,  
billoba maitagarria.

## SALTZAILLEAK

Anoeta, 1988-VI-5.

Lazkao-Txixki eta Mendizabal

Gaia: saltzailleak zerate. Zer saltzen dezute?

*Men.-*

Gu bi saltzaille ementxe gatoz  
geure gauzatzok kontari,  
premi ederra badagoela  
ez al da garbi nabari?  
Emen lanikan ez dago eta  
naigabea da ugari,  
bizi izateko ilusioa  
saltzen diot jendeari.

*Laz.-*

Nere lagunak zer saltzen duen  
aitatu digu lenbizi,  
nereak ere aipatutzerik  
ez ote zuen merezi?  
Zenbait umetxo biberoiakin  
oi dira gaurkoan azi;  
nik gomak dauzkat, saldutzen ditut,  
nai dezutenak erosi.

*Men.-*

Arrazoirikan bai al daukazu  
era ortan ibiltzeko?  
Gaur maixu asko aurkitzen dira  
lan nekeza bizitzeko.  
Eskolá juanda umeak gutxi  
mantendu ta ezitzeko,  
goma klase ori oso txarra da  
umeak ugaritzeko.

*Laz.-*

Biberoiaren bitartez emen  
ume ugari azi da,  
ta resultadu ona dagola  
garbi asko ikusi da.  
Bolada ontan asi da berriz  
zoritxarrean, bai, *sida*,  
ebitatzeko neregan eto-  
rritzea orain aski da.

*Men.-*

Ona ote da zure errezeta  
eta artu dezun papela?  
Zuk esan dezu globoak saltzen  
jo ta ke ari zarela.  
Pentsatu gero lenago ere  
globo ugari daudela,  
Lazkao-Txiki asi al zaigu  
gauetz ertzaiñak bezela?

*Laz.-*

Zu, nere lagun Mendizabal, gaur  
etzaitetz asi onela,  
jendean bistan ola itzegiten  
santu baziña bezela.  
Zuk badakizu urte askotan  
ezagutzen geradela,  
eta zerorri izan zintudan  
lenbiziko klientela.

*Men.-*

Bizi bearrak ekarri ditu  
ain eragozpen sakonak,  
ta umeari begira bear  
dirutan justu dagonak.  
Nik erosiak nizkizun lendik  
zuk saltzen dituzun gomak,  
oraindik ere sobran dauzkazu  
lendik sobre zenitunak.

*Laz.-*

Baiña nik dedan produkto ori  
produkto ona da egiz;  
erosi ziñun, orain ukatzen  
or alper-alperrik zabiltz.  
Lenago ere saldu nizula  
saldu nai nizuke berriz,  
gaur familia azten ai ziñan  
ni izan ez baldin banitz.

*Men.-*

Baiñan nolatan ausartu zera  
gauza ori esatera?  
Aurrerapenak ugari daude  
batera eta bestera.  
Zu goma askoren jabe zera  
baiñan or aurkitzen zera,  
goma ugari baiñan oriek  
probatutzeko aukera.

*Laz.-*

Leno aukera ipiñi dizut  
nai baldin badezu erosi,  
lenago onak baldin baziran  
orain bajatzen ez asi.  
Beste produkto oberik danik  
nik iñun ez det ikasi,  
nai baldin bada eros itzazu  
eta ez badezu nai utzi.

## ESKUPEKOA

Anoeta, 1988-VI-5.

Mañukorta, Lazkao-Txiki eta Lizaso.

Gaia koplatan kantatzeko: iru maixu zerate: Telleria, Igartzabal eta Mendizabal. Zuen ikasleak, aprobatzeko eskatuz, eskupekoarekin etorri dira.

*Mañ.-*

Al dan bezela eman bear da  
emen bakoitzai beria,  
mutil fin eta jator bat degu  
nere lagun Telleria.

*Laz.-*

Naizta Igartzabal ez izan arren  
lezio danak jakiña,  
aprobatuta gelditzen zaizu  
urte ontako esamiña.

*Liz.-*

Mendizabal au larri zebillen  
an ezin aprobatauta,  
ama ta biak etorri zaizkit  
eskupekoa artuta.

*Mañ.-*

Maisu zar biok jarri zaitezte  
ikasle oiei begira,  
beste bi oiek ez dira irixten  
Telleriaren erdira.

*Laz.-*

Zu, Igartzabal, nai bazenuke  
karrera on bat ikasi,  
orain artean bezela aurrera  
oillasko gizenak azi.

*Liz.-*

Ikasle auek juaterako  
jarriko'ira jakinian  
oillaskoak e nola ekarri  
azitzen zaizkotenian.

*Mañ.-*

Injinerutzat pasa bear da  
Telleriaren arraza;  
beste bi oiek tontuak dira,  
oientzako kalabaza.

*Laz.-*

Ta maisu onek arpegi asko  
eta oso lotsa gutxi;  
ik eureak esamiña itzak,  
guriai pakean utzi.

*Liz.-*

Injinerero orrek egiten badu  
bide askotara jira,  
orrek eindako pareta aundiak  
laister eroriko dira.

*Mañ.-*

Telleria orrek artu dezake  
ikasitzen e neurria,  
ta Zumarragan egingo digu  
polikiroldei berria.

*Laz.-*

Ik, Igartzabal, ez baldin badek  
nai inoiz kurtsorik galdu,  
oillasko onak azi itzak ta  
arrebarekin bialdu.

*Liz.-*

O, Mendizabal, geure etxian  
poliki jo zak atia,  
ikasteko ez dezu balio  
ta etxera juan zaitia.

*Mañ.-*

Oillasko onak jan nai dituzte,  
txakurrarentzat azurrak;  
epairik gabe kontatutzen det:  
biak dirade lapurrak.

*Laz.-*

Irakasle ta maisuak orra  
ikastaroa osatu,  
aurtengo aski egin degu ta  
oporrak ongi pasatu.

## AITONA BURU MAKUR

Legazpi, 1988-IV-30.

Gaia: gaur, Legazpiko jaietan, gazteen eguna bezela antolatuta dago. Jon Sarasua gaztea degu noski. Ibillaldi bat egiteko asmoz abiatu da, eta or nun aurkitzen duen, baserri baten atarian, aitona xaar bat, buru makur: Lazkao-Txiki.

Sar.-

Gure jaietan gazte jendea  
dibertitzen da ainbeste,  
aitona zarra ain buru makur  
aurkitzerik ez nun uste.  
Kalean danak saltoka dabiltz  
ainbat eldu eta gazte,  
erriko festak ditugu eta  
zergatik zaude ain triste?

Laz.-

Ni're gaztea lenago izan  
nintzaden, illoba maite,  
zure oraingo urte freskoak  
nerekin nituen arte.  
Orain etxean emendik nago  
kale aldetik aparte,  
lengo kontua akordatzen zait,  
orregaitik nago triste.

Sar.-

Zure burua mugitzen dezu  
alde batetik bestera,  
barne ortatik poz apurtxo bat  
ez ote leike atera?  
Guk bakarrikan ez genduke nai  
baizik zurekin batera,  
zapatak jantzi ta etor zaite  
salto batzuk gitera.

Laz.-

Eskerrik asko, gazte maitea,  
ori zan bertso apala,  
ikusten zaitut mutil jatorra,  
pizkorra eta leiala.  
Zuk e pentsatu zartzen zoazela  
urteak pasatu ala,  
iltze'ez bazera pentsa ezazu  
zu're zartuko zerala.

Sar.-

Ez det ulertzen zergatik dezun  
orren tristea abotsa,  
gure erriko mugimentuan  
sentitzen zaitut arrotza.  
Guretzat gauza beroa dana  
zergatik zuretzat otza?  
Oraindik ere zurekin dago  
mutil gaztien biotza.

Laz.-

Benetan atsegin da ona da  
gazte onen izatea;  
ikusitzen det: zarrarengatik  
dago errukiz betea.  
Neri laister etorri bear zait  
mundu ontatik joatea,  
al dan bitarte gorde zazute  
gure euskera maitea.



*Sar.-*

Euskera ere igual guretzat  
zerbait aldatua dago;  
baiñan aurrera egin bear da,  
bestela dana akabo.  
Etorri zaite gurekin, gizon,  
ori desiatzen nago,  
ola jarrita egiten zera  
oraindik ere zarrago.

*Laz.-*

Nik kaleraiño juan nai nuke gaur,  
juan nai nuke baiña ezin,  
mugitutzean alde denetan  
nolatan artzen deten min.  
Jarrai zazute euskeraz eta  
festak egiten Legazpin,  
asaba zarren oitura ona  
sekula galdu ez dedin.

## MUTIL GAZTEA ETA MUTIL ZARRA

Billabona, 1988-VII-29.

Gaia: Peñagarikano eta Lazkao-Txiki, mutil gaztea eta mutil zarra. Nolako andreak gustatzen zaizkizue?

Peñ.-

Danen gustoa eginda ere  
ala ere beti keja,  
ni artzen naunak ez du artuko  
orren motiko alproja.  
Neri berdin zait rubia izan,  
morena edo pelirroja,  
eta txikiak zein du naiago:  
Sofia edo Pantoja?

Laz.-

Begira nundik eta noraiño  
juan dan nere laguna,  
zein dan e, motell, ezin ikasi  
oraingoz esan dezuna.  
Nik nai detena neskatz polit bat  
garbia eta txukuna;  
Pantoja eta oiek iretzat,  
nik nai nikek euskalduna.

Peñ.-

Noski esan det len ez naizela  
alproja edo kaikua,  
eta denekin nik serbitzen det  
egiz, ala Jaungoikua!  
Oi ta bi urte dituna ekarri,  
neretzat bada naikua;  
Lazkao-Txikintzat aproposa da  
metro eta erdikua.

Laz.-

Neretzako ik ez aukeratu  
eskatzen diat fabore,  
kontseju ematen makiñatxo bat  
aritu zaidak leno're.  
Lazkao-Txikik oiñordekoak  
jarri nai ditu dotore,  
nik bear diat emen aundiña  
raza kanbiatzeko're.

Peñ.-

Raza aldatu nai duelako  
aundia edo plakua,  
ta Lopategik alaba dauka  
Itziar izenekua.  
Neronek pozik artuko nuke  
bai beraren antzekua,  
baiña ura ere ez al da izango  
aita dan bezelakua?

Laz.-

Gauza bat artu nai zuen eta  
bera asi da kezkatzen,  
disimuluan Lopategiri  
bere alaba eskatzen.  
Aita bistan da onek berakin  
asi nai luke jostatzen,  
baiñan alako bizar luzerik  
ez omen zaio gustatzen.

**DANTZA IRAKASLEA ETA IKASLEA**

Mutriku, 1988-IX-17.

Gaia: Lazkao-Txiki dantza irakaslea da, eta Mañukorta ikaslea.

*Laz.-*

Dantzan erakusteko  
artu nuen ira,  
Mañukortak ikasi  
ziteken sikira.  
Aste osoz ibili det  
buelta eta jira,  
eldu ta sueltua onentzat  
berdin samar dira.

*Mañ.-*

Beituta bakarrik ere  
badaukat itxura,  
metro bi luzean da  
oso gutxi pixura.  
Dantzan ondo egiten det  
artista modura,  
elegantiagorik ez zan  
sortuko mundura.

*Laz.-*

Lenen anka bat jaso  
ta bestea gero,  
moldatu eziñik nabil  
beti egunero.  
Enpeño danak alperrik,  
au kalabazero,  
tximinoa ematen du  
makurtu ezkeru.

*Mañ.-*

Edozer esanarekin  
dantzatu mingaiña,  
maisua eskasa dala  
ni nago jakiña.  
Neri nola erakutsi  
berak ez dakiña?  
Nerekin ikasitzeko  
badauka premiña.

*Laz.-*

Illabete ta erdi  
badarama aurten,  
ikasi duenik ere  
gaur ez du ematen.  
Alperrik utzi bearko  
alakoren baten,  
neroni aztu baizait  
oni erakusten.

*Mañ.-*

Mañukortak dantzatze'itu  
emengo ta ango,  
berdin zelai onean  
eta berdin trango.  
Ondo manejatze'itut  
twist eta fandango,  
berdin-berdin trikitia  
ta oraingo tango.

*Laz.-*

Naiz pausuak erakutsi  
ez ditu justuak,  
batzuek zabalegiak,  
besteak estuak.  
Laister erosi bearko  
ditut krabestuak,  
onek ainbat taju badu  
etxeke astuak.

*Mañ.-*

Edozer gauza esaten du  
gauza ola artuta,  
ni mutil argia naiz  
onso pentsatuta.  
Soltian markatzen det  
ondo markatuta,  
goizaldean berdin  
ondo arrimatuta.

*Laz.-*

Arrimatze utsa da  
onek daukan plana,  
beti arrimatzen da  
neskatxarengana.  
Neri aztu baiño len  
len dakiten dana,  
faborez joan zaitea  
beste batengana.

*Mañ.-*

Ondo markatzen ditut  
txistua ta kanta,  
zeiñi ez zaio gustatzen  
Mañukortan planta?  
Nonai ondo ibiltzen naiz  
egia esanta,  
ta erakusle onek  
inbiri galanta.

*Laz.-*

Anka trabatu eta  
bi aldiz nau bota,  
oni erakusterik  
iñoiz ez dago ta.  
Edozer eginda're  
ez zaio inporta,  
nik despeditzen diat,  
aio, Mañukorta.

**EZKONTZAREN ALDE TA AURKA**

Mutriku, 1988-IX-17.

Gaia: Agirre, ezkontzaren aldekoa; eta Lazkao-Txiki, aurkakoa.

*Agi.-*

Txiki onek ez dauka  
ezkontzeko afanik,  
ta ez dizuet esango  
gauza utsa danik.  
Baiña begi biari  
buelta bat emanik,  
ezkonduak obeto  
ikusten ditut nik.

*Laz.-*

Askotan aditua  
ezkontzeko itza,  
baiñan apenas dagon  
bear ainbat ditxa.  
Neri ez zait gustatutzen  
lotuen bizitza,  
ezkondu asko ere  
zelebre dabilta.

*Agi.-*

Beraz ezkondu asko  
dago damututa,  
lenago're askotan  
dezu agertuta.  
Ez zaidazu atera  
oinbeste disputa,  
zapatak garbitzen zeuk  
jarduten dezu ta.

*Laz.-*

Norberak garbitzea  
ez ote da obe,  
izan ezker bere  
buruaren jabe?  
Zapatak garbitzeko  
beti nago trebe,  
zu iñoiz etortzen zera  
oik garbitu gabe.

*Agi.-*

Gizona dagonian  
indartsu ta sendo,  
bearbada bakarrikan  
ibiltzen da ondo.  
Baiña zartutakuan  
gaixoa edo maingo,  
zeiñek lagundurikan  
ez dezu izango.

*Laz.-*

Gaixoak zaintzea al du  
oinbeste meritu?  
Orren erronkarekin  
ez zaitez aritu.  
Bestela gauza danak  
pentsatzen gelditu,  
gaur Euskal Gobernuak  
ipinitzen ditu.

*Agi.-*

Endredua jarri nai  
zuk besterentzako,  
Gobernua al dago  
dana konpontzeko?  
Ez daukazu gogorik  
enamoratzeko,  
gero poltsa berua  
ankak berotzeko.

*Laz.-*

Ezkontzeko dagonak  
artu beza kezka,  
ez ibili andregairik  
dagoen galdezka.  
Soltero egonda're  
egiten da festa,  
gaiñera egunotan  
pekatua ezta.

*Agi.-*

Beraz soltero au're  
pronto festarako,  
bearbada ez da izango  
bere kalterako.  
Kontratatuta eraman  
ordu erdirako,  
andrarik merkeena  
bere iritzirako.

*Laz.-*

Ezkondutako asko  
or dabilta larri,  
etxetikan kanpora  
zirri eta zirri.  
Gauz oiek esatera  
ez zaitez etorri,  
bestela nondik dakizu  
kontrataren berri?

*Agi.-*

Iñoiz ibili oi naiz  
ni inguratuta,  
baiña burutik ez naiz  
ainbat txoratuta.  
Naiz kanpuan ibili  
enamoratuta,  
etxian oztutzen naiz  
kanpuan berotuta.

*Laz.-*

Askoren bearrik ez da  
emendikan gora,  
biok e obe degu  
ez joan iñora.  
Etxean ez degunak  
joan bear kanpora,  
zuk batekin eta gu  
lorarikan lora.

*Agi.-*

Ikusten danez onek  
ez dauka penikan,  
baiña ez uste inbiririk  
eman didanikan.  
Beraz lorarik lora  
noranai juanikan,  
or ez du billatuko  
birjin dagonikan.

*Laz.-*

Une bateko dira  
birjiñaren otsak,  
askotan autsi dekela  
irudituko zak.  
Emen amaitzen dira  
ezkonduan pozak,  
andreak kentzen dio  
sortzen ditun sosak.

*Agt.-*

Nik ematen dizkiot  
nere borondatez,  
sosak entregatzea  
ez da nere kaltez.  
Gozamentua nik det  
Lazkao-Txikin partez,  
amorra egin didazu  
ta or konpon zaitez.

*Laz.-*

Solterua obeki  
bizi da nolana,  
beti kanbiaturik  
guk festa eta jai.  
Gau ontan ere negok  
ni berri baten zai;  
ez dek arrazoirikan,  
ixilik egon ai.

## LOREA ETA LISTORRA

Usurbil, 1989-IV-8.

Gaia: Lazkao-Txiki, lorea; Sebastian Lizaso, gaiñera datorkion listorra.

*Laz.-*

Lore polit bat Jaunak egiña  
udaberri onaren poz,  
eguzkiaren epeltasuna  
beti artu oi det gogoz.  
Erle eder bat etorri balitz  
nik naiago nuen askoz,  
zu, listor alper aundi zar ori,  
onera zertako zatoz?

*Seb.-*

Udaberrian izaten degu  
lorak sortzeko garaia,  
listorrek ere bagenedukan  
batzuk ikusteko naia.  
Lore txiki bat billatua det,  
dotorea ta alaia;  
txikia baiña berdin gabea  
botatzen dezun usaia.

*Laz.-*

Usai ederra edukiko det,  
listorra, zaude jakiñik,  
baiña jakizu ez nuke nai nik  
zure antzeko samiñik.  
Listorrarekin ez det bein ere  
pozik eta atsegiñik,  
emen naukazu zeure karga ori  
azpian jaso eziñik.

*Seb.-*

Uste al zendun ez nintzadela  
zuregana urbilduko?  
Lendikan zailla daukaten gauza  
ez al didazu zailduko!  
Lore ta listor sarritan gera  
beti alkarren gertuko,  
usai eginda aldegingo det  
eta ez dizut elduko.

*Laz.-*

Zure karga orrek zapuztu eta  
geio ezin nitek zuzendu,  
ta alper batek lore gaiñean  
beti gaizki ematen du.  
Badakizute: listor alperrak  
bestek egiña jaten du;  
orregaitikan eskatzen dizut  
nere gaiñetikan kendu.

*Liz.-*

Zelebrea da loretxo oni  
egin diodan bisita,  
jarri orduko kejatzen nola  
azpitik dagon asita.  
Txikia baiña petrala dala  
kolpetikan ikusita,  
obean billa banoa egan  
oni pakean utzita.



*Laz.-*

Erlearen zai nola nenguen  
ez al didazu igerri?  
Ta bitartean etorri eta  
zu nere gainean jarri.  
Usai ederra baneukan ere  
zuk ez didazu ezarri,  
gaurkuagatik barkatzen dizut  
baiña ez geiago etorri.

*Liz.-*

Sinistu zazu desio ori  
zuk kunplituko dezula;  
len esan dizut: urreratu bai,  
baiña nik ez zaitut zula.  
Erleai deitu eta listorrai  
egiten diozu burla,  
ardi zar batek jan bear zaitu  
batere ez dakizula.

## EDERRA ETA LISTOA

Oñati, 1989-V-24.

Gaia: Mendizabalek mutil ederrenaren saria eskuratu du. Lazkao-Txikik, listoarena. Listoa ez da oso ederra, eta ederra ez da oso argia.

*Men.-*

Konkurtsu ontan zer gertatu dan  
aitortu bearra dago,  
gaur itxurari beitzen baitzaio  
buruai baiño lenago.  
Eman didaten tituluakin  
ni oso konforme nago,  
edertasunak luzitzen baitu  
talentuk baiño geiago.

*Laz.-*

Edertasun utsetik badator  
munduan bizi eziña,  
obe zenduke Lazkao-Txiki  
bezelakoa baziña.  
Edertasunik ez daukat baiña  
ni naizen guztia piña,  
inbentatu det garirik gabe  
ogia eiteko makiña.

*Men.-*

Lazkao-Txiki asia zaigu  
lanean bere errotan,  
ogia egiten makina gabe  
asi da Oñati ontan.  
Baiñan alperrik zabilta ortan,  
alperrik bein da askotan;  
doai guziak alperrik dira  
gero ez eskertzekotan.

*Laz.-*

Jesusek ere euneroko ogia  
beingoan eskatu zuan,  
eta zuk ere bizitza ontan  
ori ar zazu goguan.  
Orain ibiliagaitik sarri  
mutil ederren moduan,  
edertasuna itxusitzen da  
ogirik ez dan lekuan.

*Men.-*

Lazkao-Txiki, ez naiz konforme  
dabilkizun ibilleran,  
astakerin bat inbenta dezu  
azkenengo jokaeran.  
Ogi ederra makina gabe  
ipiñi dezu aukeran,  
jan zazu pixkat ogi ortatik  
ia geio azten zeran.

*Laz.-*

Ni ez naiz aundia, ez naiz ederra,  
ori danak badakite,  
jakinduriko aunditasunik  
zuk ez ote dezu maite?  
Orren ederra zerala, gazte,  
batzuek esan didate,  
baiña nik ez det dana sinisten  
dana erantzi bitarte.

*Men.-*

Zeure burukin egin nai dezu  
azkarraren propaganda,  
aldamenetik egingo dizut  
beraren aurka demanda.  
Tonto xamarra ote zeran zu  
jarri bainaiz antzemanda,  
guztia nola sinistu dezun  
listoa dala esanda.

*Laz.-*

Ez al dakizu listo-saria  
irabazi detela nik?  
Oraindik tonto juzgatzen nauzu  
gauz oiek danak jakinik.  
Ederrez ez da emakumerik,  
ain gutxiago gizonik,  
dana erantzita jarri ezker  
iñun faltarik ez dunik.

*Men.-*

Aukeratxo bat jarri nai dizut  
eta onela itzegin,  
irtenbide bat bada munduan  
baldin nai badezu jakin.  
Exitu on bat lortu liteke  
gaur gu biok elkarrekin:  
nik dadukadan gorputza eta  
zuk dezun buruarekin.

*Laz.-*

Azken aldean asi nai nuke  
oni eskerrak ematen,  
beti alkarren kontra ibiltzea  
ez baita ona izaten.  
Lazkao-Txiki zartu da eta  
itxusia izan arren,  
zuri're bera pasako zaizu  
nere urteak baiño len.

*Men.-*

Gauza guztia ez da izaten  
norberaren gogokoa,  
itxuran baitan aurkitzen baita  
mundu ontako jokoa.  
Txiki xamarra zerala eta  
zuk ez artu gorrotoa,  
txarrena baita itxusia izan  
eta gaiñetik tontoa.

*Laz.-*

Len azkar nintzala entzun eta  
orain zu tontoa esaten,  
ez dakit ori zein tokitatik  
zuri ote zaizun irten.  
Oso zailla da norberak nai dun  
bezelakoa izaten,  
eta bakoitzak daukagunakin  
konforme bizi gaitezen.

## LAZKAO-TXIKIREN BIGANTXAK

Oiartzun, 1989-VIII-4.

Koxme Lizaso eta Lazkao-Txiki, gai librean.

*Kox.-*

Lazkao-Txiki pentsu saltzetik  
nekazaritzâ aldegin  
ezkeroztikan ezer askorik  
apenas diguan egin.  
Orain e onek geienez dauzka  
iru-lau bigantxa zikin,  
i baño nekazai txarragorik  
gaur bai al zegok Zaldibin?

*Laz.-*

Koxme bezela jaiotzetikan  
ni ere baserritarra,  
nolabait dago mundu onetan  
bizia eraman bearra.  
Uda partean ondutzen degu  
guk negurako belarra,  
len pentsu saltzen ta orain erosten  
orixen det gauza txarra.

*Kox.-*

Onek esan du udaran ontzen  
omen ditula belarrak,  
abonorikan eman gabeko  
urriak eta kaxkarrak.  
Ta ganaduak errape txarrak,  
illeak luze bizkarrak,  
pelikuletan jarko nituzke  
olako baserritarrak.

*Laz.-*

Lagun Koxme au arrapatzeko  
aspaldin banun gogua,  
au degu baserritar azkarra  
eta moda berrikua.  
Abonok artu tratorean da  
belarditara dijua,  
onek belarrak abonatu ta  
nik berriz neure burua.

*Kox.-*

Gauean beti parrandan dabil  
eta lo egin goizian,  
bizimodurik ez dek izaten  
era ortako klasian.  
Berak siesta galantak egin,  
bigantxak erdi gosian,  
bizimodurik ez dek izango  
aurrerapenik ezian.

*Laz.-*

Aizu, zu, Koxme, nolatan zauden  
eduki zazu kontua.  
Lazkao-Txiki txikia baiña  
memoriz ez da tontua.  
Etxe guzia beiez beteta  
noizik beñian kantua,  
norbera gaizki bizitzezkero  
zertako adelantua?

Kox.-

Neri ederki ematen zidak  
gaur egun aurrerapenak,  
nekatu gabe egiten dizkit  
baserriaren lan denak.  
Eta ezerre ez du beretzat  
geldirik egoten denak,  
iru bigantxa xar igar dauzka  
auntzak diruditenak.

Laz.-

Bost eta sei're izaten ditut  
ta jarri zaitez jakiñik,  
eta pentsatu lanik geienak  
eskuz egiten ditut nik.  
Ez det nik bear zuk dadukazun  
adelantu ta makinik,  
asko bezela or ibiltzeko  
aiek pagatu eziñik.

Kox.-

Orain gastatu omen du onek  
baserriaren propina,  
lanean ere orain ari da  
aspalditikan ongina.  
Sasoi zun baiño bere buruai  
onek jotzen zion kina,  
eskuz aspertu omen da eta  
erosia du makina.

Laz.-

Makinikan nik ez det erosi  
ta erosterik ez espero,  
etxeko beiak jeitzitzen ditut  
gauero eta goizero.  
Bigantxa oiek ortan ez dute  
zenbaitek aiña enredo,  
eskuz e ondo jeitzitzen dira  
oituta egon ezkerero.

Kox.-

Bizimodua zer dadukagun  
egin dezute ikasi,  
aurrerantzean geio esaten  
guk ezin gindezke asi.  
Lazkao-Txikik biga txikiak  
egiten ditu ta azi,  
orain ere lau saltzeko dauzka  
nai lituzkenak erosi.

Laz.-

Esnea oso merke daukagu  
eta aragia jota,  
ganadu gutxi dadukat baiña  
ez dit batere inporta.  
Len esnerei erdi tranpatan  
ura oi genion bota,  
orain ez dago botatzerikan  
garestiago dago ta.

Kox.-

Au bota gabe Joxe Mieli  
ez diot orain lagako,  
entzun duanak pentsamentuak  
berak zitun aterako.  
Erostonikan izaten bada  
plaza ontatik arako,  
jenero ona badauka onek  
.....etarako.

Laz.-

O, nere Koxme, lagun maitea,  
ongi nai zaitut ikusi,  
orregaitikan ejenplo on bat  
ematen nai nuke asi.  
Beien erdiak saldu itzazu,  
makinarik ez erosi,  
ta Benidorra jua zaitea  
zere fameli ta guzi.

Kox.-

Bertso orrekin eman didazu  
amakiña bat poz eta,  
auzi onekin ez naiz juango  
Joxe Mieli juez eta.  
Gure urte ta sasoi onenak  
aurrera dijoaz eta,  
kontseju ori beteko det nik  
zartutzen ari naiz eta.

## PAPER ZIMURRA

Ikaztegieta, 1989-VIII-14.

Gaia: Lazkao-Txiki, senarra; Egaña, emaztea. Gaur illunabarrean, senarraren alkandora plantxatzen ari dala, poltxikuan paper zimur bat aurkitu dio, eta zimur artean gutxienez *maite* irakurri du.

*Ega.-*

Trapukeriketan ari al zera?  
Senarra, bejondeizula!  
Emaztearen biotza ezin  
liteke orrela zula.  
Papel ortako sekreturikan  
ez det jakingo sekula,  
norbait maitatzen ote dezun zuk  
edo iñork maite zaitula.

*Laz.-*

Biok ezkondu giñan ordutik  
biok gu alkarren lagun,  
badakizu zuk arrezkeroztik  
zenbat maitasun daukagun.  
Papel txiki bat billatu eta  
zertan ainbat estuasun?  
Eskribituta neuk jarri dizut  
zuk irakurri dezazun.

*Ega.-*

Seguru zegon nik poltsikoa  
ote nion irekiko,  
ederki dakit aspaldi ontan  
beste bat dula begiko.  
Tranpa zar ori ez zaio ondo  
atera gaur nerekiko,  
alegin dana egin du baiña  
ez naiz zelosa jarriko.

*Laz.-*

Emazte maite, nik esan dizut  
maite zaituztela egiz,  
ta ikusten det zu zelosa bat  
egiña zaudela berriz.  
Iñoz gelditu al zera bada  
zure senarraren premiz?  
Etxeko lana egiten dizut  
astean iru bat aldiz.

*Ega.-*

Nik papel ori letu ondoren  
ez tristetu, ez alaitu;  
bista daduka galdu xamarra,  
ezin digu tajuz aitu.  
Gizajo onek zerbait bear ta  
neronek bearko zaitu,  
bein irurogei urte bete ta  
zeiñek maite bear zaitu?

*Laz.-*

Orregaitikan papertxo ori  
zuk artu zazu onian,  
gizon bezela portatutzen naiz  
oera nijuanian.  
Baiña zu kejaz egoten zera  
beti edo geienian,  
buruko miña badezu beti  
eskatzen dizutanean.

## DONADOEN ALDE

Urepel, 1989-X-29.

Mendiburu eta Lazkao-Txiki.

Gaia: *Iparragirre* bertso-paper lehiaketan parte hartu zuen bertso-paper bat irakurri zuen, non Xuberoako artzain mutilzarren arazoa agertzen baitzuen. Egilea emakumea zela zirudien, eta beste emakumeei dei egiten zien artzainen alde.

*Men.-*

Mendi gainean emakumeak  
egin du hitz eta dantza,  
eta ikusi geroan ez da  
hemen ainitz esperantza.  
Denak donado Karlos daudela,  
herriak ez baitu xantza,  
Lazkao-Txiki, ez ote duzu  
zuk e Karlos horren antza?

*Laz.-*

Gu donaduok baztarrik baztar  
triste ta illun gabiltza,  
beste aldetik zein illuna dan  
donado izenaren itza!  
Nik ongi dakit: utsegiña dut  
guraso baten egintza;  
baiña ni gaur ezkondata nengon  
ederra izan banintza.

*Men.-*

Edertasunez segur ez zinen,  
Lazkao-Txiki, pobrea,  
ttikiak ere pollitgoa du  
gauza bat hainbat noblea.  
Bainan zu beti izana zira  
nik uste hain herabea,  
eta herriak segidarik ez,  
hoi ez da gauza hobea.

*Laz.-*

Neskari galde, danak ukatu,  
ez da gauza atsegiña;  
sei bat urtean gorde nion nik  
neska bati maitemiña.  
Munduko gauzik txarrena au da:  
guraso izan eziña;  
eta neronek ez det errurik  
Jainkoak txiki egiña.

*Men.-*

Txikia zinen, bainan ez dago  
horretan ezinbestea;  
Eskual Herria gaur nola dagon  
hobe laike ikustea:  
gure etxeak biziaz beti  
berriz betetzen hastea,  
ezin ez eta fruturik gabe  
hola hiltzerat uztea.

*Laz.-*

Donadoaren bizitza ere  
ez da bizitz eroso,  
gaztetan ondo ibiliarren  
gero badator kasoa.  
Nik ongi dakit ohea dala  
izatea gurasoa,  
bakarrik bizi ezin danean  
izan dezan norik jasoa.



## AMENTS SALTZAILEA

Urepel, 1989-X-29.

Gaia: Ezponda merkatu batean saltzale bat izanen da, eta hunek saltzen ditu amentsak. Lehen klijenta: Lazkao-Txiki.

*Laz.-*

Orra ferian nere lagun bat  
neuk nai nuena zuzendu,  
disgusto asko dauzkat buruan,  
oiek nai nituzke kendu.  
Orregaitikan zure galdezka  
zugana naiz aldamendu,  
amets polit bat artuko nuke  
salduko baldin bazendu.

*Ezp.-*

Halarik ere gozotasuna  
zuri emauzu neskatxak,  
ez ote dira gauz hortarako  
eginak nere amentsak?  
Badira hola batzuk goxoak,  
badira ere zorrotzak,  
norberak jakin behar bailuke  
zer galdetzen dun bihotzak.

*Ezp.-*

Ai, Jose Migel, tristerik zira  
merkaturat etorria;  
badakizu, ba: nere amentsek  
alaitze'ute memoria.  
Lagun maitea, ez zaitez egon  
zu burua eroria,  
nik amentsetik salduko dautzut  
nai duzun kategoria.

*Laz.-*

Amets saltzaile maitagarria,  
galde bat nai dizut eman:  
ikasi zazu gu donadoak  
zeñen triste bizi geran.  
Ezkonberrien amets polit bat  
jarri zaidazu aukeran,  
besterik ez bâ gaua bakarrik  
pozik pasatu dezadan.

*Laz.-*

Bestela ere amets polit bat  
egiña dut lengo batez:  
Urepeleko neska batekin  
ezkonduta nengon gauez.  
Baiña ametsak sinistatutzen  
nola ez dan oso errez,  
lotan ain pozik nengoen eta  
esnatu eta iñor ez.

*Ezp.-*

Gaur ez badut e bilatuko dut  
zuk nai duzun aments hori,  
bizi batean gizon bakotxak  
izaten du hainbat zori.  
Bainan bakarrik egungoz hauxe,  
Joxe Migel, diot zuri:  
soltero baldin bazaude ere  
ibil' zaitez amenslari.

## DIRUZALEA ETA ANDREZALEA

Ataun, 1989-XII-30.

Gaia: zuek esango dezute zein dan okerrago: Joxe Migel, diruzale; eta Sebastian Lizaso, andrezale.

*Laz.-*

Nere laguna obe da artu  
daukazun tema serio,  
andrezaleai gauza gogorrak  
iñoiz gertatzen zaizkio.  
Griña txar ori obe zenduke  
gaur kasik geigo ez io,  
oraindik txoratu bear dezu  
emakumien merio.

*Seb.-*

Nik aitortzen det: emakumea  
beti det ain gogokoa;  
beren atzetik igaroa det,  
jaunak, oraindaiñokoa.  
Zu berriz beti diru atzetik  
bete nairikan kolkoa,  
beraz mutilzarra izatea  
ez degu arritzekoa.

*Laz.-*

Jesuitak ere mutilzar dituk,  
tonto diranik ez uste;  
mundu onetan luzitzen dute  
zenbait bizkorrek ainbeste.  
Ta andrezale diraden asko  
nik ikusten ditut triste,  
indartsu eta gizon fuerteak  
oik dominatzen dituzte.

*Seb.-*

Ez da gezurra; azaña ori  
gertatu oi zait askotan;  
baiñan alare lagun oberik  
zer degu guk mundu ontan?  
Zu diru billa emakumeak  
bazterturik gerokotan,  
diru guztiak alperrik dira  
bakarrik bizitzekotan.

*Laz.-*

Gazte maitea, entzun itzazu  
zarragoaren esanak,  
gu gera lendik ur oietatik  
pasatu izan geranak.  
Dirurik gabe bukatzen dira  
emakumezkoen planak,  
ta andre faltik ez dauka berriz  
naiko dirua daukanak.

*Seb.-*

Begira orain nolakoa dan  
diruzale onen plana:  
daukana gorde, geiago bildu,  
orretan dauka afana.  
Ta diru truke lortzen ditula  
igurtzi eta laztana,  
baiña neskatxa formala ez da  
diru truke saltzen dana.

*Laz.-*

Mutilzar nago, ez det andrerik,  
bakarrik nago etsian,  
baiñan gauz asko ikasia det  
nere bizitza motxian.  
Errita beti, errosario,  
ezer ez dagon etxian,  
zuri're musu ematen dizu  
kintzena kobratutzian.

*Seb.-*

Oker ez banaiz, berekin ditu  
irurogei bat inguru;  
bi edo iru geiago igual,  
ortan ez nago seguru.  
Ainbat urtean munduan bizi,  
ez du bear ainbat buru,  
zaartzaroan geldituko da  
ez andre eta ez diru.

*Laz.-*

Gaztetxo onek ez dauka nunbait  
ni galdu gabetan onik,  
zenbatsu urte ditutan ere  
gaur aitortu du azkenik.  
Naiz irurogei, iru geiago  
edo lau geio izanik,  
ez pentsa gero oinbeste urtean  
baraurik egon naizenik.

*Seb.-*

Izbidea beronek jartzen du  
eta bear diot segi,  
itxura danez onek badauka  
bear ainbeste arpegi.  
Gauza onikan egitekotan  
daduka urte geiegi,  
atzaparretan noiz izan degu  
zuk gaur ainbeste aragi?

## GORVACHOF ETA AITA SANTUA

Ataun, 1989-XII-30.

Gaia: gauzak aldatzen ari dira. Zeiñek esango, orain dala urte gutxi, Erroman alkarrekin itze-giten ikusi bear genituela Rusiko komunisten buru dan Gorvachov eta Aita Santua? Zu, Jon Lopategi, Gorvachov zera; eta Lazkao-Txiki, Aita Santua.

*Lop.-*

Orain artean nintzan deabru,  
beldurgarri ta arrotza,  
alako baten etorri naiz ni,  
Aita Santua, onuntza.  
Gure arteko gaurko arremana  
ez zaigu gertatu motza,  
azken batean berdiña degu  
zure ta nire biotza.

*Laz.-*

Ongi etorria, Gorvachof jauna,(1)  
ongi artutzen det ori,  
Jesukristoren ordeko naiz ta  
ezin ukatu iñori.  
Len maldizioz aldegin zendun  
ta orain zatoz kantari,  
gure Jainkoak barkatzen dio  
gero damutzen danari.

*Lop.-*

Damutasunez zeu ote zauden  
pentsatzen nengoen kasi,  
orain artean meritu asko  
nola ez dezun irabazi.  
Ainbeste latin, ainbeste errezu,  
egin dit ainbeste grazi,  
kultura ere txarra ez da ta  
nere izena ikasi.

*Laz.-*

Zure izenez leno aztu naiz  
ondo artu arren gaia,  
orregatikan ote zenduen  
jartzen didazun ezbaia?  
Orain artean or diktaduran  
zenbatsu zerade saia?  
Baiña alperrantzat sobrante daude  
maillua eta itaia.

*Lop.-*

Lanik ein gabe ezer ez dala  
ortan daukagu gakoa,  
neurtu bearrez ez ote degu  
emen zu bezelakoa?  
Lan kontu ortan gerta nindeke  
ni alper eta plakoa,  
zeiñen kontura bizi ote da  
Erromako polakoa?

*Laz.-*

Mundu guztia komunista nai,  
pasatu ainbeste eun da gau,  
bere erri ta kanpo guztiak  
konbertitzen zebillen au.  
Ogei ta bost zala uste zuan  
ta azkenean amalau,  
jakin ezazu: ni, Aita Santua,  
Jaungoikoak mantentzen nau.

(1) Leenengo "Ongi etorria zu, Kruchef jauna" esan zuan; eta gero zuzendu.

## LOTSA

Zestoa, 1990-II-10.

Joxe Lizaso eta Lazkao-Txiki.

Gaia: mundu ontan ba omen da gauza bat gutxiago duenak geiago duenari ematen diona: lotsa. Zuek inoiz pasa al dezute lotsarik-edo?

*Liz.-*

Lanean jarri nai gaituzu gaur  
lotsa orren istorian,  
zerbait aginduko zenduana  
eltzerako banekian.  
Erantzun ori emango dizut  
erriaren agirian:  
ni lotsatzen naiz Lazarorekin(1)  
etortzen naizen guzian.

*Laz.-*

Bejondaizula, lagun Lizaso,  
ederra zan erantzuna,  
gauza ori da Lazarok inoiz  
ezagutu ez diguna.  
Berak ez dauka batere eta  
lotsatutzen da laguna,  
eta lotsa da bizi izateko  
bate balio ez duna.

*Liz.-*

Beingoagatik artuko al du  
gaur gurekin pazientzi?  
Berak bidea jarri digu ta  
gu ixilik ezin etsi.  
Jakingo nuke karrera ori  
zeiñi ziozun ikasi:  
zeuk lotsarikan ez dezu eta  
bestiak lotsatu azi.

*Laz.-*

Ni ere beti lotsati nintzan  
gaur egun nabillen gisan,  
nere lagunak nere aldean  
atrebientzian zebiltzan.  
Neskatxa bati galdetzeko're  
korajerik ez nun izan,  
lotsa geiegi izan nulako  
mutilzar gelditu nintzan.

*Liz.-*

Gauz orregatik ez zazu artu  
emen orrenbeste pena,  
pentsatu zazu emen ezkongai  
bakarrik ez zeradena.  
Zuri utzi ta orain joan nai det  
laister beste batengana:  
Peña bakarrik daukagu emen  
beñe lotsatzen ez dana.

*Laz.-*

Olaxen dira lotsati baten  
mundu onetako planak,  
esker milla ni bezin lotsati  
emen ez dirade danak.  
Badira asko len ezkontuta  
gaur apartatu diranak,  
eta alare len bezelaxe  
bate lotsatu eztiranak.

*Liz.*

Zelebren samar iruditu zait  
zure bertsoan tajua,  
aitatu ditu mutilzar eta  
berdin ezkondutakua.  
Beraz ukatzen dute betiko  
agindutako tratua,  
danak lotsatu baiño lenago  
ni're ixiltzera nua.

*Laz.*

Lotsa papera egin du eta  
orain gelditu da bapo,  
ori dalako gorritu eta  
neu lotsaturikan nago.  
Naiago nuen orain bezela  
eseri balitz lenago,  
Lazkao-Txiki gaur lotsatu du  
berak ez dadukalako.

---

(1) Lazaro Azkune, gai jartzaillea.

## TESTAMENTUA

Deba, 1990-III-17.

Jose Agirre eta Lazkao-Txiki.

Gaia: baserri bateko senar-emazteak zerate. Edadean aurrera zoazte eta testamentua egitea erabaki dezute. Sebastian eta Mañukorta, bi semeak; eta Euzkitze eta Telleria, bi alabak.

*Agi-*

Zartzea ere iritxi da ta  
kezkatzen nago ekiña,  
etorkizuna ez genuke nai  
arlotea ta erkiña.  
Preziso ez da egitea guk,  
ez, testamentu berdiña,  
ondona portatzen danarentzat  
dago doterik aundiña.

*Laz-*

Badakizute nolakoa dan  
gurasoa izatea,  
lendabiziko nik maitatzen det  
nere fameli maitea.  
Diru askorik ez daukat baiña  
gogoz ez naiz arlotea,  
ni geien maite nauenarentzat  
nik utziko det dotea.

*Agi-*

Nik bezelaxe zuk ere dezu  
berdin erreparatua,  
seme zarrari egiten dio  
lelengo begiratua.  
Gizarajo ori baserrian da  
ainbeste neke artua,  
orregatikan bizkarra ere  
dauka orrek okertua.

*Laz-*

Bizkar okerra lanez nekatu  
baiña badu pikardia,  
ferian eta frontoi aldean  
jokatu baidu erdia.  
Seme bizardun aundigo ori  
ez al genduke obia?  
Obetoago jasoko baitu  
ondorengo famelia.

*Agi-*

Ene bizardun orri zaude zu  
beraz begira ekiña,  
eta aitatu bear dizut nik  
gure alaba pittña.  
Galtza bakeroak jantzi eta  
burua naiko ariña,  
amaika aldiz lanik ein gabe  
etxetikan aldegiña.

*Laz-*

Fameli ontan ez det ikusten  
guk bear genduken ditxa,  
pixkabanaka galtzen ari da  
baserriaren bizitza.  
Baldin bi alaba aitatutzera  
ni ausartuko banintza,  
biak kanpoko txurriano bana  
artuta omen dabilta.

*Agi-*

Naiko kezkatan jarria nago  
ori egia ote'an,  
txurrianoik ez det ikusi nai  
gure etxeko atean.  
Belar klase ori izan liteke  
familiarako kaltean,  
eskua itxita euki dezagun  
geu bizi geran artean.

*Laz-*

Orain artean guk izan degu  
suertea eta grazia,  
bi seme eta bi alabatxo  
etxe batean azia.  
Ta famelia ez al daukagu  
zerbait zaartzen asia?  
Oiek gastatu bear digute guk  
sobratu degun guzia.

*Agi-*

Beraz gazteak artuko dute  
ain bide okerrekoa,  
eta neu ere banago ortan  
naiko bildur txarrekua.  
Alaba bibotedun ori're,  
nago esan bearrekua,  
baserrian lan asko egiteko  
ez itxura ederrekua.

*Laz-*

Gure etxea guk jaso degu  
ainbat izerdi emanez,  
baiñan kontuak aldatu dira  
emen ikusten dedanez.  
Ainbeste txanpon aurreratua  
guk len egindako lanez,  
seme-alabak lasai dabilta  
naiko txanpana edanez.

*Agi-*

Guk ez genuen aukera ori,  
benetan gauza tamala;  
baiña ikusten da bizimoduko  
gauzak aldatu dirala.  
Testamentua egin bearra  
degu nola edo ala,  
baiña baezpa're joka dezagun  
geurea seguru dala.



## DEABRUA ETA AINGERUA

Deba, 1990-III-17.

Gaia: Inauteriak dirala-ta, Telleria deabru-jantzi-az mozorrotuta etorri da; Lazkaotxiki, berriz, aingeru-jantziarekin. Biak elkarrekin Tolosara doaz.

*Laz.-*

Ni era ontan ikusitzerik,  
Millan, etzendun usteko;  
motibo ori gaitzat artu det  
emen bertsoan asteko.  
Banoa orain ni Tolosara  
disfrazatuta joateko,  
jaiotzatican ona bear du  
aingerua izateko.

*Tel.-*

Leno bai baiña gaur egunean  
munduan falta lekua;  
aizu, aingeru, entzun ezazu  
etsaiaren aolkua:  
disfraz orrekin ematen dezu  
aingeru guardakua,  
ta seguru asko ijito bati  
saskitik galdutakua.

*Laz.-*

Alde batera zure disfrazak  
ditu deabruan sonak,  
baiñan askotan nai ezta ere  
dabiltz olako pertsonak.  
Zuk daduzkazun adar aundiak  
etzat iruditzen onak,  
arrisku oiek berekin dauzka  
esposatuta dagonak.

*Tel.-*

Aingeruentzat egiña ez da  
egungo mundu goibela,  
eta etsaiez burutu nai det  
nik bizitzaren papela.  
Zuk badakizu bizibideak  
asko aldatu direla,  
nere disfraz dago modako,  
munduan bear bezela.

*Laz.-*

Bildurtu zaitetz, ene laguna,  
zu esposatua zera,  
eta daukazun disfraz txar ori  
gauza ederra ote da?  
Karnabaletan zabilta baiña  
peligrosoa gaiñera,  
eta disfrazak segi lezake  
karnabaletik aurrera.

*Tel.-*

Fedeak eta aingerutxoak  
gaur egun ez du osperik,  
bide ortatik apartatu naiz  
naizta jarraitu gazterik.  
Egoak dauzka, baiña ez pentsa  
bera egaka asterik;  
or esan nai du onela ez dula  
itxura pixkat besterik.

Laz.-

Zuk ez dakizu nolakoa dan  
gaur aingerutxoan ditxa;  
egiritua degu gorputza,  
zuzentasuna egintza.  
Naiago nuke zure buruak  
sinistatua balitza:  
gure San Migel jefe degula  
zeruan egan gabiltza.

Tel.-

Au predikatzen saiatu arren  
ikuslearen zalantza,  
predikatzea ta bide ona  
dirade bere ardatza.  
Inauteritan aingeruz jarri  
eleiza aurrean dantza.  
onek soñeko txuria dauka  
eta izakera beltza.

Laz.-

Zure disfrazta ain txarra dala  
egon zaitea jakiñik,  
jendean bistan ola ibiltzeak  
ez al dizu ematen miñik?  
Askotan oinbat adar aundiak  
kalte dirala jakiñik,  
larri zabiltza koartoko atean  
ere pasatu eziñik.

Tel.-

Noizbait bear ta gu biok topo  
emen egin bear genduan;  
baiña, aingerua, zu etzabiltza  
oso leku seguruan.  
Txorakeriak emen akabo  
etsaiaren inguruan,  
eskutan dedan sardearekin  
jotzen bazaitut buruan.

Laz.-

Ni emen nabil disfrazatuta  
Tolosako plaza jiran,  
zer gauza edo zer ferri dagon  
olakoxe ikusmiran.  
Eta zuk berriz jende guztia  
kondenatutzeko iran,  
Luzifer eta Satanase ere  
leno aingeruak ziran.

Tel.-

Txintxo-paperak berekin dauka  
ainbat trantze ta maratil,  
eta egiten asi dan ori  
esan gabe ez naiz trankil.  
Etsaia eta aingerutxoa  
biak gaur alkarren urbil:  
aingeru-jantziz kontrabandoan  
kondoia saltzen or dabil.

Laz.-

Ixildutzeran nijoan baiña  
ola gai on bat erreztu,  
onek dadukan salmenta ori  
gaurkoan ez dago prestu.  
Nai bazenduke erregalatu  
ere dago zeure esku,  
onen antzeko adardun batek  
olako bearririk eztu.

Tel.-

Aingerutxoak emana digu  
azken kolpea bortitza,  
eta zergatik ontan amaitu  
gezurarekiko itza?  
Egia da, bai, oso txarra da  
aingeru txar onen sitsa,  
egun guziko sermoia onek  
prailea izan balitza.

**ERLOJUKO BI ORRATZAK**

Beasain, 1990-V-18.

Gaia: biok erloju bateko bi orratzak zerate: Lazkao-Txiki, motza; Telleria, luzea.

*Laz.-*

Ala bear ta zer gai ederra  
daukagun biak jarrita,  
geientsuenak badakizute  
erlejuaren berri ta.  
Bitan neu nago emen alperren,  
noski zaude igerrita:  
onek ainbeste lan egiten det  
gutxiago ibilita.

*Tel.-*

Bion artean osatzen degu  
erloju baten barrena,  
onek aurrengo mogimentua  
eta nik det ondorena.  
Zuk ordubete markatzen dezu,  
nik erdi eta laurdena;  
biok gerade bearrezkoak  
baiña ni bearrezkoena.

*Laz.-*

Bearreneko zein ote geran  
norbaitek al du usteko?  
Prezisoena egitea da  
graduak irabazteko.  
Gutxigo ibili, ongi portatu  
zuk etzenduke kalteko;  
iruroi buelta eman bear zuk  
nere lanak egiteko.

*Tel.-*

Geure alegiña egiten degu  
bakoitzak bere klasean,  
ta mogimentu askorik gabe  
dago denbora pasean.  
Ta ni noranai or irixten naiz  
nere baldar ta luzean,  
ta orduz ordu tartean dago  
Txikia nora ezean.

*Laz.-*

Ainbeste buelta ematen ditu  
lagunak ordu betean,  
nik geldik nago eta au berriz  
bere buruan kaltean.  
Eta jornala biok berdiña  
dadukagu azkenean,  
aundi au ere gelditutzen da  
ni gelditzen naizenean.

*Tel.-*

Bere txikian garrantzi pranko  
beretzako artu du ta,  
puntak libre ta erdi parean  
beti gabiltz elkartuta.  
Iñoiz parean jartzen gerade,  
iñoiz ere puntak junta;  
auskalo nora joango litzaken  
nik azpian ez baneuka.

Laz.-

Gaztea da ta arrotasuna  
gogoratzen zait sarritan,  
eta atrebitua dalako  
arritu oi naiz erditan.  
Ez egon arren onen babesan  
desio edo premitan,  
nere gainean ipintzen zera  
eguardiko amabitan.

Tel.-

Gugan du garrantzi ta indarra  
betirako erlojuak,  
gure ibilleran izaten ditu  
*tin-tan*-ak eta ojuak.  
Nik minutuak markatzen ditut  
eta Txikiak orduak,  
gugatik korri egiten dute  
jendeak eta munduak.

Laz.-

Neri ordulari deitzen didate,  
au *minutero* deritza,  
nik baiño lan geiago eginda  
prezioz berdin zabiltza.  
T'au amabitan nere gainean,  
orixe da zure ditxa;  
a zer suertea izango zendun  
ni neska izan banintza!

Tel.-

Orratz txikia bein bear eta  
xelebrearen peskisan,  
orratzak gera eta neskatxa  
ta mutilla ezin izan.  
Batean sartu, bestetik irten,  
ni ala izan banintzan;  
eta esertzeko esango diot  
kuerda artu al dezan.

## MAIXUA ETA IKASLEAK

Beasain, *Alkartasuna* lizeoaren zillarrezko eztaiak, 1990-V-18.

Gaia: Lazkao-Txiki, irakaslea. Peñagarikano eta Mendizabal, ikasleak. Zein da bietan ikasle-rik kaxkarrena?

*Laz.-*

Zuei erakustea da nere atsegiña, ikastera etortzen da jende ezjakiña. Biontzat zenbat dira launa ta erdiña? Ea bietan zein dan tontorik aundiña.

*Peñ.-*

Neri ere ikasteko falta zait gogoia, egiteko ariketak badira mordoa. Laguna, ez bazera zu orren baboa, zenbat da milla iruren raiz kuadradoa?

*Men.-*

Ori badakidala garbi ta nabarmen, talentutikan badet orrenbeste kemen. Raiz kuadradokin nola asia den, badakit baiña ez det erantzungo emen.

*Laz.-*

Tontoak zirala uste nuen nik lenago, orain ori esaterik batere ez dago. Nola erredondo ta berdin da kuadrado, beak dakitela uste det nik baiño geiago.

*Peñ.-*

Ara neri maixuak or zer bota diran, tonto geiegi gaude gu alkarren jiran. Ta tontoa ez bazera, maixua, segiran Amstrong, Aldrin da Collings zuk esan zein ziran.

*Men.-*

Zirikatu bear det nere aldamera, lengo galderak au du bere ondorena. Triangulo formako gizon nabarmena, zenbat da maixu orrek duen bolumena?

*Laz.-*

Nere bolumena, jaunak,  
emen bistan dago,  
sudurrean au degu  
ni baiña gelago.  
Zu motxagoa au baiña,  
baiñan gizenago,  
ortako eskola askon  
bearrik eztago.

*Peñ.-*

Makilla besterikan  
onek ez du usa,  
eta askok bezela  
ain burua utsa.  
Gu gerala tontoak  
da bere eskusa,  
zer da kateto eta  
zer da ipotenusa?

*Men.-*

Aizu, Peñagarikano,  
auxe entzun zazu:  
martxan jarriak daude  
makiña bat maixu.  
Ipotenusa kontuan  
asi baizera zu,  
ta azkenik maixua  
mareatu dezu.(1)

---

(1) Mendizabalen txanda zanean, Lazkao-Txiki asi baitzan bertsoa kantatzen, bere txanda zalakoan.

## OE-BURUKO IRUDIA

Beasain, 1990-V-18.

Gaia: zu, Peña, gazterik alargundu zihan. Urte batzuk pasa dira eta berriro ezkondu zera, Lazkao-Txikirekin ain zuzen. Lenengo gauean lo-gelara sartu zerate eta oe-buruan aurreko senarraren irudia.

*Laz.-*

Ezkondu gera bear bezela  
kristautasun eta legez,  
eta oraindik nere andrea  
jarri liteke negarrez.  
Senar zanaren fotografia  
or dauka obe bearrez,  
ori ôin alperrik izango da ta  
kendu zaidazu mesedez.

*Peñ.-*

Fotografia kendu dezâla  
onek ala eskatzen dit:  
aizu, senarra, zuk erantzuna  
jaso ezazu nigandik:  
ala bearrez gaitz batek jota  
ura juan zan emendik,  
beti-betiko juan zan baiña  
gogoan daukat oraindik.

*Laz.-*

Senar txikia zarra da baiña  
oraindik dago indarrez,  
sasoi pixka bat badauka eta  
beti alai eta parrez.  
Len esan dizut fotografi oi  
kendu zazula mesedez,  
orrekin negar egingo dezu  
eta besterik ezer ez.

*Peñ.-*

Nere senarra ori kentzeko  
emen asi da prestatzen,  
iñola ere korapilloa  
oni etzaio eskatzen.  
Argazkitxo bat ikusi eta  
asi al zera kezkatzen?  
Zuk nere naia errespetatu  
besterik ez det eskatzen.

*Laz.-*

Ezkonberritan ez asarretu  
biontzat ere obe da,  
baiña andra oni ematen diot  
bakaillu baten tankera.  
Ia argia pasatzen zaio  
aurrekaldetik atzera,  
baiñan orain gizendu beazu  
nerekin bizi bazera.

*Peñ.-*

Nola arraio mintzatu zera  
andra berriaren kontra?  
Lazkao-Txiki, nik ere artu det  
esan dezunaren nota.  
Eta esan dizut nola juan zan  
bein gaitz txar batek jota,  
eta egin bear dana egin zazu  
ez gaitu ikusiko ta.

*Laz.-*

Eskerrik asko, andre maitea,  
aitatu didazun eran,  
fotografiko disgustorikan  
geio ez nuke nai eman.  
Alai ta ongi ikusi nai zaitut  
zuk merezi dezun eran,  
orain argiak itzali itzazu  
ea konpondutzen geran.



## GORA ALA BEERA?

Abaltzisketa, 1990-VI-24.

Gaia: Lazkao-Txikik dionez, mundua gero eta okerrago doa; eta, Egañaren ustez, gero eta obeto.

*Laz.-*

Nik pentsatzen det aldi obea  
izan gendula antziñan,  
ni jaio eta zu oraindikan  
mundu onetan ez ziñan.  
Aurrerapenik ez zan ikusten  
mundu zar onen eskiñan,  
baiñan alare mutil gazteak  
obetogo bizi giñan.

*Ega.-*

Gaur egunean ez al daukagu  
len gauza baiño geiago?  
Erre xamarrik ikusten zaitut  
ta ainbestean akabo.  
Esaten dezu dena obea  
omen gendula lenago,  
munduak ez du bate kulparik  
bera erreta badago.

*Laz.-*

Nik bezain ongi zuk badakizu,  
ez da aipatzen okerrik;  
garai batean ez zegon emen  
orain daukagun marmarrik.  
Orduan ez zan atomikarik  
ta olako arma txarrik.  
bata bestea iltze ezkerok  
ez da adelantu bearrik.

*Ega.-*

Uste gabeen atomika ta  
orrelakoekin irten,  
nik aitortzen det gaur badagola  
makiña bat astakirten.  
Baiña ez zaitetz ari mesedez  
orrelakoak esaten,  
ez zaidazula esan, Txikia,  
gerrarik ez zala izaten.

*Laz.-*

Gerrak len ere izaten ziran,  
ori da gauza zikiña,  
ni bezelaxe lengo guzia  
dago gauz ori jakiña.  
Orain dagoen ezin bizia,  
lanik billatu eziña,  
obe gendun au gerta baiño len  
il izan baldin bagiña.

*Ega.-*

Lazkao-Txikik artua digu  
triste ipintzeko plana,  
lengo garaiak goraiatzeko  
ori da, ori, afana!  
Ez zazu pentsa gaur egun ere  
ain eskaxa dala dana,  
zu zera emen munduko martxan  
atzera gelditu dana.

*Laz.-*

Geroz ta gaizkigo goazela  
garbi asko ikusi da,  
nere iritziz mundu ustel au  
dana ondatzen asi da.  
Eta azkenik sortua zaigu  
sendatutzen ez dan *sida*,  
orduan baiño gaurko jendea  
aldrebesago bizi da.

*Ega.-*

Gaur egungoak merezi luke  
orrenbeste errespeto,  
alderdi onak baditugula  
zuk badakizu gaur zierto.  
Eskaxak ere baditugula  
beingoagatik ameto,  
baiña ni beintzat orain bizi naiz  
pixkana eta obeto.

*Laz.-*

Lenago gaizki bizi giñan da  
gaur badago naiko lan,  
zelebre gabiltz danok asarre,  
gaizki gabiltz emen da an.  
Gazte maitea, azken bertsoan  
auxe nai nizuke esan:  
gure denboran Euskal-Errian  
euskeraz itz egiten zan.

*Ega.-*

Gure izkuntza eldu liteke  
oraindikan urrutira,  
ementxe bertan orko etxean  
ikasten jarduten dira.  
Alde ortatik euskera ere  
indarra artzen ari da,  
orretxegatik segi nai nuke  
aurrekaldera begira.

**TXANTXANGORRIA ETA KUKUA**

Aia, 1990-VIII-7,

Gaia: I, Joxe Migel, txantxangorri bat aiz. Aritz zaar baten ondoan egin dek abia. Arrautza berotzen saioa egin dek, eta ume beltz aundi bat jaiotzeko: kukua, ire aldameneko ori. Jardun aiz jaten eman eta jaten eman; egin dek aundia, lumaz jantzi dek eta antz eman diok oraintxe egako moduan dala. Jarri aiz kanpoko aldetik, jatena bistan dekela; asi aiz otsegiten; asi dek bera egatu naian; baiña burua ez zalok kabitzen aritz zuloan. Orain zer egin? Burua pixka bat txikitu arte nekatu arazi bearko dek. Asi txantxangorria kanpotik, eta kukua, Imanol Lazkano, barrundik kantari.

*Laz.-*

Kume bat azten egin  
nere egiñala,  
eta bai azi ere  
bapo nola-ala.  
Gorputz aundia eta  
burua zabala,  
laister igerri nion  
nerea etzala.

*Ima.-*

Kukua emen dago  
zulotik begira,  
ta nere ugazamak  
orrenbeste jira.  
Alimentua uzten  
dit ain urrutira,  
burua bereala  
datorkit neurrira.

*Laz.-*

Guk daukagun problema  
gaur nola zuzendu?  
Izan ere geiegi  
bainuen mantendu.  
Egurrari puskarik  
ezin diot kendu,  
obe zendun gutxigo  
jan izan bazendu.

*Ima.-*

Orain arte egon naiz  
zuloan kerizan,  
eta mantendu niñun  
berearen gisan.  
Zu baiño raza obea  
izan ez banintzan,  
orain ainbat arazo  
ez nezake izan.

*Laz.-*

Ama ere alako  
alperra dezuta,  
orregaitik daukagu  
ainbeste disputa.  
Bere arrautza ipini  
neuriak ostuta,  
aterako zaitut baiña  
lepua moztuta.

*Ima.-*

Orain arte azi nau  
alako arretan,  
eta orain tratatu  
gorroto txarretan.  
Buru gabe ze ingo det  
nik kanpo orretan?  
Ola izatezkero  
utz nazazu bertan.

*Laz.-*

Barruan nai badezu  
zaude zu barruan,  
baiñan udaberria  
eduki goguan;  
ez daukazu juaterik  
bestien moduan,  
zuluan jardun bear  
kukuak kantuan.

*Ima.-*

Mundu onetan bada  
ain pekatu gabe,  
eta gero ondorenak  
etortzen dirade.  
Ibili zan arrautzei  
begiratu gabe,  
orain argatik daukat  
ainbat atsekabe.

*Laz.-*

Txantxangorriak badu  
or naiko meritu:  
orrenbeste denboran  
mantentzen aritu.  
Orain buru aundia  
ezin du kabitu,  
orke kulpa guztiak  
zure amak ditu.

*Ima.-*

Naiko inoxente zan  
ama izaten asi,  
orregatikan dator  
oinbeste desgrazi.  
Nai badezu semea  
ondo azi ta ezi,  
lenengo arrautzari  
beiratzten ikasi.

**BI AMA GAZTE**

Sorabilla, 1990-IX-1.

Gaia: zuek biak bi ama gazte zerate. Zu, Sorozabal, arratsaldean zure aurra guarderitik artu eta etxera dakarkizu. Zure auzoko Lazkao-Txiki, beste ama au ere, aurrari bularra ematen ari da atarian.

*Sor.-*

Lanean asi nintzan bein eta etxeko martxa akabo, aurtzaindegira joan bearra daukat gero ta maizago. Zure umea eskutan artuz ikusi zaitut lenago, nerea ondo zaindu didate, zurea zer moduz dago?

*Laz.-*

Amak dituen gauz eder danak galtzen ari dira ia, ama izanda bere aurraren ezikera egokia. Eta zuk ere etxean artu ez al zenduke obia? Bi bular aundi badituzu ta eman zaiozu titia.

*Sor.-*

Bularra eman bear zaiola esaten dezu lenengo, baiña bildur naiz nai dun guztia ez ote duten izango. Bear bezelako amak bagiña ibiliko ziran ondo, baiña zuretik eta neretik asko ez dute edango.

*Laz.-*

Garai batean ez zan izaten orren oitura zatarrrik, ez ta're inoiz gardei ortara umeak eraman bearrik. Biberoieko esnearekin ez da ixiltzen negarrik, eta bularrak ez dira gero jostatutzeko bakarrik.

*Sor.-*

Lazkao-Txikik ez du sartu nai ni sartzan naizen tokira, bere etxean jartzen da eta umearekin bizi da. Baiña pixka bat jarri bear dezu gaurko denborei begira, len gauzak ola ziraden baiña gaur egun aldatu dira.

*Laz.-*

Ez dakit gaurko egite ori adelantua ote dan, izanez ere guardian oiek jarri dituzte aukeran. Baiñan umea tristetu leike titiaren goraberan, obeago da aurrak aztea len azitzen ziran eran.

*Sor.-*

Lazkao-Txikik sartu nai luke  
garai bateko jokoan,  
baiña nik ere zer esanikan  
badaukat orrelakoan.  
Egun guztia igarotzen du  
aurtzaindegiko txokoan,  
baiña naikoa ematen diot  
etxera ekarritakoan.

*Laz.-*

Zure antzeko beste andre bat  
ikusi det lengo baten,  
bere umea eskuan artu  
eta guarderira joaten.  
Arek ez daki nerean eran  
etxeko kankak kantatzen,  
ta guarderian ezitakoak  
ez daki ama maitatzen.

**LODIA ETA FLAKOA**

Mutriku, 1990-IX-8.

Gaia: oporrak bukatu dira. Azpillaga, lodi antxean etorri da, kabitu eziñik; Lazkao-Txiki, flako.

*Azp.-*

Jaiotzaz oso txikia omen zan,  
ori du lendabiziko,  
ta aundiaren izakerarik  
bein ere etzuen graziko.  
Oporraldia medratutzeko  
bideik etzun ikusiko,  
gaztetan txiki gelditu zan da  
gerora ez da aziko.

*Laz.-*

Nik banekien lenago ere  
gorputza aundia ez nula,  
jende guztiak badaki eta  
ori ezin disimula.  
Baiña badakit lengo aldean  
gizena ekarri dezula,  
esan liteke nere lagunak  
etxean jaten ez dula.

*Azp.-*

Oporraldiak asi zurretik  
ere zegon oso fiña,  
bentaja aundirik ez dio egin  
onei oporra egiña.  
Dana parranda ta erretiro,  
txarra badauka tamaiña,  
askozaz ere obeto zendun  
lanean egon baziña.

*Laz.-*

Zu aserikan ta ni goseak  
egonak gera antziñan,  
ta oporretan gertatu nintzan  
plaia bateko eskiñan.  
Begiak beira gustora zeuden,  
besteak zerbaiten griñan,  
nere antzera ibili ezkeru  
zu're plakatuko ziñan.

*Azp.-*

Uda juan da negua dator,  
gizentzeko dauzka pozak;  
opor ondoren ipurtaldeak  
ikusten zaizko zorrotzak.  
Buru txikia, gorputza berdin  
eta anak dauzka motzak;  
gizendu edo andrea artu,  
bestela ilko zaitu otzak.

*Laz.-*

Len esan dizut zer gauz dalako  
naizen orrenbeste argaldu,  
ezkonduta re nere andrea  
nik ezin asko zapaldu.  
Gure Azpillagak irabazi du  
ta Lazkao-Txikik galdu,  
esaera da: zezen fin batek  
argala egon bear du.

## LENGO ETA GAURKO BIZITZA

Donostia, 1990-IX-14.

Gaia: Lazkao-Txiki aita izango da; eta Sarasua, bere semea. Aita, lengo erak gordetzekoaren aldekoa da. Semea, aldiz, gaurko bizitza modernoaren aldekoa.

*Laz.-*

Zer aldakuntza ikusten dedan  
gure garaitik onera!  
Gaueko amabiak baiño len  
jaietan ezin atera.  
Nere semetxo maitagarria,  
au legezkoa ote da?  
Eguna zabaldu ta gergo  
gaur ere etorri zera.

*Sar.-*

Orren berandu etxeratzeak,  
aita, ez du gauza txarrik,  
ainbeste aldiz esan dizut nik  
ta ala ere alperrik.  
Lengo guztia ez zala ona  
ez dago esan bearrik,  
bertsoa ere guztiz ilko zan  
sârdotegitan bakarrik.

*Laz.-*

Zuk ez dakizu zure aitatzko  
lenago nola izan dan,  
garai artako gurasoekin  
txintxua izan bear zan.  
Eta zurea pentsatu zazu  
lotsagarri ta zer lan dan:  
gizarajoak orduak sartzen  
eta semea parrandan.

*Sar.-*

Ta ori atzerapena danik  
zuk ez dezu ba usteko,  
askoz ohea da oraingoa  
gauza garbi esateko.  
Zuk lengoa ta gaizki bazaude  
ni berria ta obeto,  
gaua parrandako artzen degu,  
eguna lo egiteko.

*Laz.-*

Nere seme au nai nuke baiña  
ezin zuzendu iñolan,  
zentimorik ez du irabazten  
ta nai dun bezin ondo jan.  
Ogei ta iru urte baditu  
ta oraindik dabil eskolan,  
zure aitatzko iltzen danean  
izango dezu naiko lan.

*Sar.-*

Gure aitatzok zerbait badaki  
eta mintzatu zait bikain,  
bere dirua izaten baitet  
nik parrandarako ordain.  
Egungo gauzak ederrak dira  
baiña ez nik gaur nai bezain,  
lanikan gabe ez da libratzen  
ez ordun eta ez orain.



Laz.-

Kotxea artu, gelditu gabe  
zabiltzate erriz-erriz,  
aita ta amak zail da jakiten  
zuen berri oiek berriz.  
Askotan erdi drogatu eta  
ain postura parregarriz,  
txintxotzen asi bearko dezu  
iñundik al baldin balitz.

Sar.-

Nik ondo dakit ez dala ona  
orain egiten deguna,  
gure bizitza zuen aldean  
izan da oso biguna.  
Baiña zuena ere txarra da,  
aizu, aitatxo laguna,  
lanean eta animal ezitzen  
pasatzen dezu eguna.

Laz.-

Azken kontseju auxe emanda  
aitak nai luke eseri,  
eta al badek nai nizuke nik  
errespeto pixkat jarri.  
Eta kanpoan nola sortu dan  
orrenbestetxo gaitz berri,  
parranda egin zuk lasai baiña  
*sida ez zazu ekarri.*

Sar.-

Ainbeste gauzak ematen dio  
erasotzeko aukera,  
goizean goizik ainbeste gauza  
etortzen zaizka gaiñera.  
Aizu, aitatxo, gaurkoagatik  
naikoa mintzatu gera,  
zure lana ondo egin zazu  
ta ni banoa oera.

## ENSALADA MIXTA

Urkia, Itsasondo, 1990-IX.16.

Gaia: Zeberio tomatea izango da; Mendizabal, tipula; Barandiaran, letxua; Lazkao-Txiki esparragoa. Ara emen *ensalada mixta*, koplatan kantatzeko.

*Zeb.-*

Lauron artean izan nai degu  
ensalada on baten jabe,  
baiña orixe ez da egiten  
tomate onikan gabe.

*Men.-*

Aterako da gaurko onetan  
ensalada xelebrea,  
letxua dago legor xamarra  
eta esparrago mea.

*Bar.-*

Oraingo ontan bukatu bear  
ensalada orren broma,  
baiñan denetan letxua degu  
ensaladako sanona.

*Laz.-*

Oso ederki konpontzen dira  
esparrago ta tomate,  
gaur iñor arrekin baldin bada  
akordatuko zerate.

*Zeb.-*

Letxua dago ia zartua  
ta esparrago melarra,  
oi baiño kasi ohea degu  
Urkiko almitz belarra.

*Men.-*

Gure bandejak arkitzen dira  
gaiñezka eta beteak,  
kalabazaren itxura dauka  
jarritako tomateak.

*Bar.-*

Atzeko aldetik emen egon naiz  
Zeberiori begira,  
tomate denak onen burua  
aiñekuak baldin balira!

*Laz.-*

Tomatea ez da ederra baiña  
okerragoa tipula,  
aren atzeko airerik neri  
etzait gustatu sekula.

*Zeb.-*

Tomatea ta emen letxua  
ta esparragok bestiak,  
baiñan eunero jateko oiek  
dira oso garestiak.

*Men.-*

Artajonako esparragoa  
mea ta oso argala,  
esan liteke legortekin  
sufritzen egona dala.

*Bar.-*

Beti ain ondo artutzen ditu  
emen meak eta lodik,  
ensalada ortan jateko ez da  
letxua bezelakorik.

*Laz.-*

Oso ederki ornitu gera  
tipula ta esparrago,  
ate ondoan egon dedilla  
iñor premian badago.

*Zeb.-*

Gauz ederra da esan deguna  
emen lau gauza batera,  
esparragoa lur azpitikan  
oraindik ez da atera.

*Men.-*

Ensaladari jarri ezkerro  
oraingo ontan begira,  
konpletatzeko itxura antzean  
azeitunak falta dira.

*Bar.-*

Orain artean egin ditugu  
ensalada orren lanak,  
ondo jarritzen baldin baituzte  
afaltzen jango'itugu danak.

*Laz.-*

Ezin zapuztu azken bertsoan  
nere lagunai entzunik,  
baiñan laueta ez dago iñor  
azeitunarik ez dunik.

## UDAZKENA ETA UDABERRIA

Ugarte, Amezketeta, 1990-X-13.

Gaia: Lazkao-Txiki, udazkena; Sorozabal, udaberria.

*Laz.-*

Mundu onetan denborarekin  
iritxi izan da dena,  
ori ni ere orain zartuta  
leno gaztia nintzena.  
Alde batera poza dadukat  
eta bestera det pena,  
aro berdiñez gauden ezker  
ni naiz gaur udazkena.

*Sor.-*

Lazkao-Txiki, mesedez emen  
zu ez mintzatu orrela,  
batzutan ia nik pentsatzen det  
zu naiko triste zaudela.  
Baiñan ez uste zure garaia  
oraindik dena joan dela,  
joan-etorri bat da bertsoketa  
bizitza bera bezela.

*Laz.-*

Udaberriak loreak ditu  
ta arbola loretuak,  
gero udarak ematen ditu  
bakoitzak bere frutuak.  
Baiñan udazkena dator gero,  
au ere egin zun Jainkuak,  
ni naizelako ondutzen dira  
zuek len egindakuak.

*Sor.-*

Uda azkena etorri arren  
oraindik ez da bukatu.  
Zer egingo da? Zartzea ere  
sekula ez da pekatu.  
Orain artean bertso on gutxi  
nola ez dezun kantatu,  
guk egingo deu lan berria ta  
zuk len egiña kontatu.

*Laz.-*

Gazte maitea, eskerrik asko,  
zuk jarrai zazu orrela,  
nere arbolak ez du besterik:  
zotz igarra ta orbela.  
Baiña pentsatu ala ta guztiz  
biok onduan gaudela,  
nik pentsatzen det gaztetan baiña  
obeki bizi naizela.

*Sor.-*

Animosoa ikusten zaitut,  
Lazkao-Txiki laguna,  
zeure denboran gozatu dezu  
bertsozale euskalduna.  
Eta nik ere ortan egingo  
det nere alegin jarduna,  
egun batean gertatu arte  
zuri gertatu zaizuna.

*Laz.-*

Zer polita dan udaberria,  
ango lore eta intza!  
Lore berriak frutu biurtu,  
ori du bere ekintza.  
Baiña nik ere eman nai nuke  
zerbait egindako itza:  
len jaiotako txorikumeak  
guztiak egan dabilta.

*Sor.-*

Gaur udazkena bizi dutenak  
egiña dute, bai, lanik;  
eta guk ere badegu lana  
oraindik gazte izanik.  
Errespetatzen zaituztegu guk,  
ortan ez da zer esanik,  
baiñan orrekin ez det esan nai  
gu txarragoak geranik.

## SANTA ESKEAN

Txomin Garmendia ete Lazkao-Txiki.  
Ezkio, 1991-II-4.

*Laz.-*

Otsaillaren laugarrena gaur  
Santa Ageda bezpera,  
oitura zarrak gorde asmotan  
gabiltz urtetik urtera.

*Gar.-*

Ongi diozu, Lazkao-Txiki,  
saia gaitezen alegin,  
garai bateko oitura eder au  
erabat galdu ez dedin.

*Laz.-*

Entzun zaiguzu gure otoitza,  
o Santa Ageda maitea,  
zure laguntzaz beartu eta  
gutzaz erruki zaitea.

*Gar.-*

Aurreruntz ere santa arentzat,  
jaunak, oroitu gaitean,  
bitartekotza izan dezagun  
zeruetako atean.

*Laz.-*

Milla beatzireun ta larogei ta  
amaikagarren urtean,  
emen kantuan ari gera gu  
Ezkio gako partean.

*Gar.-*

Aurtengo urtean betetzen omen  
dira irurogei urte,  
Ama Berjiña azaldu zala  
askok esaten digute.

*Laz.-*

Esaten dute garai orretan  
azaldu ziñan Ezkion,  
baiñan zeruan izango dezu  
emen ainbeste zorion.

*Gar.-*

Batzuk diote egia zala,  
besteak gezurra zala;  
iñori gaitzik egin badiot  
arren barkatu dezala.

*Laz.-*

Garai ortan e danak ez giñan  
gutzizko zorionean,  
gerra izan zan zu Ezkioan  
azaldu ondorenean.

*Gar.-*

Eta gaur ere gerra-kontua  
besterik ez da aitatzen,  
gizonak ez gerade xamurrak  
nunbaite eskarmentatzen.

*Laz.-*

Santa Ageda lagun arturik,  
ene Birjiña maitea,  
lur onetara bialdu zazu  
zeruetako pakea.

*Gar.-*

Santa Agedak izandu zuen  
neskatx garbian grazia,  
baiña sufritu gabe ez degu  
zerua irabazia.

*Laz.-*

Santa Ageda, sufritzekoa  
zu ere izan ziñaden,  
gero martiri egin ziñan zu  
fedea gordetzearren.

*Gar.-*

Etsai gaiztoak zigortu zuten,  
ondoren moztu bularrak;  
lastimagarri izango ziran  
azken orduko negarrak.

*Laz.-*

Beraren aita zala merio  
sufritu zuen guzia,  
baiñan alare orain badauka  
zeruetako grazia.

*Gar.-*

Kolokan dabil sinismena ta  
kolokan dabil fedea,  
argatik degu mundu kaxkar au  
zorionikan gabea.

*Laz.-*

Ene Birjiña, lagun zaiguzu  
guztiok ibiltzen zuzen,  
gorroto txarrak baztertu eta  
pakean bizi gaitezen.

*Gar.-*

Santa Ageda ta Ama Berjin,  
gaur entzun gure izkuntza:  
trantze estutan arren da arren  
egin zaiguzu laguntza.

## EGURALDIA

Irun, 1991-III-23.

Gaia: Imanol Lazkano Pello Zabala izango da; alegia, irratiz eguraldia iragartzen duen gizona, Arantzazuko frailea, oso gizon jatorra, baiña metereologoa. Gaur goizean egin du iragarpen bat sekulako zaparradak, mendebaleko aizea, terrala eta abar izango dirala. Joxe Mielek irratia entzun eta joan da kalera, bere garbardina, berokia, txapela, guradasola eta abarrekin. Eta Donostira etorri eta sekulako eguraldi ona tokatu.

*Laz.-*

Praile zar auek nere gogoko  
bein e ez ditut izan nik,  
eta gaur ere irratitikan  
ez dit eman berri onik.  
Erljiuan ere amaika  
olako gaude entzunik,  
bestei esaten ez zaitez ari  
zeuk sinisten ez dezunik.

*Ima.-*

Barkatu baiña len eta orain  
fraileak beti modako,  
eta al bada aurrera ere  
ola segitu bearko.  
Baiña Txikiak ortik jaso du  
bizitzan frakasu franko,  
len e mutilzar gelditu zan au  
guri sinistu ziulako.

*Laz.-*

Lenago ere fraile zalea  
bein e izan ez nintzan da,  
zer disparate entzuten diran  
fraile zar onek esanda!  
Ta dirudinez or Arantzazun  
fraile zarren bat izanda,  
orregatikan egin al dezu  
guardasolen propaganda?

*Ima.-*

Atzo arratsez egualdiaren  
berri nik ustez emanik,  
ez da itxuraz atera gure  
Lazkao-Txikiren planik.  
Orregatikan zertan gorrota  
frailerik eta sotanik?  
Aragizkorik ez da munduan  
deskuidatutzen ez danik.

*Laz.-*

Orain bitarte zugan egon naiz  
sinistamenez betia,  
pentsaturikan: "Praileak badu  
Jaungoikoaren dotia".  
Baiña aurrera nai dezuna egin,  
ene Jaungoiko maitia,  
ta zuk asmatu ezin badezu  
ixilik egon zaitia.

*Ima.-*

Lazkao-Txiki beti daukagu  
gu zirikatzeke gertu,  
baiña ez dago gure eskuan  
noiz asi ta noiz atertu.  
Nik egindako pronostikoan  
ez bazerade kontentu,  
ziur jakitea nai badezu zuk  
biaramonean galdetu.



*Laz.-*

Jeiki orduko goiza denetan  
 begiratzten det zerura,  
 ea laiñorik ote dan edo  
 al dan eurien itxura.  
 Baiña aurrera ezin sinistu  
 zuk esaten dezun ura,  
 makiñatxo bat golfo bizi da  
 Jaungoikoaren kontura.

*Ima.-*

Aitor nezake egualdi ortan  
 naiko argia naizela,  
 baiña badakit deskuidoak e  
 sarri asko datozela.  
 Batzutan otza espero eta  
 igual sortzen da epela,  
 egoaizeak nastutzen gaitu  
 emakumeak bezela.

*Laz.-*

Zure egualdi kontu orrekin  
 asperturikan naukazu,  
 irrati bidez goiz da illuntze  
 or ari zera jo ta su.  
 Gauza bat ona badaukazu zuk  
 ta orretan zera maisu:  
 egoaizea datorrenean  
 beti igerritzen zaizu.

*Ima.-*

Normala da ta Lazkao-Txikin  
 bertsoa beti graziko,  
 bertso kontuan ni onen aurka  
 ez naiz iñolaz asiko.  
 Baiña badaukat bizibide bat  
 nere denbora guziko,  
 kontuak kontu frailea naiz ta  
 ni ez naiz gaizki biziko.

## ZER MODUZ ESKOLAN?

Orio, 1991-IV-27.

Mañukorta eta Lazkao-Txiki.

Gaia: zuek gazteak ziñatenean, zer moduz ibiltzen ziñaten eskolan?

*Mañ.-*

Gazte denboran gu nola giñan asi bear da esaten, gaur Orioko ume guztiak gauza au jakin dezaten. Erdera utsa beste gauzarik iñun ez gendun ematen, gaur bezelako euskera utsik ordun ez gendun izaten.

*Laz.-*

Baserritikan kale bidean gazte urterik onenak, pentsa zazute Mañu eta ni len pasatuta gaudenak. Zertan aipatu dituzu, Mañu, ikastolako ordenak? Orren bearrik ez du izaten erderaz ez dakienak.

*Mañ.-*

Iru-lau urte ziran eskolan danak intentzio fiñez, bi eta bi lau dirala baiña geio nai eta jakiñ ez. Ume denbora pasatu gendun jolastu ta atsegiñez, eskolan baiño denbora geio sisi-eskola egiñez.

*Laz.-*

Ni idi itzulan gelditzen nintzan ta eskolara nai nun juan, baiñan etxean lan geiegi ta joaterikan ez zeguan. Mañukorta, zu orain bezela alperra ziñan orduan, zu eskolara bialdu arren piper egiten zenduan.

*Mañ.-*

Erantzun on bat ez ematerik, jaunak, ez luke merezi, Lazkao-Txiki alferkerian beti nola gendun ezi. Umetatikan eduki zendun ez dakit zenbat malizi, origaitikan metro ta laurden besterik ez ziñan azi.

*Laz.-*

Arrazaz nintzan txiki xamarra ta gelditu nintzan olan, garai aietan txikitasuna nolatan zegoen modan. Eta zu berriz alperra ziñan, gutxi ibilia eskolan, arrezkeroztik egiten dezu makiñatxo bat asto lan.

Mañ.-

Asto lan orrek Mañukortari  
gaur ez dio egin grazi,  
Euskal-Erria eta mundua  
ongi egin ditut ikusi.  
Errondarikan erronda nabil,  
bein ere ez nabil itxusi,  
ni baiño obeto bizi dan ura  
ez da oso gaizki bizi.

Laz.-

Baiña, Mañu, zeuk esaten dezu  
ongi zaitugula bizi,  
naita ez zenduen ikasi edo  
asko ez zenduen ikasi.  
Ta eskolara joaten ziñan  
zere motxilla ta guzi,  
eta orduan jantzitakoa  
oraindik ez dezu utzi.

Mañ.-

Erririk erri, auzorik auzo  
or joaten naiz kantura,  
txikiak ere maitatzen dute  
Mañukortaren kultura.  
Begiratuta eduki arren  
basarritarren itxura,  
oso ona da egun aretan  
bizkarren geldi zan ura.

Laz.-

Barka zaidazu itzezin badet  
lotsagabien modura,  
gizon on gisan ezautzen zaitut  
eta lagunen ardura.  
Ez dakit zenbat izango degun  
guk ikasi gendun ura,  
gu biok daukagun jakintza da  
betiko *agricultura*.

## PAÑUELOA LURRERA

Mutriku, 1991-V-7.

Gaia: Lazkao-Txiki urtetan zaitutako amona degu; Euskitze mutil gaztea ikustean, pañueloa lurrera botatzen du.

*Eus.-*

Mundu ontan sortzen da  
ainbat enbarazu,  
gaur amona zarrari  
egin bear kasu.  
Pañueloa botatzen  
zer ari zera zu?  
Ain polita da eta  
sobran al dauzkazu?

*Laz.-*

Len ere eraman det  
amaika frakaso,  
gaurkoan ere izan  
nezake akaso,  
zurekin e seguru  
ez bainago oso;  
nai badezu utzi ta  
nai badezu jaso.

*Eus.-*

Ez dezu gaizki esan,  
amona maitea,  
erakutsiko dizut  
nik borondatea.  
Nola ukatuko det  
ori egitea,  
orren errexa bada  
poza ematea?

*Laz.-*

Denbora badoala  
kontuak atera,  
neri burla egitea  
zuretzat galera.  
Denbora badijoa  
emendik aurrera,  
zu ere zartuko zera  
iltzen ez bazera.

*Eus.-*

Aldapan gora zoaz  
arnasa betian,  
ta ori bota dezu  
ez oso apartian.  
Pañuelo bat daukazu  
eskuen artian,  
txuria izango zana  
egunen batian.

*Laz.-*

Nere pañueloa  
ez dago ain zikin,  
zure mingaiña eta  
pañueloa berdin.  
Zerbait zartu naizela  
zuk badezu jakin,  
errespetoa izan,  
burlarik ez egin.

*Eus.-*

Pikardiz astelenez,  
 pikardiz jayian,  
 zu ere azaldu zera  
 nere usayian.  
 Larogei urterekin  
 ligatu nayian,  
 zer izan ote ziñan  
 zure garayian?

*Laz.-*

Paiñuelo bat bota det  
 ligatu bearrean,  
 baiña nunbait jausi da  
 paraje txarrean.  
 Gazte arroa dago  
 oso indarrean,  
 jaso nai ez badezu  
 utz zazu lurrean.

*Eus.-*

Au lurrean uzterik  
 nik ez det pentsatzen,  
 amonarekin ez naiz  
 orretan ausartzen.  
 Baiña makurtu eta  
 ai naiz mareatzen,  
 koloniatan ez dezu  
 askorik gastatzen.

*Laz.-*

Konponduko bagiña  
 biorentzat obe,  
 etzenduke artuko  
 ainbeste naigabe.  
 Naiz ez egiñagatik  
 amonaren jabe,  
 jostatuko giñake  
 peligrorik gabe.

*Eus.-*

Zer esaten ai zera  
 alajaungoikoa?  
 Gaztetan ez al ziñan  
 jostatu naikoa?  
 Zuk alper-alperrikan  
 dezu mutikoa,  
 an eserita dago  
 zeure modukoa.

*Laz.-*

Ene mutil gaztea,  
 esaten det egiz  
 zartuta ez nagola  
 aukera geiegiz.  
 Baiñan oraindik ere  
 mutil baten premiz,  
 bat artuko nuke pozik  
 etorriko balitz.

*Eus.-*

Ara oraingo ontan  
 nik zer entzun detan;  
 egia esan, nago  
 bildurrez kezketan.  
 Seguridade eskeintzen  
 dator berriketan,  
 lenago paisarekin  
 ai zan tratuetan.

*Laz.-*

Badakit nagoela  
 edadez betia,  
 oaindik ez dakizu zuk  
 zer gauz dan zartzia.  
 Jainkoak eraman zin  
 lenoko maitia,  
 gaur gaberako benik  
 etorri zaitia.

*Eus.-*

Ni ez nauzu artoa,  
ez nauzu txulua,  
neretzat biotzean  
badezu txulua.  
Baiña ezin det artu  
nik errezelua,  
zoaz etxera baiña  
tori pañuelua.

*Laz.-*

Pañueloa emanda  
badoa igesi,  
olako frailerikan  
nik ez det ikusi.  
Konbentuan sartzea  
obe luke kasi,  
fraile bat ematen du  
sandali ta guzi.



Eguren Erretegia, Berriatua. Ezkerretik: Julian Albisu,  
Lazkao-Txiki eta bertako lagunak.

## SAN ANTONIOK EMANA?

Oñati, 1991-VI-7.

Gaia: Lazkao-Txiki, anka utsik San Antonioren gana joan ondoren, esperantza guztiz etxera zetorrela, neskazar baldar, bizardun batekin egin zuen topo. Sebastian Lizaso, neskazarra.

*Laz.-*

Promes eginda ni izandu naiz  
San Antoniora juana,  
emakume bat billatutzea  
zan eskatutzen nuana.  
Azkenik orra nola erten dan  
Lazkao-Txiki onen plana,  
neskazar aundi au ote det nik  
San Antoniok emana?

*Seb.-*

Egun guztian Urkiolan naiz  
ustez benetan ibili,  
limosna, otoitz eta kandelak,  
denak ditut erabili.  
Baiña santuai piztutakoak  
bearko ditut itzali,  
mutil oso bat eskatu diot  
eta erdia bidali.

*Laz.-*

San Antonio, au ote nuen  
nere otoitzen ordaiña?  
Bidali dezun neskazar auxe  
ez da bizi apaiña.  
Erdi naizela esaten ere  
asia da alajaiña,  
mutilla beintzat oindik oso da  
txiki xamarra da baiña.

*Seb.-*

San Antoniokin sinetsita  
or saiatu naiz lanean,  
eta begira zer erregali  
neretzako azkenean.  
Ziur ez dakit baiña entzun det  
neure aman esanean:  
zu aiña aundi banintzadela  
munduratu nintzanean.

*Laz.-*

San Antonio biotzekoa,  
au da eman didazuena?  
Neretzat gorde al dezu bestela  
saldu ezin zenduena?  
Ez izan arren mutil aundia,  
ederra eta gizona,  
pentsatu gero ni erantzitzean  
naiz azi izan naizena.

*Seb.-*

Besterik ez ta txikiarekin  
bildu bearco gaurkuan,  
nolabait ere asi bearco  
artu-emanan jokuan.  
Berak esan du aunditzen dala  
arropak kendutakuan,  
lasaitu zaite, sartuko zera  
alare nere kolkuan.

*Laz.-*

Neskazar au ez dago bizioz  
umilla eta apala,  
badakizute arpegian e  
bizar aundia daukala.  
Orrelako bat nik ez artzea  
obego det aal dala,  
pentsatutzen det erantzitzean  
nere berdintsua dala.

*Seb.-*

Lendabizitik zirri egin dit  
ta gero eman bi muxu,  
itxura danez ofiziuari  
berri zerbait badakizu.  
Eta bizarra dadukatela  
zergatik esan didazu,  
bizar geiena dedan lekua  
geiena maite badezu?

*Laz.-*

San Antonio biotzekoa,  
zu're ez dakit zer zeran!  
Au bezelako neskazarrak len  
ere baneuzkan aukeran.  
Bizar aundia arpegian da  
gorputzan dadukan eran,  
dudan jartzen naiz neskaxa edo  
trabestia ote zeran.

*Seb.-*

Emakumea naizela emen  
agertu bear det garbi,  
San Antonio, egin zaidazu  
bear dedan ainbat argi.  
Eta biar goizean nai nuke  
nere ondoan oskarbi,  
onelako bakarra gutxi det  
eta ekarri itzazu bi.

*Laz.-*

Bi meza-diru eman ditut nik  
au dedalako medio,  
orretarako esan al ditut  
orrenbeste errosario?  
Nerekin oso gaizki portatu  
zera zu, San Antonio,  
zeuretzat nai badezu artzazu,  
neretzat ez du balio.

*Seb.-*

Ekainaren amairuan zai  
or egona naiz lenago,  
ilusioa franko baneukan  
baiña guztiak akabo.  
Berak ez du nerekin nai eta  
ni ortan konforme nago,  
beraz neskazar pasa bear det  
beste urte bat geiago.



## APARTATU NAIAN

Tolosa, 1991-VI-8.

Txomin Garmendia eta Lazkao-Txiki.

Gaia: zillarrezko eztaiak pasatu berri dituzuten senar-emazteak, aserretu eta apartatzera zoazte.

*Gar.-*

Egun batean ezkondu giñan,  
bagendun ainbeste izen;  
maitasunezko kutxa bat ere  
erabiltzen gendun zuzen.  
Baiñan ainbeste urte joan dira  
eta asi gera txartzen,  
zillarrezko eztaiak ospatu ta  
oain apartatu gaitezen.

*Laz.-*

Zenbatsu buelta ematen duen  
batek bizitzako jiran!  
Oraintxe gaude nere iritziz  
biziaren erretiran.  
Zillar-eztaiak ospatutzeko  
pozikan joan giñan iran,  
zillarrezkoak uste gendun da  
ojalatazkoak ziran.

*Gar.-*

Gu garai ortan gozatzen giñan  
ez dakit zenbat eratā,  
zurekin maitemindu nintzan ni  
izanikan aukera ta.  
Baiñan orduko berotasunak  
juan zaizkigu beera ta,  
zu baiño ederragoak nun-nai  
orain azaltzen dira ta.

*Laz.-*

Ezer balio ez duenantzat  
alperrikan da aukera.  
buru-makurka zabilta eta  
ainbat arrotu al zera?  
Koartora joan da an egoten da  
erdi gaixoen antzera,  
gantzontzilluak kentzeko ere  
lotsetan egoten zera.

*Gar.-*

Bere burua salbatu nairik  
eroria da kojuan,  
bera egon da bere senarra  
utzi nai luke bajuan.  
Billatuko det nun ibilia  
nai dezun lekura juan,  
katurik ere ez da berotzen  
surikan ez dan lekuan.

*Laz.-*

Jendean bistan erronkan zabiltz,  
ori ere atsegin da;  
baiñan jendea zure berria  
geldituko da jakinda.  
Nai dezunean aparta zaitez,  
neretzat ori berdin da,  
juan daneko illabetean  
ezer ez dezu egin da.

*Gar.-*

Egia da, bai, bizitu gera  
ogei eta bost urtean,  
zuk diozunez orain ni nauzu  
zeure buruan kaltean.  
Askatasuna nola daukagun  
besoak bete-batean,  
bakoitzak geure bidea artuta  
ondo bizitu gaitean.

*Laz.-*

Aldameneko Jose Manuel  
an izan nuen lenguan,  
zure aldean askozaz ere  
bizkorragoa zeguan.  
Nai badezu zuk apartatu ta  
nai baldin badezu juan,  
etxean ezer ezin duenak  
zer egingo du kanpuan?

## GORROTODUNA ETA KONTZIENTZIA

Goiuria, 1991-VI-13.

Gaia: Amuriza, zuk, kalte aundiak egin dizkizun bat gorroto dezu. Eta, gaiñera, bera iltzeko asmotan zabilta. Ainbeste kalte egin dizu, zeuk jakingo dezu zertan. Baiña aldamenean daukazu, zeuregan, zeure kontzientzia. Kontzientzi ori Lazkao-Txiki izango da.

*Amu.-*

Azio txar bat oso alua  
batek egiña dit *zasta!*  
Nor den esango nuke agian  
baiña esateko ezta.  
Kontzientziak edo zerbaitek  
“lasaitu adi” diosta,  
baiña norbaitek gaizki bear du  
naiz ta bi kartutxo kostu.

*Laz.-*

Zu, Amuriza, entzun zaidazu  
nere iritzi zuzena:  
gauz txarrak egin ondorenean  
alperrikako da pena.  
Zure barruan bizirik nago,  
kontzientzi det izena,  
ni naiz pertsonak ta animaliak  
berezitzen ditutena.

*Amu.-*

Animaliak eta pertsonak  
badakit nola dabizan,  
ta gizaki bat portatua zait  
animali txarren gisan.  
Bizi bazera barruan ere  
etzaite ain pelma izan,  
orain bakean utzi idazu ta  
gero nai dezuna esan.

*Laz.-*

Gorroto dezun gizon bat iltzen  
gaur ez al zera asiko!  
Gerorako zer datorkizuen  
pentsatu lendabiziko.  
Zuk nai zenduke gaitz ori egin  
baiñan ez dizut utziko,  
baldin ilko bazenduke ere  
etzera ondo biziko.

*Amu.-*

Lazkao-Txikik xomorru ura  
asmatua dauka kasi,  
txapelketatik nik bertso ura  
aspaldi nuen ikasi.  
Orain diosta “ago bakean,  
bestela ez inteke bizi”.  
Zaude ixilik, nai ez baduzu  
zeu garbitzea lenbizi.

*Laz.-*

Kontzientzia zeurekin bada  
etzera biziko trankil,  
nik ongi dakit zure odola  
dagola bero ta pil-pil.  
Gaizkilleari barkatu eta  
obe dezu bizi umil,  
illak piztutzen ikasi arte  
bizirik etzazula il.

## OE EZBERDIÑETAN

Lazkao, 1991-VII-16.

Gaia: Lazkao-Txiki, senarra; eta Goiburu, emaztea. Baiña azkenengo iru urte auetan, logela berdiñean lo egin badute ere, oe ezberdiñetan...

*Laz.-*

Guk ez diogu ezer esan da  
zirika asi da bera,  
baiña egia da esan duena,  
garbi aitortu obe da.  
Orain bi oitan lo egiten degu  
batera eta bestera,  
ume gelegi ez izateko  
aparte egoten gera.

*Goi.-*

Pello orretzek gai xelebrea(1)  
orain ez al digu esan?  
Geren bertsoak bota ditzagun  
serio eta noblezan.  
Gizon txikia, zu ta ni biok  
naizta oi batean etzan,  
ontaz aurrera aurra izateko  
peligro aundirik etzan.

*Laz.-*

Baiñan oraindik gizon txikia  
saiatutzen da lanean,  
urte batzuek badauzka baiña  
ain dago sasoi onean.  
Joxepantoni, babar-bakarrik  
or zaude beste oiean,  
imurtzitxo bat egin zaidazu  
premian zaudenean.

*Goi.-*

Zure andreak artutzerako  
beste oerako plana,  
gizon txikiak ederki asko  
baizegoan antzemana.  
Naita're ezin zula bukatu  
bein artutzen zuen lana,  
tentsio txarra bakarrikan da  
onek altu dadukana.

*Laz.-*

Gauz ori zertan esan dezu gaur  
oinbeste jenderen bistan?  
Oraindik indar asko dadukat  
nik orain e gorputz pixkan.  
Baita ere entzun dezute onek  
zer aitzaki eman ditan,  
baiña nik lanak bukatzen ditut  
asitzen naizen guztitan.

*Goi.-*

Nere gizonan mingaiñak ez du,  
ez, oso gutxi balio,  
esaten duan gezurra iñork  
sinistu baldin balio.  
Barometrua ezin baizaio  
iñola're gora io,  
negua edo egualdi txarra  
beti markatutzen dio.

Laz.-

Atrebimendu aundia ez al da  
gauza oiek esatea?  
Oraindik zure senar txikia  
ortako dago fuertea.  
Zure kulpa da gutxi egiña,  
nere emazte maitea,  
egun batzutan buruko miña  
ta bestetan tomatea.

Goi.-

Emazteari ez dio jartzen  
merezi ainbeste gradu,  
nik erantzuna emango diot  
oso umil da ondradu.  
Ni emen nago, ez daukat aurrik,  
ez aur eta ez estadu;  
nola arraio izan bear det  
onek balio ez badu?

Laz.-

Andre aundi au artu nuen da  
damutan nago askotan,  
kozinan ere oso txarra da  
ta motela beste ortan.  
Neri atzea emanda beti  
or ipintzen zaigu lotan,  
ipurdirik e ez du garbitu  
juandako urtebete ontan.

Goi.-

Edozer gauza kontatzen dezu  
daukazu lotsa gutxi ta,  
formal itzegin askoz obe zan  
txorakeriak utzita.  
Aspaldi ontan nere oera  
ein gabe zaude bisita,  
ipurdi onen berri ez daki  
ez didazu ikusi ta.

Laz.-

Ezkondu nitzan, ala bear ta,  
geroztik badaukat pena,  
ain triste nago ta alaiago  
nik bizi bear nuena.  
Zu ikusita okertutzen da  
len xuxen zegon eztena,  
zurekin ia aspertu naiz ta  
banua beste batena.

Goi.-

Beste batena dijuala esanez  
gizon txikiak eraso,  
onen kantuai nik obeko det  
aurrez egitea kaso.  
Beste lekura juanda ere  
emango dezu frakaso,  
gruen batetik egin ezean  
beste mutiko ori jaso.

---

(1) Pello Urretabizkaia, gai jartzaillea.



Lazkao-Txiki, bertso kantari.

**GERNIKAKO ARBOLA GAIXORIK**

Irun, 1992-III-21.

Gaia: egunkarietan agertu danez, Gernikako arbola zaarra gaitz txar batek jota dago. Lazkao-Txiki izango degu Gernikako arbola, eta ura sendatzeko ez dakit zenbateko presupuestoa jarri duten. Ori artertzera Sebastian Lizaso bidali dute, lore, landare eta abarretan aditutako pertsona.

*Laz.-*

Ni Gernikako arbola naiz gaur,  
nago gaixo ta serio,  
izanez ere arerioak  
inguratutzen zaizkio.  
Nai badezute urte geiegi  
ez daduzkat oraindio,  
baiña gaixorik nago erdera  
entzuten detan medio.

*Seb.-*

Tristerik nago zugaitz zarrari  
buruz zerbait oroitzean,  
garai batean lanean saia  
eta orain otoitzean.  
Zedorrek ere uler zentzake  
arrazoi au aditzean:  
mentu berria txertatuko det  
euskaldunen biotzean.

*Laz.-*

Neretzat dana tristura utsa,  
neretzat dana galera,  
alde ederra pasa da emen  
garai batetik onera.  
Leno bagenun fueroa emen,  
leno bagenun euskera,  
erregerikan ere ez dator gaur  
juramentu egitera.

*Seb.-*

Erregearen bearrik ez ta  
nun da len zendun fuerua?  
Okerrrena da Gernika ere  
gaur ez dala segurua.  
Zuk maite zenun izkuntzan aurka  
Gobernuko sailburua,  
ta pikutara juana ez al da  
arbolaren elburua?

*Laz.-*

Zoritzarrean gaztelatarrak  
burlaka artu gaituzte,  
nere kimuak igartu dira  
naiz ta orain egon gazte.  
Gazte maitea, etorri zaitetz  
eta artu neugan parte,  
naiago nuke sendatutzeko  
zerbait sortu bazendeike.

*Seb.-*

Zuk bear dezun botikaz daukat  
beterikan almazena,  
eta al badet jarriko dizut  
zuri sendagai zuzena.  
Gaur egunean naiz ori lortzen  
ez daukadan errezena,  
Buesa jaunak ez du lortuko  
len Francok ezin zuena.

Laz.-

Ni sendatzeko madriltar bat or  
izan nun lengo batean,  
zain danak errebisatu zidan  
kasikan nere kaltean.  
Madril aldetik erremeiorik  
ez dakit baleitekean,  
nere aita're igartu baizan  
Franco jaio zan urtean.

Seb.-

Sustrai zaarrak gogorak ziran  
ta zureak ere berdin,  
zaartu arren gal ez zaitezen  
egingo degu alegin.  
Naiz ta kanpotik zuretzat eldu  
ainbestetxo aize gordin,  
arbola onik ez da erortzen  
aize bolara batekin.

Laz.-

Nere indarrak galtzen dijoaz  
urte batetik bestera,  
ta galdetzen det: erremeiorik  
neutzat izango ote da?  
Euskeraz ere nai ez degula  
egiten degu erdera,  
nere izatea ere galtzen da  
euskerarekin batera.

Seb.-

Euskal-Erriak ez dauka orain  
garai bateko tankera,  
len bat giñanak zatitu gera  
batera eta bestera.  
Iru egoan, iru iparrak,  
Nafarroakin batera,  
zazpi senide bat egitean  
ostro berdetuko zera,

Laz.-

Gernikarekin itxaropenik  
ez zazu izan inola,  
ikusten dezu gaixoturikan  
gaur nola dagon arbola.  
Zergaitik ere badakizu ta  
nik aitortutzen det nola:  
Madrillen zaiñak dauzkaten arte  
ezin sendatuz nagola.

Liz.-

Garai batean erri bat zana  
zoritxarrean okertu,  
ori zergatik danok dakigu,  
ezin gentzake eskertu.  
Orren bueltan e biltzen bagera  
izango da oso gertu,  
sator botika naikoa daukat  
eta ez zaitez beldurtu.

Laz.-

Zure botikak ilko ez duen  
sator ikaragarria,  
gazte maitea, aspalditxotik  
daukat zaiñetan jarria.  
Estimatzen det borondatea,  
gaur datorren gazteria,  
nik laister igartuko naiz eta  
zuek aldatu berria.

Liz.-

Gernikan baiña zu izan zera  
luzea eta zabala,  
ostroak falta, zuztarrak sendo,  
naiz ta zimurtu azala.  
Ez derizkiot etsipenean  
oso zuzen zabiltzala,  
Iruneraiño irixten baida  
Gernikatikan itzala.



## NUARBEO PANTANOA

Nuarbe, 1992-VI-14.

Gaia: Nuarbeko pantanoak lurak artu zizkion Gorrotxategiri, eta orain or dabil txalupa artu ta bertan freskatuz. Pantanotik pixka bat beerago daude Lazkao-Txikiren lurak. Au belarretan ari da.

*Gor.-*

Erri koskor au ementxe zegon  
Jaunak eskutik utzia,  
alako baten neri tokatu  
suertean igurtzia.  
Lurak saldu ta txalupa erosi  
ta gorputza freskatzia,  
bat zein lekutan jaiotzen zaigun  
badago diferentzia.

*Laz.-*

Onek bizitza aldatu zuen  
beraren obe bearrez,  
len ere etzun lan asko egin  
nola beso ta bizkarrez.  
Orain txalupa batean dabil  
arrai biltzeko indarrez,  
baserrin etzun askorik egin  
eta urean e ezer ez.

*Gor.-*

Inguru dena egon bear du  
emen beterikan arraiz,  
kaiña artu ta txalupan sartu  
eta irtena naiz garaiz.  
Zu berriz izerdiz belarretan  
ortxen ikusten zaitut maiz,  
bizitzen beintzat asmatu det ta  
orain gustora bizi naiz.

*Laz.-*

Oraindik ere presa ez dago  
bear litzaken indarrian,  
au ortxe dabil kaiña artuta  
txaluparen baztarrian.  
Eta ni berriz emen ari naiz  
seگان eta belarrian,  
fameli dena mantentzearren  
lengo oitura zarrian.

*Gor.-*

Belarreta da lan neketsua  
ta gorputzarentzat kalte,  
or dadukazun sapaia edo  
bestela siloa bete.  
Nik berriz orain kolpeik jo gabe,  
au ez da izandu kalte,  
askozaz ere naiago nuen  
lenago egin balute.

*Laz.-*

Lan berri ori ez du ikasi  
ta lengoa du azturik,  
arrantzalea izan nai luke  
ta du buruan sarturik.  
Baldin gertatuko balitzake  
putzu ortara eroririk,  
Francok e etzun arrapatuko  
olako katxaloterik.

## ZIKIÑAK BOTATZERA BIALDU TA...

Lasarte, 1992-VI-28.

Jose Lizaso eta Lazkao-Txiki.

Gaia: zu, Joxe, afaldu ondoren basura jaistera abiatu zera. Kontuak kontu, goizeko zazpitan artu dezu etxerako bidea. Aal dan moduan igo eskaillerak, eta emaztea aurkitu dezu ate ondoan zai.

Liz.-

Andreak bialdu nau  
kalera benetan,  
zikiña bazeguan  
eskiña danetan.  
“Poltsa au bota zazu  
kankarro orretan”,  
baiña deskuidatu naiz  
argi gorrietan.

Laz.-

Ez didazu ematen  
zeuk uste ainbat poz,  
nunbait argi gorriak  
beti ditu gogoz.  
Kalera jua zerade  
basura utzi asmoz,  
ainbat ordu pasata  
basurakin zatoz.

Liz.-

Andretxo, ez zaitela  
errietan asi,  
senarrak ez dizu egin  
orrenbeste grazi.  
Orain esango dizu:  
artu pazientzi,  
bi kopa artu eta  
iztarrak ikusi.

Laz.-

Au al zan ordu eta  
gizonan tamaiña?  
Kalera jetxi ziñan  
ain apain-apaiña.  
Iztarrak igurtzitzen  
ibili alajaiña,  
etxean e bazendun  
zuretzaiko aiña.

Liz.-

Xelebreak dirade  
andre-inbiriak,  
ni engaiñatu naute  
or argi gorriak.  
Orain aseko'izkizut  
gose-egarriak,  
gaur ikusi baiditut  
numero berriak.

Laz.-

Numeroak asmatzen  
zuk ez dezu errez,  
ekarri dezun usaiz  
daukazun mozkorrez.  
Zu argi gorrietan  
ibili indarrez,  
kanpoan langille ta  
etxean ezer ez.

*Liz.-*

Andrea, ez dakit nola,  
aserratu zera,  
naigaberik ez bota  
nere biotzera.  
Denbora badaukagu  
emendik goizera,  
konformatuko zaitut  
portatzen bazera.

*Laz.-*

Motiboz jarri naiz ni  
kopeta beztuta,  
ongi serbitzerikan  
merezi ez du ta.  
Andrea nun utzi dun  
or dago aztuta,  
umil asko etorri da  
bi poltsak ustuta.

*Liz.-*

Berriro ere nago  
itzegin bearra,  
alperrikakoa da  
daukazun negarra.  
Orrelakoxea da  
nere andre xarra,  
polit xamarra baiña  
zelosa xamarra.

*Laz.-*

Gaur ez dezu merezi  
muxu ematia,  
okertua dalako  
zure izatia.  
Alare oraindik zaitut  
biotzez maitia,  
urrengoan goizago  
etorri zaitia.

*Liz.-*

Badakizu gauetan  
naizela artista,  
eta gaur berri bat nik  
nai nuan konkista.  
Zuri emango dizut  
maitasunan lista,  
gaurkoa barkaidazu  
portatuko naiz ta.

## LEENGO MAIXUA ETA IKASLEA

Aztiri, 1992-VII-18.

Gaia: Lazkao-Txiki, Gorrotxategi ikaslearen maixu izan zan len. Gaur Gorrotxategi apaiz egiña dago eta lengo maixua datorkio konfesatzera.

*Laz.-*

Barka zaidazu garai batean  
artu bazintudan gogor,  
ikasleetan obedientziko  
ia ez da izaten iñor.  
Eta orduko pekatu danak  
orain nai nizuke aitor,  
orretarako zaude zu eta  
konfesatutzera nator.

*Gor.-*

Zuk nai zenduke gure Jainkoa  
orain zurekin kupira,  
amaika bider negarrez nengon  
maixu zitalai begira.  
Orain ni apaiz egiña nago  
ta bizitzak erdi jira,  
ai!, eskaillerak gorako eta  
berako izaten dira.

*Laz.-*

Nere zigorra etzendun izan  
ikas-lanetan kalteko,  
zeozer egin bear bainuen  
zeozer erakusteko.  
Baiña badakit gorrotorikan  
etzidazula gordeko,  
sufritu eta egin bear baita  
Jesukristoren ordeko.

*Gor.-*

Pasatakoak nola sekula  
ez diran azten munduan,  
gu ere aurtxo giñan garaian  
zertxobait falta genduan.  
Zu maixu txiki zitala ziñan  
ta beste askon moduan,  
gorrotorikan ez dizut baiña  
artutakoak goguan.

*Laz.-*

Zu zeozer kastigatutzera  
ni nengoen beartuta,  
zu ziñalako amaika aldiz  
jarria gizatxartuta.  
Buru aundi ta gogorra dezu,  
nik ezin ezer sartu ta:  
ezertxo ere etzendun ikasten  
onez-onean artuta.

*Gor.-*

Buru aundian Kristonak ditut  
maixu txikiak emanak,  
mesederikan etzidan egin  
goitikan zetorren manak.  
Baiña geroztik aldatu dira  
mundu onetako planak,  
Jesukristoren ordezko naiz ta  
barkatzen dizkizut danak.

*Laz.-*

Arrezkeroztik banuen zeukin  
aitortzeko desioa,  
eta barkatuko al didazu  
izan genuen sesioa?  
Alkarren lagun izateko're  
auxen da okasioa,  
belaunikoka jartzen naiz eta  
eman absolutzia.

## SAN FERMIÑETAN

Aztiri, 1992-VII-18.

Azpillaga eta Lazkao-Txiki.

Gaia: San Ferminetara joan dira Iruñara, eta entzierroan sartzeko baimenik ez diete eman, reglamentuan sartzen ez diralako.

*Azp.-*

Iruña ortan pasatua da  
makiñatxo bat olako,  
entzierruan sartutzen dira  
aundi, txiki edo guapo.  
Eta gu biak presentau giñan  
bat aundi, bestea plako,  
seguru asko ez digute utzi  
zu txikia zeralako.

*Laz.-*

Lenago ere San Ferminetan  
pasatu ditut bi uda,  
orregatikan izan ote zan  
nik egiten dizut duda.  
Neri berdin zait edozein zezen,  
naiz izanda ere *mihura*;  
orren kaxkarra ote da bada  
Lazkao-Txikiren figura?

*Azp.-*

Entzierro batek beti izaten du  
errespetu ta itzala,  
pentsatu gendun antxe sartzea  
gu parrandan gabiltzala.  
Au oso txiki ikusten zan an,  
ni aundia ta itzala;  
seguru asko pentsa zuten au  
mutil koxkorren bat zala.

*Laz.-*

Mutil aundi ta ederra da au,  
ta berak dionez guapo;  
au orrenbeste pertsona banaiz  
naiz izan txiki ta plako.  
Jertse gorri ta guzi ortako  
preparatutã ni nago,  
plazara sartzen etzuten utzi  
au kankailua zalako.

*Azp.-*

Ez gero pentsa biotikan bat  
geradenikan gaztia,  
entzierrura sartu ez eta  
gaude bikote tristia.  
Erandi ere dexente geunden,  
komeni da esatia:  
mesederikan aundiena zan  
ez juaten guri uzitia.

*Laz.-*

Obe zenduen gertatu zana  
garbigo esan bazendu,  
diximuluan zeure gezurrik  
emen etzazu mantendu.  
Ango guardiak esan zizuten:  
“*Oye, abuelo, obe kendu*”;  
izanez ere larogei urte  
ditun gizona ematen du.



Lazkao-Txiki eta Azpillaga bertso kantari.

## AMETSETAN

Aztiri, 1992-VII-18.

Gaia: Zu, Lazkao-Txiki, Mitxelena zanarekin bertsotan ari zera. Gorrotxategi da Mitxelena.

Laz.-

Bartko orretan oera joanik  
lo egiteko asmuhan,  
ala bear ta Mitxelenakin  
nik amets bat egin nuan.  
Amaika bertso erri askotan  
kantatu izan genduan,  
orregatikan galdetzen diat  
zer berri dago zeruan?

Gor.-

Ai, Joxe Migel, izan giñun guk  
plazaz-plazako bolada,  
baiña emen gauzak joaten dituk  
komenizko dan modara.  
I emen oaindik sasoiko eta  
ni juana zeruetara,  
bada ez bada're bezperatikan  
etorri nauk ire bodara.

Laz.-

Artu dezadan pazientzia  
eta kantatzeko beta,  
berriro ere gogor eiteko  
Mitxelenaren kopeta!  
Mundu onetan izan intzan i  
aragiaren zale ta,  
zeru aldean ez dek, ez, jango  
lurrean ainbat txuleta.

Gor.-

Ai, nere alde amaika otoitz  
zenbait apaiz eta praillek,  
oraindik ere nere izena  
aipatu zenbait mutillek.  
Eta ni ere zeru goietan  
oso ondo natxebillek,  
garai bateko *Atamitx* artan  
jende asko al zebillek?

Laz.-

*Atamitx*-eko etxe orretan  
danak zebiltzek serio,  
ik utzitako sagardo batzuk  
antxen zeudek oraindio.  
Gutxi jan eta asko kobratu  
nola ez duen balio,  
kliente dena galdua zegok  
i aizelako medio.

Gor.-

Gogoan zeuzkat neskamieri  
ik egindako ikutuk,  
oraindik ere buruan zeuzkat  
eorrek aztuak badituk.  
Diru batzuek e nik utziak  
or nunbait e ba omen dituk,  
gero bueltatzekotan utziak  
noiz entregau bear dituk?



*Laz.-*

Mitxelena au nolakoa zan  
orain esan bear det nik,  
ni ere zerbait ikutu zale  
mundu onetan izanik.  
Zuen neskameak nolako ziran  
ik ongi asko badakik,  
ta nik ikutu bakar-bakarrik,  
andik aurreraoak ik.

## TXIRRINDULARIAK

Mutriku, 1992-IX-12.

Gaia: aurten Indurainen urtea izan da. Joxe Migel, berreun kilometroko igesaldia daramana; eta Olaso, tropelaren buru datorrena.

*Laz.-*

Entzun dezute gai-jartzailleak  
garbi eman duen nota,  
orren gaiñean bertso batzuek  
orain nai ditugu bota.  
Ainbat denbora eskapatu det  
ta nago ni erdi jota,  
guardiazibillei iges egiten  
lendik oituta nago ta.

*Ola.-*

Gaztetatikan deporte ori  
biok genduen berezi,  
eta gaur ere or goazte gu  
geren txirrindu ta guzi.  
Xarra dalako ondoko onek  
badauka naiko malezi:  
bi ordu leno atera da au,  
argatik doa igesi.

*Laz.-*

Danak batera atera gera,  
nai dezutenak aditu:  
Lazkao-Txiki xarra da baiña  
oaindik indarrak baditu.  
Au tropelean ni arrapatzen,  
ez da ainbeste meritu;  
bai nik ainbeste kilometro len  
bakarrik egin balitu.

*Ola.-*

Batera erten arrazoi ori  
berak gorde nai du zutik,  
ta iritzi bat emango det nik  
ta ara bera zergatik:  
abitu eta ixil-ixilik  
gelditu da au atzetik,  
bide zarretik joan gera gu  
eta au autopistatik.

*Laz.-*

Nik egin dedan egiñaldia  
da gorputzaren indarrez,  
oraindik onen aldean ona  
omen nago nere zarrez.  
Au atzean an ibili zaigu  
erdi oker, erdi aldrebes;  
taldean zerbait destakutzen da  
baiñan bakarrik ezer ez.

*Ola.-*

Gure aitona txirrindu gaiñen  
ez dago oraindik makala,  
*tour-era* joan da aurreko puntan  
au da Migeltxo azala.  
Nik nai ezkerro arrapako nun  
erten eta bereala,  
baiñan uste nun Paris aldeko  
mutil koxkorren bat zala.

*Laz.-*

Gaztetxo onek ez daduka ni  
bajatu arteko onik,  
baiña andregaiia emen dagola,  
alaxe aditu det nik.  
Ta neskatx orri ezkondu aurretik  
gauz bat esango diot nik:  
betirako, arren, etzazu artu  
korritzen ez dun gizonik.

## ERRIFAKO TXERRIA

Ernani, 1893-XII-22.

Amuriza eta Lazkao-Txiki:

Gaia: Atzo Donostiko Santo Tomas feri orretara joan dira biak, txerriaren boletuak artu dituzte eta auei tokatu. Biak an daude txerriari begira.

*Amu.-*

Donostiara jua gera ta,  
ene laguntxo, aizu:  
zer nolatako suerte fiña  
izan degun badakizu.  
Bioi tokatu zaigu txerria,  
nor izango da orren maisu?  
Dagon alturan jarria dala  
zuri begiratzen dizu.

*Laz.-*

Txerri gaixoa kurrinkaz dago,  
neri egiten dit diar,  
ta gaur tokatu zaigun ezkeroz  
eramango degu biar,  
nere autoak nola ez daukan  
jasotzeko ainbat indar;  
zuri ez dago begiraterik  
ta neri beiratu biar.

*Amu.-*

Txerriak dauka izen gaiztoa  
baiña badu estimua,  
Amurizantzat azkenerako  
pizti orren destinua.  
Lazkao-Txiki eta txerria  
arturik orain banua,  
jendeak dio: "Zertako dituk  
txerria eta tximua?"

*Laz.-*

Napar txerria illetsua da,  
ni erori naiz kontura,  
oso gizona ez dago ori  
bere bizkar da juntura.  
Naizta pixka bat geiago izan  
bultora edo pixura,  
mutur aldean ematen diot  
Amurizaren itxura.

*Amu.-*

Emen bear da tratua ondo  
eta berriketa gutxi,  
bizirik dagon ori partitzen  
ere ez gintezke iritxi.  
Zer antz dadukan nola diozu  
animaliai atxiki?  
Mutur aldean nere antza du,  
buztanpean Lazkao-Txiki.

*Laz.-*

Barka dezala esan badiot  
txerri antzekoa dana,  
bein da berriro beiratuta're  
ala nago antzema.  
Baldin baziñan txerrien gisa  
txerri ordeko izana,  
ilda erretzen zuk bazenduke  
iru eguneko lana.

*Amu.-*

Neri txerria naizela onek  
esaten dit parez-pare,  
txerri aundi bat aurrean eta  
gu zerrikeritan gare.  
Iru eguneko lana nukela  
ortxe bota dit dotore,  
Lazkao-Txiki jaten ez dago  
egun baterako ere.

*Laz.-*

Barka zaidazu errespetotik  
kanpo baldin banaiz asi,  
bizartsu baiña oinbeste gauza  
nola ez dezun merezi.  
Baiña daukagu guk Amuriza  
betaurreko eta guzi,  
eta txerririk kristal oiekin  
ez det bein ere ikusi.

*Amu.-*

Nere kristalak armazoi ona  
badu ta baita firmea,  
onek esan du ni ote naizen  
zerri amaren semea.  
Berau nola dan txerri-tratuan  
iñoiz izana ernea,  
ori omen da zuk garai artan  
saldutakuan umea.

*Laz.-*

Zuk ola esan didazu eta  
izan liteke ain zuzen,  
ta Donostira errifarako  
lengoan ekarri zuten.  
Lazkao-Txiki zelebregu dago  
ez aundi eta ez gizen,  
eta txerria utzi neretzat  
ia aunditutzen naizen.

## ERLEA ETA LOREA

Noizko eta nungo saioa dan ez dakiguna.

Gaia: Amuriza erlea izango da; Lazkao-Txiki, lorea.

*Amu.-*

Erlea naiz ta lorerik lore  
bear dut munduan bizi,  
ona kolpera orain polit bat  
dudala aurrean ikusi.  
Txikia baiña gozoa zara,  
ez al dezu kokk merezi?  
Orain nator zure gainera ta  
etzaite juan igesi.

*Laz.-*

Erle maitea, zu neregana  
egan bazatozkit trebe,  
zu bezelaxe beste batzuek  
ere etortzen dirade.  
Dakidana da: egin nai dezu  
nere goxoaren jabe;  
baiña faborez ibili zaitetz  
orririk mantxatu gabe.

*Amu.-*

Orririk mantxa baneza ere  
or da goian eguzkia,  
aren argian lore polit bat,  
erleentzat amestia.  
Ain zara gauza ugaria ta  
etzara ain garestia;  
zure amari emango diot  
zutaz eindako eztia.

*Laz.-*

Erlea, kontuz! Len esan dizut:  
“enazazula zikindu”.  
Nere amarentzat ez al du ba  
bere eztia agindu?  
Gure amatxo zartu da eta  
zerbait goxo atsegin du,  
zartu da eta zerbait goxatzen  
bear dezu alegindu.

*Amu.-*

Alegiña da gauza ederra,  
ez dut egingo ortan uko;  
baiñan ez nauzu, lore sorgiña,  
ain errez engaiñatuko.  
Txikia eta xistriña bera,  
zuek zerate lekuko;  
au jaten duen erle gaixoa  
ez da enpatxuz lertuko.

*Laz.-*

Txikia baiña nere gaiñetik  
goxoa eramaten du,  
lotsagabeak dira erleak:  
gure kontura mantendu.  
Zikin guztiak gaiñean utzi  
ta goxotasuna kendu,  
Giscarrek ere Benafarroan  
gauza bera egiten du.

**NESKA-MUTILLAK**

Nungo eta noizko saioa dan ez dakigu.  
Gaia: Lazkao-Txiki, neska; Lopategi, mutilla.

*Laz.-*

Maitemin asko gazte denboran gazte guztiak dituzte, guregana re, zu, Lopategi, iritxi dala nik uste. Zutaz pentsatzen etenik gabe ementxe nago jai ta aste, biok batera bizi gindezke zuk ala nai bazenduke.

*Lop.-*

Zuk badakizu moda berriak gaur egun nola datozen, baiña kontuan zaindu bearrak geure konduta ta izen. Elkar maitatzen asiak gaude baiña ez gabiltza zuzen, bildurrik gabe jardun gaitezen apaizengana goazen.

*Laz.-*

Zuk esposatu nai zenduke ta libertadea nai det nik, ezkonduta ere ez uste askotan etortzen danik gauz onik. Bestela ere nik berdin-berdin beti maiteko zaitut nik, ta esposatzen ez danak orain dibortziazten ez du lanik.

*Lop.-*

Ezkontza aurretik zergatik artu dibortzio-esperantza? Orren dantzari ote daukagu zure biotzan balantza? Lore gaiñetik nagusitua izan ez dedin arantza, nere barruan egindakoak beti dauka bere antza.

*Laz.-*

Ezkondut gabe ez al gentzake geure bizitza erreztu? Bestela ere ni zuretzako beti agertzen naiz prestu. Batzutan musu eman alkarri, bestetan nik eman esku; alkar maitatzen baldin badira lotura bearrik eztu.

*Lop.-*

Ejenplu txarrak izan dituzu zuk emengo eta ango, zeure errua izan zendunik ez det ainbeste esango. Egin ditugu aproba batzuk, bagabiltz dantza ta tango; baiña ezkontza nai ez badezu ez dizut berriz emango.

## AMA-SEMEAK DANTZA-LEKUAN

Bertso auek noiz eta nun kantatu ziran ez dakigu.

Gaia: dantza-leku batean elkarrekin bero-bero dantzari aritu ondoren, argiak piztean oartu zerate ama-emeak zeratela. Mattin, ama; Lazkao-Txiki, semea.

*Mat.-*

Sala hortan ibili ta  
egotua naiz gogotan  
lagun on bat behar nuela  
nik ondo dantzatzekotan.  
Hau lehenago ibilia dut  
nik beso gainean askotan.  
gaur uste gabe eroria naiz  
nere semearen besotan.

*Laz.-*

Nere ama biotzetik  
nik beti izan det maite,  
biotzaren maitasunez  
betea baitut nunbait e.  
Dantzari nintzala neronen ama  
zanik ez nuan asko uste,  
burua dana tapatu ezker  
danak berdiñak zerate.

*Mat.-*

Ilunpean etorri zan  
dantza eske neregan,  
ez baitzuen segur uste  
ninduela bere ama.  
Ederki asko dantzatu ere  
kokotza petxuan emana,  
esan diot: "Lehen ere baduk  
trago ederri edana".

*Laz.-*

Oinbat trago eder eman  
ta txiki utzi nazute,  
enazute, ez, aunditu  
nik bear nuen ainbeste.  
Maitetasuna ez da izaten  
amaren bularren truke,  
lotsa pixka bat baldin bazendu  
lotsatu bear zenduke.

*Mat.-*

Ederki asko eman tugu  
geure dantzako pausuak  
ondo ginen, alturan e  
biak ginen berdintsuak.  
Gazte denboran bezela pasa  
gero memento goxuak,  
neska gazte bati bezela  
eman zizkidan musuak.

*Laz.-*

Baiña argia piztutzean  
ni gelditu nintzan triste,  
bi musu eman nizkion da  
ama zanik zein uste?  
Amon egin da oraindik dantzari,  
nik uste nun zala gazte;  
oraindik nere aita're bada  
zuk bear dezun ainbeste.



*Mat.-*

Biok dantzan aitu ginen  
gu ilunbetan gorderik,  
baiñan nere seme hunek  
bazuen beste iderik.  
Esan nion: "Mutila, ez har  
otoi kontrako biderik;  
gaurko nesketan ez duk bilako  
ik ama baino hoberik".

*Laz.-*

Ia larogei urte ta  
dantzan dabil oraindio,  
onek ditun urte oiek  
aguro juaten zaizkio.  
Ama sorgin bat duen semeai  
iñun eleiteke fio,  
mutil gazteak leno bezela  
oindik gustatzen zaizkio.

## KOTXEA ABERIATUTAKOAN

Ez dakigu bertso auek nun eta noiz kantatuak izan ziran.

Lazkao-Txiki eta Imanol Lazkano.

Gaia: neska-mutillak dira eta autoa aberiatu zaie.

*Laz.-*

Biaje askoetan  
denbora galtzen da,  
gaurko biagia ere  
alaxe irten da.  
Zer kotxe dezu, mutilla?  
Komeria auxen da:  
nerekin dan bakoitzen  
aberiitzen da.

*Ima.-*

Aurki eman bear det  
nere iritzia,  
neska onekin bear du  
gaur pazientzia.  
Onen berotasuna da  
orrelakoxia:  
lelen neu aberiatu,  
urrena kotxia.

*Laz.-*

“Len neu aberiatu naiz”  
onek ala esan du,  
nere mutillak ortan  
tranpa bat izan du.  
Eskerrak badeguela  
orrenbeste mundu,  
neri pakian utzi ta  
kotxia konpondu.

*Ima.-*

Len ere sarri ibili naiz  
olako klasian,  
onen maliziak len e  
olakoak zian.  
Berriz enaiz abituko  
zurekin pasian,  
atzeko maleterean  
eraman ezian.

*Laz.-*

Gaurko zenbait mutillekin  
ez liteke bizi,  
nolatan baidaukaten  
oinbeste malezi.  
Urrena etxeratzeko  
obego det kasi  
kotxe zar ori utzi ta  
neuk artzea tasi.

*Ima.-*

Au ikusita nola ez  
mutil bat arritu?  
Kalean badu monjak  
ainbeste abitu.  
Gero kotxian belaunak  
erakusten ditu,  
utsa gaixoak zuzenak  
izango balitu.

**MITXELENA BIZIKLETAN**

Nuarbe.

*Laz.-*

Pentsatu beak, i Mitxelena,  
nik asko maite autela,  
orregatikan orren gizona  
ezin ikusi auela.  
Bizikleta bat oso fiña dek,  
ez pentsa danik ustela;  
silloi berria alda akiok  
ebakiko au bestela.

*Mit.-*

Aintxen da gauza eskasa eta  
ditu joera narratsak,  
bizikleta ortan lertu ditut nik  
nere prakak edo galtzak.  
Zutikan ezin juan naizela  
emango nazute antzak,  
berarek enau serbitzen eta  
berriz eukin eraman zak.

*Laz.-*

Zer penitentzi egiten duen  
ni naizelako merio,  
leno alegre zegon gizona  
nik ipiñi det serio.  
Arrazoi du, bai, bizikleta onek  
orrentzat ez du balio,  
motoak ditun kurpil lodiak  
ipiñitzen ez badio.

*Mit.-*

Zuk badakizu ni ez nagola  
alako pauso senduan,  
onez aurrera obeto emango'ut  
nik su zarraren onduan.  
Bizikletakin ibillitzeko  
gorputz txarra det munduan,  
naiago nuen silloi eder bat  
or ekarri bazenduan.

*Laz.-*

Ta jinasia gauz txarra danik,  
Mitxelena, etzak uste,  
orren faltakin ipurdi aundiak  
askok izaten dituzte.  
Orain gauza bat pentsatzen nago  
bizikleta onen truke:  
galtza motxakin orren gaiñean  
pozik ikusiko nuke.

*Mit.-*

Erantzuerak emateko're  
gaiak daude egokituk,  
bizikletako galtza motx oiek  
onak izaten al dituk?  
Orain artian luziarekin  
ibili izandu gaituk,  
galtxa motxakin ibilko nauk ni  
iriak jazten badituk.

## AOZ-AOKO ARNASA

Markina, San Jose egunez, ez dakigu zein urtetan.

Gaia: Mañukortak, legorrekoa izaki eta ez daki igerian. Itxasora joan eta uretan dabillega, itota bezela atera dute andik. Neska gazte lirain onek, Lazkao-Txikik, aoz-aoko arnasaren bidez, bizirik ateratzea lortzen du Mañukorta mutilla.

*Mañ.-*

Aprobatu det nolakoa dan  
nik potzuko ur gazia,  
ara erorita une batian  
negon oso itxusia.  
Arnasarikan ez nuen artzen,  
ezin ezer ikusia,  
neskatxa onek gaur salbatu du  
Mañukortaren bizia.

*Laz.-*

Igari asi Mañukorta ta  
gertatu zaigun okerra:  
ia gaurkoan amaitu zuen  
munduko bizi lasterra.  
Ondo artzen det bertso batean  
ematen didan eskerra,  
beronek ere pena artzen nun  
iltzea ain mutil ederra.

*Mañ.-*

Ni iltze ori negargarria  
izan lezake benetan,  
antxe nebillen buelta-bueltaka  
potzu zar aundi orretan.  
Arnasa ekarri ainbeste laztan  
emanikan ezpañetan,  
neska onentzako bizi guztiko  
ointxe jarri naiz zorretan.

*Laz.-*

Mutil eder bat ola itotzen  
nik nola utzi nolanai?  
Eta, uste det, azkenerako  
ni izango nau andregai.  
Galdetu diot maite al nauen  
ta berak erantzun dit: Ai!  
Bera piztu det musuka eta  
anai txikia ere bai.

*Mañ.-*

Amaika olako lenago ere  
egingo ziraden pasa,  
nere bizia salbatu du ta  
baita ekarri arnasa.  
Neskatxa onek betiko piztu  
gaur berotasunan traza,  
biok guk beti egingo degu  
maitasunezko jolasa.

*Laz.-*

Alkarri arnas eman diogu  
ao batetik bestera,  
bestela Mañuk gaurkoan zuen  
entierroko bezpera.  
Orain nik kezka bakarra daukat:  
sano egongo ote da?  
Baldin *sida* zuk baldin badezu  
biok ondatuko gera.

## GERRARA JOAN BEARRA

Tolosa.

Lazkao-Txiki eta Lasarte.

Gaia: Biok anaiak zerate, Guda-garaia eldu da eta biok gerrara joan bear izan dezute, baiña biok alde banatara. Elkarri zuen agurra.

*Laz.-*

Agurtutzeko une estua  
etorri zaiguk, anaia;  
ni batera ta i besteruntza,  
ez dek ain agur alaia.  
Biok ezberdin pentsatu eta  
biok degu arrazoia,  
orain eldu da biok tiroka  
probatutzeko sasoia.

*Las.-*

Pentsatu degu agintariei  
obeditzia ondradu,  
gero're ezin gentzake izan  
aundiak ainbeste gradu.  
Gu biok alde banatan zintzo  
saia gaitezen soldadu,  
ta berriz ere bilduko gera  
Jaun Zerukoak nai badu.

*Laz.-*

Aita ta ama negarrez daude,  
ain da gauz negargarria;  
gu ezin azirik oinbeste urte  
eraman dituzte ia.  
Biok ezberdin pentsatu eta  
ustutzen degu kabia,  
biok anai ta alkar il bear  
ez al da penagarria?

*Las.-*

Ez gaitezela arren iritxi  
alkar iltzeko neurrira,  
negu tristea pasa ta iritxi  
gaitezen udaberrira.  
Alkar tiroka iltzeko agintzen  
jaun aundiak ari dira,  
guk ez genduke joan bearrik  
pakezaleak balira.

## POLIZIA ETA DROGA-SALTZAILLEA

Gaia: Lasarte polizia izango da. Lazkao-Txiki, *sala de fiestas* bateko nagusia. Droga saltzen omen da sala orretan.

Las.-

Salan al zera zu ere  
jostatzen asia?  
Eta besteak ori  
ezin ikusia.  
Lapurretan irabazten  
baidezu bizia,  
baiña konturatua  
dago polizia.

Laz.-

Nunbaitetik bizi bear  
guk ere al dala,  
baiña polizia ere  
ez dago makala.  
Gaiztako artzen al dezu  
orrelako sala;  
zer pentsatzen zenduen:  
katedrala zala?

Las.-

Sala ortan pikardia  
dezute gaiñezka,  
eta poliziarentzat  
bada naiko kezka.  
Orko lapurreta ta  
orko droga-festa  
zertarako dituzu zuk,  
geio azi ez ta?

Laz.-

Bildurtuta jartzen nau  
gauz oek esanda,  
len ere polizi au  
gaiztua izan da.  
Zer egin bear zaion  
nago antzemanda:  
au bera gaur txoratu  
droga bat emanda.

Las.-

Nola irixten naizen  
gizonen gradura,  
ez nauzu txoratu  
zenbaiten modura.  
Ola baldin bazabiltz  
gero inpernura;  
sufritzeko lekua  
izango da ura.

Laz.-

Ni galtzeko asmuan  
zu etzaitz asi,  
biok ein bear degu  
gu nolabait bizi.  
.....  
.....  
.....  
.....(1)

---

(1) Azken lerro auek, zintatik entzun eta ezin ulertu.

## POLIZIA ETA TXOFERRA

Gaia: entzun degunez, orain txofertzan dijoanak neurritz edanda joan bearko du. Koxme Lizaso degu bide-ertzean autoa geldituz eta txoferraren alkoola neurtzen duena. Lazkao-Txiki, berriz, parrandatik bueltan etxeruntz dijoan txoferra.

*Kox.-*

Gaur egunean eranda ez dago  
 ibillitzerik inola,  
 txofer jendeak gauza orreri  
 ez dio jartzen ajola.  
 Amarretatik zazpi daukate  
 bear baño geio alkola,  
 orain ikusi bear dizut zuri  
 nola daukazun odola.

*Laz.-*

Nolabait poztu bear ta ezin  
 au bizimodu tristia!  
 Garai batean zeñek uste zun  
 ontaraño irixtia?  
 Orain neurtu nai dizkiguzute  
 arnasa eta guztia,  
 ortako askoz obe litzake  
 saldutzen galeraztia.

*Kox.-*

Alkola dala medio artzen  
 dirade zenbait zartako,  
 eta txoferrak beti gaur presto  
 txurrut-kontua ortako.  
 Itxura danez zure barruan  
 ere etzaizu faltako,  
 ikusi bear da eta or doaz  
 zuretzat mesedetako.

*Laz.-*


Oso polita ez al da izan  
 polizia onen itza?  
 Besterentzako ejenplua ta  
 zori ederraren ditxa.  
 Berak geienak egun eta gau  
 erdi mozkorrik dabilta,  
 asko kanpora bota litezke  
 ondo neurtuko balitza.

*Kox.-*

O, txofer maite, mintzatu zera  
 gorrototsu baten eran,  
 analisisak ondo eman du,  
 askorik ez dezu eran;  
 multik ez dago eta zu lasai  
 abia zindezke egan,  
 eta berriro ere ia ola  
 birian ibiltzen zeran.

*Laz.-*

Motorista au ez al da azaldu  
 aingerutxo baten pare?  
 Izanez ere itzezin baidit  
 ain xuabe eta bare.  
 Baño aberatsak or mozkortuta  
 dabilta kabarez kabare,  
 ta langilleak kastigatuta  
 ta aiek libre alare.



Jose Migel Iztueta  
«Lazkao-Txiki»



**LAZKAO-TXIKIRI BURUZKO BERTSO  
ETA IRITZI BATZUK**

**“Bertsoa zuzen artzen dakizu...”**

Bertsoa zuzen artzen dakizu  
sustraitik edo oñetik,  
bukatu arte, al dan guzian  
segiz bide berdiñetik.  
Alako kantu goxoak irten  
ziran zure mingañetik,  
zerbaitegatik gelditu ziñan  
beste guzien gañetik.

Zure izena or gelditu da  
merezi zuen lekuan,  
lagunak eta adiskideak  
pozik ziran inguruan.  
Zu bezelako baten bearra  
aspaldian bazeguan,  
izarrik argiena zu zera  
gaur Goierriko zeruan.

Gu bizi geran lur santu ontan  
badago gaia ugari,  
zer itzegiña nunai sortzen da,  
au ezpaldin bada ori.  
Nik eskari bat egingo diot  
Goierriko izarrari:  
arnas-biderik dezun artean  
kanta Euskalerrinari.

Ordua eldu zan garai artan  
zuk bai gizonki erantzun,  
ezti-kutsuzko zure bertsoak  
jendeak pozkiro entzun.  
Nere zorion beroenak nik  
bertsoz eman nai nizkitzun,  
ta badakizu, Joxe Migel, zuk  
lagun jator bat nun dezun.

*Basarri*

*(Zeruko Argia, 1964-XII-27)*

*(Lazkao-Txikik Tolosan, 1964-XII-13-an,  
Gipuzkoako txapela irabazi ondoren)*

**Aia, 1979-III-18.**

**Manuel Lasarteren omenez**

*Lazkao-Txikik etortzerik ez.  
Aren ordezkari Patxi Etxeberriak kantatu zuan.*

*Patxi Etxeberriak:*

Lazkao-Txiki zan etortzeko gaur emen kantatutzea, gaixotasunak galerazita arek egin du atzea. Nik opa diot berriro ere lenbailen sendatutzea, aren lekua betetzen badet pozik joango naiz etxea.

*Joxe Agirrek:*

Lazkao-Txiki ez det esango emen espero etzanikan, baiñan gizonak ez du egiten mundu ontan nai danikan. Etxeberria bere ordezkari lagun bat bera izanikan, zuk alegiña egin zazu ta ez daukau zer esanikan.

*Lopategirentzat gaia: Lazkao-Txiki gaixo zegok eta berarekin gogoratu gaituk. Kantatu iok.*

*Lopategik:*

Odei bakarrak illuntzen digu gaur jaialdi atsegiña, lagun txiki bat gu bezelaxe zegoen onuntz otsegiña. Lazkao-Txiki gaixorik dago, au lagunarteko miña! Dantzan gustora gabiltza baiña falta zaigu danboliña.

Uste gabeen eldu oi dira gorputzeko zenbait kalte; onuntz etorri naian zeunden zu, asmoa ezin dezu bete. Jeiki biotza, sendatu azkar, luzaro ez egon aparte! Zukin gaude gaur bertsolariak, zukin Aia ta Lasarte!

**Beasain, 1991-IX-15.**

**Lazkao-Txikiren omenaldia**

Euskal-Erria alaituz  
bere penak aztu eta,  
bertsolaritzan igo zen  
lenbiziko postuetā.  
Zeiñek ez du ezagutzen  
Joxe Migel Iztueta,  
Euskal-Erriko baratzen  
berdiñik ez du eta?

Iritxitzen den lekuan  
eguneroko albiste,  
Pernando Amezketarraren  
istoriaren berpizte.  
Nai dun aiña bertso sakon  
ta komeni aiña txiste,  
Jose Migelen ondoan  
iñor ere ez da triste.

Umorea ta gozoa  
ditu bere ezaugarriak,  
orregatik ditu denak  
bere itzen egarriak.  
Amona xarrari ere  
sor eraziaz irriak,  
zerbaitegatik ainbeste  
maitatutzen du erriak.

Bera bertsolari denez  
ta erriaren aotsa,  
sakonean sakona ta  
zirikatzaile zorrotza,  
Lazkao-Txiki ez degu  
bere izenaren lotsa,  
gizon aundien burua  
eta aurtxoan biotza.

Saio-klase guztietan  
badauka bere tokia,  
benetan argia baita  
gizon onen bekokia.  
Orregatik zen omen au  
zuzen eta egokia,  
gora Goierriko lora!  
Gora Lazkao-Txikia!

*Imanol Lazkanoren bertsoak,  
Koldo eta Arantxa Iparragirre  
anai-arreba trikitilariak kantatuak.*

*Basarrik:*

Pasa dituzu ingurutako  
mendiak eta basoak,  
zeiñek kontatu jarri dituzun  
une alai ta goxoak?  
Irurogei ta bost urte ditu  
Goierriko txoritxoak,  
geroztik beti zugan zorretan  
euskerara ta euskal bertsoak.

*Lasartek:*

Joxe Migel Iztueta  
Lazkao-Txikia,  
bertsolari alaia  
eta egokia.  
Zu zoriontzea det  
gaur erabakia,  
bete baidezuz gizon  
aundien tokia.

*Bixente Barandiarenak:*

Gizon txikia gorputzez baiña  
zer kontatuak baditu,  
pauso motxian ibili arren  
Euskadi dana korritu.  
Irurogei ta bost urte ere  
gaur betetzen omen ditu,  
omenaldi bat oni eitea  
ez naiz batere arritu.

*Xanpunek:*

Iparraldetik etorria naiz  
hango senidien ordain,  
Lazkao-Txiki ospatze hori  
harturik egun nere gain.  
Beraz dezogun, hain da maitea,  
gaur bihotz osoa eskain,  
agur bat hiri, bai zueri, bai,  
eta gora zu, Beasain!

\* \* \*

*Goierriko bertsolarien agurrak.*

*Patxi Iraolak:*

Amaika gauza esan litezke  
asi ezkeroko kontari,  
gure bizitzaz oroituaz gaur  
gauden tokian kantari.  
Urte batzuek naiz ez diogun  
eldu betiko lotsari,  
jarrai dezagun aurrera olaxe,  
au diot nere opari.

*Altzo-Txikik:*

Aurrera ere jarrai bear da  
era onetantxe beti,  
Lazkao-Txiki au gainezka egon da  
bere bertsoen arteti.  
Ta pasatua da onezkeroko  
bertso urrezko ateti,  
argatik diot nik: "Zorionak  
zaldibitarren parteti!"

*Florentino Goiburuk:*

Lazkao-Txiki, oso gazterik  
ziñan bertsoetan asi,  
abildadetik ez dezu izan  
zenbatek ainbat eskasi,  
Lantegi ontan oberentxontzat  
juzgatu zindezke kasi,  
zu maixu ona izan zaitugu  
naizta guk gutxi ikasi.

*Nikolas Zeberio:*

Milla zorion, Lazkao-Txiki,  
maixu on eta laguna,  
iritxi zaizu aspalditikan  
merezitako eguna.  
Kantatu dezu egun argia,  
xamurtu dezu illuna,  
zakarraldia biurtu dezu  
goxoa eta biguna,  
eta orain nor kantako dizu  
guri kanta diguzuna?

*Joxe Munduatek:*

Bertsoetan emanik  
barrungo kemena,  
geiago ezin eman,  
ori gure pena.  
Oraingoan auxe da  
gaur gure azkena,  
ta Joxe Migelentzat  
auxe da detena:  
al dan ondoen pasa  
zuk gaurko omena.

*Joxe Ramon Gerrikok:*

Joxe Migelen omenaldira  
etorri gerade trebe,  
ainbeste bertso bere omenez  
barruetan dira gorde.  
Lazkaomendian sortu zitzaigun  
era onetako lore,  
zein aundia dan denok dakigu  
orain nik gaur esan gabe.

\* \* \*

*Jon Lopategi, Imanol Lazkano eta Andoni Egaña.*

*Gaia: saio au irratiz entzuten ari diranei eman emengo berri.*

*Lopategik:*

Egun eder eta aundia  
nola artu dan serio,  
bada emen ikuskizuna  
eta ainbeste jenio.  
Goierrri dena elkartu baita  
omenaldi au medio,  
merezi ere bazuen baiña  
erriak erantzun dio.

*Lazkanok:*

Goierritar lorerikan  
politena degun orri,  
txalo batzuk eskeintzera  
jende asko da etorri.  
Ta irratitik emaztezkero  
ikusten degunan berri,  
seme kuttun bat omentzen da ta  
txoratzen dago Goierrri.

*Egañak:*

Ara gaur Goierri zer den,  
entzule irratikua,  
naiz ondo adierazteko  
ez naizen emen naikua:  
tribunan sartu ez den jendeak  
kantxan artu du lekua,  
giroa dago Lazkao-Txikik  
merezi bezelakua.

*Lopategik:*

Gogoan du erri onek  
Lazkao-Txikiren broma,  
bere arrazoi zuzena ta  
ain sentimentu sakona.  
Ikusi eta berela sortu  
baita txaloaren sona,  
emen olaxe ondrazten dute  
merezi duen gizona.

*Lazkanok:*

Gaur sarritan entzuten da  
“ia gureak egin dik”;  
baiña egun pozgarriak  
ikusten dira oraindik.  
Zer ikasia badaramagu  
gaurkoz beasaindarrengandik,  
istorirako zer argazkia  
atera leiken emendik!

*Egañak:*

Bera tabladuan dago  
muxu gorri, muxu gorri;  
alde batera Lasarte,  
arunzko puntan Basarri.  
Ta aolku bat inbiriz dagon  
irradi-entzule orri:  
oraindik ere garaiz zaude ta  
kotxea artu ta etorri.

\* \* \*

*Gaia Imanol Lazkanori: Lazkao-Txiki.*

*Lazkanok:*

Zeuk diozunez Lazkaon jαιο  
ta azi berriz inun ez,  
baiñan ez dezu askorik galdu  
zeure soiñaren utsunez.  
Iñoiz malkoak ixuri ditut  
zuri bertsoak entzunez,  
parekorikan ez baidezu zuk  
biotzez eta zentzunez.

Zabala dezu biotza eta  
argia dezu zentzuna,  
orregatikan eman diguzu  
orrelako erantzuna.  
Zeu izan arren aspalditako  
lorerik ederrentsuna,  
aundi zerala ez jakitea  
da zure aunditasuna.

Goierrik badu bere istoria  
belaunaldiz-belaunaldi,  
baiña gaur dagon gizon pareak  
marka bat dala dirudi:  
batak sorleku Ataun du eta  
besteak Lazkaomendi,  
bi goierritar, bi Joxe Migel  
eta bi pertsonai aundi.

*Sariak ematerakoan, **Arrano**  
**Beltza** elkartearen bertsoa:*

Gorputz txikia baiña  
aundia gizona,  
izketa atsegiña,  
umorea ona.  
Izkuntz-kirolean zuk  
fama eta sona,  
urte askotan izan  
gaurko zoriona.



## “Naizta batzuek kalean bizi...”

Naizta batzuek kalean bizi  
eta besteak baserrin,  
bertsotarako zaletasunik  
ez zaigu falta Goierrin.  
Ondo dakigu: inor ez gaitu  
Jaunak igoalik egin;  
argatik denoi bertsoak ere  
ez zaigu erteten berdin,  
beste guzian maixua dana  
daukagu Lazkaomendin.

Maixu on batek guretzat asko  
nola eztu balioko?  
Lazkao-Txiki, zeran maillatik  
gora etzaitut ioko.  
Zuk mundu ontan bear zenduan  
bizi bat baiño geioko,  
danak parrezka jartzen dituzu  
egindako itz-saioko,  
zu bezelako figurarikan  
oraindik ez zan jaioko.

Geren denboran entzun dizugu  
atera-aldi ederrik,  
bestek ez duen zerbait badezu,  
seguru ez dakit zerrik.  
Txiki aundia ez zerala zu  
esatea da alperrik,  
guk askotan ez emanagatik  
merezi dezun eskerrik,  
zu zeran bezin izar argirik  
ez dauka gure Goierrik.

Makiñatxo bat bertso-saiotan  
artua zaitugu parte,  
eta badezu beste doai bat  
bertsolaritzaz aparte.  
Ipuia edo txiste kontatzen  
zeiñek du zuk ainbat arte?  
Zere denboran alaitu dezu  
makiña bat lagunarte,  
zure izenik ez da aztuko  
euskaldunik dagon arte.

Arrigarria zera benetan  
gauza garbi esateko,  
Jaunak sortua gu guztiontzat  
pozgarri bat izateko.  
Zere denboran ez zera izan  
Euskalerrien kalteko,  
iñoiz egun bat irixten bada  
zu mundutik juateko,  
utziko dezun utsune ori  
bestek ez digu beteko.

Bertso-saioak egin da gero  
txisteak kontatzen ekin,  
geren denboran ainbat gozatu  
artuak gera zurekin.  
Tristeia alai jarri liteke  
zuri zerbait entzunekin,  
eta onela eskatzen degu  
daukagun maitasunekin:  
Jaunak luzaro gorde zaitzala  
oraingo osasunekin.

*Florentino Goiburu, Idiazabal*

**Zestoa, 1993-II-13.**

Andoni Egañari gaia: Gaurko saio au ez nuke bukatu nai gizon  
bat aipatu gabe: Lazkao-Txiki.

*Egañak:*

Bart arratsean Lazkao-Txikiz  
pentsamenduan nenguan,  
txoriak ere geientsuetan  
isiltzen dira neguan.  
Udaberrian piztuko zaigu  
txori txikien moduan,  
emen nai degu onduan,  
besteokin tabladuan. *(bis)*  
Ze leku gutxi bear zun arek  
gurekin zegon orduan,  
ta falta zaigun garaian berriz  
ze utsune utzi duan! *(bis)*

Nun galdu zaigu bertso on baten  
ondoreneko marmarra?  
Nun galdu zaigu ziri sartzea?  
Nun galdu da irriparra?  
Fintasuna ta gordinkeria  
bereizten oi ditun marra,  
len zebillen txirri-txarra,  
moteldu da motor zarra,  
txikiaren biotz tzarra; *(bis)*  
umorea da zu esperantzan  
mantentzen zaitun indarra,  
ta esperantza da gu umoretsu  
mantentzen gaitun bakarra. *(bis)*

Zuk bein Zestuan aipatu zendun  
seaskan kulun-kuluna,  
eta aitortu euskera ere  
bertatik artu zenduna;  
ta orain faltan botatzen degu  
zure bertsozko jarduna,  
ai adiskide kutuna,  
bertsolari on txukuna. *(bis)*  
Algara dena, txalo den-denak  
zuretzat dira, laguna,  
ta maitasunak egin dezala  
medikuntzak ezin duna. *(bis)*

**“Lazkao-txiki loaldi luze...”**

Lazkao-txiki loaldi luze  
batean zaigu gertatzen,  
maitale danak gauza orrekin  
asiak gaude kezkatzen.  
Zeruko Aita, beraren alde  
biotzez dizut eskatzen  
Joxemieli lagundutzeko  
lozorrotikan esnatzen.

Aitortutzen det bere egoeraz  
asko bildurtzen naizela,  
nabaitzen baidet itxaropenak  
itzaltzen dijoazela.  
Lengo doaiak berpizturikan  
argan gerta ditezela,  
udaberrian lili txuriak  
piztutzen diran bezela.

Garizuma beltz batean dago  
—zer naigabe eta zer min!—,  
ta leizazulo illun artatik  
iñora ezin aldegin.  
Beste biderik ezta dukagu:  
bere alde otoitz egin,  
Joxemielen garizuma ori  
Pazkoa biurtu dedin.

Bere senide eta illobak  
zenbat une gogor latz an!  
Gau eta egun bera zaindutzen  
danak or dabilta dantzan.  
Noiz txuspertuko, noiz bukatuko,  
etengabeko zalantzan,  
baiña arnasik duen bitarte  
danok gaude esperantzan.

Alain genduen umoretsua,  
serbitzari ta apala,  
danak txoratzen jartzen zituen,  
ortantxe etzan makala!  
Zeiñek pentsatu gaitz orren mende  
ori eroriko zala?  
Komeni bada, sendatutzea  
Jaungoikoak nai dezala.

Basarri

(*El Diario Vasco*, 1993-IV-4)

### **Zornotza, 1993-IV-3.**

*Lazkao-Txiki il zan eguna, alegia.*

*Andoni Egañari gaia:  
Lazkao-Txiki izenak zer dakartzu gogora?*

*Egañak:*

Bertsolaritza dakienentzat  
orra gizon nabarmena,  
duela gutxi zeruetatik  
dei otsa jaso zuena.  
Nere iritziz gizon txistoso  
grazioso bat aurrena  
baiña urtetan barrena  
oartu nintzen urrena (*bis*)  
Lazkao-Txiki itza esanda  
esaten gendula dena,  
nere ondoan kantatu duen  
bertsolari aundiena. (*bis*)

*Gaia: Egaña eta Murua, talde onetan Joxe Mielekin kantuan esperientzi geiena izan duzuenak zuek zarete. Beraz, bertsoz esai-guzue orduko oroitzapenak.*

*Ega.-*

Gauzak olaxe izaten dira  
iñor ez baita betiko,  
gizon txiki ta bromoso ura  
geienok gendun begiko.  
Orain gugandik urrun joan da  
ta biotzak zenbat brinko,  
alare pozik egoteko gai  
bagerade nerekiko,  
irriparrea bizi dan arte  
Joxe Miel ez da ilko.

*Mur.-*

Aundia gendun guztia ia  
nik egiten det aitortza,  
aldi berean gidari sendo  
ta lagun bertso morrontza.  
Aldi berean zuurtasuna,  
aldi berean biotza,  
aldi berean negar malkoa  
ta lertzeraiño poza,  
udaberriko leen lorea,  
neguko azken itzotza.

*Ega.*–

Umore ona ezker-eskuin,  
sentimentuak goi ta be,  
jendeangana iristen zekin  
beti xuabe-xuabe,  
ainbat urtetan zear egin zen  
gure biotzaren jabe.  
Orain zer egin? Nola jokatu?  
Denok zalantzatan gaude,  
zer izan gendun kontatu naian  
mito bilakatu gabe.

*Mur.*–

Gure bertsoak izan zintuen  
asi berritan aurride,  
zure bertsoak guztia zeukan  
oe zuri ta maindire.  
Parre algaren aita zintugun,  
irrifarraren senide,  
barru guztia ustuta gero  
mundu berrirako bide  
artu dezu, ta lore guztiak  
negarretan ari dire.

*Ega.*–

Gaur goiz partean berria entzunda  
izoztu egin zait odola,  
Txikia beti irriparrezka  
ta Txikia beti ola,  
abertzalea, bertsolaria,  
adar askodun arbola,  
ire itzala gure artetik  
ez dek urtuko iñola,  
aio, Joxe Miel, ondo ibili,  
agon tokian agola.

*Mur.*–

Atsekabea, egon ezin bat  
zu gugandik joan bearrak,  
fiñean fiña, zintzoan zintzo,  
euskera biziz zuztarrak,  
ameslariak begi bizkorak,  
zorrotzak zure giarrak;  
gogoan dauzkat “O baserritxo”  
edo “Amaren bularrak”.  
Bizi pozari eutsiko dio  
zuk emandako indarrak.

**Zumaia, 1993-VII-10.**

*Gaia: Lazkao-Txikik Goterrin utsunerik utzi al dik?*

*Muruak:*

Gazterik asi bertso munduan  
ta ustu zuen barrena,  
ark jarri zuen ainbat urtean  
gure umore geiena.  
Lazkaomendiko gain polit artan  
zeiñen txori gardena!  
Ainbat sentipen biotz barneei  
eman zien unkipena;  
ez zan aundia, baiña utzi du  
utsunerik aundiena.

Ainbeste bertso, ainbesten ipuin,  
ainbeste biotz dirdira!  
Zenbait alditan ez du ekarri  
gaua eunaren argira?  
Ainbeste jende bere ondoan  
itxaropenetan jira.  
Ura joan da triste gaude  
joate orri begira...  
Zer eingo zaio? Erreka denak  
itxasora joaten dira.

**Donostian,  
1993-ko Bertsolari Txapelketa Nagusian,**

*Egañak, txapela irabazi ondoren,  
kantatu zuen agurra:*

*Jon Erbeitak:*

Beti izaten nintzen  
zure bertsoen zai,  
entzun soillak jarri nau  
izerditan blai.  
Gorputzez txiki baiña  
tinko eta ernai,  
biotza zabalduaz  
entzuleei nunai.  
Ainbat ametsen kai,  
ainbat irrien gai,  
tristuraren etsai,  
euskotarren anai,  
beste bizitza ere  
zeugan nuke nai.

Zuek orrela ikusi eta  
neroni jartzen naiz alai,  
batasun onek bearko luke  
euskaldungoaren doai.  
Ni lengoa naiz buru gaiñeko  
uztai edo ta ez uztai,  
iñor ez zegoen lasai  
urduritasuna etsai,  
denak irristadaren zai;  
goizean goizik Lazkao-Txiki  
aipatu dute nolana,  
zuen txaloak beretzat dira,  
nere txapela ere bai.

**“Jose Migel Iztueta, oroitzen naiz zurekin...”**

*Jose Migel Iztueta, oroitzen naiz zurekin,  
zure txiste, bertso eta xelebrekeriak;  
danai parra eragiten ta grazi apartakin,  
ola oroitu gaitezen Lazkao-Txikiakin.*

Ego gabeko txori txiki bat ziñan zu,  
egunero kantari, beti alaitsu.  
Orain aingeruekin bat egin baduzu,  
betiko zoriona zurekin duzu.  
*Jose Migel Iztueta...*

Zenbait erri-jaietan artu zendun parte,  
orregatik guztiok zaitugu maite;  
oraingoan zerutik deitu badizute,  
agur, paradisoan elkartu arte!  
*Jose Migel Iztueta...*

*Kasiano Ibarguren, Lizartza*



## “Samina daukat bihotzean ta...”

Samina daukat bihotzean ta  
malkotan masail guzia,  
bertsolaritzak galdu dulako  
berezko zuen grazia.  
Zorigaitz batek eraman digu  
gizon oso berezia:  
Lazkaomendin jaiotakoa  
eta inon ez hazia.

Bakardadeak gorde zituen  
bere desio gehienak,  
jende aurrean ikusi ziran  
zituen talentu denak.  
Bere graziak alaitzen zitun  
jendeak zituen penak,  
ta gaur negarrez daude berakin  
farre egiten zutenak.

Andrerik ez zun, semerik ez ta  
ezin izan zen aitona,  
baina bertsotan gabiltzanontzat  
izan zan maisu bat ona.  
Borondatezko laguntzarako  
bear zanen prest zegona,  
gorputz txikian talentu asko  
gordetzen zuen gizona.

“Lotara noa. Nork jarriko du  
gero despertadorea?”  
Joan aurretik grazi onentzat  
izan zuen adorea.  
Gure bihotzak gordeko zaitu,  
lekua dezu sobrea,  
Euskal Herriak egiten dizu  
agur eta ohorea.

*Igor Eguren (U. B. I.)*

**“Lazkao-Txiki bertsotan zan...”**

Lazkao-Txiki bertsotan zan  
naiz sakona naiz axala,  
parre eragin bear bazan  
ez gendun mutil makala.  
Urte bete bat pasaxiago  
bada mundutik joan zala,  
aren bertsoek ta istoriak  
luzaro jarrai dezala.

Ta berari kantatuaz  
nago ni ainbeste aldiz.  
Bazekian sakonean  
ta ibiltzen zan pikardiz.  
Dena garbi da: il zan ta ezin  
ibili da erriz erriz,  
ta segur nago antzekorik bat  
ez dala sortuko berriz.

Mutil txiki ta azkarra  
esaten naiz atrebitu,  
bere bertso ederrekin  
asko zituen arritu.  
Bere denboran bere izenak  
bazuen ainbat meritu,  
zuengandikan Lazkao-Txikik  
txaloak merezi ditu.

*Jon Azpillaga*

## Aia, San Pedro, 1993-VII-4.

*Gaia: badakizute Euskal-Erriko txori kantari bat il berria dala: Lazkao-Txiki. Emen ere, beste erri guztietan bezela, izana da; eta eskatuko nizueke beraren oroimenez eta omenez bertso bana.*

### *Mendizabal:*

Lazkao-Txiki bein betirako  
ixildu eta gordea,  
Euskal-Errian eta San Pedron  
gogoratzen da ordea.  
Bertsozaleak izango dute  
samiña ta dolorea,  
goierritarra naizen partetik  
nik daukat pena doblea.

### *Peñagarikano:*

Orain xamurki oroimenetan  
ezin al ninteke murgil?  
Nere barrenak pena bat dauka:  
orain ez zaudela urbil.  
Lazkao-Txikiren izen aundia  
bertso munduan or dabil,  
Joxe Miel zana joan zan baiña  
Lazkao-Txiki ez da il.

### *Egaña:*

Lana artea biurtu zuen,  
arte egin lanetikan;  
amaika irri sortua zaigu  
Txikian esanetikan.  
Egunsentia goratu zuen  
biotzan barrenetikan,  
eguzkia're ez da irteten  
ura joan zanetikan.

### *Sarasua:*

Txantxangorri bat egin zitzaigun  
gure basoaren jabe,  
negu aldean aldegin zigun,  
geroztik zenbat naigabe!  
Gure artetik ezkutatu da  
baiña zearo joan gabe,  
bere bertsoak oraindik ere  
bizi-bizirik baidaude.

### *Olaso:*

Gizarajoa gaitz txarrak ura  
nola artu zuen aldartez,  
onera ere etorria zan  
deitu eta borondatez,  
gai txarra edo berdin zan ona  
jarritako ura betez;  
txiki berriak bagaude baiña  
ura bezelakorik ez.

### *Mendizabal:*

Ainbat algara ta ainbat malko  
berak baizigun eragin,  
irriparraren billa gabiltza  
baiña sarri billa ezin.  
Dagon lekutik entzun dezala,  
au nai diot itzegin:  
bera ez dakit gurekin baiña  
gu oroitzen gera berekin.

*Peñagarikano:*

Supritu ere egiten zuen,  
ain zan euskaldun txintxo;  
sentimentutan sentimentala,  
ziria sartzen bitxo.  
Egunsentian somatzen nuen  
sekulako txiotxo,  
pentsatzen nuen: kantari ari da  
Lazkaoko txoritxo.

*Egaña:*

Oraindik ere ez da itzali  
Txikiaren arnasikan,  
esan liteke bere abotsa  
entzun leikela kasikan:  
“Zuen loreak, zuen gorantz  
ez dizkit aitu pozikan,  
nik ez dit egin denak bezela  
iltzea beste gauzikan”.

*Sarasua:*

Andoni Egañak kantatu digu  
bere bertso naturala,  
baiña uste det bere barruan  
biotz aundi bat zeukala.  
Neri beintzat ark erakutsi zian  
beste iñork ez bezala  
bertsolaritzak gozamina ta  
suprimetua dauzkala.

*Olaso:*

Gorputzez naiz ta kaxkarra izan  
gizona gendun mardula,  
gu euskaldunon artean ez da  
ura aztuko sekula.  
Umorearen aldera beti  
zeukan aretxek brujula,  
zeruan antxe ibiliko da  
santuak parrez ditula.

***Azpeitia. 1993-XII-21.***

*Anjel Mari Peñagarikanok:*

Lazkao dago alde batean  
ta Ataun goraxeago,  
Barandiaran joan zitzaigula  
ia bi urte igaro.  
Lazkao-Txikik ere aldegin,  
arenak ere akabo;  
une auetan goiko zeruan  
bikote ederra dago:  
bi Joxe Miel, biak txikiak,  
zein baiño zein aundiago.

**Lazkao, 1994-IV-4.**

Baserrian jaio zinen  
 bizitzaren hegoetan,  
 haurtzaro on bat gozatuz  
 hango zelai berdeetan.  
 Lagun haundi bat zintugun  
 oinarri hastapenetan,  
 egunez eguzki printza,  
 ihintz freskoa gauetan.  
 Zenbat ginen elkarrentzat  
 garbi da une honetan,  
 bihotza minbera dago,  
 maite zintugun benetan.  
 Nahiz eta egunak pasa  
 zu joandako penetan,  
 beti elkarrekin gabiltz  
 gure oroitzapenetan.

Argia eta bizkorra  
 holako zein gutxi diran:  
 beti umore onean,  
 txiste bihurrien miran.  
 Ateraldi dotoreak,  
 jendea haien desiran,  
 zurekin ingurukoak  
 beti gozatu ohi ziran.  
 Parre algara ugari  
 entzuten zen zure jiran,  
 ametsezko mozkorraldi  
 baten irudi bailiran.  
 Askotan esan genuen  
 zu ikusi ta segidan:  
 “Zer gutxi eskatu eta  
 zenbat ematen ari dan!”

Urte bete pasa zaigu,  
 —ba al da hainbat denbora?—  
 izkutatu zitzaigula  
 lazkaotar denon lora.  
 Laster ekarri nahi dugu  
 herriko plaza ondora,  
 irudi eder batean  
 denok dezagun gogora.  
 Irrifarra loretuaz  
 bihotz erditik ahora,  
 bertsozaleon kukua  
 aurten ere faltako da!  
 Hegaka joana baita  
 lainoen artetik gora,  
 ametsen bizitokira,  
 atsedenaren altzora.

*Iñaki Murua  
 bertsolaria, Albistur*

*(Joxe Migelen eriotzaren  
 leenengo urtemugan,  
 meza-denboran Felipe Altunak kan-  
 tatutako bertsoak)*

**“Penaren bidez gaude...”**

Penaren bidez gaude  
erdi kixkalita,  
izar argi eder bat  
zaigu itzali ta.  
Lazkao-Txiki, gure  
jostaillu polita,  
kanposantuan dago  
lurrez estalita.

Umore goxoaren  
berezitasuna  
zendulako, erriak  
zizun maitasuna.  
Nola ez ixtimatu  
zure fintasuna?  
Buelo txikian zendun  
zuk aunditasuna.

Beste munduan pizten  
al da emen ilda?  
Ez diguzu esaten,  
ain zaude ixil da.  
Baiña eman zenituan  
ainbat bertso-sail da  
euskaldunak zurekin  
aztutzea zail da.

Zure gorputza sartu  
zuten illobira,  
ta anima igo zan  
zeruko gurdira.  
Gaur andikan bazaude  
lurrera begira,  
gure zorion denak  
zuretza dira.

*Manuel Lasarteren bertsoak.*

*Koldo eta Arantxa Iparragirre  
anai-arreba trikitalariak  
kantatuak.*

## URA AMETS GOZOA!

Joxemielen illeta artan  
 nik Lazkaoko elizan  
 negarrez lertzen igaro nuan  
 maitemindu baten gisan.  
 Une berezi batzuek nola  
 gertatzen diran bizitzan,  
 illuntze artan alako zerbait  
 ara nola nuen izan:  
 oean sartu nintzan orduko  
 ametsetan asi nintzan.

Ametsak beti garamazki gu  
 bere baitan nora, nora,  
 egoak sortu zizkidan eta  
 nijoan gora ta gora.  
 Odei ta izar tartean antxe  
 igarotzean denbora,  
 jauregi eder bat topatu nuan,  
 ni orduantxe gustora,  
 ta bereala urbildu nintzan  
 atezaiaren ondora.

Atezaiari agertu nion  
 zer toki zan jakin naia.  
 Erantzun zidan: "Esango dizut,  
 zu lasai egon, anaia.  
 Barruan dago zintzo guztiak  
 eseritzen diran maia,  
 bizitz berri bat or asitzeko  
 zarrak emen du amaia,  
 oni zerua deitzen zaio ta  
 ni naiz Pedro atezaia.

Nik zer nai nuan galdetzen gero  
 ark izan zuan ardura,  
 erantzun nion: "Au jakin asmoz  
 naiz zuregana ingura.  
 Lazkao-Txiki bertsolaria  
 gure artetik galdu da,  
 jakin nai nuan bere aztarnik  
 eldu ote dan zerura".  
 Ta esan zidan: "Gaur goizaldean  
 bera sartu da barrura".

Eta itz aiek entzutean ni  
 poztua nintzan gogotik.  
 "Sartu niteke?" galdetutzean,  
 ezezkoa lenengotik:  
 "Ate au ezin igaroa da  
 deitu baiño lenagotik,  
 erakutsiko dizut ordea  
 ikusgailluan leiotik".  
 Eta barruan zegon taldea  
 ikusi nuan kanpotik.

Mai eder baten jarria zegon  
 bertsolari-talde dena:  
 Xalbador, Mattin ta Uztapide,  
 baita ere Mitxelena.  
 Lazkao-Txiki gero azaldu,  
 ura nere gozamina!  
 Agurtu nuan ta erantzunez  
 sortu zuan ondorena,  
 ura izan zan bizi guztiko  
 ateraldirik onena.



Ta Mitxelena zirikatutzen  
ekin zion segituan:  
“Ni txikia ta onengandikan  
ederrak entzun nituan.  
Baña ikusi det aundi izanak  
zer kalte sortzen dituan,  
zeruko atean au gertatu zan  
iñola ezin kabituan,  
bere neurrira argaldu arte  
gorriak pasa zituan.

Zerutik kanpo or egon aiz i  
ia iru bat urtean,  
ate orretan kabitutzeko  
moduan jarri artean.  
Ik zenbat pena ta sufrimentu  
izan deken bitartean!  
Txikitasuna ez dek gertatu  
Joxemielen kaltean,  
argatik errez sartu niñuan  
zeruetako atean.

Zeruan zuzenean sartzeko  
nola etzegoan diña,  
prestakuntza ortan ik igaro dek  
naiko neke eta miña.  
Atezai orrek ni ikustean  
pozez zidan itzegiña:  
Ire moduko bear genikek  
munduko gizon aundiña,  
gure zeru au nola dagoan  
txikientzako egiña”.

Joxemielek Mitxelenari  
berriz ere erasorik,  
beste lagunak ura entzun da  
alako parre gozorik.  
Onela zion: “Onek oraindik  
eztu zorion osorik,  
ni aingeruak laztantzen naute  
beren besotan jasorik,  
ta oni berriz orain artean  
ez diote egin kasorik”.

Eta ondoren Joxemielek  
esan zidan agurtzeko:  
erri aldean garai dan arte  
neurri gogorrak artzeko.  
Iñor balego gizentasunez  
Mitxelenaren antzeko,  
azken orduan baiño lenago  
zimeldurikan jartzeko,  
bere moduko bear duela  
zeruan errez sartzeko.

Naizta asera ura gertatu  
neketsua ta traketsa,  
talde eder ura ikusitzea  
zer poz izan nuan pentsa.  
Arkitu gabe itzulitzea  
ura izango zan beltza,  
nere zeruan sartu naiari  
naiz eta eman ezetza,  
berriro ere egingo nuke  
era artako ametsa.

*Joxe Mari Lertxundi*

*1994-ko abuztuaren 1-ean.*

## “Joxe Migel, lagun zarra, ...”

Joxe Migel, lagun zarra,  
 etzan izlari baldarra,  
 baizik egoki samarra.  
 Bertsolaria dotorea ta  
 ziri-sartzaille azkarra.  
 Bazituela indarra,  
 txinparta eta sugarra,  
 dago aitortu bearra.

Bai al dezu atsegiñik,  
 mundutikan aldegiñik,  
 guri negar eragiñik?  
 Bizitza ontan penari pozak  
 ezin dio artu gaiñik.  
 Onak ez badu ordaiñik  
 ta txarrak ontzeko griñik,  
 ez daukagu zer egiñik.

Eriotzaren aurrian  
 jartzen da derrigorrian  
 estuasun gogorrian.  
 Joxe Migel, zu, samintasuna  
 utzirik Euskal-Errian,  
 gaixorik negu gorrian  
 egonik modu txarrian,  
 il ziñan udaberrian.

Biotzean zenduen min,  
 ta gero buruan berdin,  
 gaitza sendo eta gordin.  
 Bi illabete pasatxoetan  
 eduki zinduzten **UVI**-n,  
 bizia salbatu zedin;  
 baiña an ere utsegin,  
*iñork ezer ezin egin.*

Ainbeste gizon sonatu  
 gaitzak oi ditu domatu,  
 indarrez bereganatu.  
 Lazkao-Txiki ebakuntzatik  
 lotan gelditu zan mutu;  
 naiz eta grabe somatu,  
 sendatzen ezin asmatu,  
 ezerk etzuen esnatu.

Azkena noiz datorkigun  
 dakienik ez da iñun,  
 ara zer gertatzen zaigun.  
 Joxe Migel, zu ezkutatzek  
 supritu arazi zigun;  
 biotzez giñanak bigun  
 kopeta genduen illun,  
 naiko lan jarri zenigun.

Gaixotasun arazoan  
 eman zenduen pausoan  
 erori ziñan lazoan.  
 Jainkoak jarri izango zaitu  
 bizibide erosoan,  
 atsedentoki gozoan,  
 betikotasun osoan,  
 zeruko paradisoan.

Aundiak milloien jabe,  
 txikiak zer janik gabe  
 mundu ontan asko daude.  
 Supritzen bizi edo iltzea  
 zer ote litzake obe?  
 Gu beti zalantzan gaude,  
 zu seguruago zaude,  
 zeruan baldin bazaude.

Bat iltzera iritxita,  
gelditu oi da jetxita,  
ain gera gauza gutxi ta.  
Abaliñera egin genizun  
guk azkeneko bixita;  
an zeunden txuriz jantzita,  
kutxa barruan itxita,  
munduko lanak utzita.

Zure anima opari  
eman zenion Aitari,  
seguru badakit ori.  
Aingerutxoak dira zeruan  
Jainkoaren mandatari;  
Joxe Migel, zu kantari  
aientzat bazera ari,  
jarraitu lengo gaitari.

Beti arantza tartean  
bizirik geran artean,  
nor da zorion betean?  
Zu ikustea naiko nuke nik  
mundu ontatik joatean,  
zeru aundiko atean,  
San Pedrorekin batean,  
maitasunez ta pakean.

Maite zenitun aurtxoak,  
senide ta gurasoak,  
txori, mendi ta basoak.  
Danentzat badu zer itzegiña  
biotz amodiosoak.  
Jostaillu kuriosoak  
zirala zure bertsoak  
badaki erri osoak.

Zure kanturako griña  
txoriak duten berdiña  
zala det amets egiña.  
Buru argia zenduen oso,  
moko txorrotxa ta piña;  
bertsolari atsegiña,  
orain ixil zaude baiña  
nik maite zaitut len aiña.

Umiltasuna ardaztu,  
ez zikindu ta lokaztu,  
ta triste daudenak poztu.  
Lazkao-Txiki orretarako  
beti egoten zan prestu;  
bertsolaritza erreztu,  
garbitu eta orraztu,  
ori ez dezagun aztu.

Gelditzen bada biotza,  
bat-batean eriotza,  
biziak iraupen motza.  
Joxe Migel, zu Euskal-Errian  
etziñan gizon arrotza.  
Ixildu zan arnas-otsa,  
bukatu zendun morrontza,  
jasorik epai zorrotza.

Mailla oneko neurria  
betetzeko egarria  
zendula naiz igarria.  
Agurtzen zaitut, Lazkao-Txiki,  
ain zera agurgarria.  
Uste gabeko arria  
gaitzak zizun ekarria,  
ori da penagarria.

*Manuel Lasarte*

## IRITZI BATZUK

Joaten zen leku guztietan, bere txiste eta ateraldi zorrotzekin, bera protagonista izaten zen. Bestalde, oso biotz aundiko gizon bat zen. Asko sufritu izan zuena gaiñera.

Francoren garaian, euskaldungoa zapalduarik geundenean, euskaldungoan bat giñela uste izan zuen, beste askok bezela. Baiña gero bestela atera ziren gauzak eta asko sufritzea tokatu zitzaion, bai euskera batuarekin, bai politika arloarekin, bai telebistako euskararekin... Errealitatea ez zuen onartzen, zen bezala. Oso estua zen. Bide orretatik azkena gaiñean genuela uste zuen.

*Ofizioetan, pentsu saltzen zebillen garaian, ez zuen berak bear zuen askatasunik. Ez zen bere neurriko ofizioa. Baserrian bere kontura asi zenean ere, aseran garai estuak pasa bear izan zituen. Baiña dena bere neurrira ongi antolaturik zuen garaian, joan bearra etorri zaio. Suerte gutxiko gizona izan da orretan.*

Aserre erreza bazen ere, azkar pasatzen zitzaion. Ez pentsa izandako eztabaida aaztuko zitzaionik; baiña azkar gozatzen zen.

Bere urterik aberatsenak, bear bada, 1960-1970 garai orretan izango zituen. Gerora uste dut zerbait jetxi egin zela bere bertso etorria.

Txapelketa garaian bertso bikaiñak bota oi bazituen ere, ez zen egun osoko bertsolari. Gora-beera dexenteak oi zituen.

*(Joxe Mari Iriondo)*

\* \* \*

Euskara arloan, norbaiti zerbait irakurri eta bere buruan buelta uzgarri emandako ideiak izaten zituen. Etimologia aldetik batez ere.

Ni ez nintzan sartzten, bestela pipertu egiten zela oartu nintzelako. Gero, bein baiño geiagotan, nere izena erabiltzen zuen besteen aurrean indarra artzeko.

Bere etimolojietan, sari izenetan eta abar, oso teoria bereziak zituen.

Basarri bisitatuzera ere naiko sarri etorri izan zen Joxe Migel. Bein baino geiagoan topatu izan dut nik, bere lagun Julianekin. Orretan oso fiña zen.

Aoa zabaltzen zuten monedero oietako bat bazuen; eta, aur bat ikusten bazuen, beti emango zion txanponen bat.

Izan da uste bat Lazkao-Txiki azken urteetan bertsotan asko jexita zegoela. Baiña egiatik oso urruti dago ori.

Donostian *tourra* asi zen eguna zen. Idiazabaldik gorako baserri batean, Lazkao-Txiki, Sebastian eta irurok giñen. Lagunarteko afari bat zen, eta nik ez dut erabat ain ondo ikusi inoiz Lazkao-Txiki. Beldurtuta utzi ninduen. Sebastian eta biok topean; eta aren ondoan, ala ere, kakagiñean.

Uztailaren asera aldean zen gainera, naiko garai gogorrean, eta alako saioak inoiz baino geiago antzematen dira. Bera il baino urte erdi bat leenago zen. Beraz, ba, fakultade osoan zegoen. Esajeratu gabe, gu giñen ari eutsi eziñez ibili giñenak.

Bertsolari atipikoa zen oso. Legorretako zinean, orain iru urte-edo, izan zen saio bat grabatua izan daiteke.

Gogoan daukat saioaren asera parregarri eman ziola. Edozein umek kantatuko lukeen eran, ia bertso erdia bi aldiz errepikatuz bezala. Baiña saioa ikaragarritzko mailla batean bukatu zuen. Ez da normala bat ain gaizki asi eta ain ondo bukatzea.

Tipo jeniala zen. Gai bakoitzean eta bertso bakoitzean, esan zezakeen onena esatera joaten zen. Bein ere ez zen edozer gauzarekin konformatzen. Orrela dabillenak, gauza onak esateko ere bai, baiña erridikuloa egiteko arriskua ere geiago du. Ori zen bere bertso-mundua: beti billa.

Inori baino leenago nabaritzen zitzaion noiz zegoen konektatuta eta noiz desentxufatzen zuen. Entxufatua zegoenean, beldurgarria zen.

Orrela ari zenean, gainera, Lazkao-Txiki bere jenerazioan bakarra izango zen, berak esan bear zuena atzekoekin komentatu ere egi-

ten zuena. Ori gaur egun gure artean normalago da; baiña bere garaikoetan bakarra izan da.

Bertsoa bizi egiten zuen. Tabladuan komentatu ere asko egiten zuen, baita besteren bertsoak ere. Besteei txaloak jo eta guzti. Neuk ere bein, Ordizian, beste bertsolariengatik ari nintzela, Joxe Migeli ere kantatu nion zerbait gustora samar; eta, bueltatu nintzenez, nere bertsoari txaloka ari zen.

*(Andoni Egaña bertsolaria, Zarautz)*

\* \* \*

Oraintxe dira ogei ta amairu edo ogei ta amalau urte ni Lazkao-Txikirekin arremanetan asi nintzela. Ordizian, irailleko jai berezi oietan, bertso sariketa bat antolatu zuten, eta ni epai-maiko izendatu ninduten.

Ordurako ezagutzen nuen aurpegiz eta entzuna nuen bertsoan, Tolosako Beotibar pelotalekuan, txapelketa batean an ere: bera, Lexoti eta Astigarragako beste bat. 1954-1955 ingurua izan zitekeen.

Ordiziakora itzuliz, ez zen egun ederregia izan Joxe Migelen-tzat. Pasa egin zen edariarekin, eta arratsaldean ez zuen ezer egin bertsoan.

Andik aurrera eta aurten Lazkaon azken agurra eman nion arte, Jainkoak jakingo du zenbat aldiz, zenbat lekutan eta zenbat modutara izan eta ibili giñan elkarrekin. Egund osoak ere bai, bagenituen paseak, an eta emen.

Urte orietan guztietan, bein izan nuen alako muturkaldi bat, Zestoan. Gogoan izango dute oraindik Joxe Lizasok eta konpaiñiak, aiek arritu egin baitziren nik ain zakartua ikusita. Ezagun zen ez nindutela geiegi ezagutzen. Baiña an bukatu zen kontua.

Bertsolari zintzoa eta leiala zen Joxe Migel deizalearentzat. Sekula ez zidan utsegin. Berandu ere nekez etorri oi zen. Bein daukat gogoan zai egona gaueko jaialdi baterako. Bai Beasaingo tabernako zitan eta bai emandako orduan, zintzoa zen Lazkao-Txiki. Eta ez da meritu makala ura ainbat ibilitako bertsolari batentzat.

Berez kontzientzi zuzeneko gizona zela uste dut, eta emandako itza kunplitzen oso fiña.

Gizon eskertua ere bazen. Jakiña da bertsolarietara, ara eta ona deitzen zaienean, amaietako edo afaria sarritan ematen zaiela edo zitzaizela; eta antolatzaileen kargu izaten dena. Joxe Migelek beti gal-detuko zuen zer zor zuen; eta, paga bearrik ez bazuen, beti eskertzen zuen.

Gai jartzailleak musu truk ibili oi giñen garaietan, berriz, askotan sumatu nuen gurekin partekatu bear zutela esaten beraiek jaso zutena.

Ez zen ajolakabe bat, berea egin eta kito egiten zuen orietakoa. Fiña zen gure gizona.

Eta, fiña zelako, sufritu ere dexente egiten zuela uste dut gure gizonak. Batez ere, gure erriaren egoera zen mingarria Txikiarentzat, eta izkuntzarena ere bai.

Baiña ez ori bakarrik. Bere buruarekiko eta bere egoerarekin ere sufritzen zuen. Geiegitan aserretzen zen bere buruarekin. Sentikor samarra ere bazen, eta gauza askorekin minberatzen zen.

Leen esan dudan Zestoakoaren ondoren, negarrez billatu nuen gizarajoa etxerako, kotxea artzera zijoala. Bere buruari botatzen zion kulpa. Ura pena eman zidana!

Bertsolari bezala, okurrentzi edo akordaldi izugarrietako gizona zen. Zer karikaturagillea izango zen gure Lazkao-Txiki, marrazkilaria izan balitz! Aparta zen inguruko enalduekua ikusten eta nabarmendu erazten.

Nekez izango zen jaialdirik edo saiorik, arek jendea algaraz leertzen jarri gabekorik. “Umore piztarazle gaitza” esan zuen Xalbadorrek Ahetzeko beste txikiagatik. Zer esan ote zezakeen Lazkaokoarengatik?

Bera zenbait aldiz keja izaten zen gai jartzailleekin, gai parregariak jartzen zizkiotelako beti edo geienetan; eta orregatik bertsozaleak berak ere parragarritzat bazeukaken bezela. Arrazoi piskaren bat izan zezakeen.

Baiña bertsozaleak bazekien, eta jai jartzailleak zer esanik ez, gai aundietan ere aundia zela Lazkao-Txiki, eta lirismo paregabea era-

kusten zuela, aukera ematen zitzaionean. Algara asko eragin die eztarriei Txikiak; baiña amaika biotz ondo samur erazi ere egin du.

Orain *kastau zaigu*, berek esaten duten bezala, gure Joxe Migel aundia; eta zorionak eta animoak eman besterik ez zaigu gelditzen, aren bertso eta ateraldi eta abarrekin zerbait egin naian dabiltzan guztiei.

Guztia eta geiago ere merezi du Lazkao-Txikik. Egiten zaion oore guztia izango da gutxi, arek merezi duenarentzat. Mailla orretako bertsolariekin ere beti zorretan geldituko da erria, eta Lazkao-Txikirekin zer esanik ez.

(Joxe Mari Aranalde)

\* \* \*

Lazkao-Txikiri buruz zuek ez dakizuten gauza askorik ez dut agian esango, ura ezagutu eta arremen estukoak izate zeratelako.

Txiki-txikitatik, guretzat aita bat bezala izan zen. Gu ere berarentzat aren umeak bezala.

Garai artan bera zen gure etxera baserriz kanpotik munduko berri ekartzen ziguna. Nik gogoratzen dut, ogei ta pare bat urterekin Afrikatik soldaduskatik etorri zen garai uraxe.

Baserriz kanpo lanean asi zenean, etxera illuntzetan etorri eta illoba guztiak bere inguruan sukaldean bildu eta gure ikastola ura izaten zen. Berak oso gogoko zuen ori.

Liburu asko zuen. Egunero liburu berriren bat ekartzen zuen, eta berak irakurriak guri esplikatzea gustatzen zitzaion.

Berari zor diogu euskara eta Euskal-Erriarekiko jakintza eta egarri ori. Bertsozaletasuna guregan ere berak txertatu zuen.

Joxe Migel ez zen irrifarra eta bertso utsa, kanpora geienbat orrela agertzen bazen ere. Oso pertsona sensiblea eta maitagarria zen. Orregatik, sufritu ere asko egiten zuen, berak geienetan kanpora ez zuen agertzen baiña. Gu orretaz oartzten giñen.

Zenbait alditan ipurterre edo berekoi samarra ere bazen. Agian bere iritzietan zuan ziurtasunagatik-edo.



Bere bertsolari balioari ez zion berak bear zuen garrantzirik eman. Ala ere, jendearen aldetik izan duen estimazioa ez zen ainbes-tekoa izango, beste era batera jokatu izan balu.

Etxean eta sendian asko gozatzeko denborarik ez izan arren, asko maite zituen. Goizaldera etorrira ere, etxera sartu gabe inoiz ez zen joango, bost minutu besterik pasatu bear ez bazituen ere.

Etxean ipuiak eten gabe kontatzen zituen; eta bertsoen esan nai eta esplikazioak ematen bazizkigun ere, bat-batean kantari ez zen ari-zen. Etxe barrurako alferra deitzen genion. Bazuen utzikeria joera bat.

Ez zen ordenatua. Bere koartoa liburuak eta paperak ez ziren oso ordenatuak izaten. Gerora geuk ere lagundu izan diogu. Liburu mordo aundia zuen.

Bere Zaldibiako baserrian bertan ere agertu dira paper eta doku-mentu garrantzitsuak, galtza eta alkandora poltsikoetan, ganbarako zenbait bazterretan.

Bera abandonatua izan bazen ere, ez zen erabat utzia. Berak bazuen bere paperen arrastoa, eta orregatik gordetzen zituen.

Azken iru edo bost urte inguru onetan, bere bakardadearen agerpen nabarmenak egin izan ditu, aurrez inoiz egiten ez zituenak.

Gaiñeratikoan, asko sufritu zuen, Euskal-Errian amar edo amabost urte auetan izandako politika zatiketa dela eta. Gu oartzen giñen bere bertso lanean ere eragin izan ziola. Etxean bertan ere zital jarri izan da bein baiño geiagotan, bere sufrimentuak gainditu eziñez jartzen zenean.

Liburuak era guztietakoak ziren: geienak euskarazkoak, baiña literatura orokorrekoak eta frantzesak eta españolak eta bai. Beraren liburuak begiratzen asi geranean, geienak Lazkaon zituela uste genuen arren, beste ainbeste bazuen Zaldibin, an beretzat prestatua zuen baserrian.

Liburuak ez zituen leen bakarrik ekartzen. Il arte ere jarraitu egin izan du berriak ekartzen. Liburu oso berriak ere bazituen.

*(Felipe Barandiaran,  
Lazkao-Txikiren illoba, Zizurkil)*

\* \* \*

Bertso billa asiko zen eta Txirritaren bertsoekin topo egingo zuen. Txirritak berriz, bertso politiko ugari du. Pedro Mari Otañok berdin. Xenpelarrek ere bai. Bertsolariak, ia erabat, euskararen eta Euskal-Erriaren aldeko ziren.

Lliburu oiek danak eta beste asko izan dira Joxe Migelek pasa izan dituenak. Resurrección Maria Azkue bere idoloa bezala zuen.

Abertzaletasuna eta bertso sena biak batera piztuko zitzaizkion. Kaso ori neuri ere ala gertatu zait.

(Patxi Iraola bertsolaria, Zaldibia)

\* \* \*

Bera ezagutzerako, bere berri asko nekien nik, aita eta anai Patxiaren bidez.

Bertsolari oso konpletoa, alderdi asko zituena. Joxe Migelen irudi bat isladatu da parre bertsoak, emakume kontuak, umorea bakkarririk... Ori ez da egia. Arlo guztiak ikutu ditu eta arlo guztietan zen ona. Bere berezitasunik aundiena osotasunean dago: ainbeste gai ain ederki erabiltzea.

Norbaiti entzun diot afalondoa Joxe Migeli txistek eskatu izan dizkiogula, eta ori Pavaroti tenore aundiari *Pintto-pintto* kantatzeko eskatzea bezala zela; bere kategoria ez zela orrela alperrik galdu bearrekoa.

Bere buruari inportantzia gutxiegia ematen zion : edozeinekin, edozeinek eskaturik, edozein ordutan... Ez zuen neurrik. Batzuk jendearengandik geiegi urruntzen dira bere buruari inportantzia geitxo emanez. Baiña Joxe Migelen kasoan alderantzizkoa zen. Orretan ez zuen bearbada asmatu.

Joxe Migelek badu bere eskola, bere estiloa. Baiña eskola berezia. Ez zen teknika, forma eta esan molde batzuetan oiñarritzen den eskola; baizik eta berak barruan bizitza sentitzeko zeukan era; mundua ikusteko era.

Gauzei ain eraz erantzuteko zeukan era, bere sentiberatasuna, bere barrun-barrungo gauza oiek, intransferibleak dira. Ez da ori ikasten dena. Ori zen bere aportaziorik nabarmenena.

Bere leen ezaugarria sortzailea izatea da. Geienok ikas dezakegu bertsoaren teknika moldatzen; baiña bada arlo bat berea dena. Orijinala zen. Egundoko alegiña egiten zuen bertso berria sortzeko. Ez zuen onartzen aurretik prestaturik; ez zen orren zalea.

Bein puntu bat jarri zioten txapelketa batean:

— Bertso bota iozu  
zere buruari...

Eta berak onela erantzun zuen:

— Orain dala lau urte  
jarria da ori.  
Emen etorri gera  
berria kantari,  
len kantatutakorik  
ez ipiñi neri.

Beti berri. Askotan, omenaldi eta orrelakoetan, ez zen bertsoak aurrez ongi prestaturik eraman zale. Sarritan antxe bertan aterako zuen.

(Rufino Iraola, Zaldibia)

\* \* \*

Joxe Migelek bere burua gutxi samar maite ote zuen esan du Rufinok, edozein lekutan-eta kantatzen asten zelako.

Joxe Migelen izakera zen orrelakoa, eta ori etzegoen ari ukatzerik eta kentzerik. Ura orrelakoxea zen. Saltsa orretan bizi zen, eta bear zuen gaiñera. Ori gabe ez zen izango zen bezalakoa. Izakera kontua da ori.

Bertsolari batzuk gaur egun, saioa bukatu eta kobratu ondoren, trago bat artu eta etxera joaten direnak dira. Beste batzuk, berriz, bertako saltsan gelditzen direnak. Joxe Migel bigarrenengo auetakoa zen. Ori, gaiñera, bere saioaren barruan sartzen zen.

Joxe Migel *historia* egin duen bertsolaria izan da. Jendea, erriak eta bertsozaleak alegia, ia saio geienetan, aren zerbait gogoan artuta atera dira. Ori oso bertsolari gutxik lortu dutena izan da. Ale bat edo beste, jendearen gogoan jasotzeko modukoa. Ori oso gutxiren esku dagoena da.

Umore fiña zuen oso. Baiña ez zen bertsolari bakarrik. Zerbait geiago ere bazen: zelebrea. Baiña zentzu onean arturirik; ez arlote eta orrela, artista aundi bat baizik.

*Ditxolari* ere bazen, eta bete-betekoa gaiñera. Ortan ere berezko doai aparta zuen, iñor gutxik bezalakoa.

Ortaz gaiñera, arriskatzen zen bertsolaria zen. Gu ederki konturatzten giñen gu ez giñela ura bezala aritzen bertsotan, edo ura ez zela gu bezala aritzen.

Guk, mikrofono aurrean, nolabait esateko *supervivencia*-ren jokabidea genuen. Gaia jarritakoan, une estu artatik nola edo ala atera.

Joxe Migelek, berriz, arriskua billatzen zuen. Ez zen leenbizi burura etorritako arrazoiekin konformatzen. Zerbait berezi eta orijinala nai izaten zuen. Ez zen tropeleko bertsolaria, berezia eta bakarra baizik.

Gutxi edo geiago, bertsolari geienongatik badaki jendeak zer eman dezaken edo zer emango duen. Joxe Migelengandik, berriz, zerbait sorpresa espero izaten zuen. Eta tarteka lortu ere egiten zuen.

Orrek, jaialdi askotan, bertsorik txarrenak botatzea ekartzen zion. Baiña onenak ere bereak ziren. Ez zen erdian, artaldean, ibili zale. Puntatik puntara joango zen. Asmatzen zuenean, ondo; baiña asmatzen ez zuenean, gaizki.

Berari ere sarri entzun nion: naiago zuela jaialdi batean bertso bat edo bi jendeak gogoan jasotzeko modukoak kantatu, tartean txarrak bota arren. Neu ere berarekin bat nator; neuri ere orrelako bertsolariak gustatzen zaizkit.

Bere jakinduria, irudi literarioak, lirikotasuna, nondikakoak ote ziren? Olerki liburuak, bizitza, lagunak, asko ikusia...

Euskararekiko maitasun aundia zuen; bearbada, oso aurrera zala, bere leen eskolak euskaraz ikasi zituelako.

Oso jakin zalea zen, gaiñera. Non-nai, zebillen lekutan, beti galdezka aritzen zen. Ez zen iñorekin orretan zapuztuko. *Testigo de Jehová*-koak etorrira ere, ez zituen itzegin gabe bidaliko. Beraiei galdarak egingo zizkien. Joandako lekuan, zein inguruan zegoen jakitea gustatzen zitzaion. Leku ezezagunean ez zen gustora egongo. Galdetuko zuen zein zen bat eta bestea.

Itz jokoetan ere oso trebea zen. Izkuntza aberatsa erabiltzen zuen, eta indarra ematen zuten itzak ugari erabiltzen zituen bertsotan.

Joxe Migel *genio* bat izan da.

(Mikel Mendizabal bertsolaria, Itsasondo)

\* \* \*

Bizkaian berandu samar sartu zen bearbada Lazkao-Txiki. Baiña, bein asi zenetik, eztimazio aundia izan zuen erri askotan. Bada-  
kit, gaiñera, aurtengo bertso saioa beraren omenez antolatu nairik dabilzala erriren batean.

Joxe Migel ez zen txapelketa-bertsolaria. Ura ez zen puntuen billa joaten; an ere *espontanea* zen. Berak sentitzen zuena esatera joango zen; gaiaren barruan ateraldiak billatzera. Ez zen kalkulatu ibiltzen. Plazetan ere iñor baiño *espontaneo* izan da beti.

(Jon Lopategi bertsolaria, Muxika)

\* \* \*

Lazkao-Txikiren beste alderdi bat oso ume zalea izatea zan,

Poliklinikan UVI-n nengoela, bisitara etorri zitzaidan eta ez zioten sartzen utzi. Baiña nere billoba Malentxo zegoen an nere emaztearekin, eta aur txiki ori besoetan artu eta egundoko festak egin omen zizkion. Ura izango zen, seguruenik, ark besoetan izandako azken aurtxo. Oso ezkontzaren kontrarioa zen, baiña bai ume zalea benetan.

Pena bat daukat: sartzen utzi ez izana. Nik izketarako ez bainuen iñolako arazorik.

(Ion Azpillaga bertsolaria, Mutriku)

\* \* \*

Lazkao-Txiki oso ume-zalea zan. Leku batean baiño geiagotan gertatu izan zait neri, berarekin joan leku batera eta aren ondotik ibili bearra, ura umeen atzetik zebillelako. Ume bat ikusi orduko, dirua edo gozokiak edo zerbait beti emango zion.

Bein, lan bat esku artean nerabilkian eta gure Joxe Migelekin alkarrizketa bat egin bear nuan patxaraz. Ondo kostata, baiña egun bat jarri genduan: goizean bertso-saioa zeukala, baiña arratsaldea libre; eta orrela alkartu giñan, ba, Matxinbentan. Alde aurrez esanda, gaiñera, zertarako zan eta serio gauzak azalduta.

Ala, ia egun osoa artu Matxinbentarako. Ango taberna-zulo batean sartu, eta jendearengandik urrutien zegoan leku bat aukeratu ere bai.

Asi giñan, ba, izketan. Baiña ume txiki bat an agertu zan; baita aren atzetik neska-mutiko pare bat ere. Lazkao-Txiki zutitu zan maitik; asi zan ume aiekin jolasean; umeen bidez gurasoengana eldu zan, eta beste gabe gure billera an galdu zan.

Umeei, gaiñera, diru asko ematen zien. Bosteun pezetakoa eta millakoa ere ematen ikusi izan det nik. Onela esaten zuan berak:

— Auei eman ezean, zeñi emango diok, ba? Bai al dakik nolako ilusioz artzen duten? Auek gauza gutxi ere estimatu egiten die!

Ura ala ikusita, ni ere altxa nintzan; eta, andik joateko asmotan giñala, ume oien ama batek onela esan zion bere neskatoari:

— Emaiozu muxu bat Joxe Migeli.

Bai umeak eman ere. Orduan Lazkao-Txikik:

— Emaidazu, bai, emezortzi urterekin ez didazu emango ta!

Oso aipagarria da Lazkao-Txikiren alderdi ori: ume-zaletasuna. Gurea etzuan ezagutu. Baiña, ni ikusitako bakoitzean, umea zer-nola ote genduan galdetuko zidan.

*(Xabier Amuriza bertsolaria, Etxano)*

\* \* \*

Aurrekin eta adiñekoekin atentzio berezi bat izan oi zuen beti.

Bere ateraldiak ainbeste ziren, zenbait egunetan goizetik illuntze-ra ixildu ere etzen egiten.

Sarritan umore eta berdekeri gaietan kantatuagatik, jendearen gustoa betetzearren egiten zuan. Baiña berak askoz estimatuagoak zituen sentimentuzko bertsoak.

*(Mañukorta bertsolaria, Markina)*

**DOIÑUA**

## LAZKAO-TXIKI'RI

Letra y melodía con Txistu: Ramón M. Aramburu "Txanbo"  
 Armonizado a 4 v.m.: M. Altolaquirre

Alto

Txistu I

Txistu II

Silbato

S.

A.

T.

B.

A - u - rre - ra

A - u - rre - ra

A - u - rre -

A - u - rre -



The first system of the musical score consists of two staves. The upper staff is the vocal line, and the lower staff is the piano accompaniment. The music is in a key with three flats and a 4/4 time signature. The vocal line begins with a whole note rest, followed by a series of eighth and quarter notes.

The second system continues the musical score. It features two vocal staves and a piano accompaniment staff. The lyrics are written below the vocal staves. The key signature changes to two flats, and the time signature remains 4/4. The lyrics are: "be - ti au - rre - ra go - ra ta go - ra Eus - kal - e - rri - ra be - ti au - rre - ra go - ra Eus - kal - e - rri - ra".

The third system of the musical score is primarily piano accompaniment. It consists of two staves. The music continues with various rhythmic patterns and melodic lines in the left and right hands.

The fourth system continues the musical score. It features two vocal staves and a piano accompaniment staff. The lyrics are: "a Eus - kal - e - rrin a - zal - du da a Eus - kal - e - rrin a - zal - du". The key signature remains two flats, and the time signature is 4/4.

o-ben o be-na ber-tso-ta-ko gi-zo-na txa-pel-ke tan

gi-zo-na

da o-ben o be-na ber-tso-ta-ko gi-zo-na txa-pel-ke-

gi - zo - na

zo-ra-ga-ri-a poz-ten di-gu-na bi-otz guz-ti-a

poz-ten di-gu-na bi-otz guz-ti-a

tan zo-ra-ga-ri-a bi-otz guz-ti-a

bi - otz guz - ti - a

1 2

Eus - kal - e a. Go - ra - tu de - za - gun gaur ber - tso - la - ri - a

a. Go - ra - tu de - za - gun gaur ber - tso - la - ri - a

a. Go - ra - tu de - za - gun gaur ber - tso - la - ri - a

a. Go - ra - tu de - za - gun gaur ber - tso - la - ri - a

e - ta be - re - kin gu - re hiz - kun - tza mai - te - a — ber - tso - la - ri - guz -

e - ta be - re - kin gu - re hiz - kun - tza mai - te - a — ber - tso - la - ri - guz -

e - ta be - re - kin gu - re hiz - kun - tza mai - te - a — ber - tso - la - ri - guz -

e - ta be - re - kin gu - re hiz - kun - tza mai - te - a — ber - tso - la - ri - guz -

ti a - gur poz - ga - ri - a. Go - ra - tu de - za - gun da - nok  
 ti a - gur poz - ga - ri - a. Go - ra - tu de - za - gun da - nok  
 ti a - gur poz - ga - ri - a. Go - ra - tu de - za - gun da - nok  
 ti a - gur poz - ga - ri - a. Go - ra - tu de - za - gun da - nok

Eus - kal - e - ri - a. Go - ra - tu - a. A - u - rre - ra. be - ti au - rre -  
 Eus - kal - e - ri - a. Go - ra - tu - a. A - u - rre - ra. be - ti au - rre -  
 Eus - kal - e - ri - a. Go - ra - tu - a. A - u - rre - ra  
 Eus - kal - e - ri - a. Go - ra - tu - a. A - u - rre - ra

Musical score for the first system, featuring piano accompaniment on four staves. The music is in a major key and 4/4 time, with a tempo marking of 'Allegretto'.

Musical score for the second system, including vocal lines and piano accompaniment. The lyrics are: ra go-ra ta go-ra txa-pel-du-na ber-tso -

ra go-ra ta go-ra txa-pel-du-na ber-tso -

be-ti au-rre-ra go-ra txa-pel-du-na ber-tso -

be-ti au-rre-ra go-ra txa-pel-du-na ber-tso -

Musical score for the third system, featuring piano accompaniment on four staves. The music continues with a similar melodic and harmonic structure.

Musical score for the fourth system, including vocal lines and piano accompaniment. The lyrics are: la-ri ja-to-rra. E-us-kal-e-rin da-no-nen

la-ri ja-to-rra. E-us-kal-e-rin da-no-nen

la-ri ja-to-rra. E-us-kal-e-rin da-no-nen

la-ri ja-to-rra. E-us-kal-e-rin da-no-nen

Piano accompaniment for the first system, consisting of four staves. The music is in a major key and 4/4 time. It features a mix of eighth and sixteenth notes, with some rests and dynamic markings.

Vocal and piano accompaniment for the second system. The vocal line is on the top staff, and the piano accompaniment is on the bottom three staves. The lyrics are: ku - tu - na. A - u - rre - ra. be - ti au - rre - ra. The music is in a minor key and 4/4 time.

Piano accompaniment for the third system, consisting of four staves. The music is in a major key and 4/4 time, featuring a mix of eighth and sixteenth notes.

Vocal and piano accompaniment for the fourth system. The vocal line is on the top staff, and the piano accompaniment is on the bottom three staves. The lyrics are: go - ra ta go - ra Eus - kal - e - rri - a. The music is in a minor key and 4/4 time.

**ARKIBIDEA**

GAI BEREZIAK .....	9
<i>Bere buruari</i> .....	11
<i>Mutilzar</i> .....	22
<i>Izadia</i> .....	34
<i>Gure gizonak</i> .....	40
<i>Bertsolaritza</i> .....	53
<i>Euskal-Erriaren kezka</i> .....	55
<i>Gure erriak</i> .....	64
<i>Aurrak</i> .....	69
<i>Lana eta baserria</i> .....	72
<i>Fedea</i> .....	75
<i>Agurrak</i> .....	77
LAGUN BERTSOLARIEKIN .....	85
<i>Gipuzkoako Bertsolari Berrien Txapelketa (1959-IX-9)</i> .....	89
<i>Ez nintzan azi gazterik</i> .....	92
<i>Praille izana eta ez izana</i> .....	93
<i>Baserritarra eta tratantea</i> .....	94
<i>Txakurra eta lapurra</i> .....	95
<i>Mutilla ala neska?</i> .....	96
<i>Soldadua eta neskamea</i> .....	97
<i>Maiorazkoa eta kaleko neskatxa</i> .....	99
<i>Pistoleroa eta bankeroa</i> .....	100
<i>Pakea</i> .....	102
<i>Testamentua</i> .....	103
<i>Ezkongaiak</i> .....	105
<i>Gipuzkoa</i> .....	106
<i>Astoa ostu</i> .....	108



<i>Artzaia eta ardi-zakurra</i> .....	109
<i>Bahamontes eta Loroño</i> .....	111
<i>Bat aukeratu bearra</i> .....	115
<i>Esana libre</i> .....	117
<i>Txirritaren omenez</i> .....	121
<i>Ameriketara</i> .....	124
<i>Ama eta seme jaio berria</i> .....	126
<i>Minbiziduna, medikua eta enplasteroa</i> .....	127
<i>Baimenik gabeko egurra</i> .....	129
<i>Lau anai</i> .....	130
<i>Urrutiko intxaurrak</i> .....	135
<i>Aitona eta billoba</i> .....	136
<i>Artzai-mutilla eta artzaia</i> .....	138
<i>Morroia eta etxeoandrea</i> .....	139
<i>Apaiza eta tabernaria</i> .....	140
<i>Nor errudun?</i> .....	142
<i>Andregai beltza</i> .....	145
<i>Osaba-illobak</i> .....	147
<i>Itz-bideak</i> .....	149
<i>Gai librean</i> .....	152
<i>Dantzari txikietatik asita</i> .....	157
<i>Kalifornira</i> .....	161
<i>Erabakia artu bitartean</i> .....	163
<i>Ezkonberria gerrara</i> .....	166
<i>Aur geiegi</i> .....	167
<i>Bertso-afari batean</i> .....	169
<i>Dendaria, etxeoandrea eta polizia</i> .....	172
<i>Eroslea eta mugazaiña</i> .....	174
<i>Esanak esan lagun</i> .....	175
<i>Kalabazaren auzia</i> .....	183
<i>Katua eta saga</i> .....	184
<i>Aingeru-zaleak eta abar</i> .....	185
<i>Bertso-kantaria eta serenoa</i> .....	189
<i>Bat barrura, bestea kanpora</i> .....	190
<i>Uste gabeko bazkaldarra</i> .....	191
<i>Neskamea ala morroia</i> .....	192
<i>Magnetofonoa eta abar</i> .....	193
<i>Basarria</i> .....	196

<i>Aita eta alaba</i> .....	201
<i>Noiz ezkondu?</i> .....	203
<i>Mutilzar aberatsa eta neskamea</i> .....	204
<i>Neska bat eta bi mutil</i> .....	205
<i>Aitona eta billoba</i> .....	207
<i>Senar-emazteak apartatzera</i> .....	208
<i>Kanpotik etorri eta...</i> .....	209
<i>Pake-egilleak</i> .....	210
<i>Nolabaiteko senar-emazteak</i> .....	212
<i>Senar-emazteak</i> .....	213
<i>Amalauko kiniela</i> .....	214
<i>Iñauteria eta garizuma</i> .....	215
<i>Testamentua</i> .....	217
<i>Korrika-apustua</i> .....	218
<i>Etxean zeïnek agintzen?</i> .....	219
<i>Sorgiña</i> .....	220
<i>Karterista</i> .....	221
<i>Gerrikoak estutu bearra</i> .....	222
<i>Lan billa</i> .....	223
<i>Emakumezkoak lanean</i> .....	224
<i>Maisuak</i> .....	225
<i>Nola zuzendu leike au?</i> .....	227
<i>Txantxangorria eta kukua</i> .....	228
<i>Azeria eta oilloa</i> .....	229
<i>Praille</i> .....	230
<i>San Inazio kalean paseatzen</i> .....	231
<i>“Nezkazar bat tentatzen...”</i> .....	233
<i>Jomeini eta neska amerikarra</i> .....	234
<i>Ezkonberrien kezkak</i> .....	235
<i>Neska eta sendagillea</i> .....	236
<i>Andrearen galtza gorriak</i> .....	237
<i>Botikarioa eta neska lapurra</i> .....	239
<i>Frailea eta txoferra</i> .....	240
<i>Erretora eta bikarioa</i> .....	241
<i>Zoriontsuak</i> .....	242
<i>Karakola eta barea</i> .....	243
<i>Mandazaia eta bi mando</i> .....	245
<i>Senar-emazteak</i> .....	247

<i>Galtzak ia galduan</i> .....	249
<i>Desafioak</i> .....	250
<i>Txakurrak babarrunak jan</i> .....	251
<i>Asto-tratua</i> .....	253
<i>Andregaiak ezetz</i> .....	254
<i>Gezur kontari</i> .....	256
<i>Alderdi onak eta txarrak</i> .....	257
<i>Bizarra</i> .....	260
<i>Neska-mutillak ondartzan</i> .....	262
<i>Mattin, nere gizona liburua</i> .....	263
<i>Erlekistenduna eta kuranderoa</i> .....	264
<i>Ajentziatik ezkontza</i> .....	265
<i>Itxua eta itxu-aurrekoa</i> .....	266
<i>Aguazilla eta larru gorrizkoa</i> .....	267
<i>Mutil pobrea eta neska aberatsa</i> .....	268
<i>Mantak erosten</i> .....	270
<i>Eiztariaren okerra</i> .....	272
<i>Bertso-liburua irakurtzen</i> .....	273
<i>Aizkorritik Txindokira egan</i> .....	274
<i>Alde egindako aita</i> .....	275
<i>Bordari zanari</i> .....	276
<i>Neska bat dala merio</i> .....	278
<i>Alemanitik ekarritako robota</i> .....	279
<i>Apaiz egin?</i> .....	281
<i>Bon vino, bona mesa, bona hembra</i> .....	283
<i>Aiton-amonik gazteenak</i> .....	284
<i>Emakume alargunak</i> .....	285
<i>Bilboko ferian</i> .....	287
<i>Nork bota du?</i> .....	289
<i>Lege zelebrea</i> .....	291
<i>Pentsiño bardiña</i> .....	292
<i>Zortzireun milla lanpostu berri</i> .....	293
<i>Kontseju eske</i> .....	294
<i>Gitarra bizkarrean</i> .....	296
<i>Sultan txikia</i> .....	298
<i>Sebillan bost egun</i> .....	300
<i>Plater garbiketa</i> .....	301
<i>Baloia galtzarbetik</i> .....	302


<i>Eguraldi sargoria</i> .....	304
<i>Txikiaren bentajak</i> .....	306
<i>Uztapide lagunari</i> .....	307
<i>Egunkariko iragarkia</i> .....	308
<i>Txerria il bearra</i> .....	310
<i>Kitarra joz eskean</i> .....	312
<i>Galtzak eta gabardina</i> .....	313
<i>Tentsio altua eta bajua</i> .....	314
<i>Oporraldia</i> .....	315
<i>Oillar zaarra eta oillar gaztea</i> .....	316
<i>Semea Arantzazura</i> .....	317
<i>Egun aizetsuak</i> .....	318
<i>Aguazilla eta saltzaillea</i> .....	319
<i>Inpuestorik ez ordaintzen</i> .....	321
<i>Baserritarra eta satorra</i> .....	323
<i>Bultzaka</i> .....	324
<i>Umezurtza</i> .....	326
<i>Aita-semeak</i> .....	329
<i>Bion artean eun bat kilo justu</i> .....	331
<i>Pezeta eta dolarra</i> .....	333
<i>Sendagillearengana</i> .....	335
<i>Aiton-amonak</i> .....	336
<i>Alemanira joan bearrean</i> .....	338
<i>Lenengo andrearekin topo</i> .....	340
<i>Ezezkoa</i> .....	342
<i>Oilloak falta</i> .....	344
<i>Udaberria eta udazkena</i> .....	346
<i>Arroketan eguna pasa ondoren</i> .....	348
<i>Bi mediku eta gaixoa</i> .....	350
<i>Legortea dala bide</i> .....	352
<i>Bi abertzale, bi alderdi</i> .....	353
<i>Ezkontzaren lanak</i> .....	354
<i>“¡Te quiero, Jose Migel!”</i> .....	356
<i>Zaragi ardoa</i> .....	358
<i>Iñudea eta aurra</i> .....	360
<i>Domadorea eta legoia</i> .....	362
<i>Mutilzar ondo bizitzen al da?</i> .....	364
<i>Ardao barik</i> .....	366

Zarauzko ondartzan .....	367
Aita-semeak .....	368
Tabernatik ikastoletara .....	370
Baserriko bi anai .....	371
Norengana joan? .....	373
Auteskundeen aurrean .....	374
Txoferra eta monja .....	376
Gasolinera batean .....	378
Txerria erretzen .....	380
Igeltseroa eta etxekoandrea .....	382
Ajeak ere agertzen .....	383
Animalirik gogozkoena .....	385
Txakurren otela .....	387
Gazi-gezak .....	389
Diru billa .....	390
Ajentzia baten bitartez elkartu .....	391
Limosna eske .....	393
Mitxelena eta Lekuona .....	395
Europa batua .....	396
Aurtxo negarrez .....	398
Atea tranka emonda .....	400
Txoferra eta artzaiña .....	401
Montekristoa piztuta .....	402
Billoba eta amona .....	403
Saltzailleak .....	404
Eskupekoa .....	406
Aitona buru makur .....	408
Mutil gaztea eta mutil zarra .....	410
Dantza irakaslea eta ikaslea .....	411
Ezkontzaren alde ta aurka .....	413
Lorea eta listorra .....	416
Ederra eta listoa .....	418
Lazkao-Txikiren bigantxak .....	420
Paper zimurra .....	423
Donadoen alde .....	424
Aments saltzailea .....	425
Diruzalea eta andrezalea .....	426
Gorvachof eta Aita Santua .....	428

<i>Lotsa</i> .....	429
<i>Testamentua</i> .....	431
<i>Deabrua eta aingerua</i> .....	433
<i>Erlojuko bi orratzak</i> .....	435
<i>Maixua eta ikasleak</i> .....	437
<i>Oe-buruko irudia</i> .....	439
<i>Gora ala beera?</i> .....	441
<i>Txantxangorria eta kukua</i> .....	443
<i>Bi ama gazte</i> .....	445
<i>Lodia eta flakoa</i> .....	447
<i>Lengo eta gaurko bizitza</i> .....	448
<i>Ensalada mixta</i> .....	450
<i>Udazkena eta udaberria</i> .....	452
<i>Santa eskean</i> .....	454
<i>Eguraldia</i> .....	456
<i>Zer moduz eskolan?</i> .....	458
<i>Pañueloa lurrera</i> .....	460
<i>San Antoniok emana?</i> .....	463
<i>Apartatu naian</i> .....	465
<i>Gorrotoduna eta kontzientzia</i> .....	467
<i>Oe ezberdiñetan</i> .....	468
<i>Gernikako arbola gaixorik</i> .....	471
<i>Nuarbeko pantanoa</i> .....	473
<i>Zikiñak botatzera bialdu ta...</i> .....	474
<i>Leengo maixua eta ikaslea</i> .....	476
<i>San Fermiñetan</i> .....	478
<i>Ametsetan</i> .....	480
<i>Txirindulariak</i> .....	482
<i>Errifako txerria</i> .....	484
<i>Erlea eta lorea</i> .....	486
<i>Neska-mutillak</i> .....	487
<i>Ama-semeak dantza-lekuan</i> .....	488
<i>Kotxea aberiatutakoan</i> .....	490
<i>Mitxelena bizikletan</i> .....	491
<i>Aoz-aoko arnasa</i> .....	492
<i>Gerrara joan bearra</i> .....	493
<i>Polizia eta droga-saltzaillea</i> .....	494
<i>Polizia eta txoferra</i> .....	495



1010610  
80-3969-11





Berezko doai ori zuan Lazkao-Txikik: edozein leku, une eta egoeratan bere zukua eta bere aria ateratzea.

Batean, otsail-martxo ingurua omen zan; eta bere base-  
rrian katuak miauka zebiltzala eta onela zion:

— Gure etxe inguruan bazebillek katar aundi bat, eta  
ala esaten dik: “Ni nork nai nauuuu? Ni nork nai nauuuu?”

*(Mikel Mendizabal bertsolaria, Itsasondo)*

\* \* \*

Beste batean, Lazkao-Txiki mendi-bidean gauez zijoala,  
goardiazibillak oiukatzen diote:

— ¡Alto!

Eta Joxe Migelek erantzun:

— ¡Yo no!

*(Juan Dorronsoro, Bertsotan, II)*

Batean, eskolan zebillela, maistrak esan omen die:

— Alako egunetan Donostira joango gera eskurtsioan. Baiña kontuz mareatzearekin! Mareatzen dana ez degu eramango!

Gustora gure Joxe Migel, aurreko egunetatik prest jarrita. Baiña autobusean bein ere ibili gabea eta ez omen zekian mareatzea zer zan.

Ala, eguna etorri, autobusean sartu eta abiatu dira. Baiña Lazkao-Txiki gizarajoa berealaxe jarri omen zan kezketan. Etxeak eta arbolak-eta, izan ere, mugitu egiten ziran. Atzera-ka zetozen.

Joxe Migelek bere artean, ikaratuta: “Ni mariatu egin nauk! Etzidak, ba, maistrak antzik emango!”

Sartu omen zuan aulki azpian burua eta, Donostian gelditu arte, ez omen zuan geiago atera bururik gora, mareatu zalakoan.

*(Jose Antonio Mujika, Ordizia)*

\* \* \*

Gure Joxe Migel, ama il zitzaionean, kalera jetxi omen zan kaja enkargatzera.

An ikusi du erriko emakumeren batek. Ura ere jakiñean noski ama il zitzaiola, eta onela esan omen zion:

— Ai, Joxe Migel! Ama joan zaizue orduan?

Eta onek serio-serio erantzun:

— Ez ba! Oraindik etxean dago!

*(Jose Luis Gorrotxategi bertsolaria)*

\* \* \*